



KEREXETA

**ELIZ-GURASO
APOSTOLIKUAK**

KEREXETA'TAR JAIME

**ELIZ-GURASO
APOSTOLIKUAK**

**EDITORIAL
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
BILBAO, 1975**



Euskeratzaille:

Kerexeta'tar Jaime, abadea, Euskaltzaindikoa.

Marrazlari:

Etxart'ar Eguzki eta *Gallastegi'tar L.*

Nihil obstat:

Garai'tar Yosu, Eliz-aztertzailea.

Imprimatur:

Añoberos'tar Andoni, Bilbo'ko Gotzaiña.
Bilbo'n, 1974, Orrillak 16.

Argitaratzaille:

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca.
Calzadas de Mallona, 8, 2.º - Tels. 238603 y 248793.
Bilbao (6) Apdo. 1.510.

Depósito legal: BI 744 - 1975

I. S. B. N. : 84 - 248 - 0196 - 2

Irar-lantegia:

Gráficas Bilbao.
Gordóniz, 28. BILBAO (12).

SARRERA BEZALA-EDO

Zaitegi eta Plazaola-tar Iokin-ek, Ph. D.

Antxinako mundu zaarretik XX'garren mende berri egon-ezinera etorri natorkizu, burua burutapenez gainezka, biotza jaungoikoaganako ta lagunurkoarenganako maitasunez sutan.

Urte asko duela, gaztetan eladeraz irakurri nituen apostoluen Eliz-gurasoak (1), euskeraz irakurri-berriak ditut, Kerexeta, Elorrio-ko seme adoretuari esker.

Liburu-gaia adiskide bezala irakurtzeko utzi didanez gero, bearrezko ez izanarren, buru-biotzak eman-ala txosten au bidali diot, sarrera bezala-edo ezar dezaken, nai izango balu: bestela, paper-zaar saskira bota ta beti bezain adiskide iraungo dugu, niketz, beinik-bein.

XVII'garren mendez gero, apostoluen Eliz-gurasoak izenez, Kristoren gero-roko leenengo mendearen azkenaldeko ta bigarren mende-asierako kristau idazleak izentatzen dira: apostoluak ezagutu aal izan zituzten, naiz apostoluen ikasle izanak entzun aal izan zituzten idazleak izentatu ere. Ezta idazle mordorik, gutxi baizik, eta an-or-emengo bazterretan barreiatuak: Erroma, Asia txiki ta Siria-koak.

Guziok eladeraz idazten zuten, orduko erri-eladera arruntean koiné deritzan eladeraz, alegia. Gelditu zaizkigun agirietan agertzen denez, kristauen liturgi-izkera bakarra ori izan baitzen irugarren mendearen erditsuraino-edo. Geienek darabilten gaia kristau senideei egindako gutun, aolku ta itzaldiak dira. Orduko kristau idazleok eztute ar-emanik kristau ezten beste literaturarekin. Bearbada ezagutu ere etzuten egiten, edo-ta ez-ezagunarena egiten dute bederen, erabat artuta.

(1) *Apostoluen Eliz-gurasoak*, edo *Apostoluen Aldiko Eliz-gurasoak*, edo *Eliz-guraso Apostolikuak* = *Padres Apostólicos*, erderaz. (Euskeratzaillearen oarra).

Eztira oso ikasiak. Diogneto-ri idazkia idatzi zuena nor daiteken eztakigu arean: Alexanderi-ko ikasiren bat da orren egile, nonbait. Kristauak erabili duten eladerarik ederrena darabil berorrek. Egilea nor den ez iakin-arren, kristau ikasia zen baldinbaitere: erretorikaren aginduak eta bideak ezagunak ditu: bestalde, buru-biotzetan darabilena adierazten mutila da: urrenez urren, argi ta garbi ta ederki ematen du.

Gainera, kristau-idazleok eztira burrukalari, geroko apologilariak bezala; kristau-fedea onartu ta kristau-biziera daramaten kristau senideei zuzentzen die: buru-biotzak Testamentu zaar eta berriko esanetan zaletu ta uieldurik bizi ziren idazleok, jaungoikoak esandako itzetan, alegia.

Beraz, garrantzi andiko lanak dira, baitik-bat orduko Elizaren biziera ezagutzeko: ta batez ere Erroma-ko Klemente-rena Korintotarrei ta Antiokia-ko Iñazio-renak: bertan ageri da Erroma-ko gotzainaren Eliz-leentasuna ta nagusitasuna. Orobat orduko eliz-agintarrietan iru mailako agintariak bereizten ditu Antiokia-ko Iñazio-k, ta oraingo aldetara bereizi ere, gotzain, apaiz ta diakono, alegia.

Beste oartxo bat gaineratu nai nuke. Orduko kristauak ere erabat zapalduta bizi ziren Erroma-ko erri-agintari ankerren menpean: eta zapaldutakoen bide zuzen eta arrixkutan bizi ere. Orietako iru, urteetan aurreratutakoak, kristau zirelako il egin zituzten, Klemente, Polikarpo ta Antiokia-ko Iñazio: irurak gotzain gainera: benetan erakusmeneko gizonak eta jaungoikoz beteak. Ain zuzen, Polikarpo il zuteneko martiri-txostena, kristau-martirien arteko txostenik zaarrena dugu kristauok. Argi ta garbi ageri denez, begiz ikusi zuen kristauren batek idatzitako txostena: benetan biotz-erdiragarria ta gogo-xuspergarria kristau-sinestean eta elkar-maitasunean bizi nai dugunontzat, oraingo ta betiko arrixkutan.

Orduko zapaltzaileak gora-beera, zapaldutako kristauak elkarren artean txosten eta benetako Berri ona zabaltzen ari ziren eten gabe: orduko sasi-agintariak, sasi-agintari zaleek besterik uste izan-arren, eskubide gabe ari ziren kristauon aurka, gizona den gizonak argi ta garbi ikusten duenez. Indarkeriaren bidea ezpaita egundaino egiaren ezagugarri gertatu. Alare, lan oporra izan dute langileek geiago irabazi ta gizonago bizi aal izateko bide zuzena; lan-oporra, berriz, ezpaita indarkeria, langilearen eskubidea baizik.

Apostoluen Eliz-gurasoak nortzu diren eta bakoitzari datxizkion zertzeladak eta bereizgarriak, Kerexeta ikasiak bat-bederari ezarri dizkion adierazpen eta orren bidez ikas ditzakezute.

Kerexeta-k egin du euskeralpen eder au. Aspaldidanik euskal-idazle ta olerkari bezala ezaguna dugu Bizkai-ko euskal-idazleen artean. Itun Berria euskeratua du. Gizon egin-egina da, egile ta eragile bizkorra: lanerako ta ekinerako

gizona. Bizkaieraz ematen den mezetan Kerexeta-k itzulitako irakurgaiak erabiltzen dira. Liburu au amaitu orduko, Testamentu zaarra bizkaierara itzultzen diardu orain.

Bizkaieraz diardutenen idazleen artean oso aiputan artzekoak ditugu: besteak beste, orietzek bururatzen zaizkit: Urrutia-tar Gotzon, Manterola-tar Gabirel, Larrakoetxea anaeak, Onaindia, Akesolo, Zarate, Xalokin, Goiria, Berrio-Otxoa, Erkiaga, Andrinua, Zubikarai, Arenaza, Arteaga, Aurre-Aprreiz, Beiztegi, Berriatua, Ziarsolo, Etxaburu, Etxenagusia, Aita Pirmin, Etxebarria, Goikoetxea, Gamiz eta abar. Orien arteko dugu Kerexeta. Talde ederra baino ederragoa.


Sain berria urratu digu Kerexeta-k: badu abagunearen sen ederrik. Erroma-ko Eliz-batzarre nagusiaren ondoren, gutartean ere Eliza berrituz ari da Erroma-koaren asmoetara. Batez ere, liturgia osoa euskeraz ematen da, bataioak, meza, iaun-artzeak, estaiak, egunoroko agurtza-ta. Euskerak inoiz izan ez tuen egokiera geure egunotan iritxi du. Euskaldunak tarteko direla ematen diren mezak entzungarriak dira, batez ere gure erritako meza nagusiak biotz-erdiragarri dira, izan ere.

Berezkoa denez, loraldi orrek kristau izatea bera sakonagotu ta ederragotu egin bear, baitik-bat elkarrekiko begirunean, elkar-maitasunean, zuzentasunean eta nolabaiteko askatasunean.

Apaiz, fraile, moja etxetan ere otoitz-izkera, irakurgai-izkera ta etxeko izkera euskera izaten asi da. Beste biderik eztauka euskaldunak jaungoikoaren morroi ta semetzako izan nai badu: jaungoikoarengandik artu duen nortasuna, galdu-bearrean, bikainagotu egin bear du. Orretarako bearrezko du euskera: euskaldunago bilakatu-ala, kristauago gerta gaitezken: berez datorkigu alde onak obetu egin bear ditugu. Oraingo fraile ta apai-gaiek eztute euskerarik baztertzen eskuarki: baztertu ez, areago ikasi baizik. Euskeraren bidez ere beste gaiak oro sakonago ikas ditzakete: latina, eladera, filosofi, teologi, liturgi, idazteun, Elizaren kondaira ta beste gaiak. Urratsez-urrats orretaraxe goaz eta oraingo euskaldun gazteak orixe opa du eskubide osoz.

Apologilariak eta Eliz-gurasoak taldean euskeratu bear genituzke: berreun bat euskal-idazle bear izango genuke, bakoitzak bere egitekoa aukeratu ta burutzeko: orretarako izan bear genuke euskal-idazle elkarrea: orobat Elade-ko ta Erroma-ko klasikoak euskeratzeko.

Aoai-ikastola nagusirako liburuak euskeraz egin bear ditugu: onatx bat ederra baino ederragoa, Kerexeta-k egina. Zorionak upelka gure buru-langile bizkorrari.



APOSTOLUEN SINISKUNTZA

SARRERA

«Apostoluen Siniskuntza» deritzona (1), Elizaren leenengo aldietatik datorkigu, Apostoluakandik eurakandik.

Alan be, V'garren gizaldirarte, ez zan idatzita gelditu; aldi aretan bai, idatzita ezagutzen zan, Arles'ko Zesarco'ren autorrez dakigunez. Eta orixe darabil gaur bere gure Eliza Amak.

Jesukristo'ren Elizako atea, Bateoa da; baiña bateoa artu baiño len, sinismena bear da. «Iragarri ta bateatu!», agindu eban Jaunak (2). Eta alan, bateoa artu gura ebenak, Ebanjalioko ikasbidea aurretiaz ikasten eben, Apostoluen agoz: Kristau-Elizak, lenengo-leenengotik, egia batzuk sinistu daitezala agintzen dau-ta. Irakasbide ori, agoz egiten zan: «Fides per auditum», sinismena entzumenaren bidez. Orrela, sinismen-autorra biotzetan gordeteko zan, ez pergamiñoetan.

Orrezaz gaiñera, lenengo kristauak ardura aundia izan eben euren fedeko gai ezkutuak arerioen eskutara joan ez zeitezan: «Ez emon donetua txakurrai!», irakurten dogu Barri Onean (Mat. 7, 5), baita Didajé'n be (IX, 5). «Apostoluen Siniskuntza» edo «Kredo» be oso gai ezkututzat euken, eta kristau-barriak buruz ikasten eben. Jerusalem'go Zirilo'k, kristaugeiari siniskaia emotean, auxe dirautso: «Gai ezkutua emoten dautsugu ta geroko bizitzako itxaropena»; eta ori, 348'garren urtean (3). Gaiñera, kristau ez ziranai orretzaz ezer be ez esateko agintzen dautse, eta papelean be ez idazteko (Cat., V, 12).

Orrela, jakiña, lenengo iru gizaldietan ez da «Apostoluen Siniskuntza» oso-osorik aurkitzen, idatzita beintzat, or-emen zatika-zatika izan ezik.

«Apostoluen Siniskuntza» au 100'garren urte aurretik izan zan egiña, Pedro deunaren ondorengoren batek eginda, Ebaristo'k, bosgarren Aita Santuak, urtean.

Erroma'tik Aprika ta Prantzia'ko lurraldeetara zabaldu zan; Polikarpo'k Asia Txiki'ra eroan eban, eta III'garren gizaldian, zerbait geitua, Siria'ra ta Ejipto'ra eldu zan.

(1) Erderaz, «Símbolo Apostólico». «Erroma'ko Siniskuntza» izenaz be ezagutzen da. Itzez-itzez: gerkeraz, *symbolon* = ezaugarria; edo-ta, *symbolé* = sorta. *Siniskuntza* = sinisgai-sorta.

(2) Mat. 28, 19. Ikusi «Apostoluen Egiñak», 8, 36-39.

(3) *Procatequesis*, 12'gn. atalb. — 386'garren urtean il zan.

«Codex Laudianus» eta «Psalterium Aethelstani»

Sartzaldean, Siniskuntza'ko erarik antxiñakoena Akileio'ko Errufino'ren bidez artu genduan, 400'garren urtean idatzitako bere *Expositio Symboli* agerkaian. An irakurten denez, eliza batzuetan siniskuntza orri zertxobait geitu dautsoela diño; baiña Erroma'n ez dala orrelakorik jazoten (4).

Errufino'ren aitaturako Siniskai-sorta ori, 333-339'garren urtean Aita Santu Julio Pari Martzelo'k, Anzira'ko gotzaiñak egin eutsan idazki entzutetsuan aurkitzen da, latíñez; eta zertxobait izan ezik, Tertuliano'k eta Hipolito'k autortzen daberen Erroma'ko Siniskitza berbera da oso-osorik (5).

J. Usher'ek (*Usserius*) —1956'garren urtean il zan Armagh'eko goigotzain anglikanoak—, *Erroma'ko Siniskuntza* eskuidatzi bitan aurkitu eban: gerkeraz (baiña gotiko izkiz), *Psalterium Aethelstani* izenekoan, IX'garren gizaldiko lenengo urteetakoa; eta latíñez, *Codex Laudianus* izenekoan, VII'garren gizaldiko lenengo urteetakoa. Barrukoa, biak bardin dakarre. Aztertzailleak diñoenez, C. P. Caspari'k eta Kattenbusch'ek batez be, idatzi biok inglesak Erroma'tik zuzen-zuzen bialduta artu ebezan —Erroma'tik joan yakeezan joan be Barri Ona iragartera— (6). Ortik be ba-dakigu Erroma'ko Eliz(e)ak antxiñako siniskuntza ezertxo be aldatu bagarik erabili dauana, Gregorio Aundia'ren aldirarte. Ieki biok —Martzelo'renak eta Usher'enak— III'garren gizaldi erdikoak baiño lenagokoak zirala baieztu zan.

Alan be, Usher'en *Psalterium Aethelstani* iekia Martzelo'rena baiño jatorragoa da —Martzelo'renak, lenengo siniskaian «Aita» ez dakar; «eta betiko bizitza» geitzen dautso, ostera. Biak, idazlariaren uts-egiñak.

Ona emen, orain, *Codex Laudianus*, latíñez, eta *Psalterium Aethelstani* gerkeratik biurtuta.

Codex Laudianus

Credo

- I. In Deum Patrem omnipotentem;
- II. Et in Christo Jesu (7), filium eius unicum, Dominum nostrum,
- III. Qui natus est de Spiritu Sancto et Maria virgine,
- IV. Qui sub Pontio Pilato crucifixus est et sepultus,
- V. Tertia die resurrexit a mortuis,
- VI. Ascendit in coelis,

Sinisten dot

- I. Jaungoiko Aita guztiz Aaltsua;
- II. Eta Jesu-Kristo, Aren Seme bakar, gure Jauna,
- III. Espiritu Santuagandik eta Maria Birjiñagandik jaio zana,
- IV. Pontzio Pilato'ren menpean gurtzean josia ta obiratua izan zana,
- V. Irugarren egunean illen artetik barriro biztu zana,
- VI. Zeruetara igo zana,

(4) *Expos. Symb.*, 2'garren atalb.

(5) L., I, 64 ta abar.

(6) Martzelo au, Nizea'ko Eliz-batzar Nagusian Atanasio deunaren alde sutsu egin ebana da; geroago, Irutasunari buruzko gaietan bide okerrera jo eban. 374'garren urtean il zan. Martzelo'ren idazkia, Txipre'ko Epifanio'ren *Panarion haer.* (*Adversus haereses*) liburuan dator, 72'garren orri.

(7) Emen datozan gramatika-utsegin batzuk, ez dira idazlariarenak ezta irarkolakoak be, latin izkuntzarenak berarenak baiño.

(*) Sartzalde: Occidente.



- | | |
|--|---|
| VII. Sedet ad dextera Patris: | VII. Aitaren eskumaldean jesarrita dagoana: |
| VIII. Unde venturus est iudicare vivos et mortuos. | VIII. Andik biziak eta illak epaitzeta etorriko dana. |
| IX. Et in Spiritu Sancto, | IX. (<i>Sinisten dot</i>) (8) Espiritu Santua, |
| X. Sancta ecclesia, | X. (<i>eta</i>) Eliza Santua, |
| XI. Remissione peccatorum. | XI. Pekatuen parkamena, |
| XII. Carnis resurrectionis. | XII. Aragiaren biztuera. (<i>eta betiko bizitza</i>) (9). |

Amen.



(8) Mako-barruetakoa, obeto ulertzeko izan da jarria.

(9) Martzelo'renak geitutakoa; alan be, geroagoko siniskuntzetan beti erabili izan da.



D I D A J E

edo

AMABI APOSTOLUEN IRAKASPENA

S A R R E R A

«Amabi Apostoluen Irakaspena» izeneko liburutxo —laburrago «Didaje» gerkar izenez ezagutzen dana—, Eliza Ama Deunaren Kanon barruan ez dagozan kristau-liburuetarik antxiñakoena da, Alkartasun Barriko liburu batzuk baiño zaarragoa be bai, antza.

Elizaren leenengo aldietan oso begirune aundia eutsoen, eta kristau guztiak erabillan eskuetan, bere lorraiza geroago idatzi ziran liburu guztietan agertzeragiño.

Aurkitzea

Geroago, alan be, liburutxo onen aztarrenik be az zan geratu, guztiz galduta egoala uste izateragiño. Azkenengoz, XI'garren gizaldiko kodize baten geratu zan, 1095'garren urtean Leon izeneko idazlari batek egindako ieki edo kopia baten. Eta arrezkero, gizaldietan, ixil-ixilik eta galduta egoana, Filoteos Bryennios, Nikomedia'ko gerkar goigotzaiñak Konstantinopla'ko liburutegi baten, 1875'garren urtean, aurkitu eban. Kodize orrek, Erroma'ko Klemente deunaren Idazki biak eta Bernabe'ren Idazkia dakaz, gaiñera.

Zortzi urte geroago, 1883'garren urtean, Bryennios berak argitaratu eban leenengoz Konstantinopla'n gerkerazko idazpuru onezaz: «Amabi Apostoluen Irakaspena, Jerusalem'go Idaztiak dakarrenez...»

Idazpurua

Liburutxo onek, Jerusalem'go idaztian, idazpuru bi dakaz: bata, laburra: «Amabi Apostoluen Irakaspena»; eta bestea, luzea: «Amabi Apostoluen bidez Jaunaren Irakaspena atzerriai». Bigarren au da, antza, idazpuru jatorra, leenengoa azken onen laburpena izanik. Geienak, orraitioño, idazpuru laburra erabilli dabe, edo-ta «Didaje» bakar-bakarririk.

Egillea

Nok idatzi ete-ebau «Didaje» liburutxo? Egillearen izenik ez dakarrenez, ez dakigu

nok idatzi eban. Idazpuruak ez dau adierazoten Amabi Apostoluetarikoren batek idatzi ebanik: bertako irakaspen-mamiña, Apostoluen bidez, Jesus Jaunaganagiño beraganagiño eltzen dala baiño.

Jacquier'ek diñoanez, judartartetik etorritako kristauen batek idatzi eban, «Jaunaren anai-lengusu» zan Santiago'ren lagunen batek, antza. Baiña, ori be ez da eritzi zigurra.

Non idatzi zan?

Lenengotan, batzuek Ejipto'n (*Alejadria'n*) idatzi zala uste izan eban, geien-geien antxe erabilli zan ezkerro. Baiña, «mendietan zabalduetako garia» (IX, 4) irakurtean, Ejipto ezin zeitekean, an mendirik ez dago-ta.

Geienak, Siria'n (Antioxia'n) edo Palestina'n idatzi zala uste dabe, Antioxia'n batez be. Antioxia zan, izan be, apostoluen, profeten eta irakasleen Eliza nagusia; Antioxia zan «irakasle ibiltarien» leku aukeratua; Antioxia'n askatu zan Eliza sinagogatik, eta antxe artu eban lenengoz Kristo'ren jarraitzaileak «kristau» izena (*Apost. Egiñak, 11, 26*). Didaje'k be ba-dakar «kistau» izen ori (*XII, 4*).

Noiz idatzi zan?

Ori be ez da jakiteko erraz.

Didaje, Bernabe'ren Idazkia ta *Hernas'en Artzaiña*, irurak alkarren ondokoak dira; baiña *Didaje* irurotarik aurrenengoa, antxiñakoena, itxuraz.

Bryennios'ek, Harnack'ek eta J. Muilenburg'ek 120'tik 160'garren urte bitartean jarten dabenarren, Funk'ek eta oraingo aztertzaillerik jakitunenak leenengo gizaldiko azkenengo urteetan egin zala diño, 80'garren urtetik 100'garren urte bitartean.

Izakera ta idazkera

Didaje, gerkeraz idatzi zan, Alesander Aundiak artu eban lurraldeetara eroan eban *Koine* izeneko izkeraz. Izkera ori aldi areitan —bigarren gizaldiko azkenetaragiño beintzat— Grezia'n bakarrik ez, baita Siria'n, Ejipto'n, Ipar-Afrika'n, Erroma'n eta Prantzia'ko ego-aldean be erabilli zan, kultura-lan eta artu-emonetan batez be.

Didaje'ren idazkera, oso laua, argia ta esaera laburrekoa da: irakasteko liburuari dagokiona, leenengo eldrietako kristau-irakatsia iragarten zanez, Jesukristo'ren Barri Ona lez. Beraz, gai oso sakon, mamintsu ta eraginkorra izanarren, ez da literatura-idazkera, irakaspen-idazkera baiño, bakun, lau ta ulerterraza baiño, egilleak biotza Kristo'ren garretan eukala idatzitakoa.

Beraz, literaturari dagokionez, indarrak ez ba'dauko be, arimarentzat eta benetako kristau-bizitzarako ba-dauko indarra ugari. Eta kristau-bizitza ondo ta artez eroateko indarra bakarrik ez, baita Kristo'ren alde bizia emoteko be emoten dausku liburutxo onek adorea ta garra, leenengo iru gizaldietako martiri errime ta ospatsuak izan eban adore bera.

Amabi Apostoluen bidez Jaunaren irakaspena atzerriai (1).

I. *Bide biak*.—Bide bi dagoz (2): bata bizitzakoa, ta bestea eriotzakoa; baiña aundi-aundia da bide bion artean dagoan aldea (3).

Bizitzako bidea.—*Kristau-onoimenak*.—2. Beraz, auxe da bizitzako bidea:

Lenengo, zu egin zaituan Jaungoikoa maite izango dozu (4); bigarren, zure lagun-urkoa zeure burua lez. Eta zuri jazo dakizun nai ez dozun edozer, ez egiozu zuk be besteri egin (5).

Barri Ona oso-osorik.—3. Esandakoon ikasbidea auxe da: Bedeinkatu egizuez madarikatzen zaituenak, eta erregutu egizue zuen arerioen alde; barau be egizue aurrean zarabillezen alde. Izan be, zer egiten dozue geiegikorik, maite zaueznak maite izanaz? Ez ete-dabe atzerritarrak be ori egiten? Zuek, barriz, maite egizuez gorroto dautsuenak, eta ez dozue areriorik izango (6).

4. Alde egizu aragizko ta gorputzeko zalekerietatik.

Norbaitek eskumako matraillan matraillako bat emoten ba'dautsu, erakutsi egiozu ezkerrekoa be, eta bikaiña izango zara.

Norbaitek milla baten *bidean* beragaz joateko beartzen ba'zaitu, lagun egiozu alakoari milla bi egiten (7).

Norbaitek soin-gaiñekoa* kentzen ba'dautsu, barruko jantzia* be emon egiozu.

Norbaitek zeurea dana kentzen ba'dautsu, ez egiozu barriro eskatu: ezin egin daikezu-ta (8).

Limosna.—5. Eskatu dagitzun edonori, emon egiozu ta ez egiozu barriro eskatu (9): Aitak guztiari bakoitzaren ondasunetatik emon dakiela nai dau-ta.

Zoriontsua, aginduaren eraz emon dagiana!, alakoa errubagea da-ta. Artu dagianaren zoritzarra, oster! Beartsu dagoalako artzen ba'dau, errubagea da,

(1) «Apostoluen ikasbidea» ta «Jaunaren ikasbidea»: *Apost. Egiñ. 2, 42* ta *13, 12*; *Tito, 2, 10* eta *Yon'en 2.^a, 9*.

(2) Latiñezkoak, «gizaldi onetan» geitzen dautso. — *Jer. 21, 8*; *Baruk, 4, 1*; *Esakerak, Prov. 12, 28*; *Mat. 7, 13-14*.

(3) *Mat. 7, 14*.

(4) *Mat. 22, 37-39*; *Ecli. 7, 30*; *Deut. 6, 5*; *Leb. 19, 18*.

(5) Bizitzako bidea argitzen dauan argia, maitasun-agindua da. «Beraz, besteak zuei egin dagitzuena, egizue zuek be arei»: *Mat. 7, 12*. Orixe da «urrezko agindua».

(6) *Mat. 5, 43-48*; *Luk. 6, 27-28*; *31-36*.

(7) *Mat. 5, 39, 48*; *Luk. 6, 29*; *Mat. 5, 41*.

(8) *Mat. 5, 40*; *Luk. 6, 29*.

(9) *Luk. 6, 30*; *Mat. 5, 42* (ez dakar bigarren ataltxo).

(*) Soin-gaiñeko: capa, manto. — (*) Barruko jantzi: túnica.

bai. Bearrizanik izan bagarik, artu egiten dauanak, barriz, zegaitik eta zetarako artu eban erantzun bear izango dau. Giltzapean sartuko dabe, eta egin ebanari buruz aztertua izango da; eta azkenengo txanpona ordaindu arte, ez da andik urtengo (10).

Onetzaz, auxe be esan zan; Izerditu dakizula eskuetan zure limosna, nori emoten dautsazun jakin dagizun arte (11).

II. Pekatariai buruzko ikasbidea.—1. Ikasbideko bigarren agindua (12):

2. Ez dozu iñor ilgo. Ez dozu ezkon-naasterik* egingo. Ez dozu gazterik ustelduko (13). Ez dozu aragikeririk egingo. Ez dozu sorginkeririk ez aztikeririk* egingo (14). Ez dozu semerik aren amaren sabelean ilgo, ezta sein barriari bizitzarik kenduko be. Ez dozu iñoren ondasunen gurari bidebagekorik izango.

3. Ez dozu guzurrez ziñik egingo*. Ez dautsazu iñori egin ez dauan gauzarik ezarriko. Ez dautsazu iñori irain baltzik ezarriko. Ez dautsazu iñori gorrotorik* izango (15).

4. Ez zara bikoitza izango, ez adimenez ez berbaz: toleskeria* eriotz-sare da-ta (16).

5. Zure itza ez da guzurtia ez utsa izango, egiñez betea baiño (17).

6. Ez zara diru-gose izango, ez lapur, ez azaluts, ez maltzur, ez arro. Zure lagun-urkoaren aurka ez dozu asmo txarrik gertatuko (18).

7. Ez dautsazu iñori gorrotorik izango; batzui erantzun egingo dautsezu, ostera, ta beste batzui erruki izango zakiez (*zaiakez*); erregutu egingo dozu batzun alde, ta beste batzuk zeure arima lez maite izango dozuz.

III. Gaiztakeritik alde egin.—1. Alde egizu, ene seme, edozein gaiztakeritik eta gaiztakeri dirudian edozetatik.

(10) Erruki-egitadai buruz, ikusi Mat. 5, 7; Ecli. 29, 11; Mat. 5, 25 eta 26.

(11) Ba-ekian au Agustin deunak (*In Ps. 102, 12.^a*), baita Gregorio Aundiak be (*Reg. Past. III, 20*). Baiña ez dator Biblian.

(12) Mat. 19, 16-19.

(13) Leb. 18, 22; 20, 13; Errom. 1, 27; Kor. 1.^a, 6, 9. Garbitasunaren kontrako iru pekatu.

(14) Sorginkeria, debekatuta: Apost. Egiñ. 8, 9, 11; 6, 8. Aztikeriak: Gal. 5, 20; Apoc. 9, 21; 18, 23; 21, 8; 22, 15.

(15) Mat. 5, 33; Esak., Prov. 20, 20; Mat. 5, 22.

(16) Esak., Prov. 11, 13; Ecli. 5, 9; Esak. 14, 27; 21, 6.

(17) Mat. 23, 3; Sant. 1, 22; Jon'en 1.^a, 3, 18.

(18) Kor. 1.^a, 5, 10, 11 ta 6, 11.

(*) Ezkon-naaste: adulterio. — (*) Aztikeriak: artes mágicas. — (*) Guzurrez zin egin: perjurar. — (*) Gorroto: rencor, ojeriza. — (*) Toleskeri: doblez.

2. Ez zaitetz asarrekor izan, asarrekeriak gizerailtzara daroa-ta. Susmo txarreko be ez zaitetz izan, ezta eztabaidakari ez arroko be: guztiotatik gizerailtzak datoz-ta (19).

3. Ene seme: ez zaitetz zalekoia izan, zalekeriak aragikerira daroa-ta; gai gordin-barritsua be ez zaitetz izan, ezta begietan arroa be: guztiotatik ezkon-naasteak datoz-ta (20).

4. Ene seme: ez zaitetz aztia* izan, aztikeriak sasijaungoiko-gurtzara daroa-ta. Lilluratzaillea be ez zaitetz izan, ez izartari*, ez garbiketa-zale be, ezta orrelakorik ikusi ez entzun be ez egizu nai: guztiotatik sasijaungoiko-gurtza dator-eta (21).

5. Ene seme: ez zaitetz guzurti izan, guzurak lapurretara daroa-ta. Ezta dirukoi ez arroputz be: guztiotatik lapurretak datoz-ta.

6. Ene seme: ez zaitetz mormoxetalaria izan, mormoxetak biraora daroa-ta. Ezta arro ez buru-gaiztoa be: guztiotatik biraok sortzen dira-ta (22).

On dana egizu.—7. Otzana izan zaitetz, ostera: otzanak lurraren jabe egingo dira-ta (23).

8. Izan zaitetz iraunkor eta errukior eta tolesbagea, baketsu ta ona, eta entzun zenduzan berbai buruz bildurtsu beti (24).

9. Ez dozu zure burua gora jasoko, ezta zure arimari ausarkeririk egiten itziko be. Ez bedi zure biotza arroakaz batu, zuzenakana ta apalakana biurtu baiño (25).

10. Jazo dakizun edozer, ontzat artu bear dozu, Jaungoikoak eratu ezik ezer jazoten ez dana jakiniñ (26).

IV.—Ene seme: gogoratu egizu gau ta egun Jaungoikoaren itza iragarten dautsuna (27), eta begirunea izan egiozu, Jaunari lez (28): Jaunaren agintaritzaz iragarten dan tokian (29), Jauna be antxe dago-ta.

(19) Mat. 5, 22; Tito, 1, 7; Esak. 22, 24, 25.

(20) Mat. 5, 28.

(21) Leb. 19, 26, 31; Deut. 18, 10, 11. Antxiña, sorginkeria-garbiketa asko egiten ebezan, geisoak eta grifa txarrak uxatzeko.

(22) Esak. 16, 28; Jud. 16; Filip. 2, 14; Pedr. 1.^a, 4, 9; Kor. 1.^a, 10, 10; Tito, 1, 7; Pedr. 2.^a, 2, 10.

(23) Kol. 3, 12; Tesal. 1.^a, 5, 14; Mat. 5, 5; Ps. 36, 11.

(24) Tesal. 1.^a, 4, 11; Is. 66, 2.

(25) Esak. 19, 18; Mat. 23, 11, 13; Errom. 12, 16.

(26) Ecli. 2, 4; Errom. 6, 28; Mat. 10, 29 ta 30.

(27) Iragarleak: apostolu, igarle, irakasle, gotzain eta laguntzaille edo diakonuak. Ikusi Ebert. 12, 25 eta 13, 7.

(28) Mat. 10, 40; Galat. 4, 14.

(29) Pedr. 2.^a, 2, 10; Jud. 8.

(*) Azti: mago, aforero, adivino. — (*) Izartari: astrólogo.

2. Billatu egizuz egunoro santuen arpegiak, arein itzetan atsedena artze-ko (30).

3. Ez dozu banatzerik biztuko (31); baketu egizuz, ostera, burrukan diarduenak. Epai zuzena emongo dozu. Oker egiñai buruzko zure epaiak norkeri bagarikoa izan bear dau (32).

4. Zerbait jazoko dan ala ez dan, ez izan ezbairik (33).

5. Ez zaitetz izan artzeko eskua luzatzen dabenetarikoa ta ez emoteko itxi egiten dabenetarikoa (34).

6. Zure eskuen lanaz zerbaiten jabe egiten ba'zara, emon egizu aretik zure pekatuak ordaintzeko.

7. Ez luzatu emotez, ezta naigabetsu emon be; sari onaz ordaintzen dauana nor dan ba-dakizu-ta (35).

8. Ez egizu beartsua alboratu, zure ondasun guztiak zeure anaiagaz zatika bananduko dozuz, ostera (36); ez dozu ezegaitik esango: «Au neurea da» (37). Izan be, ondasun illeziñetan eskuartzen ba'dozu, zenbat geiago ilkorretan? (38).

Kristau-sendiari buruzko eginbearrak.—9. Ez kendu zure eskua zure semeagandik, ezta zure alabagandik be: gaztetarik arei Jaungoikoaganako bildurra erakutsiko dautsezu, ostera (39).

10. Ustea zure Jaungoiko berberagan dabenen zure otseiñari naiz mirabeari, ez agindu era garratzez: bion gaiñetik dagoan Jaungoikoaganako bildurra galdu ez dagien. Jauna ez dator norkeriz dei egiten-eta, Aren Espirituak atondu dauzanai (*dei egiten*) baiño (40).

11. Zuek, barriz, morroiok, esana egiezue zuen ugazabai, Jaungoikoaren creduari lez, begirunez eta bildurrez (41).

Guztiari buruzko kristau-eginbearrak.—12. Azaluskeria dan edozeri ta Jaungoikoari gogoko izan ez dakion edozeri, gorroto izango dautsazu.

13. Ez egizuz itzi Jaunaren aginduak, artu dozuna gorde baiño, ezer geitu ez kendu bagarik.

(30) Santuak: kristauak, anaien Eliza.

(31) Kor. 1.^a, 1, 10; 11, 18; Mat. 9, 50; Errom. 12, 18; Kor. 2.^a, 13, 11.

(32) Deut. 1, 17; Esak. 24, 23.

(33) Txataltxo au ulergaitza da. «Jaungoikoaren asmoak» adierazoten dauala diño Harnack'ek. — Yon'en 1.^a, 5, 13-15.

(35) Apost. Egiñ. 4, 32-35; Kor. 2.^a, 9, 7; Pedr. 1.^a, 4, 9.

(36) Ecli. 4, 5.

(37) Apost. Egiñ. 2, 44; 4, 32.

(38) Errom. 15, 27; Bernabe, 19, 8.

(39) Ps. 34, 12; Efes. 6, 4. Polikarpo, Filip. 4, 2.

(40) Efes. 6, 9; Ecli. 4, 6; 7, 11; Errom. 8, 29, 30.

Pekatuaren autortza.—14. Batzarrean (*elizan*), autortu egizuz zure pekatuak, eta otoitzetara ez urreratu barru txarraz (42). Orixe da bizitza-bidea.

V.—Eriotzako bidea, barriz, auxe da:

Leenengo ta bein, bide txarra ta biraoz beterikoa da: eriotzak, ezkontza-naasteak, zalekeriak, aragikeriak, ostuteak, sasijaungoiko-gurtzak, sorginkeriak, aztikeriak, lapurretak, guzurrezko autorrak, azaluskeriak, biotz bikoitza, iruzur, arrokeri, dongakeri, arropuzkeri, diru-gosea, berba gordiñak, ikusi-eziñak, ausarkeria, aundikeri ta ustekeria (43).

Eriotzako bideari jarraitzen dautsoenak.—2. Onak aurrean darabillezanak jarraitzen dautsoe bide oni, baita egiaren arerioak, guzurraren maitatzailleak, zuzentasunezko saria ezagutzen ez dabena, ona danaren eta epai zuzen-zaleak ez diranak, onaren zaintzailleak izan bearrean txarrarenak diranak be bai; otzantasetatik eta eroapenetik urrun dagozanak, uskerien maitatzailleak eta sari-zaleak, txioren erruki ez diranak, atsekabetuari buruz naigabetzen ez diranak, euren Egillea ezagutzen ez dabena, euren semeen iltzailleak, Jaungoikoaren izakiaren galtzailleak; beartsua bertan-beera izten eta naigabetua estutzen dabena; aberatsen bitartekoak*, txioren ebazle zuzenbageak, pekatu guztietan jakintsuak. Pekatu guztietatik askatuta egon zaitzeze, ene semeok! (44).

VI. *Aginduak eta burubideak.*—Begira, gero!: ez zagizala iñok Ikasbideko bide onetatik aldendu, alakoak Jaungoikoagandik kanpo irakasten dautsu-ta (45).

2. Jaunaren buztarri guztia eroan ba'daikezu, bikain-bikaiña izango zarat; guztia ezin eroan ba'daikezu, barriz, egizu aal daikezuna.

3. Janariari buruz, bete egizu aal daikezuna; alan be, sasijaungoikoen irudiai eskiñitakotik ez egizu ezelan be jan, jaungoiko illen gurkeria da-ta.

Liturji-oarrak

VII. *Bateoa.*—Bateoari buruz, olantxe bateatu: guzti ori aurretiaz esanda gero, bateatu egizue Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean, ur bizitan*.

(41) Efes. 6, 5-8; Kolos. 3, 22; Tito, 2, 9; Pedr. 1.^a, 2, 18.

(42) Deut. 6, 18; 12, 25; Ps. 118, 128; Leb. 18, 30: «Bete mire aginduak». «Ez geitu, ezta kendu be ezer»: Deut. 1, 22; Ecles. 3, 14; Apoc. 22, 18, 19. —«Elizan»: pekatuaren agirizko autoriza. Sant. 5, 16. —«Barru txarraz»: Ebert. 10, 22.

(43) Mat. 15, 19; Mark. 7, 21-22; Errom. 1, 29-30; Kolos. 3, 18.

(44) Ps. 4, 3; Apoc. 22, 15; Pedr. 2.^a, 2, 5; Yon. 7, 24; Gal. 5, 22.

(45) Errom. 16, 17.

(*) Bitarteko: abogado.

(*) Ur bizi: agua corriente.

2. Ur bizia ez ba'daukazu, beste uretan bateatu. Ur otzetan ezin egin ba'dai-kezu, ur berotan egin (46).

3. Ez bata ez bestea ez ba'daukazu, barriz, isuri egizu ura buru-gaiñera iru bidar, Aitaren, eta Semearen, eta Espirituaren izenean.

4. Bateo-aurretik, barau egin dagiela bateatzen dauanak eta bateatua izan bear dauanak, baita barau egin daikkeen beste batzuek be. Bateatua izan bear dauanari, barriz, egun bat edo bi lenago barau egin dagiala agindu egiozu.

VIII. *Barauak*.—Ez beitez izan zuen barauak azalutsak egiten dabezanean (47): oneik larunbat osteko bigarren eta bosgarren egunean egiten dabe barau-ta. Zuek, barriz, laugarren egunean eta gertatze-egunean (*barikuan*) egin barau (48).

Kristau-otoitza.—2. Otoitz be ez dozue azalutsak lez egin bear, Jaunak bere Ebanjelioan agindu ebánez baiño; olantxe egingo dozue otoitz (49):

Zeruko gure Aita,
santifikatua izan bedi zure izena (50),
etorri bedi zure erreinua,
egin bedi zure naia zeruan lez lurrean be.
Emon egiguzu gaur gure egunoroko ogia (51).
Eta parkatu eiguzuz gure zorrak,
geuk be gure zordunai (*zorrak*) parkatu egiten dautseguzanez.
Eta ez gaginguz tentaldira eroan, gaitzetik zaindu baiño.
Gizaldietan aal-izatea ta aintza zeurea da-ta.

3. Orrelaxe egingo dozue otoitz egunean iru bidar (52).

(46) Leen, bateatzeko, uretan sartzen eben.

(47) Mat. 6, 16; Luk. 18, 12. «Azalutsak», Alkartasun Barrian, pariseotarrak dira geienetan (oneik, Legeko izkia edo letra bai, beteten eben, baiña Legeko espiritua il egiten eben). Ikusi Hermas, V, 1.

(48) Larunbat edo zapatu osteko bigarren eta bosgarren eguna: astelena ta eguna; laugarrena ta gertatze-eguna: eguastena ta barikua.

(49) Emengo «Aita gurea» Mateo'gandik artuta dago (6, 5-13), aldakuntza txiki batzukaz; zertxobait geituta be bai. Konturatu ezkerro, izan be, *Didajé* Bibliako berba edo gogapen pillo bat baiño ez da (Huber, 69, 48^{gn.} oarra).

(50) «Santifikatu» itzak, «santu danez goratua, aintzatua, bedeinkatua, gora jaso» adierazoten dau emen. (Ikusi BAC, 207^{gn.} zenbakia, 72^{gn.} orri.).

(51) «Gure egunoroko ogia»: beste batzuek, «bear dogun ogia» dakarre.

(52) Daniel, 6, 10; Apost. Egiñ. 2, 15; 3, 1; 10, 9, 30.

Eukaristia

IX. *Jaunartze-aurrekoa*.—Eukaristiari buruz, olantxe egin bear dozue (53):

2. Lenen, edontziari buruz (54):

Eskerrak emoten dautsuguz, gure Aita orri, Dabid zure morroiaren maasti santuagaitik, zure (*Seme ta*) Morroi Jesus'en bidez erakutsi zeuskun maastia-gaitik (55):

Zeuri aintza gizaldietan (56).

3. Gero, (*ogi*) banatzeari buruz (57):

Eskerrak emoten dautsuguz, gure Aita orri, zure (*Seme ta*) Morroi Jesus'en bidez erakutsi zeuskun bitzta ta ezagueragaitik:

Zeuri aintza gizaldietan.

Elizaren alde otoitza.—4. (*Ogi*) zati au mendietan zabalduta egoanez, eta, batuta, bat egin zanez, zure Eliza be lurreko bazterretatik zure Erreiñuan batua izan daitela (58): gizaldietan Jesukristo'ren bidez aintza ta aal-izatea zeureak dira-ta.

«Ez emon santua danik txakurrail!».—5. Jaunaren izenean bateatuak dagozanak baiño beste inok ez dagiala zuen Eukaristiatik jan ez edan (59). Orri buruz be Jaunak auxe esan eban: «Ez emon santua danik txakurrail!» (60).

X. *Jaunartze-ostean*.—Eta ase* ondoren, olantxe emongo dozuez esker-rrak (61):

(53) «Eukaristia» itza, bitara artu daiteke: a) eskerrak emoteari buruz, eta, b) Jaunaren gorputz-odolaren apari lez. Emen, azken ori adierazoten dau, antza (Huber, 73^{gn.} orri.).

(54) *Didajé*'k edontziarena lenengo egiten dala diñoanarren, ogiaren urrengo egiten da. Ikusi Luk. 20, 17; Kor. 1.^a, 11, 23. Geroago, barriz (IX, 5), «zuen Eukaristiatik inok ez dagiala jan ez edan» diño zuzen.

(55) Dabid, «Jaungoikoaren morroi»: Ps. 17, 1; Is. 37, 35; Luk. 1, 69; Jesus, «Jaungoikoaren morroi»: Apost. Egiñ. 3, 13, 26; 4, 27, 30; Mat. 12, 18. — Huber'ek, «Seme ta Morroi» dakar, geroago lez; Ruiz Bueno'k «Morroi» bakarrik.

(56) Ebanjelioan eta Elizaren lenengo aldietan, otoitza Zeruko Aitari egiten yakon.

(57) Apostol. Egiñ. 2, 42; Kor. 1.^a, 10, 16; 11, 24.

(58) «Zure Erreiñua»: Eukaristia ez da Jesus'en Nekaldi-gomutapena bakarrik, Jaunaren geroko Erreiñu goragarriaren gomutapena be ba-da. Erreiñu ori da Elizaren itxaropena ta guztion uste osoa. Eliza, barriz, Erreiñu orretako bidea da.

(59) «Jaunaren izenean bateatuak». «Jaunaren aldetik eta aginduz bateatuak» adierazoten dau. —Apost. Egiñ. 19, 5.

(60) Mt. 7, 6, Argi ikusten danez, otoitz onetan berba guztiz lauak erabilten ebezan, sinismen eta itxaropen sendoaz batera. Otoitzok, eliztarrak esaten ebezan, antza danez.

(61) Yon, 6, 12; Kor. 1.^a, 11, 20-22.

(*) Ase: saciarse, hartarse.

2. Eskerrak emoten dautsuguz, Aita Santu orri, zure Izen santuagaitik (62), zure (*Seme ta*) Morroi Jesus'en bidez, geure biotzetan bizi zeitela egin zenduan Izenagaitik, eta ezaguerazo zeuskun jakintzagaitik eta sinismenagaitik eta ezil-kortasunagaitik*.

Zeuri aintza gizaldietan.

3. Zeuk, Jaun guztiz Altsu orrek!, egin zenduan dana zure izenagaitik, eta Zeuk emon zeutsen gizonai janaria ta edaria euron gozamenerako, eskerrak emon egizuezan (63).

Guri, ostera, bezuztat* espirituzko janaria ta edaria, eta betiko bizitza emon zeuskun, zure (*Seme ta*) Morroi Jesus'en bidez.

4. Altsua zaralako batez be emoten dautsuguz eskerrak: Zeuri aintza gizaldietan (64).

Elizaren alde otoitza.—5. Gogoratu egizu, Jaun orrek!, zure Eliza, gaitz guztitik zaindu eta zure maitasunean bete-betea egin dagizun (65);

eta santututa, batu egizu lau aizetatik, arentzat atondu zenduan zure Erreiñuan (66):

gizaldietan aal-izatea ta aintza zeureak dira-ta.

«Zatoz, Jauna!».—6. Betor grazia ta igaro bedi mundu au (67).

Hosanna Dabid'en Jaungoikoari! (68).

Santu izan daitena, urreratu daitela.

Santu izan ez daitena, garbatu daitela.

Maran atha! Amen (69).

(62) «Aita Santu»: Jesukristo'k bere Aitari esan eutsazan berbak: Yon, 17, 11. — «Zure Izen santuagaitik»: Yon, 17, 26, eta 1, 14.

(63) Ruiz Bueno'k, au zertxobait aldatuta dakar. Nik Huber'i jarraitu dautsat.

(64) Apoc. 11, 17; Eres., Ps. 88, 9; Luk. 1, 49.

(65) Mat. 6, 13; Yon, 17, 15; Yon. 17, 23; Yon'en 1.^a, 5, 2.

(66) Is. 11, 12; Mat. 24, 31. «Santututa»: Yon, 17, 19; Efes. 5, 25; Ebert, 10, 10. — «Zure Erreiñuan»: Mat. 25, 34; Ebert. 11, 16.

(67) Pedr. 1.^a, 1, 13. Jesus'i buruz lenengo kristauen ikusmiña: Apoc. 22, 17; Mat. 5, 18; Kor. 1.^a, 7, 31; Pedr. 2.^a, 3, 10.

(68) «Hosanna»: Josiah-nna'ren izki-aldakuntza: «onik atara egizu» adierazoten dau. Gero, gizon ospatsuak abegi onez artzeko pozez beteriko berba lez erabilten zan (BAC, 207 zenbak., 438^{gn}. orri). Orregaitik, gaur egunez batzuek «Gora!» ta «Aintza!» itzaz biurtzen dabe. — «Dabid'en Jaungoikoa»: Mark, 11, 9; Jon, 12, 13; Mat. 22, 42-45; Bernabe, 12, 10.

(69) «Marán athá»: aramearren esakera, «Zatoz, Jauna!» adierazoteko. Otoitxo au, lenengo kristauak erabilten eben. Ikusi Kor. 1.^a, 16, 22; Apoc. 22, 17-21.

(*) Ezilkortasun: inmortalidad. — (*) Bezuya: regalo, dádiva.

Profetak.—Itzi egiezue profetai eurak nai dagien beste esker emoten (70). (*Orain datorrena —7^{garren} ataltxo au—, kopto atala da*, Did. c. 10/12, *Papiro Or. 9721, 1924^a garren urtean argitaratua*):

Igurtzia.—7. Igurtziteko orioari buruz, olantxe emongo dozuez eskerrak: Eskerrak emoten dautsuguz, gure Aita orri, zure Seme Jesukristo'ren bidez erakutsi zeuskun igurtziteko orio onegaitik. Zeuri aintza gizaldietan.

Guztietariko oarrak

XI. *Apostoluak eta profetak*.—*Ikasbideari zintzotasuna*.—Beraz, leen esandako guztia irakasten zuekana etorri daitena, artu egizue alakoa.

2. Baiña, irakasleak, okertuta, galdukerirako beste irakasbide bat irakasten ba'dautsue, alakoa ez egizue entzun. Zuen zindokuntza ta Jaunaren ezaguera geitzeko irakasten ba'dautsue, barriz, alakoa Jauna bera lez artu egizue! (71).

Apostolu ibiltaria (72).—3. Apostolui ta profetai buruz, Ebanjelioko aginduaren eraz egizue:

4. Etorri dakizuen edozein apostolu, Jauna legetxe izan daitela artua.

5. Alan be, ez da geratuko egun bat baiño geiago. Bear izan ezker, beste egun bat geiago. Iru egun geratzen ba'da, sasi-profeta da (73).

6. Apostoluak, urtetea, ez begi beragaz ezer eroan, janarizat ogia izan ezik, beste ostaturen batera eldu arte. Dirua eskatzen ba'dau, sasi-profeta da.

Ez ebatzi profeta.—7. Ez egizue zirikatatu ez aztertu espirituz itz egin dagian profetarik: edozein pekatu parkatua izango da-ta; pekatu ori, ostera, ez da parkatua izango (74).

(70) Eliztarrak otoitzok esaten ebezan bitartean, «profetak» goi-argiak ekarten eutsezan otoitzak egin leikeezan.

(71) «Beste irakasbide bat»: Yon'en 2.^a, 10; Pedr. 2.^a, 1; Iñazio Mart., Ef. 9, 1. — «Jauna bera lez artu»: Mat. 10, 40; Yon, 13, 20; Iñazio Mart., 6, 1.

(72) Apostolu ta profeta ibiltariak: Barri Ona iragarten batetik bestera ibiltan ziranak. Guztiok «apostolu» izenaz ezagutzen ziran («apostolu» itzak, «bialdua» adierazoten dau). Ikusi Apostol. Egiñ. 14, 4, 14; Errom. 16, 7; Korint. 1.^a, 15-7; Apoc. 2, 2. — «Profetai» buruz: Kor. 1.^a, 12, 28, 29; Efes. 2, 20; 3, 5; 4, 11; Apoc. 18, 20. Gaiñera, Apostol. Egiñ. 11, 27, 28; 13, 1; Kor. 1.^a, 14, 29-30.

(73) «Sasi-profeta» = sasi-irakasle. Mat. 7, 15; 24, 11, 24; Pedr. 2.^a, 2, 1; Apoc. 16, 13; 19, 20; 20, 10.

(74) «Profetak»: Espiritu Santuaren doaiak ebezala, Barri Ona iragarten batetik bestera ibiltan ziran irakasleak: Bernabe, 16, 9; Hermas, XI^{gn}. agindua; Justino, Dial. 82, Ireneo, Adv. Haer. 2, 32, 4; Eusebio, Eliz-Edestia, V, 17. — «Espirituz itz egin»: Kor. 1.^a, 12, 3; 14, 2; Apoc. 1, 10; 4, 2; 17, 3; Hermas, 1.^o ikusk., I, 1-3; II, 1, 1; antzekoa: IX, 1, 4. Galerazote ori, onartuta dagoan profetari buruz da: profetaren bidez, Espiritu Santuak egiten dau berba-ta: Kor. 1.^a, 2, 15; Mat. 12, 31.

8. Alan be, ez da profeta espirituz itz egiten dauan edonor, Jaunaren ekan-duak daukazana baiño. Beraz, benetako profeta ta sasi-profeta bere ekandueta-tik ezagutuko da (75).

Beste ezaguera batzuk.—9. Gaiñera, espirituz maia gertatzeko agintzen dauan profetak, ez dau maitik jango; bestela, barriz, sasi-profeta da (76).

10. Era berean, egia irakatsi bai, baiña irakasten dauana egiten ez dauan profeta, sasi-profeta da (77).

11. Elizaren lurreko ezkutapenerako (78) lan egiten diarduan profeta az-tertua ta benetakoa bai, baiña berak egiten dauana egiten irakasten ez dauana, ez dozue zuek epaituko: aren epaia Jaungoikoari dagokio-ta. Beste arenbeste egin eben antxiñako profetak be (79).

12. Baiña, «dirua emon egidazu» edo antzerakoren bat diñoana, alakoa ez egizue entzun (80). Beste beartsuen batzuentzat emon dagizuela ba'dirautsue, barriz, alakoa ez begi iñok ebatzi.

XII. *Bidaztiak eta lan-bageak.*—Jaunaren izenean datorkizuen edonor, onartua izan daitela. Alakoa aztertuta gero ezagutu egingo dozue: eskuma ta ez-kerra epaitzeko beste adimen ba-daukazue-ta (81).

2. Etorbarria bidaztia* ba'da, aal dagizuen laguntza emon egizue. Alan be, ez da geratuko zuen artean egun bi baiño geiago, edo-ta, bear izan ezkerro, iru egun (82).

3. Lanbideren bat izanik, zuen artean errilagun egin nai ba'dau, barriz, lan egin eta jan dagiala.

4. Lanbiderik ez ba'daki, zeuek ornidu zuen zuertasunari dagokionez, zuen artean kristau alperrik bizi ez daiten.

5. Orretara egin nai ez ba'dau, Kristo'ren merkatari da. Kontuz orrelakoa-kaz! (83).

(75) Mat. 7, 21-23; Hermas, XI^{gn}. agindua, 7, 16.

(76) Txiroentzat atondutako maiari buruz diño, antza.

(77) Mat. 23, 3; 5, 19; Iñazio Mart.: Ef. 15, 1, 2.

(78) Esacra ori ulertzea, guretzat gaitz da, baiña guztiz erraza *Didaje*'ren irakur-leentzat, Harnack'ek diñoanez.

(79) Azken-profetok, Alkartasun Zaarreko profetak dira.

(80) Mat. 50, 8; Apost. Egiñ. 8, 12-18; Mikeas, 3, 11.

(81) Kor. 2.^a, 6, 7.

(82) Justino: 1.^o, *Apol.*, 67; Klemente'ren 1.^a, 1, 2; Iñazio: *Errom.* 9, 3.

(83) Tes. 2.^a, 3, 6; Timot. 1.^a, 6, 5; Mat. 7, 15; 10, 17, 16, 6, 11; Bernabe, 10, 4; Didascalía, 13^{gn}. atalburua.

(*) Bidazti: peregrino.

XIII. *Profetai ta irakasleai janaria emon.*—Zuen artean bizilagun geratu nai dagian benetako edozein profeta, bere janariaren duin da.

2. Era berean, benetako irakaslea, langillea lez, bere janariaren duin da (84).

3. Beraz, dolaretako* ta soloetako, idien eta ardien asikin guztiak artu ta profetai emongo dautsezuz: zuen abadeburuak, eurak dira-ta (85).

4. Profetarik ez ba'daukazue, barriz, txiroai emon.

5. Ogia egin dagizunean, asikiñak artu ta emon egizuz aginduaren eraz.

6. Era berean, ardao naiz orio-uparen bat zabaldu dagizunean, artu asiki-ñak eta emon egizuz profetai.

7. Zure zidarraren eta zure jantzien eta ondasun guztien asikiñak artu —zeuk deritzazunez—, eta emon egizuz aginduaren eraz.

XIV. *Jaunaren eguna.*—Jaunaren egunean, batu zaitzeze ogi-banatzera-ko ta esker-emoterako, zuen pekatuak autortuta gero, zuen oparia garbia izan dai-ten (86).

2. Bere anaiari buruz eztabaidarik izan dagian edonor, barriz, alkarregaz adiskidetu arte, ez bedi zuekaz batu, zuen oparia loitu ez daiten (87).

3. Opari oni buruz, Jaunak auxe esan eban: «Edonun eta edonoiz eskintzen yat opari garbia: Ni errege aundia naz-ta —diño Jaunak—, eta nire Izena errien artean arrigarria da-ta» (88).

XV. *Gotzaiñak eta laguntzailleak aukeratzea.*—Aukeratu egizuez, ba, Jau-nari dagokiozan lako gotzaiñak eta laguntzailleak: gizonezko otzanak, diru-gose-rik ez dabenak, egiazaleak eta azertuak izan daitezala: profeten eta irakasleen (*liturji*) eginkizuna eurak be beteten dautsue-ta (89).

(84) «Profetak»: —lentxoago esan dogunez—, Espiritu Santuaren doaiez berba egiten ebenak: Mat. 10, 10; Luk. 10, 7; Kor. 1.^a, 9, 13, 14; Tim. 1.^a, 5, 17, 18. «Igarleak eta irakasleak», kristauen artean, Alkartasun Zaarrean abadeburuak euken tokia

(85) Ex. 22, 29; Num. 18, 20; Deut. 18, 3, 4; Ezek. 44, 30; Nehem. 10, 35. — «Igarleak eta irakasleak», kristauen artean, Alkartasun Zaarrean abadeburuk euken tokia dabela adierazoten dau.

(86) «Jaunaren eguna» = Igandea, domeka. — Kor. 1.^a, 16, 2; Apostol. Egiñ. 20, 7; Apoc. 1, 10; Bernabe, 15, 9; Iñazio Mart. 9, 16. — Jaunartu baiño len, eliztarrak euren pekatuak autortzen dabez.

(87) Mat. 5, 23, 24; Mat. 15, 11-20; Mark. 7, 15-23; Ebert. 9, 13.

(88) Malak. 1, 11, 14. — Au Jesus'ek esan ebanik ez da agertzen Ebanelioan.

(89) «Epískopos» = gotzaiñak: «diákonos» = laguntzailleak. *Didaje*'ren egilleak oneixek artzen dauz soil-soillik elizako burutzat. Paulo deunak (Tito, 5, 1-7) eta Lukas deunak (Apostol. Egiñ. 20, 17-28), barriz, «gotzaiñak» eta «abadeak». *Didaje*'k ez dakar bein be «presbyteros» (abadeak) itza. Gotzaiñak eta laguntzailleak aukeratzeari buruz, ikusi Apost. Egiñ. 14, 22; Kor. 2.^a, 8, 19; Iñazio Mart.: Filad. 11, 1; Esmirn. 11, 2; Polik. 7, 2. Baita Klemente'ren 1.^a, 42, 4, 5; Timot. 1.^a, 3, 3-10 be.

(*) Dolara: maatsa zapaltzen dan tokia: lagar.

2. Ez egizue gutxizat artu, ba; profetakaz eta irakasleakaz batera, zuen artean eurak dira goragarriak-eta (90).

Alkar-zuzentzea.—3. Alkar zuzendu egizue, ez asarrekeriz, baketsu baiño, Ebanjelioan (*aginduta*) daukazuenez. Eta norbaitek beste bati iraiñik egin ba'dautso, ez begio iñok alakoari itzik egin, ezta zuetariko iñogandik be ez dagiala alakoak itzik entzun, garbatu daiten arte (91).

Barri ona, bizitza-eredu.—4. Zuen otoitzai, limosnai ta osterantzeko egitada guztiai buruz, egizuez guztiak gure Jaunaren Ebanjelioan aginduta daukazuezan eraz (92).

XVI. *Aldien amaia.*—Zain egon zuen bizitzari buruz! Zuen kruseluak ez daitezala itzungi (*atzamatu*) ta zuen gerri-azpiak ez daitezala lotu bagarik egon; gertu egon zaiteze, ostera, gure Jauna etorriko dan ordua ez dakizue-ta (93).

2. Sarri batu zaiteze (94), zuen arimai dagokienaren arduraz; azken-unean guztiz zindotuta ez ba'zagoze, zuen sinismenean bizi zintzatzen aldi guztia ez yatzue ezetarako be izango-ta.

Amaiaren aurretikoak.—3. Izan be, azken-egunetan sasi-profetak eta galtzailleak ugaritu egingo dira, ta ardiak otso biurtuko dira, ta maitasuna gorroto biurtuko da (95).

4. Izan be, gaiztakeria geiturik, gizonak alkarri gorroto izango dautsoe, eta alkar aurrean erabilliko dabe ta saldu egingo dabe (96).

Orduan, munduko guzurtia Jaungoikoaren seme lez agertuko da (97), eta ezaugarriak eta mirariak egingo dauz.

Eta lurra bere eskuetan itzia izango da (98).

Eta gizaldietan iñoiz be egin ez ziran dongakeriak egingo dauz (99).

(90) Gotzaiñen eta laguntzailleen (diokonuen) agintaritza agertzen da emen.

(91) Ecli. 10, 6; Tim. 2.^a, 4, 2; Polikarpo: *Filip.* 4, 2; Mat. 18, 15-17.

(92) Kolos. 3, 17.

(93) *Didajé* osoari —azken-atalburu oni batez be—, «Parusia» edo Jaunaren etorrera goragarriaren gurari sakona dario. Mat. 24, 42; Luk. 12, 35; Mat. 24, 44; Galat. 6, 9; Ebert. 12, 3, 5.

(94) Ifazio Mart.: *Ef.* 13, 1; 20, 2; Polikarpo, 4, 2; Klemente'ren 2.^a, 17, 3; Bernabe, 4, 1.

(95) Mat. 24, 11, 12. Baita Mat. 7, 15 be.

(96) Mat. 24, 12.

(97) «Munduko guzurti» ori, Satanas da, antikristoa. Apoc. 12, 9; Yon'en 2.^a, 7; Tes. 2.^a, 2, 4.

(98) Apoc. 13, 7. Lurra antikristoaren menpean geldituko da.

(99) Tes. 2.^a, 2, 4; Mat. 24, 21.

5. Orduan, gizonen Epaia aztertze-sutan etorriko da (100).

Eta (*lagun*) asko gaizpideratu ta galdu egingo dira.


Baiña euren sinismenean iraun dagienak, madarikatua izan zanak Berak atarako dauz onik (101).

Jaunaren etorrera.—6. Eta gero, egiaren ezaugarriak agertuko dira (102):

Lenen, agerpen-ezaugarria zeruan; gero, turutotsaren ezaugarria (103), eta, azkenez, illen biztuera (104).

7. Guztiena ez, ostera, esan zanez baiño (105): «Jauna etorriko da, eta santu guztiak Aregaz» (106).

8. Orduan, munduak Jauna ikusiko dau, zeruko odeien gaiñean datorela (107).



(100) Huber'ek eta Hilgengeld'ek «epaia» dakarre; esku-idaztiak «egindako gizonak».

(101) Esaera ulergaitza; bakoitzak bere aldetara dakar: «biraoren beraren bidez urtengo dira onik» (Huber); beste batzuek, «biraotik onik urtengo dira» dakarre.

(102) Kristo'ren ezaugarriak, Jon, 14, 6.



(103) Tes. 1.^a, 4, 17; Mat. 24, 30, 31. Oracula Sibyl., II, 188 ta abar.

(104) Apoc. 20, 5 eta abar; Mat. 24, 31; Korint. 1.^a, 15, 52; Tesalon. 1.^a, 4, 16.

(105) «Guztiena ez» = guztien biztuera *goragarria* ez...

(106) Zakar. 14, 5.

(107) Mat. 24, 30; 26, 64.



ERROMA'KO KLEMENTE SANTUAK

KORINTO'KOAI EGINDAKO LEENENGO IDAZKIA

SARRERA

Erroma'ko Klemente santuak Korinto'koai egindako leenengo Idazkia, kristauen leenengo aldietako idazki garrantzitsu ta bikaiñetariko bat da.

Oso ezaguna zan Idazki au leenengo gizaldietan, eta elizetan oso sarritan irakurten eban, guztiak begirune andiz entzuten ebela. Orixe ikusten da 170'garren urtean Korinto'ko gotzain zan Dionisio'k Sotero Aita Santuari egin eutsan idazkian, Eusebio'k diñoanez (1). Ona emen Dionisio gotzainaren lerroak: «Jaunaren egun andia (igandea) ospatu dogu gaur; eta gure batzarraldi-bitartean, zeure idazkia irakurri dogu, ta aurretzean be geure burubidetzat irakurriko dogu, Klemente'k idatzi euskun leenengo (idazkia) be irakurten dogunez» (2).

170'garren urtean-edo, Hegesipo'k egindako *Gomutapenak* izeneko idazlanean be, Klemente'ren Idazkia aitatzen dau (3). Lyon'go gotzain Ireneo deunak, Marko Aurelio agintariaren aldian (160-180) Erroma'ra joan zanean, bertan ezagutu eban Idazki ori, *Adversus Haereses* bere liburuan irakurri daitekenez (4).

Alexandria'ko Klemente'k, *Stromata* izeneko bere idazlanean (200'etik 215'garren urteetakoa), Idazkiaren lerro asko jarten dauz.

Orijenes'ek, Jerusalem'go Zirilo'k, Basilio Aundiak, Jeronimo'k, Epifanio'k, Laktanzio'k eta Ambrosio'k be, euren idazlanetan sarri aitatzen dabe; eta guztiok batera, Erroma'ko Klemente'ren Idazkia dala autortzen dabe.

Nor zan Erroma'ko Klemente?

Klemente, Pedro deunaren ondoren, irugarren Aita Santua izan zan, Lino ta Anakleto'ren urrengo (5).

- (1) *Eliz-istoria*, IV, 23, 9-12. — Sotero, 166-174 urteetan izan zan Aita Santu.
 (2) Eusebio: *Eliz-istoria*, IV, IV, 23.
 (3) Eusebio: *Eliz-istoria*, IV, XII, 3.
 (4) *Adv. Haer.*, III, 3, 1-2.
 (5) *Eliz-istoria*, III, 4, 9.

Eusebio istoriariaren eritziz, Lino 68'tik 80'ra izan zan Aita Santu; Anakleto, 80'tik 92'ra; eta gure Klemente 92'tik 101'era (6). Barriok, Eusebio'k Ireneo ta Hegesipo'gandik jaso ebazan, antza.

Lyon'go Ireneo'k diñoanez, Klemente'k Pedro ta Paulo ondo be ondo ezagutu ebazan (7); eta Klemente'ri abadegintza Pedro'k emon eutsala diño Tertuliano'k (8).

Noiz, nortzui ta zer dala-ta idazki ori?

Eritziak batera ez datozanarren, 95'etik 98'garren urte artean idatzi eban, antza: Domiziano'ren agintaritzaldian, edo Nerba'ren lenengo aldian, Huber'ek diñoanez.

Gerkeraz dago idatzita, «Koiné» izeneko izkeraz.

Idazpuruak dakarrenez, Korinto'ko kristauai idatzi eutsen, arein artean sortu ziran eztabaida garratzak eta alderdikeri gogorrak zirala-ta. Alderdikeriok, eliz-buru izen-
oneko ta goragarri batzuk aginpidetik kentzeragiño indartu ziran. Klemente Aita Santuak, adiskidetu daitezala ta bakeak egin dagiezala dirautse, sinismena barrizturik eta Apostoluakandik artu eben irakaspena sendoturik (9).

Eta, zorionez, Korinto'ko eliza, Klemente'ren idazkiari abegi ona ta esana eginda gero, bake-bakean geratu zan, Hegesipo'k eta Korinto'ko Dionisio gotzaiñak dirauskue-
nez (10).

Biurpenak

Idazki au, 1627'garren Ejipto'n aurkitu eben, eta Rodex Alexandrinus izene-
koan dago, gaur egunez Londres'ko Erakustoki Britaniko'an.

Iru biurpen ezagutzen dira: *sirioa*: Cambridge'n dago, 1170'garren urteko kodize baten; *koptoa*: ieki bat Berlin'go Liburutegian dago, IV'garren gizaldiko kodize baten; eta beste bat, Estrasburgo'ko Ikastetxe Nagusiko Liburutegian, V'garren gizaldikoa; eta *latiñez*: II'garren edo III'garren gizaldikoa; azken au, Namur'ko Abadetxe Nagusian dago.

Eta beste bagarik, irakurri dagigun Erroma'ko Klemente Aita Santuaren Idazki ospatsu au.

(6) *Eliz-istoria*, III, 34.

(7) *Adv. Haer.*, III, 3, 1-2.

(8) Tertuliano: *De praescriptionibus Haereticorum*, 32'gn. atalb.

(9) Ireneo: *Adv. Haer.* III, 3, 1-2.

(10) Cfr. Eusebio'ren *Eliz-istoria*, IV, 22, eta IV, 23.

I. *Agurra*.—Jaungoikoaren Elizak, Erroma'n bidazti* danak (11), Jaungoikoaren Elizari, Korinto'n bidazti danari, Jesukristo gure Jaunaren bidez Jaungoikoaren nai-izatez deituak eta santutuak diranai: Grazia ta bakea ugaritu da-
kizuezala Jaungoiko guztiaaldunaren izenean Jesukristo'ren bitartez (12).

Korinto'koak goratsen.—1. Bat-batean eta geratu bagarik etorri yakuzan ez-
bear eta naigabeak dirala-ta, zuen artean sortu diran gora-beerai jaramon egiteko berandutxo eldu ete-garan uste dogu, anaiok. Alderdikeriari buruz diñogu, guz-
tiz maiteok: Jaungoikoaren aukeratuentzat biurrikeri bakan eta ez ez-egaguna, iguingarri ta gaiztoa iziotu dabe ausarti ta arro batzuek, mundu guztian agurga-
rri, ospatsu ta maitagarri zan zuen izena erokeriz oso irainduta gelditzeragiño iziotu be.

Korinto'ko Elizan ziran onoimenak.—2. Izan be, zuen artean egun batzuk igarota gero, nok ez dau ikusi onoimenez eta sendotasunez beteriko zuen sinis-
mena? Nok ez dau begi onez begiratu Kristo'gan zuen jaungoikotasun zuur eta negurritsua? Nok ez dau iragarri zuen ondo-artze-oitura bikaiña? Nok ez eban zorientsutzat artu zuen jakintza betea ta ziurra?

3. Guzti ori norkeri bagarik egiten zenduen, eta Jaungoikoaren aginduen bideetatik joaten zintzaten, zuen zuzendarien menpean (13) eta zuen zaarrai bear yaken begirunea erakutsirik (14). Gaztediari pentzakera eratsu ta deduzkoa irakasten zeutsen; zuen emakumeai euren eginbear guztiak barru akats-bage, lo-
tsa-oneko ta garbiaz beteteko agintzen zeutseen, euren senarrak egoki maitatu-
rik (15), eta euren etxeko arazoak artez eroaten irakatsi zeutseen, menpetasuna-
ren arauari dagokionez, gauza guztietan negurridun (16).

II.—Guztiok zintzazen apalak, ez zintzazen ezer be arroak, naiago zenduen agindu baiño esana egin, artzeko baiño emotego gertuagoak (17), Kristo'ren ibi-

(11) Kristo'ren Eliza ez da mundu onetakoa, bidazti baiño, lur onetan erbesteko; pentzakera auxe euen Apostoluak eta leenengo gizaldietako kristauak (ikus Pedr. 1.^a, 2, 11). «Munduak ez eban ezagutu» (Yon 1, 10); «Ez dot munduaren alde erregutzen, emon daustazuzanon alde baiño... euron alde erregutzen dot» (Yon, 17, 9).

Egilleak darabillen aditza «*paroikēin*» da = erbeste-lurrean erbestekoagaz bizi; izena «*paroikia*» da = atzerritar maistar edo kolonia; ortixek dator «*parrokia*» izena.

(12) Paulo Deunak bere idazkietan darabillen agurkera. Ikusi Pedr. 1.^a, 2, be.

(13) Zuzendariak: elizako, erriko (V, 7; LV, 1; LX, 4) ta guda-buruak XXXVII, 6.

(14) Zaar oneik ez dira adifez zaararak diranak, nunbaiteko buru edo nagusi egiten dabenak baiño; gizonok euren nagusitza-arduratik iñok ezin kendu daikez bide-
bagekeriz (Ikusi XLIV, 5; XLVII, 6).

(15) Cfr. Tito, 2, 4-5; Efes. 5, 22; Polikarpo: *Filipos'koai*, 4, 2.

(16) Cfr. «menpetasun araua», VII, 2; XLI, 1; Gal. 6, 16; Kor. 2.^a, 10, 13 ta urr.

(17) Cfr. Efes. 5, 21; Pedr. 1.^a, 5, 5.

(* Bidazti: peregrino.

Ilaldirako janariaz pozik zengozela (18) eta Aren berbak ardura aundiz arturik, zuen bularrean adoretu gordeten zenduezan, eta Aren oiñazeak zeuen begien aurrean egozan (19).

2. Orretara, guztioi bake sakon eta ongarritsua emon izan yatzuen, baita on dana egiteko gurari ase-eziña be; guztion gaiñera Espiritu Santuaren isurte osoa etorri zan (20).

3. Nai santuz beterik, onerako gogo ariñez, Jaungoiko guztiz aaltsuari zuen eskuak uste onez jasoten zeutsezan: gura-ezta zerbaiten pekatu egin izan ba'zenden, erruki izan ekizuela erreguturik.

4. Gau ta egun zuen anai guztien alde burrukan ekiten zeutsen; zuen errukiaren eta barruaren (kontzientziaren) bidez, Jaungoikoaren aukeratuen kopuruak onik iraun egian.

5. Tolesbageak eta bakunak zintzazen, zuen artean ikusi-eziñik ezagutzen ez zenduela.

6. Edozein biurkeri ta alderdikeri iguingarriztat zeuken. Lagun-urkoaren pekatuakaitik min artzen zenduen eta aren uts-egiñak norberarenak lez artzen (ebazten) zenduezan.

7. Egintza on bat egiñaz ez zintzazen iñoiz be garbatu, beste edozein egitada on egiteko beti gertu zengozela (21).

8. Guztitan egikera onez ta goragarriz apainduta, Jaungoikoaganako bildurraz gauza guztiak burutzen eta osotzen zenduezan. Jaunaren agindu ta erabagiak zuen biotzeko oletan idatzita egozan (22).

III. *Alderdikeriak sortu eban egokera txarra.*—Aintza ta nasaitasun guztia emon yatzuen (23), eta idatzitako au bete zan: «Maiteak jan eta edan egin eban, loditu ta gizendu egin zan, eta atzerantz egin eban» (24).

2. Ortixek jaio ziran ardurakeri ta ikusi-eziñak, eztabaidakeri ta biurkeria, eraso ta naastea, gudu (*gerra*) ta katepean egotea.

3. Onetaraxe jagi ziran «doillorak *gizon* goragarrien aurka» (25), aintzabageak aintzatsuen aurka, burubageak burutsuen aurka, gazteak zaarren aurka.

(18) «Kristo'ren ibillaldirako janaria» (beste kodize batek «Jaungoikoaren»): Jaungoikoaren, Kristo'ren gogozko naiz gorputz-doaiak, lur onetako ibillaldia bete aal izateko.

(19) Kristo'ren nekaldia, kristau-gogarte gaia. Cfr. Gal. 3, 1.

(20) Apost. Eg., 2, 17; Errom. 5, 5.

(21) Cfr. Tito, 3, 1; Pedr. 1.^a, 4, 19.

(22) Prov. 7, 3; Kor. 2.^a, 3, 3; Errom. 2, 14.

(23) Cfr. Ps. 17, 20; Ecli. 47, 12; Erregeen 2.^a, 22, 20.

(24) Deut. 32, 15.

(25) Cfr. Is. 3, 5.

4. Zuzentasunak eta bakeak zuekandik urrun egin eben iges, bakoitzak Jaungoikoaganako bildurra alde batera iztearren eta Aregan sinismen-begiak makaltzen iztearren. Arrezkero, ez zenbizen Aren aginduen negurrira, Kristo'ren erazko bizikera be ez zeroen (26); bakoitza bere biotz gaiztoaren zalekeriai jarraitzen diardu, ostera, ardurakeri zuzenbage ta dongak sorrerazorik; orrexegaitik «sartu zan eriotza be munduan» (27).

IV. *Ikusi-eziñaren gaitzak.*—Izan be, olantxe dago idatzita: «Eta egun batzuk geroago, Kain'ek, lurreko frutuetarik, Jaungoikoari opari bat eskiñi eutsan; Abel'ek be len-ardietatik eta arein koipetik eskiñi eutsan.

2. Eta Jaungoikoak Abel eta aren opariak onartu egin ebazan; ez, ostera, Kain eta aren opariak.

3. Eta Kain oso itun jarri zan eta arpegia jausi egin yakon.

4. Eta Jaungoikoak Kain'i auxe esan eutsan: «Zegaitik zagoz orren itun, eta zegaitik jausi da orrenbeste zure arpegia? Ez al-da egia, ondo eskiñi dozunarren, txarto banandu dozulako egin dozula pekatu?» Zagoz nasai; zure oparia zeugana biurtuko da, eta barriro aren jabe izango zara.

5. Eta Kain'ek bere anai Abel'i auxe esan eutsan: «Goazan landara!». Eta biak landan egozala, Kain'ek, bere anai Abel'en aurka jagirik, il egin eban» (28).

6. Ikusi, anaiok: ardurakeriak eta ikusi-eziñak anai-eriotza egin eben.

7. Ikusi-eziñagaitik, Jakob gure aitak Esau bere anaiaren aurretik iges egin bear izan eban (29).

8. Jose eriotz-zorian jarteragiño ta joputzara eroateragiño, ikusi-eziñak erabilli eban aurrean.

9. Moises Ejipto'ko errege zan Faraon'en aurretik iges egiten, ikusi-eziñak beartu eban, bere jatorkiko bati entzun eutsanean: «Nok jarri zaitu gure nagusi ta ebazle? Atzo ejiptoarra il zenduanez nai nozu neu be il, ala?» (30).

10. Aaron eta Maria ikusi-eziñagaitik geratu ziran txabolategitik kanpoan.

11. Datan eta Abiron inpernura bizirik ikusi-eziñak jaurti ebazan, Jaungoikoaren morroi Moises'en aurka jagi ziralako.

(26) Klemente'k ez darabil iñoiz be «kristau» izenordekoa; Antiokia'ko Iñazio'ren idazkietan bost aldiz agertzen da, eta bein bakarrik «Didajé» liburuan.

(27) Jakintza, Sap. 2, 24.

(28) Gen. 4, 3-8; LXX'en liburuak dakarrenez.

(29) «Jakob gure aita esatean», batzuek Klemente judar-kristau zala uste izan dabe. Baiña kristauak eurrez erabilten ebezan olako esakerak, judar izan ezarren be.

Ikusi, bestela, Justino: *Dialog.* 134 atalb.; Teofilo: *Autolic.* III, 24, 25, 28.

(30) Ex. 2, 14.

12. Ikusi-eziñagaitik, Dabid'ek atzerritarren ikusi-eziñak igaro bakarrik ez, baita Israel'go errege zan Saul'en eraso be igaro egin bear izan eban (31).

V. *Eredutzat, Pedro ta Paulo'ren odol-isurtea.*—Baiña, itzi dagiguzan antxiñako ikasbideak eta ikusi dagiguzan gugandik urrago bizi izan diran burrukalariak: artu dagiguzan gure gizaldiko eredu bikaiñak (32).

2. *Elizaren* zutabe aundienak eta zuzenenak, ardurakeriagaitik eta ikusi-eziñagaitik izan ziran aurrean erabilliak (jazartuak), eta eriotzaragiño egin eben burrukan.

3. Jarri dagiguzan gure begien aurrean Apostolu santuak.

4. Pedro'k, ardurakeri zuzenbakekaitik, bat eta bi bakarrik ez, baita zenbatu eziñalako lanak igaro bear izan ebazan; eta alan, bere autorra emonda gero (33), egokion gorapenekó tokira (zerura) joan zan.

5. Ikusi-ezin eta areriotasunagaitik apaindu zan Paulo iraupen-sariaz.

6. Zazpi aldiz giltzapean, igesi, arrika, Sortzaldean eta Sartzaldean *Kristo'ren* iragarle eginda, azkenez bere sinismenaren izen ospatsua lortu eban (34).

7. Mundu guztiari zuzentasuna irakatsita eta Sartzaldeko mugaragiño elduta (35) eta agintari nagusien aurrean autorra emonda gero (36), olantxe urten zan mundu onetatik toki santura, guri iraupen-jarraibiderik aundiena itzirik.

VI. *Martiri erromarrak Neron'en agintaritzan.*—Santutasun-bizikera eroan eben gizonoi, aukeratu-talde aundia geitu yaken: oneik, ikusi-eziñagaitik irain eta oiñaze asko igaro ondoren, gure artean eredurik ederren biurtu yakuzan.

(31) Cfr. Asiera, Gen. 27, 41 ta urr.; Asiera, 37; Urteera, Ex. 2, 14; Zenbakiak, Num. 12 ta 16; Erregeen 1.^a, 18 ta urr.

(32) Ona emen Idazki au idatzi zan aldia jakiteko bide argi bat: Apostoluen eredu bikaiñak «geure gizaldiari» dagokioz oraindiño.

(33) Garrantzi andiko atala au: Pedro agertzen da leenengo, Paulo urrengo. — «Autorra»: Jesukristo iragarri ta Jesus'en izena epailleen aurrean autortuta gero, odol-autorra, martirioa. Ona emen *Pedro Deunaren egotea ta eriotza Erroma'n* azaltzen dauan agiririk antxiñakoena. Beste agiri bat, Iñazio Martiriak Erromarri egin eutsen Idazkian aurkitzen dogu. — «Egokion tokira»: ikusi V, 4; Polikarpo'k Filipos' koai, 9, 2; Bernabe, 19, 1.

(34) Ikusi Kor. 2.^a, 11, 22 ta urr. — «Zazpi aldiz» ez diñoe ez Paulo'k ez Lukas'ek. Beste jazopenai buruz, ikusi Ap. Eg. 9, 25; 13, 50; Kor. 2.^a, 11, 33; Ap. Eg. 14, 5; Kor. 2.^a, 11, 25; Tim. 1.^a, 2, 7; Tim. 2.^a, 1, 11.

(35) *Sartzaldeko mugatzat*, antxiñako idazlariak España, Irlanda ta Britania artzen ebazan. Ixuraz, Klemente'k Paulo'k Erroma'koai egindako Idazkian agertzen dauan asmoa egiztatzen dau: «...aspaldiko urteotan zuek ikustera joateko gogoz egon nazan ezkerro, España'ra joan naitenean, ortik igarotean ikusiko zaituedala uste dot, baita ara lagundu be egingo nozuela (daustazuela)... » (Errom. 15, 23-24).

(36) «Autorra emonda gero»: edo-ta, «odol-isurtea igarota gero».

2. Izan ziran emakumeak, Danaidas eta Dirzes barriak (37), ikusi-eziñagaitik aurrean erabilliak; oneik, oiñaze itzel eta gogorak igaro ondoren, sinismen-lasterketa zigurrean iraun eben, eta, gorputzez makalak izanarren, sari ospatsua artu eben.

3. Ikusi-eziñak banandu ebazan emazteak senarrakandik, gure aita Adan'ek esandako au okerretara biurturik: «Orain, au neure azurren azur da eta nire aragiaren aragi» (38).

4. Ikusi-eziñak eta alderdikeriak uri andiak ondatu ta enda-erri andiak zusterretik atara dabez.

VII. *Damurako deia.*—Guzti au, guztiz maiteok, ez dautsuegu zuen burubidetzat bakarrik idazten, geure gogora ekarteko be bai: ondar beretan gagoz eta burruka berbera daukagu aurrean-eta.

2. Beraz, gure buruauste uts eta eroak alde batera itzirik (39), gure aurretikoak itzi euskuen arau ospatsu ta goragarrira biurtu gaitez (40).

3. Eta ikusi dagigun eder eta ona, atsegingarri ta onartzeko dana gure Egi-learen aurrean.

4. Begiratu dagigun Kristo'ren odola, eta ezagutu dagigun Aita Jaungoikoaren begietan odol ori dan bikaiña: gu onik atarateko isurita, mundu osoarentzat damu-grazia lortu eban-eta.

5. Aztertu dagiguzan gizaldi guztiak eta jakin dagigun, belaunik-belaun, Beragana biurtu nai daben guztiari Jaunak emon dautsen «garbitzeko auke-ra» (41).

6. Noe'k damua iragarri eban, eta ari entzun eutsoenak onik urten ziran (42).

(37) Ikusleen atsegingarritzat, Neron'en agintaritzaldian anfiteatroan oiñazetuak izan ziran emakumeak, Blandina, Felizitas eta Perpetua esate baterako. Ikusi Tazito. *Annal.*, 15, 38 ta urr.

(38) Gen. 2, 23.

(39) Biblian sarri agertzen dan esakera: Is. 30, 7; Oseas, 12, 1; Job, 20, 18.

(40) Gure aurretikoak itzitako arau ori, «Apostoluen tradiziñoa» da.

(41) «Despotes» = Jaun osoa, Jabea: 24 aldiz aitatzen dau izen au Klemente deunak «Aita Jaungoikoari» buruz; itz au Alkartasun Barriaren noizean-bein bakarrik agertzen da: Luk. 2, 29; Ap. Eg. 4, 24; Agerpena, Apoc. 6, 10. Eta, naiz Aitari naiz Jesukristo'ri buruz, «Kyrios» itza erabilten dau. — «Garbitzeko aukera»: Sap. 12, 10.

(42) Gen. 7. *Asiera* liburuak esan ez diño Noe'k damu ori iragarri ebanik; alan be, ori erriak agoz-ago esanda artu eban, Enok'en liburuak, Josefo'k eta «Oracula Sibyllina» izenekoak diñoenez. Pedro deunaren 2^{gen}. Idazkian, 2, 5, Noe «zuzentasun-iragarle» izan zala irakurten da.

7. Jonas'ek Ninibetarrai ondamentia iragarri eutsen; areik, barriz, euren pekatuetaz garbatuak, Jaungoikoaren errukia eskatu eben, eta, Jaungoikoaren gogoko izan ezarren, onik urtetea lortu eben (43).

VIII.—Jaungoikoaren grazi-emoilleak, damuari buruz Espiritu Santuaren indarrez egin eben berba (44).

2. Gauza guztien Egilleak berak be, egin eban berba damuari buruz, zin egiñez esan ebanean: «Ni bizi nazanez —diño Jaunak—, ez dot pekatariaren eriotzarik nai, aren biurtzea baiño» (45). Eta erabagi on au esan eban gaiñera:

3. «Biurtu zaiteze, Israel'en etxe ori!, zuen gaiztakeritik. Esan egiezu nire erriko semeai: Zuen pekatuak lurretik zerura artekoa artu ba'dagie be, eta gorrimaña baiño gorriagoak eta zurdatz baiño baltzagoak ba'daitez be, biotz-biotzez Neugana biurtu ba'zaiteze eta «Aita!» esan ba'dagidazue, erri santuari lez entzungo zaituet».

4. Eta beste nunbait olantxe diño: «Ikuzi* ta garbitu zaiteze; kendu egizue nire begien aurretik zuen arimen gaiztakeria; azkena emon egiozue zuen dongakeriari; on egiten ikasi egizue, zuzen dana billatu, estu dagoana askatu, umezur-tzaren eta alargunaren eskubidea zaindu egizue. Etorri *gero*, ta alkar entzun dargigun —diño Jaunak—. Eta zuen pekatuak purpura lez ba'daitez be, edurra bai-zen zuri biurtuko dodaz; eta gorrimaña lez ba'daitez be, artulea baizen zuri egingo dodaz. Eta nai ba'dagizue ta esaneko ba'zakidaze, lurreko ondasunak (frutuak) jango dozuez; nai ez ba'dagizue eta esaneko ez ba'zakidaze, barriz, ezpatak iruntsiko zaitue. Au, Jaunaren agoak esan dau-ta» (46).

5. Beraz, Jaunak maite dauzan guztiak damuan eskuartu dagiela Berak nai izanik, alantxe erabagi dau *jaungoikoak* bere nai guztiaaldunaz.

IX. *Esaneko izan daitezala*.—Beraz, esana egin dagiogun Aren nai andi ta goragarriari, eta, Aren erruki ta ontasunari erreguka asirik, auzpazu gaitazan Aren aurrean eta biurtu gaitazan Aren errukitara, uskeriak, eztabaidakeriak eta eriotzara daroan ikusi-eziña alde batera itzirik.

2. Adi-adi begiratu dagiguzan Aren aintza ospatsuaren morroitzen jardun ebenak.

3. Artu dagigun eredutzat Enok; au, esanean zuzena aurkitua izanda gero, eroana izan zan, eta aren eriotzaren azterrenik ez zan aurkitu (47).

(43) Jonas, 3; Mat. 12, 41; Ikusi Efes. 2, 12-13.

(44) «Jaungoikoaren grazi-emoilleak»: igarieak.

(45) Ezekiel, 33, 11-27.

(46) Is. 1, 16-20.

(47) Gen. 5, 24. Ikusi Ebert. 9, 5.

(*) Ikuzi: busti (lavar-se).

4. Era berean, Noe, zuzena aurkitua izanda gero, bere eginkizunez munduari bizitza barria iragarri eutsan, eta aren bidez, kutxan bakean sartu ziran abereak, Jaunak onik atara ebazan.

X. *Abrahan'en erakutsi ona*.—Abrahan, izenordez «Jaungoikoaren adiskide» (48), Jaungoikoaren erabagiai buruz esaneko izan zalako izan zan zintzotzat aurkitua.

2. Abrahan, esanaren bidez, bere erritik eta bere senitartetik eta bere aita-ren etxetik urten egin zan, lur apur baten eta senitarte gutxi baten eta itzi eban etxe txiki baten ordezt Jaungoikoaren agintzariak jaristeko.

3. Ba-dirautso, ba, *Jaunak*: «Urten zaitez zure lurraldetik eta zure senitartetik eta zure aitaren etxetik, eta zoaz Neuk erakutsiko dautsudan lurraldera; eta erri andi bat egingo dautsut; eta bedeinkatu egingo zaitut eta zure izena gora jasoko dot, eta bedeinkatu izango zara. Eta bedeinkatu zagiezanak bedeinkatu egingo dodaz, eta madarikatu zagiezanak madarikatu egingo dodaz; eta lurreko jatorri guztiak zeugan izango dira onetsiak» (49).

4. Eta barriro, Lot'egandik banantzean, Jaungoikoak auxe esan eutsan: «Jaso zure begiak zerura ta, orain zagozan lekutik, begiratu iparralderantz eta egoalderantz, sortzalderantz eta itsasorantz: ikusten dozun lurralde osoa zeuri ta zeure ondorengoai emongo dautsuet betiko» (50).

5. Eta zure ondorengoak lurreko autsa lez egingo dodaz. Norbaitek lurreko autsa zenbatu ba'daie, orduan zure ondorengoak be zenbatuak izango dira» (51).

6. Eta barriro be ba-diño: «Jaungoikoak Abrahan'i, kanpora atarata, auxe esan eutsan: 'Jaso zure begiak zerura ta, aal ba'daiezu, zenbatu egizuz izarrak: orrexenbestekoa izango da zure azia'. Eta Abrahan'ek Jaungoikoari sinistu egin eutsan; eta *Abrahan'i* ori zindokuntzarako ezarri yakon» (52).

7. Aren fede ta abegi onagaitik, zaartzaroan seme bat emon yakon; eta, esaneko izatearren, Jaungoikoak erakutsi eutsan mendi baten gaiñean *seme ori* Jaungoikoari oparitzat eskiñi eutsan.

XI. *Lot'en erakutsi ona*.—Lot'en abegi on eta biozperatasunagaitik, Lot Sodoma'tik onik urten zan, inguruko lurralde osoa suaz eta arlarunaz zigortua izan zanean: Jaunagan uste ona jarten dabenak, Jaunak ez dauzala iñoiz be bertan-beera izten, alantxe agertu eban; eta bestetara: biurriak zigortu ta oiñazetu egiten dauzala.

(48) Is. 41, 8; Paralip. II, 20, 7; Sant. 2, 23. Tertuliano: *Adv. Jud. II.*

(49) Gen. 12, 1-3.

(50) Gen. 13, 14-15.

(51) Gen. 13, 16.

(52) Gen. 15, 5-6.

2. Izan be, Lot'egaz batera, aren emaztea be urten egin zan; baiña, gogo bateko ez zan ezker, ezta aregaz bakean be, guzti onen ezaugarritzat, gaur arte gatz-irudi biurtuta gelditu zan (53), biotz bikoak eta Jaungoikoaren indarrari buruz ez baitan dagozanak, auzia igaroko dabela ta gizaldi guztientzat zigor-irudi izango dirala, guztiak jakin dagien.

XII. *Rahab'en erakutsi ona.*—Rahab emagaldua, bere sinismen eta abegi onagaitik urten zan onik.

2. Izan be, Nabe'ren seme zan Josue'k Jeriko-lurraldera aztertzaile* batzuk bialduta, erregea lurraldearen jakitun egiteko etorri zirala konturatu zan; eta arei eskua ezarteko ta, lotuta gero, areik ilteko laguntaldea bialdu eban.

3. Alan, ba, Rahab abegi onzaleak, aztertzaileak onartzen ebazala, bere etxeko sabaian gorde ebazan, liño-pillo azpian.

4. Erregearen gizonak elduta, auxe esan eutsoen: «Gure lurraldea ezagutze-
ra etorri diranak, zeure etxean sartu dira; atara egizuz kanpora, erregeak olantxe agintzen dau-ta». Emakumeak auxe erantzun eban: «Bai, egia da, neure etxean sartu dira zuek billatzen dozuezan gizonok; baiña breealaxe urten ziran eta bidez aurrera doaz». Eta ori esanez batera, arek okerreko bidea erakusten eutsen.

5. Gero, *Josue'ren* aztertzaileai auxe esan eutsen: «Argi-argi dakust Jaungoiko Jaunak lurralde au zeuei emoten dautsuela, zuekanako bildurra ta ikara euron gaiñera jausi da-ta. Beraz, lurralde onen jabe egin zaitezenean, onik atara nagizue ni, baita nire aitaren etxea be».

6. Eta aztertzaileak auxe esan eutsoen: «Zeuk berba egin dauskuzunez izango da. Beraz, urreratzen garala konturatu zaitezenean, batu egizuz zure etxeko guztiak zure etxe-barruan, eta onik urtengo dira; zure etxetik kanpora egon daitezcan guztiak, galduak izango dira-ta» (54).

7. Eta ezaugarri bat jarteko esan eutsen, gaiñera: bere etxetik purpura-zapi bat eskegi egiala; onetara, Jaungoikoagan sinisten eta itxaroten daben guztiak Jaunaren odolaren indarrez izango dirala erosiak adierazorik (55).

8. Ikusi, ba, anaiok: emakume aregan sinismena bakarrik ez, baita igarmentza be egon zan.

(53) Gatz-irudi orri buruz, ikusi Josefo Flavio: *Antiq.* I, II, 4: berberak ikusi eban; Justino: *Apolog.* I, 53; Ireneo: *Adv. Haeres.* IV, 31, 3; 33, 9; Jerusalem'go Zirilo: *Cateq.* XIX, 8; Sap. 10, 7.

(54) Irakurri Josue, 2^{gn.} atalburua.

(55) Irudi au, Justino Martiriak be ba-darabil, *Dialog.* III; baita Jeronimo'k be: *Nepoziano'ri Idazkia*, Ep. LII, 3.

(*) Aztertzaile: esplorador.

XIII. *Apaltasunerako burubidea.*—Izan gaitazan, ba, apalak, anaiok, edozein arrokeri, aundipuzkeri, erokeri ta asarrekeri alde batera itzirik, eta bete dagigun idatzita dagoana; Espiritu Santuak auxe diño-ta: «Ez daitela jakituna bere jakiturian arrotu, ezta indartsua bere indarrean be, ezta aberatsa bere aberastasunean be; arrotu daitena, ostera, Jaunagan arrotu bedi, Jauna billatzeko ta auzia ta zuzentasuna egiteko» (56). Jesus Jaunak gogo-batasuna ta ontasuna irakasteen esan ebazan berbak gogoratu dagiguzan batez be.

2. Arek auxe esan eban-eta: «Errukiorrak izan zaitezte, errukia artu dagizuen. Parkatu egizue, parkatuak izan zaitezten. Zeuek egin dagizunez egingo yatzue zeuei be. Zeuek emon dagizunez emongo yatzue zeuei be. Ebatzi dagizunez izango zaree ebatziak zeuek be; errukia erabilli dagizunez lortuko dozue errukia zeuek be; eta negurtu dagizuen negurriaz izango zaree negurtuak zeuek be» (57).

3. Agindu oneaz eta burubide onekaz sendotu bear doguz gure buruak, apaltasunez jarduteko, Aren berba santuai esaneko izanik. Berba Santuak auxe diño-ta: «Noren gaiñean jarriko dodaz nire begiak, otzanaren eta baretsu danaren gaiñean eta nire berben aurrean ikaraz dagoanaren gaiñean izan ezik?» (58).

XIV. *Jaungoikoaren esaneko izan-bearra.*—Beraz, anaiok, zuzen eta santu da jauntxoai jarraitzea baiño Jaungoikoari esana egitea: andiputz eta naastaille areik ikusi-ezin galdugarriz adoretuta dagoz-ta.

2. Izan be, ori ez litzake geure kalterako bakarrik izango, baita arrisku andia be izango genduke gaiñean: onbidetik gu aldentzeko, burrukara ta biurkeritara axatzen gaituen gizonon asmoen menpean gorde-galduan* jarten ba'gara.

3. Izan gaitazan, ba, zuzenak alkarregaz, gure Egillearen ontasun eta gozotasunaren eraz.

4. Idatzita dago-ta: «Zuzenak lurrean bizi izango dira, eta errubageak bertan geratuko dira; zuzenbageak, barriz, lurretik sakailduak* izango dira» (59).

5. Eta barriro be ba-diño: «Dongea Libano'ko zedruen gaiñetik goratuta eta jasota ikusi neban; andik igaro nintzan, eta a ez egoan; aren bizitoki-billa ibilli ta ez neban aurkitu. Zaindu egizu errubageatasuna ta gorde zuzentasuna, gizon baketsuak ondorena izango dau-ta» (60).

(56) Ikusi Jeremias, 9, 23-24; Erregeen I.^a, 2, 10; Kor. I.^a, I, 31; Kor. 2.^a, 10, 17.

(57) Mat. 5, 7; 6, 14, 15; 7, 1, 2, 12; Luk. 6, 31, 36-38.

(58) Is. 66, 2.

(59) Prov. 2, 21, 22; Ps. 36, 9, 38.

(60) Ps. 36, 35-37.

(*) Gorde-galduan: a la ventura. — (*) Sakaildu: exterminar.

XV. *Kontuz azalezko baketsuai buruz!*—Beraz, alkartu gaitezake bakea artez gordeten dabenakaz, eta ez azalezko baketsuakaz.

Liburu Santuak nunbait auxe diño-ta: «Erri onek ezpanez goratzen nau, baiña arein biotza Nigandik urrun dago» (61).

3. Eta barriro: «Euren agoaz bedeinkatu, baiña euren biotzaz madarikatu egiten dabe» (62).

4. Barriro be ba-diño: «Euren agoaz maite izan eben, eta euren miiñaz guzurra esan eutsoen; baiña arein biotza Arentzat ez zan zintzoa, eta Aren alkar-tasunari buruz ez eben zintzo iraun» (63).

5. «Orregaitik, isildu bediz ezpan guzurtiak, zuzenaren aurka gaiztakeria berba egiten daben ezpanak» (64). Eta barriro: «Ondatu begiz Jaunak ezpan azpikeritsu guztiak eta miin aundiputza, 'Gure aunditasuna geure miiña da; gure ezpanen jabe gara. Nor da gure Jaun?', diño-e-ta» (65).

6. «Baiña Jaunak, beartsuen zoritxarra ta txiroen negar-otsa ikusirik, auxe diño: Oraintxe jagiko naz; onik atarako dodaz; zabal-zabal egingo dot berba arekaz» (66).

XVI. *Jesukristo, apaltasun-eredu betea da.*—Kristo, apalai dagokie-ta; ez, ostera, euren artaldearen gaiñetik jagiten diranai.

2. Jaungoikoaren anditasun-makilla dan Jesukristo Jauna, ez zan aundipuzkeri ta arrokeri-otsez etorri —aal izanda be—, apal-apalik baiño, Espiritu Santuak Aretzaz berba egin ebanez:

3. «Jauna!, nok sinistu dau guk esandakoa? Eta nori agertu yako Jaungoikoaren besoa (indarra)? Txikitxo bat lez iragarri genduan, *lur* elkorrean* dagoan zusterre lez. Ez dauko itxurarik ez aintzarik. Geuk ikusi dogu, ta ez eukan antzik ez edertasunik; Aren itxura, dedubagea zan, giza-itxura baiño itxusiagoa zan. Zigorretan eta lanetan dagoan gizona zan, eta oiñazea zer dan dakiana: arpegia okertuta dauko-ta. Iraindua izan zan, eta ez zan ezertzat artua izan.

4. Berak daroaz gure pekatuak, eta Berak artu dauz bere gaiñean gure atsekabeak; baiña guk lanetan eta zigorretan eta iraiñetan egoala uste izan genduan.

5. Gure pekatuakaitik Bera izan zan zauritua, eta gure gaiztakeriakaitik zatitua. Bere gaiñera jausi zan *Jaungoikoaren* bakea ekarri bear euskun zigorra, ta Bere zauriakaitik izan gintzazan osatuak.

(61) Is. 29, 13; Markos, 7, 6.

(62) Ps. 61, 5.

(63) Ps. 77, 36-37.

(64) Ps. 30, 19.

(65) Ps. 11, 4-5.

(66) Ps. 11, 6.

(*) Elkor: tierra sedienta, estéril.

6. Gu guztiok ardi antzera sakabanatu gintzazan, eta bakoitza bere bidetik sakabanatu zan.

7. Baiña Jaunak Kristo geure pekatuakaitik emon eban; eta Arek, iraindua izatean, ez eban agorik edegi. Ardia iltera lez izan zan eroana; eta bildotsak moztaillearen aurrean lez, ez dau agorik edegiten. Bere apaltasunean, Aren auzia kendua izan zan.

8. Nok azaldu Aren jatorria? Aren bizia lurretik garbitua izan zan.

9. Nire erriaren gaiztakeriakaitik doa eriotzara.

10. Eta illobira jatsitearren, saritzat gizon biurriak emongo dauzadaz (diño Jaungoikoak), eta aren eriotzaren ordaiñez, gizon aberatsa; Arek ez eban pekatuakaitik-eta, ezta aren agoan iruzurrik be ez zan aurkitu. Eta Jaunak zauriak osatu egin nai dauzaz.

11. Pekatuakaitik oparia eskiñi ba'dagizue, zuen arim(e)ak ondoren luzea ikusiko dau.

12. Eta Jaunak aren arim(e)a lanetik askatu egin nai dau, eta ari argia erakutsi ta a adimenez azi; askori morroi izan yaken zintzoa zindotu egin nai dau. Eta Berak eroango ditu arein pekatuak.

13. Orregaitik, askoak artuko dauz ondoretzat, eta indartsuen ondakiñak banandu egingo dauz; orregaitik, aren arima eriotzara emona izan zan, eta gaiztotzat artua.

14. Berak eroan ebazan askoren pekatuak, eta arein pekatuakaitik izan zan emona» (67).

15. Eta barriro be Berak diño: «Ni, barriz, *lurreko ar** bat naz, ez gizon, gizonen iraingarri ta erri-simaur.

16. Begiratzen naben guztiak, nitzaz barre egiten dabe, ezpanakaz mormoxetan eta buru-erainka diardue, esanez: «Jaunagan jarri eban ustea, Berak askatu dagiala; onik atara dagiala, maite dau-ta» (68).

17. Ikusi, anaiok, aurrean ekarten yakun eredu. Jauna orrenbeste beeratu ba'zan, zer egingo ete-dogu guk, grazi-buztarpetik Beragaitik igaro garanok?

XVII. *Profeten eta Moises'en erakutsi onak.*—Auntz eta ardi-narruz jantzita (69), Kristo'ren etorrera iragarten ziarduen gizon arein antzeko be izan gaitezake. Elias eta Eliseo aitatzen doguz, baita Ezekiel, profetak, eta, arekaz batera, *Liburu Santuak* aitatzen dauzanak.

(67) Is. 53, 3-12.

(68) Ps. 21, 7-9.

(69) Ebert. 11, 37.

(*) Lurreko ar: gusano de la tierra.

2. Autor bikaiña artu eban Abraham'ek, eta izena «Jaungoikoaren adiskide» emon yakon; eta alan be, Jaungoikoaren gorapena aurrean izanik, apaltasun-adorez auxe diño: «Ni lur eta auts naz» (70).

3. Baita Job'i buruz be, auxe dago idatzita: «Job, barriz, zintzo ta akatsbagea zan, egizale, jaungoikozale, txar guztitik urrun egoana» (71).

4. Alan be, arek bere burua salatzen dau, esanez: «Orbanetik garbi iñor be ez dago, bere bizia egun batekoa izanarren be» (72).

5. Moises'i izena «Aren (Jaungoikoaren) etxe guztian zintzoa» emon yakon (73); eta aren morroitzaren bitartez epaitu eban Jaungoikoak Ejipto, zigor eta oiñazeen bidez. Alan be, Moises'ek be, guztiz goratua izanarren, ez eban aundipuzkeriz berba egin; bestetara baiño: sasitik goitiko erantzuna entzutean, auxe esan eban: «Nor naz ni bialdu nagizun? Ni abots-makala naz eta miin-motela» (74).

6. Eta barriro auxe diño: «Ni, barriz, lapiko-kea lez naz» (75).

XVIII. *Dabid'en erakutsi ona.*—Zer esango ete-dogu, ba, Jaungoikoak autortutako Dabid'i buruz? Beroni buruz, Jaungoikoak auxe esan eban: «Gizonezko bat neure biotzari dagokionez aurkitu dot: Dabid, Isai'ren semea; betiko errukiz igurtzi dot» (76).

2. Alan be, berak be Jaungoikoari auxe dirautso: «Erruki zakidaz, Jaungoiko!, zure erruki andiari dagokionez; eta zure erruki pilloai dagokienez, kendu egizu nire gaiztakeria.

3. Ikuzi (garbitu) egizu oso-osorik nire dongakeria, ta garbitu nire pekatua. Ezagutzen dot nire dongakeria-ta; nire pekatua, barriz, beti neure aurrean dago.

4. Zeuri bakarrik egin dautsut pekatu eta zeure aurrean egin dot gaiztakeria: zure epaietan zeure zuzentasuna agertu daiten eta ebatzia izan zaitezanean irabazi dagizun.

5. Izan be, gaiztakerietan izan nintzan sortua eta pekatuetan sortu nenduan nire amak.

6. Egia maite izan dozu-ta; zeure jakituriaren ezkutuak eta misterioak agertu daustazuz.

(70) Gen. 18, 27.

(71) Job, 1, 1.

(72) Job, 14, 4-5.

(73) Num. 12, 7; Ebert. 3, 2 ta 5.

(74) Ex. 3, 11; 4, 10.

(75) Esakera au ez dago Biblian; ikusi, alan be, Sant. 4, 14; Oseas, 13, 3; eta

Ps. 118, 83.

(76) Ps. 88, 21; Erregeen 1.^a, 13, 14; Ap. Eg. 13, 22.

7. Isopuaz bustiko nozu ta garbi geldituko naz; garbitu egingo nozu, ta edurra baiño garbiago geratuko naz.

8. Poz eta alaitasuna ikusi-azoko daustazu; nire azur beeratuak poztu egingo dira.

9. Aldendu zure arpegia nire pekatuetatik, eta kendu egizuz nire gaiztakeri guztiak.

10. Egizu nigan, ene Jaungoiko orrek!, biotz garbi bat, eta nire barruan espiritu zuzena barriztu egizu.

11. Ez nagizu zure aurretik jaurti ta ez egizu aldendu nigandik zure Espiritu Santua.

12. Emon egidazu barriro zure osasun-poza ta sendotu nagizu adore nagusiaz.

1'. Gaiztoai zeure bideak erakutsiko dautsedaz eta dongak Zeugana biur-tuko dira.

14. Zaindu nagizu odoletik, ene Jaungoiko, nire osasun-Jaungoiko!

15. Nire miiña zeure zuzentasunean poztuko da; Jauna!, nire agoa zabaldu egingo dozu, eta nire ezpanak zeure gorapena iragarriko dabe.

16. Oparia nai izan ba'zendu, nik eskiñi egingo neuskizun; baiña opariak ez yatzuz atsegin.

17. Jaungoikoaren aurrean oparia, gogo damutua da; Jaungoikoak ez dau baztartuko biotz damutu ta beeratua» (77).

XIX. *Apaltasunari buruz azkena.*—Emen autortu doguzan ainbesteren eta gizonezko ain aundien apaltasunak eta eratasunak, esaneko izateaz obeak egin genduzan, geu bakarrik ez, baita gure aurretiko gizaldiak be, baita bildurrez eta benetan arein berbak artu ebezanak be.

2. Beraz, egintza askotan, aundi ta goragarrietan eskuartu dogun ezker, joan gaitez an arin asierarik emon yakun bake-mugara, eta ezarri dagiguzan begiak mundu guztiaren Aita ta Egilleagan, eta lotu gakiezan Aren bakearen sari ta esker bikain eta ederrai.

3. Ikusi dagigun adi-adi gure adimenaz eta begiratu arimako begiz Aren nai bioztuna. Ausnartu dagigun egin dauan dana zaintzen darabilen errukia.

XX. *Jaungoikoak bakea ta bakoitza ondo artzea nai dau.*—Zeruak, Aren eratara eraginda, Jaungoikoari esana egiten dautsoe bake-bakean.

2. Egunak eta gauak Berak erabagitatiko bidetik doaz, alkarri eragozpenik jarri bagarik.

(77) Ps. 50, 3-19.

3. Eguzkia ta illargia ta izar pilloak, Aren aginduaren eraz, bakoitza bere maillan eta lege-auste bagarik, Berak erabagiatako mugetan zear dabiz biraka.

4. Lurrak, Aren naitara ugariturik, gizonentzat, abereentzat eta bertan bizi diranen izaki guztientzat aldi egokietan janaria guztiz ugari ekarten dau, ezer Aren erabagietatik aldendu bagarik edo Aren erabagiak aldatu bagarik.

5. Erabagi berberen bidez dira zuzenduak leza aztertu-eziñak eta lur-barruko une azaldu-eziñak.

6. Itsaso neurribagearen sakona, ez da iñoiz be inguruan egin yakozan lurrerietatik* urtetzen; bestetara baiño: agindu yakonez egiten dau *itsasoak* (78).

7. Jaungoikoak auxe esan eutsan-eta: «Onaxegiño elduko zara, eta zure uiñak (olatuak) zeugan apurtuko dira» (79).

8. Gizonentzat amaibagea dan itsasoa, eta aren ostean dagozan munduak, Jaunaren erabagi berberak zuzentzen dauz.

9. Udabarriko ta udako, udagueneko ta neguko aroak, bake-bakean igaroten dira.

10. Aize-taldeak, bakoitza bere aldian, euren eginkizuna eragozpen bagarik beteten dabe. Eta iturri agortu-eziñak, geure atsegiñerako ta osasunerako egiñak, gizonen bizitzarako euren bularrak eten-bagarik eskintzen dabez. Eta pistitxorik txikienak euren alkartzeak batasunez eta bakean egiten dabez.

11. Gauza guztiok Egille andiak (80) eta Jaun Gorenak bakean eta batasunez iraun egiela agindu eban, guztien gaiñera bere mesedeak isuririk, eta ugarriago geure gaiñera, Jesukristo gure Jaunaren bitartez Aren errukietan gorde garanon gaiñera.

12. Beroni aintza ta aunditasuna gizaldien gizaldietan. Amen.

XXI. *Jaungoikoari jarraitu, eta ez alderdikeriaren egilleari.*—Zuur egon, guztiz maiteok!, Aren mesedeak —asko dira-ta— galdugarri biurtu ez dakiguzan, gure oiturak Aren duin ez ba'dira: Aren aurrean on eta atsegingarri dana batasunez egiñik.

2. Liburu Santuak nunbait auxe diño-ta: «Jaunaren espiritua, biotzeko ezkutua aztertzen dauzan argi-zuzia da» (81).

3. Gogoan erabili dagigun Bera gugandik ur-ur dagoala ta gure bururapen eta asmoetatik bat bera be ez dagoala Arentzat ezkutuan (82).

(78) Ps. 64, 8; Asiera, Gen. 1, 9; Job, 38, 10; Ps. 103, 9; 148, 6.

(79) Job, 38, 11.

(80) Ikusi Ebert. 11, 10.

(81) Prov. 20, 27.

(82) Ps. 118, 151; 144, 18.

(*) Lurresi edo lur-esi: barrera de tierra.

4. Bidezko da, ba, bere naiak izentatu dauskun tokitik igesik ez egitea.

5. Obe da Jaungoikoari baiño gizon burubage ta zentzunbageai, aundiputz eta arroai irain egitea.

6. Gur egin dagiogun gugaitik bere odola isuri eban Jesus Jaunari; lotsa izan dagiegun gure zuzendariak; goratu dagiguzan zaarrak; azi dagiguzan gazteak Jaungoikoaren bildurrean, eta zuzendu dagiguzan gure andrazkoak ona damera.

7. Irakatsi begie oneik (andrazkoak) kastidade-onoimen maitagarria; erakutsi begie euren otzantasunari dagokion benetako naia; agertu begie, isillak izanda, berba egiteko eratasuna; ez dagoiela goi-maitasunari ekin euren berezko zaletasunak eroanda: Jaungoikoari bildur dautsoen guztiai, norkeri bagarik, era santuz eskiñi dagitsela, ostera.

8. Gure semeak Kristo'gan dagoan azibidean eskuartu dagoiela. Ikasi begie apaltasunak daukan indarra Jaungoikoaren aurrean; goi-maitasun garbiak Jaungoikoagaz aal daikena; Jaungoikoaganako bildurra dan ederra ta aundia, eta Beragan garbi ta santu dabizan guztiak onik ataraten dauzala.

9. Jauna bururakizunen eta asmoen aztertzaile da-ta (83); Aren arnasa zeugan dago, eta Berak nai dagianean kenduko dauku.

XXII. *Sinismenak dana sendotzen dau.*—Guzti au, Kristo'gan daukagun sinismenak egizatzen dauku: Berberak, Espiritu Santuaren agoz, onetaraxe eskatzen dauku-ta: «Zatoze, semeok, entzun nagizue! Jaungoikoaganako bildurra irakatsiko dautsuet.

2. Nor da bizitza maite dauan gizona eta egun onak ikusi nai dauzana?

3. Euki miiña gaiztakeri guztitik urrun eta zure ezpanak ez begie guzurrik esan.

4. Urrundu zaitez gaiztakeritik eta egizu on dana.

5. Billatu bakea, eta jarraitu ari.

6. Jaunaren begiak zintzoakan dagoz, eta Aren belarriak arein eskarrietan. Jaunaren arpegia, ostera, gaiztakeria egiten dabenakan, arein gomutapena lurretatik atarateko.

7. Zintzoak deadar egin eban, eta Jaunak entzun egin eutsan, eta larrialdi guztitik onik atara eban.

8. Zintzoaren larrialdiak asko dira; baiña Jaunak guztietatik onik atarako dau» (64).

(83) Ebert. 4, 10.

(84) Ps. 33, 12-18 ta 20.

9. Eta barrero: «Pekatoriaren zigorrak asko dira; baiña, ustea Jaunagan jarten dabenak, errukiak inguratuko dauz» (85).

XXIII. *Gogo-zabalak*.—Aita errukior eta ongillea, Aren bildur diran guztiai dakie (yake); eta biotz bakunez Aregana doazan guztiai, gogo onez eta pozik emoten dautsez bere mesedeak.

2. Beraz, ez gaitzan gogo bikoak izan, eta ez bego ez baitan gure arima Aren sari ugaritsu ta goragarriai buruz.

3. Urrun gugandik Liburu Santuak diñoan au: «Zoritxarrekoak gogo bikoak, euren ariman ez baitan diarduenak eta 'Entzun genduan ori gure gurasoen aldi, eta ona emen gu, zaartzarora elduta, eta guretariko iñori be ez yako olakorik jazo' diñoenak».

4. Burubageok! Artu egizue antzekotzat zugatza; maatsondoa, esate baterako: lenengo, orriak jausten yakoz; gero, akatsa ziiltzen da; gero, orria jaioten da; gero, lorea; geroago, mordo garratza, eta, azkenez, maats eldua. Ikusi zugatzaren frutua aldi laburrean elduta!» (86).

5. Olantxe beteko da bete be Jaunaren naia, laster eta bat-batean; Liburu Santuak be auxe autortzen dau, esanez: «Laster etorriko da eta ez da luzatuko. Bat-batean etorriko da Jauna bere Etxe Santura, eta zuek itxaroten dozuen Santua» (87).

XXIV. *Berbizkundea*.—Ausnartu dagigun, anai maiteok, Jaun Jabeak erakusten daukun geroko biztuera: Jesukristo Jauna egin eban biztuera orren asikin, illen artetik biztuerazorik (88).

2. Ekarri dagigun burura, anai maiteok, aldi egokian jazoten dan biztuera.

3. Egunak eta gauak biztuera adierazoten daukue: Gaua lotara doa, eguna jagiten da; ba-doa eguna, ba-dator gaba.

4. Artu dagiguzan ulerbidez frutuak: Zelan eta zein eratara jaioten da azia?

5. Ereilleak, urtenik, lur-gaiñera garauna ta garauna bota eban. Garaunok lurrera jausita, legor eta billoizik, urratzen asten dira; gero, Jaun Jabearen arduratasun aundiak, urratutakoak biztuerazo egiten dauz, eta garaun batetik asko jaioten dira ta frutua dakarre (89).

(85) Ps. 31, 10.

(86) Ez dator Biblian. Hilgenfeld'ek, «Moises'en Jasokundea» izeneko liburuak dakarrela diño.

(87) Is. 13, 32, eta Malakias, 3, 1. Ikusi Abakuk, 2, 3; Ebert. 10, 37.

(88) Kor. 1.^a, 15, 20, 23; Kol. 1, 18.

(89) Ikusi Mat. 13, 3; Mark. 4, 3; Luk. 8, 5.

XXV. «*Fenix*» izeneko egaztia.—Ausnartu dagigun Sortzalde-lurraldeetan, Arabia'n, jazoten dan ezaugarri arrigarria.

2. «Fenix» izeneko egaztia dago an (90). Bere motako egaztiarik bakarra da, eta 500 urte bizi izaten da. Eriotz-zorira eltzean, intzentzu, mirra ta osterantzeko usaingarriz apia bat egiten dau; aldia beteten yakonean, antxe sartu ta antxe ilten da.

3. Aragia usteltzen asten yakonean, ar bat jaioten da; eta oni, usteltzen dagoan ildako aberearen jangaiaz janarituta, egoak urtetzen yakoz. Gero, egazti errime eginda, bere aurretikoaren azurrak dagozan apia jaso ta, guztia artuta, Arabia-lurraldetik Ejipto'n dagoan Heliopolis izeneko urira daroa.

4. Eta egun-zabalean, guztien aurrean, Eguzkiaren altara-gaiñera egiten dau egaz eta antxe izten dau daroana. Ori eginda gero, barrero bere bidetik biurtzen da.

5. Ori orrela, abadeak aldi-olak* aztertzen dabez eta egaztia bosteun urteak betetean etorri dala egizatzen dabe.

XXVI. *Biztuerari buruzko Liburu Santuaren autorra*.—Beraz, munduaren Egilleak sinismen onaren usteaz Bere morroitzan santutasunez jardun ebenai barrero biztuera emotea, ain aundi ta arrigarrizat artuko ete-dogu? Eta ori, egazti baten antz-irudiaz bere agintzariaren aunditasuna agertzen daukula!

2. Esan be ba-diño nonbait: «Zuk biztu egingo nozu ta nik autortu egingo zaitut»; eta «Loak artu nau, lo-zorro baten; baiña, jagi egin nintzan, Zu neugaz zagoz-ta». Eta Job'ek, beste nonbait, auxe diño: «Guzti au jasan (igaro) dauan nire aragi au, Zeuk biztuko dozu barrero» (91).

XXVII.—*Zintzo iraun, biztueraren itxaropenez*.—Beraz, biztuera-itxaropenaz sendotuta, alkartu beitez gure arimak bere agintzarietan zintzo ta bere auzietan zuzena dan Aregaz.

2. Guzurrrik ez esateko agindu euskunak, ezin guzurrrik esan daike: Jaungoikoarentzat eziñik ez dago-ta, guzurra esatea izan ezik (92).

3. Sutu dagigun, ba, guban Areganako sinismena, eta konturatu gaitzan dana Bere ondoan dagoana.

(90) «Fenix egazti» orrena, erri-ipuiña baiño ez da. Egazti orretzaz antxiñako idazle ospatsuak be idatzi eben: Tazito'k, Plinio'k, Luziano'k, Zeldo'k, eta abarrek; baita kristau-idazleak be: Tertuliano'k, Laktanzio'k, eta Ambrosio'k, esate baterako.

(91) Ps. 27, 7; 3, 6; 22, 4. Job, 19, 26.

(92) Cfr. Ebert. 6, 18; Mat. 19, 26; Tito, 1, 2.

(*) Aldi-olak: tablas de los tiempos.

4. Dana bere anditasunaren itzez egin dau, eta bere itzaz dana ezerezera biurtu daike (93).

5. «Nok esango dautso: Zegaitik egin zenduan?, edo-ta, nok egingo dautso gogor Aren aal-izatearen indarrari?» (94). Dana, nai dagianean eta nai dagianez egingo dau, eta Berak agindu ebanik ezer be ez da bete bagarik igaroko (95).

6. Dana bere begien aurrean dago, eta ezek be ez dautso igesik egiten.

7. Izan be, «Ortziak (zeruak) Jaungoikoaren aintza diñoe, eta izartegiak Aren esku-lanak iragarten dauz. Egun bakoitzak biaramonari mandatu berau dirautso, eta gau bakoitzak urrengoari orixe berori iragarten dautso. Ez dago Aren abotsok entzun ez daitekezan izkerarik ez izkuntzarik» (96).

XXVIII. *Jaungoikoagandik ezin iñok igesik egin.*—Beraz, *Jaungoikoak* dana ikusten eta entzuten dauanez, Aren bildur izan gaitez, eta baztertu dagiguzan egintza gaiztoen zalekeri txarrak, geroko auzietan Aren errukiak gorde gagizan.

2. Izan be, guretariko nok egin daike iges iñora Aren esku indartsutik? Zein munduk artuko dauz Aregandik iges egiten dabenak? Liburu Santuak nonbait auxe diño-ta:

3. «¿Nora egingo dot iges, eta nun ostenduko naz zure arpegitik? Ortzira (zerura) igoten ba'naz, Zu antxe zagoz; lurreko azken-mugetaragiño egiten ba'dot iges, antxe dago zure eskuma; lezetan* etzuten ba'naz, antxe zure arnasa» (97).

4. Beraz, nora aldendu daiteke iñor?, edo-ta, nora egin iges iñok dana inguratzen dauan Aregandik?

XXIX. *Kristauak: Jaungoikoaren erri aukeratua.*—Urreratu gaitez, ba, Jaungoikoagana arima-santutasunez, gure esku garbi ta orbanbageak Beraganantz jasorik (98), bere arlo aukeratu egin genduzanon Aita samur eta errukiorra maitaturik.

2. Olantxe dago idatzita-ta: «Goren-gorenak erriak banandu ebazanean, Adan'en semeak sakabanatu ebazanean, errien mugak Jaungoikoaren aingeru-kopuruari egokionez jarri ebazan. Jaunaren zatia, barriz, Jakob'en Bere erria izan zan; Israel, bere oiñordekotasun-zatia».

(93) Cfr. Ebert. 1, 3.

(94) Sap. 12, 12; 11, 22.

(95) Mat. 5, 18; 24, 35.

(96) Ps. 18, 2-4.

(97) Ps. 138, 7-10.

(98) Cfr. Timot. 1.^a, 2, 8; Sant. 4, 8.

(*) Leza: abismo.

3. Eta beste nonbait auxe diño: «Begira: Jaunak beste errien erditik erri bat artzen dau, gizon batek bere solo-arloko asikiñak artzen dauzanez; eta erri orretatik santuen Santua urtengo da» (99).

XXX. *Santutasun-bizitza eroan dagigun.*—Beraz, zati santua garan ezker, egin dagiguzan egintza santu guztiak: guzur-baltzetatik, besarkada iguingarri ta loietatik, moskorkerietatik, barrikeri-leiatik, zalekeri zikiñetatik, ezkontza-naaste gorrotogarritik, arrokeri iguingarritik iges egiñik.

2. «Jaungoikoak —esanda dagoanez— arroai gogor egiten dautse-ta; apalai, barriz, bere grazia emoten dautse» (100).

3. Beraz, alkartu gaitez Jaungoikoaren grazia artu ebenakaz; jantzi gaitez barriri adiskidetasunez, apaltasun eta negurri-gogoz iraunik, edozein mormoxeta eta guzur-baltzetik urrun egonda, gure itzakaz bagarik geure egintzakaz zintzoturik.

4. Esanda dagoanez: «Ugari egiten dauanak itz, berak be ugari entzun bear izango dau. Ala, zintzoa dala uste ete-dau barritsuak?

5. Zorionsu zu, seme, emakumegandik jaiotako ori!: bizitza laburreko, ez zaitez zure izketan luzeegia izan» (101).

6. Gure gorapenak Jaungoikoagandik etorri bear dau, eta ez geugandik: norbere burua goratzen dauana, Jaungoikoak iguindu egiten dau-ta.

7. Gure egintza onen autorra, beste batzuk emona izan daitela, zintzoak izan ziran gure gurasoai emon yakenez.

8. Lotsabagekeriak, arrokeriak eta ausarkeriak jarten dabe agirian Jaungoikoak madarikatu dauana; eratasunak, apaltasunak eta otzantasunak, barriz, Jaungoikoak bedeinkatu dauana.

XXXI. *Irabazi dagigun Jaungoikoaren bedeinkapena.*—Lotu gakiozan, ba, Aren bedeinkapenari ta ikusi dagiguzan zeintzuk diran bedeinkapen-bideak. Begiratu dagiguzan barriri asierarik jazo diran egintzak.

2. Gure aita Abraham, zegaitik izan zan bedeinkatua? Ez ete-zan izan sinismenaren bidez zuzentasuna ta egia egin ebazalako?

3. Etortekoa jakinda, Isaak'ek bere burua oparitzat uste onez eta pozik eskiñi eban (102).

(99) Deut. 32, 8, 9; 4, 34; Num. 18, 27; Ezekiel, 48, 12; Deut. 14, 2.

(100) Prov. 3, 34; Sant. 4, 6; Pedr. 1.^a, 5, 5.

(101) Job, 11, 2 ta 3.

(102) «Pozik» berba ori ez diño Bibliak; bai, ostera, Josefo'k (*Antiq.* I, 14, 4) eta Melito'k (Migne PG. V, 1218).

4. Jakob, bere semea zala-ta, bere lurraldetik apal-apalik erbesteratu zan; Laban'en etxera joan zan eta morroi izan yakon; eta Israel'en amabi jatorrien agintaritzak makilla emon yakon.

XXXII. *Zindokuntza, fedearen bidez.*—Aurreko jazopenok aztertu dagizan edonok ulertuko dauz Jaungoikoak emondako sari aundiak.

2. Jaungoikoaren altaran morroitzan diarduen abade ta lebitar guztiak, beragandik (Jakob'egandik) datoz-ta; aragi-aldeetik, Jesus Jauna be aregandik dator; erregeak, nagusiak eta buruzagiak be, aregandik, Juda'gandik. Bere beste errege-makillen edo leifuen aintza be ez da txikia, Jaungoikoaren agintzaren eraz: «Zure ondorengoa zeruko izarrak bestekoa izango da» (103).

3. Beraz, guztiak izan ziran goratuak eta aundi egiñak: ez, gero, egin ebezan norbere irabaziakaitik, ezta euren egintza ta egitada zuzenakaitik be, Jaungoikoaren naiez baiño.

4. Beraz, geu be, bere naiez Jesukristo'gan deituak izan gintzazanok, ez gara geure irabaziakaitik zindotzen, ezta geure jakituri, adimen, jaungoikozalatasun, edo biotz santuz egiten doguzan egintzakaitik be, asierarik Jaungoiko guztiz Aaltsuak guztiak santutu ebazan sinismenagaitik baiño (104). Berari aintza gizaldiz-gizaldi. Amen.

XXXIII. *Maitasuna, egintzen bidez agertzen da.*—Beraz, anaiok: zer egin bear ete-dogu? Egintza onak gelditu? Goi-maitasuna bertan-beera itzi? (105). Ez dagiala Jaunak itzi orrelakorik jazo dakigun! Baiña, egin dagiguzan aalegiñak edozein egintza on arduraz eta aderez osotzeko.

2. Danaren Egille ta Jaun Jabea bera be bere egintzetan poztu egiten da-ta.

3. Izan be, danaren gaiñetik dagoan bere aal-izate indartsuaz zeruak sendotu ta bere jakituri ulertu-eziñaz apaindu ebazan. Lurra, inguratuta daukan uretik, banandu egin dau eta bere naiaren oiñarri sendoan jarri dau ta bere aginduz artu eben izatea lurraren gaiñean dabizan abereak. Baita itsasoa ta an bizi diran abereak be, eurok eginda gero, bere aal-izatez arein muga-barruetan itxi ebazan.

4. Azkenez, bere esku santuz eta guztiz garbiakaz, lurraraz gizona egin eban, adimenez izakirik bikaiñena ta aundiena dana, ari Bere irudiaren beraren ezau-garria ezarririk.

5. Izan be, Jaungoikoak berak diño onetara: «Egin dagigun gizona geure antzeko ta irudiko. Eta Jaungoikoak gizona egin eban, ar eta emea egin ebazan».

(103) Gen. 15, 5; 22, 17; 26, 4.

(104) Cfr. Mat. 9, 25; Luk. 10, 21.

(105) Cfr. Errom. 5, 20; 6, 1 ta urr.

6. Egintzak amaituta gero, areik goratu ta bedekinkatu egin ebazan, «Azi ta ugartu zaitze!» esanez (106).

7. Zintzo guztiak euren egintza onakaz apaindu egin ziralta, eta Jauna bera be egintza arekaz apainduta, poztu egin zala ikusi genduan.

8. Ereditu ori aurrean izanik, egin dagiguzan aalegiñak Aren naiari jarraitzeko, gure indar guztiakaz zuzentasun-egintza egiñik.

XXXIV. *Egintza onen sari aundia.*—Langille onak bere lanaren ogia uste onez artzen dau; nagia ta zabarra, barriz, ez da ausartzen bere ugazabari arpeirik emoten.

2. Gure eginbearra, ba, egintza onak egiteko arduratzea da, dana Jaungoikoagandik datorkigu-ta.

3. Izan be, aurretiaz jakiñerazo dausku: «Ona emen Jauna ta bere saria bere arpegi-aurrean, bakoitzari norbere lanari dagokionez emoteko» (107).

4. Beraz, biotz-biotzez Aregan uste ona dogunoi, «egintza on baterako» be ez gaitzezala nagi ta zabarrak izan adoretzen gaitu (108).

5. Beragan dago gure aintza ta uste ona; makurtu gakiozan Aren naiari; ausnartu dagigun Aren aingeru-talde guztia, Aren morroi izateko guztiz gertu.

6. Liburu Santuak auxe diño-ta: «Morroiak milloika eukazan eta millaka milla Aren morroitzan, eta deadarka ziarduen: Santu, santu, santua da gudarozteen Jauna; izadi osoa zure aintzaz beterik dago» (109).

7. Era berean geuk be, biozkada-batasunak adiskidetasunez eta gozputz bat bakarrean alkartu gaituanok (110), dei egin dagiogun Berari abots batez, Aren agintzari bikain eta goragarrien jabegei egin gaitzezan.

8. «Ez dau begik ikusi, ez belarririk entzun, ez gizonaren biotzek somatu, Beragan dabenentzat Jaungoikoak atonduta daukana», diño-ta (111).

XXXV. *Sari aundi au jaristeko bideak.*—Zoriontsu ta ikusgarriak benetan, ene maiteok, Jaungoikoaren doaiak!

(106) Gen. 1, 26, 27, 28, 32.

(107) Is. 40, 10; 62, 11; Prov. 24, 12; Ps. 61, 13.

(108) Tito, 3, 1.

(109) Dan. 7, 10; Is. 63.

(110) Ikusi «Constitutiones Apostolicae», VIII, 12; Jerusalem'go Zirilo: *Cateq. mist.* V, 6; Antioquia'ko Iñazio Deuna: *Efes.* 13; *Filadelf.* 4; *Esmirn.* 7 ta 8; Tertuliano, *Apol.*, 39.

(111) Is. 64, 4; Kor. 1.^a, 2, 9 («Bera maite» esan bearrean, «Beragan itxarotzen» diño).

2. Bizitza ezilkortasunean, edertasuna zuzentasunean, egia askatasunean, sinismena uste onean, negurritasuna santutasunean; guztiok gure adimenak oraindik ulertzen dauz (112).

3. Zer izango ete-da, ba, Aren zain dagozanentzat? Gizaldien Egille ta Aitak bakarrik, Guztiz Santua danak (113), Berak bakarrik ezagutzen dau gauza arein kopurua ta edertasuna.

4. Beraz, egin dagiguzan aalegiñak guk Aren zain dagozanen kopuruan aurkituak izan gaitez, agindutako sarietan eskuartu dagigun.

5. Baiña, zelan izango ete-da ori, guztiz maiteok? Ori, gure adimena Jaungoikoagan zintzo-zintzo sendotuta egon ezker izango da; Ari onesgarri ta atseingarri yakona edonun billatzen ba'dogu, ezin txarretsi* daiteken Aren naia osotzen ba'dogu ta egiazko bideari jarraitzen ba'dautsagu, zuzenbagekeri ta gaiztakeri dana, diru-gose, eztabaidakeri, oitura txar eta iruzur, mormoxeta ta guzur-baltz, Jaungoikoaganako gorroto, arrokeri ta andikeri, aundipuzkeri ta abegi txar dana gugandik urrun jaurtirik.

6. Orrelakoak egiten dabezanak, Jaungoikoaren gorrotagarri dira-ta; orrelakoak egiten dabezanak bakarrik ez, gero, baita orreik begi onez ikusten dabezanak be.

7. Liburu Santuak auxe diño-ta: «Jaungoikoak gaiztoari, barriz, auxe esan eutsan: Zegaitik iragarten dozuz nire aginduak eta zegaitik artzen dozu agoan nire alkartasuna?»

8. Menperatzea igundu egin zenduan eta nire itzak sorbaldara jaurti zenduzan.

Lapurra ikustean, zu aregaz ziñoiazan eta ezkon-naastailleakaz alkartzen zintzazan. Zure agoak gaiztakeriz gaiñez egin eban eta zure miiñak ziriak sartzen ebazan. Zure anaiaren aurka zuk txarto esaten ziarduan eta zure amaren semearen aurka jauspideak jarten zenduzan.

9. Orixe egin zenduan eta ni isilik egon nintzan. Ni zeu lakoxea izango nintzala uste zenduan, donga orrek!

10. Agiraka egin eta arpegira jaurtiko dautsut.

11. Ondo ulertu au, Jaungoikoaz aaztuta zagozenok!, indarrez eroan ez zagedazan eta zuek askatzeko iñor be egon ez daiten.

12. Gorapen-opari batek goratuko nau; eta antxe dago alakoari Jaungoikoaren osasuna erakutsiko dautsadan bidea» (114).

(112) Beste batzuek beste onetara dakarre: «Eta orixe bakarrik da gure adimenak orain ulertzen dauana». — Ikusi Jon 1.^a, 3, 2.

(113) Gerkar-elizan «Guztiz Santu» itzak izen goragarri ta berarizkoa irabazi eban; ementxe agertzen da lenengoz.

(114) Ps. 49, 16-23.

(*) Ezin txarretsi: no poder reprochar.

XXXVI. *Jesukristo, gure osasun-bidea.*—Auxe da, anai maiteok, gure osasuna idoro (aurkitu) dogun bidea: Jesukristo, gure oparien Abadeburua (115) ta gure argaltasunaren zaintzaille ta laguntzaillea.

2. Beragaitik jarten dogu gure begirakunea zeru-goietan; Beragaitik ikusten dogu, izpillu baten lez, Jaungoikoaren arpegi orbanbage ta bikaiña; Beragaitik edegi yakuzan biotzeko begiak; leengo gure adimen argal eta illundua, Aren argi ikusgarritara Beragaitik barrizten da; ezaguera illeziña guk dastatu gengian, Beragaitik izan eban nai Jaun Jabeak: «Bera, Aren aintzaren diztira izanik, aingeruak baiño aundiago da, ondoretzat izen bikaiñagoa artu eban ezker» (116).

3. Olantxe dago idatzita-ta: «Bere aingeruak aize, eta bere morroiak sugar egiten dauzana» (117).

4. Bere Semeari buruz, barriz, Jaunak auxe esan eban: «Zu neure Semea zara, Neuk egin zaitut gaur seme. Eskatu egidazu, eta erriak ondoretzat emongo dautsudaz eta lurreko mugen jabe egingo zaitut» (118).

5. Eta barriri be ba-dirautso: «Jesarri zaituz nire eskumaldean, zure arerioak zure oiñazpian ezarri dagidazan arte» (119).

6. Baiña, nortzuk dira arerio orreik? Gizon gaiztoak eta Aren naiari gogor egiten dautsoenak.

XXXVII. *Kristo'ren gudaritza.*—Jardun dagigun, anaiok, adore osoz Aren gudaritzako agindupe akats-bagean.

2. Ikusi dagiguzan gure buruzagien (120) menpean gudaritzan diardue-nak: areik bai beteten dabela artez, arin eta apal-apalik agintzen yaken edozer!

3. Guztiak ez dira nagusi, ezta milla, eun edo berrogeta amar gudariren buru be, eta olantxe beste mailai buruz be; bakoitzak, ostera, berari dagokionez, erregeak (121) eta buru nagusiak agindutakoa egiten dau.

4. Aundiak ezin bizi daitez txikiak bagarik, ezta txikiak be aundiak bagarik. Danetan naaste itxurako bat dago, eta onetantxe dago onura.

(115) Cfr. Ebert. 2, 17; 3, 1; 4, 14; 5, 1.

(116) Cfr. Pedr. 1.^a, 2, 9; Errom. 1, 21; Efes. 4, 18; Ebert, 1, 3 ta 4.

(117) Ps. 103, 4; Ebert 1, 7.

(118) Ps. 2, 7 ta 8; Ebert. 1, 5.

(119) Ps. 109, 1; Ebert. 1, 13.

(120) «Gure buruzagi» orreik, Erroma'ko agintariak dira. Berba, egiteko era au, currez erabilten eben antxiñako kristau-idazleak: Kor. 2.^a, 10, 3 ta 4; Efes. 6, 11-17; Tim. 1.^a, 1, 18; Tim. 2.^a, 2, 3 ta urr.; Iñazio Martiria, Polic. 6, 2.

(121) Erregeak: el emperador. Ikusi Jon 19, 15; Ap. Eg. 17, 7; Pedr. 1.^a, 2, 13 ta 17.

5. Artu dagigun, ulerbidetzat, gure gorputza: burua oin bagarik ezer ez da, ezta oiñak buru bagarik be. Izan be, gure gorputzaren atalik txikienak gorputz osoarentzat bearrezko ta egokiak dira, eta gorputz osoa iraunerazoteko arduratzen eta zuzentzen dira guztiak batera (122).

XXXVIII. *Kristo'gan gorputz bat gara.*—Beraz, iraun begi oso-osorik gure gorputzak Jesukristo'gan, eta egon bedi bakoitza bere lagun-urkoaren menpean, emon izan yakon graziaren eraz.

2. Indartsuak zaindu begi makala; makalak lotsa izan begio indartsuari; aberatsak emon begio eurrez txiroari; txiroak Jaungoikoari eskerrak emon begioz, bearrizana kentzeko norbait emon dautsalako. Jakitunak agertu begi bere jakintza egintza onetan, ez berbetan; apalak ez begio bere buruari autorrik egin, eta itzi begi autor ori berari beste batzuek emon dagioen; bere aragitan garbi danak, ez bedi orretan arrotu, negurridun izateko doai ori emoten dautsana beste bat dana ba-daki-ta (123).

3. Ausnartu dagigun, ba, anaiok, egiñak izan gintzazan gaia zein zan, mundu onetan sartzean zelakoak gintzazan, zein illobi (124) ta illunpetik atara genduzan eratu ta egin genduzanak (Jaungoikoak), gu bere munduan sartzeko, gu jaio aurretik guretzat mesedeak gertatuta eukazala.

4. Beraz, guzti au Beragandik artuta daukagun ezker, danetan be Berari emon bear dautsaguz eskerrak. Berari aintza gizaldiz-gizaldi. Amen.

XXXIX. *Ez arrotu besteen ondoan.*—Ero ta burubageak, zoro ta ezikasiak dira gu gutxitzat artzen eta iraintzen gaituenak, euren adimenean euren buruak goratu nai dabezala.

2. Baiña, egia esan, zer egin daike gizon ilkorrak?, edo-ta, zer indar dauko lurreko izakiak?

3. Idatzita dago-ta: «(Agerpenak) ez eukan antzik nire begien aurrean, baiña aize pizka bat eta abots bat soillik entzun nebazan.

4. Zer, ba? Gizakia, Jaungoikoaren aurrean garbi egongo ete-daiteke, ala?, edo-ta, gizona bere egintzetan egin-egifnekoa izango ete-da? Izan be, Jaungoikoak bere morroiakan zintzotasun-utsegiñak aurkitzen dauz, eta bere Aingeruakan be zerbait oker zana (125).

(122) Cf. Kor. 1.^a, 12, 12 ta urr.; 12, 25.

(123) Cfr. Ef. 5, 21; Antiokia'ko Iñazio: *Magn.* 13, 2; Polikarpo: *Filip.* 10, 2; Sant. 3, 13; Prov. 27, 2; Iñazio: *Polic.* 5, 2.

(124) Ps. 138, 15.

(125) Job, 4, 16-18.

5. Ortzia (zerua) Aren begietan garbia ez da (126); gutxiago lur-ontzietan bizi diranak, eta geu be orren artekoak gara, lur berberaz egiñak! Sitsak lez ezereztuko dauz; ez dira goizetik gabera bizi izango. Areik euren buruai lagun-tzarik ezin emon izan eutseen ezker, ondatu egin ziran.

6. Arein gaiñera putz egin eban eta galdu egin ziran.

7. Dei egizu, beraz, ia norbaitek entzuten zaituan, edo Aren aingeruetarik baten bat ikusten dozun. Benetan, asarrekeriak eroari bizia kentzen dautso, ikusi-eziñak be bai zorabiatuta dagoanari.

8. Nik eroak oiñarriak jarten ikusi dodaz; baiña arein bizitokia berealaxe ondatu zan.

9. Arein semeak osasunetik urrun dagoz; txikiagoen ate-aurrean ezetsiak izango dira, eta askatu dagizanik be ez da egongo. Areintzat gertatuta egozan ondasunak, zintzoak jango dabez; areik, barriz, euren gaitzetatik ez dira onik urtengo (127).

XL. *Eliza, jaungoikozko eraz dago jarrita.*—Guzti au agirian dagoanez eta jaungoikozko ezagueren sakonetara begiratuta gero (128), Jaunak aldi egokian agindu euskun guztia bete bear dogu.

2. Eskintzak eta eginkizunak izentatutako aldi ta orduetan egin zeitezala agindu eban, ez edozein eratan, ezta norbere gogoz be.

3. Eta Berak izentatu eban, bere nai aundiaren bidez, gaiok nun eta nok egin: guztia santukiro egiñik, bere naiari gogoko izan dakion.

4. Beraz, euren eskintzak izentatutako aldietan egiten dabezanak, orreik onartuak eta zoriontsuak dira: Jaunaren aginduai jarraitzen dautseenak, ez dabe pekatuak egiten-eta.

5. Antxiñako Legean, Abadeburuak bere eginkizun berarizkoa eukan bere gain; abadeak, euren toki berezia; lebitarrak be euren eginkizunak; erri-gizona*, azkenez, erri-aginduai dago lotuta.

XLI. *Bakoitza bere eginkizunean.*—Izan gakiogan atsegingarri Jaungoikoari, anaiok, bakoitza bere eginkizunean, barru onaz iraunik, norbere eginkizunari buruz izentatutako mugak ausi bagarik, lotsakizun-gogoz (129).

(126) Job, 15, 15.

(127) Job, 4, 16-18; 4, 19; 55.

(128) Errom. 11, 33; Kor. 1.^a, 2, 10; Apc. 2, 24.

(129) Ikusi «Constitutiones apost.», VIII, 46.

(*) Erri-gizon: laico.

2. Ez dira, anaiok, opari eten-bage edo errukizkoak eta gaiztakerien orde aldez guztietan eskintzen, Jerusalem'en bakarrik baiño. Antxe be ez dira edonun eskintzen, toki santuan baiño, altara-ondoan, opari-gaia abadeburuak eta aitatu-tako eskinlariak aztertuta gero.

3. Jungoikoaren naiak izentatutako beste zerbait egiten dabenak, oster, eriotz-zigorra dabe izentatuta.

4. Ikusten dozue, ba, anaiok: Jaunak guri ezaguera aundiagoa emon, eta gu arrisku aundiagotan gagoz.

XLII. *Jaungoikoa-Kristo-Apostoluak*.—Apostoluak Barri Ona Jesukristo Jaunaren bidez iragarri euskuen; Jesus, Kristo'a, Jaungoikoak bialdua izan zan.

2. Beraz, Kristo'a Jaungoikoaren izenean, eta Apostoluak Kristo'ren izenean: beraz, eginkizun biak, egin-egiflean be, Jaungoikoaren naiari egokiozanez.

3. Eta alan, Apostoluak, aginduak artuta eta Jesukristo gure Jaunaren biztueraz oso-osorik indartuta eta Jaungoikoaren itzez sinismenean sendotuta gero, Espiritu Santuak emon eutsen adorez beterik, laster etorteko zan Jaungoikoaren Erreiñuari buruzko Barri Ona iragartera urten ziran.

4. Eta alan, erri ta urietan Barri Ona iragarririk (130), geroago fededun izan bear ebenentzat, euren asikiñak buru ta laguntzailletzat* jarri ebezan, euren adorea aztertuta gero (131).

5. Eta egikera ori ez zan barrikeriren bat, buru ta laguntzaille orrei buruz aspaldian idatzi izan zan-eta. Izan be, Liburu Santuak onetaraxe diño: «Zuzentasunez jarriko dodaz buru diranak, eta sinismenez laguntzailleak» (132).

XLIII. *Moises'en erakutsi ona*.—Ori ez dana ete-da, Jesukristo'gan Jaungoikoak eginkizun orretarako jarri ebezanok eurok be gero aitaturako besteok jarrea? Moises zoriontsuak be, «etxe guztian morroi zintzo» zanak (133), emoten yakozan agindu guztiak Liburu Santuetan idazten ebezan; eta beste profetak be Moises'i jarraitu eutsoen, Aren lege-agiriaren iraupena izten ebela.

2. Alan, abadegintzari buruz ikusi-eziñak sortu zirala ta izen goragarri ori nok eroan eikean jatorriak euren artean eztabaidan ziarduela, Moises'ek, amabi jatorrien buru ziranai, bakoitzak makilla bana ekarri egiela esan eutsen, jatorri bakoitzak bere izena gaiñean idatzita. Moises'ek, makillok artuta, sorta bat egin eban, jatorri-buru ziranen ezaugarritz itxi, eta Autor-txabolan ipiñi ebezan, Jaungoikoaren mai-gaiñean.

(103) «Barri Ona iragarririk»'en ostean, latinezko esku-liburuak auxe diño gaiñera: «Jaungoikoaren naiari esana egiten eutsoenak bateaturik».

(131) «Aztertuta gero»: ikusi Tito, 1, 5; Errom. 16, 5.

(132) Is. 60, 17.

(133) Num. 12, 7; Ebert. 3, 5.

3. Txabola itxita gero, makillai lez giltzai be ezaugarria ezarri eutsen.

4. Eta auxe esan eutsen: «Anaiok: ziildu daiten makillaren jatorria, axe artu dau Jaunak bere abadegintzarako ta eginkizunerako».

5. Biaramon goizean, Israel osoa batu eban, seireun milla gizon, eta jatorri-buruai ezaugarriak erakutsi eutsezan; gero, Autor-txabola edegi ta makillak kanpora atara ebezan. Eta Aaron'en makill(e)ak, ziildu egin zala bakarrik ez, baita frutua be ba-ekarrela ikusi eben (134).

6. Zer deritzazue, anaiok? Ori orrela jazo-bearra zanik, ez ete-ekian aurretiaz Moises'ek? Ba-ekian ondotoxo be! Baiña, Israel'en naastea sortu ez zeiten eta Jaungoiko bakar eta egiazkoa goratua izan zeiten egin eban orretara (135). Berari aintza gizaldiz-gizaldi. Amen.

XLIV. *Korinto'koen pekatua*.—Gure Apostoluak be ba-ekien, Jesukristo gure Jaunaren argiz, gotzaintza-izen eta izateari buruz eztabaidak sortuko zirana.

2. Orregaitik, ba, gerokoaren ezaguera oso-oso ebela, aitaturako *buru ta laguntzailleok* jarri ebezan, eta aurrerantzerako arau au agindu eben: oneik il zeitezanean, eginkizunean beste gizon aztertu batzuk jarraitu egi(ts)eela.

3. Beraz, Apostoluak jarritako gizonezkoak, edo geroago Eliza osoaren baimenaz beste gizon ospatsu batzuen bidez jarritakoak eta apal, baketan eta gogo zabalez akats bagarik Kristo'ren artaldeko morroitzan jardun izan dabenak eta aspaldian guztien onespina irabazi daben gizonezkook euren eginkizunetik jaurtitea, ez dogu uste bidezko danik.

4. Eta olan, pekatu txikia be ez dogu egingo, opariak akats bagarik eta santutsu eskiñi dabezanak gotzaintzatik beera jaurtiten ba'doguz.

5. Zoriontsuak, elburu ugaritsu ta bete-betea lortuta gero, euren bidea osotu daben zaarrak (abadeak-gotzaiñak)!: dagozan tokitik iñok jaurtiteko bil-durrik onezkero ez dabe izango-ta.

6. Euren eginkizuna egikera santuz eta akats bageaz goratuta gero, norbaitzuk (abade batzuk) euren eginkizunetik kendu egin dozuezala ikusten doguta (136).

XLV. *Zintzoak aurrean darabillezanak*.—Ekiozue, arduraz eta nor geiagoka, anaiok, zuen osasunari dagokionari!

2. Ausnartu dozuez Liburu Santuak; Liburuok egia dauke, Espiritu Santuak argituak diran ezker.

(134) Guzti au, ikusi, Num. 17.

(135) Cfr. You, 17, 3, ta 17, 18.

(136) »Constitutiones Apost. II, 6.

3. Ondo dakizue, zuzenbaze edo gaiztakeririk idatzita an ez dagoana: gizon santuak gizonen zintzorik aurrean erabili dabenik ez dozue an aurkituko.

4. Izan dira, bai, gizon zintzoak aurrean erabiliak; baiña gaiztoak erabili ebezan. Giltzapean sartuak izan ziran, baiña gizon dongak sartu ebezan. Arrika egiñak izan ziran, baiña lege-ausleak egin eutseen arrika. Illak izan ziran, baiña ikusi-ezin donga ta bidebagez beterik egozanak il ebezan.

5. Oñazeok goragarriro igaro ebezan (137).

6. Onezkero, zer esango dogu, anaiok? Jaungoikoaren bildur ziranak jaurti ebela Daniel leioen lezara?

7. Goren-gorengoaren gurtza bikain eta goragarria egiten ebenak jaurti ebela Ananias, Azarias eta Misael su-labara? Ez orixe! Nortzuk izan ziran, ba, ori egin ebenak? Gorrotoz beterik eta edozein gaiztakeriz gaitzeka egozan gizonak izan ziran: oneik, Jaungoikoaren morroitzan asmo santu ta akats bageaz ziarduenak, oñazetara jaurti ebezan. Amorrurorretaragiño eldu ziran! Ez ekien Gorengo Beronen izena barru garbiz (138) gurtzen dabenen zaindari ta jagole danik. Berari aintza gizaldiz-gizaldi. Amen.

8. Uste onez iraun ebenak, barriz, ondoretzat aintza ta gorapena artu eben, eta Jaungoikoak goratu ta bere gomutapen-liburuan ezarri ebazan, gizaldiz-gizaldi. Amen (139).

XLVI. *Batasunerako deia*.—Lotu gakezan geu be, anaiok, alako ikasbideai.

2. Idatzita dago-ta: «Batu zaitezte santuakaz, arekaz batzen diranak santutu egingo dira-ta» (140).

3. Eta barriro, beste nunbait, auxe diño: «Gizon errubagegaz errubage izango zara; aukeratuagaz, aukeratu izango zara, eta gaiztoagaz gaiztotu egingo zara» (141).

4. Batu gaitezte, ba, errubage ta zuzenakaz, Jaungoikoaren aukeratuak eurarak dira-ta.

5. Zer dala-ta dagoz zuen artean eztabaidak eta asarreak, alderdikeri, banantze ta gudaketa?

6. Ala, ez ete-daukagu Jaungoiko bat bakarra ta Kristo bat bakarra ta geure gaitzera isuri zan grazi-Espiritu bakarra? Ez ete-da bakarra Kristo'gan gure deia? (142).

(137) Daniel'en liburitik artuak, 6, 16; 3, 19 ta urr.

(138) Tim. 1.^a, 3, 9; Tim. 2.^a, 1, 3.

(139) Cfr. Ps. 68, 29; Luk. 10, 20; Hermas'en Artzaiña, I'go. Ikusketa, 3, 2;

V'gn. Antz-irudia, 3, 2.

(140) Ez dakar Bibliak. Ikusi Ps. 17, 26; Eccli. 6, 34; Hermas'en Artzaiña, III'gn. Ikusk. 62; VIII'gn. Antz-irudia, 8, 1.

(141) Ps. 17, 26 ta 27.

(142) Ikusi LVIII, 2; Efe. 4, 3-6; Kor. 1.^a, 8, 6.

7. Zer dala-ta urratzen eta zatitzen doguz Kristo'ren gorputz-atalak eta jagiten gara gure gorputzaren aurka, batzuo beste batzuen gorputz-atalak garaz aaztuten garala, zorakeritara eltzeragiño? (143). Ekarri egizue gogotara Jesus gure Jaunaren itzak.

8. Berak esan eban-eta: «Gizon aren zoritxarra! Nik aukeratutako bati bakarrik galbidea emon baiño obe litzakion jaiño ez ba'litz. Obe litzakio, errotarria samatik lotuta, itsasora jaurtia izatea, Nik aukeratutako bati bakarrik galbidea emon baiño» (144).

9. Zuen banantzeak askori bidea galduazo dautse, askori adorea kendu egin dautse, asko ezbaitan jarri dauz, eta guztiok naigabez beterik itzi gaitu. Oraintxe be, zuen biurkeriak zuen artean iraun egiten dau!

XLVII. *Oraingo banantzea ta San Paulo'ren aldietakoa*.—Artu egizue eskuetan Paulo Apostolu zorientsuaren idazkia.

2. Zelan idatzi eutsuen Barri Onaren iragarte-asieretan? (145).

3. Izan be, jaungoikozko adorez argituta, bere buruari, Zefas'i ta Apolo'ri buruzko idazki bat bialdu eutsuen, orduantxe be alderdikeriak iziotzen zenduezan-eta.

4. Alan be, alderdikeri arek oraingoak baiño erru gutxiago izan eban, Apostolu aztertuakana ta oneik onartutako gizon bategana (146) makurtzen zintzatzen ezkerero.

5. Baiña, ikusi egizue orain bidetik atara zaituenak nortzuk diran, leen alde guztietan ospatsu zan zuen anaitasunari buruzko begirunea gutxiturik.

6. Lotsagarria, bai, anaiok, guztiz lotsagarria ta Kristo'gan zuen jokabideari ez dagokiona da entzuten dan au: bi edo iru lagun dirala-ta, Korinto'koen Eliza guztiz sendoa ta antxiñakoa beronen buru (147) diranen aurka jagi dala.

7. Eta barri au geuganagiño bakarrik ez, baita gure pentzakerarik ez dabenakagiño be eldu da; eta zuen erokeria dala-ta, Jaunaren izenari birao egiten yako (148), eta zeuek be arrisku aunditan sartzen zaree.

(143) Errom. 12, 5; Kor. 1.^a, 6, 15.

(144) Mat. 26, 24; Luk. 17, 2; 18, 6 ta 7; Mark. 9, 42. (Ebanjelariak, «aukeratu-tako» ordez, «txikitxo» dakarre).

(145) Filip. 4, 15.

(146) Gizon ori, Apolo zan.

(147) Klemente'k ez dau «gotzain eta abade» arteko alderik egiten; bientzat izen bat darabil, «presbyteros» itza: batzarreko edo elizako «buru» zana, edo-ta «zaar» itzez-itz.

(148) Cfr. Errom. 2, 24; Tim. 1.^a, 6, 1; Antiokia'ko Iñazio: *Trall.* 8, 2; Polikarpo: *Filip.* 10, 2.

XLVIII. *Jesukristo, zuzentasun-atea.*—Kendu dagigun, ba, arin gaizpide ori, eta Jaunaren aurrean auzpazturik, eskatu dagiogun negarrez aldeko izan da ori, eta Jaunaren aurrean auzpazturik, eskatu dagiogun negarrez geure aldeko izan dadilla, bere adiskide egin eta gure maitasun-bizikera santu ta garbira barreroan gatzala.

2. Bizitzarako zabaldua dagoan zuzentasun-atea orixe da-ta, idatzita dagoenez: «Edegi egidazuez zuzentasun-ateak; eurotatik sarturik, Jauna autortuko dot.

3. Auxe da Jaunaren atea; zintzoak bertatik sartuko dira» (149).

4. Edegita dagozan atea asko izanik, auxe da zuzentasun-atea; Kristo'gan edegiten dana. Zoriontsuak, bertatik sartu daitezaz guztiak eta euren oinkadak «santutasunez eta zuzentasunez» (150) zuzendu dagiezanak, guztia adore bakesuz buruturik!

5. Urliak sinismen-doaia izan dagiala; berendia, ezaguera azaltzen trebea izan daitea; au, berbak igarten jakintsua; ori, bere egintzetan garbia.

6. Norbera andiagoa dala uste dauanak, apalagoa izan bear dau ta lagun-artearen* irabazia billatu, ez bere buruarena.

XLIX. *Goi-maitasunari ereserkia.*—Kristo'gan goi-maitasuna izan dagianak, Kristo'ren aginduak bete dagizala (151).

2. Nok azaldu ete-daike Jaungoikoaren maitasun-lokarria? (152).

3. Nor izango ete-da Aren maitasunaren edertasun bikaiña azaltzeko lain?

4. Esan-ezin alakoa da goimaitasunak noragiño jasoten gaituan.

5. Goimaitasunak Jaungoikoagaz batzen gaitu, «goimaitasunak pekatu piloa estaltzen dau», goimaitasunak dana ondo jasaten dau, goimaitasuna eroan-kor da. Goimaitasunean ez dago ezer zatarkeri danik, ezta arrokeri danik be. Goimaitasunak ez dau banantzerik iziotzen; goimaitasuna ez da biurkeri-zale; goimaitasunak dana gogo batez egiten dau. Goimaitasunean, Jaungoikoak aukeratutako guztiak zintzo-zintzoak egin ziran. Goimaitasun bagarik, Jaunari ez yako ezer gogoko (153).

6. Maitasunean artu genduzan Jaun Jabeak (154). Guganako maitasuna-

(149) Ps. 117, 19 ta 20.

(150) Luk. 1, 75. Ikusi Mat. 7, 13 ta 14; Hermas'en Artzaiña, IX'gn. Antz-irudia, 12, 1; Antiokia'ko Inazio: *Filadelf.* 9, 1.

(151) Yon, 14, 15; Jon, 1.^a, 5, 1 ta urr.

(152) Kol. 3, 14.

(153) Prov. 10, 12; Pedr. 1.^a, 4, 8; Sant. 5, 20; Kor. 1.^a, 13, 2-4.

(154) Jaun Jabeak Jaungoiko Aitak. Ikusi Yon, 3, 16; Yon, 1.^a, 4, 9, 10.

(*) Lagunarte: comunidad.

gaitik, Jesukristo gure Jaunak gugaitik bere odola emon eban, Jaungoikoaren naiari egokionez, eta bere aragia gure aragiagaitik, eta bere bizia gure bizia-gaitik (155).

L. *Goimaitasun-grazia eskatu dagiela.*—Ikusten dozue, anai maiteok, goimaitasuna dan aundia ta ikusgarria, eta ez dagoala aren osotasuna adierazoko dauan azalpenik.

2. Nor izango ete-da bertan aurkitzeko lain, aren duin Jaungoikoak berak egin dagizanak izan ezik? Beraz, erregutu ta eskatu dagiogun Aren errukiari maitasunez aurkitu gaitzala, giza-zalekerietatik urrun, erru bagarik.

3. Belaunaldi guztiak, Adan'egandik gaur arte, igaro egin dira; maitasunean bete-beteak izan ziranak, barriz, Jaungoikoaren graziari dagokionez, jaungoikozaleen artean dabe tokia, eta Kristo'ren Erreñuaren ikustaldian agertuko dira.

4. Idatzita dago-ta: «Sartu zuen geletan une baterako, nire asarrea ta sumiña igaro arte, eta egun ona ekarriko dot gogotara, eta zuen illobietatik kanpora atarako zaituet» (156).

5. Gure zoriona, guztiz maiteok, Jaungoikoaren aginduak maitasun-gogobatez beteten ba'doguz, goimaitasunaren bidez geure pekatuen parkamena jadetsi daikegun!

6. Idatzita dago-ta: «Zoriontsuak, gaiztakeriak parkatu ta pekatuak estaldu yakezanak! Zoriontsua, Jaungoikoak pekatuak aurkitzen ez daukan gizonzkoa, eta bere agoak iruzurrik ez daukan *gizona!*» (157).

7. Zorion ori, Jaungoikoak aukeratutakoai emon eutsen, Jesukristo gure Jaunaren bidez: Beroni aintza gizaldiz-gizaldi. Amen.

LI. *Damurako deia.*—Beraz, erregutu dagigun, anaiok, gure areioaren zirikaldiz egindako erru ta pekatu guztiak parkatuak izan dakiguzan; eta biurkeri ta alderdikeriaren buru egin ziranak be, guztion itzaropena begiratu bear dabe.

2. Izan be, euren bizikeran bildurrez eta maitasunez diarduenak, besteak nekeak igarotea baiño eurak igarotea naiago dabe; leenago artzen dabez euren buruak erruduntzat, ain ederto ta zuzen emon izan yakun batasun eta alkartasun-gogoa orretarako arriskutan jarri baiño.

3. Obe yako gizonari bere pekatuak autortzea, bere biotza gogortzea baiño, Jaungoikoaren morroi zan Moises'en aurka jagi ziranen biotzak gogortu ziranek; arein ondapena agirian geratu zan:

(155) Maitasunagaitik: Yon, 15, 12; Gal. 1, 4; 2, 20; Efes. 5, 2. «Bere aragia»: ikusi Ireneo, V, 1, 1.

(156) Cfr. Luk. 19, 44; Pedr. 1.^a, 2, 12; Jerem. 26, 20; Ezekiel, 37, 12; Is. 26, 20; Esdras, 4.^a, II, 16; VI, 32.

(157) Ps. 31, 1-2; Errom. 4, 7-9.

4. «bizirik jatsi ziran inpernura», eta «eriotzak zainduko dauz-ta» (158).

5. Faraon, aren gudaroztea ta Ejipto'ko nagusiak, guda-burdiak eta gaiñean yoiazanak, Itsaso Gorrian amildu ta ondatu egin ziran; eta ori, Ejipto-lurraldean Jaungoikoaren morroi zan Moises'ek egindako arrigarri ta mirariak eginda gero, euren biotz eroak gogortu egin ebezalako.

LII. *Gure pekatuen autortza, Jaungoikoari atsegingarri yako.*—Ez dau eze-
ren bearrizanik, anaiok!, gauza guztien Jabe danak, Bera autortu dagigula baiño.

2. Dabid aukeratuak esan be ba-diño: «Jauna autortuko dot, eta ori Jaun-
goikoari zekor adardun eta apazduna baiño gogokoago izango yako. Ikusi begie
ori txiroak eta poztu beitez» (159).

3. Eta barriro be ba-diño: «Eskifñi egiozu Jaungoikoari gorapen-oparia ta
bete egiozuz Gorengoari zure biotzeko gogoak. Dei egidazu zure larrialdi-egu-
nean eta Nik askatu egingo zaitut eta zuk goratu egingo nozu.

4. Jaungoikoaren aurrean oparia, biotz garbatua da-ta» (160).

LIII. *Beste burubide batzuk.*—Ezagutzen dozuez, anaiok, eta ondotox eza-
gutu be Liburu Santuak (161), eta sartu zaree Jaungoikoaren itzen barrukaldera.
Beraz, gauzok gomutarazoteko bakarrik idazten dautsueguz.

2. Moises'i, mendira igo zala ta an berrogei egun eta berrogei gau barau
ta apaltasuna egiten igaro ebazala, Jaungoikoak auxe esan eutsan: «Moises,
Moises! Jatsi emendik arin: zure erriak, Ejipto-lurraldetik atara zenduan erriak,
gaiztakeria egin dau-ta. Laster okertu dira agindu neutsen bidetik, eta burdin-
urtuzko irudiak egin dabez» (162).

3. Eta Jaunak auxe esan eutsan: «Bein eta birritan egin dautsut itz, esanez:
Ikusi dot erri ori, ta lepogogor da, benetan. Itzi egidazu ezereztu dagidazan, eta
orren izena ortzipetik (zerupetik) kendu egingo dot; eta erri ori baiño aundiago,
ikusgarriago ta indartsuagoaren buru egingo zaitut' (163).

4. Eta Moises'ek auxe erantzun eban: «'Ez ori, Jauna! Parkatu egiozu erri
orri beronen pekatua, edo kendu nagizu, bestela, neu be bizien liburitik'» (164).

5. Ori bai maitasun aundia! Ori bai osotasun ezin-garaitua! Otseñiak Jau-
nari zabal-zabal egiten dautso itz; gizataldearen alde parkamena eskatzen dau,
edo, bestela, arekaz batera kendua izan daitela erregutzen dau.

(158) Num. 16, 33 Ikusi «Constitutiones Apost. II, 27; Ps. 48, 14.

(159) Ps. 68, 31-33.

(160) Ps. 49, 14 ta 15; 50, 19. Ikusi Sant. 5, 16; Yon'en, 1.^a, 1, 9; Ap. Eg. 19 18;
Didajé, XIV, 1; Bernabé, 19.

(161) Cfr. Tim. 2.^a, 3, 15; Polikarpo: Filip. 12.

(162) Deut. 9, 12; ikusi Ex. 32, 7-8.

(163) Deut. 9, 13-14; ikusi Urteera, Ex. 32, 32.

(164) Ex. 32, 32.

LIV. *Benetako maitasunak Elizari on yakona billatzen dau.*—Ori orrela,
zuetariko nor da ezku-zabala, errukiorra, maitasunez beterikoa? Orrelakoak,
auxe esan begi: «Alderdikeriak, eztabaidak eta banantzeak neugaitik etorri ba'di-
ra, ni ba-noa emendik; nai dagizuen lekura noa ta gizataldeak (165) agindu da-
giana beteko dot, Kristo'ren artaldea jarritako abadeakaz (166) bakean gelditzen
ba'da».

2. Ori egin dagianak, Kristo'gan gorapen andia irabaziko dau, eta edozein
tokik onartuko dau, «lurra ta aren betegarria Jaunarena da-ta» (167).

3. Alantxe egin eben eta alantxe egingo dabe Jaungoikoaren legeari dago-
kion bizikera eroan dabenak; bizikera orrek, barriz, ez dau naibagerik iñoiz be
eragiten.

LV. *Lagun-urkoaganako sinisbageen maitasuna.*—Sinisbageen ereduak be
aitatzeko, *ona emen*: Errege ta errege-gai* askok, izurritean, azti-erantzunari*
esana egiñik, euren buruak eriotzara emon ebezan, euren erritarrak odolaz onik
atarateko; asko, euren gogoz, euren urietatik erbesteratu egin ziran, matxiñada
amaitzeko.

2. Ba-dakigu, asko gure artean katepean jarri dirana, beste batzuk askatze-
ko; asko joputzat saldu dira, artutako ordaiñez beste batzuk janaritzeko.

3. Emakume asko, Jaungoikoaren graziaz sendotuta, giza-egintza ospatsuak
burutu ebezan.

4. Judit zoriotsua, bere uria inguratuta egoala, zaarrai atzerritarren gu-
daltegiara joateko baimena eskatu eutsen.

5. Beraz, bere aberriaren eta inguratuta egoan bere erriaren maitasunak
eraginda, *andik* urtenik, bere burua arriskutan jarri eban, eta Jaunak Holofernes
emakume baten eskuetan itzi eban (168).

6. Sinismenean egin-egiña zan Ester be ez zan arrisku txikiagotan jarri,
galtzeko zorian egozan Israel'go amabi jatorriak onik atarateko. Barau ta apalta-
sunaz, guztia ikusten dauan Jaunari ta gizaldien Jaungoikoari erregu egin eutsan;
eta Jaungoikoak, aren arimaren apaltasuna ikusirik, arriskutan jarri izan zana-
gaitik erria onik atara eban (169).

LVI. *Anai-arteko zuzentzea.*—Erregutu dagigun, ba, geuk be pekatoren
baten bizi diranen alde, eratasuna ta apaltasuna emon dakien, eta, guri bagarik,

(165) Gizataldeak: kristau-lagunarteak, tokiko elizak.

(166) Abadeakaz: elizaren *buru* diranakaz; «zaararak» itzez-itz.

(167) Ps. 23, 1.

(168) Judit, 8 ta urr.

(169) Ester, 7, 8.

(*) Errege-gai: príncipe. — (*) Azti-erantzun: oráculo.

Jaungoikoaren naiari makurtu dakiozan: orretara, Jaungoikoaren eta santuen (170) aurrean arei buruz egiten dogun gogorapen errukiorra, onuratsu ta egin-egiña izango yake-ta.

2. Onartu dagigun, ba, anaiok, jardun-araua*: onezaz ez da iñor mindu bear-eta. Alkar-zuzentzea, ona ta guztiz ongarria da, Jaungoikoaren naiari lotzen gaitu-ta.

3. Berba Santuak auxe diño-ta: «Jaunak gogor zuzendu nau; baiña, ez nau eriotzarako itzi.

4. Jaunak, Bera maite dauana, astindu, eta semetzat daukana zigortu egiten dau-ta» (171).

5. «Zintzoak errukitsu zuzenduko nau —diño Liburu Santuak—; pekatarien orioak, barriz, ez dau igurtziko nire burua» (172).

6. Eta barriro be ba-diño: «Zoriontsua, Jaunak agiraka egin dautsan gizonzkoa! Ez eroan txarto, ba, guztiz Altsuaren agiraka-egitea: zigorra Berak egin eta Berak osatzen dau-ta.

7. Bera da zauritzen dauana ta bere eskuak dira osatzen dabenak.

8. Sei larrialditan onik atarako zaitu, ta zazpigarrenean ez zaitu gaitzak ikutuko.

9. Gosetean eriotzatik onik atarako zaitu, eta gudatean burdiñazko eskutik askatu egingo zaitu.

10. Miin-zigorretik gorde egingo zaitu, eta ez dozu geroko gaitzen bildurrik izango.

11. Zuzenbage ta gaiztoen lepotik barre egingo dozu, eta ez dozu basapistien bildurrik izango.

12. Basa-pistiak, zuri buruz, otzanak izango dira-ta.

13. Orduantxe ezagutuko dozu zure etxean errege bakea dana, eta zure txabolako bizitokia utsune bagarik geldituko dana.

14. Zure ondorengoak asko dirana ezagutuko dozu, eta zure semeak zelaiko bedar zea lez.

15. Gari eldu ta sasoiz ebagitakoa lez sartuko zara zure illobian, edo-ta aldi egokian batzen dan soloko meta bat lez» (173).

16. Ikusten dozue, maiteok, Jaunak zuzentzen dauzanak daben laguntza aundia: Aita ona danez, zigortu egiten gaitu-ta, Aren zigortzaz errukia jadetsi dagigun.

(170) Santuak = kristau anaiak.

(171) Ps. 117, 18; Prov. 3, 12; Ebert, 6.

(172) Ps. 140, 5.

(173) Job, 5, 17-26.

(*) Jardun-arau: disciplina.

LVII. *Biurriai deia*.—Zuek, ba, biurkeria sortu zenduenok, menperatu zakieze zuen zaarrai (abadeai), zuzendu ta biurtu zaiteze, zuen biotzeko belauak makurturik.

2. Ikasi egizue menpetasuna, zuen miiñaren aundikeri arroputza alde batera itzirik: obe yatzue, zuen buruon eritzi onegiaz Aren itxaropenetik baztatuak izatea baiño, Kristo'ren artaldean txiki ta izen oneko aurkituak izatea.

3. Jakintza guztiz santuak olantxe diño-ta: «Begira: neure arnas-itza isuriko dautsuet, neure itzaldia irakatsiko dautsuet.

4. Deika ekin neutsuen eta zuek entzun ez zeusten ezkerok, neure itzaldiak zuzendu neutsuezan eta zuek aditu ez; nire burubideak ezetsi bai, ostera, eta nire agirakai zuek jaramonik be ez. Orregaitik, ondamendia etorri dakizue-nean eta zaratotsa bat-batean gaiñera jausi dakizuenean eta, ekaitzak lez, naasteak tatarrez eroan zagiezanean, edo ezpaiak eta larriak artu zagiezanean, neuk be zuen ondapenari buruz barre egingo dot.

5. Egun orretan, dei egingo daustazue, baiña ez dautsuet entzungo; gaiztoak neure billa ibilliko dira, baiña ez nabe idoroko (aurkituko). Jakituriari gorroto izan eutsoen, eta Jaungoikoaganako bildurra ez eben aukeratu, ezta nire burubideak aditu nai izan be; nire agirakai barre egin eutseen, ostera.

6. Beraz, euren bideko frutuak jan bear izango dabez eta euren dongakeriaz aseko dira.

7. Txikien aurka zuzena ez dana egin eben ezkerok, illak izango dira, eta gaiztoa azterraldiak* ondatuko dau. Neu entzun nagianak, barriz, bere txabolan bizi izango da, ustea itxaropenean jarririk, eta zabal-zabal bizi izango da, eze-zen gaitzen bildur bagarik» (175).

LVIII. *Esanekoa, Jaungoikoak saritu egiten dau*.—Egin dagiogun, ba, esana Aren izen guztiz santu ta goragarriari, esan-txarrekoen aurka Jakituriak esandako zemetatik* alde egiñik, Aren aunditasunaren izen guztiz santuan uste onez atsedean izan daikegun.

2. Onartu egizue gure burubidea ta ez zaree damutuko. Jaungoikoa bizi da-ta, baita Jesukristo Jauna ta Espiritu Santua be, baita aukeratuen sinismena ta itxaropena be; eta Jaungoikoak emondako aginduak eta erabagiak apaltasun-gogoz, otzantasun iraunkorrez eta egiñalak egiñez bete dagizana, axe bakarrik izango da jarria ta aukeratua Jesukristo'ren bitartez onik urtetan diran kopuruan: Beronen bidez emoten yako Jaungoikoari gorapena gizaldiz-gizaldi. Amen.

(174) «Codex Alexandrinus» izenekoak ez dakar LVII'garren atalburu au.

(175) Prov. 1, 23-33.

(176) «Codex Alexandrinus» izenekoak ez dakar LVIII'garren atalburu au.

(*) Azterraldi: escudriñamiento. — (*) Zemek: amenazas.

LIX. *Eliza osoaren alde eskaria: a) Sarrera.*—Alan be, gure bitartez Berak (Jaungoikoak) esandakoari esanik egin ez ba'dautsoe, jakin begie pekatu txikia ez danaren errudun izango dirana ta arrisku aunditan jarten dirana.

2. Gu, barriz, pekatu orretan errubage izango gara; eta, Jesukristo bere Seme ta Morroi maitearen bitartez (177), mundu guztian aukeratutako kopuru (178) gutxi-samarra osorik iraunazo dagiala eskatuko dautsagu gauza guztien Egilleari, otoitz eta eskari gartsuz: Jesukristo'ren bidez egin dausku dei illunpetatik argitara, ezjakintzatik bere izen goragarriaren ezaguerara (179).

b) *Gorapen-otoitza.*—3. Edozein izakiren bizitza-asiera dan zure izenaren zain egotera egin zeuskun dei. Zeuk zabaldu zenduzan gure biotzeko begiak, goietan guztiz Altsu bakarra (180) zaran eta santuen artean atsedean artzen dozun Santu (118) ori ezagutzeko.

Arroen aundikeria beeratzen (182), errien erabagiak ezereztzen (183), apalak gora jasoten eta arroak beeratzen dozuzan Ori ezagutzeko (184).

Zeuk aberasten eta Zeuk txirotzen dozu (185).

Zeuk kentzen eta emoten dozu bizia (186).

Zeuk bakarrik zara espirituen ongille ta edozein aragiren Jaungoiko (187).

Zeuk aztertzen dozuz lezak eta ikusten gizonen egintzak;

Zeuk zara arriskutan dagozanen laguntzaille (188),

ustea galdu dabenen salbatzaille,

edozein espirituen egille ta zaintzaille (epískopos) (189).

Zeuk ugaritzen dozuz lur-gaiñean erriak, eta guztien artetik Zeu maite zaituenak aukeratu zenduzan, Jesukristo zure Seme ta Morroi maitearen bidez: Beronen bitartez irakatsi, santutu ta goratu genduzuzan (190).

(177) «Seme ta Morroi»: «pais» gerkar-itzak orixe adierazoten dau: seme ta morroi. Ikusi Isaias, 42, 1; Mat. 12, 18; Didajé, IX, 2 (Dabid); IX, 2, 3, eta X, 2, 3 (Kristo).

(178) «Berak aukeratutako kopurua»: ikusi Agerpena, Apoc. 7, 4 ta 5.

(179) Cfr. Efes. 1, 5 ta 6.

(180) Cfr. Luk. 2, 14.

(181) Is. 57, 15.

(182) Is. 13, 11.

(183) Ps. 32, 10.

(184) Job, 5, 11.

(185) Sam. 1.^a, 2, 7.

(186) Deut. 32, 39.

(187) Num. 16, 22; 27, 16.

(188) Cfr. Daniel, 3, 55; Judit, 9, 11.

(189) Cfr. Job, 10, 12; Sap. 1, 6.

(190) Cfr. «Didajé», IX, 2-3.

d) *Beartsuen alde eskaria.*—4. Gure laguntza ta zaintzaille izan zaitezala eskatzen dautsugu, Jauna Jabe orri! (191).

Atsekabetan bizi diranak onik atara egizuz, erruki zakiez apalai, jaso egizuz jausiak, agertu zakiez beartsuai, osatu egizuz geisoak, eta biurtu egizuz bidea galdu dabene zure errikoak.

Janaritu egizuz gosetuak, askatu gure giltzapekoak, sendotu makalak, poztu koldarrak.

Ezagutu begie erri guztiak Zeu zarana Jaungoiko bakarra (192), eta Jesukristo zeure Seme ta Morroia, eta gu zeure erri ta zeure artaldeko ardiak (193).

LX. e) *Gorapen eta eskari barria.*—Zeuk erakutsi zenduan munduaren erakuntza betiko, bertan diarduen indarren bidez,

Zeuk, Jaun orrek!, egin zenduan lurra;

Zeuk, gizaldi guztietan zintzo zaran Orrek,

auzietan zuzen, indarrez eta maitasunez ikusgarri,

izakuntzan jakintsu eta egindako gauzak iraunerazoten jakitun;

ikusten diranetan on, eta ustea Zeugan dabeneztat zintzoa zaran Orrek.

Errukior eta biozpera Orrek (194), parkatu gure gaiztakeri ta pekatuak, gure utsegin eta ardurazak.

2. Ez artu gogotan zure otsein eta mirabeen pekatuak; zure egiaren garbikuntzaz garbitu gagizuz, ostera, eta zuzendu egizuz gure oinkadak biotz-santutasunez (195) jarduteko ta zure ta gure nagusien aurrean on eta gogoko dana egiteko (196).

3. Bai, Jauna!: erakutsi egizu zure arpegia gure gaiñean, bakean ondo egoteko, zure esku aaltsuaz gu gordeteko, eta zure beso gorengoak edozein pekatutik eta bidebagez gorroto dauskuekandik jagon gagizala

4. Emon egiguzu gogo-batasuna ta bakea guri ta lurreko bizilagun guztiai, gure gurasoai emon zeutsenez, sinismenez, egiaz (197) eta era santuz dei egin eutsuenean.

Zure izen guztiz aaltsu ta guztiz santuari esaneko izan gakiozala egizu, baita lurrean gure nagusi ta agintari diranai be.

(191) Ps. 118, 114.

(192) Erregeen, 1.^a, 8, 16.

(193) Ps. 78, 13.

(194) Joel, 2, 13.

(195) Ps. 118, 133; Erregeen, 1.^a, 9, 11.

(196) Deut. 13, 18

(197) Ps. 66, 2; Jerem. 21, 10; Is. 51, 16; Deut. 4, 34; Ps. 17, 18; 37, 20.

LXI. *e) Agintarien alde* (198).—Zeuk, Jaun orrek!, emon zeutsen errege-agintaritza zure indar bikain eta azaldu-eziñaz: Zuk emon zeutsen aintza ta aginpidea guk ezaguturik, arein menpean egon gaitez, zure naiari ez dagokionetan izan ezik (199). Emon egiezu, Jaun orrek, osasuna, bakea, gogo-batasuna ta iraupena: Zuk emon zeutsen agintaritza, eragozpen bagarik eroan dagien.

2. Lurreko gaiak buruzko aintza, gorapena ta aal-izatea gizasemeai, Zeuk emoten dautsezu-ta, Jaun Jabe, gizaldien Errege zerutar orrek! Zuzendu Zeuk, Jaun orrek!, arein burubideak, zure begiak on eta gogoko (200) dagokienez: Zeugandik artutako agintaritza, areik bakez, errukitsu ta era santuz eroanik, zure errukia jadetsi dagien.

3. Zeuk bakarrik emon daikaguzuz ondasunok, baita orreik baiño ondasun aundiagoak be; Zeu autortzen zaitugu, Jesukristo Abadeburuaren eta gure arimen Zaindariaren bitartez: Beronen bidez aintza ta aunditasuna Zuri orain eta belaunik belau, eta gizaldiz-gizaldi. Amen.

LXII. *Idazki au labur-labur*.—Anaiok: naikoa idatzi dautsuegu gure gurtzari dagokioni buruz eta euren bizitza onoinen-bidetik Jaungoiko-zaletasunez eta zuzen eroan nai dabenai araurik ongarrienai buruz.

2. Izan be, ez dogu ezer itzi sinismenari ta damuari buruz, legezko maitasunari ta negurritasunari, eratasunari ta eroapenari buruz, zuzentasunez, egiaz, biotz zabalez eta era santuz zuen buruak Jaungoiko guztiz aaltsuari atsegingarri egin bear dautsazuezala zuei gomutarazorik; gogo batez irauan dagizuela, gorroto bagarik, maitasunez eta bakez, erruki etenbagez: leen aitaturiko gure gurasoak Jaungoiko Aita ta Egilleaganako ta gizon guztiakanako euren espiritu apalaz atsegingarri egin ziranez.

3. Guzti ori atsegiñez gomutarazoten dautsuegu, eta atsegin aundiagoz gairera Jaungoikoaren irakaspenaren itzetan sakon-sakon sartu diran gizonetzko zintzo ta guztiz aukeratuai idazten geutsela ba-gekian-eta.

(198) Otoitz au, Erroma'ko agintari nagusien alde da, gizon oso gaiztoak izanaren be, Neron et Domiziano izan ziranez. Alantxe agindu eban Jesukristo'k (Mat. 5, 39), baita agindu ori Apostoluak bete be. (Errom. 13, 1-6; Tito, 3, 1; Pedr. 1.^a, 2, 13-16; Tim. 1.^a, 2, 2). Ikusi Justino: *Apol.* 17, 3; Polikarpo: *Filip.* 12, 3; Tertuliano: *Apologet.* 30, 3-6.

(199) Beraz, «icenago da gizonai baiño Jaungoikoari esana egitea». (Ap. Eg. 5, 29). Baiña, beti bigun-bigun eta otzantasunez beterik. Orrelaxe irabazi eutsan Elizak Erroma'ko Agintaritzari.

(200) Deut, 13, 18.

LXIII. *Apaltasunerako ta bakerako azken-burubidea*.—Bidezko da, beraz, alako ta ain ikasbide aundietara urreratu diranak, sam(e)a makurtu dagien eta esaneko izatera biurtu daitez (201); eta orrela, biurkeri burubagea baretuta, egian izentatuta daukagun mugara akats bagarik eldu gaitez.

2. Atsegiña ta poza emongo dautsuegu, idatzi dautsuegunari esana egiñik, Espiritu Santuak bultza eginda, zuen ikusi-eziñaren sumin gaiztoa zusterretik ebagiten ba'dozue, bakearen eta gogo-batasunaren alde idazki onetan egin dogun eskariari buruz.

3. Gizonetzko zintzo ta zuurrak bialdu dautsueguz, gairera, euren gaztartetik zaartzarora gure artean bizikera errubagea eroan dabenak: orreixek izango dira gairera autorlari zuen eta gure artean.

4. Guzti au, onetarakoxe egin dogu: gure ardura guztia, bakea leenbailen barrero lortu dagizuen izan dala jakin dagizuen.

LXIV. *Azken-eskaria*.—Onenbestez, dana ikusten dauan Jaungoikoak, «espirituen Jabeak eta edozein aragiren Jaunak» (202), Jesukristo Jauna aukeratu eban Arek, baita Beronen bidez geu be (203) Bere erri izateko aukeratu gaituan Arek, Bere izen bikain eta santuari dei egin dagion edozein arimari, sinismena, maitasuna, bakea, eroapena, gogo aundia, negurritasuna, garbitasuna ta eratasuna emon dagiola, Bere izenaren atsegingarritzat, Jesukristo gure Abadeburu ta zaindariaren bitartez: Beronen bidez aintza ta edertasuna Zuri, aal-izate ta gorapena, orain eta gizaldiz-gizaldi. Amen.




LXV. *Azkena*.—Bialdu egiguzue arin, bakez eta pozez, Klaudio Efebo, Balerio Biton eta Fortunato gure ordezkariak, eskatu ta gogoz opa doguzan zuen arteko bakearen eta gogo-batasunaren albistak leenbailen ekarri daiskuezan, baita leenbailen be zuen ondo-izateaz poztu gaitez.

2. Jesukristo gure Jaunaren grazia izan daitela zuekaz eta Beronen bitartez alde guztietan Jaungoikoak deituak izan diranakaz. Jesukristo'ren bidez, Berari aintza, gorapena, aal-izatea, edertasuna ta aulki betikorra gizaldietatik gizaldien gizaldietara. Amen.

(201) Siriar liburuak auxe dakar gairera: «Makurtu bekiez gure arimen zuzendaria».

(202) Num. 16, 22.

(203) Cfr. Luk, 23, 35; Kor. 1.^a, 8, 6; Efes. 1, 4.



ERROMA'KO KLEMENTE SANTUAK KORINTO'KOAI EGINDAKO BIGARREN IDAZKIA

A. Harnack'en ustez, itzaldi edo homilia au Erroma'n izan zan idatzia, 135-170'garren urte-bitartean, eta Bartlet'en eritziz, Alexandria'n, 130'garrenean. Baiña, gaur egunean uste danez, jentillen artekoren batek idatzi eban, bigarren mende-erdian, Erroma'n edo Korinto'n. Texto osoa, Jerusalem'go esku-idazkia agertu zanean ezagutu zan, 1875'garren urtean. Ez da eskutitza, ezagutzen dogun kristau-homiliarik antxiñakoena baiño.

I. *Jesukristo, Jaungoiko, Salbatzaille ta Erosle.*—Anaiok, Jesukristo'ri buruz eritzi au izan bear dogu: Jaungoikoari buruz lez, bizien eta illen auzi-ebazleari buruz lez. Gure salbamenari buruz be ez dogu pentzakera kaskarrik izan bear (1).

2. Izan be, Jesukristo'ri buruz pentzakera kaskarra baiño ez ba'dogu, Bero-negandik be doai kaskarrak artzea uste dogu. Ebanjelioa gauza kaskarra bai'litzan entzuten dabenak, pekatu egiten dabe; geuk be pekatu egiten dogu, nondik, nok eta norako izan gintzazan deituak, eta Jesukristo'k geugaitik igaro ebazan nekeak jakiten ez ba'doguz.

3. Beraz, zer emongo dautsagu guk ordaintzat? Edo, ze frutu eskiñiko dautsagu, Berak emon euskunaren duin danik? Guk zor dautsaguzan mese-deak! (2).

4. Berak emon euskun argiaren mesedea; aita baten antzera, seme-izena emon euskun; ondatzeko zorian gengozala salbatu genduzan.

5. Beraz, ze gorapen edo ze ordain emongo ete-dautsagu artu genduanaren orde?

(1) Ap. Egiñ. 10, 42. «Auzi-ebazle»: cfr. Tim. 2.^a, 4, 1; Pedr. 1.^a, 4, 5. Ikusi Bernabe, VII, 2; Polikarpo: *Filip.* II, 1.

(2) Ps. 115, 3.

6. Gure adimenean itsu gengoan; arriak, zula, urrea, zidarra eta burdin-oria (edo brontzea) gurtzen genduzan, eta gure bizi guztia eriotza baiño ez zan. Illunaldiak inguratuta, begiak olako illunez beterik, Berak nai izanda artu genduan barriro ikusmena, gu inguratzen genduzan odeia kenduta.

7. Erruki izan yakun, eta biotz errukitsuz salbatu genduzan, guban okerbideta ta galbide andia ikusirik, Beragandik datorkigun salbamen-itxaropenik baiño ez geukala.

8. Izan be, ez gintzazanean egin euskun dei, eta, ez izatetik, izan gengizala nai izan eban (3).

II. *Jesukristo'k erosiak.*—«*Poztu zaitetz, ume bagarik agor zagozan ori; deadarka asi zaitetz, sein-miñik ezagutzen ez dozun ori; bazartuaren semeak senardunarenak baiño geiagc izango dira-ta*» (4). *Poztu zaitetz, ume bagarik agor zagozan ori* esatean, geu aitatzen gaitu; izan be, gure Eliz(e)a, oni semeak emon arte, agorra zan.

2. Eta, *deadarka asi zaitetz, sein-miñik ezagutzen ez dozun ori* esatean, auxe adierazoten dau; jaso dagioguzala bakuntasunez gure otoitzak Jaungoikoari, sein-miñez dagozan andren antzera kikildu bagarik.

3. Beste onek: *Bazartuaren semeak senardunarenak baiño geiago izango dira-ta*, auxe adierazoten dau; itxuraz, Jaungoikoak gure erria bertan-beera itzi ebala; baiña orain, fedea arturik, Jaungoikoa eukela zirudienak (5) baiño ugarriago egin garala.

4. Eta beste Idatz-ataltxo batek auxe diño: *Ni ez naz zintzoai dei egitera etorri, pekatariari baiño* (6).

5. Onek, galtzen diranai salbamina emon bear yakela adierazoten dau.

6. Izan be, andi ta miragarria ez da sendotuari eustea, jausten dagoanari baiño.

7. Orrela, Kristo'k be galtzen egoana nai izan eban salbatu, eta askoak salbatu ebazan, etorri eta galtzeko arriskuan gengoala guri dei egiñik (7).

III. *Kristo'k Aitagana garoaz.*—Kristo'k guri buruz erabili dauan erruki andia! Leenen eta bein, guk, izaki bizidunok, ez dagiegula jainko illai oparirik

(3) Cfr. Rom. 4, 17. Os. 2, 23; Hermas, 1.º Ikusketa, 1, 6.

(4) Is. 54, 1; Gal. 4, 27.

(5) Judarrak.

(6) Mat. 9, 13; Mark. 2, 17.

(7) Cfr. Mat. 18, 11; Luk. 19, 10; Tim. 1.º, 1, 15.

eskiñi ez gurtzarik egin, Kristo'ren bidez egiaren Aita ezagutu dagigula baiño. Zein da, ba, egiaren Aitagana daroan ezaguera, ezagutu genduan bitarteko A ez ukatzea izan ezik? (8).

2. Berak diño-ta: *Ni gizonen aurrean autortu nagiana, neuk be alakoa autortu egingo dot nire nire Aitaren aurrean* (9).

3. Auxe da, ba, gure ordaiña; gu salbatu gaituan A autortu dagigula.

4. Baiña, zelan autortuko ete-dogu A (Kristo)? Berak dirauskuna egiñik eta Aren aginduai esana egiñik; eta A ezpane bakarririk ez, baita biotz-biotzez eta adimen osoaz be goraturik.

5. Izan be, auxe diño Isaias'en bidez: *Erri onek ezpane goratzen nau, baiña bere biotza nigandik urrun dago* (10).

IV. *Egintzak bear dira.*—Beraz, ez dogu naikoa Ari Jauna esatea, onek bakarririk ez gaitu salbatuko-ta.

2. Izan be, auxe diño: «Ez da zeruetako Erreiñuan sartuko, niri 'Jauna, Jauna' diraustan edonor, zuzentasuna bete dagiana baiño» (11).

3. Beraz, anaiok, autortu dagigun A gure egintzetan; alkar maite izatean, ezkontza ez naastean, alkarri guzur-baltza ez ezartean, ezta alkar ikusi-eziñean be, garbi, errukior eta onak izatean baiño. Erruki izan bear dautsagu alkarri eta zekenak ez izan. Autortu dagigun Jauna egintza oneitan eta ez kontrakoetan.

4. Eta ez dautsegu gizonai Jaungoikoari baiño bildur geiago izan bear (12).

5. Beraz, zuek egintzok egiñik, Jaunak auxe esan eban: «Neugaz egonaren, neure sabelean batuta, baiña nire aginduak bete ez ba'dagizuez, nigandik jaurti egingo zaituet eta auxe esango dautsuet: 'Alde egizue nigandik, ez dakit nongoak zareen, gaiztakeri-egilleok'» (13).

V. *Kristo'ren eta Pedro'ren arteko alkarrizketa.*—Beraz, anaiok, mundu onetako bitotkia alde batera itzirik, dei egin dauskun Aren naia beteteko aalegiñak egin dagiguzan, eta ez dagigun mundu onetatik urteteko bildurrik izan.

2. Izan be, Jaunak auxe diño: *Otso-artean bildotsak lakoak izango zaree* (14).

(8) «*Jainko illak*»: cfr. Sap. 15, 17; Kor. 1.º, 10, 20; *Didaje*, VI, 3. «*Eggiaren Aita*»: cfr. Yon. 15, 16 eta 8, 44. Kontrako itza: «*guzurraren aita*», deabrua.

(9) Is. 29, 13; Mat. 15, 8; Mark. 7, 6.

(10) Mat. 10, 32; Luk. 12, 8.

(11) Mat. 7, 21.

(12) Cfr. Ap. Egiñ. 4, 19; Pedr. 1.º, 3, 14.

(13) Ez dakigu idatz-ataltxo au non dagoan, «Ejiptoarren Ebanjelioa» izenekoan, bearbada. Antzerakoak: Is. 40, 11; Luk. 13, 27; Mat. 7, 23; Justino: *Apol.*, I, 16.

(14) Antzerakoak: Luk. 10, 3; Mat. 10, 16; Luk. 12, 4; Mat. 10, 28.

3. Pedro'k erantzun eta ba-dirautso: *Eta otsoak bildotsa zatitzen ba'dabe?*

4. Eta Jesus'ek auxe erantzun eutsan: *Ilda gero, bildotsak otsoai ez dagitsea bildurrik izan. Orrela, zeuek be ez izan bildurrik zuei bizia kendu bai-baiña beste ezertxo be ezin egin daiketzuena; izan egiozue bildur, bai, zuen eriotz-ostean, zuen arima ta gorputza su-lezara jaurtiteko eskubidea daukan Ari (15).*

5. Eta ba-dakizue, anaiok, aragi onen egonaldia mundu onetan laburra ta epe laburrekoa dana; Kristo'ren agintzaria, ostera, andia ta zoragarria, datorren erreñuko atsedena ta betiko bizitza.

6. Zer egin bear ete-dogu, ba, ondasun orreik lortzeko, bizitza santu ta zuzena eroan eta munduko gauza guztiok, zalekeri bagarik, iñorenak lez begiratu baiño? (16).

7. Izan be, gauzon zalekeria bakarrik izanaz, okertu egiten gara bide zuzenetik.

VI. *Ezin daiteke ugazaba biren morroi izan.*—Auxe diño Jaunak: *Ugazaba biren morroi, ezin izan daiteke (17).* Jaungoikoaren eta diruaren morroi izan nai ba'dogu, alperrekoa izango yaku.

2. Izan be, zetarako da mundu guztia irabaztea, arim(e)ari kalte egiten ba'yako? (18).

3. Mundu au ta gerokoa arerio bi dira.

4. Mundu onek, ezkontza-naastea, galdukeria, zekenkeria ta maltzurkeria iragarten dau; gerokoak, guzti au ukatu egiten dau.

5. Beraz, ezin izan gaitkez bion adiskide; au ukatzea ta ari jarraitzea baiño beste biderik ez dogu.

6. Gure ustez, geiago balio dau emengo gauzak iguintzeak, txikiak, igeskorak eta ustelkorak dira-ta, eta angoak maite izateak, ondasun ustel-eziñak dira-ta.

7. Izan be, Kristo'ren naia egiñik, atsedena aurkituko dogu; bestela, barriz, Jaunaren aginduai esanik egiten ez ba'dautsegu, ezek be ez gaitu betiko zigortetik askatuko.

8. Eta auxe diño Liburu Santuak Ezekiel'en bidez: *Noe, Job eta Daniel jagi (berbiztu) ba'daitez be, ez dabez askatuko euren semeak erbestalditik (19).*

(15) Antzerakoak: Luk. 12, 4-5; Mat. 10, 26-28. Idatz-atal au eraso-aldian egiña dagoala dirudi.

(16) Cfr. Kor. 1.^a, 7, 29 ta abar.

(17) Luk. 16, 13; Mat. 6, 24.

(18) Cfr. Ezek. 14, 18, 20.

(19) Cfr. Mat. 22, 11-12.

9. Beraz, orrelako gizon zuzen andiak be, euren zuzentasunaz, euren semeak ezin askatu ba'daitez, guk bateoa garbi ta orban bagarik gorde ezik, zelako ustez sartuko ete-gara gu Jaungoikoaren jauregian? (20). Edo-ta, nor izango ete-da gure bitarteko, egintza santu ta zuzen bagarik aurkitu ba'gagiez?

VII. *Kristau-bizitza, burruka-bizitza.*—Beraz, anaiok, egin dagigun burrukan, burruk(e)a eskuen artean dakargula jakiñik. Asko dira burruka ustelkorretan sartzen diranak, baiña ez dautsee koroea guztiai ezarten, lan sendo egin eta burrukan egoki egin dabena baiño (21).

2. Egin dagigun, ba, burrukan guk, guztiok koroetuak izan gaitzean.

3. Egin dagigun arifeketan bide zuzenetik burruka ustel-eziñera, eta egin dagigun burrukan koroea lortu arte. Eta, koroea artzea guztiok ezin lortuarren be, besterik ezean, eldu gaitzean koroe-ondora.

4. Alan be, jakin dagigun, burruka ustelkorrean norbait burrukako legeak austen artzen ba'dabe, alakoa zigorkadaz astindu eta jolas-tokitik kanpora jaurtiten dabela.

5. Zer deritzazue? Illezkortasuneko* burruka-legeak ausi dagizanak, ze neke igaroko ete-dau?

6. Izan be, sillua gorde ez dagienai buruz, auxe diño Liburu Santuak: Arein arra ez da ilgo eta arein sua ez da itzungiko, eta gizaki guztien iguingarri izango dira (22).

VIII. *Damu-nekerako deia.*—Beraz, lur-gaiñean gagozan artean, damutu gaitzean.

2. Izan be, langillearen eskuetan buztina lez gara. Ain zuzen be, buztinlariak (23), ontzi bat egiten dauanean, eskuetan daukan artean okertzen naiz austen ba'yako, barrero eratzen dau; baiña, laban sartuta gero, arrezkero ezer be ezin egin daikeo; geuk be bardin egin dagigun: mundu onetan bizi garan artean, damutu gaitzean biotz-biotzez aragitan egin doguzan pekatuakaz, damurako astia dogun artean Jaunak zalbatu gagan.

3. Izan be, mundu onetatik urtenda gero, ezin egin daikegu bestean autoritarik ez damu-nekerik.

4. Beraz, anaiok, Aitaren naia egiñik, gure aragia garbi gorderik eta Jaunaren aginduak beterik, betiko bizitza lortuko dogu (24).

(20) Cfr. Kor. 1.^a, 9, 24 eta urreng.

(21) Cfr. Kor. 1.^a, 9, 24 ta urreng.

(22) Is. 66, 24; cfr. Mark. 9, 44, 46, 48.

(23) Ikusi buztinlariaren ipuin au beste era batera: Jer. 18, 4-6; Rom. 9, 20, 21.

(24) Cfr. Hermas, V^{gn}. Antz-irudia, 7, 1.

(*) Illezkortasun; inmortalidad.

5. Ain zuzen be, Jaunak auxe diño Ebanjelioan: Txikia dana gorde ez ba'dagizue, nok emongo dautsue andia dana? Auxe dirautsuet-eta: Gauza txikie-tan zintzoa dana, andietan be zintzoa da (25).

6. Orrek auxe adierazoten dau: Gorde egizue garbi zuen aragia eta erru bargarik zuen sillua, betiko bizitza artu dagigun (26).

IX. *Aragiaren biztuera*.—Zuetariko iñok be ez dagiala esan aragi au epaitua (edo juzgatua) ta barrero biztua izango ez danik (27).

2. Aditu: Zetan artu zenduen salbamera?, zetan artu zenduen barrero ikustea, aragi onetan egonik baiño?

3. Beraz, bearrezkoa da, gure aragia Jaungoikoaren jauretxe (edo eliza) lez gordetea (28).

4. Izan be, deituak aragitan izan zintzazenez, Jaungoikoagana be aragitan elduko zaree.

5. Kristo, salbatu gaituan Jauna, leenen espiritu izanik (29), aragi egin eta aragi izanik salbatu gaituanez, geuk be, aragi onetantxe artuko dogu gure saria.

6. Alkar maite izan dagigun, ba, guztiok Jaungoikoaren erreñura eldu gaitzean.

7. Osatuak izateko astia dogun ezker, emon dagioguzan gure buruak osatzen gaituan Jaungoikoari (30), Oni geure sariaz ordaindurik.

8. Ze sari? Benetako gogoz damutzea.

9. Dana aurretiaz daki ta aurretiaz ezagutzen dau gure biotzetako barru-barrua (31).

10. Emon dagiogun, ba, gorapena, agoz bakarrik ez, baita biotzez be, semetzat artu gagan.

11. Izan be, Jaunak auxe esan eban: *Oneixek dira nire anaiak, nire Aitaren naia beteten dabenak* (32).

X. *Egin dagigun Jaungoikoaren naia*.—Beraz, ene anaiok, bete dagigun dei egin dauskun Aitaren naia, bizi gaitzean. Onoimenari (birtuteari) jarraitzea naigo izan dagigun, eta itzi dagigun, barriz, alde batera gaiztakeria, gure pekatuen aurrelaria. Ez dagigun onartu dongakeria, gatzak artu ez gagiezan.

(25) Luk. 16, 10.

(26) «Sillua»: cfr. VII, 6. Cfr. Rom. 7, 4; 8, 15; Yon'en 2.^a, 1, 8.

(27) Cfr. Ap. Egiñ. 17, 32; Kor. 1.^a, 15, 12-19; Tim. 2.^a, 2, 18. Hermas, IV^{gn}.

Antz-irudia, 7.

(28) «Jaungoikoaren jauretxea»: cfr. Kor. 1.^a, 3, 16; 6, 19; Iñazio: *Filad.*, VII, 2.

(29) Cfr. Iñazio: *Ef.*, 7, 2; *Esmirn.*, 3, 3. «Espiritu»: emen, «aragi»ren kontrakoa:

Jesukristo, Jainko betikoaren Seme lez, ez dau izan asierarik bere bizitzan.

(30) Cfr. Iñazio: *Ef.*, 7, 3; Diogneto, 9, 6.

(31) Cfr. Deut. 8, 2; Erregeen 1.^a, 9, 19.

(32) Mat. 12, 50; Mark. 3, 35; Luk. 8, 21

2. Izan be, on egiten aalegintzen ba'gara, bakeak jarraituko dausku.

3. Orregaitik, giza-bildurrak bizten dabezanen arteko gizonik ezin aurkitu daiteke, geroko agintzaria baiño emengo atsegiña naiago dabe-ta.

4. Ain zuzen be, ez dakie emengo atsegiñarentzat gordeta dagoan zigor gogorra eta geroko agintzariak gordeten dauskun atsegiña.

5. Eta onela eurak soillik jokatuko ba'lebe, gaitz erdi; baiña, arima errubageai irakatsi gaiztoak sartzen diardue (33). Ez dakie onetara ondapen bikoitza izango dabena: eurena eta arei entzuten dautseena (34).

XI. *Jaungoikoa zintzoa da*.—Beraz, otseindu dagigun Jaungoikoa biotz garbiz eta zintzoak izango gara. Baiña, Jaungoikoaren agintzarian sinisterik ez izateagaitik Jauna otseindu ez ba'dagigu, zoritxarrekoak izango gara.

2. Izan be, auxe diño profetaren itzak: *Zoritxarrekoak arima bikoitzak, euren biotzean expaitan diarduenak eta au diñoenak: 'Guzti ori antxiña entzun genduan gure gurasoan aldian; guk, ostera, eguna joan eguna etorri itxaroten egonik, ez dogu orrelakorik ezer be ikusi'*.

3. *Tentelok! Bat egizuez zuen buruak zugatzaz; artu egizue maatsondoa: leenen, orria jausten yako, gero züldu egiten da, gero mordo garratza dator eta, azkenez, maats eldua.*

4. *Onetara, nire erriak ondamendiak eta larrialdiak igaro ebazan; baiña gero ondasunak aurkitu ditu* (35).

5. Beraz, ene anaiok, ez gaitzean bikoitzak izan; iraun dagigun, ostera, itxaropenean, geuk be saria lortzeko.

6. Izan be, bakoitzari bere egintzen saria emotea agindu dauan A zintzoa da (36).

7. Beraz, Jaungoikoaren aurrean zuzentasuna egin ba'dagigu, bere Erreñuan sartuko gara eta bere agintzariak artuko doguz: *Ez dau begik ikusi, ez belarrik entzun, ez gizonaren biotzak somatu* (37).

XII. *Jaungoikoaren Erreñua noiz etorriko dan*.—Itxaron dagigun, ba, noiz-nai Jaungoikoaren Erreñua, goi-maitasun eta zuzentasunean, Jaungoikoaren agerrialdi-eguna ez dakigu-ta.

(33) Ikusi Iñazio: *Ef.*, 16, 2.

(34) Irakatsi gaiztoen maisu onei buruz, ikusi Tito, 2, 3; Iñazio: *Filad.*, 2, 1.

(35) Ez dator Biblian; ikusi antzerakoa: Klemente'ren 1.^a, XXIII, 3, 4.

(36) Cfr. Mat. 16, 27; Rom. 2, 6; Apoc. 22, 12; Ebert. 10, 23.

(37) Kor. 1.^a, 2, 9; cfr. Is. 64, 4; 65, 16. Ikusi XIV, 5 eta Klemente'ren 1.^a, XXIII, 8.

2. Norbaitek Jaunari berari, Beronen erreñua noiz etorriko zan itandurik, Jaunak auxe erantzun eutsan: *Gauza biak bat izan daitezanean; eta kanpokoa barrukoa lakoa; eta arretarikoa emetarikoz, ez arretariko ez emetariko* (38).

3. Baiña, *gauza bi bat da*, alkarren artean egia itz egiten dogunean, eta gorputz bitan, azpikeri bagarik, arima bat bakarra dago.

4. Eta besteak, *kanpokoa barrukoa lakoa*'k, auxe adierazoten dau: arim(e)ari barrukoa dirautsala eta gorputzari kanpokoa. Beraz, zure gorputza ikusi egiten danez, zure arim(e)ak be egintza onetan agiri bear dau.

5. *Arretarikoa emetarikoz, ez arretariko ez emetariko*'ak auxe adierazoten dau: neba batek, bere arreb(e)a ikusirik, ari buruz ez dagiala emearenik ezer pentzatu; ezta arrebek be nebeari buruz gizonarenik ezer be.

6. *Au egin dagizuenean etorriko da nire Aitaren Erreñua* —diño Jaunak (39).

XIII. *Jentillen gaizpidea*.—Azkenez, anaiok, damutu gaitez anezkero, onerako zoli egonik, tentelkeriz eta gaiztakeriz beteta gagoz-ta. Kendu dagiguzan gugandik leengo pekatuak eta, biotzez damututa, salbatu gaitez. Ez gakezan gizonai atsegingarri izan, ezta alkarri soillik atsegingarri izan be, gure zuzentasunaz kanpoko gizonai be onbidea erakutsi dagiegun, gure erruagaitik Jaungoikoaren izena biraotua izan ez daiten (40).

2. Jaunak auxe diño-ta; *Eten bagarik egiten yako birao nire izenari atzerri guztietan* (41); eta beste bein: *Zoritxarrekoa bere erruz nire izena biraotzen ba'dabe!* (42) *Zegaitik egiten dira biraoak? Nik nai dodana zuek egiten ez dozuelako.*

3. Izan be, jentillak gure agoz Jaungoikoaren itzak entzuten dabezanean, edertzat eta anditzat artzen dabez; baiña gero, gure egintzak guk diñoguzan itzak bat ez datozala ezagutzen dabenean, euren arritza biraotara aldatzen dabe, ipuiña ta ames utsa dala izanik.

4. Izan be, Jaunak urrango au diñoala entzuten dauskuenean esaten: *Ez dau merezimenturik maite zaituenak maite izateak; merezimentua, zeuen arerioak eta iguintzen zaituenak maite izatean dago* (43); au entzuten dabenean, miraritura geratzen dira onelako ontasun bikaiñaz; baiña, iguintzen gaituenak bakarrik ez, ezta geu maite gaituenak be ez doguzala inaitatzen ikusten dabenean, barre egiten dabe gure lepotik eta Jaungoikoaren izena biraotua izaten da.

(38) Alexandria'ko Klemente'ren bidetz dakigu idatz-atal onen iturburua: *Estrom.*, III, 9, 63; III, 13, 92, 93. Cfr. Ef. 2, 14 be.

(39) Cfr. Bernabe, 10, 3 eta urreng.

(40) Cfr. Ef. 6, 6. Ikusi Kol. 3, 22; Iñazio: *Rom.*, 2, 1. «*Kanpokoai*»: cfr. Kol. 4, 5; Tes. 1.^a, 4, 12; Tim. 1.^a, 3, 7; cfr. Iñazio: *Ef.*, 3, 1.

(41) Is. 52, 5.

(42) Esanaldi bera: Iñazio: *Tral.*, 8, 2; Polikarpo: *Filip.*, 10, 3.

(43) Luk. 6, 32, 35.

XIV. *Eliza, Kristo'ren Gorputz*.—Beraz, anaiok, gure Aita Jaungoikoaren naia egin ba'dagigu, leenengo Elizarenak izango gara, Eliza espirituzkoarenak, eguzkia ta illargia baiño leen sortua izan zanarenak; Jaunaren naia egin ez ba'dagigu, barriz, Liburu Santuak diñoanarenak izango gara: *Nire etxea lapur-zulo biurtu da* (44). Aukeratu dagigun, ba, bizitzaren Elizarenak izatea, salbatu gaitez.

2. Ez dot uste ez dakizuenik bizi dan Eliz(e)a Kristo'ren gorputza dana. Liburu Santuak auxe diño: *Jaungoikoak gizona ar eta eme egin eban* (45). Arra, Kristo da; emea, Eliz(e)a. Profeten Liburuak eta Apostoluak (46) be, Eliz(e)a ez dala oraingoa, leengoa baiño, irakasten dauskue (47). Izan be, espirituzko Eliza zan, baita geure Jesus be; baiña azken-egunetan agertu zan, gu salbatzeko.

3. Baiña Eiz(e)a, espirituzkoa izanik, Kristo'ren aragian agertu zan: aragi ori alperrik galdu bagarik gorde dagianak, Espiritu Santuagan artuko dauala guri jakiñerazorik. Izan be, aragi au Espiritu Santuaren irudi da. Beraz, irudia alperrik galdu dagian batek be ez dau jatorra (Espiritu Santua) artuko. Beraz, arek diñcana auxe da: «Zaindu egizue zuen aragia, Espirituagan eskuartu dagizuen».

4. Beraz, Eliz(e)a aragia eta Kristo Espiritua dala ba'diñogu, aragia gerentzen* dauanak Eliz(e)a gerentzen dau. Orrelakoak ez dau Kristo dan Espirituagan eskuartuko (48).

5. Onenbestekoa da Espiritu Santuaren batasunagaitik aragi onek lortu daiken bizia ta ezilkortasuna; eta iñor be ez da gauza *Jaunak bere aukeratuai atonduta daukana* (49) esateko ez azaltzeko.

XV. *Arima bat salbatzen dauanaren aintza*.—Ez dot uste negurritasunari buruz garrantzi txikiko burubidea emon dautsuedanik. Burubide au bete dagiana, ez da damutuko, eta alakoak bere burua salbatuko dau, baita neu be, neuk emon dautsat-eta. Izan be, ez dau sari txikia merezi bidea galduta dagoan arima bat osasunera (salbamenera) biurtzeak.

2. Izan be, auxe da gure Egille Jaungoikoari emoteko daukagun ordaiña, edo bardin dana: izlariak naiz entzuleak, sinismenez eta goi-maitasunez itz egin naiz entzun dagiala.

(44) Jerem. 7, 11; Mat. 21, 13.

(45) Ef. 1, 22, 23. Gen. 1, 27.

(46) «*Apostoluak*»: lau Ebanjelioak, Alkartasun Barria.

(47) Cfr. Pedr. 1.^a, 1, 20.

(48) Auxe adierazoten dau: aragia Elizaren irudi ba'da eta spiritua Kristo'ren irudi, nok bere aragia loitzen dauanak Eliz(e)a loitzen dau eta Kristo irauntzen eta galtzen.

(49) Kor. 1.^a, 2, 9.

(*) Gerendu: deshorrar.

3. Zintzo ta santu iraun dagigun, ba, sinistu doguzan gaietan, Jaungoikoari ustetsu eskatu daikeogun, auxe diño-ta: *Zuk itz egiten diarduzula, nik auxe esango dot: Ona emen ni zure ondoan* (50).

4. Itz au agintzari andiko ezaugarria da; izan be, gizona eskatzeko baiño Bera emoteko gertuago dagoala diño Jaunak.

5. Orrelako biozperatasun aunditan eskuarturik, ez dagigun alkar-arteko ikusi-eziñik izan, orrelako ondasun andiak lortzeko. Izan be, andia da itz oneik eurokaz daroen atsegiña itzok beteten dabeneztat, eta bardin, andia da itzok ez-entzun (entzun-gor) egiten dabezanentzako ondamendia.

XVI. *Jaungoikoagana biurtzea*.—Beraz, anaiok, damu-nekea egiteko une egoki ez-txikia izan dogun ezkerro, astia dogu-ta, biurtu gaitezana dei egin dauskun Jaungoikoagana, oraindiño gu nok artu ba-dogun artean.

2. Izan be, atsegiñok ukatzen ba'doguz eta geure arim(e)a irabazten ba'dogu, beronen zalekeri gaiztoak baztarturik, Jesus'en errukian eskuartuko dogu.

3. Jakin egizue, *auzi-eguna laba iziotua lez datorrena* (51), *eta zeruetariko batzuk urtu egingo dira*, eta lur osoa sutan artutako beruna lez izango da (52). Eta orduantxe agertuko dira gizonen egintzak, ezkutukoak eta agirikoak.

4. Ona da limosn(e)a (53), pekatuaren ordain-neke lez. Otoitza baiño baraua ohea da, eta limosn(e)a biok baiño ohea. Goi-maitasunak pekatu asko esaltzen dauz (54), eta barru onetik datorren otoitzak, eriotzatik ataraten dau. Zorionsua, onoimen (edo birtute) onekaz beterik aurkitua izan daitena, limosn(e)a pekatuaren aringarri* biurtzen da-ta.

XVII. *Gure anaiak salbatzeko ardur(e)a*.—Damutu gaitezana, ba, biotz-biotzez, guretariko iñor be galdu ez daiten. Izan be, jentillai jainko-irudietatik alde-eragiteko ta irakatsia emoteko agindua ba'dogu, geiago egin bear dogu lan Jaungoikoa ezagutzen dauan arim(e)a galdu ez daiten.

2. Alkarri lagun egin dagiogun, ba, makalak be onerantz eroateko, guztiok salbatu gaitezana, eta alkar damutzen eta zuzentzen aalegiñak egin dagiguzan (55).

(50) Is. 58, 9.

(51) Malak. 4, 1.

(52) Is. 34, 4.

(53) «*Limosn(e)a*»: emen, antxiñako esanaia dauko: geure lagun-urkoaganako maitasuna Jaungoikoaren maitasunagaitik; ez diru pizka bat emotea. Limosn(e)a, kristauaren oiñarrikoko eginbearra da: beartsuai laguntza emon, bakoitzak aal dauanez.

(54) Pedr. 1.^a, 4, 8. Cfr. Tob. 4, 10; 13, 8, 9; Prov. 16, 6; 10, 12; Dan. 4, 24; Sant. 5, 20.

(55) Cfr. Polikarpo: *Filip.*, II, 4.

(*) Aringarri: alivio.

3. Eta ez daitela agiri, unetxo baten bakarrik garala fededun eta aditzaille, ots, zaarrak burubideak emoten dauskuezan; gero be bai, etxera biurtzen garanean, izan dagiguzan gogotan Jaunaren aginduak eta ez dagiegula itzi gizarteko gurariak gu tatarrez eroaten. Okerretara bai; aalegindu gaitezana gu sarriago bazten Jaunaren aginduetan aurrera egiteko: guztiok, pentzakera bat izanik, bizitzarako batu gaitezana (56).

4. Izan be, Jaunak auxe esan eban: *Atzerri, jatorri ta erri guztiak batzera nator* (57). Au, bere agerpenari buruz diño, askatzera etorri dakigunean, bakoitza norbere egintzen negurrira.

5. Eta sinisgogorak Aren aintza ta aal-izatea ikusiko dabe, eta miraritu egingo dira munduko erreñua Jesus'en eskuetan ikusirik, eta «Gure zoritxarra! —esango dabe—. Zeu zintzazan iragarritako erregea eta guk ez zenduguzan eza-gutzen, ez genduan sinisten, ez geutsen zaarrai esanik egiten gure salbamenari buruz itz egiten euskuenean». Eta *arein arra ez da ilgo, eta arein sua ez da itzungiko, eta gizaki guztien iguingarri izango dira* (58).

6. Auzi-egun a, diño profetak, gizonak gure artean gaiztoak izan ziranak eta Jesukristo'ren aginduai irri ta barre egin eutseenak ikusiko dabezanean.

7. Baiña, ona egin, oiñazeak igaro, eta arimako atsegiñak igundu ebezan zintzoak, bidea galdu eta euren egintzen edo itzen bidez Jauna ukatu ebenak su itzungi-eziñaz zigortuak dirala ikusi daginean, euren Jaungoikoari aintza emongo dautsoe esanez: «Itxaropena izango da Jaungoikoa biotz-biotzez otseindu dauanarentzat» (59).

XVIII. *Iragarlearen autorpen apala*.—Aalegindu gaitezana geu be eskerrak emoten dabezanetarikoak izaten, Jaungoikoa otseindu dabeneztarikoak izaten, eta ez gaiztoak lez galduak diranetarikoak.

2. Izan be, neu be, pekatari andi-andia izanarren eta tentalditik oraindiño iges egin ez dodanarren, eta oraindiño deabruaren tramankuluen erdian nagoala, zuzentasunari jarraitzeko aalegiñak egiten dodaz, gutxienez be beronen (zuzentasunaren) ondoan egotea lortzeko, datorren auziari dautsadan bildurragaitik.

XIX. *Azken-burubideak*.—Beraz, anai-arrebok!, egiaren Jaungoikoaren Itz-ostean, neure burubidea irakurten dautsuet, idatzita dagozan gaiak jaramon egiñik, zeuen buruak salbatu dagizuezan, baita zeuen irakurlea be zeuekaz batera. Nik eskatzen dautsuedan ordaiña, biotz-biotzez damutu zaitezela da, salba-

(56) Sarritan batzeari buruz, ikusi Ifiazio: Ef., 13, 1; Polikarpo, 4, 1.

(57) Is. 66, 24.

(58) Is. 66, 18.

(59) Cfr. Mat. 3, 12; Luk. 3, 17; Apok. II, 13; 16, 19.

mena ta bizia lortzeko aalegiñak egiñik. Izan be, au egin ba'dagigu, elburu bat jarriko dautsegu Jaungoikoaren on-zaletasun eta biozperatasunari ekiteko gertu dagozan gazte guztiai.

2. Eta guk, jakitunak ez garanok, ez dogu txartzat artu bear eta ez gara mindu bear, norbaitek burubideren bat emoten dauskunean eta gaiztakeritik zuzenbidera biurtzeko aalegiñak egiten dauskuzanean. Izan be, batzuetan konturatu bagarik egiten doguz gaiztakeriren batzuk, gure barruan dagoan ezpai ta maltzurkeri andiakaitik, eta onela gure adimenean itsututa gabiz, geure gurari utsalak eroaten gaituela.

3. Egin dagigun, ba, zuzentasuna, azkenean be salbatu gaitzean. Zoriontsuak, agindu onei esana egin dagitsenak! Mundu onetan aldi labur baten nekeak igaro bear ba'dabez bc, biztueraren frutu il-eziña batuko dabe.

4. Beraz, ez beite biotz-mindu gizon Jainko-zalea aldi onetan naibageak igaro bear ba'dauz, beste aldi zoriontsu batek itxaroten dautso-ta. An goian, barriri biztuta eta Gurasoakaz bizi izanik, miñok bagariko betikotasunean poztuko da (60).

XX. *Jainko-zaletasuna ez da aberaspidea.*—Ez daitela larritu zuen adimena be gaiztoen aberastasuna ta Jaungoikoaren otseñen urritasuna ikustean (61).

2. Fedea izan dagigun, anai-arrebok! Igaro dagigun Jaungoiko biziaren azterketa, jardun dagigun* bizitza onetan, gerokoan koroetuak izan gaitzean.

3. Zintzo batek be ez dau koroea berealaxe artzen, eroapenez itxaronda baiño.

4. Izan be, Jaungoikoak zintzoen saria berealaxe ordainduko ba'leu, Jainkozaletasunean jardun bearrean, bereala irabazpideari ekingo geuskio (62). Zintzo-itxura izango geuke, erlejiñoari jarraitzearen ez, irabazpideari jarraitzearen baiño. Orregaitik, Jainko-erabagiak zigortu egiten dau zuzena ez dan espiritua eta katez lotzen dau.

Azken-eskaria.—5. Ikus-eziña dan Jaungoiko bakarrari (63), egiaren Aitari, Salbatzaille ta ustel-eziñaren Egillea (64) bialdu dauskunari, egia ta zeruko bizitza be Beronen (Kristo'ren) bidez agertu dauskun Ari, Berari aintza gizaldien gizaldietan. Amen.

(60) Cfr. Pedr. 1.^o, 4, 12, 13; Rom. 8, 18.


(61) Cfr. Yon, 14, 1, 27; Sant. 5, 1 eta urreng.

(62) Cfr. Tim. 1.^o, 6, 5.

(63) Cfr. Tim. 1.^o, 1, 17.

(64) Cfr. Egiñ. 3, 15; Ebert. 2, 10.

(*) Jardun dagigun: ejercitémonos.



ANTIOKIA'KO IÑAZIO SANTUAREN IDAZKIAK

Nor izan zan San Iñazio?

Iñazio Deuna —Teoforo izenordez—, Siria'n jaio zan, Antiokia'n, urrean, leenengo gizaldiko 35'garren urtean. Geroago, Ebodio'gaz batera, Antiokia'ko bigarren Gotzain izan zan (1), San Pedro'ren urrengo, 70'garren urtetik 107'garrenera, Eusebio istorialariak diñoanez (2); Ebodio'k gotzaintza San Pedro'ren eskuz artu eban, eta gure Iñazio'ri San Paulo'k emon eutsan. Itxuraz, Ebodio judar-kristauen gotzain zan, eta Iñazio kristau atzerritarrena.

Trajano'ren agintaritzaldian, Antiokia'tik Erroma'ra izan zan eroana katez lotuta; eta ango anfiteatroan leoi bik laster ezereztu eben Iñazio'ren gorputza, erromarrai aurretiaz esan eutsenez: «Jaungoikoaren gari naz, eta pistien agiñak eio bear nabe, ogi uts izan naiten». Ori, 107-110'garren urteen barruan izan zan.

Idazkien istoria laburra.

San Iñazio'ren Idazkiak Florentzia'ko *Codex Mediceo-Laurentianus* eta Paris'ko *Codex Colbertinus* izeneko liburuetan aurkitzen dira. Gerkeraz dagoz idatzita, *koiné* izeneko gerkar izkeraz; eta Roberto Grosseteste, Lincoln'eko gotzainak (3) latiñera biurtu ebazan, eta *Montekutianus* eta *Carensis* izeneko kodizetan aurkitzen dira, 1, Usher'ek argitaratuta. Latin-biurpenaz gaiñera, sirio ta armenio biurpenak be ba-dagoz, baita kopto zatiak be. Guztiz, zazpi idazki egin ebazan. Yon ebanjelariaren, Pedro'ren eta Paulo'ren ikasle izanik, agirian dago idazkiok indar eta garrantzi andikoak dirana.

Ona emen zazpi idazkiak: 1) Efeso'koai; 2) Magnesia'koai; 3) Tralles'koai; 4) Erroma'koai; 5) Filadelfia'koai; 6) Esmirna'koai; 7) San Polikarpo'ri.

(1) «Contitutiones Apostolicae», VII, 46.

(2) Eusebio: «Eliz-istoria», III, 36.

(3) 253'garren urtean il zan.

EFESO'KOAI IDAZKIA

Agurra

Iñazio'k, Teoforo (4) izenordeko onek, Jesukristo'gan eta poz akats-bageaz Asia'n dagoan Efeso'ko Eliza guztiz gai danari, Jaungoiko Aitaren anditasun eta betetasunean bedeinkatuari, gizaldietan guztiz aintzarako aurretiaz aukeratuari, iraunkor, aldatu-ezin, alkartu, eta Aitaren eta Jesukristo gure Jaungoikoaren naiez benetako nekaldiz aukeratutako Efeso'ko Elizari, poz andi-andia opa dautso.

I. *Efeso'koak goratzen.*—Guztiz ondo artu dot, Jaungoikoagan, zuen izen maitagarria, gure Salbatzaille Kristo Jesus'egan sinismenari ta maitasunari dagokienez zuzen irabazia. Jaungoikoaren jarrizaille zareen ezker (5), anaïtasun-egintza Jaungoikoaren odoletan barriro biztuta, bete-betean burutu zenduen.

2. Izan be, guztion Izen eta guztion itxaropenagaitik, Siria'tik katez lotuta nentorrela jakin ordukoxe, ikustera ariñeketan etorri zintzakidazen, eta, zuen otoitzari esker, Erroma'n pistien aurka burrukan egingo dodala uste dot, orretara ikaslea izan aal nadin.

3. Egia esan, Jaungoikoaren izenean, zuen lagun-talde guztia artu neban maitasun bikaiñezko ta aragitan zuen gotzain dan Onesimo gizonagan. Guztiok maite izan dagizuela Jesukristo'ren eraz eta aren antzeko egin zaitezela eskatzen dautsuet. Bedeinkatua izan bedi orrelako gotzaiña irabazteko grazia emon euskun A (Jaungoikoa)!

II. *Eskerrona agertzen.*—Nire morroikide ta Jaungoikoaren eraz zuen la-guntzaille, eta gauza guztietan bedeinkatua dan Burro'ri buruz, zuen eta zuen gotzaiñaren gorapenerako neure ondoan egon daitela nai neuke. Baita Kroko'k be, Jaungoikoaren eta zuen gai danak eta zuen maitasunaren iruditat artu nebanak, danetan poztu nenduan. Jesukristo'ren Aitak a (Kroko) be era berean poztu dagiala, Burro, Euplo ta Fronton'egaz batera: onekan zuek guztiok ikusi zendue-dazan maitasunaren eraz.

2. Poztu naitela zuekan betiko, orretarako gai ba'nadi!

Egoki da, ba, zuek goratu zaituen Jesukristo danetan goratzea: menpetasun batean sendotuta, gotzaiñaren eta abade-bazkunaren menpean, danetan santu-tuak izan zaitezten (6).

(4) Teoforo: «Jaungoikoa daroana».

(5) Ikusi San Paulo'ren Kor. 1.^a, 4, 16; Ef. 5, 1.

(6) Cfr. Kor. 1.^a, 1, 10; Filip. 2, 2.

III. *Apaltasuna ta maitasuna.*—Ez natorkizue aginduak emotera, norbait bai'nintzan. Izan be, Jesus'en Izenagaitik kateetan nagoanarren, ez naz eldu oraindiño zintzokuntza betera Jesukristo'gan. Orain, bai, Aren ikasle izaten asi naz, eta zuei nire ikaskide legetxe egiten dautsuet berba (7). Neu naz ni zuek igurtzi (*edo gantzutu*) bear zendukena sinismenez, burubidez, iraupenez, eroa-penez.

2. Baiña, zuei buruz nire maitasunak isilik egoten izten ez daustan ezker, Jaungoikoaren eritziaz batera joan zaitezela eskatu neutsuen: Jesukristo, gure bizitza banandu-eziña, Aitaren adimena da-ta, lurraren aldeetan jarriak dagozan gotzaiñak be Jesukristo'ren adimenean dagozanez.

IV. *Batasun-ereserkia.*—Orregaitik, gotzaiñaren eritziaz batera egin bear dozue, egiten dozuenez. Izan be, zuen abade-bazkun ospatsua, Jaungoikoaren gai dana, zitara baten ariak legetxe dago alkartuta bere gotzaiñagaz.

2. Orregaitik, zuen alkartasunean eta maitasun egokian, Jesukristo bera da abestua. Eta zuetariko bakoitzak be egin begi kantari-talde alkartua, batasu-nean soiñu-oïña* arturik, Jesukristo'ren bidez Aitari soiñu-bardiñean lez abes-turik, zuen egite onen bidez bere Semearen gorputz-atal lez Aitak zuek entzun eta ontzat artu zagiezan. Beraz, egoki da batasun akats-bagean iraun dagizuen, orrela beti Jaungoikoagaz eskuartu dagizuen.

V. *Gotzaiña, batasun-biotza.*—Izan be, zuen gotzaiñari buruz olako adiski-detasun barrukoia artu ba'dot —ez, gero, giza-adiskidetasuna, espirituzkoa bai-ño—, areago esaten dautsuet zuei zoriontsuak zareela, Eliza Jesukristo'ri lez eta Jesukristo Aitari lez, zeuek be ari (gotzaiñari) lotuta zagozen ezker, alkartasu-nean guztia bat eginda etorri daiten!

2. Ez daitela iñor atzipetu: norbait altara-barruan egoten ez ba'da, Jaun-goikoaren Ogi bagarik geratzen da.

Izan be, baten edo biren otoitzak indar ain andia ba'dauko, geiago izango dau gotzaiñaren otoitzak Eliza osoarenagaz batera!

Beraz, eliztarren batzarretara joaten ez dana, alakoak arrokeriak eroanda dago, eta alakoak berak galtzen dau bere burua. Idatzita dago-ta: «Jaungoikoak arroi gogor egiten dautse» (8). Gotzaiñari gogorrik ez egiteko aalegiñak egin dagi-guzan, ba, Jaungoikoaren menpean egon gaitezten.

(7) «Ikaskide legetxe»: Huber'ek, «irakasle legetxe» dakar.

(8) Sant. 4, 6; Pedr. 1.^a, 5, 5; Prov. 3, 34.

(*) Soiñu-oïn: nota tónica, tonalidad.

VI. *Gotzaiña, Jesukristo lez.*—Eta batek bere gotzaiña ixilkoiago ikusten ba'dau, begirune andiagoa izan bear dauto: etxeko Jaunak bere etxea zaintzeko bialdutakoa, bialtzaillea bera lez artu bear dogu-ta.

Beraz, agirian dago gotzaiña Jauna bera lez ikusi bear dogula.

2. Izan be, zuei dagokizuenez, Onesimo'k berak jasoten dau gora be gora Jaungoikoagan dozuen bizikera ona, eta berak diraut egiaren erataraz zagozena ta siniste-austerik bat be zuen artean ez dagoana. Eta geiago: Jesukristo'k egitan berba egiten dautsuen ezkerro, ez dozue Berari baiño entzuteko gogorik.

VII. *Kontuz txakur amorratuai buruz.*—Ba-dakit batzuek, azpikeriz, edonora Jesus'en Izena erooten dabena, Jaungoikoari buruz gai ez diran egitadak egiñez. Bear-bearrezkoa da orrekandik iges egin dagizuen, basa-pistiakandik lez. Izan be, ixillean aginka egiten daben txakur amorratuak dira. Kontuz orrei buruz, osatzeko oso gaitz dan geisoa dabe-ta.

2. Osalari (*mediku*) bat dago, alan be, aragi ta espiritu dana, egiña ta ez-egiña, aragitan Jaungoiko egiña, Maria'ren seme ta Jaungoikoaren seme, noizbait minkor*, eta gero mindu-eziña: Jesukristo, gure Jauna.

VIII. *Jaungoikoarenak oso-osorik.*—Ez zagiezala, ba, iñok atzipetu, atzipetu zagiezan iñori izten ez dautsazuenez, izan be izan oso-osorik Jaungoikoarenak zareenez. Zuek oiñazetzeko lain ez dan alderdikerririk zuekan sortzen ez dan ezkerro, Jaungoikoagan bizi zareen ezaugarria da benetan ori. Zeuen opari naz ni, eta gizaldietan guztiz ospatsu dan Efeso'ko zeuen Elizagaitik eskintzen dot nire burua oparizat.

2. Aragikoi diranak ezin egin daikee espirituzko egitarik, ezta espiritu-zale diranak be egitada aragikoirik; sinismenak be ezin daike sinisbagekeririk egin, ezta sinisbagekeriak be sinismen-egitarik. Alan be, zuek aragi-eraz egiten dozuezan egitadak be, espirituzko biurtzen dira, guztia Jesukristo'gan egiten dozue-ta.

IX. *Irakasle gaiztoen aurka.*—Ortik bidean yoiazan batzuk igaro dirala jakin dot, orraitaiño, eta irakaspen txarra eroiela; baiña irakaspen ori zuen artean ez dautsazuela ereiten itzi, arein azia ez artzeko zuen belarriak estaldurik. Izan be, Aitaren etxeko arri zaree zuek (9), Aita Jaungoikoaren etxerako atonduak, Gurutzea dan Jesukristo'ren burdin-agaren (*palankearen*) bidez gora jasoak, lokarritzat Espiritu Santuak egiñik.

(9) Kor. 1.^a, 6, 19; Pedr. 1.^a, 2, 5.

(*) Minkor: posible.

Gorantz egiteko zuen zuzentzaillea zeuen sinismena da, eta Jaungoikoagana jasoten zaituen bidea zeuen maitasuna da.

2. Guztioz zaree bide-lagun, Jaungoiko-eroale*, eliz-eroale, Kristo-eroale, santutasun-eroale, Jesukristo'ren aginduz guztiz apainduak.

Beraz, poz andia artzen dot nire idazki onen bidez zuekaz berba egiteko ta zuekaz batera pozteko gai izan nazalako: zuek, bizitza barri orri jarraituez, Jaungoikoa baiño ez dozue maite-ta.

X. *Kristauak eta fedebageak.*—Egizue otoitz eten-bagarik osterantzeko gizonen alde, arei buruz *Jaungoikoagana* biurtzeko ustea ba-dago-ta, Jaungoikoa lortu dagien. Itzi egiezue, ba, irakaspena besterik ezean zeuen egintzen bidez artu dagien (10).

2. Arein asarrekerien aurrean, zuek otzanak izan zaitez; arein arrokerien aurrean, zuek apalak; arein biraoai, zuek otoitzakaz erantzun; arein okerbidearen aurrean, zuek sinismenean iraukorak izan; arein lazkerien* aurrean, zuek samurak! Ez egin aalegiñik arei ordain bardiña biurtzen!

3. Anai agertu gakiezan, ostera, gure maitasunaz, Jaunaren antzeko izaten aalegiñak egiñik, bidebagekeria, bearrizana ta iraiña ondo erooten nor geiagoka; eta orrela, ez da izango zuekan deabruaren bedar-aztarrenik be, bestetara baiño: aragiari ta espirituari buruz, Jesukristo'gan iraungo dozue garbitasun eta negurritasun osotan.

XI. *Betikotasuna.*—Azken-aldietan gagoz (11). Begirune ta bildur izan dagoen Jaungoikoaren eroapenari, galdumendirako biurtu ez dakigun. Izan be, bata edo bestea: etorteko dan asarreari bildur izan bear dautsagu, edo oraingo grazia maite izan bear.

Kristo Jesus'egan egotea da bakarrik egitan bizi izatea. Ez dozue orixe baiño beste ardurarik izan bear.

2. Beragan daroadaz espirituzko pitxi diran kateok; emon al dakidala zuen otoitzaren bidez kateokaz barriro biztuteko grazia! Otoitz orretan eskuartu nai dot nik beti, Efeso'ko kristauen alkartasunean (12) aurkitua izan naiten, eurak be Jesukristo'ren indarrez beti Apostoluakaz bat eginda egin ziran-eta.

(10) Ikusi Mat. 5, 15.

(11) Ikusi Yon'en 1.^a, 2, 18; Kor. 1.^a, 7, 29; Per. 1.^a, 4, 7.

(12) Ikusi Kol. 1, 12.

(*) Jaungoiko-eroale: portador de Dios. — (*) Lazkeri: aspereza.

XII. *Paulo gogoratzen.*—Ba-dakit ni nor nazan eta nortzui idazten dau-tsedan.

Ni eriotzarako nago galduta; zuek, errukia jadetsi dozue; ni, arriskuan nago; zuek, arrisku bagarik.

2. Eriotzaren bidez, Jaungoikoagana jasoak diranentzako geltokiak zaree zuek. Paulo'k irakatsiak zaree (13), *Jaungoikoak* santutu ta autortu eban arek, guztiz zoriontsu arek, idazki oso baten Jesukristo'gan gogoratzen zaituen arek —jadetsi al dagidala nik aren lorratzai jarraitzea Jaungoikoa lortu dagidanean!

XIII. *Eukaristia ta bakea.*—Beraz, egizuez aalegiñak sarriago batzeko, Jaungoikoaren Eukaristia ospatu ta Ari aintza emon dagiozuen. Alkar batzen zareenean, Satan's en indarra ondatu ta zuen sinismenaren alkartasunaz aren ondapena ezereztu egiten da-ta.

2. Bakea baiño baliotsuagorik ez dago ezer; zeruan eta lurrean bakeak gudu (gerra) guztia ezereztu egiten dau (14).

XIV. *Sinismena ta goi-maitasuna.*—Orretariko ezer be ez dago zuentzat estalduta, Jesukristo'gan sinismena ta Areganako maitasun bete-betea ba'dozue: auxe da bizitzaren asiera ta amaia. Asiera, sinismena da; amaia, goi-maitasuna: bata eta bestea, alkartuta, Jaungoikoa da. Beste ongarri* guztiak arein ondorenak dira.

2. Sinismena agertzen dauan iñok be ez dau pekaturik egiten, ezta maitasunaren jabe danak gorrotorik be izaten.

Zugatza bere fruetatik agertzen da; era berean, Kristo'renak dirala agertzen diranak, euren egiñen bidez jarriko dira agirian (15). Izan be, egitea ez dago sinismena autortzean, azkeneragiño sinismenaren indarrean irautean baiño (16).

XV. *Isildu ta egin.*—Itz egin eta *kristau* ez izatea baiño baliotsuagoa da isiltzea ta *kristau* izatea. Ondo da irakasle izatea, esaten dana egiten danean, baiña (17).

Au olan dala, itz egin eban Irakasle bat bakarra dago, eta Aren itza egintza izan zan (18); baiña isillean egin ebana be, Aitarentzat egoki da.

(13) Paulo'gandik artu ebazan sinismena ta goi-maitasuna (ikusi Ef. 1, 9).

(14) Ikusi Sant. 3, 13-18.

(15) Ikusi Mat. 12, 35; Kol. 1, 6.

(16) Ikusi Tes. 1.^a, 1, 3-5; Kor. 1.^a, 4, 20; Sant. 2, 20; Gal. 5, 5.

(17) Mat. 23, 1-3; Errom. 2, 21-24.

(18) Ikusi Asiera (Gen.) 1, 3. Ps. 32, 9; Judit 16, 17.

(*) Ongarri: cosas dignas, provechosas.

2. Jesus'en itzaren jabe benetan danak, Aren isiltasuna be entzun egin daike, bikain-bikaiña izan daiten: itz egiten dauanez egin be egin dagian, eta isillean dauanaz izan daiten ezagutua.

3. Ez yako ezer ezkututzen Jaunari; geure barruko ixilpekoak be Bere ondoan dagoz. Beraz, egin dagigun dana Bera geugan bizi dan sinismenaz, gu Aren etxe izan gaitzean, eta A gugan geure Jaungoiko (19). Ori orrelaxe da benetan eta orrelaxe agertuko da gure arpegi-aurrean; bidezko da, ba, guk A maitatzea.

XVI. *Fedea usteltzen diarduen aurka.*—Ez egin iruzur zuen buruai, ene anaiok: sendi-usteltzailleak ez dabe Jaungoikoaren erreñua oiñordekotzat lortuko (20).

2. Beraz, aragi-eraz pekatu ori egin ebenak il egin ba'dira, askozaz geiago bere irakatsi gaiztoaz Jaungoikoaganako sinismena usteldu dagiana! Sinismen orregaitik izan zan gurutzeratua Jesukristo! Orrelakoa, bere burua zikindurik, iñoiz atzamatzen ez dan sutara joango da, eta bardin ari entzun dagiona be.

XVII. *Jaunaren miritza**.—Onexegaitik artu eban Jaunak bere buruan miritza (2^a): bere Elizari usteldu-eziña ezarteko. Ez igurtzi (*gantzutu*) zuen buruak mundu onetako nagusiaren usain txarreko irakatsiaz! Ez zagiezala croan bere buztarpean, saritzat emon izan yakun bizitzatik urrun!

2. Baiña, zer-dala-ta ez gara guztiok zuur biurtzen Jesukristo Jaungoikoaren ezaguera artu izan dogun ezkerok? Zegaitik galtzen gara burubage, Jaunak benetan bialdu dauskun grazi-sariaz aazturik? (22).

XVIII.—Nire espiritua Gurutzeko opari da (23), eta gurutzea sinisgogorren-tzat gaizpide (*galbide*) da; guretzat, barriz, osasuna ta betiko bizitza. Nun da jakintsua? Nun ikastuna? Nun burutsu deritsen arropuzkeria? (24).

2. Izan be, Jesus gure Jaungoikoa, Kristo'a, Maria'k sortu eban, Jainkoaren naitara; Dabid'en jatorritik, bai, baiña Espiritu Santuaren egiñez. Jaio ta batea-tua izan zan, ura bere nekaldiaz garbitzeko.

(19) Ikusi Agerp. (Apokal.) 21, 7; Kor. 2.^a, 6, 1-7.

(20) Ikusi Kor. 1.^a, 3, 16-17; 6, 9, 10, 19.

(21) Mat. 26, 7.

(22) Gal. 3, 3; Kol. 2, 20; Gal. 3, 2-3: «Orren tentel zaree? Espirituz asita, orain aragitan amaitzen dozue?».

(23) Ikusi Kor. 1.^a, 1, 18.

(24) Kor. 1.^a, 1, 19-20.

(*) Miritza: unguento.

XIX. *Jaungoikoaren misterio zoliak*.—Eta Maria'ren garbitasuna ta aren seingintza (*umegintza*) ezkutuan geratu yakozan mundu onetako nagusiari, baita Jaunaren eriotza be: ona emen Jaungoikoaren ixiltasunean burutu ziran iru misterio zoli.

2. Baiña, zelan jarri yakeezan agirian gizaldiai? Beste izarrak baiño izar argitsuagoak egin eban argi zeruan. Bere argia azaldu-eziña zan eta barria arritasun biurtu. Eta beste izar guztiak, eguzki ta illargiagaz batera, inguruan batu yakozan izar barri oni; Arek, barriz, beste guztiak baiño argi andiagoa jaurtiten eban. Gizakiak arritu egin ziran, beste izarren aldean alako barri nabarmena nondik etorri zeitekean alkarri itantzen eutsoela.

3. Orduantxe bertan, zorginkeri guztia ondatuta geratu zan eta gaiztakeri guztia ezereztu egin zan.

Betiko bizitzako barri aretara gu eroateko, Jainkoa gizon egiña agertu zan ezkeru, lur-jota geratu zan ez-jakitea, ondatuta antxiñako agintaritzaz. Orduantxe asi zan beteten, Jaungoikoagan leendik erabagita egoana. Dana izan zan astindua eriotzaren ondapena atondu zanez gero (25).

XX. *Agintzari ta burubideak*.—Zuen otoitzaren bidez, Jesukristo'k gai (*duin*) egin ba'nagi —eta alantxe nai dagiala—, bigarren idazkitxo bat egiteko asmoa dot: oraingoan, labur-labur esan dautsuet Jesukristo Gizon Barriaren erabidea; gerokoan, zabalago azalduko dautsuet. Erabide ori Areganako sinismenean eta maitasunean ezarrita, baita Aren nekaldi ta biztueran be.

2. Pozik azalduko dautsuet, batez be zuek, guztiok batera Jesus'en izenaren grazian, sinismen batean eta Jesukristo'gan alkartzan zareela agertzen ba'daust Jaunak: Jesukristo, aragi-aldetik, Dabid'en jatorrikoa da, gizonaren seme ta Jainkoaren seme; zuek, gotzaiñari ta zaarrai (*abadeai*) gogo batez esana egiteko alkartzan ba'zaree, ogi bera zatiturik (26), osabide betiraungarria da-ta, ez-ilteko osagarria eta Jesukristo'gan betiko bizi izateko janaria.

XXI. *Azken-agurrak*.—Nire bizia zeuen alde emon nai neuke, baita Jainkoaren aintzarako Esmirna'ra bialdu dozuezanen alde be; emendixek (*Esmirna'tik*) idazten dautsuet, Jaunari eskerrak emonez, Polikarpo ta zuek maite izanez. Izan nagizue gogotan, Jesukristo'k gogotan zaituenez!

(25) Dana izan zan astindua mundu onetako nagusiaren erreñuan, Salbatzaillea eriotzaren egillea azpiratzeko etorri zan-eta.

(26) Yon, 6. Ogi ori Eukaristia da.

2. Erregutu egizue Siria'ko Elizaren alde: andik katepean nakarre Erroma'ra, ango eliztarretariko kaskarrena naz-ta, Jainkoaren aintzarako aukeratua izateko grazia emon izan yatanarren be.

Indartsu izan zaiteze guztion itxaropena dan Jainko Aitagari eta Jesukristo'gan!

MAGNESIA'KOAI IDAZKIA

Agurra.—Iñazio'k, Teoforo izenordeko onek, Meandro-gaiñean dagoan Magnesia'ko Elizari, Aita Jaungoikoaren eta Jesukristo gure Salbatzaillearen grazian bedeinkatuari, nire agurra Beronegan, Aita Jainkoagan eta Jesukristo'gan poz bizieta opa izanik.

1. Jaungoikoaganako zuen maitasuna guztiz eratua jakifirik, Jesukristo'ren fedean zuei itz egitea erabagi neban poz-pozik.

2. Izan be, Jaunak jaungoikozko izenaz goratu nauan ezkeru (27), nik daroadazan kateetan Elizai abesten dautset, eta Jesukristo'ren aragi ta espirituaren alkartasuna gura dot areintzat, geure betiko bizia da-ta, baita sinismenean eta maitasunean alkartasuna be, nagusi dira-ta; baiña, batez be, Jesus eta Aitagazko maitasuna. Maitasun onetan sendo ba'gagoz eta mundu onetako nagusiaren gaiztakeritik alde egitea lortzen ba'dogu, Jainkoa jadetsiko dogu.

II.—Poz andia artu neban zuek guztiok Jainkoaren duin dan Damas zuen gotzaiñagan ikusi zenduedazanean, baita zuen duin diran Bajo ta Apolonio zaarakan (*abadeakan*) eta nire morroikide Sozion laguntzailleagan be: *Sozion* au neure poza da, Jainkoaren graziari lez gotzaiñari menperatzen yako-ta, baita zaarrai (*edo abadeai*) be Jesukristo'ren legeari lez.

III. *Aita Jainkoa guztion Gotzaiña*.—Baiña, egoki yatzue zeuei be gotzaiñaren gaztetasuna txarto ez artzea (28); aregan Aita Jainkoaren indarra begiraturik, menpetasun osoa emon bear dautsazue, ostera. Zuen zaar (*edo abade*) santuak orixe egiten dabela jakin dot, eta arein gaztetasuna ez ezetsirik —gazteak dirana agirian dago-ta—, jaungoikozko adimenaz ontzat artzen dabe arein aginpidea, obeto esan, ez arein aginpidea, guztion Gotzain dan Jesukristo'ren Aitarena baiño.

(27) Jaungoikozko izena: bere izena, Teoforo = Jainkoa daroana.

(28) Tim. 1.^a, 4, 12.

2. Beraz, gu maite izan gaituan Aren (29) aintzarako, bidezko da azpikeri bagarik esana egitea: izan be, ez yako ziririk sartzen ikusten dogun gotzain oni, ikusten ez danari baiño. Eta au ez da aragi-gaia, ezkutua ikusten dauan Jainkoari dagokion gaia baiño.

IV.—Egoki da, ba, kristau izena eroatea bakarrik ez, baita kristau izatea be. Norbaitzuek auxe egiten dabe: gotzaiña agoz ondo artu, bai, baiña gero dana aren aginpidetik kanpo egin. Orrelakoak ez dot uste barru zuzenik dabenik, zuzenbidez eta legebidez ez dira batzen-eta.

V. *Diru biak*.—Baiña, gauza guztiak euren azkena dabenez, gauza bi da-torkiguz batera: eriotza ta bizitza (30). Eta bakoitza bere tokira joango da (31).

2. Diru-mota bi dagozanez da ori: diru bata Jainkoarena eta bestea mundu-duarena, eta bakoitzak bere sillua daroa ezarrita: fededun ez diranak, mundu onetako sillua; fededunak, barriz, maitasunaren bidez, Jesukristo'k ezarritako Aita Jainkoaren sillua. Aren (*Jesukristo'ren*) nekaldia eredutzat artuta, Aregaitik ilteko gertu ez ba'gagoz, ez dogu gugan Aren bizitzarik izango.

VI. *Alkartasunerako deia*.—Beraz, leen aitatu dodazan personetan (32), sinismenean zuen eliztar-talde guztia ikusi ta besarkatuta gero, guztien Jainkoagaz bat egiteko aalegiñak egin dagizuezala eskatzen dautsuet, gotzaiña buru dala, Jainkoaren orde z dago-ta, baita zaarrak (*edo abadeak*) buru dirala be, Apostoluen batzarreko dira-ta, baita nire poza diran diakonuak buru dirala be, Jesukristo'ren gauzen arduradun dira-ta: Jesukristo da gizaldiak baiño leen Aitaren ondoan egoana ta azken-aldiotan (*munduan*) agertu zana (33).

2. Guztiok, ba, Jainkoaren egikerara jarririk, alkarri lotsa agertu egiozue, eta iñok ez begi bere lagun-urkoa aragi-arauz begiratu, beti Jesukristo'gan alkar maite izan baiño. Ez daitela zuekan alkar banantzekorik ezer izan, zuen gotzaiñagaz eta zuen buru diranakaz alkartuta egon baiño, ezilkortasunezko eredu ta irakatsizat.

(29) Aren = Jainkoaren. Magunzia'koai, 3, 1; Yon, 3, 16: «Izan be, Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarria emoteragiño izan dau maite».

(30) Didaje, 1, Mat. 7, 13-14: «Sartu zaitez ate estutik, ondamedira daroan atea andia da-ta, eta zabala arako bidea, eta bertatik sartzen diranak asko dira. Bizitzara daroan atea, barriz, axc bai dala estua, baita arako bidea be!; eta ate ori aurkitzen dabenak gutxi dira».

(31) Apost. Egiñak, 1, 25.

(32) II'garren atalburuan aitatzen diranak.

(33) Pedr. 1.^a, 1, 20: «Iurra lur izan baiño leen ezaguna, eta azken-aldiotan zeuekai-tik agertu dana»; Ef. 19, 2; Errom. 7.

VII. *Jesus, batasunaren eredu*.—Beraz, Jaunak bere Aita bagarik ezer egin ez ebanez (34) —eta ori Aregaz bat izanik—, ezta bere buruz eta Apostoluen bidez be, zuek be ez egizue ezer egin zuen gotzain eta zaarrak (*edo abadeak*) bagarik; ez uste izan bananduta eta bakarrean egiten diran batzarrak goragarri diranik: guztiok batuta, otoitz bakarria izan daitela, ostera, erregu bakarria, itxaropen bakarria maitasunean, poztasun akats-bagean (35).

Bat bakarria da Jesukristo; ezer be ez Bera baiño oberik!

2. Zoaze guztiok batera Jainkoaren etxe bakarrera lez, altara bakarrera lez, Jesukristo bakarregana: Aita bakarragandik urten, Aregaz batera da eta barrero Aregana joan zan-eta (36).

VIII. *Judar-barrien aurka*.—Ez atzipetu zuen buruak irakatsi nabarmenez, ezta ezetarako balio ez daben antxiñako ipuiñokaz be. Orain arte judarren eraz bizi ba'gara be, ez dogula grazirik artu autortzen dogu-ta (37).

2. Izan be, jaungoikozko profetak Jesukristo'ren eraz bizi izan ziran. Orregaitik izan ziran aurrean erabiliak, Aren graziaz argiturik, sinisgogorrai Jainko bat bakarria dagoala buruan sartzeko: Jainko orrek Jesukristo bere semearen bidez agertu eban bere burua; Jesukristo da Aren Itza, ixiltasunetik etorri zana (38), eta bialdu izan eban Ari danean izan yakon atsegin.

IX. *Profetak Kristo'ren ikasle*.—Alan, ba, antxiñako erabideari jarraitu eutsoenak itxaropen barrera etorri ziran, arrezkero zapatua ospatzen ez ebe-la (39), Jaunaren eguna baiño (40): egun onetan argitu zan gure bizitza Jaunaren graziaz eta Aren eriotzaren irabaziz —misterio ori batzuek ukatuarren be; baiña, misterio orren bidez artzen dogu sinismena, eta berorregaitik eroaten doguz nekeak be, geure Irakasle bakarria dan Jesukristo'ren ikasle aurkitu gagiezan.

(34) Yon 14, 10: «Neugan dagoan Aita da lanak egiten dauzana».

(35) Paulo'k Ef. 4, 5: «Jauna bat bakarria da, bat sinismena, bat bateoa».

(36) Yon, 1, 1-2: «Itza Jaungoikoagan egoan»; 3, 13: «Zerura ez da iñor igo, zerutik jatsi dana izan ezik, zeruan dagoan Gizasemea izan ezik»; 8, 42: «Jaungoikoa zeuen Aita ba'litz, neu be maite izan nendukezue; ni Jainkoagandik sortu ta etorri naz-ta; ni ez naz neure buruz etorri, Berak bialduta baiño»; 16, 28: «Egun aretan neure izenean eskatuko dozue; eta nik ez dirautsuet Aitari zeun alde erregutuko dautsadanik...».

(37) Ebioniten eta gnostikoen aurka.

(38) Ef. 15, 1-2; Ef. 6, 1; Ef. 19, 1; Errom. 8, 2.

(39) Judarrak larunbata (zapatua) eben jaiegun, baiña kristauak igandea (dome-kea) artu eben, Jesukristo domekaz biztu zalako.

(40) Jaunaren eguna: igandea, domekea.

2. Olan, ba, zelan bizi gaitkez gu Aregandik kanpo, espirituz Aren ikasle ziran profetak eurak be euren Irakasle lez itxaroten eben-eta? Orregaitik, etorri zanean, Berak biztu ebazan illen artetik Beraren zain ain zuzen egozanak.

X. *Legamin barria*.—Ez gakiozan, ba, gogortu Aren ontasunari!; izan be, Jaungoikoak geure erdutara egingo ba'leu, ez gintzakez orain bizi izango (41). Orregaitik, Aren ikasle egin garan ezker, ikasi dagigun kristautasun-eraz (42) bizi izaten. Kristau-izena izan ezik, beste izen bat daroana, Jainkoagandikoa ez da-ta.

2. Jaurti, ba, legamin txarra, zaartu ta garrastua, eta legamin barri biurtu zaiteze (43), Jesukristo da-ta. Gazitu zaiteze Aregan, zuen artean iñor be usteldu ez daiten, zeuen usaiñak jarriko zaitue agirian-eta.

3. Eziña da agoan Jesukristo eroatea ta judar-eraz bizi izatea. Izan be, ez zan izan kristautasuna judutza* sinistu ebana, judutza kristautasunean baiño; ementxe batu da Jainkoagan sinisten dauan edozein miin.

XI. *Fede oso-osea*.—Guzti ori, ene maite-maiteak, ez dautsuet idazten zuen artean olan jarduten dabenak dagozala jakin dodalako, zuetariko kaskarrena izanik, zuek zaintzen jardutea nai dodalako baiño; uskerizko irakatsietako sarean jausi ez zaitez, Pontzio Pilato'ren agintaritzan jazotako Jaunaren jaiotzaren, nekaldiaren eta biztueraren zigurtasun osoa izan dagizuen baiño; guzti ori Jesukristo'k bete eban benetan eta zigur, geure itxaropen danak; ez dagiala zuetariko iñok itxaropen orretik alde egin.

XII. *Burubideak*.—Atsegindu al naitela zuei buruz gauza guztietan, orretarako gai ba'naz! Izan be, katez lotuta nagoanarren, zuetariko baten parean be ezin jarri naiteke, zuek zeuen eskuko zaree-ta. Ba-dakit ez zareena nire gorapenaz arrotzen, zuen barruan Jesukristo daukazue-ta. Bestetara bai; goratzen zaituenean, lotsatu egiten zaree, idatzita dagoanez: Zintzoa bere buruaren salatzaile da (44).

XIII. *Barrero be alkartasunerako deia*.—Egizuez, ba, aalegin guztiak Jaunaren eta Apostoluen erabagietan sendo egoteko, egin dagizuen edozer ondo urten dakizuen, aragian eta espirituan, fedean eta maitasunean, Semeagan, Aita-

(41) Errom. 2, 4-7.

(42) Ementxe agertzen da leenengoz «kristautasun» itza.

(43) Ikusi Kor. 1.^o, 3, 6-7.

(44) Prov. 18, 17.

(*) Judutza: judaísmo — (*) Buruan sartu: convencer.

gan eta Espiritu (*Santuagan*), asieran eta amaian, oso duin dan zuen gotzaiñagaz alkartuta, baita zuen zaar-taldearen (edo abade-taldearen) espirituzko koroiaz be —burua ezarteko duin ba-da-ta—, baita zuen diakonu jainkozaleakaz be.

2. Zagoze zuen gotzaiñaren menpean, baita alkarren menpean be, Jesukristo be, aragi-aldeetik (45), bere Aitaren menpean dagoanez, eta Apostoluak Kristo'ren eta Aitaren eta Espirituaren menpean, gorputz eta espiritu batasuna izan daiten.

XIV. *Erreguak*.—Jaungoikoaz beterik zagozema ba-dakidan ezker (46), labur-labur emon dautsuedaz burubideak. Izan nagizue gogotan zuen otoitzetan, Jainkoa lortu dagidan, baita Siria'ko Eliza be, ango atalaren izena eroateko duin ez nazararren. Izan be, Jainkoagan bat eginda dagoan zuen erregua bearrezkoa yat, baita zuen maitasuna be, Siria'ko Eliza zuen Elizaren bidez jaungoikozko iruntzez bustia izan daiten.

XV. *Gorantziak eta agurra*.—Idazki au egiten dautsuedan Esmirna'tik, Efesiotarrak agur egiten dautsue: oneik emen dagoz Jaungoikoaren aintzarako, eta gauza guztietan sendotu nabe, Esmirnatarren gotzain dan Polikarpo'gaz batera. Beste Eliza guztiak be agur egiten dautsue Jesukristo'ren aintzarako. Neure agurra bialtzen dautsuet Jainkoaren alkartasunean, banandu eziña dan espirituan zagozen Jesukristo'gan.

TRAILLES'KOAI IDAZKIA

Agurra.—Iñazio'k, Teoforo izenordeko onek, Jesukristo'ren Aita dan Jainkoaren aukeratu ta duiñari; aragian eta espirituan Jesukristo'ren nekaldiaren bidez baketan pozik dagoan ari —Jesukristo da-ta Beragan gu barrero biztuko garana—, agur oso-osea, Apostoluen eraz, eta poztasunik biziena opa dausat.

I.—Adimen akats-bagea ta iraupen ikara-eziña dozuena jakin dot, eta ori ez da ekiñez-ekiñez lortua izan, zeuen berezko izatez baiño, zeuen gotzain dan Polibio'k agertu daustanez; au, Jainkoak eta Jesukristo'k alan nai izanda, Es-

(45) Ikusi Ef. 4, 4.

(46) Ikusi Errom. 15, 14.

mirna'ra etorri da; eta Jesukristo'gaitik ni katepean ikustean eta neugaz batera arenbeste pozten zanez, aregan zeuen laguntalde andia ikusten nebala uste izan neban.

2. Beraz, aren bidez Jainkoaren eraz dan zuen biozperatasuna artzean, Jaunari goraka asi nintzan, zuekan Jainkoaren benetako ereduak aurkitzean, leendik be ba-nekianez.

II.—Izan be, zuen gotzaiñaren menpean zagozela —gotzaiña Jesukristo bera bai'litzan—, gugaitik il zan Jesukristo'ren beraren eraz bizi zareela ikusten zaituet, ez giza-eraz bizi diranen eraz: zuen sinismena Aren eriotzan jarriaz, eriotzari iges egin dagiozuen.

2. Beraz, bearrezko da —oi dozuenez— zuen gotzaiñaren ixillean ezer be ez egitea; zaarren (edo abadeen) bazkunari be menperatu zakioze, Jesukristo'ren Apostolui lez: Jesukristo da gure itxaropena, eta Beragan egon bear dogu gure egikera guztietan.

3. Bearrezko da, era berean, Jesukristo'ren ezkutapenen (*misterioen*) morroi diran diakonuak (47) era guztietan guztien gogoko egin daitezcan: janari ta adari-morroi ez dira-ta, Jainkoaren Elizaren morroi baiño. Beraz, bearrezko da, sutatik lez, edozein jauskeritik* be gorde daitezcan.

III. *Elizaren nagusiak*.—Lotsa agertu egiezue guztiok diakonuai be, Jesukristo'ri lez; baita gotzaiñari be, Aitaren antz-irudia da-ta; baita zaarrai (edo abadeai) be, Jainkoaren lege-batzarraren ordezkari ta Apostoluen alkartasunekoak dira-ta. Oneik kendu ezker, ez da Elizarik.

2. Guzti oni buruz, ba-dakit zuek olantxe egiten dozuena; zeuen gotzaiñagan artu neban —eta neure aurrean dot oraindiño— zuen maitasunaren eredu bat-eta. Aren (*gotzaiñaren*) jokibidea irakatsi ederra da, eta aren otzantasuna indar bat. Sinisbageak eurak be lotsa izango dautsoela, nik uste.

3. Orretzaz gogortsuago be idatzi negikezue; baiña, zuekanako nire maitasunagaitik, parkatu egiten dautsuet. Ez naz zuei aginduak emoteko lain arroa, apostolu bai'nintzan, eriotzarako galduta nago-ta.

IV. *Bildur gorapenetan*.—Asko dira nire gogorapenak Jainkoagan; alan be, negurtu egiten dodaz nire indarrak, arropuzkeriz galdu ez naiten. Izan be, orain bildur geiago izan bear dot, eta ez dautset goratzen nebanai jaramonik egin bear. Gorapenak niretzat zartadak dira-ta.

(47) Ikusi Tim. I.^o, 3, 9.

(*) Jauskeri: deslitz, caida moral.

2. Egia da nik nekeak eroatea nai dodana, bai; baiña, ez dakit onetarako gai nazanik. Izan be, nire barruko indarra ez yake besteai agertzen; baiña orrexe-gaitik be geiago inguratzen nau. Beraz, otzantasuna bear dot: onexen bidez eze-rezten da mundu onetako nagusia-ta.

V. *Jaungoikoagaz bat eginda egon*.—Ez ete-daiketsuet zeruko gaiak buruz idatzi? Alan be, bildur naz, oraindiño (espirituz) umeak zareenez, kalte egin dagitzuedan (48). Parkatu, ba, ori egiten ez ba'dot: ori ezin iruntsitean, itoteko arriskuan egongo zintzakeze-ta.

2. Neu be, katepean nagoala-ta, ez naz gauza zeruko gaiak eta aingeru-maillak ulertzeko, ezta aingeru-buruzagi-lerroak eta ikusten dana ta ez dana be. Ezkutapen orrean aurrean ni ikasle-barri naz oraindiño (49). Askoren bearrean gagoz, egon be (50), Jainkoari oben* ez egiteko.

VI. *Kristau-irakatsia*.—Auxe, bai, erregutzen dautsuet —nik ez baiña, Jesukristo'ren maitasunak baiño—: kristau-irakatsia bakarrik artu dagizuela eta alde egin iñoren edozein bedarretik, ziñauskeri danetik.

2. Fede-ausleak Kristo'ri ezarten dautsoez euren edenak*, euren buruak oso sinisgarri agerturik, izatez eztiar ardaotan naasturiko eden ilgarria emoten dabenen antzerako izanik; ez dakianak gozatsu artzen dau, eta atsegin kaltegarritz bere eriotza edaten dau.

VII. *Gotzaiñagaz alkartu*.—Kontuz, ba, orrelakoakaz! Eta olantxe izango da arrotzen ez ba'zaree, Jesukristo Jainkoagaz, zuen gotzaiñagaz eta Apostoluen erabagiakaz guztiz alkartuta geratzen ba'zaree.

2. Altara-barruan dagoana garbi dago; altaratik kanpo dagoana, barriz, ez dago garbi; auxe esan nai dot: gotzaiñaren eta zaar-taldearen (edo abade-taldearen) ostean zerbait egiten dauana, orixe da barruz garbi ez dagoana.

VIII. *Fedea jaunaren aragi; maitasuna Jesukristo'ren odol*.—Onezaz ez dot esan gura zuen artean orrelakorik jazo dala jakin dodanik, ez; zuekanako nire maitasunarren, zaintzaille egiten nakizuela bakarrik, deabruaren sareai aurrea artzen dautsedala.

(48) Ikusi Kor. I.^o, 3, 2.

(49) Itzulpen-zari onetan Hefe'le'ri jarraitu dautsagu.

(50) Ikusi Kor. I.^o, 13, 9.

(*) Oben: falta. — (*) Eden: veneno.

2. Zuetariko iñok be ez dagiala bere lagun-urkoaren aurka ezer izan! Ez emon biderik jentillai, burubage batzukaitik, Jainkoagan batzen dan laguntaldea madarikatzeko! (51). Izan be, zoritzarrekoa, bere tentelkeriagaitik, norbaitzuek neure izena madarikatzen ba'dabe! (Is. 52, 5).

IX. *Jesukristo'ren irakatsi jatorra*.—Estaldu egizue, ba, zuen belarriak, Jesukristo'ri buruz izan ezik norbait zerbait esatera ba'letorkizue: *Jesukristo*, Dabid'en jatorritik dator eta Maria'ren semea da; benetan jaio, jan eta edan eban; Pontzio Pilato'ren menpean aurrean erabilia izan zan, benetan gurutzean josi ta illa izan zan, zeruan, lurrean eta inperuan bizi ziranen begien aurrean.

2. Gaiñera, biztu egin zan benetan illen artetik, bere Aitak biztuten ebal. Eta Aren antzera, sinistea Aregan dogunok be, era berean Aren Aitak biztu egingo gaitu; Jesukristo'gan diñot, eta Beronegan izan ezik ez dogu benetako bizitarik (52).

X. *Bere kateak dira autorle*.—Beraz, batzuek diñoenez —Jainko-ukatzailleak, edo bardin dana, sinisbageak dira orreik—, Jesukristo'k nekeak itxuraz bakarrik eroan ba'dauz —eurak bai dirala itxurakeri utsa!—, zetan nago ni katepean? Zetan nago ni pistiakaz burrukan egiteko gurariz? Beraz, alperrik il bear dot nik! Beraz, guzurrezko autorra egiten dot nik Jaunaren aurka.

XI. *Aitarenak ez diran landarak*.—Alde egin, ba, muskil txar orreitatik (53), frutu ilgarria daroe-ta. Aretatik jaten dauan edonor bat-batean ilten da, gizon orreik Aitak jarritako landarak ez dira-ta.

2. *Aitak jarriak* ba'litzaz, arekan gurutze-adarrak agertuko litzakezan eta arein frutua usteldu-eziña izango litzakean. Gurutzea diñot, Jaunak bertatik egiten dautsue dei-ta, Aren atal zareen ezker. Baiña, burua ezin jaio daiteke atale-tatik bananduta, Jaungoikoak Berbera dan batasuna agintzen dausku-ta (54).

XII. *Agurra eta burubideak*.—Esmirna'tik agur egiten dautsuet, lagun egiten dausten Jainkoaren Elizakaz batera; oneik gauza guztietan sendotu nabe, bai gorputzean bai espirituan.

2. Jaungoikoa jaristeko erreguturik, Jesukristo'ren maitasunaren edonun daroadazan nire kateak burubide egiten dautsue: Iraun egizue alkarren maita-

(51) Ikusi Kor. 1.^a, 10, 32; Kor. 2.^a, 5, 12; Tim. 1.^a, 5, 14.

(52) Ikusi Yon, 3, 36; 14, 6; 14, 20: «Egun aretan ezagutuko dozue ni neure Aitagan nagoana, eta zuek neugan eta ni zuekan».

(53) Ikusi Mat. 15, 13: «Zeruko nire Aitak sartu ez dauan edozein landara, atara egingo dabe zuzarretik».

(54) Ikusi Errom. 12, 5; Kor. 1.^a, 12, 12 ta abar.

sunean eta alkarganako otoitzean. Izan be, guztioi yatzue egoki —zaarra (edo abadeai) batez be— gotzaiña(ri) laguntzea Aitaren, Jesukristo'ren eta Apostoluen aintzarako.

3. Maitasunez entzun nagizueta eskatzen dausat Jaungoikoari, nire idazki au zuen aurkako autortzat biurtu ez daiten. Erregu egizue neure alde be, Jaungoikoaren errukiaren aurrean zeuen maitasunaren bearra dot-eta, jaristea dagokidan ondorenaren gai egin naiten, eta galdua nazala epaitu ez dagien.

XIII. *Azken-agurrak*.—Esmirnatarren eta Efesotarren maitasunak agur egiten dautsue. Izan gogotan zuen otoitzetan Siria'ko Eliza: ez naz ni duin aren atalaren izena eroateko, guztietarik kaskarrena naz-ta.

2. Nire agurra Jesukristo'gan. Menperatu zakioze zuen gotzaiñari Jainkoaren aginduari lez, eta bardin zaar (edo abade) batzari be. Eta maite egizue alkar biotz zatitu-eziñaz.

3. Nire espiritua zeuen alde emoten da oparizat, orain bakarrik ez, baita Jainkoa jaristea lortu dagidanean be. Oraindiño arriskuan nago-ta; zintzoa da, orraitioño Aita, Jesukristo'gan nire ta zuen erregua beteteko. Nai izango al dau Jaunak Beragan akats bagarik aurkitu zagiezan!

ERROMA'KOAI IDAZKIA

Agurra.—Iñazio'k, Teoforo izenordeko onek, Aita gorengoaren eta Aren Seme bakar Jesukristo'ren anditasunean errukia jadetsi eban Elizari; Jesukristo gure Jaungoikoaren fedearen eta maitasunaren eraz, diran gauza guztiak nai izan dauzan Aren naiak maitatua ta argitua dan Elizari; gaiñera, erromarren lurraldeko uri nagusian buru dan Elizari; Jainkoaren duin, begirune guztia, zorientasun guztia, gorapen guztia, nai dagian guztia jaristeko duin eta santutasun guztia dagokion ari; maitasunean aurren jarriari, Kristo'ren legearen jarraitzaille ta Jainkoaren izenaz apainduari:

neure agurra Aitaren Seme dan Jesukristo'ren izenean.

Aragiz eta espirituz, Aren agindu bakoitzean bat eginda dagozanai;

guztiak Jainkoaren graziaz beterik eta iñoren edozein kolore bagarik dagozanai: poz andi-andia ta akats-bagea opa dautsuet Jesukristo'gan!

I. *Bildur dautsat zuen maitasunari*.—Azkenez, Jaungoikoari eskatu ta eskatu, zuen jaungoikozko arpegiak ikustea jadetsi dot, eta eskatzen neban baiño geiago jadetsi be. Izan be, Jesukristo'gaitik katepean, zuek agurtzera joateko itxaropena dot, azkeneragiño eltzeko gai egiteko Jaunaren gogo ba'da.

2. Asier(e)a ondo joan zan, dagokidan oiñordekotasuna eragozpen bagarik lortzeko grazia jadesten ba'dot, beintzat. Zuen maitasunari bildur dautsat-eta, kaltegarri izan ez dakidan. Egia esateko, zuei erraz yatzue zuen asmoa betetea; niri, barriz, gaitz izango yat Jainkoa lortzea, aintzakotzat artzen ez ba'nozue.

II. *Altar(e)a gertu*.—Izan be, ez dot nai gizonen ederra billatu dagizuen, Jainkoaren ederra baiño, billatu be billatzen dozuenez.

Izan be, neuk be ez dot iñoiz be izango Jainkoa lortzeko une egokiagorik, ezta zeuek be ezin izenpetu daitezue lan ederragorik, zuek ixillik egonda bakarrik (55). Nitzaz ixilik ba'zagoze, ni Jainkoaren itz biurtuko naz-ta; nire aragiaganako maitasunak eroaten ba'zaitue, ostera, abots utsa naz barriro.

2. Ez gertatu niri Jainkoagaitik nire odola oparizat isurteko baiño gauza andiagorik (56), oraindiño altara bat gertu dagoan artean; zuek, maitasunaz kantari-talde bat egiñik, Jesukristo'ren bidez Aitari abestu dagiozuen, Jainkoak Siria'ko gotzaiñari Sartzalderagiño etorteko grazia emon dautsalako, Sartzaldek deituta gero. Ondo da mundutik Jainkoaganantz ostentzea —eguzkia lez—, Aregan jagi naiten.

III. *Otoitz-eske*.—Egundo ez zeutsen iñori ikusi-eziñik izan; ikusi-eziñik ez izatea irakatsi zeutsen enparaduai. Orain, ba, irakasteen eskatzen dozuena bera gura dot nik niretzat.

2. Auxe bakarrik eskatu bear dozue niretzat; kanpoko ta barruko indarra; berba egin bakarrik ez, adoretzu be egon naitela (57); auxe diñot: kristau-izena daroadala bakarrik ez, nire burua kristau lez agertu dagidala baiño. Izan be, nire burua kristau erakusten ba'dot, kristau-izena be eroan daiket, eta orduantxe izango nakio benetan zintzoa Kristo'ri, aurrerantzean munduan agertu ez naitenean.

3. Itxurazkoa dan ezer be ez da ona (58). Jesukristo gure Jaungoikoa be, orain bere Aitagaz dagoanean, iñoiz baiño geiago dago agirian (59).

(55) Nire alde egin bagarik.

(56) Ikusi Filip. 2, 17.

(57) Ikusi Kor. 1.^a, 2, 7: «Jaungoikoaren jakintza ezkutu ta isilpekoa baiño, betidanik gure aintzarako Jaungoikoak aukeratu ebana»; Ef. 14, 2; Kor. 1.^a, 2, 4, 5; Tes. 1.^a, 1, 5.

(58) Ikusi Sant. 1, 22: «Jaungoikoaren itza entzun bakarrik ez, baita egiñez bete be egizue, bestela zeuen buruak atzipetuko zeukeez-ta».

(59) Ikusi Kor. 2.^a, 4, 17-18.

Munduak kristautasunari gorroto dautsanean, onen (kristautasunaren) lana ez da itz-jarioa agertzea, arima-anditasuna baiño (60).

IV. «*Jainkoaren gari naz*».—Niri dagokidanez, Eliza guztiai idazten dauset, eta Jaungoikoagaitik gogo onez ilteko nagoala eskatzen dauset bizi, zuek galerazoten ez daustazuelakoan. Auxe eskatzen dausuet: ez daistazuela agertu egoki ez dan biozperarik. Itzi egidazue pistien janari izaten, arein bidez Jaungoikoagana elduko naz-ta. Jainkoaren gari naz, eta pistien agiñak eioko nabe, Kristo'ren ogi garbi lez aurkitua izan naiten.

2. Ekarri, ostera, pistiak arei ondo-ondo esanda, neure illobi biurtu daitezzen eta nire gorputzaren ondarrrik be itzi ez dagien, il naitenean iñori be gogai-karri izan ez nakion. Munduak gorputzik be ikusi ez daistanean, orduantxe izango naz Jesukristo'ren benetako ikasle. Erregutu egiozue Kristo'ri nire alde, tresna orrean bidez Jainkoarentzako opari izatea lortu dagidan.

3. Ez dausuedaz aginduak emoten, Pedro'k eta Paulo'k lez. Areik Apostolu izan ziran; ni, eriotzarako galdu bat baiño ez naz; areik euren eskuko izan ziran; ni, orain arte, otseña naz. Odol-eriotza eroan ba'dagit, barriz, Jesukristo'ren askatua* izango naz eta Beronegan biztuko naz nire eskuko. Eta oraintxe ikasten dot, katepean nagoala, zalekeririk bat be ez izaten (eukiten).

V. *Amar leoi-nabarri* lotuta*.—Siria'tik Erroma'ra pistiakaz burrukan diardut, itsasoz eta legorrez, gau ta egun, amar leoi-nabarri lotuta, edo bardin dana, gudari-talde bati lotuta; arei mesedeak egin, eta gaiztoagoak biurtzen dira. Alan be, areik ni txarto artzen naben bitartean, Jaunaren ikasle ohea izaten ikasten dot, ori zintzotzat egoteko naikoa ez dodanarren.

2. Atsegin artuko al dot niretzat gertu dagozan pistiakaz!, eta nigaz bizkorrak izan daitezala erregutzen dot. Neuk egingo dauset axaxa, beingoan irun-tsi nagien; ez dakidala batzui jazo yaken au jazo: pistiak, bildurtuta, ez eutseen arei ikuturik be egin. Eta onean eskatzen yakena areik nai ez ba'dagie, neuk zirikatuko dodaz.

3. Parkatu egidazue: ba-dakit egoki yatana. Oraintxe asi naz ikasle izaten.

Ez daistala ezek, ikustekoak naiz ikusi-ezin danak, ikusi-eziñez, Jesukristo lortzea galerazo. Su ta gurutze, pisti-taldeak, nire azur-austeak, gorputz-atalokatzek, nire gorputz osoaren eioteak, deabruaren oiñaze ikaragarriak, betoz nire gaiñera, nik Jesukristo lortzekotan (61).

(60) Izan be, zerura Igokunde ostean, Elizan eta bere Martirien autorraz mundu guztiaren agirian dago.

(61) Ikusi Errom. 8, 35.

(*) Askatu: liberto. — (*) Leoi-nabar: leopardo.

VI. *Martiri izateko gogoia*.—Munduko azken-mugak eta gizaldi onetako erreñu guztiak be ez yataz ezetarako izango. Niretzat, lurreko azken-mugen errege izatea baiño obe da Jesukristo'gan iltea (62). Izan be, «zetako izango yako gizonari mundu guztia irabaztea, bere bizia galdu ezker?» (63).

Geugaitik il zan Aren billa nabil; geugaitik biztu zan A gura dot. Eta nire jaiotza neure aurrean ikusten dot (64).

2. Parkatu egidazue, anaiok; ez egidazue bizi izaterik galerazo! Ez izan nai nire eriotzarik, Jainkoarena izatea nai dot-eta! Ez sartu niri ziririk lurreko danaz! Itzi egidazue argi utsa ikusten! Ara eldu naitenean izango naz gizon benetan.

3. Itzi egidazue neure Jainkoaren nekaldiaren jarraitzaille izaten. Norbaitek (*Jainkoa*) bere barruan ba'dauko, ulertu dagiala nik nai dodana, eta, niri bultz egiten dauanaren jakitun ba'da, erruki izan nakiala.

VII. «*Nire maitasuna gurutzetuta dago*».—Mundu onetako nagusiak ni indarrez eroatea ta Jaungoikoaganako nire gogoia ondatzea gura dau. Aurrean egongo zarenetariko batek be ez dagiola lagun egin, gero! Neure alde jarri zaiteze, ostera, edo bardin dana, Jainkoaren alde. Ez izan agoan Jesukristo eta gero mundua maite!

2. Ez izan ikusi-eziñik zuen artean!

Ni orra elduta gero, zeuen bitartekotasuna eskatu ba'dagitsuet be, ez egidazue jaramonik egin; idazki onetan dirautsuedana egizue, ostera. Izan be, bizirik nagoala, ilteko gogoaz idazten dautsuet. Nire maitasuna gurutzetuta dago (65), eta ez dago nigan sugeientzako surik, nigan ziri-ziri diarduan ur bizia baiño (66), «Zatoz Aitagana!», neure barruan diraustala.

3. Ez dot atsegiñik usteltzen dan janariaz, bizi onetako atsegiñak be ez nabe ekarten. Jainkoaren ogia nai dot, zeruko ogia, bizi-ogia (67), Jesukristo Jainkoa-

(62) Filip. 1, 21: «niretzat bizitza Kristo da-ta; eriotza, barriz, irabazia».

(63) Mat. 16, 26. Au, geitutakoa da, urrean.

(64) Ikusi Mat. 10, 39: «Bere burua aurkitzen dauanak, galdu egingo dau; eta bere burua neugaitik galtzen dauanak, aurkitu egingo dau». Filip. 1, 17-24, Kristo'gaitik iltea, betiko bizitzarako jaiotea da.

(65) Ikusi Gal. 2, 19-21: «Baiña ni Legearentzat Legeagaitik beragaitik il naz, Jaungoikoarentzat bizi izateko; Kristo'gaz gurutzean nago josita».

(66) Ikusi Yon, 7, 39: «...neugan sinistu dagianak, Liburu Santuak diñoanez: Ur bizizko errekek jarioz yako bere sabeletik». Errom., 8, 15; Gal. 4, 6: «Eta seme zareen ezker, Jaungoikoak bere Semearen Espiritua bialdu dau gure biotzetara, Jaungoikoari «Abba, Aita!», deiez diñoana».

(67) Ikusi Yon, 6, 35: «Jesus'ek dirautse: Neu naz bizitza-ogia. Nigana etorri daitenak, ez dau gosarik izango; eta nigan sinistu dagianak, es dau iñoiz be egarririk

ren Semearen aragia da-ta, Dabid'en jatorrikoarena; Aren odola nai dot edarizat, maitasun ustel-eziña da-ta (68).

VIII. *Ez dot giza-eraz bizi nai*.—Ez dot geiago giza-eraz bizi nai. Eta zuek nai ba'dozue, olantxe izango da. Auxe nai izan egizue, zeuek be nai izanak izan zaitezten!

2. Itz gutxitan eskatzen dautsuet: «Sinistu egidazue». Eta Jesukristo'k agertuko dautsue benetan idazten dautsuedan au, Aren ago uts-eziñak; ago orren bidez egin euskun itz benetan Aitak.

3. Erregutu nire alde, neure elburua lortu dagidan! Ez dautsuet giza-eraz idatzi, Jainkoaren jakituriaren negurriz baiño. Odol-eriotza izan ba'dagit, maite izan nozuela izango da; alboratua izan ba'naite, gorroto izan daustazuela izango da.

IX. *Jainkoa zaintzaille**.—Izan gogotan zuen otoitzetan Siria'ko Eliza, orain, nire orde, Jainkoa dauko zaintzaille-ta. Jesukristo izango da soillik aren gotzain, baita zeuen maitasuna be.

2. Ni, barriz, lotsatu egiten naz euretariko bat nazala izentatzeaz, euretariko kaskarrena ta sein-galdua naz-ta; alan be, Jainkoagana eltzen ba'naz, izango naz norbait errukiz.

3. Nire espirituak eta Elizen maitasunak agur egiten dautsue, Jesukristo bera lez artu nabe-ta, eta ez bidelari arrotz bat lez. Izan be, nire bidean gorputzez ikusiko ez nebazanak be, uriz-uri etorri yataz laguntzen.

X. *Agurra*.—Guzti au Esmirna'tik idazten dautsuet Efesotar zoriotsuen bitartez. Beste askoren artean, onen maite dodan Kroko dago nigaz.

2. Niri aurrea arturik, Jainkoaren aintzarako Siria'tik Erroma'ra etorri ziran anaiak ezagutu izan dozuezala uste dot. Esan egiezue urr nagoala! Izan be, guztiak Jainkoaren eta zeuen duin dira, eta egoki da guztian arein ardura izan dagizuen.

3. Irailleko Kalendas baiño bederatzi egun leenago idatzi dautsuet (69). Agur azkenerarte, Jesukristo'ren iraupenean.

izango». Yon, 6, 51: «Neu naz ogi bizia, zerutik jatsia. Ogi onetatik jaten dauana, betiko bizi izango da; eta nik emongo dautsadan ogia, munduaren bizirako neure aragia da».

(68) Ikusi Yon, 6, 27-58.

(69) Dagonillaren edo Agorriaren 13'garrenean.

(*) Zaintzaille: pastor. Ez dot «artzain» jarten, «pastor de ovejas» izango litzaketa: *artzain* = *ardi-zain*.

FILADELFIA'KOAI IDAZKIA

Agurra.—Inazio'k, Teoforo izenordeko onek, Asia'ko Filadelfia'n (70) dagoan Aita Jainkoaren eta Jesukristo Jaunaren Elizari; errukia jadetsi ta Jainkoaren alkartasunean sendo jarrita dagoanari, zatitu eziñik gure Jaunaren nekaldian poztu ta Aren biztueraren zigurtasun osoa dauanari; neure agurra Jesukristo'ren odolatan (71).

Eliza ori poz betikoa ta iraunkorra da, batez be gotzaiñagaz eta onen abade ta diakonuakaz alkartasuna dagoanean, guztiok Jesukristo'ren gogoz izentatuak eta, Beronen gogoz, bere Espiritu Santuaren bidez sendo jarriak.

I. *Gotzaiña goratzen.*—Ba-dakit zuen gotzaiñak eliztar-bazkuna zaintzeko eginkizuna bere buruz naiz gizonakandik naiz arropuzkeriz artu ez dauana, Aita Jainkoaren eta Jesukristo Jaunaren maitasunean baiño.

Arrituta nago aren eratasunaz. Barritan tentelak baiño geiago egin daike arek bere ixilletan.

2. Jainkoaren aginduakaz bat-batean dago, zitara baten ariak lez (72). Orre-gaitik, nire arim(e)ak goratu egiten dau Jainkoagana zuzenduta daukan espiritu, onoimendun (*birtutedun*) eta bikaiña, ikara-eziña ta otzana dana jakiñik, Jainkoagan bare-bare bizi dana lez.

II. *Argiaren seme.*—Orain, ba; argiaren eta egiaren seme zareenez, iges egizue alderdikeri ta irakatsi txarretatik; artzaiña egon daiten tokian, jarraitu antxe ardiak lez.

2. Izan be, sinisgarritzat aurkezten diran otso askok (72), atsegin kaltegarriaz oratzen dautsee Jainkoagana doazanai (74). Alan be, zuen batasunean, ez dabe zuen artean lekurik izango.

III. *Ziñauskeriaren bedar txarra.*—Alde egizue bedar txarretatik, Jesukristo'k lantzen ez dauzanetatik, ez dira Aitaren landarak-eta. Ez diñot au zuen artean alderdikeri aurkitu nebalako; aurkitu nebana garbitasuna izan zan.

(70) Ikusi Yon'en Agerpena, Apok., I, II; 3, 7.

(71) Ikusi Pedr. I.^o, I, 19.

(72) Ikusi Ef. 4, I.

(73) Ikusi Pedr. I.^o, 5, 8-9.

(74) Tim. 2.^o, 4, 7: «Burruka ona egin dot, amaitu dot nire ariñeketa, gorde dot sinismena».

2. Izan be, Jainkoarenak eta Jesukristo'renak diran guztiak, gotzaiñagaz dagozanak dira; eta, garbatuta, Elizaren batasunera biurtu daitezanak, orreik be Jainkoarenak izango dira, Jesukristo'ren eraz bizi izan daitezana.

3. Ez utsik egin, ene semeok! Alderdi-zaleari jarraitzen dautsanak, ez dau Jainkoaren erreñuan eskuartuko. Elizarena ez dan irakatsiari jarraitzen dautsana, ez dator bat Jaunaren nekaldiaz.

IV. *Eukaristia, batasunaren erditokia.*—Jarri, ba, ardura guztia Eukaristi bat bakarrean eskuartzeko (75); izan be, bat bakarra da Jesukristo gure Jaunaren aragia eta bat bakarra Aren odolaz gu bat egiteko edontzia (*edo kaliza*); bat bakarra da altarea, abade-batzagaz eta nire morroikide diran diakonuakaz batera gotzain bat bakarra danez. Onela, egin dagizuen edozer, Jainkoaren negurrira egingo dozue.

V. *«Ez naz oraindiño bikain-bikaiña».*—Ene semeok; zearo eskintzen dautsuet nire maitasuna, eta pozez beterik sendotzen zaituet; nik ez, baiña, Jesukristo'k baiño. Beronegaitik katepean nagoala be, bildur naz, ostera, bikaiña izatera ez naz oraindiño eldu-ta. Alan be, zuen otoitzak bikain egingo nau Jainkoaren aurrean, egoki izan yatan oiñordekotasuna lortu dagidan, Kristo'ren aragian lez Barri Onean (Ebanjelioan) eta Elizaren lege-batzarrean lez Apostoluan gorde nintzan ezker.

2. Maite izan dagiguzan Profetak be, areik be Barri Ona iragarri, euren itxaropena Jesus'egan jarri ta Onen etorreraren zain egon ziran-eta. Aregan sinistu ebelako urten ziran onik, Jesukristo'ren batasunean egozan egon be-ta; gizon santuak izan ziran, guk maite izateko ta ederresteko duin, Jesukristok autortuak eta guztion itxaropenaren Ebanjelioan zenbatuak.

VI. *Ez egin jaramonik judarzialei.*—Norbaitek judutza iragarten ba'dautsue, ez entzun. Izan be, obe da erdainduta dagoan gizonaren ezpanetatik kristautasuna entzutea, erdainduta ez dagoangandik judutza entzutea baiño. Batak eta besteak Jesukristo'tzaz egiten ez ba'dabe itz, barriz, orrelakook niretzat illo-bi-arriak eta illen obiak dira (76), gaiñean giza-izenak soillik idatzita dabezala.

2. Alde egizue, ba, mundu onetako nagusiaren maltzurkeri ta sareetatik; aren azpikeriak estuturik, fedean makaldu ez zaitez. Alkartu zaiteze, ostera, guztiok batera biotz zatitu-eziñaz.

(75) Ikusi Ef. 4, 1-6; Didajé, 9, 4.

(76) Ikusi Mat. 23, 27.

3. Neuri dagokidenez, eskerrak emoten dautsadaz nire Jaungoikoari zuei buruz barru ona daukadalako; eta iñor be ezin arropuztu daiteke, ez bakarrean ez agirian, gutxi edo asko ni norbaiti gogaikarri izan nakionik. Eta itz egin dautsedanai, nik esandakoa ez dadilla euren aurka biurtu opa dautset.

VII. *Eztabaidak*.—Izan be, norbaitzuek giza-eraz ziria sartzea nai izan eustenarren, Espirituak ez dautso bere buruari utsik egiten, Jainkoagandik dator-eta. Espirituak ba-daki nondik datorren eta nora doan, eta ezkutua be aztertu egiten dau (77).

Arein erdian nengoala, deadar bat egin neban, abots indartsuaz esan neban, Jainkoaren abotsaz: «Aintzat artu zuen gotzaiña, abade-batza eta diakonuak!»

2. Batzuk susmotan sartu ziran, euretariko batzuen alderdikeria aurretiaz jakin nebalako esan nebala nik ori; baiña, kate oneik daroadazan Aregaitik, Bera (*Jesukristo*) jarten dot lekuko (*testigu*), ez nebala nik ori giza-aragiren bidez jakin; Espirituak iragarri eustan, olan itz egiten eustala: «Ez egizue ezer egin gotzaiñaren ixilpean! Gorde zuen aragia Jainkoaren etxe lez! (78). Maite egizue batasuna! Alde egin alderdikieretatik! Izan zaitzeze Jesukristo'ren antzeko, Bera be bere Aitarena danez».

VIII. *Garbatuentzat* (*damutuentzat*), *Jaungoikoaren errukia*.—Au onela dala, batasunerako beti gizon gertua nintzanez, egin neban nirea: Alderikeria ta asarrekeria dagoan lekuan, an ez da Jainkoa bizi. Ori, bai; garbatzen diran guztiai Jaunak parkatu egiten dautse, arein damutasuna Jainkoaren batasunean eta gotzaiñaren batzarrean amaitzekotan. Ba-dot ustea Jesukristo'ren grazian, Berak askatuko dauana zuekandik edozein lokarri.

2. Alan be, ez dagizuezala alderdikeriak biztu eskatzen dautsuet, Kristo'ren irakatsiaren negurriz bizi zaitzela baiño.

Norbaitzui auxe esaten entzun neutsen: «Au antxiñako papel-agirietan aurkitzen ez ba'dot, ez dot Barri Ona sinisten». Eta, «Idatzita dago» esan neutsean, «Ori baieztu (*egiztatu*) egin bear da» erantzun eusten.

Niretzat, ostera, Jesukristo da «antxiñako papel-agiria»; «papel-agiri ikutu-eziña» Aren gurutzeta, biztuera ta Aregandik datorren sinismena dira; papel-agiri orreitan nai dot zintzotzat artua izatea zuen otoitzen bidez.

(77) Ikusi Yon, 3, 8; Kor. 1.^a, 2, 10.

(78) Kor. 1.^a, 3, 16: «Ez al dakizue Jaungoikoaren etxe zareena ta Jaungoikoaren Espiritua zeuekan bizi dana? Norbaitek Jaungoikoaren etxea loitu ba'dagi, Jaungoikoak alakoa ondatu egingo dau». Kor. 1.^a, 6, 19.

IX. *Barri Ona* (*Ebanjelioa*), *Alkartasun Zaarra baiño gorago*.—Onak dira (Alkartasun Zaarreko) abadeak, baiña ohea da (Alkartasun Barriko) Abade Nagusia (79): Onexeri emon yakoz Jainkoaren ezkutua; bera da sartzaierako atea (80): ate onetatik sartzen dira Abrahan, Isaak eta Jakob, Apostoluak eta Profetak. Guzti au, Jainkoaganako batasunera dago zuzenduta.

2. Alan be, gauza bat dau bikaiñagoa Ebanjelioak: gure Salbatzaille dan Jesukristo gure Jaunaren etorrera, nekaldi ta biztuera. Maite-maite doguzan profetak (Jesukristo) bera iragarten dabe; baiña, Ebanjelioa ezilkortasunaren betetzea da. (*Alkartasun Zaarra ta Barria*) batera gauza ona da, zuen sinismena maitasunean jarten ba'dozue.

X. *Antiokia'tik albista onak*.—Jesukristo'gan dozuezan zuen otoitz eta errukiari esker, Siria'ko Antiokia'ko Eliz(e)a bakean dagoala jakin dodan ezkerro, egoki yatzue, Jainkoaren Elizak zareenez, diakonu bat aukeratzea, Jainkoaren eginkizuna eroatera joan dakien, arei batzarrean zorionak emoteko ta Jainkoaren izena goratzeko.

2. Zorionsua Jesukristo'gan, orrelako eginkizuna egiteko gai dana! Zeuek be goratuak izango zaree. Nai izanda bakarrik, ez yatzue eziña izango Jainkoaren izenean ori egitea, urrago dagozan Elizak be gotzaiñak bialdu ebezanez, eta (Eliza) batzuek abadeak eta diakonuak.

XI. *Agurra*.—Zilizia'ko diakonu dan Filon'i buruz —izen oneko gizona, orain be Jainkoaren itzean morroi dodana, Reo Agotopode'gaz batera, au be gizon aukeratua, bere bizia ukaturik Siria'tik lagun egiten datorkidana—, biok geure alde egiten dabe autor, eta nik, nire aldetik, eskerrak emoten dautsadaz Jaungoikoari ondo artu zenduezalako. Olantxe artu al zagiezala Jaunak zeuek be! Eta gutxitzat artu ebezanak, jadetsi al dagiela Aren parkamena Jesukristo'ren grazian!

2. Troas'ko anaien maitasunak agur egiten dautsue; andik be idazten dautsuet Burro'ren bidez, nire aintza-lagun, nigaz batera Efesotarrak eta Esmirnatarrak bialdu ebena. Jesukristo Jaunak goratu dagizala Oni gorputzez, arimaz, espirituz, fedez, maitasunez eta alkartasunez begira dagozanak!

Iraun sendo guztion itzaropen dan Jesukristo'gan!

(Ikusi Ebertarrai, 2, 17; 9, 25.

(80) Ikusi Yon, 10, 7: «Orduan Jesus'ek auxe esan eban: "Bene-benetan dirautsuet: neu naz ardien atea"».

ESMIRNA'KOAI IDAZKIA

Agurra.—Iñazio'k, Teoforo izenordeko onek, Aita Jainkoaren eta Jesukristo maitearen Elizari; edozein grazi-doaitan errukia lortu ebanari; goi-doairik falta ez yakola, fedez eta maitasunez beterik dagoanari; Jainkoaren gogoko ta santutasunez beterik, Asia'ko Esmirna'n dagoan Elizari: neure agurrik barrukoiena espiritu akats-bagean eta Jainkoaren itzean.

I. *Fede-autortza.*—Jesukristo, Jainkoa, goratzen dot, zuek orren jakitun egin zenduezana. Izan be, ondo be ondo konturatu nintzan fede ikara-eziñean bikaiñak zareena, Jesukristo gure Jaunaren Gurutzean josita lez (81), aragiz eta espirituz, Kristo'ren odolaren bidez maitasunean gogor, gure Jaunaganako uste osoaz: Au (Jesukristo), aragiz Dabid'en jatorrikoa da benetan, eta Jainkoaren seme, Jainkoaren naiez eta indarrez; benetan neska garbi (edo birjiña) bategandik jaioa, Yon'ek bateatua, edozein zuzenbide Arek (Jesukristo'k) bete egian.

2. Benetan Pontzio Pilato'ren eta Erodes tetrarkaren menpean gurutzean josia —geu gara Aren frutua, Aren Nekaldiaren frutu jaungoikozko ta zoriontsua—, gizaldi guztietarako ikurrin bat jaso dagian, bere biztueraren bidez, bere santuen eta zintzoen artean, judarren naiz jentillen artean izan, bere Elizaren gorputz bakarrean bat eginda.

II. *Jesukristo'k nekeak benetan eroan ebazan.*—Izan be, Jaunak neke guztioak geugaitik igaro ebazan, gu onik urten gaitzan; eta benetan igaro ebazan, eta bere burua be benetan biztu eban, eta ez nekeak itxuraz igaro ebazala, sinisbage batzuek diñoenez. Eurak bai dirala itxurakeri utsa! (82). Eta pentzatzan dabenez jazoko yake, gorputz-bageak eta txerrendunak izango dira-ta.

III. *«Ikutu, aztatu* ta ikusi».*—Nire aldetik, ondo dakit nik —eta orretan neure fedea jarten dot— Jaunak, bere biztuera-ostean, bere aragian irauñ ebana.

2. Eta orregaitik, Pedro ta onen lagunakana etorri zan baten, auxe esan eutsen: «Ikutu, aztatu ta ikusi: ez naz mamu gorputz-bagea, aragia baiño!» (83). Eta bat-batean A (Jesukristo) ikutu eta sinistu egin eben, Aren aragiaz eta espirituaz alkartuta geraturik. Orregaitik, eriotza bera be utsean izan eben, edo-ta obeto, eriotzaren irabazle agertu ziran.

(81) Ikusi Gal. 2, 20.

(82) Ikusi beronen «Traillas'koai Idazkia», ro'gn. atalburua.

(83) Ikusi Luk. 24, 39.

(*) Aztatu (AN, BN, G, L): palpar.

3. Geiago oraindiño: bere biztuera-ostean, arekaz jan eta edan egin eban —aragizko gizakia zanez—, espirituz bere Aitagaz bat eginda egoanarren.

IV. *Pistiak giza-eraz.*—Guzti au biotzez eskatzen dautsuet, guztiz maiteoi, zeuek be onetaraxe uste dozuela jakiñarren. Giza-erazko pistien aurka jakitun jarten zaituet: bearrezko da zuen artean orrelakorik ez artzea bakarrik ez, aal dala, ezta arekaz bidean aurkitzea be; otoitz egin bakarrik arein alde, bearbada damutu egingo dira-ta, gaitz danarren be. Alan be, gure benetako bizitza dan Jesukristo'ren indarpean geratzen da ori.

2. Izan be, gure Jaunak ori itxuraz bakarrik egin ba'leu, neu be orain katepean itxuraz egongo nintzake. Beraz, zer dala-ta emon neutsen nire burua eriotzari, suari, ezpatari, pistiai? Baiña, ezpata-ondoan dagoana, Jainkoaren ondoan dago, eta pistien erdian dagoana, Jainkoaren ondoan. Beti Jesukristo'ren izenean izan ezkeri! Nekeak Beronegaz batera igaroteko, guztia eroaten dot ondo (84), gizon bikaiña egin zan Arek Berak sendotzen nau-ta.

V. *Ukatzailleak ukatuak.*—Batzuek, A (Jesukristo) ez dabe ezagutzen-eta, ukatu egiten dabe; edo-ta obeto, Berak ukatzen dauz areik, egiaren alde baiño eriotzaren alde geiago egiten dabe-ta. Orrelakoai ez yakez buruan sartu profetak, ez Moises'en legea, ezta orain arte Ebanjelioa bera be, ez guretariko edonoren oiñazeak be.

2. Gutzaz be critzi bera dabe-ta.

Izan be, zer irabazten dot norbaitek ni goratzeaz, Jaunak aragia daroala arek ez autortzean, alakoak Jauna madarikatzen ba'dau? Ori autortzen ez dauanak, zearo ukatu dau, eta bera da bere gaiñean gorpua daroana (85).

3. Ez yatan eritzi ondo arein izenak izentatzeari, sinisbageak dirala. Geiago, barriz: ez neukez nai gogora ekartea be, gure biztuera dan Kristo'ren Nekaldira biurtu daitezcan arte.

VI. *Maitasuna.*—Iñok ez dagiola bere buruari ziririk sartu! Zeruko indar-dunak eta aingeruen eta nagusien aintza, ikusten diran eta ez diranak, Kristo'ren odola sinisten ez ba'dabe, eurak be epaituak (*ebatziak*) izango dira (86). Ulertu aal dagianak ulertu dagiala (87). Ez dadilla iñor arrotu bere tokiaz, dana sinismenean eta maitasunean dago-ta; ezin daikee ezek orrei aurea artu.

(84) Ikusi Filip. 4, 13: «Guztia aal daiket bizkortzen nauanaren indarrez.

(85) Ikusi Tim. 1^a, 5, 6; Apok. 3, 1.

(86) Aingeruak be sinistu egin bear dabe Jesukristo'ren benetako gizatasuna.

(87) Ikusi Mat. 19, 12.

2. Ikasi egizue, zuekana etorri dan Jesukristo'ren graziari buruz, beste irakatsi batzuk iragarten dabezanak ezagutzen; Jainkoaren eritziari buruz okerretara dagozala ikusiko dozue. Ez dabe maitasunaren ardurarik, ez alargunaren eta umezurtzaren ardurarik, ez atsekabetuaren, ez giltzapekoaren naiz askatuaren, ez gose naiz egarri dagoanaren ardurarik.

VII. *Ziñausleak iges egiten dabe Eukaristiatik.*—Eukaristia ta otoitzetik be iges egiten dabe, Eukaristia Jesukristo gure Salbatzaillearen aragia danik ez dabe autortzen-eta, ez gure pekatuakaitik nekeak igaro ebazana bera danik, ez Aitak bere ontasunean barriro biztu ebana Bera danik. Onegaitik, Jainkoaren doaia ukatzen dabenak, euren eztabaidetan ilten dira. Obeto joango litzakie Eukaristia ospatzea, biztu daitezana!

2. Egoki da, ba, orrelakoakandik alde egitea, eta bakarrean naiz agirian arei buruz itzik ez egitea; jarri, oster, buru-belarriak profetakan, eta Ebanjelioan batez bere: ementxe agertzen yaku argi-argi Nekaldia, ementxe ikusten dogu beteta biztuera. Iges egizue, barriz, alderdikierietatik, zoritxar guztien asiera dira-ta.

VIII. *Guztia gotzaiñaren menpean.*—Jarraitu guztiok gotzaiñari, Jesukristo'k Aitari lez, baita abade-batzari be Apostolui lez; diakonuai buruz, begirunea izan egiezue Jainkoaren aginduari lez. Ez dagiala iñok Elizari buruzko danik egin gotzaiñaren ixillean (88). Gotzaiñak edo onen baimena dauanak ospatu dagian Eukaristia bakarrik artuko da ontzat eta jatortzat.

2. Gotzaiña agertu daiten edozein tokitan, egon bedi antxe eliztar-taldea, Jesukristo dagoan tokian Eliza osoa (89) be antxe egoten danez. Ez da legezko bateatzea ez Eukaristia ospatzea gotzaiñaren ixillean; arek ontzat artu dagiana, axe yako gogoko Jainkoari, egin dagizuen edozer zigurra ta ontzat-emonan izan daiten.

IX. *Burubideak.*—Egoki da, azkenez, geure buruak ikustea, astia dogun artean Jainkoagana biurtu gaitzean. Ona da Jainkoa ta gotzaiña ontzat artzea. Gotzaiña goratzen dauana, Jainkoak alakoa goratu egiten dau. Gotzaiñaren ixilpean zerbait egiten dauanak, deabrua gurtzen dau.

2. Guztia zuentzat grazi biurtu daitela, ba, orretarako duin zaree-ta. Era guztietan egin zeusten lagun, eta Jesukristo'k be zuei beste orrenbeste egin dagitzuela. Zuekandik urr naiz urrun, maitasun-ezaugarriak emon zeustezan. Jainkoa izan dadilla zuen sari; neke guztiak Areganako maitasunagaitik igaroten dozuezan ezker, lortu egingo dozue Jainkoa.

(88) Ikusi «Magnesia'koai Idazkia», 4; Filadelfia'koai, 4; Efeso'koai, 5, 4.

(89) Eliza osoa: Eliza katolikua.

X. *Nire kateak, zeuen erospen.*—Ondo egin zenduen Filon eta Reo Agatopode onartzeaz, Kristo Jainkoaren morroi diranez; Jainkoaren itzean lagun egin eusten.

Eurak be zuen alde Jainkoari eskerrak emoten dautsoez, era guztietan poztu zenduezalako. Orrelako ezer be ez yatzue galduko (90).

2. Nire espiritua ta nire kateak zeuen erospen-alde eskintzen dodaz; kateok ez zenduezan zuek ezetsi (*alboratu*) lotsagarri be ez yatzuezan izan. Zeuek be ez zaiakoze lotsagarri izango gure itxaropen osoa dan Jesukristo'ri (91).

XI. *Siria'ra Jainkoaren ordezkari bat bialdu dagiela.*—Zuen otoitza Siria'ko Antiokia'ko Elizaragiño eldu da; andik, jaungoikozko kateokaz lotuta nator, nor eta ni, aren arteko duin izateko ez nazan au, guztietarik kaskarrena naz-ta; alan be, Jainkoaren gogoz, duin artzeko lain izan nintzan, ez nire barruko irabaziakaitik, Jaungoikoaren graziagaitik baiño —eta bete-betea emongo al yat!—, zuen otoitzen bidez Jainkoagana eldu naiten.

2. Baiña, zuen lana zeruan lez lurrean be, bikain-bikaiña izan daiten, egoki da, Jainkoaren aintzarako, zuen Eliz(e)ak Jaungoikoari ordezkari bat aukeratzea, Siria'ra joan daiten eta, bakean dagozalako, euren anditasuna barriro lortu dabelako ta Eliza aretako gorputz txikia sendotu dalako, zorionak emon dagitsezan.

3. Beraz, zuetariko bat idazki bat az bialtzea Jainkoarentzat gauza ona dala deritzat, idazki oneaz batera Jaungoikoagandik etorri yaken barealdia ospatu dagien eta zuen otoitzen bidez kaira (*portura*) eldu diralako. Bikaiñak ba'zaree, zuen bururakizunak be gauza bikaiñetan jarri egizuez! Izan be, zuzen jarduteko gertu ba'zagoze, Jaungoikoa be zuei lagun egiteko gertu dago.

XII. *Azken-agurrak.*—Troade'ko anaien maitasunak agur egiten dautsuee; Troade'tik idazten dautsuet Bruno'ren bidez; auxe da zuen anai diran Efesio-tarrakaz batera neugaz bialdu zenduena, eta danetan adoretu nenduan. Nai al dagiala Jainkoak a eredutzat artu dagien!; Jaungoikoaren eginkizunean jarraibide da-ta. Graziak saritu dagiala danetan.

2. Agur egiten dautsat Jainkoaren duin dan zure gotzaiñari; Jaungoikoaren gogoko abade-batzari, nire morroikide diran diakonuai, eta erriko guztiai era batera, Jesukristo'ren izenean, Beronen aragian eta odolean, aragizko eta espiritu-zko Nekaldian eta biztueran, Jainkoaren eta zuen batasunean. Izan dadilla grazia zuekaz, eta errukia, bakea ta iraupena beti.

(90) Ikusi Mat. 25, 40: «Benetan dirautsuet: nire anai oneitariko txikien bati egin zeutsena, neuri egin zeusten».

(91) Ikusi Kor. 1.^a, 10, 13: «...zintzoa dozue Jaungoikoa»; Ebert. 12, 2: «sinismenaren iturri ta elburu dan Jeus'egan...»; Apost. Egiñak. 13,32-35.

XIII.—Agur egiten dautset nire anaien etxeokoi, arein emazte ta seme-alabakaz, «alargunak» deritzen neska garbiai (92). Artu nire agurra Aitaren indarrean. Nigaz dagoan Filon'ek agur egiten dautsue.

2. Nire agurra Tabias'en etxeokoi: sendotu daitela, arren, fedean eta maitasunean, bai gorputzaren bai espirituaren aldetik.

Agur egiten dautsat niretzat izen maite dauan Alze'ri, eta Dafno bardinbategari, eta Eutekno'ri, eta guztiai banan-banan. Agur Jaungoikoaren grazian!

POLIKARPO'RI IDAZKIA

Agurra.—Iñazio'k, Teoforo izenordeko onek, Polikarpo'ri, Esmirna'ko Elizaren gotzainari, edo obeto esateko, bere gotzain Aita Jaungoikoa ta Jesukristo Jauna dauanari: nire agurrik biotzetikoaena.

I. *Guztiakanako maitasuna.*—Zure adimena Jainkoagan, arri ikara-eziñaren gainean lez, sendotuta dagoala ikusita gero, Jauna zearo goratzen dot zure arpegi akats-bagea ikusteko mesedea egin daustalako; ikusiko al dot zure arpegi ori Jainkoaren pozetan!

2. Jantzita zagozan graziagaitik (93), zure ariñeketan bizkorrago joan zaitetzala eskatzen dautsut, baita guztiak zeruratu daitezala be. Zaindu egizu zure lekua ardura guztiaz, gorputzez eta espirituz. Gorde batasuna, auxe baiño obarik ez dago-ta. Eroan guztiak zure gainean, Jaunak zeu erooten zaituanez. Ondo eroan egizuz guztiak anaitasun-arnasaz, egiten dozunez.

3. Ekin otoitzari etenbagarik, geroago-ta adimen geiago eskaturik. Egon iratzarririk, inoiz loak artzen ez dauan spirituaz. Erriko gizonai Jainkoaren eraz egin itz. Artu zure lepoan, indartsu bikaiña lez, guztien geisoak.

Lan geiago, eta antxe irabazi geiago.

II. *Zuurra izan.*—Ikasle onak soillik maite ba'dozuz, ez dozu orretan sari-garririk: gaiztoen diranak bigun-bigun menperatzea naiago izan egizue. Zauri guztiak ez dira txaplata* bardiñaz osatzen. Gorputzaldi beroak txaplata bustiakaz baretu!

(92) Elizen ardura izaten eben emakumeak. Ikusi Errom. 16, 1; Tim. 1.^a, 5, 9.

(93) Mat. 10, 16.

(*) Txaplata: emplasto.

2. Danetan sugea baizen zuurra izan zaite, eta usoa baizen maltzurkeri-bagea edonoiz (94). Orrexegaitik zara gorputz eta espiritu, aurrera etorten yatzun guztia bigun-bigun erabili dagizun; ikusten ez diranai buruz, barriz (95), agertuak izan dakizuzala eskatu egizu. Olan, ez zara ezeren bearrean izango, graziadoi guztiak izango dozuz, ostera.

3. Itsasontzi-zaiñak aize egokia eta ekaitz-arteon dagoan itsas-gizonak kaia (portua) gura dauanez, zeuri be aldiak Jainkoa lortu dagizula egiten dautsu dei. Izan negurridun, Jaungoikoaren indartsu lez! Bizitza ustel-eziña izango dozu saritzat, zeuk be ori ondo dozu buruan-eta.

Danetan eta danagaitik, zeure erospen onaz, baita zuk maite zenduzan neure kateok be.

III. *Iraun sendo.*—Ez zagiezala kikildu itxuraz sinisgarri diran gizonak eta fedeari buruz beste ikasbide batzuk irakasten dabezanak. Zure aldetik, iraun sendo, mailluak jotzen dauan txingurak* lez. Indartsu azkarrak, irabazle urtete-ko, iraupenez artu bear dauz zartadak. Baiña, batez be, ondo eroan bear dogu guztia Jaungoikoagaitik, Berak be gu ondo eroan gagingan.

2. Geroago ta arduratsugoa izan zaite. Ikasi aldien barri! Egon aldiaren gainetik eta alditik kanpo dagoan Aren zain, geugaitik agertu zan Aren zain, ikutu-eziña danaren eta gugaitik nekeak igaro ebazan mindu-eziña danaren zain, gugaitik era guztietara oiñazeak igaro ebazan mindu-eziña danaren zain, gugaitik era guztietara oiñazeak igaro ebazan Aren zain!

IV. *Ez daitela zuk ez-jakiñean ezer egin.*—Ez itzi bertan-beera emakume alargunak (96). Jaunaren urrengo, zeuk izan bear dozu emakume alargunen arduradun. Ez bedi zuk ez-jakiñean ezer egin, ezta zeuk be Jainkoa laguntzat artu bagarik (orain arte egiten ez dozunez).

2. Sendo iraun! Izan batzarrak sarriago. Ibili eliztar guztien billa, banan-banan!

3. Ez erabili arrotsu morroi-mirabeak; eurak be ez daitezala arrotu, Jainkoaren aintzarako morroi obeak agertu daitezala, ostera, Aren bidez askatasun bikaiñagoa jadetsi dagien. Ez begie askatasuna lortu gure eliz-batzaren lepotik, zalekeriaren morroi izan ez daitezana (97).

(94) Kor. 2.^a, 4, 17-18.

(95)

(96) Emakume alargunak: elizen ardura izaten eben emakumeak.

(97) Ikusi Kor. 1.^a, 7, 21-24: «...Jopu zala, Jaunarentzat deitua izan zanak, Jaungoan askatasuna lortu dau...».

(*) Txingura: yunque.

V. *Bizi-mailla guztietarako burubideak.*—Iges egin maltzurkeri txarretatik!, edo obeto, egin itz zintzoakaz areitatik urrun egon daitezaz.

Eskatu nire arreba Jauna maitatu dagiela eta, aragiz eta espirituz, euren senarrakaz pozik egon daitezala. Era berean, esan egiezu nire anaia Jesukristo'ren izenean, maite izan dagiezala euren emazteak, Jaunak Eliza lez.

2. Jaunaren aragia goratzeko, norbaitek garbitasunean irauteko indarrak ba'dauko, iraun dagiala olan, arrokeri bagarik. Arrotzen ba'da, galduta dago, eta bere burua gotzaiña baiño goragotzat artzen ba'dau, ondatuta dago.

Ezkondu gura daben senar-emazteai buruz, egoki da arein alkratzea gotzaiñak dakiala egitea, ezkontzea Jainkoaren eraz izan daiten, eta ez ezkon-miñez bakarrik.

Guztia Jaungoikoaren aintzarako egin daitela.

VI. *Batasunerako deia.*—Begira gotzaiña(ri), Jainkoak entzun zagiezan! Gotzaiñari, abadeai ta diakonuai menperatzen yakezanen alde erospentzat eskintzen naz; eurakaz nai neuke eskuartu Jainkoagan.

Egin lan algarregaz!; guztiok batera burrukan, arifieketan, zoritxarretan, lo egitean, iratzartzean, Jaungoikoaren etxezain, etxeko ta morroi lez.

2. Izan zaiteze Buruzagiaren (98) gogoko; Aren ikurrinpean zaree gudara (99), eta Aregandik artu bear dozue saria. Zuetariko bat be ez daitela igeslari artua izan! Zuen bateoa iskillu (arma) izan bekizue, fedea buru-oskol, maitasuna lantza, iraupena armategi. Zuen diru-kutxak egite onak izan bediz, zuen sari egokia artu dagizuen. Alkar eroapentsu artu egizue, otzantasunez, Jaungoikoa zuek dan antzera. Poztuko al naz zuek betiko!

VII. *Siria'rako ordezkaria.*—Siria'ko Antiokia'ko Eliza, esan daustenez, zuen otoitzen bidez, baketan dagoan ezker, neuk be adore barria artu dot Jainkoagandik datorkigun bake aretan, nire nekeen bidez Jaungoikoa lortzea jaristekotan, baiña: biztueran zeuen ikasle lez aurkitua izan naiten.

2. Egoki da, ba, Jainkoagan guztiz zoriontsu ori!, Jaungoikoari guztiz gogoko dakion batzar bat egitea, eta zuen artean maiteen eta adoretuen dozuena, «Jainkoaren eskutitz-banatzaille» izena ondo letorkiona. Emon egiozue olakoari Siria'ra joateko eginkizun goragarria, eta, Jainkoaren aintzarako, goratu dagiala alan zuen maitasun gartsua.

(98) Buruzagiaren: Jaungoikoaren.

(99) Ikusi Ef., 6, 11-19: «...jantzi egizue Jaungoikoaren iskillu (arma)-soiñekoa...»; Tes. 1.^a, 5, 8; Tim. 2.^a, 4, 7.

3. Kristaua ez da bere buruaren jabe, Jainkoari lotuta dago, oster. Lan au, Jaungoikoarena ta zeuena da, egiten dazuean. Izan be, ba-dot ustea grazian, Jainkoari buruz dan edozein lanerako zagozela gertu. Egiaren alde zuen adorea ezagutzen dodan ezker, itz gutxitan azaldu dautsuet nire burubidez.


VIII. *Azken-agurrak.*—Beraz, Jainkoaren naiak agintzen dauanez, Troade'tik Napoles'era nire bat-bateko urteteagaitik Eliza guztiai ezin idatzi izan dautsedan ezker, zeuk idatzi Esmirna'z aruzko Elizai, Jainkoaren eritzia dozuta, eurak be auxe berau egin dagien: aal dagien Elizak ordezkariak bialdu dagiezala, eta besteak, idazkiak zure ordezkoen eskuz, onezaz betiko aintza lortu dagizuen, zu orren duin ba-zara-ta.




2. Bakoitzean bati egiten dautsuet agur, batez be Epitropo'ren alargunari, onen etxeko guztiakaz eta seme-alabakaz. Gorantziak oso maite dodan Atalo'ri. Agur egiten dautsat Siria'ra joan bear dauanari. Izan daitela beti grazia aregaz, baita a bialtzen dauan Polikarpo'gaz be.

3. Egon zaiteze beti sendo Jesukristo gure Jaungoikoagan; iraun egizue Aregan, batasunean, eta Jaungoikoaren zainpean.

Gorantziak Alze'ri, niretzat izen maitea daukan ari.

Agur Jaunagan!





ANTIOKIA'KO IÑAZIO SANTUAREN MARTIRI-AGIRIA

Iñazio Santuaren Martiri-agiria XVII'garren mendean izan zan argitaratua: Usher'ek latinez eta Ruinart'ek gerkeraz. Oraingo aztertzailleak ez dabe idazlan jatortzat artzen (Zahan, Funk, Batiffol). Izan be, V'garren mende aurreko eliz-idazle batek be ez dau aitutzen Martiri-agiri au.

I. *Ekaitzean itsasontzi-zain trebea.*—Trajano'k (1) Erromarren agintaritza artu ebanean, Iñazio'k, Yon apostoluaren ikasleak, gizon guztiz apostolikuak, Antiokia'ko Eliz(e)a arduratsu zuzentzen eban.

Ozta-ozta salbatu aal izan zan Domiziano'k egin ebazan eraso ugaritsuen erdian, ekaitzaren ekiñaldiai eutsirik, itsasontzi-zain trebe baten antzera, otoitz eta barau-lemaren* bidez, bere irakatsi zintzoaz eta espiritu-adoreaz, ekaitzak koldar edo bakunen bat galduko ete-ebalakoan beti bildurretan egoala.

2. Beraz, eraso-aldia aldi baten baretzean, alde batetik, poztu egin zan Eliz(e)aren baretasunaz; baiña, bestetik, mindu egin zan, oraindiño Kristo'ri dagokion benetako maitasuna lortu ez ebalako eta Aren ikasle bikaiña izatera eldu ez zalako (2).

Izan be, odol-eriotzaren bidez egiten dan fede-autortzak, oraindiño be Jau-nagana askozaz geiago urreratuko ebalu uste eban.

3. Urte gutxi batzuk geiagotan iraun eban oraindiño bere Elizan, jaungoikozko argi antzera, Liburu Santuetako azalpenen bidez eliztar guztien adimenak argitzen ebazala. Azkenez, berak gura ebana lortu eban.

(1) Trajano: Erroma'ko Agintari Nagusia 98'garren urtetik 117'garrenera.

(2) Edo bardin dana, martiri izatera eldu ez zalako; cfr. Ef. 3; Rom. 4.

(*) Lema: timón.

II. *Trajano'ren aurrean*.—Trajano'k, bere agintaritzako bederatzigarren urtean, Eszita eta Dazio eta beste erri askoren aurka izan ebazan garaipenaz arrotuta, bere aginpidea osotzeko, oraindiño kristauen lagunarte jainkozalea azpiratu bear ebala ikusi eban. Aginterri* guztian lez deabruakanako gurtza ontzat artzen ez ba'eben, erasoaz zemaituko ebazala; eta, orregaitik, kristau-eraz bizi ziran guztiai aukera au eskiñi eutsen: edo jainkoai gurtza emon edo il.

2. Iñazio, Kristo'ren gudari zintzoa, Antiokia'ko Elizagaitik bildurretan, bere gogoz Trajano'gana aurkeztu zan. Aldi aretan Trajano Antiokia'n egoan, eta armeniarren eta partoarren aurka joateko gudu-gaiak atontzen ziarduan.

3. Beraz, Trajano agintari nagusiagana (enperadoreagana) etorrira, onek auxe esna eutsan: «Nor zara zu, deabru gaizto ori, nire aginduak austeko eta beste batzuek be ausi dagiezan aalegiñak egiten dozuzan ori, errukarriro galdu daitezaz?».

Iñazio'k auxe erantzun eutsan: «Teoforo'ri (3) iñok be ez dautso izenik «deabru gaiztoa» emoten, Jaungoikoaren otseñiakandik deabrua urrundu egiten da-ta. Baiña izen ori, deabruentzat gorrotagarri ta arein aurka gaiztoa nazalako emoten ba'daustazu, zugaz bat nator. Izan be, Kristo, Zeruko Erregea, neugaz izanik, deabruen tentaldi guztiak ezereztu egiten dodaz».

4. «Nor da *Jaungoikoa daroan* bat?», itandu eutsan Trajano'k.

Eta Iñazio'k: «Bere bularrean Kristo daroana».

«Zer, ba? —esan eutsan Trajano'k—, ez al-deritzazu geuk be gure jainkoak geure adimenean daroaguzanik? Geure laguntzat doguz gure arerioen aurka».

Eta Iñazio'k: «Oker zagoz, errien deabruai izena jaungoiko emonik. Izan be, Jaungoiko bakar bat dago, zeru-lurrak, itsasoa eta bertan dagoan guztia egin dauana; eta Kristo bakar bat, Aren Seme Bakarra. Lortuko al dot Beronen Erreiñua!».

5. «Pontzio Pilato'ren menpean gurutzeratua izan zan A aitatzan al-dozu?», itandu eutsan Trajano'k.

Eta Iñazio'k: «Pekaturia ta pekatuaren asmatzaillea aitatzan dodaz, deabruaren oker eta gaiztakeri guztia euren biotzean daroenen oiñazpian lotu ebana».

6. Eta Trajano'k: «Beraz, Kristo zeure barruan daroazu?»

«Bai —erantzun eutsan Iñazio'k—; izan be, auxe dago idatzita: 'Arein erdian bizi izango naz eta arein erdian ibiliko naz'».

7. Orduan, Trajano'k erabagi au emon eban: «Auxe agintzen dogu; Iñazio, Gurutzeratua bere barruan daroala diñoana, katez lotuta, gudari-talde batek Erroma'ra eroan dagiala; pistiai emona izan daitela, erriaren jolaserako».

(3) Teoforo: «Jaungoikoa daroana».

(*) Aginterri: Imperio.

8. Erabagi ori entzunda, martiri santuak pozez beterik auxe esan eban: «Eskerrak damotsudaz, Jauna, zure maitasun bikaiñaz aintzat artu nozulako eta, nire burdiñazko kateen bidez, Paulo zure Apostoluagaz batu nozulako!»

Ori esanda, kateak nasai-nasai artu, Elizaren alde otoitz egin eta, negarrez, Eliz(e)a Jaunari eskiñi eutsan; eta artalde eder baten aurrean doan adari lerdan baten antzera, gudari anker eta biotz-gogor batzuek artu eben, Erroma'ra eroateko eta pisti odol-zaleen janari izateko.

III. *Antiokia'tik Esmirna'ra. Polikarpo'gaz eta Elizen ordezkariakaz*.—Beraz, adore andiz eta pozez beterik, odol-eriotza igaroteko gogoz, Antiokia'tik Saleuzia'ra jatsi zan, eta emen itsasoratu egin zan.

Neke askoren ondoren, azkenez, Esmirna'ko kaira (portura) eldu zan; pozez beterik legorrera jatsirik, bereala uri aretako Gotzain eta bere ikaskide Polikarpo santua ikustera joan zan. Izan be, biak Yon apostolu santuaren ikasle izan ziran.

2. Polikarpo agurtu, onegaz batera bere espiritu-doietan eta bere kateen aintza parte artu eta bere asmoan laguntzeko eskatu eutsan.

Orixe izan zan Eliza guztiari be egin eutsan eskaria. (Izan be, Asia'ko Elizak eta uriak gizon santu au euren gotzain, zaarren (edo abadeen) eta laguntzailleen (edo diakonuen) bidez agurtzen eben, eta guztiak egiten ebezan aalegiñak santu au ikusteko, beronen espiritu-doiaren zatiren bat artzeko itxaropenaz). Baiña, eskari ori batez be Polikarpo santuari egin eutsan, pistien bidez lur onetatik aal-bait lasterren alde egiteko eta Kristo'ren aurrean agertzeko.

IV. *Eskutitzak*.—Eta ori orrela iñoan eta orrela autortzen eban ezkerre, bere autor onaren bidez (4) eta beronen burrukaren alde otoitz egiten eben adorearen bidez, zerua lortzeko zorian egoteragiño geitu yakon Kristo'ganako bere maitasuna. Elizai be, euron ordezkarien bidez, eskerrak emon eutsezan, arei ordaiñez eskutitzak bialdurik; eskutitz onei, otoitz eta burubideakaz batera, espirituzko grazia darie.

2. Orregaitik, guztiak maitasuna agertzen eutsoela ikusirik, bildurtu egin zan, anai-maitasunak Jaunagan alkartzeko bere gogoa luzatu egingo ebalakoan, bere aurrean odol-eriotzarako ate ederra zabal-zabalik ikusten ebala. Orregaitik, Erromarren Eliz(e)ari urrengo eskutitz au bialdu eutsan.

(Ikusi Iñazio santuak Erroma'koai egindako Idazkia: 99'gn. orrialdean.)

(4) Odol-eriotzaren bidez. «Odol-eriotzak edo martirioak», *autorra*, adierazoten dau, *fede-autorra*: Jesukristo'ren alde egiten dan fede-autorra, biziaren opariaren bidez.

V. *Esmirna'tik Erroma'ra*.—Idazki onen bidez, bere odol-eriotza galera-zoteko Erroma'ko anaien gogoia kendu nai eban. Eta arela, itsasoz Esmirna'tik Troade'rantz jo eban. (Gudariak gure *Kristoforo* (edo Kristo daroana) Erroma'ra arin eroan nai eben, Urian erri-jolasaldiak amaitu baiño leen; orrela, Iñazio pisti ankerrai emonik, erromar erriaren aurrean, garaipen-koroa lortu egian). Troade'tik Neapolis'erantz jo eben, eta gero, oiñez, Filipos eta Mazedonia'n zear igaro ziran, Epidamno-ondoan dagoan Epiro-ondora eldu arte.

3. Kai onetan itsasontzi bat aurkiturik, Adriatiko-itsasoan zear igaro zan, eta emendik, ugarte ta uri inguruak zear, Tirreno'n sartu zan. Puteoli (edo Puzzoli) aurrean egoala, santuak legorrera jatsi nai eban, Paulo Apostoluaren lorratzai jarraitzeko gogoz (5). Baiña, itsasontziari atzetik (iparralderuntz) bultz egiten eutsan aize gogorrek legorreratzea galerazoten eutsan ezkerero, toki aretako anaien maitasuna bedeinkatu eta itsasoz aurrera jo bear izan eban.

4. Eta onela, egun batean eta gau aretan bertan, aize egokiak eurak geroezan (*eroaten genduezan*), geure gogo txarraz izanarren be; izan be, min artzen genduan, laster gizon zintzo aregandik banandu egin bear gebalako (*gendualako*). Ari, barriz, dana egoki-egoki etorri yakon, mundu onetatik aalbait lasterren urteteko ta bere Jaun maitearen aurrean aurkezteko gogo bizia eban-eta.

5. Itsasontzia Erromarren kaian sartuta eta erri-jai zikiñak amaitzeko egozala, gudariak artegatsu jarten ziran edozein luzatzegaitik; eta gotzaiñak alaitsu egiten eutsen esana aren errekeriai.

VI. Uriaren izena Porto (6) zan. Andik urtetean —orduko zabaldua egoan gure martiri santuari buruzko albistea—, anaiak aurkitu genduzan, bildurrez eta pozez beterik batera: pozez, Teoforo'gaz egoteko zoriona izango ebelako; eta bildurrez, arelako gizona eriotzara eroango ete-ebelako.

2. Iñazio'k batzui geldi egon zitezala agindu eutsen, erriari gizon zintzo onen eriotza ez eskatzeko eragingo eutsoela gura eben-eta.

3. Beingoan ezagutu ebazan orrelakoak bere espirituaz eta guztiak agurtu ebazan; benetako maitasuna eskatu eutsen eta, arei bere eskutitzean idatzi izan eutsen baiño geiago itz egiñaz, Jaunagana arin eltzea ez galerazoteko sartu eutsen buruan. Eta arela, anai guztiak belauniko egozan artean, Jaungoikoaren Semeari Elizen alde, eraso-aldia geldierazoteko eta anai-arteko alkar-maitasunaren alde erregutu eutsan; eta jarraian, bereala, anfiteatrura izan zan eroana.

4. Zesar'en aurreko erabagi baten arauz, bereala anfiteatruan sartu eben,

(5) Apost. Egiñ. 28, 13-14.

(6) Gaur, gotzain kardenalaren gotzain-erria.

jaiak amaitzeko zorian egozan-eta. (Ain zuzen be, egun a, oi zanez, jai-eguna zan, erromarren izkuntzaz «Amairugarrena» eritzana (7); iñoiz baiño lagun geiago batzen zan).

Onetara, gaiztoak pisti ankerrakana jaurti eben, Iñazio martiri santuaren guraria berealaxe bete zedin, idatzita dagoanez: «Zintzoaren guraria onartua izan da» (8), edo bardin dana: bere gorpuzkiñak batzeagaitik anai bati be gogaikarri ez izatea; bere azkena edo odol-eriotza berak aurretiaz gura izan eban izan zan.

5. Izan be, bere ondakin santuen atalik gogorrean soillik geratu ziran, eta Antiokia'ra izan ziran eroanak eta an kutxa baten izan ziran itziak, martiriaren mesedeak Eliz(e)ari izteko negurri-bagako ondasuna.

VII. *Amesetak*.—Guzti au, urtarrillaren kalenda aurreko (9) amairugarren egunean jazo zan, edo bardin dana, gabonillaren ogeigarren egunean, Erroma'n bigarrenez Sura ta Senezion kontsulak zirala.

2. Guk, jazopen onein ikusle izan gintzazala, gau osoa etxean negarrez igaro genduan, eta, belauniko, otowitz berotan, guri, argaloi, jazoa ulerterazo egigula eskatu geutsan Jaunari. Eta astiro-astiro, loak artu genduzan. Eta bat-batean, guretariko batzuek Iñazio doatsua ikusi genduan, zutik eta geu besarkatzen; beste batzuek, geure alde eskatzeko eraz ikusi eben; beste batzuek, izerdi baten, ibi-llaldi neketsu batetik bai'letorren, Jaunaren ondoan. Pozez beterik ikusi genduan an, eta gure ameseten ikusketak alkarri esan geutsazan, ondasunen emoilte dan Jaungoikoa goraturik eta gizon santua bedeinkaturik.



Aren eriotz-eguna ta aldia jakiñerazoten dautsuegu, aren odol-eriotzaldian bat egiñik, Kristo'ren gizon azkar eta martiri ospatsuagaz alkartu gaitzean, deabrua zapaldu eta Jesukristo gure Jaunagan Kristo'ganako bere maitasun-gogoaren lasterketa amaitu ebanagaz. Jesukristo'ren bitartez eta Beronegaz, aintza ta aal-izatea Aitari Espiritu Santuagaz batera, gizaldiz gizaldi. Amen.



(7) Gure Aratozteetakoen antzekoak. Iñon diran geikeriak egiten ziraneko jaiak.

(8) Prov. 10, 24.

(9) «Kalendas»: illaren leenengo eguna erromarren artean.



POLIKARPO SANTUAK FILIPOS'KOAI EGINDAKO IDAZKIA

Nor izan zan Polikarpo?

«Polikarpos» edo «frutuz aberatsa», bere izenaren duin egin zan benetan, Jaunari bere bizia su-garretan emoteragiño, Esmirna'n 155'garren urtean, 86 urte ebazala.

Esmirna'ko gotzain au Antiokia'ko San Inazio gotzaiñaren aldikoa ta aren lagun-kidea izan zan, eta San Ireneo ta Papias'en irakaslea. Ireneo Santuak diñoanez, Polikarpo San Joan Ebanjelariaren ikasle zintzoa izan zan, eta Jesukristo ikusi izan ebenak be ezagutu ebazan (1).

Egin ebazan idazkietatik, bat bakarra geratzen yaku, Filipos'ko Elizari egindakoa, 110'garren urte bitartekoa, Antiokio'ko San Inazio ilda laster. Ona emen bere idazkia.

Agurra.—Polikarpo'k beronegaz dagozan abadeak, Filipos'en arrotz lez (2) bizi dan Jainkoaren Elizari. Ugaritu daitela zuekan Jainko Guztiaaldunaren eta Jesukristo Salbatzaillearen bakea!

1. *Polikarpo'ren poza.*—Zearo poztu nintzan zuekaz Jesukristo gure Jaunagan, benetako maitasunaren ereduak artu zënduezalako eta, er(e)a zenduen ba-koitzean, santuen duin diran katepean egozanai lagun egin zeutseelako; kateok, Jainkoak eta gure Jaunak benetako aukeratuen pitxi-eder (1) dira.

2. Antxiñako aldietatik ospaturiko zuen fedearen zustr sendoak, Jesukristo gure Jaunari frutuak emonez (2), oraindiño iraun egiten daualako be poztu egin nintzan; Jesukristo da gure pekatuakaitik bere burua eriotzaragiño eskifiñ ebana, inpernuko oiñazeak (3) ezereztuta gero Jainkoak barriri biztu ebana, A ikusi ba-

(1) San Joan'ek, bere Agerpenean (Apoc. 2, 8-11). «Esmirna'ko Aingerua» dirautso.

(2) Jesukristo'ren Eliz (e) a arrotz lez bizi da mundu onetan, bere benetako aberria zerua dala. Ikusi Pedro'ren 1.^a, 2, 1.

(3) San Inazio'k Efeso'koai, 11, 2.

garik sinisten dozuena (4), eta, sinisturik, ezin-esan alako poz argitsuaz alaitzen zaree; poz orretan askok gura dabe sartu, graziaz salbatuak izan zintzazela jakini, ez zuen egitadakaitik, Jesukristo'ren bitartez Jainkoaren gogoz baiño.

II. *Eroan kristau-bizitza*.—Beraz, zuen gerriak estuturik (5), otseindu egizue Jainkoa bildurrez eta egiaz, itz-uskeria ta askoren okerbidea alde batera itzirik, illen artetik Jesukristo gure Jauna biztu ebana biztu ta bere eskumaldean aintza ta jarlekua emon eutsazan Aregan sinismena jarri; Berari makurtu yakoan gauza guztiak, zeruko ta lurrekoak; Berari egiten dautso gur edozein arnasak; Bera etorriko da bizien eta illen ebazle lez, eta Aren odolaren aurka artuko dautse kontua Jainkoak, esanik egin nai ez dautsoenai.

2. Eta A illen artetik biztu ebanak, geu be biztu egingo gaitu, Aren naia bete, Aren aginduetan ibili eta Berak maite ebana maite ba'dogu, dongakeritik, zalekeritik, diru-gosetik, mormoxetatik, guzurrezko autorretik-eta alde egiñik; txarra txarrez, iraiña iraiñez, zartada zartadaz, madarikatzea madarikatzeaz ordaindu ezik.

3. Gogoratu dagigun, ostera, Jaunak geure irakaspenerako esan euskun au: «Ez ebatzi, ebatziak izan ez zaitez; parkatu, eta parkatu egingo yatzue; errukitu, errukia jadesteko; negurtu dagizuen negurriaz izango zaree negurtuak (6). Eta: Zoriontsuak beartsuak (7) eta zuzentasunagaitik aurrean erabiliak, Jainkoaren erreñua eurena da-ta.

III. *San Paulo gogoan*.—Zuzentasunari buruz idazten dautsuedan au, anaiok, ez dautsuet neure kabuz* egiten, zuek len orretarako bultz egin zeustelako baiño.

2. Izan be, ez nik ez nire antzekoren batek be ezin lortu daike Paulo zoriontsu ta goragarriaren jakituririk: arek, zuen artean bizi izanik, aldi aretako gizonen aurrean, egiazko itza artez eta sendo irakatsi eban; eta urrundu zanean, idazkiak egin eutsuezan; idazki arek sakon ausnartzen ba'dozuez, bertan emoten yatzuen sinismena onbiderako izango yatzue.

3. Sinismen au da guztion ama, itxaropenak lagun dautsela ta Jaungoikoanako, Kristo'ganako ta lagun-urkoaganako maitasunak aurrea artzen dautsala. Eta izan be, onoinen (*birtute*) onein barruan egon daitenak, bete dau zuzentasun-agindua (8), maitasuna dauanak edozein pekatutik urrun dago-ta.

(4) Kol. 1, 6. (3) Ap. Egñ. 2, 24. (4) Pedr. 1.^a, 1, 8: «Bera maite dozue zuek, ikusi ez dozuela be...».

(5) Pedr. 1.^a, 1, 13.

(6) Ikusi Mat. 7, 1-2.

(7) Mat. 5, 3.

(8) Ikusi Mat. 5, 39; Sant. 2, 8-9.

(*) Kabu: iniciativa, impulso.

IV. *Burubide batzuk*: a) *andra ezkonduai ta alargunai*.—Gaitz guztien iturburua diru-egarria da (9). Beraz, mundu onetara ezer ekarri ez dogula jakini, ezta emendik eroango be, jantzi gaitzean zuzentasun-armaz eta alkarri irakatsiak emon dagioguzan, batez be Jaunaren aginduan ibilteko.

2. Gero, irakatsi zuen andrai be emon izan yaken fedean irauten, baita maitasunean eta garbitasunean be: agertu dagitseela bene-benetan euren senarrai euren maitasuna eta, besteai buruz, maite begiez guztiak bardin garbitasun osoaz; azi dagiezala euren seme-alabak Jainkoaganako bildurretan.

3. Andra alargunai buruz, Jaunaganako fedeari dagokionetan zuurrak izan daitezala, guztien alde beti otoitz egin dagiela, edozein guzur-baltzetik, mormoxetatik, guzurrezko autorretik, diru-gosetik eta gaiztakeritik urrun. Jakin dagiela Jainkoaren altara dirana, eta Arek dana aztertzen dauana, eta gure bururakizun eta asmoetariko ezer be ez dagoana Arentzat ezkutuan, ezta gure biotzeko ixilpeko ezer be.

V. b) *Diakonuai eta gazteai*.—Beraz, Jainkoari iñok ez dautsala barrerik egiten jakini (10), Aren aginduaren eta aintzaren negurrira egoki ibiltea da gure eginbearra.

2. Diakonuak be, Aren zuzentasunaren aurrean akats-bageak izan daitezala, Jainkoaren eta Kristo'ren morroi diranez, eta ez gizonenak: ez txarto-esaleak, ez miin-bikoak, ez diru-goseak, danetan negurridunak baiño, errukiorrak, arduratsuak, guztion morroi egin zan Jaunaren negurrira ibilirik. Mende onetan Jaunari atsegingarri ba'gakioz, datorren mendea artuko dogu saritzat, illen artetik Berak biztuko genduzala agindu euskunez; eta, gure bizikeraz Aren duin izaten ba'gara, Beragaz batera izango garala errege be (11), fedea ba'dogu beintzat.

2. Gazteak be bardin: danetan akats-bageak izan daitezala, batez be garbitasuna kontuan izanik eta gaiztakeri guztitik alde egiñik. Izan be, on yaku munduan nagusi diran zalekerietatik alde egitea, edozein zalekeri espirituaren aurka diardu burrukan-eta; aragikoiak, emetiak eta izadiaren aurkako zantarrak, barriz, ez dabe Jaungoikoaren erreñua artuko, ezta legetik kanpo diarduenak be. Beraz, bearrezko da gauza guztiotatik alde egitea, abadeen eta diakonuen menpean bizi izanik, Jaungoikoaren eta Kristo'ren menpean lez.

Neska garbiak (*birjiñak*) bizikera garbi ta akats-bagea eroan dagiela.

(9) Tim. 1.^a, 6, 10: «Izan be, gaitz guztien zusterre diru-gosea da...».

(10) Ikusi Gal. 6, 7: «ez zaiteze atzipetu: Jaungoikoari ez dautso iñok barrerik egiten».

(11) Ikusi Tim. 2.^a, 2, 12: «...nekeak Aregaz eroaten ba'doguz, erregetza be Aregaz izango dogu». Kol. 1, 10-14; Errom. 8, 17.

VI. d) *Zaarrek edo abadeak*.—Abadeak biotz-bigunak izan daitezala, guztientzat errukitsuak (12). Oker dagoana bide onera ekarteko aalegiñak egin dagiezala, geisoak ikusi, ez itzi bertan-beera andra alargunak, ezta umezurtzak eta beartsuak be; onerako beti gertu egon daitezala Jainkoaren aurrean naiz gizonen aurrean, asarrekeritik, norkeritik eta bidezko ez dan epaitik alde egiñik, diru-gosetik urrun. Ez dagiela iñoren aurkako salakuntzarik ariñegi sinistu, ezta ebatzikeran gogorak izan be, guztiok pekatu-errudun garala jakiñik.

2. Beraz, parkatu daiskula erregutzen ba'dautsagu guk Jaunari, geuk be parkatu egin bear dogu; izan be, Jaun eta Jainko danaren aurrean gagoz, eta guztiok aurkeztu bear dogu Kristo'ren auzitegian (13), nok-bere buruaren kontua emotera (14).

3. Otseindu dagigun, ba, Kristo bildurrez eta begirune osoaz, Berak agindu euskunez, baita Ebanjelioa iragarri euskuen Apostoluak eta gure Jaunaren etorrera aurretiaz esan euskuen profetak agindu euskuenez be. Izan gaitez an-bidearen arduratsu ta aldendu gaitez an gaizpideetatik, guzurrezko anaiakandik eta gizon arropuzak bide zuzenetik okertzeko Jaunaren izena itxurakeriz daroenakandik.

VII. *Ziñausleen aurka*.—Izan be, Jesukristo aragitan etorri zala autortu ez dagian edonor, guzurrezko kristo (*edo Antikristo*) da; eta gurutzaren autorra autortu ez dagiana, deabruagandik dator; eta nok-bere zalekerien alde egitearren, Jaunaren berbak aldatu dagizana, Satanas'en leenseme da.

2. Beraz, gizataldearen arropuzkeria (15) eta guzurrezko irakatsiak alde batera itzirik, biurtu gaitez an asierarik emon izan yakun irakatsira, iratzarririk eta otoitzari ekiñik, barauetan iraunik, eta ez gagizala tentaldira eroan, dana ikusten dauan Jaungoikoari gure otoitzetan eskaturik, Jaunak esan ebanez: «*espiritua gertu dago, bai, baiña aragia makala da*» (16).

VIII. *Jesukristo, geure eredu*.—Iraun dagigun, ba, gure itxaropenean (17) eta gure zindokuntzaren baituran*: Jesukristo'gan; Beronek jaso ebazan guru-

(12) Sant. 1, 27.

(13) Ikusi Sant. 2, 13: «...errukia egin ez dagiana, erruki bagarik izango da ebatzia-ta. Alan be, auzia baiño obe da errukia».

(14) Errom. 14, 12.

(15) Kol. 2, 8.

(16) Mat. 26, 41; Mark. 14, 38.

(17) Kol. 1, 23.

(*) Baitura: prenda.

tze-gaiñera gure pekatuak Bere gorputzean; ez eban iñoiz pekatu egin, eta Aren ogoan ez zan iruzurrik* aurkitu; alan be, gu Beragan bizi izateko neke guztiak igaro ebazan gugaitik (18).

2. Izan gaitez an, ba, Aren eroapenaren jarraitzaille, eta, Aren izenagaitik nekeak igaro bear ba'doguz, goratu dagigun (*Kristo*). Izan be, orixe izan zan Berak Beragan itzi euskun ikasbidea, eta orixe da guk sinismenez onartu doguna.

IX. *Martirien ikasbidea*.—Beraz, zuzenbidearen itzari esana egin eta eroapen osoa egin dagizuela eskatzen dautsuet guztioi, zeuen begiz ikusi zenduen eroapen bera, Iñazio, Zozimo ta Errufo zoriotsuakan bakarrik ez, baita zeuetariko batzuekan be bai, baita Paulo'gan beragana eta beste Apostoluakan be ikusi zenduen eroapena.

Izan zaitez orre in antzeko, ba-dakizue guzti orre in alperrik ibili ez zirana-ta, sinismenean eta zuzenbidean baiño, eta ba-dakizue orain eurai dagokien tokian dagozana, Jaunaren ondoan, nekeak be Beronegaz batera igaro ebazan-eta (19). Ez eben bizi garan aldi au maite izan-eta, geugaitik il zan A baiño, Jainkoaren indarrez geugaitik biztu zan A baiño.

X. *Alkartasunean bizi*.—Beraz, iraun onoinen (*birtute*) orre in eta jarraitu Jaunaren ikasbideari, fedean sendo ta ikararik egin bagarik, anaitasunaren maitatzaille, alkar maite izanik, egian bat egiñik, alkar Jaunaren otzantasunaz eroanik (20), iñor be gutxitat artu bagarik.

2. On egiteko unerik ba'dozue, ez geroko itzi, «*limosn(e)ak pekatuetatik atara egiten dau-ta*» (21). Egon zaitez guztiok alkarren menpean, jentillen artean bizikera akats-bagea eroanik, zuen egintza onetatik zuek gorapena artu dagizuen eta Jaunaren izena zuen erruz biraotua izan ez daiten.

3. Zoritxarrekoa, barriz, alakoaren erruz Jaunaren izena biraotua ba'da! Irakatsi, ba, guztiak negurritasuna, eta bete zeuek be.

XI. *Balente abadea*.—Atsekabe andia artu dot aldi baten zuen artean zaarra (*edo abade*) izan zan Balente dala-ta, emon izan yakon tokia ainbeste aaztu yakolako. Diru-gosetik alde egin dagizuela eskatzen dautsuet, ba, eta garbi ta egizale izan zaitezela. Alde egizue gaiztakeri guztitik!

(18) Pedr. 1.^a, 2, 22-24: «Ez eban pekatu egin... Berak eroan ebazan bere gorputzean gure pekatuak egur-gaiñean». Ikusi Tes. 1.^a, 1, 6.

(19) Sant. 5, 11: «Begira: leen nekeak igaro ebazan, orain zoriotsutat doguz». X'garren atalburutik aurrera, idazki au *latinez* bakarrik dago.

(20) Pedr. 1.^a, 3, 8.

(21) Tobias, 4, 10; 12, 9.

(*) Iruzur: engaño

2. Izan be, onetan bere burua eroaten ez dakianak, zelan izango yake besteai onulari*? (22). Diru-gosetik alde egiten ez dauana, sasi-jainko-gurtzan loituko da, eta jentillen artekoren bat lez izango da ebatzia (23). Nok ez dau ezagutzen, barriz, Jaunaren epaia? Edo-ta, ez ete-dakigu, ba, santuak epaituko dabena mundua, Paulo'k irakasten dauanez? (24).

3. Niri dagokidanez, ez dot ezagutu ez entzun orrelakorik ezer zuen artean, Paulo zorientsuak zuen artean lan egin ebalá, eta aren idazki-asieran agertzen zareela. Izan be, Eliza guztietan ospatzen zaitue, Jainkoa orduan ezagutzen eben elizetan. Guk, barriz, ez genduan orduan Paulo ezagutzen.

4. Beraz, naigabe andia izan neban, anaiok, aretzaz eta aren emazteatzaz; Jaunak emon dagisela benetako damua. Orregaitik, orretzaz be, negurritz jokatu bear dozue, eta orrelakoak ez artu areriotzat (25), atal geiso ta okertuak gutxitzeko aalegiñak egin baiño, zuen guztion gorputza onik atara dagizuen. Ori egiñez, zeuen buruak jasoten dozuez.

XII. *Alkarren utsak parkatzeko.*—Zigur nago Idazki Santuak ondo be ondo ezagutzen dozuezana, eta ezkutuan ezer be ez yatzuena; niri, osterá, ez yat grazi ori emon. Beraz, Idatz-atal orreitan esaten danez: «Ikaratu zaitzeze, eta ez egin pekaturik» (26), eta: «Eguzkia ez dadilla zuen asarrearen gaiñean ostendu» (27). Zorientsua, ori gogoratu dagiana!; orixe egingo dozuela uste dot.

2. Jesukristo gure Jaunaren Jainko ta Aitak eta Jesukristo Jainkoaren Seme ta betiko Abade-Nagusiak berak jaso zagiezala fedean eta egian, otzantasun osoan eta asarrekeri bagarik, eroapenean eta biotz-zabaltasunean, iraupenean eta kastedadean; eta oiñordeko ta lagunkide egin zagiezala Aren santuen artean, eta geu be bai zuekaz batera, baita zerupean dagozan eta Jesukristo gure Jaunagan eta illen artetik biztu eban Aren Aitagan sinisten dabene guztiak be.

3. Erregutu santu guztien alde. Erregutu errege, agintari ta nagusien alde be (28), baita aurrean zarabillezen eta iguintzen zaituenen alde, eta gurutzearen arerioen alde be, zuen frutua guztiai agertu dakien eta Aregan bikain-bikaiñak izan zaitzen.

(22) Tim. 1.^a, 3, 5.

(23) Kol. 3, 6: »...onexekaitik dator Jaungoikoaren asarrea gizaki sinisgogorren gaiñera-ta».

(24) Kor. 1.^a, 6, 2: «Ez al dakizue gizarte au santuak ebatziko dabena?».

(25) Tes. 2.^a, 3, 15; Kor. 1.^a, 12-26.

(26) Ps. 4, 5.

(27) Ef. 4, 26-27.


(28) Tim. 1.^a, 2, 2-3; Mat. 5, 44; Filip. 3, 18, 19.

(*) Onulari: consejero.



XIII. *Iñazio'ren idazkiak.* Guretariko bat Siria'ra joatekotan, zeuen idazkiak be eroan dagizala idatzi zeusten, baita Iñazio'k be. Eta orixe egingo dot era egokia etorri ba'dakit; eroan be neuk eroango dodaz, edo neuk bialdutako ordezkari batek, zeuen izenean be joango danak.

2. Zeuek eskatu zeustenez, Iñazio'ren idazkiak bialtzen dautsuedaz, berak bialdu eustazanak (29) eta geure eskuetan geukazanak. Guztiak idazki oneaz batera doaz. On andia egin daiketuzue, gure Jaunari dagokion fedez eta eroapenez eta cnbidez beterik dagoz-ta. Iñazio'ri ta onen lagunari buruz, esan egidazue zigur dakizuena.

XIV. *Azken-agurrak.*—Idazki au Kreszente'ren bidez egiten dautsuet: ondo artu dagizuela esaten neutsuen beti, eta orain be barriro ondo artu egizue. Izan be, gure artean akats-bagea agertu da, eta zuen artean be olantxe agertuko dala uste dot. Ondo artu egizue aren arreb(e)a be, zuekana joan daitenean. Nire agurra Jesukristo Jaunagan eta izan bedi Beronen grazia zuekaz! Amen.



(29) Iñazio'k Polikarpo'ri egindako idazkia, 7 ta 8'garren atalburuak.



POLIKARPO SANTUAREN MARTIRI-AGIRIA

Agurra.—Esmirna'n arrotz lez bizi dan Jainkoaren Eliz(e)ak Filomelio'n arrotz lez bizi dan Jainkoaren Elizari, eta toki guztietan arrotz lez bizi diran Fliza santu ta katolikuaren eliztar guztiai: Aita Jaungoikoaren eta Jesukristo gure Jaunaren erruki, bake ta maitasun bete-betea.

I. *Eraso-aldien* azkena.*—Martiriai eta Polikarpo'ri buruz egiten dautsuegu, anaiok, idazki au: Polikarpo'k emon dautso azkena eraso-aldiari, bere odol-eriotzaz sillua ezarten dautsala. Leen jazo zan guztia, Jaunak barriro bere odol-eriotza erakusteko izan zala esan daikegu, Ebanjelioak azaltzen dauskun eraz.

2. Izan be, Polikarpo'k beste batzuen eskuetan itzia izango zala itxaron eban, Jaunak be egin ebanez, geuk be eredutzat artu dagigun, geure irabaziari begira bakarrik ez, baita geure lagun-urkoaren irabaziari begira be. Izan be, maitasun benetako ta sendoa anai guztiak onik atarateko asmoa da, geure burua onik atarateko asmoa bakarrik izan bagarik.

II. *Martirien adorea.*—Baiña, odol-eriotza zoriontsuak, Jainkoaren gogotara bete diranak dira soilik; izan be, bearrezkoa da, bear dan ardura izanik, oiñaze guztien aurka egiteko indarra Jainkoari ezartea.

2. Eta, izan be, nok ez dau ederretsiko gure martirien biotz-zabala, Jaunaganako arein iraupena ta maitasuna? Areik, zan eta zan-andi* artean, aragiaren egitamua* ikusteragiño geratu ziran zartadaz josita. Alan be, areik eutsi ta eutsi; laguntaldeak erruki izan eta negar egiteragiño: Martiriak, ostera, adorez gaiñez-

(*) Eraso-aldi: tiempo de persecución. — (*) Zan-andi arteria. — (*) Egitamu: disposición, estructura.

ka, areitariko batek be ez eban aiene bat egin. Olantxe irakatsi euskuen guztioi, Kristo'ren martiriak euren aragitik kanpo egozala oiñazealdi aretan, edo-ta obeto esateko, Jauna egoala eurakaz eta itz egiten eutsela.

3. Eta Kristo'ren graziak eutsita, lurreko oiñazeak ezetsirik, ordu bateko oiñazeaz betiko bizia erosten eben. Oiñaze-emoille biozbageen sua bera ozkirri egiten yaken, iñoiz be atzamatzen ez dan betiko sutatik iges egiteko asmoa begien aurrean izanik, eta adoretzu irauten dabenezat aukeratuta dagozan ondusunak ikusten ebezan biotzeko begiakaz; ondasunok, ez dauz begik ikusi, ez belarrik entzun, ez gizonaren biotzek somatu (1). Baiña Jaunak erakutsi eutsezan arrezkero gizon izan bagarik aingeru ziran arei.

4. Era berean, pistietara galduak, ikaragarritzko oiñazeak igaro ebezan, oiñaze-txirringetan jarrita eta beste zigor batzukaz oiñazetuta. Oiñazea oiñazearen ostean, aal izan ba'litz, fedea ukatu egiela nai eban arerioak.

III. *Jermaniko'ren adorea*.—Asko ziran, izan be, deabruak arein aurka ipiñi ebazan sareak. Baiña, Jainkoari eskerrak, guztiak uts egin eben. Izan be, Jermaniko guztiz adoretzuak sendotu egin ebazan bere iraupenaz bildurti ziranak, eta ederto aurkeztu zan pistiakaz burrukan egiteko. Eta, kontsul-ordekoak asmo ori kentzen asi yakonean, bere gaztetasunari erruki izan dakiola esanez, Polikarpo'k berak axaxatu eban pistia, bere aurka jausi zedin, bizitza zuzenbaga ta donga onetatik urteteko gurariz.

2. Une onetan, laguntalde guztia, Jainkoa maitatzen eta gurtzen dauan kristau-jatorriaren adorea arrituta, deadarka asi zan: «Il beitez Jainko-ukatzailleak! Polikarpo'ren billa!»

IV. *Kinto bildurtia*.—Baiña, Kinto izeneko bat, Frijia'rra, Frijia'tik etorri-barri zana, pistiak ikusirik, bildurtu egin zan. Axe zan, ain zuzen be, bere buruari ta beste norbaitzui euren gogoz auzitegian aurkezteko bultz egin eutsena. Oni, ba, konsul-ordeak, ekin eta ekin, Zesar'en alde zin egiteko ta (guzurrezko) jainkoai gur egiteko etsi* eban. Orregaitik, ba, ez doguz ontzat artzen euren gogoz euren buruak salatzen dabezanak; Ebanjelioak ez dausku ori irakasten (2).

V. *Polikarpo'k ikusi ebana*.—Gizon ain goragarri zan Polikarpo'ri buruz, ez zan ikaratu erriaren eskabidea leenengo entzunik; uritik ez urteteko erabagia artu eban, ostera. Alan be, anai geienen eritziari jarraitu eutsan, uritik alde egi-

(1) Kor. 1.^a, 2, 9.

(2) Ikusi Mat. 10, 23: «Uri baten, aurrean erabili zagiezanean, iges egizue beste batera».

(*) Etsi: persuadir.

ñez. Uritik urr egoan etxalde batera bazartu zan, eta antxe egoan zintzo batzukaz, gau ta egun, beste arazo bagarik, guztien alde otoitz egiñez, batez be lur guztian zear zabalduta egozan Elizen alde, oi ebanez.

2. Eta ari oratu baiño iru egun leenago, otoitzean ziarduan artean ikuspen bat izan eban: bere oge-burukoa suaz zearo erreta ikusi eban. Eta beragaz egozanakana biurturik, «Bizirik erreko nabe» esan eutsen.

VI. *Otsein batek saldu*.—Polikarpo'ri eskua ezarteko ziarduenak urr egozan ezker, Polikarpo beste etxalde batera aldatu zan, eta berealakoan ertzaiñak eldu ziran. Aurkitu ez eben ezker, otsein biri ezarri eutseen eskua, eta areitariko batek, oiñazetan jarrita, autortu egin eban Polikarpo'ren egonlekua.

2. Aren salatzaileak etxeokaz ziran ezker, ezin gorde zeitekean. Erodes eritzan Ertzain-buruak —bete-bete be Jaunaren nekaldiko erregearen izen bera eroian—, Polikarpo jolas-tokira (*edo estadiora*) al bait ariñen eroateko gogoa eban, Polikarpo'ri Kristo'ren lagunkide izateko zoria bete ekion, baita aren salatzaileak Judas'en zigorra artu egien be.

VII. *Polikarpo'ren billa*.—Beraz, otseiña eurakaz eroanik, bariku baten, bazkalorduan-edo, ertzaiñak eta zaldizkoak urten ziran, oiturazko armakaz, lapur baten billa lez (3); eta ara elduta, gabez, goiko bizitokian etzunda aurkitu eben Polikarpo. Andik beste toki batera iges egin izan eikean, baiña ez eban nai izan, auxe esanez: «Egin bedi Jainkoaren naia!» (4).

2. Beraz, bean entzuten zan zarataz bere erasotzaileak* eldu izan zirala ezaguturik, beera jatsi ta arekaz izketan asi zan. Areik, Polikarpo ikustean, urtez aurreratua zalako ta aren sendotasunaz, arrituta geratu ziran, eta ez eben ulertzen alako agura bati oratzeko erabillenen ardur(e)a. Ordu aretan arei jaten eta edaten emoteko agindu eban Polikarpo'k, nai egien beste; eta arek arei ordu bete bakarrik eskatu eutsen, nasai-nasai otoitz egiteko.

VIII. *Eriotz-bidean*.—Bere otoitza amaitu ebanean, bere bizitzan beragaz artu-emonak izan ebezan guztiak gogotara ekarrita gero —txiki ta andi, ospatsu ta apal, eta batez be lurbira osoan zabalduta egoan Eliza katoliku guztia—, urteteko ordua eldu yakonean, astakume baten gaiñean jarri eben, eta alantxe eroan eben urira. Larunbat (*zapatu*) andia zan (5).

(3) Ikusi Mat. 26. 55.

(4) Ikusi Mat. 6, 10; Ap. Egiñ. 21, 14.

(5) Ikusi Yon, 19, 31.

(*) Erasotzaile: perseguidor.

2. Erodes ertzain-burua (prokuradorea) eta onen aita zan Nizetas urten yakozan bidera, eta Polikarpo euren burdira aldatu ta euren ondoan jesarrerazorik, euren eritzira ekarten asi yakozan esanez: «Zer dau, ba, txarrik 'Zesar da Jau-na' (6) esateak, eta oparia eskintzea ta gaiñetiko guztia betetea, orrela bizia gordeteko?»

Leenengotan, Polikarpo'k ez eutsen ezer erantzun; baiña, barrero be areik leengoari ekiten eutsoela, azkenean be auxe esan eutsen: «Ez dot zuen burubideari jarraitzeko asmorik».

3. Areik, orduan, onean ezin ezer lortu ebela ikusirik, irainka asi yakozan eta bereala burditik jatsiteko beartu eben; eta jatsitean, ankazurra zauritu yakon. Alan be, orri jaramonik be egin bagarik, ezer jazo ez bai'litzan, oiñez yoian adoretzu estadiorako bidean. An zan deadar-otsaz, barriz, ez zeitekean ezer entzun.

IX. «86 urtean otseindu dot Jesuskristo».—Polikarpo estadioan sartu zanean, abots batek zerutik auxe esan eban: «Izan adorea, Polikarpo, eta gizonki jokatu!» Iñok ez eban ikusi ori esan ebana; baiña, an egozan guretarikoak entzun eben abots ori. Gaiñera, Polikarpo auzitegian sartzean, sekulako deadar-otsa egin zan, Polikarpo'ri eskua ezarri eutsoela jakitean.

2. Konsul-ordearen aurrera elduta, onek Polikarpo zan itandu eutsan. Baietz erantzun eutsanean, konsul-ordeak egiñalak egiten eutsazan fedea ukatzeko, ari esanez: «Erruki zakioz zure zaartzaroi!», baita orrelako beste antzerako zer-baitzuk esanez be, alakoetan oitura dauanez, esate baterako: «Egin zin Zesar'en adorearren! Garbatu zaitez! Entzun egizu: Il bediz jainko-ukatzailleak!».

Orduan Polikarpo'k, estadioa beteten eben donga sinisbage-taldeagana arpegi illunaz bihurturik, arekanantz eskua luzaturik eta begiak zerura jasorik, auxe esan eban: «Bai, il bediz jainko-ukatzailleak!».

Gero, konsul-ordeak: «Egizu zin eta askatu egingo zaitut. Madarikatu egizu Kristo!».

Orduan, Polikarpo'k: «Larogei ta sei urtean otseindu dot Kristo, eta egundo ez daust kalterik egin. Zelan madarikatuko dot, ba, ni onik atara nauan nire Erregea?».

X. «Kristaua naz».—Konsul-ordeak barrero be zirikatatu egiten eban ezker, «Egin zin Zesar'en adorearren!» esanez, Polikarpo'k auxe erantzun eutsan: «Zure izen onak bultz egiten ba'dautsu zuk diñozun Zesar'en adorearren nik

(6) «Kyrios» itza —Jauna—, kristauak Jaungoikoa bakarrik izentatzeko erabilten eben.

zin egitera, eta ni ez-ezaguntzat artzen ba'nozu, entzun egizu argi ta garbi: Ni kristaua naz. Eta kristau-fedearen aztarrena ezagutu nai ba'dozu, emon egidazu egun bat, eta entzun nagizu!».

2. «Sartu egiozu ori buruan erriari», erantzun eutsan konsul-ordeak. Eta Polikarpo'k: «Nire azalpena entzuteko duin zaralakoan nago: izan be, auzi-gizonai ta agintariari bear dan begirunea izatea agintzen dauskun irakatsia autortzen dogu guk —fedearen aurka egon ezik, beintzat—: Jainkoak jarrita dagoz-ta; beste orreik, ostera, ez dot uste nire egitaden garbitasuna entzuteko duin diranik».

XI. *Zemak* eta erantzunak*.—«Pistiak daukadaz; eta pistietara jaurtiko zaitut eritzi ori aldatzen ez ba'dozu», esan eutsan konsul-ordeak. Eta Polikarpo'k: «Ekarri daikezuz, onetik txarrera aldatzerik guk ez dogu onartzen-eta. Txarretik zuzenera aldatzea da bidezkoa».

2. Konsul-ordeak barrero be: «Zure eritzia aldatzen ez ba'dozu, sutan kiskaltzera emongo zaitut, pistiak gutxitzat artzen dozuz-ta». Eta Polikarpo'k: «Une baten kiskaltzen eta bereala atzamatzen dan suaz zematzen nozu. Argi dago geroko epaikundeko surik ezagutzen ez dozuna, ezta gaiztoentzat geroko gordeta dagoan betiko surik be. Edozela be, zetako luzatze geiagorik? Ekarri nai dagizona!».

XII. *Polikarpo kristaua dala iragarten dabe*.—Polikarpo'k ori ta beste gauza asko esaten ebazan artean, sendo ta pozez beterik egoala ikusten eben, eta aren aurpegiari edertasuna dariola; ez zan zemakaitik kikildu, eta bai kontsul-ordea arritu; onek, azkenean be, erriko mutillari estadio-erdian iru aldiz auxe iragarteko agindu eutsan: «Polikarpo'k kristaua dala autortu dau!».

2. Erriko mutillak ori esanda batera, jentil-talde guztia eta eurakaz batera Esmirna'n bizi ziran judarrak, lotu-eziñezko amurruz eta deadarka baten asi ziran: «Orixe da Asia'ko maisua, kristauen aita, gure jainko-ondatzaillea, arei oparirik ez eskintzera ta gur ez egitera askoi eragin dautsena».

Deadarka ziarduen artean, Polikarpo'ren aurka leoiak atarateko eskatzen eutsoen Filipo asiarkari (7). Filipo'k, baiña, orretarako eskubiderik ez ebala erantzun eutsen, pisti-burrukak amaitu izan zirala-ta.

3. Orduan, Polikarpo bizirik errea izan zeitela asi ziran deadarka esaten guztiak batera. Izan be, bere oge-burukoatzaz agertu yakon ikuspene bete-bearra zan, bere oge-burukoa guztiz kiskaltzen ikustean, aurrean egozan zintzoakana biurtuta, aurretiaz esan eutsanean: «Bizirik erreko nabe».

(7) Asiarka: Asia'ko agintari nagusia.

(*) Zema: amena.

XIII. *Sugeia batsen*.—Guzti au, esan eta egin, beingo baten bete zan. Bat-batean, laguntaldea lantegi ta urberotegietatik egurra ta adar legorrak batzen asi zan, eta batez be judarrak izan ziran nagusi orretan, oi ebenez.

2. Su-met(e)a gertatuta, Polikarpo'k, bere soñekoak kendu ta gerrikoa askatuta, oiñetakoak erazten asi zan —azken au ez eban leen egiten: aren gorputza leenen ikutzearren, bere zintzoetariko edonok laguntzera joaten yakon-eta. Izan be, odol-eriotza baiño leenago be, bere bizitza onomenez (*birtutez*) beterik egoala ikusten eber.

3. Berealaxe jarri eutsoezan inguruan su-metarako gertatutako gaiak. Baiña, egur baten josteko asmoz urreratu yakozanean, «Itzi nagizue olantxe!» —esan eutsen—; suari eutsiteko indarra emoten daustanak Berak emongo daust su-garretan geldi irauteko indarra be, zuen untzeakaz lotu bagarik».

XIV. *Martiriaren otoitza*.—Beraz, ez eben josi, lotu bakarrik egin eben. Eskuak sorbalda ostean lotuta egoan, adari ospatsu baten antzera, oparizat eskintzeko artalde andi batetik aukeratuta, Jainkoarentzat opari gogoko. Eta begiak zerura jasorik, «Jainko Jaun guztiz Altsu ori, Jesukristo zure otsein maite ta bedeinkatuaren Aitu —esan eban—: Jesukristo'ren bidez artu dogu zure ezaguera, Aingeruen eta agintedunen, izadi guztiaren eta Zure aurrean bizi diran zintzoen jatorri guztiaren Jainko orren ezaguera:

2. Bedeinkatu egiten zaitut, ordu onetara eltzeko duin egin nenduzulako, zure martirien artean, Espiritu Santuaren ezin-usteltzean, gorputz-arima betiko bizitzarako biztuteko, Kristo'ren edontzian (*kalizan*) eskuartu dagidan. Izan naitela onartua gaur arekaz zure aurrean, opari gizen eta gogoko lez, aurretiaz Zeuk gertatu, agertu ta bete dozunez, Jainko uts-ezin eta benetako orrek!

3. Beraz, goratu egiten zaitut diran guztiakaitik, bedeinkatua ta gora Zeu, Jesukristo zure otsein eta Abade Nagusi betiko ta zerukoaren bitartez; Beronen bidez aintza Zeuri Espiritu Santuagaz, orain eta gizaldiz-gizaldi. Amen».

XV. *Urrea su-katilluan*.—Polikarpo'k bere «Amen» zerura bialdu ta bere eskaria amaitu ebanean, su-metaren morroiak sua emon eutsoen sugeiari. Eta bat-batean sugar andia sortu zan, eta bereala, mirari bat ikusi genduan, mirari a ikusteko mesedea emon yakunok, jazorikoa gaiñetikoai azaltzeko geratu garanok.

2. Suak, su-sabaiaren antzera, aizeaz puztutako itsasontzi-oiala lez, martiriaren gorputza alde guztietatik inguratu eban, eta Polikarpo* su-garraren erdian egoan: ez, ostera, erreten dagoan okel(e)a lez, ogia egostean oritzen danez edo urrea ta zidarra su-katilluan goritzen diranez baiño. Eta egia esateko, in-tzentzu edo beste usaingarri eder antzeko usain atsegingarria artu genduan.

XVI. *Eriotza*.—Azkenez, gaiztoak, suak Polikarpo'ren gorputza ezin eze-reztu ebala ikusirik, urreratu ta sastakaiaz* garbitu egiala agindu eutsoen ezpatari bati. Ori eginda, sua atzamatzeragiñoiko odola urten yakon gorputzetik. Laguntalde guztia arrituta geratu zan sinisbageen eta aukeratuen arteko eriotzan dagoan aldeaz.

2. Aukeratuon artean dago Polikarpo, gizon guztiz goragarria, gure aldiotan maisu, apostolu ta profeta-adoreaz, eta Esmirna'ko Eliza katolikuaren gotzain. Aren agotik urtendaño itz bakoitza bete egin da edo bete egingo da.

XVII. *Martiriaren ondakiñak*.—Baiña deabruak, gure arerioak, bekaizti* ta dongeak, zintzoen jatorriaren arerioak, Polikarpo'ren odol-eriotza ederra ikusirik, koroil-eziñaz jantzita egoala ta iñoik ezin kenduko leuskion burruka-saria irabazi ebala ikusirik, aren gorpua artzea galerazo egin euskun, ori egitea eta aren gorpu santuaren jabe egitea nai ebenak askoak ziranarren.

2. Deabruak Nizetas'i, Erodes'en aita ta Alze'ren anae zanari, martiriaren gorpua artzeko baimenik ez egigula emon ekarri eutsan burura kontsul-ordeari: «Orreik, bearbada —iñoan—, Gurutzetua bertan-beera itzi ta berau gurtzen asi ez daitezana».

Judarrak ziran ori burura ekarten eutsoenak. Areik, gaiñera, zain egozan, guk Polikarpo sutatik atara nai izan genduan.

Ez ekien, ostera, guk ezin itzi izango genduan bertan-beera iñoiz be Kristo; Berau izan zan salbatzen diranen mundu guztiaren osasunerako il zana: Berau, errubage au, gu pekatarien alde; eta Bera izan ezik be, ez dogu beste iñoer gurtu bear.

3. Izan be, Jainkoaren Semea dalako gurtzen dogu Kristo; martiriak, barriz, Jaunaren ikasle ta jarraitzaille diran ezkerok, bear dan lez maite doguz, arein Errege ta Irakasleari izan eutseen maitasun bikaiñagaitik. Nai izango al dau Jainkoak geu be arein lagunkide ta ikaskide izatea!

XVIII. *Polikarpo'ren azurrak arri-pitxi ederrak*.—Euntariak, ba, judarren gorroto bizia ikusi ebanean, gorpua su-meta erdian ipiñirik, oi ebenez erreteko agindu eban.

2. Orretara, beintzat, zerbait geroago, batu aal izan genduzan martiriaren azurrak, arri-pitxi baliotsuak baiño ederragoak eta urrea baiño estimagarriagoak; eta leku egokian gorde genduzan.

3. Antxe, aal dagigunez, poz-alaitasunez baturik, Polikarpo'ren odol-eriotzaren urteurrena ospatzeko mesedea egingo dausku Jaunak, euren burruka amaitu ebenen gomutapenerako ta gero datozen gizaldien ekitaldi ta gertakuntzarako.

(*) Sastakai: puñal. — (*) Bekaizti: envidioso.

XIX. *Polikarpo'ren aintza*.—Orixe izan zan Polikarpo zorientsuaren odol-eriotza; Esmirna'n amabigarren martiria, Filadelfia'ko anaiakaz batera. Baiña, bera bakarrik gogoratzen dabe guztiak, jentillek be alde guztietan aretzaz itz egiteragiño.

Irakasle ospatsua bakarrik ez, baita martiri bikaiña be izan zan; orregaitik, guztiak nai dabe aren odol-eriotzaren jarraitzaille izan, Kristo'ren Ebanjelioaren negurrira izan zanez.

2. Eta orain, bere eroapenaz mundu onetako nagusi dongeari irabazi eta koroe ustel-eziña artuta gero, pozik goratzen dau Jainko ta Aita Guztiaalduna, Apostolu ta zintzo guztiakaz batera, baita bedeinkatu be Jesukristo gure Jauna, gure arimen salbatzaillea, gure gorputzen ontzi-maisua ta lurbira osoan zabal-duta dagoan Eliza katoliku osoaren zaintzaillea.

XX. *Azken-agurra*.—Jazorikoa zeatz-zeatz azaltzeko eskatu zeuskuen; baiña, oraingoz, andi-andia bakarrik azaldu aal izan dautsuegu, eta Marzion gure anaiaren bidez bialtzen dautsuegu.

Jakitun jarri zaitezenean, bialdu egiezue idazki au inguruko anaiak, eurak be Jauna goratu dagien; Beronek aukeratzen dauz bere otseiñtarik Berak nai dauzanak.

2. Jesukristo bere otsein eta Seme bakarraren bitartez, bere graziaren doaiz guztiok bere betiko erreñuan sartzeko aaltsua dan Ari, Berari aintza, gorapena, aalmena ta anditasuna gizaldietan!

Agur santu guztiai!

Agur egiten dautsuee gugaz batera dagozanak, baita idazki au egin dauan Ebaristo'k eta beronen etxeko guztiak be.

XXI. *Odol-eriotz-eguna*.—Polikarpo zorientsuaren odol-eriotza Xantiko illaren bigarren egunean izan zan (8), Epaillaren Kalendas'ak baiño zazpi egun leenago, Zapatu Andia'n, zortzigarren orduan. Erodes'ek ezarri eutsan eskua, Tralles'ko Filipino Abade Nagusia ta Estazio Kuadrato konsul-ordea zirala, eta Jesukristo gure Jauna gizaldietan errege izanik. Beroni aintza, gorapena, anditasuna ta betiko errege-jarlekua gizaldiz-gizaldi. Amen.

XXII. *Geitua* (9).—Osasunez egon zaitezela da gure guraria, anaiok, Ebanjelioan dagoan Jesukristo'ren irakatsiaren eraz ibili zaitezen. Izan bekie aintza

(8) Xantiko illa Otsaillaren 22'garren egunean asten zan, eta mazedoniar urteko seigarrena izan zan.

(9) XXII'garren atalburu au, IV,garren gizaldian geitua da, antza.

Aregaz Aita Jainkoari ta Espiritu Santuari santu aukeratuen osasunerako, Polikarpo zorientsuak igaro eban odol-eriotzaren eraz; nai izan dagiala Jaungoikoak Jesukristo'ren erreñuan gu Polikarpo'ren lorratzetan egotea.

2. Aurreko ori, Polikarpo'ren ikasle ta bizilagun izan zan Gaio'k Ireneo'ren idazlanetatik idatzaldatu* eban. Eta nik, Korinto'ko Sokrates nazan onek, Gaio'ren esku-idazkietatik idatzaldatu* neban. Izan bedi grazia guztiokan!

3. Nik, barriz, Pionio nazan onek, Polikarpo zorientsuak goi-argiz neuri agertuta gero —geroago azalduko dodanez—, aurreratxoago aitaturiko esku-idazki au billatu ta barriro idatz-aldatu neban. Urteak zerbait ondatu ondoren batu neban esku-idazki au, neu be Jesukristo'k bere aukeratuakaz bere Erreñuan batu nagian. Berari aintza Aitagaz eta Espiritu Santuagaz gizaldiz-gizaldi. Amen.

★ ★ ★

BESTE GEIGARRI EDO AZKEN-ITZ BAT (Mosku'ko kodizetik)

1. Aurreko au, Ireneo'ren idazlanetatik Gaio'k idatzaldatuta dago; Gaio, Ireneo'ren bizilagun izan zan, eta Ireneo Polikarpo'ren ikasle.



2. Polikarpo'ren odol-eriotzaldian Erroma'n egoan Ireneo onek askoi emon eutsen an bere irakatsia. Eskuz-esku dabiz onen idazlan asko ta ederrak, sinismenean oso artezak; idazlanotan, Polikarpo'ren ikasle izan zala diño, eta edo-zetariko siñauskerien aurka egin eban osoro, eta Elizaren fede katoliku-araua eldu-arazo eban, (Polikarpo) Santuagandik jaso izan ebanez.

3. Ireneo'k, gaiñera, jazopen au azaltzen dau; Bein Polikarpo'gaz egoala, Marzion'ek, «Marzion-alderdikoak» eritzen buru izan zanak, auxe esan eutsan: «Ezagutu gagizuz, Polikarpo». Eta onek, «Bai —erantzun eutsan—, ezagutzen zaitut, ezagutzen zaitut, Satanas'en leensemea zara-ta».

4. Ireneo'ren idazlanetan beste au be azaltzen da; Polikarpo'k Esmirna'n odol-eriotza igaro eban egunean, Ireneo Erroma'n egoala, turuta-otsa lako abotsa entzun eban, urrengo au iñoala: «Polikarpo'k odol-eriotza igaro dau».

5. Leen esan danez, ba, Ireneo'ren lanak Gaio'k idatzaldatu ebazan, eta Gaio'ren esku-idazkia Isokrates'ek idatzaldatu eban, Korinto'n. Eta nik, Pionio'k, nire aldetik, Isokrates'en esku-idazkitik idatzi neban; esku-idazki au, Polikarpo zorientsuaren agerpenez billatuta gero, urteak ia ezereztuta eukanean batu neban, neu be Jesukristo'k bere aukeratuakaz bere zeru-erreñuan batu nagian. Berari aintza Aitagaz eta Espiritu Santuagaz gizaldiz-gizaldi. Amen.

(*) Idatzaldatu: transcribir, copiar.



BERNABE'REN IDAZKIA

Alexandria'ko Klemente'k eta Orijenes'ek idazki au Bernabe Apostoluak egin ebal esanarren, Eusebio ta San Jeronimo ez baitan dagoz.

Gaur egunean, ostera, iñok be ez dau esaten Bernabe Apostoluarena danik, judatzatik kristau biurtu zan nor baitena baiño. Izan be, idazki au egin zan aldirako —70'etik 130'garren urte bitartean—, Bernabe Apostolua ilda egoan —62'garren urterako bai beintzat (1)—. Edozela be, berebiziko idazkia dogu leenengo kristauen istoria jakiteko. Ikusi dagigun:

1. *Agurra*.—Osasuna ta bakea, seme-alabok, maite izan gaituan Jaunaren izenean.

2. *Zetarako idazki au?*—Andiak eta aberatsak dira zuekanako Jaungoikoaren autorpenak. Orregaitik, neu be, poztu be poztu egiten naz zuen espiritu zoriontsu ta goragarrietan, zuen arimetan ereindako azia, espirituzko graziaren doaia Jaungoikoagandik artu dozue-ta (2).

3. Geiago pozten naz oraindiño neu salbatzeko itxaropenaz, Jaunaren iturburu aberatsetik zuen gaiñera isuritako Espiritua ikusten dot zuekan benetan-eta (3). Zarrada andia artu neban zuek ikusi zenduedazanean, zuek ikusteko gurari bizia neban-eta.

4. Zuei sarritan itz eginda gero, nire barruan zigur be zigur nago zuzentasun-bidean Jesus neugan ibili zala; eta neu be auxe egitera beartuta nago: nik zuek neure bizia baiño geiago maite izatera «Aren bizitzaren itxaropenaz» (4), zuekan bizi dan fedea ta maitasuna andia da-ta.

(1) Alexander txipretarrak diñoanez, Bernabe Apostoluak 53'tik 57'garren urte bitartean igaro eban odol-eriotza.

(2) Cfr. Tito, 3, 5-6.

(3) Cfr. Tito, 3, 5 eta urreng. Sant. 1, 21.

(4) Tito, 1, 2; 3, 5.

5. Beraz, zuen arimak lakoen ardur(e)a artuaz lortuko dodan saria gogoraturik eta nik artu dodana zuei emoteko aalegiñak egiñik, zuei labur-labur idazteko leiatu* nintzan, zuen fedez batera ezaguera* betea be izan dagizuen (5).

6. *Kristau-bizitza labur-labur.*—Baiña, iru dira Jaunaren esakerak: «bizitzaren itzaropena» (6), gure fedearen asiera ta amaia da-ta; zuzentasuna, auziaren asiera ta amia da-ta; poz eta alaitasunaren maitasuna, zuzentasunaren egi-taden autorra da-ta (7).

7. Izan be, Jaun Gorenak, bere profeten bidez, leengoa ta oraingoa eza-guerazo dausku, eta gerokoen atsegin-asikiñak aurretiaz emon dauskuz. Igar-kizunok Berak esan ebanek beteten ikusi doguzan ezkerro, espiritu bikaiñagoaz eta arduratsugoz Jaungoikoaganako bildurrean aurrera ekitea da gure egin-bearra.

8. Niri dagokidanez —maisur lez ez, zuetariko bat lez baiño—, une onetan zuentzat pozgarri diran benetako egiok irakatsi nai dautsuedaz.

II. *Aldi txarrak.*—Beraz, egunok txarrak diran ezkerro (8) eta indarra arerio bizkorren eskuetan (9), iratzarrik bizi ta Jaunaren erabagiak arduraz aztertu bear doguz.

2. Baiña, Jainkoaganako bildurra ta eroapena dira gure fede-laguntzaille, eta biotz-zabala ta negurria gure lagun.

3. Jaunaren aurrean onoinen (*birtute*) oneik akats bagarik sendo ba'dagoz, pozik dagoz arein ondoan jakituria, sena, jakintza ta ezaguera.

a) *Opariai buruz.*—4. Izan be, Jaunak bere profeta guztien bidez opari, erre-opari ta eskintza-bearrik ez dauala agertu dausku. Bein auxe diño:

5. «Niri zer —diño Jaunak— zuen opari-moltzo guzti ori? Ok eginda nau-ke zuen erre-opariak eta ez dot nai zuen ardien gantzik, ez zezenen eta akarren odolik. Ez etorri orrela nire aurrera. Izan be, nok eskatu dautse zuen eskuai orrelakorik? Ez etorri barriro nire aterperik zapaltzera. Urun garbia ekarten ba'daustazue be, uskeria da; iguingarri yat zuen intzetzua; gogaikarri yataz zuen ilbarri ta larunbatak» (10).

(5) «Ezaguera betea»: Alkartasun Zaarreko aginduen ezaguera.

(6) Tito, 1, 2; 3, 5.

(7) Cfr. Rom. 13, 10. Is. 12, 17.

(8) Cfr. Ef. 5, 16.

(9) Ef. 2, 2; Tes. 1.^a, 2, 9, 11.

(10) Cfr. Is. 1, 11-13.

(*) Leiatu: apresurarse. — (*) Ezaguera = gnosis: entendimiento espiritual.

6. Baiña, guzti ori Jaunak kendu egin eban (11), bearrizanaren buztar-pean (12) ez dagoan Jesukristo gure Jaunaren lege barriak giza-eskuk ez eginda-ko oparia izan egian.

7. Auxe dirautse barriro-ta: «Zuen gurasoi, Ejipto'tik urten ziranean, niri erre-opariak eta eskintzak egiteko agindu al-neutsen? (13).

8. Agindu au egin neutsen, ostera: Zuetariko batek be ez dagiala bere biotzean bere anaiaren aurka amorrurik izan eta ez dagizuela guzurrezko ziñik maite izan» (14).

9. Beraz, tentelak ez ba'gara, ulertu egin bear dogu gure Aitaren ontasun-erabagia: itz egiten dauskunean, ez dagigula bidea galdu nai dau, (judar) areik galdu ebenez, Beragana urreratu gaitzala baiño.

10. Olantxe egiten dausku itz: «Biotz damutua da Jainkoarentzat opari (15). Bera eratu dauana goratzen dauan biotza da Jaunarentzako usaingarri go-zoa» (16).

Beraz, anaiok, gure salbamenari buruzko ardura andia izan bear dogu, Gaiz-toak guzur-bidean sartu ez gagizan eta gure bizitzatik kendu ez gagizan.

III. b) *Baraucari buruz.*—Eta beste bein oni buruz auxe dirautse: «Ze-gaitik egiten daustazue barau —diño Jaunak— gaur egunean zuen abots-dea-darra entzun daiten? Ez da ori nik aukeratu neban baraua —diño Jaunak—, ez bere bizia nekatzen dauan gizona.

2. Zuen sam(e)a uztaia* lez makurtu eta zakuz jantzi ta autsetan etzun ba'zaitze be, ez esan orri barau gogoko» (17).

3. Guri, ostera, auxe dirausku: «Ona emen niretzat aukeratu neban baraua —diño Jaunak—: Bere arima makurtzen dauan gizona ez, beste au baiño: Askatu gaiztakerizko edozein lokarri, ausi estuntza zapalkorak, menpean dagozanak as-katu eta edozein itunben* donga urratu. Banandu zure ogia gose diranakaz; eta norbait billoizik ikusi ba'dagizu, jantzi egizu; artu etxean aterpe-bageari; apala ikusi dagizunean, ez baztatu, ezta zure odoleko senideakandik alde egin be.

4. Au egiten ba'dozu, egunsentia lez egingo dozu argi, eta zure soiñekoak dizdiz egingo dabe, eta zuzentasuna izango da zure aurrean, eta Jaunaren aintzak estalduko zaitu.

(11) Cfr. Efs. 2, 15.

(12) Cfr. Apost. Egiñ. 15, 19; Gal, 5, 1; Sant. 1, 25.

(13) Jer. 7, 22, 23.

(14) Zak. 8, 17; 7, 10.

(15) Sal. 50, 19.

(16) Cfr. Ef. 5, 2; Fil. 4, 18.

(17) Is. 58, 4, 5.

(*) Uztai: aro, arco. — (*) Itunben: contrato.

5. Orduan, deadar egingo dozu, eta Jaungoikoak entzun egingo zaitu; zuk itz egiten diarduzula, auxe esango dautsu: Emen nago, zugandik estukuntza* ta esku-zemak eta irain-itzak kentzekotan; zure ogia gose danari biotzez emote-kotan eta arima naigabetuari erruki izatekotan» (18).

6. Beraz, anaioak, Jaun biotz-zabalak bere *Seme* Maiteagan atondu eban erriak biotz bakunez sinistuko ebal aurretiaz ikusirik, guztia aurretiaz agertu euskun: guk arei jarraiturik, arein legean lertu ez gaitez.

IV. *Gaiztakeritik alde egin.*—Beraz, aldi au astiro azterturik, geure salba-menaren bideak billatu bear doguz. Iges egin dagigun, ba, zearo gaiztakeri-egin-tza guztietatik, gaiztakeri-egintzak iñoiz be lotu ez gagiezan. Iguindu dagigun aldi onetako galbidea, gerokoaren maitasuna jadetsi dagigun.

2. Ez dagiogun emon gure arimari pekatari ta gaiztoakaz batera arinka egi-teko askatasunik, euren antzeko biurtu ez gaitez.

3. Urr dago Gaizpide Betea, Henok'ek onetzaz idatzi ebanez (19). Izan be, Jaun Gorenak aldiak eta egunak laburtu egin dauz, bere Seme maitea biz-kortu ta bere solora etorri daiten (20).

4. Profetak be auxe diño: «Amar erreiñu izango dira nagusi lurtean; arein ondoren, errege txiki bat etorriko da, eta zartada bat az erregetariko iru beeratuko ditu» (21).

5. Era berean, orri buruz Daniel'ek auxe diño: «Eta laugarren pistia ikusi neban, okerra ta indartsua, eta lurreko beste pisti guztiak baiño ikaragarriagoa; eta aregandik amar adar urten ziran, eta aren zuzarretik adar txiki bat jaio zan, eta adar onek zartada bat az adar andietariko iru beeratu ebazan» (22).

6. Ulertu egin bear dogu, ba.

Alkartasuna geureu da.—Gaiñera, zeuetariko bat nazan ezker eta norke-ri bagarik guztiak neure arima baiño geiago maite zaituedan ezker, gauza bat es-katzen dautsuet: une onetan zeuen buruen ardur(e)a izan dagizueta eta ez zaite-zela batzuen antzeko izan, pekatuen gaiñean pekatuak pillatzen diarduela eta auxe esaten: judar arein Alkartasuna geurea be ba-da (23).

7. Geurea, bai; areik, oster, betiko galdu eben, esango dodanez, orduan Moises'ek artuta gero. Izan be, Liburu Santuak auxe diño: «Eta Moises men-

(18) Is. 58, 6-10.

(19) Henok'en liburu orrek, jatorra izan ezarren be, izen andia izan eban. Judas'ek be aitatzten dau bere Idazkian, 14'garren atalean.

(20) Cfr. Mat. 24, 6 eta 22.

(21) Dan. 7, 24.

(22) Ex. 31, 18; 34, 28.

(23) Dan. 7, 7, 8.

(*) Estukuntza: atadura.

dian egoan, berrogei egun eta berrogei gau barau egiten, eta Jaunagandik Al-kartasuna artu eban, arritolak*, Jaunaren eskuko atzamarras idatziak» (24).

8. Areik, oster, sasi-jainkoakana biururik, Alkartasun ori galdu egin eben. Izan be, olantxe diño Jaunak: «Moises, Moises! Jantzi zaitez arin, Ejipto'tik atara zenduan erriak pekatu egin dau-ta» (25). Eta Moises'ek ori ulertu eta es-kuetatik arritolak jaurti egin ebazan, eta arein Alkartasuna zatituta geratu zan, gure biotzetan Jesus maitearen beste Alkartasuna sillututa geratu zedin, Are-ganako itxaropen-fedean (26).

9. *Ez da naikoa Alkartasuna eukitea.*—Zuei gai asko idatzi nairik, zuen ondakiña izanarren be, ez naz arduratu maisu batek lez idatzen, maite dauan bati dagokionez baiño, guk daukagun ezertxo be bazartu bagarik. Beraz, zoli egon gaitez azken-egunotan. Izan be, gure fedea eta gure bizitzaldi guztiak ezetarako be ez dasku balio izango, orain aldi gaizto onetan eta datozen gaiz-pideetan Jaungoikoaren semeai dagokienez irauten ez ba'dogu.

10. Iges egin dagigun, ba, edozein uskeritik; zearo iguindu dagiguzan bide txarreko egintzak, gure arimetan Baltza irazi ez daiten. Ez bizi bakartsu, zeue-kan tolostuta, santututa bai'zengozen, bestetara baiño; guztiok batera baturik, aztertu egizue guztiok batera guztioi on yatzuena (27).

11. Liburu Santuak auxe diño-ta: «Zoritxarrekoak, euren ustez zuurrak eta euren eritziz jakintsuak diranak!» (28). Izan gaitez gizon espiritu-zaleak; izan gaitez Jaungoikoaren jauretze* bikaiñak (29). Aal dagigun guztian, jar-dun dagigun Jainkoaren bildurrean, eta aalegindu gaitez Aren aginduak bete-ten, Aren zuzenbideetan poztu gaitez.

12. Jaunak mundua norke-ri bagarik ebatziko dau (30). Bere egintzai dago-kienez artuko dau bakoitzak ordaiña (31). Gizona ona izan ba'da, bere zuzenta-sunak aurrea artuko dautso; gaiztoa izan ba'da, gaiztakeriaren ordaiña be aurre-tik joango yako (32).

13. Kontuz, gero! Ez gagizala loak artu gure pekatuen gaiñean, deituak bai'gintzazan (33): nagusi gaiztoak, gure aurka indarra arturik, Jaunaren errei-ñutik urrunera bultz egin ez daskun.

(24) Pekaturik ez egiteko diño, ustea Jainko-agintzarietan jarritik, judarrak egiten ebenez.

(25) Ex. 32, 7; Deut. 9, 12.

(26) Cfr. Ebert. 8, 7.

(27) Kor. 1.^a, 11, 20.

(28) Is. 5, 21.

(29) Kor. 1.^a, 3, 13, 16.

(30) Pedr. 1.^a, 1, 17. Cf. Rom. 2, 11; Gal. 2, 6.

(31) Kor. 1.^a, 3, 8. Ps. 61, 13.

(32) Pedr. 2.^a, 2, 13.

(33) Cfr. Mat. 25 eta urreng.

(*) Arritolak: tablas de piedra. (*) Jauretze: templo.

14. Gaiñera, nire anaiok, erabili egizue au gogotan: Israel'en egindako ainbeste ezaugarri ta mirari ikusi dozuezanarren, alan be bertan-beera itziak izan diralarik, zoli ibili gaitazan: idatzita dagoanez, geure artean be «deituak asko, baiña aukeratuak gutxi» (34) egon ez daitezana.

V. *Erospenaren grazia*.—Jaunak ondo igaro ditu nekeak bere aragia ondamendira eroateko, pekatuen parkamenaren bidez gu garbituak izan gaitazan; ori, bere odol-txipristiñaz egiten da (35).

2. Ari buruz, Liburu Santuak egiten dau itz, naiz Israel'entzat naiz geuretzat, eta onela diño: «Geure gaiztakeriakaitik izan zan zauritua eta geure pekatuakaitik oiñazetua. Aren zauriakaz izan gintzazan osatuak. Ardia lez izan zan iltera eroana, eta bildotsa moztaillearen aurrean lez mututuko da (36).

3. Geure eskerronik beroena emon bear dautsagu, ba, Jaunari, igarotako aldia jakiñerazo euskuluko, oraingoari buruz irakatsia emon euskulako (37), eta gerokorako adimena emon bagarik ez gagozalako.

4. Liburu Santuak auxe diño: «Ez da bidebagekeria egaztiai sarea jar-tea» (38). Orrek auxe adierazoten dau: Zuzentasunaren bidea jakiñik, illunpeeta-ko bidea artzen dauan gizona, errazoiz galduko dala.

5. Beste gai bat, anaiok: Jaunak nekaldia geure bizitzagaitik (arimagaitik) igaro ba'dau, mundu guztiaren jabe izanik, munduaren asieran Jau-goikoak ean eutsan ezkerok: «Egin dagigun gizona geure antz eta irudiko» (39), zelan artu dau ontzat au jasatea (sufritzea) gizonen eskuetatik? Ikasi egizue:

6. Profetak, grazia Aregandik euken ezkerok, igarpenak Ari buruz egin ebezan. Izan be, eriotza kentzeko ta illen biztuera baiezteko (egiztatzeko), bere burua aragitan agertu bear izan eban.

7. Eta orrexegaitik igaro ebazan nekeak, gure gurasoai (aurretikoai) egindako agintzaria beteteko, bere burua gertatzeko, eta, lur-gaiñean egonik, illen biztuera Berak egingo ebala eta illak Berak ebatziko ebazala baiezteko.

8. Azkenez, Israel'i irakatsia emonik eta ainbeste mirari ta ezaugarri egi-ñik, Israel'i iragarri ta bere maitasun negurriz-gaiñekoa agertu eutsan.

9. Gero, Beretzat bere Apostoluak (edo mandatariak) aukeratu ebazan, bere Ebanjelioa iragarri bear ebenak, enparaduak besteko gizon pekatariak (40)

(34) Mat. 20, 16; 22, 14.

(35) Cfr. Ebert. 12, 22-24; Pedr. 2.^a, 1, 16.

(36) Is. 53, 5, 7.

(37) Cfr. Tim. 2.^a, 3, 15; Pedr. 2.^a, 1, 16; Ikazio: *Esmirn.* 1, 1.

(38) Prov. 1, 17.

(39) Gen. 1, 26.

(40) Cfr. Mat. 9, 9, 13; Luk. 5, 8 (Pedro); Kor. 1.^a, 1, 15, 9; Tim. 1.^a, 1, 15 (Paulo).

—«ez zala zintzoai dei egitera etorri, pekatariak baiño» (41) adierazoteko—, orduan bere burua Jaungoikoaren Seme lez agertu eban.

10. Izan be, aragitan etorri ezik, zelan salbatuko ziran gizonak, begiak jaso ta eguzkiaren ditzirak begiratzeko ez dira gauza-ta? —Eguzkia ezerezera biurtuko da, eta Aren eskuen lana da— (42).

11. Beraz, Jaungoikoaren Semea aragitan etorri ba'da, euren profetak eriotzaragiño aurrean erabili ebezanean pekatuen negurri osoa beteteko izan zan (43).

12. Or ba, zegaitik eroan ebazan nekeak. Izan be, bere aragiaren zauria arekandik datorrela diño Jaungoikoak: «Euren artzaiña zauritu dagiñean, orduantxe ondatuko dira artaldeko ardiak» (44).

13. Berak nai izan eban onetara sufritzea, bearrezkoa zan gurutzeko egurrean sufritzea-ta. Izan be, Aretzaz aurretiaz iragarri ebanak auxe diño: «Zaindu egizu nire arim(e)a ezpatatik» (45); baita au be: «Zulatu egizuz untzeakaz alde batetik bestera nire aragiak, gaiztoen batzarrak neure aurka jagi dirata» (46).

14. Eta beste bein auxe diño: «Begira: zigorkadai sorbald(e)a emon neutsen, eta matraillakoi matraillak; nire arpegia arri gogor lez ipiñi dot» (47).

VI. *Jaunaren Nekaldiaren asiera*.—Eta, zer diño Aitaren agindua beteko dauan aldiari buruz? «Nor da ni ebazten nauana? Jarri beite nire aurrean. Edo, nok dau niri auzia egiteko asmorik? Urreratu beite Jaunaren morroiagana.

2. Zure zoritxarra!, guztiok soiñekoa lez zaartuko zaree eta sitsak jango zaitue-ta» (48). Eta Kristo'a gogortasun-arri aaltsu bat lez jarria izango dan aldiari buruz, profetak barrero auxe diño: «Begira: Sion'go oiñarrietan arri balio-tsu, aukeratu, giltzarri eder eta bikaiña jarriko dot» (49).

3. Eta gero auxe diño: «Ustea arri orretan jarri dagiana, betiko bizi izango da» (50). Arri baten ete-dago, ba, gure itxaropena? Ezela be ez. Beste au adierazoten dau: Jaunak bere aragia arria lako gogorra egin ebala. Izan be, auxe diño: «Eta arri lez ipiñi nenduan» (51).

(41) Mat. 9, 13.

(42) Jaungoikoa, izan be, ezin ikusi daike iñok ezela be.

(43) Cfr. Mat. 23, 31, 32. Luk. 11, 60.

(44) Zak. 13, 6, 7; Cfr. Mat. 26, 31.

(45) Ps. 21, 21.

(46) Ps. 118, 120; 21, 17.

(47) Is. 50, 6, 7.

(48) Is. 50, 8, 9. «Jaunaren agindua», edo bardin dana, aragitan sufritzea. Cfr. Ebert. 1, 6.

(49) Is. 28, 16. Cfr. Rom., 9, 33; Pedr. 1.^a, 2, 6.

(50) Is. 28, 16.

(51) Is. 50, 7.

4. Eta profetak auxe diño barriro: «Etxegilleak baztartutako arria, orain bera da giltzarri» (52). Eta beste bein auxe diño: «Jaunak egin eban egun andi ta miragarria da au» (53).

5. Lau-lau idazten dautsuet, obeto ulertu dagizuen, neuk idatzi be, zuen goi-maitasunaren ondakiña nazan onek (54).

6. Zer diño geiago profetak? «Gaiztakeri-talde batek inguratu nenduan» (55); «erlak ezti-orrazia lez inguratu nenduen» (56); «Nire soiñekoa zotzetara egin eben» (57).

7. Beraz, Jaunak aragitan agertu eta nekeak igaro bear ebazan ezker, aurretiaz izan zan agertua bere nekaldia. Izan be, Israel'i buruz profetak auxe diño: «Arein arimaren zoritxarra!, euren buruen aurka artu dabe asmo gaiztoa-ta. Lotu dagigun zuzena, gogaikarri yaku-ta» (58).

8. Zer dirautse beste profetak, Moises'ek? «Ona emen Jainko Jaunak diñoana: Sartu zaiteze Jaungoikoak Abraham'i, Isaak'i eta Jakob'i zin eginda agindu eutsen lurralde onean; artu egizue ondoretzat (senipartetzat) esnea ta ezti darion lurralde ori» (59).

9. Zer diño ezaguerak? Ikasi egizue: «Itxaron egizue —diño— Jesus'egan, aragitan agertu bear yatzue-ta». Izan be, gizona lur da, nekeak igaroteko lain, Adan lur-azaletik izan zan eratua-ta.

10. Baiña, zegaitik diño: «Sartu zaiteze esnea ta ezti darion lurralde onean?» Bedeinkatua gure Jauna, anaiok, bere misterioen jakituria ta ulertzea emon dauskuzalako. Izan be, profetak Jaunaren antz-ipuin (edo parabola) bat jarten dausku. Nok ulertuko dau, jakitunak eta burutsuak eta bere Jauna maite dauanak izan ezik? (60).

11. Beraz, gure pekatuen parkamenaren bidez gu barrizturik, Jaunak beste era bateko gizon biurtu gaitu, ume-arima eukiteragiño, barriro egin bai'gen-duzan.

12. Izan be, Jaungoikoak bere Semeari Liburu Santuak geutzaz esan eban berbera dirautso: «Egin dagigun gizona geure antz eta irudiko, eta lurreko abe-

(52) Ps. 117, 22.

(53) Ps. 117, 23-24.

(54) Cfr. IV, 9.

(55) Ps. 21, 17.

(56) Ps. 117, 12.

(57) Ps. 21, 19.

(58) Is. 3, 9-10; Cfr. Sap. 2, 12.

(59) Ex. 33, 1, 3; Lev. 20, 24.

(60) Ebert. 3, 7-4, 11.

reai, zeruko egaztai ta itsasoko arraiñai nagusi izan dakiela» (61). Eta gure itxura ederra ikusita gero, Jaunak auxe esan eban gaiñera: «Azi ta ugaritu zaiteze eta bete egizue lurra» (62). Itzok bere Semeari esan eutsazan.

13. Baiña, adierazo be egingo dautsut, guri zelan dirauskun. Bigarren krea-ziñoa azkenaldi onetan bete eban. Izan be, auxe diño Jaunak: «Begira: leenengoa lez egiten dot azkena be» (63). Gero, onetzaz, profetak auxe iragarri eban: «Sartu zaiteze esnea ta ezti darion lurraldean, eta aren jabe egin zaiteze!» (64).

14. Beraz, bigarrenez eratuak izan gara, beste profeta baten bidez barriro diñoanez: «Begira —diño Jaunak—: orrei —edo bardin dana, Jaunaren Espirituak aurretiaz ikusi ebazan orrei—, arrizko biotzak kendu eta aragizko biotzak sartuko dautsedaz» (65). Izan be, Bera (Kristo'a) agertu bear eban aragitan eta geugan bizi.

15. Eta izan be, ene anaiok, jauretxe (eliza) santua da Jaunarentzat gure biotzeko bizitokia (66).

16. Gero, Jaunak beste idatz-atal baten auxe diño (67): «Nun aurkeztuko naz nire Jaungoiko Jaunagana eta non izango naz goratua?» Eta auxe erantzuten dau: «Neure anaien batzarrean autortuko zaitut eta santuen batzarrean ereserkiak* abestuko dautsudaz» (68). Beraz, geu gara Jaungoikoak bere lurraldera eroan gaituanak.

17. Baiña, zer esan nai dau «esne ta eztiak»? Umea, leenen, eztiak azten dala, eta gero esneaz; eta geu be, era berean, agintzariaren fedez eta jaungoiko-kozko itzaz janariturik, lurraren jabe izanik bizi izango gara.

18. Esan eban Jaunak aurrerago: «Azi ta ugaritu beitez, eta arraiñai agindu begitsee» (69). Baiña, nok dauko orain abereai, arraiñai, naiz zeruko egaztai agintzeko aal-izaterik? Ulertu dagigun «agintzeak» nagusitza adierazoten dauala eta nagusitzak indarrez menperatzea.

19. Ori orain beteten ez danarren be, esan yakun noiz beteko dan: Jaunaren Alkartasunaren oiñordekotasuna artu aal izateko bikaiñak izatera eltzea lortu dagigunean.

(61) Gen. 1, 26.

(62) Gen. 1, 28.

(63) Esanaldi au *Didascalia*'n agertzen da, antzera dakar Ipolito'k: *In Daniel*, IV, 37. Itz egiten dauan Jauna, Kristo'a da. Cfr. Mat. 19, 30 eta 20, 16. Is. 43, 18-19. Kor. 2.^a, 5, 17; Apoc. 21, 5.

(64) Ex. 33, 3.

(65) Ezek. 11, 19; 36, 26.

(66) Ef. 3, 17. Cfr. Iñazio: *Ef.* 9; Kor. 1.^a, 6, 19; Pedr. 1.^a, 2, 5.

(67) Ps. 41, 3.

(68) Ps. 21, 23; Ebert. 2, 12.

(69) Gen. 1, 26, 28. Cfr. Pedr. 2.^a, 3, 13.

(*) Ereserki: himno.

VII. *Jesukristo, oparigaia* (70).—Beraz, erabili gogotan, pozaren anaiok!, Jaunak dana aurretiaz agertu dauskuna, gauza guztiakaitik esker-emotea ta gorapena nori emon bear dautsagun ulertu dagigun.

2. Beraz, Jaungoikoaren Semeak, Jabea ta «bizien eta illen geroko Ebazlea» (71) izanik, bere zauriak gu bizkortzeko nekeak igaro ba'ebazan, sinistu dagigun Jaungoikoaren Semeak geugaitik baiño ezin sufridu egikeala.

3. Gurutzean josita egoala, edarizat ozpiña ta beztuna emon eutsoezan (72). Entzun egizue zelan esan eben au Jauretxeko abadeak. Jaunak Liburu Santuan urrengo au agindu eban: «Baraua barau egin ez dagiana, eriotzaz izango da ondatur» (73); Berak (Jaunak) eskiñi bear izan eban gure pekatuen oparizat bere espirituaren (*bere gorputzaren*) edontzia (edo kaliza) eta altara-gaiñean eskiñitako Isaak'en irudia batera bete (74).

4. Eta, zer diño Profetaren bidez? «Eta jan begie pekatu guztiakaitik barau-egunean eskiñitako akerritik». Aditu ondo: «Eta abadeak, eurak soillik, jan begiez esteak ozpiñaz garbitzeke» (75).

5. Zetarako? Ain zuzen be, «niri, erri barriaren pekatuakaitik neure aragia eskiñiko dodan oni, ozpiñaz naastutako beztuna emongo daustazue edaten» (76); zeuek soillik jan egizue, erriak barau egiten eta zaku ta autsetan bularra joten diarduan artean, Berak (Kristo'k) arekaitik neke andiak igaroko ebazala adierazoteko.

6. Aditu agindu ebana: «Artu egizuz aker bi, eder eta alkar-antzekoak, eta eskiñi egizuez oparizat; eta abadeak areitariko bat artuko dau pekatuakaitik oparizat» (77).

7. Eta, zer egingo dautsoe beste akerrari? «Ori, madarikatua izan daite-la» (78), diño. Konturatu zaiteze zelan agertzen dan emen Jesus'en irudia.

8. Txistua bota egiozue guztiok, ziri egiozue ta batu egiozue burua akerule gorribiziaz; eta alan, basamortura jaurtia izan daitela (79). Guzti ori eginda, akerra daroanek basamortura zuzentzen dau, ulea kentzen dautso ta sasia deritzon landara baten gaiñean ipinten dau —onen frutuak (masustak) basoan aurkitzen doguzanean jaten doguz; sasi-frutuak (masustak) soillik dira gozatsuak.

(70) Atal onetan, Kristo'k nekeak gaugaitik igaro bear ebazala azaltzen da. Judarrak oker egozan, Mesias'ek bere erregetza lur onetan jarriko ebala uste izanik.

(71) Cfr. Klemenere'ren 2.^a, I, 1; Polikarpo: *Filip.* 21, 1.

(72) Mat. 27, 34, 48; Mark. 15, 23.

(73) Lev. 23, 29.

(74) Cfr. Ebert. 5, 1; 9, 11-14 eta 9, 24-28.

(75) Cfr. Num. 29, 11; Ex. 29, 32, 33.

(76) Mat. 27, 34, 48.

(77) Lev. 16, 7, 9. «Eder eta bardintsuak» ez dator Liburu Santuaren ataltxoan.

(78) «*Madarikatua*»: txerrenburua, Satanas.

(79) Cfr. *Mischna*, *Joma* VI, 4-6.

9. Eta, zer esan nai dau guzti onek? Ona emen azalpena: «Bata, altaran; bestea, barriz, madarikatuta». Ain zuzen be, madarikatua izan zana, koroetua da. Izan be, orduan, egun aretan, bere aragian soingaiñeko gorria daroala ikusiko dabe, eta, «Ez al-da au —esango dabe— egun baten guk gurutzean josi genduana, baztartu, zauritu ta txistuz beteta gero? Benetan, berau da orduan Jaungoikoaren Semca zala esaten ebana» (80).

10. Baiña, zegaitik «aker bata bestearen bardintsua?» «Akerrak alkar-antzekoak, ederrak eta bardintsuak» (81), Jesus etorten ikusi dagien egunean, akerraren antzagaitik arrituta geratu daitezcan. Ikusi egizue, ba, or akerra, nekeak igaroko ebazan Jesus'en irudia.

11. Azkenez, zegaitik ipinten eben aker-ulea arantza-arteant? Orra or Elizarentzat jarritako Jesus'en beste irudi bat. Aker-ule gorribizia eroan nai dagianak, neke gorriak igaro bear izango dauz; izan be, bildurgarriak dira arantzak, eta naibageen ordaiñaz bakarrik egingo da aker-ulearen jabe. Olan —diño Jaunak—, ni ikusi ta neure erreñua lortu nai dagienak, atsekabeak eta oiñazeak igaro bear dabez ni artzeko (82).

VIII. *Jesus, oparigai garbitzaillea*.—Zeren antz-irudi dala, uste dozue, Israel'i emondako agindu au: pekatu andiak dabezan gizon errudunak bigantxa bat eskiñi bear dabela, il eta erre, gero umeak errautsa artu, ontzietara jaurti, egur bat aker-ule gorri-biziaz batu —ikusie egizue barriro be Gurutzearen irudia ta aker-ule gorri-bizia—, eta, azkenez, umeak erri guztia, banan-banan, txipristindu dagiela, arein pekatuetatik garbitzeko? (83).

2. Begira: lau-lau dirausku Jaunak: bigantxa, Jesus'en irudi da; bigantxa eskintzen daben gizon pekatariak, Jesus eriotzara eroan ebenak dira. Beraz, igaro dira gizonak, igaro da pekatuaren aintza.

3. Txipristintzen diarduen umeak, gure pekatuen parkamenaren Barri Ona eta biotzaren garbikuntza ekarri euskuezanak dira, Jaunak Ebanjelioaren indarra emon eutsenak Barri Ona iragarteko; eta amabi dira, leiñuen (tribuen) autortzat —Israel'go leiñuak amabi dira-ta—.

4. Eta, zegaitik dira iru, txipristentzerako erabilitako umeak? Abraham, Isaak eta Jakob Jaungoikoaren aurrean gizon andiak dirala autortzeko.

5. Eta, zer adierazoten dau aker-uleak egur-gaiñean? Jesus'en erregetza egur-gaiñean (Gurutzean) dagoala, eta ustea Aregan dabenak, betiko bizi izango dirala.

(80) Cfr. Sap. 5, 3-5; Mat. 27, 28, 30.

(81) Lev. 16, 8.

(82) Azken-esanaldi au ez da Bibliako ataltxoa, leen esandako guztiaren laburpentxo baño.

(83) *Mischna*, «Para», III, 1-11. Cfr. Num. 19, 7-8.

6. Azkenez, zegaitik aker-ulea ta isopua batera? Aren erregetzaldian egun txarrak eta loiak izango diralako, eta gu salbatu egingo gara: norbere aragitan nekeak igaroten dauzana, isopu-gunaz* osatzen da-ta.

7. Eta orregaitik, egintza oneik guretzat argi dagoz; areintzat (judarren-tzat), barriz, oso illun, Jaunaren abotsa entzun ez dabelako.

IX. *Benetako erdaintzuntza**: *belarrietakoa ta biotzekoa*.—Izan be, barriro diño belarriai buruz, geure biotza erdaintu dauala diñoanean. Auxe agertzen dau Jaunak profetaren bidez: «Entzunaz batera, esana egiten eusten» (84). Eta beste bein be ba-diño: «Urrun bizi diranak, euren belarriz entzungo nabe eta neure egintzak jakingo dabez» (85). Eta, «zeuen biotzak erdaintu egizuez» —diño Jaunak— (86).

2. Eta beste bein profetak: «Entzun, Israel, Jainko zure Jaunak auxe diño-ta». Eta barriro Jaunaren Espirituak aurretiaz diño: «Nor da betiko bizi nai dauana? Entzun begi bere entzumenaz nire otseñaren abotsa» (87). Eta barriro: «Entzun, zeru orrek, eta aditu zuk, lur orrek, Jaunak egiok autortzat esan ditu-ta» (88). Eta beste atal baten: «Batu egizue Jaunaren itza, erri onetako nagusiok» (89), eta, «Aditu, semeok, basamortuan deadarka diarduan abotsa» (90). Beraz, entzumena erdaintu dausku: Aren itza entzunik, guk fedea izan dagigun.

4. Baiña, erdaintuntzari buruz —judarrak erdaintuntzan ezarri eben euren ustea—, erdaintuntza kendua izan da. Izan be, Jaunak erdaintuntza egin bear zala esan eban, bai, baiña ez aragiarena; areik, barriz, aingeru gaiztoak lillurata, ausi egin eben Aren agindua.

5. Auxe dirautse: «Ona emen zuen Jainko Jaunak diñoana —ementxe aurkitzen dot nik agindua—: «Ez egizue erein arantza-artean; zeuen Jaunarentzat erdaintu zaitez» (91). Eta, zer diño geiago? «Erdaintu zuen biotzeko zitalkeria eta ez gogortu zuen lepondoa» (92). Entzun orain beste au: «Begira —diño Jaunak—: errialde guztiak aragitan erdaintbageak dira; erri au, barriz, biotzean da erdaintbagea» (93).

(84) Ps. 17, 45.

(85) Is. 33, 13.

(86) Jer. 4, 4; 7, 2, 3.

(87) Ps. 33, 13; cfr. Ex. 15, 26 edo Deut. 15, 5.

(88) Ps. 1, 2.

(89) Ps. 1, 10.

(90) Is. 40, 3.

(91) Jer. 4, 3, 4.

(92) Deut. 10, 16.

(93) Jer. 9, 25, 26.

(*) Isopu-gun: savia del hisopo.

6. Baiña, auxe esango dozue: Erri onen erdaintuntza Alkartasunaren ezau-garrizat da (94). Alan be, edomitarrak (siriarrak) eta arabiarrek eta guzurrezko jainkoen abade guztiak erdaintu egiten dira (95), Beraz, areik be euren alkartasunarenak dira. Ejiptoarrak be egiten dabe erdaintuntza.

7. Beraz, maitasunaren semeok, ikasi egizue oparo auzi oni buruz: Abraham'ek —erdaintuntza leenen egin ebanak— Jesus'eganantz espirituz aurretiaz begiraturik erdaintu ebazan bere etxeokak, iru izkiren (letraren) irudiak arturik.

8. Izan be, Liburu Santuak auxe diño: «Eta Abraham'ek bere etxeok iru-reun eta amazortzi gizonezko erdaintu ebazan» (96). Zein izan zan, ba, emon izan yakon ezaguera mistikua (edo gnosis)? Ona emen: leenen, *amazortziak* jarten dauz, eta une baten ostean, *irureunak*. Amazortzi (gerkeraz), I = amar, eta H = zortzi, izkiakaz (letrakaz) idazten da: ona emen IHSOUS'en (Jesus'en) izena. Baiña, Gurutzeak grazia T'ren irudia euki bear eban ezkerok, «irureunak» (= T) jarri ebazan gaiñera. Beraz, izki bietan Jesus'en izena agertzen da, eta bestean Gurutzea.

9. Ondo daki ori bere irakatsiaren doia geugan mentatu eban Arek: Iñok be ez dau ikasi nigandik itzaldi jatorragorik; ba-dakit, orraitiaño, zuek orren duin ba-zareena.

X. *Janariak*.—«Oneixek dira jan bear ez dozuezan abereak: txarria, arra-noa, mirusaia, bel(e)a, ezkata bagako arraiñak», Moises'ek esan ebanean, bere adimenak irakatsi irukoitzta artu eban (97).

2. Geroago, Jaunak auxe dirautse Deuteronomio'n: «Orain nire erriari neure erabagiak irakatsiko dautsadaz» (98). Beraz, Jaunaren agindua ez dago janari batzuk ez jatean; Moises'ek espirituz egin eban itz.

3. Txarriari buruz, barriz, auxe adierazo nai izan eban: «Ez zaitez batu —diño— txarrien antzekoak diranakaz; edo bardin dana, atsegiñetan dagozanean, Jaunaz aaztu egiten dira, eta euren buruak beartsu ikusten dabezanean, Jauna ontzat artzen dabe; txarriaren antzera; txarriak, beteta dagoanean, ez dau bere jabea ezagutzen; baiña gose danean, kurrinkaka asten da, eta janaria artuta gero, isildu egiten da barriro (99).

4. *Arranorik, mirusairik, mirurik, ez belarik be ez dozu jango*. Onek auxe adierazoten dau: ez zaitez batu bizitza euren lanaz eta izerdiaz irabazten ez dakien gizonakaz, ezta arein antzeko be ez zaitez izan, euren dongakeritan iño-

(94) Cfr. Rom. 4, 11.

(95) Cfr. Jer. 9, 25-26.

(96) Gen. 17, 23, 27; XIV, 14.

(97) Cfr. Lev. 11; Deut. 14.

(98) Deut. 4, 1, 5.

(99) Cfr. Lactantius: *Inst. Div.*, IV, 7, 18-21.

rena lapurtzen dabe, ostera; errubage lez dabiz ibili, baiña alde guztietara begiratzeko dabe, euren zekenkeriaren bidez edonor murrizteko, egazti onein antzera: egazti oneik dira eurentzako janarien ardurarik artzen ez daben egazti bakarrak, eta nagi-nagi jesarrita, besteren okelak zanpa-zanpa jateko era egokiaren billa ibiltzen dira, euren maltzurkeriagaitik kaltegarri utsak dirala.

5. *Morearik**, ez *olagarrik**, ez *potarik** be ez dozu jango —diño—. Edo bardin dana: ez zaite batu gizonakaz, ezta arein antzeko be ez zaitez izan; dongeak dira biziro eta oraindik dagoz eriotzarako galduta; madarikatu bakarrak diran arrain oneik itsas-barruan ibiltzen dira eta ez dabe beste arraiñak lez ingirian egiten, barrengo lurtean bizi dira, ostera.

6. *Baiña, erbirik be ez dozu jango*. Zegaitik ez? Orrek auxe adierazoten dau: Ez zara ume-galtzaille izango, ez arein antzeko be ez zara izango (100). Izan be, erbiak bere ipurdia urte oro ugaritzen dau: bizi dan urteak beste izaten ditu zuloak-eta (101).

7. *Ienaren** okelarik be ez dozu jango (102). Onek auxe adierazoten dau: Ez zara ezkon-ausle, ez ume-galtzaille izango, ezta orrekin antzeko be. Zegaitik? Abere au bere izakundean* aldatu egiten dalako urte oro: urte baten arra da, bestean eme (103).

8. Bidezko amorruez *iguindu eban* Moises'ek *katamixarra be* (104). Batzuek, entzun dogunez, euren agoz gaiztakeri lizunak egiten dabez; ez zaitez alakoan antzeko izan; eta ez zaitez batu euren agoan gaiztakeria egiten daben andrazko lizunakaz. Izan be, abere orrek muturretik sortzen dau (105).

9. Beraz, Moises'ek irakatsi irukoitza artu izan eban, eta onela espiritu-eraz egin eban itz; baiña areik (judarrak) aragi-eraz ulertu eban, janariari buruz bai'litzan.

10. Dabid'ek be iru irakatsi bardintsuotatik artzen dau espiritu-ezaguera, eta onetaraxe diño: «Zoriontsua gaiztoen asmoari jarraitu ez dautsan gizona» —itsas-barruan illunpetan dabizan arraiñen antzera—, «pekatarien bidean geratu ez dana» —Jaunari bildur dautsoela dirudien antzera, baiña txarriak lez egiten

(100) «Ume-galtzaille» = corruptor de niños: batzuen eritiz, sein-galtzea (aborto) da; beste batzuntzat, barriz, umekiko lizunkeria, edo-ta sodomakeria.

(101) Teori nabarmen bat antxiñakoen artean.

(102) Bibliak ez dakar orrelakorik.

(103) Teori nabarmen au be antxiñakoen artean naikoa zabaldua egoan: cfr. Aelianus, Vano, Plinius...

(104) Lev. II, 29.

(105) Ikusi aurreko teori nabarmenak. Cfr. Aelianus: *Historia nat. anim.*, II, 55.

(*) Morea: morena (arrain bat). — (*) Olagarro: pólipo, pulpo. — (*) Pota: jibia; Bizkaia'n «potxa» be esaten da. — (*) Iena: hiena. — (*) Izakunde: naturaleza, sexo.

dabe pekatu—, «ezta galdukeri-aulkian be jarri ez zana» (106) —arrapakiñaren zain jesarrita dagozan egaztien antzera—. Or dozue janariari dagokiona zearo esanda.

11. Moises'ek berrero be auxe diño: «Edozein abere apatx-bikoitz eta ausnartzaille jan daikezue» (107). Zer adierazoten dau? Abereak, bere janaria artzen dauanean, janaritzen dauana ezagutu egiten dauala, eta janariak bizkortuta, poztu egiten dala dirudi. Ondo be ondo etorri da erabagi au. Zer da, ba, adierazoten dauana? Auxe: batu zaiteze Jaunari bildur dautsoenakaz, artu izan eban itzaren agindua euren biotzean ausnartu ebanakaz, Jaunaren erabagiak aiatatu ta beteten dabenakaz, gogartea* poztasun-lana dala dakienakaz eta Jaunaren itza ausnartzen dabenakaz. Baiña, zer adierazoten dau *apatx-bikoitz* orrek? Auxe: zuzena mundu onetan ibiliarren, betikotasun santua be itzaroten dauala. Begira Moises'ek emon eban legedi ona! Areik (judarrak), ostera, nondik artuko eban olako misterioen aditze ta ulertzea?

12. Guk, ostera, zuzen ulerturik, Jaunak nai izan dauanez azaltzen doguz aginduak; izan be, au ulertu dagigun, gure belarriak eta biotza erdaindu egin ebazan.

XI. *Bateo-ura Alkartasun Zaarrean*.—Aztertu dagigun orain, ea urari ta Gurutzeari buruz Jaunak guri zerbait aurretiaz agertzeko ardur(e)a izan eban. Urari buruz, auxe dago idatzita Israel'en aurka: pekatuen parkamena dakarren bateoa onartu bearrean, beste garbiketa batzuk egingo ebezala eurentzat.

2. Izan be, profetak auxe diño: Ikaratu zaiteze, zeruok, eta arritu zaitez, lur ori, orrenbestez, erri onek gaiztakeri bi egin ditu-ta: Ni, biziaren iturri, bertan-beera itzi nau, eurentzat eriotz-urtegi sakona egiñik» (108).

3. Aitz lagun-bagea al-da nire Sion'go mendi santua? Abiatik jaurtita egaz doazan txorikumeen antzekoak izango zaree-ta» (109).

4. Eta auxe diño berrero profetak: «Neu joango naz zure aurrean, mendiak lautzen, brontzezko ateak zapaltzen, burdi-agak austen; eta ondasun ezkutuak, ostenduak eta ikusten ez diranak emongo dautsudaz, Ni Jaun eta Jainko nazana jakin dagizun» (110).

5. Eta «aitz gogorreko zulo goitsuan bizi izango da, iturburu zigurraz. Erregea bere aintzaz ikusiko dozue, eta zuen arim(e)ak Jaunaganako bildurrari buruz ausnartuko dabe» (111).

(106) Ps. I, I.

(107) Lev. II, 3; Deut. I4, 6.

(108) Jer. 2, I2, I3.

(109) Is. I6, I, 2.

(110) Jer. 45, 2, 3; Ps. I06, I6.

(111) Is. 33, I6-I8.

(*) Gogarte: meditación.

6. Eta beste profeta baten bidez Jaunak auxe diño barrero: «Ori egin dagiana, ur-ertzean landatutako zugatzaren antzeko izango da: aldi egokian frutua ekarriko dau, eta aren orriak ez dira jausiko, eta egin dagian edozer ondo jatzoko yako.

7. Ez orrela gaiztoak, ez orixe!; lur-gaiñetik aizeak daroan autsa lez izango dira. Orregaitik, ez dira gaiztoak Auzian zutunduko, ezta pekatariak be zintzoen batzarrean: zintzoen bidea Jaungoikoak ba-daki-ta; gaiztoen bidea, barriz, ondatu egingo da» (112).

8. Konturatu zaitez zelan egin eban itz, batera, urari ta Gurutzeari buruz. Izan be, adierazo nai dauana urrengo au da: Zoriontsuak, euren ustea Gurutzean jarririk, bateo-uretara jatsi ziranak; arein saria aldi egokian izango dala diño-ta: orduantxe emongo dot ordaiña, diño. *Arein orriak ez dira jausiko* diñoanean, auxe adierazoten dau: Zuekandik, zuen agotik, fedez eta maitasunez urten daiten edozein itz, askoren damurako ta itxaropenerako izango da.

9. Eta beste profeta batek auxe diño gaiñera: «Eta Jakob'en lurraldean lur guztian izan zan goretsia» (113). Auxe adierazoten dau: Jaunak bere Espirituaren edontzia goretsi egiten daua.

10. Zer diño gero? «Eta eskumaldetik urak urtetan ziran ibai bat egoan, eta ibai-ertzean zugatz ederrak jagiten ziran; eta zugatz areitatik jan dagiana, beti-betiko bizi izango da» (114).

11. Orrek auxe adierazoten dau: gu pekatuz eta loiz beterik jatsiten garala bateo-uretara, eta gure biotzean frutua dakargula igoten garala, gure biotzean Jaungoikoaganako bildurra izanik eta espirituan Jesus'egan itxaropena. Eta *zugatz areitarik jan dagiana, beti-betiko bizi izango da* esanaldiak, auxe adierazoten dau: egiok entzun eta sinistu dagizana, beti-betiko bizi izango dala (115).

XII. *Gurutzearen irudiak Alkartasun Zaarrean* (116).—Beste bein be orrelatsu azaltzen dau Gurutzea beste profeta baten bidez: «Eta noiz beteko da au? Jaunaren erantzuna: Egurra lurrera makurtu eta barrero gora jagi daitenean, eta egurretik odol-tantak jausi daitezanean» (117); itzok Gurutzeari dagokioz eta gurutzean josia izan bear ebanari.

2. Beste atal baten, atzerritarrak Israel'i eraso egitean, Jaungoikoak Moises'i egiten dautso itz: euren pekatuakaitik eriotzara galduak izan ziralako, az-

(112) Ps. 1, 3, 6.

(113) Sof. 3, 19.

(114) Ezek. 47, 1 eta urreng.

(115) Ezek. 47, 9. Cfr. Ebert. 8, 38, 39; Hermas'en Artzaiña, IX'gn. *Itxurapena*, 16, 1.

(116) Antxiñako idazleak sarri ikusten ditue «irudiok» Alkartasun Zaarrean.

(117) Cfr. Esdras'en IV'gna., 4, 55, 5, 5: «Eta egurretik odola jariongo da; eta arriak deadarka asiko dira...».

piratuak izan ziralako gogorazoteko arei. Orduantxe egiten dautso itz Espirituak Moises'en biotzari, Gurutzearen eta geroago bertan jasan (sufritu) bear eban Aren irudi bat egiteko argiturik; ustea Aregan jarri ezik —diño—, betiko izango ziralako azpiratuak-eta. Beraz, gudaketa-erdian, Moises'ek iskilloa iskilloren gainean jarten dau, eta alan, bera beste guztiak baiño gorago jarririk, besoak zabaldu ebazan; eta era onetan Israel'ek irabazi egin eban barrero. Baiña, besoak jatsiten ebazanean, barrero ilten ebezan (118).

3. Zetarako? Ustea Aregan jarri ezik, ezin zeitekezala onik urten jakin egien.

4. Beste bein be ba-diño beste profeta baten bidez: «Egun guztian euki nebazan zabaldua nire eskuak nire bide zuzenari aurka egiten dautsan erri sinisgogor orregana» (119).

5. Beste atal baten, Israel jausten zanean, Moises'ek Jesus'en irudi bat egiten dau, Arek nekeak igaro bear dauzala ta bizia emoten daua baiezteko, areik Gurutzeko ezaugarrian galdu egin zala uste izan ebenarren. Izan be, «Jaunak edozetariko sugeak bialdu eutsezan, arei aginka egiteko» (120), eta il egin ziran aginkadakaz —Eba'ren agindu-austea sugeagandik etorri zan-eta—, euren jausteagaitik eriotz-naigabera itziak izango ziralako jabetu zeitezana.

6. Azkenez, «Ez dozue izango zuen Jainkotzat zurezko ez moldeztutako* irudirik» (121), Moises'ek agindu izanarren, Moises'ek berak egiten dau irudi bat Jesus'en irudi bat erakusteko. Izan be, Moises'ek burdin-ori (edo brontzezko) suge bat egiteko agintzen dau eta gora jasoten dau andikiro eta, pregoi-jotailleen bidez, erria batzen dau.

7. Guztiak batu ziranean, euren alde otoitzak eskiñi egizala eskatzen eutsoen Moises'i, osasuna jaristeko. Moises'ek auxe erantzun eutsen: «Zuetariko norbaitek aginkadaren bat artu dagianeanean, egur-gaiñean ipiñita dagoan sugeagana jo dagiala eta fede biziaz sinistu dagiala, eta orrek (sugeak), bizitzarik izan ezarren be, bizitza emon daikeo, eta bereala onik geratuko da» (122). Eta alantxe egin eben. Or, ba, barrero irudi barri oneitan, Jesus'en aintza; izan be, dana Aregan dago eta dana Arentzat da (123).

(118) Cfr. Ex. 17, 8 eta urreng.

(119) Is. 65, 2.

(120) Num. 21, 6 ta urreng. Cfr. Yon, 3, 15-15.

(121) Deut. 27, 15.

(122) Num. 21, 8, 9. Bernabe'k aukeran itzultzen dau emen.

(123) Alkartasun Zaar guztiak elburu bat bakarririk dauko: Salbatzailleen irudia adierazotea.

(*) Moldeztu: hacer a molde con metal fundido.

8. *Jesus, Jaungoikoaren Seme.*—Zer dirautso gaiñera Moises'ek Jesus'i, Nabe'ren semeari, profeta zanari, ari izen ori ezarri ondoren (124), Aitak bere Semeari buruz dana agertzen dauala ulertu egian erri guztiak?

9. Moises'ek ari izen ori ezarri ondoren, agindutako lurraldearen billa bialtzean, Jesus'i, Nabe'ren semeari, auxe esan eutsan: «Artu liburu bat zure eskuetan eta idatzi Jaunak diñoan au: azken-egunetan, Jaungoikoaren Semeak Amalek'en etxeko guztiak zuzarretik atarako dauzala» (125).

10. Begira, ba, barriro be Jesus, gizon baten irudiz agerturik, gizasemea lez ez baiña, Jaungoikoaren Seme lez baiño.

Jesus, Dabid'en seme bakarrik?—Alan be, Kristo'a Dabid'en semea dala esango eben ezker (126), Dabid'ek berak, pekatarien utsegiteari bildur izanik eta aurrez ikusirik, auxe iragarten dau aurretiaz: «Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan: Jesarri zaitz nire eskumaldean, nik zure arerioak zeure oiñazpiko egin dagidazan arte» (127).

11. Isaias'ek be onetaraxe diño: «Jaunak Kristo'ri (128), nire Jaunari, auxe esan eutsan: Atzerriak esana egin dagioela eskumako eskutik eldu neutsanari, eta erregeen indarra ausi egingo dot». Begira, ba: «Dabid'ek ari Jauna deritzo» (129), baiña ez deritzo seme.

XIII. *Kristau-erria, agintzariaren oiñordeko.*—Ikusi dagigun orain, oiñordekoa erri au (130) dan, ala leenengoa dan; Alkartasuna geuretzat dan, ala areintzat.

2. Entzun egizue, ba, erriari buruz Liburu Santuak diñoana: «Isaak'ek bere emazte zan Errebeka'ren alde erregutzen eban, sabel-agorra zan-eta; eta Errebeka umedun egin zan». Gero: «Errebeka'k Jaunagana jo eban itaunka, eta Jaunak auxe esan eutsan: Erri bi bizi dira zure sabelean, eta erri bi zure erraie-tan; eta erri bata bestea baiño gorago jarriko da, eta andiagoo txikiagoaren morroi izango da» (131).

(124) Jesus, Nabe'ren semea, Josue da. Cfr. Num. 13, 17.

(125) Ex. 17, 14. *Amalek*, egun areitan, Jainkoaren arerio betikotzat eta antxiñako sugearen kobatzat artzen eben.

(126) Cfr. Mat. 22, 42-44.

(127) Ps. 109, 1.

(128) Is. 45, 1. Profetak onela diño: «Auxe diño Jaunak Ziro Kyros nire gantzutuari...»; baiña Bernabe'k «*Kyrios*» = *jauna* irakurten dau. Kristo, Mesias = gantzutua, unido erderaz.

(129) Mark. 12, 37; cfr. Mat. 22, 45.

(130) «Erri au»: kristauak.

(131) Gen. 25, 29; 25, 22-23; cfr. Rom. 9, 10-12.

3. Konturatu zaitzeze nor izan zan Isaak eta nor Errebeka, eta Liburu Santuak nortzui buruz diñoan erri au bestea baiño andiagoo izango dala.

4. Argiago oraindiño egiten dautso itz Jakob'ek, beste igarpen baten, Jose bere semeari: «Jaunak ez eustan kendu zure arpegia ikustea; ekarri egidazuz zure semeak, bedeinkatu dagidazan» (132).

5. Eta Jose'k Efrain eta Manases ekarri ebazan, bedeinkapena Manases'ek artu egiala nai izanik, leenena zan-eta; eta, izan be, Jose'k Jakob bere aitaren eskumaldean jarri eban. Baiña Jakob'ek, espirituz, gero etorteko zan erriaren irudia ikusi eban. Eta zer diño Liburu Santuak? «Jakob'ek, bere besoak zear-turik*, eskum(e)a Efrain'en buru-gaiñean ezarri eban, bigarren semea ta gaz-teagoa izanarren, eta bedeinkatu egin eban. Orduan, Jose'k Jakob'i auxe esan eutsan: Ezarri egizu zure eskum(e)a Manases'en buru-gaiñean, neure leen-se-mea da-ta. Jakob'ek, barriz, auxe erantzun eutsan Jose'ri: «Ba-dakit, ene seme, ba-dakit. Baiña, andiagoo txikiagoaren morroi izango da, eta auxe izango da be-deinkatua» (133).

6. Ikusi egizue, erri au leenengoa eta Alkartasunaren oiñordekoa izango zan, norgaitik erabagi eban.

7. Beraz, ori Abraham'en bidez be gogorazo ba'dausku, geure ezagueraren (gnosis'en) osotasuna daukagu. Izan be, zer dirautso Jaungoikoak Abraham'i, au fededun bakarra izanik, zindokuntzarako erabagi ebanean? «Begira, Abraham: Jainkoa sinisten dabenen erri erdainbageen aitatatzat jarri zaitut» (134).

XIV. *Alkartasun Barria Jesus'en erospenaren bidez.*—Ederto! Baiña, ikusi dagigun orain eta aztertu, ea Jaungoikoak erriari Alkartasuna benetan emon eutsan, gurasoai (aurretikoai) zin egin izan eutsenez. Emon eutsen, bai; areik, barriz, euren pekatuakaitik, ez ziran Alkartasuna aditzeko gai egin.

2. Izan be, profetak auxe diño: «Moises berrogei egunez eta berrogei ga-bez egon zan Sinai-mendian, Jaunaren Alkartasuna artzeko. Eta Moises'ek Jaunagandik ol bi artu ebazan, Jaunaren eskuko atzamarrak idatzita, espirituz (135). Moises'ek artu ta beera eroan ebazan, erriari emoteko.

3. Une aretan, Jaunak Moises'i auxe esan eutsan: «Moises, Moises! Jatsi arin, Ejipto'ko lurraldetik atara zenduan zure erriak pekatu egin dau-ta». Eta Moises'ek, barriro burdiñazko jainko-irudiak egin izan ebezala ulerturik, jaurti egin ebazan olak bere eskuetatik. Eta Jaunaren Alkartasunaren olak ausita ge-ratu ziran (136).

(132) Gen. 48, 11; 48, 9.

(133) Gen. 48, 13-19.

(134) Gen. 15, 6, eta 17, 4, 5.

(135) Ex. 24, 18. «*Espirituz*», Bernabe'k geitutakoa da.

(136) Ex. 31, 18; eta 32, 7-19. Deut. 9, 12-17.

(*) Zeartu: cruzar.

4. Beraz, Moises'ek Alkartasuna artu eban; baiña judarrak ez ziran gai izan. Ikasi egizue orain zelan artu dogun guk Alkartasuna; Moises'ek serbitzari lez artu izan eban (137-; baiña guri Jaunak berak emon euskun oiñordekotasun-erriari lez, gugaitik nekeak igarota gero.

5. Alde batetik, areik (judarrak) euren pekatuen negurrira bete egien agertu zan, eta bestetik, guk Alkartasuna Oiñordekoa dan Jesus Jaunaren bitartez artu gengian. Jesus, mundu onetan Bera agertuta, gure biotzak illunpetatik atarateko izan zan aukeratua —izan be, gure biotzak eriotzak zuzenduta eta gaiztakeriaren galbidera emonak egozan—, eta bere itzaz gure artean bere Alkartasuna jarri egian.

6. Izan be, Liburu Santuak agertu dauanez, gu illunetik atarateko eta Arentzat (Jesus'entzat) erri santu bat atontzeko ardur(e)a emoten dautso Aitak Jesus'i.

7. Izan be, auxe diño profetak: «Nik, zure Jaungoiko Jaun onek, zuzenbidez egin dautsut dei; erriaren alkartasun egin zaitut, atzerrien argi izateko, itsuen begiak zabaltzeko, lotuak euren estuntzetatik eta illunpeetan jesarrita dagozanak espetxetik atarateko» (138).

8. Oraintxe ulertzen dogu nundik izan gintzazan erosiak (askatuak). Eta barriro be auxe diño profetak: «Begira: Atzerrien argi egin zaitut, lurraren azkeneragiño neure osasuna (edo salbamena) eroan dagizun. Olantxe diño zu erosi zaituan Jaungoiko Jaunak» (139).

9. Eta barriro be profetak: «Jaunaren Arnasa nire gaiñean; orregaitik, gantzutu (edo bedeinkatu) egin nau, apalai graziaren Barri Ona iragarteko; biotzdamutuak osatzera bialdu nau, lotuai askatasuna eta itsuai ikusmena iragartera, Jaunaren errukizko urtea ta sari-eguna iragartera, eta naigabetuta dagozan guztiak poza emotera» (140).

XV. *Egiatzko larunbata (zapatua)*.—Larunbatari buruz be idatzita dago Amar Aginduetan, edo bardin dana, Sinai-mendian Jaungoikoak Moises'i aurrez aurre esan eutsazan Amar Itzetan: «Eta santutu egizue Jaunaren larunbata esku garbiz eta biotz garbiaz» (141).

2. Eta beste atal baten auxe diño: «Nire semeak larunbata gorde ba'dagie, orduan neure errukia isuriko dot arein gaiñera» (142).

(137) Cfr. Ebert. 3, 5, 6. Klemente'ren 1.^a, IV, 2; XLIII, 1; LI, 3, 5.

(138) Is. 49, 6, 7.

(139) Is. 49, 6, 7.

(140) Is. 61, 1, 2. Cfr. Luk. 4, 18, 19. Seme Jaungoikoak egiten dautso itz Aitari.

(141) Ex. 20, 8; Deut. 5, 25; cfr. Ex. 31, 13-17. Bernabe'k 23'garren Salmuaren atalxoaz osotzen dau agindua: «eskuak erru bagarik eta biotza garbi daukazanak».

(142) Cfr. Jer. 17, 24, eta Ex. 31, 13-17.

3. Larunbatari buruz egiten dau itz kreaziñoaren asieran: «Eta Jaungoikoak sei egunean egin ebazan bere eskuen lanak eta zazpigarren egunean amaitu ebazan; egun onetan atsedean artu eta egun au santutu egin eban» (143).

4. Begira, semeok, *Jaungoikoak bere lana iru egunean amaitu eban* esateak zer adierazoten dauan. Jaunak sei milla urtean gauza guztiak amaituko dauzala, egun bat Beretzat milla urte dira-ta. Ori, Berak autortzen dau esanaz: «Begira: Jaunaren egun bat milla urte lez izango da» (144). Beraz, semeok, sei egunean, edo bardin dana, sei milla urtean gauza guztiak amaituko dira.

5. *Eta zazpigarren egunean atsedean artu eban* (145). Onek auxe adierazoten dau: Semea etorri daitenean, pekatariaren aldiari azkena emongo dautso, eta gaiztoak epaitu (ebatzi) egingo ditu, eta eguzkia, illargia ta izarrak aldatu egingo dauz; orduantxe artuko dau atsedean, benetan, zazpigarren egunean (146).

6. Azkenez, auxe diño: *Larunbata esku garbiz eta biotz garbiaz santutuko dozu*. Beraz, Jaungoikoak santututako eguna santutzeko gai, biotz garbiko gizonek ba'da orain, uts egin dogu zearo.

7. Beraz, leenen geu santututa eta agintzariaren jabe garala, orretarako gai izan gaitezanean, orduantxe bakarrik santutuko dogu larunbata atsedean zorian-tsuaz; edo bardin dana, gaiztekeririk egon ez eta Jaunak gauza guztiak barriztu dagizanean. Beraz, leenen geure buruak santutuak izan daitezanean santutu aal izango dogu larunbata.

8. Azkenez, auxe dirautse judarrai: «Onezkero ezin iruntsi daikedaz geiago zuen ilbarriak (illargi-barriak) eta larunbatak» (147). Begira zer esan nai dauan: Ez yataz gogoko gaur eguneko zuen larunbatak, neuk egin dodan larunbata baiño, gauza guztiak atsedena emon eta zortzigarren eguna, edo bardin dana, beste mundu barri bat egin dagidaneko larunbata baiño (148).

9. Orregaitik, ain zuzen be, geuk be zortzigarren eguna pozez beterik ospatzen dogu, Jesus illen artetik biztu zaneke eguna dalako eta, bere burua ikasleai agertuta gero, Zeruetara igo zalako (149).

(143) Gen. 2, 2. Bernabe'k eberkerazko liburua darabil. Irurogeita amarren itzul-penean, barriz, kreaziñoa seigarren egunean osotuta geratzen da.

(144) Ps. 89, 4: «Zure aurrean milla urte, atzo igaro zan eguna aiña, gabeko iratzar-aldia aiña»; eta Pedr. 2.^a, 3, 8.

(145) Gen. 2, 2.

(146) Cfr. Apoc. 20, 4-6.

(147) Is. 1, 13.

(148) *Zortzigarrena*: Cfr. Pedr. 1.^a, 3, 20; Pedr. 2.^a, 2, 5; Apoc. 17, 11.

(149) Bernabe'ren eritziz, Jaunaren biztuera ta zerura igokundea igandez (domekaz) izan ziran. Siria'ko *Apostoluen Irakaspena'k* be beste orrenbeste diño.

XVI. *Jaungoikoaren egiazko jauretzea*.—Jauretzeari buruz be itz egin nai dautsuet; izan be, judar zoritzarrekoak, euren uste okerraz bidea galdurik, ez eben ustea jarten eurak egin ebazan Jainkoagan, argintza-etxean baiño, au Jaungoikoaren etxea bai'litzan.

2. Izan be, gutxi gora-beera jentillak lez gurtu eben Jaungoikoa Jauretzean. Baiña, entzun egizue zelan ondatzen dauan Jaunak Jauretzea, urrengo au esanez: «Nok negurtu dau zerua arraka*, edo lurra erpuruaz*? Zerua da nire errege-jarlekua eta lurra nire oiñen oiñazpikoa. Ze etxe da niretzat egingo dozuen ori, eta ze toki nire atsedenerako?» (150). Ondo ulertu dozue arein itzaropena utsa dana.

3. Eta barriro be auxe diño: «Begira; jauretze au ondatu dabena eurak jasoko dabe barriro» (151).

4. Orixe jazoten da gaur egunean. Izan be, areik biurritu* ziralako, jauretzea ondatu egin eben, eta orain arerioen otseñak eurak jasoko dabe barriro (152).

5. Gaiñera, uria (Jerusalen), Jauretzea ta Israel'go erria menperatuak izango ziralta, aurretiaz iragarrita egoan. Izan be, Liburu Santuak auxe diño: «Eta azken-egunetan jazoko da, eta Jaunak ondapenera emongo ditu artaldeko ardiak, eta bere artegi (edo arditoki) eta bere torrea» (153). Eta Jaunak esan eban ez jazo zan.

6. Aztertu dagigun orain, ea oraindiño Jaungoikoaren Jauretzerik dagoan. Ba-dago, bai; baiña, Berak diñoanez, Berak egin eta bikaindu bear dauan tokian. Izan be, idatzita dago: «Eta ain zuzen be, astea beteta, Jaungoikoaren Jauretze bat izango da jasoa aintzatsu, Jaunaren izenean» (154).

7. Beraz, Jauretze bat dagoala konturatzen naz. Zelan izango da jasoa *Jaunaren izenean*? Ikasi egizue. Guk Jaungoikoa sinistu aurretik, gure biotzeko bizitokia ustelkorra ta argala zan, benetan eskuz egindako jauretze bat lakoa; sasi-jainko gurkeriz beterik egoan eta deabru-etxea zan, Jaungoikoaren aurkako dana bakarrik egiten genduan-eta (155).

(150) Is. 40, 12. Ireneo'k diñoanez (*Adv. Haer.*, I, 26, 2), Ebionarrak Jerusalem «Jaungoikoaren Etxe» lez gurtu eben.

(151) Is. 66, 1.

(152) Jerusalem'go Jauretzea barriro jasoteko izan ziran asmoai buruz diardu, antza, 117, 118^{garren} urteetan-edo.

(153) Enok, 89, 56, 66, 67.

(154) Dan. 9, 24-27 (?); cfr. Enok, 91, 13; Tob. 14, 5; Erreg. 1.^a, 7, 13.

(155) Cfr. Kor. 1.^a, 3, 16-17, eta 6, 9; Kor. 2.^a, 6, 16; Apost. Egiñ. 17, 24.

(*) Arraka: a palmos. — (*) Erpuru edo atzamar lodi: dedo pulgar. — (*) Biurritu: sublevarse.

8. Jaungoikoaren Jauretze egiazkoa, barriz, *Jaunaren izenean izango da jasoa*. Zelan? Ikasi egizue: Jaunaren izenean geure pekatuen parkamena ta itzaropena artuta, barri geratu gara, asierarik barriro egiñak; orregaitik, orain Jaungoikoa geugan bizi da benetan, geure bizitoki-barruan.

9. Zelan? Bere fedearen itza, bere agintzariaren deia, bere zintzokuntzen jakituria, bere irakaspenaren aginduak geugan bizi diralako. Berberak egiten dau itz gudan jaungoikozko abotsaz, Bera bizi da gudan, Berak zabaltzen dausku Jauretzeke atea, edo bardin dana, gure agoa; guri damuaren guraria emonik, eriotzaren morroi gintzazala, Jauretze ustel-eziñean sartzen gaitu (156).

10. Izan be, norbere burua salbatu gura dauan edonok ez dautso gizonari begiratzen, bere barruan bizi dan eta itz egiten dauan Ari baiño; eta alakoa arrituta geratzen da, iragarlearen agoz itz egiten dauan Aren itzak leen iñoiz be entzun ez dauzalako, ezta leen be bere gogoz itzok entzuteko gogorik iñoiz be izan ez daualako (157). Olakoa da Jaunarentzat jasoten (edo egiten) dan espirituzko Jauretzea.

XVII. *Leenengo zatiaren laburpena*.—Azalpenok, neure eukiteari dagokionez eta lau-lau emon dautsuedaz. Nire guraria bete dodala eta zuen salbamenari buruz ezertxo be ez dodala esan bagarik itzi uste dot biotzez (158).

2. Izan be, gaur-eguneko edo etorteko diran gaiak buruz idatzi ba'nengizue, ez zeukeez ulertu be egingo, ipuin-irudiz batuta dagoz-ta. Onetzaz naikoa da.

XVIII. *Bide biak* (159).—Ikusi dagigun orain beste ezaguera (*gnosis*) eta irakatsi bat. Irakatsiaren eta aal-izatearen bide bi dagoz (160): argiarena eta illunpeena. Baiña, andia da bide bien arteko aldea. Batean, bide-erakusle argitsu lez, Jaungoikoaren aingeruak; bestean, Satanas'en aingeruak (161). Jaungoikoa, Jauna da gizaldietarik eta gizaldietara. Satanas, barriz, gaiztakeri-aldi onetako nagusia da (162).

(156) «*Jauretze ustel-eziña*»: emen, Jaungoikoaren erreñua, edo-ta Kristo'ren Eliza. Leen, «gizonaren biotza» adierazoten eban (VI, 8; VII, 2).

(157) Beraz, Jaungoikoaganako gure biurtzearen egintza, Jaungoikoarena da oso-oririk, gudan «nai izatea ta egitea» eragiten daualarik, gure lankidetasun^a gogozkoa irazarturik.

(158) Cfr. Klemente'ren 1.^a, XLV, 1.

(159) Cfr. *Didaje*, I-V atalb.

(160) Irakatsi okerra ta irakatsi egiazkoa dagoz, baita espirituzko aal-izate bi be: ona ta gaiztoa; aingeruk eta deabruak dira giza-bizitzaren bide bi onein zelatariak* (cfr. Kor. 2.^a, 11, 14; 12, 7. Bide biak buruz: Prov. 4, 18-19; Ps. 138, 24; Yon'en 1.^a, 1, 5-7; Pedr. 1.^a, 2, 15).

(161) Cfr. Yon'en 1.^a, 1, 5 eta urreng.

(162) Cfr. IV, 1, 9; XV, 5.

(*) Lankidetasun: colaboración.

(*) Zelatari: vigía.

XIX. *Argiaren bidea*.—Baiña, argiaren bidea auxe da: Norbaitek bere bidea erabagiatako lekuragiño egin nai ba'dau, arduratu beite bere egintzen bidez. Eta bide orretan ibilteko erari buruz emon izan yakun ezaguera, urrengo au da:

I. 2. Maite egizu zure Egillea, bildur izan egiozu zu eratu zaituanari; goratu egizu eriotzatik atara zenduzana. Izan zaite biotz-laua eta espirituz aberatsa. Ez zaitez batu eriotz-bidetik dabizanakaz. Iguindu egizu Jaungoikoari gogoko ez yakon edozer; iguindu azaluseria; ez itzi bertan-beera Jaunaren aginduak.

3. Ez egizu zure burua goratu, izan zaitez apala, ostera. Ez izan zure buruaren andigurarik.

II. Ez artu asmo gaiztorik zure lagun-urkoaren aurka; ez bete zure arim(e)a arropuzkeriz.

4. Ez dozu aragikeririk ez ezkontza-naasterik egingo. Ez dozu gazterik ustelduko. Jaungoikoaren itza esan dagizunean, ez daitela zure agotik urten norbaitzen zikinkeriaz (163). Norbaiti beronen pekatuagaitik asarre egin bear ba' dautsazu, norkeririk бага egingo dozu. Otzana izango zara; baretsua (baketsua) izango zara; entzun dozuzan berbai bildurra izango dautsezu. Zure anaiari ez dautsazu gorrotorik izango.

III. 5. Ez jarri ezpaitan ori jazoko dan ala ez dan (164). *Ez dozu Jaungoikoaren izena alperrik agotan artuko* (8).

IV. Zeure bizia baiño geiago maite izango dozu zure lagun-urkoa. Ez dozu zure semea amaren sabelean ilgo, ezta jaiota gero be ez dautsazu bizia kenduko. Ez dozu zure eskurik kenduko zure seme edo zure alabagandik; beronen gaztarotik Jaungoikoaren bildurra irakatsiko dautsezu, ostera.

6. Zure lagun-urkoaren ondasunen gurari bidebagerik ez dozu izango, ezta diru-zalea be ez zara izango. Arroakaz be ez zara gogo onez batuko; apalakaz eta zuzenakaz egongo zara, ostera.

V. Ontzat artu egizu jazo dakizun edozer, Jaungoikoak erabagi bagarik ezer be ez dala jazoten jakifiñik.

7. Ez zara maltzurra izango ez asmoz ez itzez, maltzurkeria eriotz-lakioa* da-ta.

VI. Zure ugazabak aintzat artuko dozuz, Jaungoikoaren ordezkioak lez, begirunez eta bildurrez (165).

(163) Esanaldi au ez dago argi. Lizunkeria adierazoten dau, urrean.

(164) Jaungoikoaren agintzarai buruz diño.

(165) Ex. 20, 7; Deut. 5, 11.

(*) Eriotz-lakio: lazo de muerte.

Ez agindu garratz zure morroi edo zure mirabeai, zeuk lez Jaungoiko berberagan dabe ustea-ta, batzuen eta besteen Jaungoikoa danari lotsa galdu ez dagioen (166). Izan be, Jauna ez da etorri personaren arauz dei egiteko, bere espiritua atondu eutsenai dei egiteko baiño (167).

9. Banandu egiozu zure lagun-urkoari zure ondasun guztietarik, eta ez egizu esan gauzak zeureak bakarrik diranik. Ondasun ustel-eziñetan erdikide ba'zaree, ainbat geiago ustelkorretan!

VII. Ez zaitez itz egitean sen gutxiko izan, agoa eriotz-lakioa da-ta. Aal dagizunez, garbi iraun egizu, zure arimaren onagaitik.

VIII. 9. Ez zaitez izan, artzeko eskua luzatzen eta emoteko isten dabentarikoa. Jaunari buruz itz egin dagitzun edonor, zeure betseña* lez izango dozu maite (168).

10. Egunez eta gabez Auzi-egunaz gomutatuko zara, eta santuen arpegiak egun oro billatuko dozuz (169): naiz itzaren eginkizunean, anaiai poza eroatera joanaz eta itzaren bidez arimaren bat salbatzeko ausnarturik (170), naiz zure pekatuen parkamenerako esku-lanean (erruki-egintzetan) jardunik.

11. Ez luzatu emotea, ezta atsekabetu be emotean; jakingo dozu orduan (egunen baten) nor dan sari onaz ordaintzen dauan A.

IX. Artu zenduana gorde egingo dozu, ezer kendu ez geitu bagarik (171). Gaizakeria azkenerarte iguinduko dozu (172). Zuzentasunez epaituko dozu (173).

12. Ez dozu alderdikeririk sortuko, burrukan diarduenak baketu baiño, arein artean bakeak egiñik. Zeure pekatuak autortuko dozuz. Ez zara barru gaiztoaz otoitz egitera urreratuko. Orixe da argiaren bidea.

XX. *Illunpeen bidea* (174).—«Baltza»'ren bidea, barriz, okertuta eta aiñenez* beterik dago, eriotza ta betiko zigor-bidea da-ta. Aregan dago arimak ondatzen dauan gutzia: jainko-irudien gurkeria, andikeria, aginpide-arrokeria, azaluseria,

(165) Nagusien irakatsi gaiztoa menpekoen fedarentzat galbidea da.

(166) Cfr. Didaje, II, 4; IV, 10.

(167) Cfr. Ef. 6, 9; Ecli. 4, 6; 7, 11; Rom. 8, 29, 30.

(168) Cfr. Deut. 32, 10; Ps. 16, 8.

(169) Cfr. Pedr. I.^a, 4, 7, 11.

(170) Cfr. Tim. I.^a, 5, 17; Tes. I.^a, 5, 12, 14.

(171) Deut. 12, 32; cfr. Kor. I.^a, 11, 23; 15, 3.

(172) Cfr. Deut. 4, Apoc. 22, 18. Beste batzuek, *gaizakeria*'ren ordezkio, *gaiztoa* (deabrua) itzultzen dabe. Cfr. V, 2.

(173) Deut. 1, 16; Prov. 31, 9.

(174) Cfr. Didaje, V, 1 eta 2.

(*) Betsein: pupila, niña del ojo. — (*) Aiñen: maldición.

biotz bikoitza, ezkontza-naastea, erailtza (gizon-iltea), lapurreta, andinaia, biurkeria, maltzurkeria, ausarkeria, sorginkeria, aztikeria, zekenkeria, Jaungoikoa iguintzea.

2. Bide orretatik dabiz zintzoen jazarleak*, egiaren arerioak, guzurraren maitatzailleak; zuzentasunaren saria ezagutzen ez dabenak, on danari eta epai zuzenari lotzen ez diranak; andra alargunaren eta umezurtzaren ardurarik ez dabenak (165); Jaungoikoaganako bildurra izateko bagarik, gaiztakeriak egiteko arduratzen diranak; otzantasun eta eroapenetik urrun be urrun dagozanak; uskeriak maitatzen dabezanak eta irabaziaren billa dabizanak (176); beartsuaren errukirik ez dabenak, naigabetuaz mintzen ez diranak; mormor egiteko trebeak; euren Egillea ezagutzen ez dabenak; sabeleko ume-iltzailleak (177) eta Jaungoikoaren lan-ondatzailleak; beartsua baztartzeko eta naigabetua geiago naigabetzen dabenak; aberatsen lege-gizonak, txiroen auzi-ebazle zuzenbakeak; pekatari utsak.

XXI. *Azken-burubidea*.—Ondo da, ba, idatzita dagozan Jaunaren erabagiak ikasi dauzanak, arei dagokienez ibili daiten. Izan be, erabagiok bete dagizana, Jaungoikoaren Erreñuan goratua izango da. Bide gaiztoko dongakeriak aukeratu dagizana, barriz, bere egintzakaz ondatuko da. Orrexegaitik dago biztuera; orrexegaitik saria.

2. Nigandik asmo oneko burubiderik onartu gura ba'dozue, andikioi auxe eskatzen dautsuet; zeuen inguruan dozue or, on egin daikeezuezanak. Ez itzi ori egin bagarik (178).

3. Dana Gaiztoagaz batera galduko dan eguna urr dago: Urr dago Jauna ta Onen saria (179).

4. Bein eta barriro eskatzen dautsuet; Izan zaiteze zeuen buruen legegille on; batzuk besteen burubide-emoille (edo aolkulari) zintzo izan zaiteze; kendu egizue zuen erditik edozein azaluskeri.

5. Eta mundu guztia zuzentzen dauan Jaungoikoak jakituria, adimena, jakintza, bere erabagien ezaguera, eta iraupena emon dagitzuezala.

6. Izan zaiteze Jaungoikoaren ikasle (180), Jaunak zeuekandik eskatzen dauana azterturik, eta jokatu egizue, Auzi-egunean zintzo lez aurkeztuak izan zaitezen (181).

(175) Rom. 12, 9; Sant. 1, 27.

(176) Ps. 4, 3; Is. 1, 23.

(177) Sap. 12, 5.

(178) Yon. 12, 8; Gal. 6, 9; Tes. 2.^a, 3, 13: «Zuek, anaiok, on egiten ez aspertu».

(179) Cfr. Filip. 4, 5; Sant. 5, 9; Apoc. 1, 3; 22, 10.

(180) Cfr. Is. 54, 13; Tes. 1.^a, 4, 9; Yon. 6, 45.

(181) Cfr. Iñazio: *Tral.* 6, 45.

(*) Jazarle: perseguidor.

7. Zuen artean ona danaren gomutarik ba'dago, gogotan izan nagizue ni, emen esandako guztia gogotan darabizuen artean, nire gurariak eta ardurak frutu onen bat ekarri dagitzuen; mesede lez eskatzen dautsuet au.

8. Zuen gorputzeko edontzi ederra oraindiño zeuekatz bat eginda dagoan artean, gai oneitariko ezertxo be ez egizue itzi, onein billa sutu ibilli eta edozein agindu bete baño. Izan be, gaiok ba-dira beteteko duin.



9. Orixe izan da batez be, al bait ondoen arin-aranga zuei idazteko nire zio nagusia, poztu zagiedazan.

Osasuna, maitasun eta bake-semeoi!

Aintzaren eta edozein graziaren Jauna bego zuen espirituagaz! (182).



(182) Cfr. Gal. 6, 18; Tim. 2.^a, 4, 22; Filemon, 25.



KUADRATO'REN IDATZ-ATALA

Eusebio'ren bidez dakigu Kuadrato'ren barri: «Apostoluen ikasle» izan zala diño (1), eta Erroma'ko Agintari Nagusi izan zan Adriano'ri kristauen alde Zuribidea edo *Apologia* emon eutsala (2), 124'garren urtean. Apolojia ori da ezagutzen diranetik antxiñakoena. Emen, ba, Kuadrato'ren idatz-atal ori:

1. Trajano'k ogei urte baiño sei illebete gutxiagoan aginduta gero, Elio Adriano'k artu eban agintaritza. Kuadrato'k Adriano'ri geure erlejiñoaren alde egin eban Zuribide (*edo Apolojia*) bat emon eutsan, gaizto batzuek gureai nekeak emoten asi yakczan-eta. Idazlan onek geure anai askoren eskuetan irauten dau oraindiño; geuk be ba-daukagu, eta antxe ikusi daiteke Kuadrato'ren buru argitsua ta aren irakaspenaren apostolu-zuzentasuna.

2. Berak agertzen dau bere antxiñatea urrengo itzez azaltzen dauanaz:


«Guk —diño— beti izango doguz aurrean gure Salbatzaillearen egiñak, benetakoak ziran-eta. Izan be, Arek osatu ta illen artetik biztu ebazanak, osatu ta biztuta gero be izan ziran ikusiak, eta geure artean be bizi ziran, eta ori Salbatzaillea lurrean bizi zala bakarrik ez, baita A joan zala be bizi izan ziran, luza-roan; areitariko batzuk geure egunetaragiño be eldu dira» (3).

(Eusebio'k: *Eliz-istoria*, IV, 3).

(1) *Cronica*, *Ad annum Abrah.* 2140.

(2) *Eliz-istoria*, IV, 3.

(3) Geure egunetaragiño: Kuadrato'ren egunetaragiño.



HIERAPOLIS'KO PAPIAS'EN IDATZ-ATALAK

Papias, Frijia'ko Hierapolis'ko gotzaiña, San Joan Ebanjelariaren ikasle ta San Polikarpo'ren lagun izan zan. 150'garren urtean il zan.

Bere «Jaunaren Esakeren Azalpena» liburua, XIV'garren menderarte ezaguna zan, baiña arrezkero galdutzat daukagu.

Alan be, bere ogei idatz-atal daukaguz, San Ireneo ta Eusebio'ren bidez artuak (1). Andia be andia izan zan antxiñako kristauak gotzain oni eutsoen begirunea.

PAPIAS'EN IDAZLAN-ZATIAK

1.—Orduan izadiak, barriztua ta askatua, guztietariko janariak emongo dauz, zeruko iruntzetik eta lurreko ugaritasunetik: Jaunaren ikasle zan Yon ezagutu eben Abadeak diñoenez, Aregandik entzunda, Jaunak irakasten ebanez: **Onek**, aldi arei buruz, auxe esaten eban:

2. «Etorriko dita egunak, eta maasti bakoitzak amar milla maatsondo izango dauz, eta maatsondo bakoitzak amar milla aien, eta aien bakoitzak amar milla adar, eta adar bakoitzak amar milla maats-mordo, eta maats-mordo bakoitzak amar milla garau; eta garau trinkatu* bakoitzak ogetabost metreta ardao (2) emongo dauz.

3. Eta santuetariko batek maats-mordo areitariko bat artu dagianean, beste batek deadarka esango dautso: «Ni ohea naz; neu artu nagizu, bedeinkatu egi-zu Jauna neure bidez».

(1) Eusebio'ren «Eliz-istoria», 3, 36, 2.

(2) Edo 39'294 litro.

(*) Trinkatua: prensado, exprimido.

Era berean (iñoan), gari-garau batek amar milla galburu emongo dauz, eta galburu bakoitzak amar milla garau, eta garau bakoitzak amar milla urun zuri ta garbia. Eta bardin gaiñetiko frutuak, aziak eta bedarrak be, bakoitzari dagokioenez. Eta abere guztiak, lurretik artzen diran fruetarik ornidurik, otzan eta alkar-zale biurtuko dira, gizonen menpean ezi-ezi.

4. Orretzaz Papias'ek be idatziz egiten dau autor, gizonezko zaarrak, Yon'en ikasle ta Polikarpo'ren lagun izan zanak, bere laugarren liburuan; izan be, bost izan ziran arek idatzi ebazan liburuak. Eta auxe esan eban gaiñera:

5. «Gauza guztiok fededunentzat soillik dira sinisgarri». Eta Judas saltzailleak ori sinisten ez ebalta eta Jaunak lur-gaiok zelan burutuko leukezan itandurik, Jaunak auxe erantzun eutsala diño: «Ori, aldi arcitara eltzen diranak ikusiko dabe».

(Ireneo'k: *Adv. Haer.*, V, 33, 3-4.

Eusebio'k: *Eliz-istoria'n*, III, 39, 1.)

II. Papias'ek bost liburu itzi dauz, «Jaunaren Esakeren azalpena» izenaz. Ireneo'k be aitatzten dauz, eta orrexeik soillik idatzi ebazala Papias'ek; gutxi gora-beera, auxe diño: «Orretzaz Papias'ek be idatziz egiten dau autor, gizonezko zaarrak, Yon'en ikasle ta Polikarpo'ren lagun izan zanak, bere laugarren liburuan; izan be, bost izan ziran arek idatzi ebazan liburuak».

2. Ireneoren autorra da ori.

Egia esan, Papias'ek berak, bere esakeren itzaurrean, ez diño ezelan be Apostolu santuen entzule izan zanik, fedeari dagokiona Apostoluen senitarteko izan ziranakandik artu ebalta baiño, urrengo itzen bidez autorturik.

3. *Papias'en idazlanaren itzaurrea*.—«Azalpenetan be ez dot agertu bagarik itziko Zaarrakandik noizbait ondo ikasi ta gogotan ondo josita daukadan guztia, ori egia dana zigur nago-ta. Izan be, ez neban nik atsegiñik artzen —geienak orretan artuarren— itz eta itz egiten dabenakan eta norbaitzuen aginduak (3) gogotara dakarrezanakan, Jaunak fedearentzat euron eta egiatik beratik (4) datoan aginduak gogoratzen dabezanakan baiño.

4. Zaarrai (5) jarraitu izan eutsenetarikoren bat etorten zanean, barriz, Zaarren itzaldiak aztartzen nebazan: Ander'ek, Pedro'k, Tomas'ek naiz Santiago'k, Yon'ek naiz Mateo'k, naiz Jaunaren ikasletariko beste edonok esan izan ebena;

(3) Norbaitzuen aginduak: gnostikoenak.

(4) Ikusi Yon, 18, 37; Yon'en 1.^a, 3, 19.

(5) *Zaarrak*: emea Apostoluak dira; beste geienetan, barriz, Jaunaren eta Ebanjelioaren testigurik antxiñakoena.

Jaunaren ikasle diran Aristion'ek eta Yon zaarrak diñoena (6). Izan be, ez neban uste izan liburuak dakarrenak itz bizi ta iraunkorrak (7) aiña balio izango eustanik».

5. *Eusebio'ren azalpena*.—Kontuan artzekoa da Yon'en izena Papias'ek birritan esaten dauala: leenengoa, Pedro, Santiago, Mateo ta beste Apostoluakaz batera aitatzten dau, Ebanjelaria bere lekuan ipiñirik; bigarren Yon, barriz, esanaldia zatituta gero, Apostoluakandik kanpo jarten dau, Aristion'en aurretik, eta izena «zaarra» emoten dautso.

6. Orregaitik, autor orren bidez be, ondo ikusten da Asia Txikia'n Yon izeneko bi bizi zirala esaten ebenak egia esaten ebena, eta Efeso'n illobi bi egozala be bai, eta illobi bioi, gaur be, Yon'enak deritze. Gaiok aurrean izan bear dira; izan be, ba-daiteke Yon'en izenaz dabillen «Agerpena» (*edo «Apokalipsis»*) bigarren Yon orrena izatea, norbaitek leenengoarena ez izatea naiago ba'dau.

7. Emen aitatzten dogun Papias onek, ba, Apostoluen itzaldiak onein senitartekoen bidez jaso ebazala diño; eta bestalde, Aristion'en eta Yon Zaarraren entzule izan zala. Sarri aitatzten dauz arein izenak, baita bere idazlanetan arekandik agoz-ago jasorikoak azaldu be. Guk diñoguzan guztiok ez daitezala alperreko izan!

8. Papias'en itzok aitatzuta gero, ondo da aren beste irakurgai batzuk be esatea; oneitan, arekandik agoz-ago jasota lez, beste jazopen miragarriak be badirauskuz.

9. Aurreratxoago esan dogu (III, 31) Felipe Apostolua bere alabakaz batera Hierapolis'en bizi zala; eta Papias'ek, arein egunetan bizi izan zanak, Felipe'ren alabakandik jazopen miragarri bat jaso ebalta aitatzten dausku, oraintxe azalduko dogunez. Izan be, bere egunetan ildako bat barrero biztu zala diño, baita izenordez Barsabas zan Zuzena'ri jazo yakon miraria be. Oni, sinisbageak eden ilgarri bat gertu eutsoen; Zuzena'k ori edan egin eban, baiña Jaunaren graziaz on-onik urten zan.

10. Salbatzaillearen zerura-igokunde ostean, Apostolu santuak Zuzen au aukeratu eben, Matias'egaz batera, eta otoitz egin eben, Judas saltzaillearen orde, zotz eginda euren (Apostoluen) artean artzeko nor izan zeitekean egokiena aukeratzeko, «*Apostoluen Egiñak*» izeneko liburuak azaltzen dauskunez. «Eta bi aukeratu ebezan: Barsabas izeneko Jose —izenordez Zuzena— eta Matias; eta otoitz eginda, auxe esan eben...» (8).

(6) Yon izena birritan agertuarren, bietan Yon Ebanjelaria da. Or aitatzten dauzan beste Apostoluak, orduko ilda egozan; ez, ostera, Yon Ebanjelaria. Beraz, Papias'ek iturri bitik artu eban Jesus'en Ebanjelioa: Yon Ebanjelariagandik eta gaiñetiko Apostoluen senitartekoakandik.

(7) Iraunkorra: bizi ziranakandik entzundako itza (ikusi Kor. 1.^a, 15, 6; Yon 21, 22. Liburuak dakarrena: gnostikoen liburuetakoa.

(8) Apost. Egiñ. 1. 23-24.

11. Beste gauza batzuk be azaltzen dauz Matias'ek agoz-ago jasotako eraz, esate baterako, Salbatzaillearen antz-ipuina nabarmen batzuk, baita Aren irakatsi batzuk eta egiazko antzik ez daben beste gauza batzuk be.

12. Gai orrein artean, illen biztuera-ostean milla urteko aldia izango dabela be ba-diño; aldi orretan, lurrean Kristo'ren Erregetza gorputzez jarriko dala. Ori, Apostoluen azalpenak oker ulertu ebazalako sinistu ebalu uste dot, areik ulerbidez esan eben esangura mistikua ez ikusirik.

13. Izan be, aren itzaldia agertzen dabenez, argi gutxiko burua eukan, itxuraz. Alan be, zaarra zan-eta, aren erruz artu eben eritzi ori geroko eliz-idazletarikorik geienak, esate baterako, Ireneo'k eta antzerako eritziak ekazela agertu ziranak.

14. Jaunaren itzaldien beste azalpen batzuk be ba-dakaz Papias'ek bere idazlanean, leen aitaturiko Aristion'i entzunak, baita Yon Zaarrari agoz-ago jasotakoak be. Bertara jo dagiela aitatu doguzan gaiok ezagutu gura dabezanak.

14. *Leenengo Ebanjelio biak.*—Baiña, leen aitaturiko Papias'en itzak esanda gero, orain Markos'i buruz azaltzen dauan agoz-ago artutakoa esan nai dogu gaiñera, Ebanjelioa idatzi ebanari buruz. Urrengo itzak dakaz:

15. «Ona emen Zaarrak (9) diñoana: Pedro'ren azaltzaille izan zan Markos—kirian-kirian* izan ezarren be— gogotan ebazan Jaunak esan eta egin zituan guztiak idazteko aalegindu zan. Izan be, arek (Markos'ek) ez eutsan Jaunari entzun ez jarraitu izan, geroago Pedro'ri baiño, leen esan dodanez; Pedro'k bere irakatsiak bearrizanen negurrira emoten ebazan, baiña Jaunak esan ebazan gaiak antolatzeke asmo bagarik. Beraz, Markos'ek ez eban utsik egin gai batzuk gogotan ebazanez idatziaz. Izan be, elburu bat eban: entzun izan eban ezertxo be ez iztea ta aretariko ezeri be guzurrik ez ezarteaz.

Orixe da, ba, Markos'i buruz Papias'ek diñoana.

16. Mateo'ri buruz auxe diño: «Mateo'k esakerak (10) erri-eberkeraz idatzi ebazan; eta bakoitzak bere eratara (11) biurtzen ebazan».

17. Yon'en leenengo idazkitik ataratako agiriak be ba-dakaz Papias'ek, baita Pedro'renetik ataratakoak be. Jaunaren aurrean pekatu askoren errudun zan emakumeari buruzko istoria be azaltzen dau (12); istoria au *Ebertarren erazko Ebanjelioak* dakar.

Guzti ori be, leentxoago azaldu dogunez batera, gordetea bearezkoa dala uste izan dogu.

(Eusebio'k, *Eliz-istor.*, III, 39).

(9) Zaarrak: Yon Ebanjelariak.

(10) Esakerak: Ebanjelioa edo Barri Ona. — Eberkeraz: Palestina'ko izkeraz, arameoz.

(11) Bere izkuntzan.

(12) Ikusi Yon, 7, 53-8, 11.

(*) Kirian-kirian: en orden.

III. *Apolinario'ren idatz-atalak.*—Apolinario'rena (13): Judas ez zan sokan il; arbolatik askatuta gero be bizia izan eban, ito aurretik. Eta ori «Apostoluen Egiñak» agertzen dabe: «bere burua urkaturik, erditik lertu zan, eta bere erraiak lurrean zear zabaldu ziran» (14). Baiña, argiago azaltzen dau oraindiño Yon'en ikasle izan zan Papias'ek, *Jaunaren Esakeren Azalpenak* izeneko laugarren liburuan dakazan itzokaz:

2. Dongakeriaren galen andi lez ibili zan Judas mundu onetan: burdi bat erraz igaro daiteken lekutik aren aragia ezin igaro izateragiño anditu zan; ezta bere buru-anditasuna be. Beste au be ba-diño: bere betazalak andi-andi egin yakozala, argia ikusteko gauza ez zala eta osagilleak betaurrekoaz be ezin ikusi leuskiozala begiak. Arek bai eukazala begiak. bere arpegiko aragian sartuta...» (15).

(De Cramer: *Catena ad Acta S. S. Apost.*, 28'gn. orri.)

IV. *Zesarea'ko Andreas'en (16) idatz-atalak.*—Papias'ek auxe diño: «Aretariko batzui, edo bardin dana, antxiña jaungoikozko aingeru izan ziranai, lurra zaintzeko agintaritza emon eutsen, eta ondo agintzeko agindu eutsen». Eta jarraian auxe diño: «Arein agintaritza, osteraz, ezerezean geratu zan».

(Zesarea'ko Andreas'ek: *In Apocalypsin*, 34'gn. atalb., 12'gn. itzaldia. M. G. 106, 217).

V. Liburu onen (Yon'en Apokalipsis izeneko liburua) jainkozko argiari buruz, onezkeroko itzaldia geiago luzatzeko premiñarik ez dagoala uste dogu, Teologua deritxon Gregorio'k, Zirilo'k, eta gaiñera, antxiñakoenetarikoen artean, Papias'ek, Ireneo'k, Metodiod'k eta Ipolito'k *Apokalipsis* sinisgarri dala diñoen ezkeroko.

(Zesarea'ko Andreas'ek: *In pref. in Apoc.*, 2'gn. orri.)

VI. *Anastasio Sinaita'ren idatz-atalak (17).*—Papias'egana bialtzen zaituet, Hierapolis'ko gizonezko guztiz argiagana, Jaunaren bular-gaiñean etzun zan Apostoluaren ikasleagana, baita Klemente'gana be, eta Panteno, Alexandria'ko Gotzainagana, eta Ammonio guztiz jakintsuagana; orreik antxiñako adierazle ta Batzarrak* baiño leenagokoak dira, Kristo'ren eta Elizaren sei egunetako lan guztia ulertzen dabenak.

(Anastasio Sinaita: *Contempl. anagog. in Hexaem*, 1.º lib.: PG. 89, 860).

(13) Hierapolis'ko Apolinario, edo Laodizea'ko bestea.

(14) Ap. Egiñ. 1, 18; Mat. 27, 8.

(15) Orain latiñez datorrena ez da egizat artzekoa; beraz, ez dogu emen jarten.

(16) Anastasio abata 700'garren urtea baiño zerbait geroago il zan.

(17) Papias'en idazlanetara.

(*) Batzarrak: Concilios.

VII. *Paradisuari buruz*.—Elizetako adierazlerik antxiñakoenok: Apostoluen aldiko Filon filosofuak, eta Papias'ek, gizezko guztiz entzutetsu ta Yon Ebanjelariaren ikasleak, Hierapolis'koak, eta orrein jarraitzailleak, Paradisuari buruz esandako gaiak espiritu-bidez* ulertu ebezan, Kristo'ren Elizari ezarririk.

(Anastasio Sinaita: VII'gn. lib.: PG. 89, 962).

VIII. *Maximo Autorlearen (18) idatz-atalak*.—Biotz-garbitasunez Jaungoikoa otseintzen ebenai, areik (19) umeak eritzen, Papias'ek bere *Jaunaren Esakeren Azalpenak* izeneko leenengo liburuan autortzen dauanez, baita Alexandria'ko Klemente'k be bere *Pedagogo'an*.

(Maximo Autorlea'k: *School. in Dionys. Aeropag.*: De cael. hier., 2'gn. atalb.: PG. 4, 48.)

IX. Auxe diño, nire ustez, zerbait illuntsu, Papias'ek, leen Asia'ko Hierapolis'ko gotzain izan eta Yon Ebanjelari santuaren aldiatan bizi izan zanak. Papias onek, ba, bere «Jaunaren esakeren Azalpenak» izeneko laugarren liburuan, biztueran janariaren atsegiña izango zala esan eban... Orixe diño Lion'go Ireneo'k be siñausleen aurkako bosgarren liburuan, eta berak diñoana sendotzeko, aitaturiko Papias dakar.

(Max. Autorlea'k: *De eccl. hierarch.*, 7'gn. atalb.)

X. *Esteban Gobaro'ren (20) idatz-atalak*.—...egia esan, (Estefano'k) Papias, Hierapolis'ko gotzain eta martiria, ez San Ireneo, Lion'go gotzaiña be, ez dauz onartzen, zeruetako erreñua janari somagarri* batzuen atsegiña dala diñoenean.

(Esteban Gobaro: *Apud Phot. Bibliotheca*, 232'gn. kodiz.)

XI. *Sido'ko Felipe'ren (21) idatz-atalak*.—Papias'ek Hierapolis'ko gotzaiñak, Yon Teologuaren entzule eta Polikarpo'ren lagun izan zanak, Jaunaren esakeren bost liburu idatzi ebazan. Liburu areitan, Apostoluen zerrenda egiñik, Pedro ta Yon, Felipe, Tomas eta Mateo aitaturita gero, Aristion eta beste Yon bat izentatzen dauz Jaunaren ikasleen artean; Yon oni, izena *Zaarra* emoten dautso. Orregaitik, Yon'en izenaz dabizan idazki txiki eta katoliku biak Yon onenak dirala uste dabe batzuek, antxiñakoak leenengo idazkia baiño ez dabe ontzat artzen-eta. Beste batzuek, ostera, onetan uts egiñik, Agerpenaren (*Apokalipsis'en*) egille be berau dala diño. Millurteari* buruz be Papias'ek uts egiñen dau, eta onegandik dator Ireneo'ren uts-egia.

(18) VII'garren gizaldikoa.

(19) Areik: leenengo kristauak.

(20) VI'garren gizaldiko idazlea.

(21) IV-V'garren gizaldikoa.

(*) Espiritu-bidez: espiritualmente.

(*) Somagarri: sensible. — (*) Millurte: milenio.

2. Papias'ek, bere bigarren liburuan, Yon Teologua ta Santiago, onen anaia, judarrak il ebezala diño.

Aitaturiko Papias'ek auxe be esan eban, Felipe'ren alabakandik artuta lez: Barsabas'ek Zuzena be ba-critzoenak, sinisbageak gertutako suge-edena edan ebala, baiña Kristo'ren izenean on-onik urten zala. Beste mirari batzuk be azaltzen dauz, batez be Manaimo'ren amaren illen artetiko biztuerara; eta illen artetik Kristo'k biztu ebazanai buruz, Adriano'ren aldirarte bizi zirala diño.

(Sido'ko Felipe'k: *Texte und Untersuchungen*, 1888; TN 5, 2, 170'gn. orri.)

XII. *Jorje Pekatariaren (22) idatz-atalak*.—Domiziano'ren ostean, Nerba urte betean bakarrik izan zan errege; onek, Patmos'ko ugarte bizi zan Yon'i dei eginda, Efeso'n bizi izateko baimena emon eutsan; amabi Apostoluetarik berau bakarrik bizi zan, eta bere Ebanjelioa idatzita gero, odol-eriotza lortzeko grazia jadetsi eban.

2. Izan be, Papias'ek, Hierapolis'ko gotzaiñak, ikusle* izan zanak, *Jaunaren Esakunak* izeneko bigarren liburuan, judarrak Yon il egin ebela diño; orretara, Yon'en anaiagaz batera, onei buruz Kristo'k aurretiaz esan ebana bete eban, bere autorrari ta Jaunaren aginduai zintzoa izanik. Izan be, Jaunak auxe esan eutsen: «Edan daikezue zuek nik edaten dodan edontzia (*kaliza*)?» Eta areik bereala baietz esan eta ontzat artu eutsen. Eta Jaunak: «Edan bear dodan edontzia, edango dozue, bai, baita nik artu bear dodan bateoaz bateatuak be izango zaree» (23).

Eta benetan (Papias'ek diñoanez jazo zan); Jaungoikoak guzurrik esatea eziña da-ta.

3. Olantxe diño Orienes jakintsuak be bere Mateo'ren Ebanjelioaren Azalpenean: Yon'ek odol-eriotza igaro ebala, ori Apostoluen jarraitzailleakandik jakin ebala adierazorik (24). Eusebio guztiz jakintsuak be auxe diño bere «Elizistorian (III, 1): «Tomas'i Partia'ra joatea jazo yakon, Yon'i Asia'ra; antxe bizi izan zan, eta Efeso'n il zan».

(Georgius Hamartolus: *Chronicon*, H. Nolte ediz, *Theol. Quartalschrift*, 44 (1862, 466 orri. ta abar).

(22) IX'garren mendeko idazlea.

(23) Mark. 10, 38, 39; Cfr. Mat. 20, 22, 23.

(24) Orienes'ek «Yon'ek fedea autortu ebala» baiño ez diño (*In Matth.*, XVI, 6'gn. atalb.).

(*) Ikusle: testigo ocular.

XIII. *Eusebio'ren idatz-atalak.*—Aldi areitan, Asia'n Apostoluen entzule zan Polikarpo bizi izan zan; Jaunaren gogoko ta morroiakandik Esmirna'ko Elizako gotzaintza artu eban. Aren aldian, Papias Hierapolis'ko Elizan entzutetsua izan zan, berau be gotzaiña.

(Eusebio: *Eliz-istoria*, III, 36, 1, 2.)

XIV. Ireneo'k eta beste batzuek diñoenez, Yon (teologu (25) ta) Apostolua Trajano'ren aldirarte bizi izan zan. Aren eriotz-ondoren, aren entzule entzutetsu lez, Hierapolis'ko Papias eta Polikarpo, Esmirna'ko gotzaiña, geratu ziran.

(Eusebio: *Eliz-istoria: Chronic. post Traian. ann., Schoene argitarap.*, II, 162).

XV. *San Jeronimo'ren idatz-atalak.*—Papias'ek, Yon'en entzuleak, Asia'ko Hierapolis'ko gotzaiñak, bost liburu soillik idatzi ebazan, eta izen au ezarri eutsen: *Jaunaren Esakeren Azalpena*. Itzaurrean, ez dautsela aren eritzi berezi batzui jarraitzen agertzen dau; Apostoluak izan zirala, ostera, eritzi orrean egilleak, eta auxe diño: «Ander'ek eta Pedro'k, Felipe'k eta Tomas'ek, Santiago'k, Yon'ek eta Mateo'k eta Jaunaren ikasletariko besteren batek esan ebena zer izan zan jakitera eldu nintzan; baita Jaunaren ikasle Aristion'ek eta Yon Zaarrak *itz egiten ebena* (26) zer izan zan be. Izan be, liburuak irakurtea baiño geiago balio izaten daust gaur arte itz egiten diarduen abots bizia entzuteak» (27).

2. Ortik dator, zerrenda beretik, izenatariko bat Apostoluen artean jarritako Yon'i dagokiola, eta beste izena Yon Zaarrari, Aristion'en ostean izentatzen dauanari. Aurrerago aitaturiko eritziagaitik diñogu au (28): an —esan genduanenez—, (idazletariko) geienak Yon'en azken-idazki biak ez dirala, urrean, Yon'enak uste dabe, (Yon) Zaarrarenak baiño.

3. Papias'ek —diño orreik— judarren millurtea atara dau argitara; onetan, Ireneo'k eta Apolinario'k eta gaiñetikoak jarraitzen dautsoe; oneik auxe diño: biztuera-ondoren, Jauna aragitan izango dala errege, santuakaz batera. Badiara beste batzuk be eritzi onen jarraitzaileak: Tertuliano, beronen *Zintzoen Itxaropena* liburuan Biktorino de Pettau eta Laktanzio.

(Hieronymus: *De viris illustr.*, 18'gn. atalb.)

(25) Geitua da.

(26) *Itz egiten ebena*, diño Jeronimo'k; idazlan jatorrak «*egiten dabe itz*» dakar.

(27) Ikusi II'garren idatz-atala, 12'gn. oarra.

(28) Ikusi San Jeronimo: *De vir. ill. (Catal.)*, 9'gn. atalb.

XVI. Beraz, guzurrezko zurrumuru batek, nik Josefo'ren liburuak eta Papias'en eta Polikarpo'renak itzuli izan nebazala sinistu-arazo eutsun. Ez dot asirik orretarako, eta ez dot uste, bear dan beste indar dodanik gai ain andiak zaartasan antzeko izkuntzaz azaltzeko.

(Hieronymus: *Epist. LXXI*, 5'gn. atalb.)

XVII. Ireneo'k diñoenez... Yon Ebanjeliariaren entzule izan zan Papias'en ikasleak...

(Hieronymus: *Epist. LXXV*, 3'gn. atalb.)

XVIII. *San Joan'en Ebanjelioa.*—Azalgaia* asten da, Yon'ek dakarrenez. Yon'en Ebanjelioa, Yon bizi zala izan zan iragarria ta emona, Papias'ek, Hierapolistarra eritzonak, Yon'en ikasle maiteak, bere azalpenetako bost liburuetan azaldu ebanez.

2. Onek (Papias'ek) zuzen idatzi eban barriro Ebanjelioa, Yon'ek zirautsan eraz. Baiña Marzion siñauslea ez eban Yon'ek ontzat artu eta onek gaitzetsi egin eban, beste era batera pentzatzen ebalako. Arek, ostera, Ponto'n egozan anaien eskutitz edo idazkiak ekarri izan eutsazan (29).

(Cod. Vat. Alex. 14, IX'gn. mendekoa, J. M. Thomasius argitarp. Opp. I, 344; Romae 1747; Pitra, *Analecta Sacra*, II, 160.)

XIX. Oneitariko azkena Yon da, izenordez trumoiaren semea. Onetzaz, Ireneo'k, Eusebio'k eta oneik baiño geroago etorri ziran beste istorialari sinisgarri batzuek auxe azaldu dauskue: (Yon) oso zaarra zalarik eta aldi aretan siñauskeri ikaragarriak sortu ziralarik, bere Ebanjelioa Hierapolis'ko gizonezko bikain Papias bere ikasleari esan eutsala itzez, (Papias'ek idazteko), lurreko erriai Itza berak baiño leen iragarri izan ebenen betegarrizat.

(Ex Catena Patrum grec. in S. Joannem ex antiquissimo graeco codice ms. in lucem edita a B. Corderio. Antverpiae 1630.)


XX. *Vardano Vardapeta'ren idatz-atalak.*—Eta ateak itxita egozala (Jesus), Amaikai ta onekaz batera egozan enparaduai agertu yaken. Areik ekarren lerdamiña* —diñoenez— orio ta eztiar erdizka egindako naaste bar zan. Alan be,

(29) Ireneo'k eta Eusebio'k ez diño ezertxo be Apostoluen eta siñausleburuaren arteko eztabaida onetzaz. Filastros'ek dakar ori. Itxuraz, Funk'en eritzi, Yon'en ikasle izan zan Polikarpo'gaz izan eban eztabaida ori.

(*) Azalgai: argumento. — (*) Lerdamin: áloe.

jakiña da lerdamiña intzentzu-mueta bat dana, jeografuak eta Papias'ek diñoenez; izan be, India'n amabost lerdamin-mueta dagoz, euren artean lau bikaiñak: Nikre, Andratartz, Hierravor eta Dzakothen. Orreitariko usaingarriz egoan eginda Jose'k eta Nikodemo'k illobirako emon ebena; aberatsak ziran-eta.

(Ex Solutionibus in IV Evangelium Vardani Vardapeti Armenii, saec. XII, ed. Conybeare in Guardian 1894. 18. Julii.)



HERMAS'EN ARTZAIÑA

Liburua ta egillea.

Interesgarria benetan kristautasunaren II'garren mendek itzi euskun liburu au! Antxiñako kristauak liburu kutuna lez erabilten eben, eta Jaungoikoaren argiz idatzitako Liburu Santuen ondo-ondoan ibili zan gizaldietan. IV'garren mendean gerkeraz idatzitakoa, *Codex Sinaiticus* izenekoan dago, eta Erdi-Aroko leenengoetarik galduta egoala, Tischendorf'ek aurkitu eban, 1859'garren urtean.

Leen esan dogune, II'garren mende-erdi aldean idatzi eban Hermas eritzon batek. Baiña, nor zan Hermas ori? 1740'garren urtean argitaratutako «Muratori» izeneko agiri ospatsuak diñoenez, Pio, Erroma'ko Gotzaiñaren anai izan zan Hermas'ek idatzi eban, Erroma'n, 117-1140'garren urte-bitartean (Pio, barriz, 140'garrenetik 155'garrenera izan zan Aita Santu).

Erroma'ko kristau-bizitzaren argitasun biziak azaltzen dauskuz, kristauak oraindiño aurrean erabilliak ziran aldikoak. Alan be, kristauak ugaritzen yoiazan, eta giza-mailla guztietarikoak ziran: beartsu ta aberats. Baiña aberats eta andikien artean ba-ziran batzuek baiño geiago kristautasuna ukatzen ebenak, eraso gaiflean ikusten ebenean. Gaiñera, ainbat alderdikeri sortu zan, nor andiago izan nairik.

Aldi aretan etorri ziran *gnosis*-zaleak be, euren irakatsiak zabaltzera, kristauen artean eztabaidak eta banantzeak sortzen ebezala. Alan be, kristauak gefenak sendo iraun eben fedean eta kristau-bizikeran, Hermas'ek kristau-izena oraindiño «santu» emoten dau-tsela (1).

Hermas, Elizaren agintarienatarikoa izan ezarren be, bere liburu onetan, profeta lez agertzen yaku, zeruaren izenean arei damu-bearra ta bizitza-barriztea iragaririk. Hermas'ek bere bizitza azaltzen dausku —batzuetan olerti-eraz—, eta ortxe sartzen ditu osterantzeko ainbat gai. Berak diñoenez, umetan edo gaztetan, Erroma'n bizi zan Roda izeneko andra kristau bati izan zan saldua otsein lez. Andra orrek egin eban kristau Hermas. Jatorriz, antza, gerkarra izan zan, bere idazkeran igarten yakonez. Roda'k askatasuna emon eutsanean, Hermas'ek merkataritzara jo eban, eta aberastu egin zan. Ez-konduta, seme-alabak naiko burukomin emon eutsoen. Berak diñoenez, bere semeak galdu batzuk egin ziran, baita fede-ukatzaille be. Eta Hermas'ek bere ondasun guztiak galdu ebazan. Bere semeak kristautzat salatu ebelako Domiziano'ren erasoaldian (96'ga-

(1) San Paulo'k eta Apostoluen aldiko Eliz-gurasoak, kristaua «santu» esanda izentatzen eben.

rren urtean) edo Trajano'renean (IIz'garrenean)? Ez dakigu. Baiña, naigabe, ondasun-galtze ta etxe-barruko gora-beerakaitik, Hermas Jaungoikoagana biurtzen da biotzez, bizikera barria artzen dau. Beste orrenbeste nai dau eliztar guztientzat.

Baiña, ikusi dagigun berak azaltzen daskuna II'garren mendeko kristau-aldi ari buruz, geu be, espirituaz, aldi aretako gora-beeretan murgiltzen garala.

I. IKUSKETAK

Jaungoikoa lagun, *Artzaiña* deritzon liburua asten da (2).

Leenengo ikuspena

Hermas'ek egin ebazan pekatuak.—1. Ni azi nenduan ugazabak (3), Rode (4) izeneko andra bati saldu nenduan Erroma'n. Urte asko geroago, andra ori barriro ikusi neban, eta arreba bat lez maite izaten asi nintzakion.

2. Zerbait geroago, Tiber ibaian bustialdi bat artzen ebala ikusi neban, eta eskua luzatu neutsan, ibaitik urtetan lagundurik. Eta aren edertasuna ikusirik, nirekautan auxe niñoan: «zoriontsua izango nintzake andra au lako ederra ta izakera onekoa ba'neuke». Auxe bakarrik pentzatu neban, eta besterik ez.

3. Geroago, Kumas'era joan nintzan, Jaungoikoaren izakiak euren anditasun, bikaintasun eta aal-izateagaitik goraturik, eta bidean loak artu nenduan. Eta une aretan, espiritu batek artu ta ezin igaro zeitekeaneko leku batean zear eroan nenduan; ez dago andik oiñez joango litzaken gizonik. Troka, arkaitzua eta urak ebagitakoa zan. Beraz, ibai aretatik igarota, lautada batera eldu nintzan, eta belaunikoturik, Jaunari otoitz egiten eta neure pekatuak autortzen asi nintzan.

4. Eta otoitzean niarduan artean, zerua zabaldurik, nik gura izan neban andrea ikusi neban; agurtu egin nenduan zerutik eta auxe ziraustan: «Agur, Hermas!»

5. Nik, ari begira, auxe esan neutsan: «Andra, zer egiten dozu zuk or?» Eta arek auxe erantzun eustan: «Jaunaren aurrean zeure pekatuak salatzeke izan naz jaso ona». Eta nik: «Neure salatzaile izango al-zara orain zu?»

6. «Ez —erantzun eustan—, baiña entzun egizuz esango dautsudazan itzak: Zeruetan bizi dan eta dana ezerezetik egin dauan Jaungoikoa, bere Eliza Santuaren maitasunarren dana aberasturik eta ugariturik, asarratuta dago zure aurka, nire aurka pekatu egin dozulako».

(2) *Codex Athensis* izenekoaren asiera. Laterazko itzulpena onela asten da: «Liber Pastoris nuntii poenitentiae»: Damu-nekearen mandatari dan Artzaiñaren Liburua.

(3) Beraz, Hermas ez zan izan otsein eresia, bere leenengo ugazabak azia baiño. Zahan'en eritiz, Hermas'ek bere gazte-urteak Ejipto'n egin ebazan, ugazaba judar bategaz.

7. «Andra —erantzun neutsan—, pekatu egin dot zure aurka, ala? Zelan? Noiz esan dautsut itz lizunik? Ez zaitut artu, ba, beti jainko-eme* lez? Ez dautsut, ba, beti lotsa izan, arreba bati lez? Zegaitik diñozu, andra, guzur-baltza nire aurka, niri gaiztakeriak eta lizunkeriak ezarririk?»

8. Arek, barriz, irribarreka, auxe esan eustan: «Zure biotzera gaiztakeri-guraria igo da. Ez al-deritzazu zuk gaiztakeria gizonezko zintzo batentzat, beronen biotzera gurari gaizto bat igoteari? Bai, pekatu da eta andia —esan eban—. Izan be, gizon zuzenak bururapen zuzenak darabiz buruan. Eta arek buruan zuzena dana darabilen artean, jagi egiten da zeruan bere aintza, eta Jauna dau lagun bere artu-emon guztietan. Baiña, euren biotzean gaiztakeriak asmatzen dabezanak, euren buruarentzat eriotza ta menpetasuna ekarten dabez, batez be mundu onetako gauzak irabazten aalegintzen diranak, euren aberastasunetan pozten diranak, eta geroko ondasunai lotzen ez diranak.

9. Damutu daitezala onezkero itxaropenik ez daben arimak, eurakan eta euren bizian ustea galdu dabenak. Zuk, ostera, otoitz egiozu Jaungoikoari, eta Berak osatuko ditu zure pekatuak eta zure etxekoena eta santu (edo kristau) guztienak» (5).

II. Itzok esanda, zeruak itxi egin ziran. Baiña ni bildurrez beterik eta oso itun (triste) geratu nintzan, neurekautan niñoala: «Onelako pekatua bizitza-liburuan idatzita ba'dago, zelan salbatu aal izango ete-naz? Edo, zelan baretu aal izango ete-dot Jaungoikoa nik egin dodazan pekatuakaitik? Edo-ta, zein itzez erregutuko ete-dautsat Jaunari, nitzaz erruki izan daiten?»

2. Nirekautan onela ausnartzen eta gaiok neure biotzean erabilten niarduan artean, nire aurrean jarleku (6) zuri ta andi bat ikusi neban, edurra baizen artule zuriz estalduta. Eta andra zaar bat agertu zan, soifneko dizditsuz jantzita, eskuetan liburu bat eukala. Bakarrik jesarririk, «Agur, Hermas!» esanez agurtu nenduan. Eta nik, itun eta negartsu, «Agur, andra!», erantzun neutsan.

3. «Zegaitik orren itun, Hermas? —itandu eustan—, eroapentsu ta otzan eta beti barrekor zaran ori? Zegaitik orren gogo-jausia eta ez alaitzu?» «Andra bikain bategaitik —erantzun neutsan nik—; bere aurka egin dodala pekatu esan daust».

(4) Rode izena, «Apostoluen Egiñak» izeneko liburuan agertzen da: 12, 13.

(5) Cfr. Ps. 2, 4; 122, 1; Tob. 5, 17; Gen. 1, 28 eta abar; Deut. 30, 30; Jer. 3, 32. Aberastasunen gurari bidebageari buruz: Sant. 1, 14; Tim. 1.^a, 6, 9, 10. «*Santuak*»: cfr. Didaje, IV, 2.

(6) Antxiñakoak Liburu Santua edo Biblia zutik irakurten eben (Luk. 4, 16); baiña irakasten ebenean, jesarrita (Yon, 8, 2; Mat. 5, 1; 13, 1; 15, 29; Apost. Egiñ. 16, 3).

(*) Jainko-eme: diosa.

4. Eta andereak auxe esan eustan: «Ezela be ez daitela etorri orrelakorik Jaungoikoaren otseñaren gaiñera! Baiña, egia da zure biotzera arenganako guraria igo zala; eta orrelako bururakizunak Jaungoikoaren otseñakan pekatua daroa beragaz. Izan be, bururapen gaizto ta latza da espiritu zintzo ta asko-ikusia-gan egintza zital bat, batez be Hermas garbiagan, edozein gurari gaiztotik urrun bizi danagan eta edozein bakuntasun eta tolesbagetasunez beterik dagoan Hermas'egan».

III. «Alan be, ez da orregaitik Jaungoikoa zugaz asarratzen, zeure etxe-koak biurtu dagizuzan baiño, Jaunaren aurka eta zeuen aurka —gurasoon aurka— egin dabe dongakeria-ta. Baiña zuk, zeure semeai dautsezun maitasunagaitik (7), ez dautsezu agirakarik egin, eta galdukeri ikaragarrian jausten itzi dautsezu. Orrexegaitik dago, ba, asarre Jauna zure aurka. Izan be, arein pekatu ta dongakeriakaitik, oker urten yatzuzan zure gizarte-arazoak» (8).

2. «Alan be, Jaunaren erruki andia (9) erruki izan yatzue zuri ta zure etxe-koi, eta Berak sendotu ta gogortuko zaitu bere aintzan. Zu, barriz, ez izan nag, adorea artu ta zure etxe-koak sendotu baiño. Errementariak, jo ta jo egiñaz, bere lana berak gura dauanez osotzea lortzen dauanez, olantxe itz zuzenak, egun oro esanda, edozein gaiztakeri menperatzen dau. Ez aspertu, ba, zure semeai agiraka egiten; izan be, ba-dakit, biotz-biotzez garbatu ba'daitez, santuakaz bate-ra bizitza-liburuetan izango dirala idatzia».

3. Itzok amaituta, auxe esan eustan: «Entzun nai al-daustazu irakurriko dodana?» «Gura dot, andera», erantzun neutsan. «Entzun egidazu, ba —esan eustan—, eta aditu egizuz Jaungoikoaren miragarriak».

Eta buruan ezin gorde dodazan gai andiak eta zoragarriak entzun nebazan. Izan be, entzun neban guztia gizonak ezin irunsi daikezan itz ikaragarriak ziran (10). Aren azken-itzak, orraitioño, gogotan artu nebazan, guretzat onurakor eta samurrak ziran-eta:

4. «Begira: Aaldunen Jaungoikoak (11), bere aal-izate ikus-eziñaz eta bere adimen indartsu ta andiaz mundua egin eban Arek, bere itz indartsuaz zeru-sabaia lotu, eta lurra ur-gaiñean sendotu (12), eta bere jakituri ta arduratasunaz bere Eliza Santua sortu ta bedeinkatu be egin eban Arek, Berberak aldatuko

(7) Cfr. Tito, 2, 4.

(8) Semeakaitik, Jaungoikoak Hermas zigortu egiten dau.

(9) «Jaungoikoaren errukia»: Hermas'ek sarritan darabilen gaia. Cfr. Sant. 5, 11; Ef. 4, 32; Pedr. 1.^a, 3, 8; Apost. Egiñ. 1, 18.

(10) Cfr. Edras, IV, vi, 17.

(11) Cfr. Ps. 58, 6 eta abar; Apost. Egiñ. 17, 24; Makab. 2.^a, 7, 23.

(12) Is. 42, 5; Cfr. Ps. 32, 6; Jer. 10, 12; Mak. 2.^a, 7, 23.

dauz zeruak eta mendiak, muru ta itsasoak, eta guztia lau-lau geratuko da bere aukeratuentzat, aintza ta poz andiz egin eutsen agintzaria beteteko, fede andiaz artu eben Jaungoikoaren erabagiak gordetekotan».

IV. Irakurgaia amaitu ebanean eta jarlekutik jagi zanean, lau gazte agertu ziran, eta jarlekua kendurik, eguzki-sortzalderantz joan ziran (13).

2. Orduan, niri dei egin, nire bularra ikutu ta auxe esan eustan: «Gogoko izan al-yatzu irakurri dautsudana?» «Andera —erantzun neutsan—, azken-gaiok gogoko yataz, bai; baiña, leenengoak gaitzak eta gogorak dira». Eta andereak: «Azken-gaiok zuzenentzat esan dira; baiña leenengokoak jentillai ta fede-ukatzailleai dagokiez».

3. Nigaz itz egiten ziarduala, gizonezko bi agertu ziran, besotik oratu eutsoen, eta jarlekua egoan eguzki-sortzalderantz aldendu ziran. Anderea pozik aldendu zan, eta, joatean, auxe esan eustan: «Gizonkiro jokatu egizu, Hermas!» (14).

Bigarren ikuspena

Beste liburu ezkututsu bat.—1. Aurreko urteko aldi berean Kumas'era niñiñala, bidean aurreko ikuspenna etorri yatan gogotara. Eta barrero espiritu batek gora jaso eta aurreko urteko toki berera eroan nenduan.

2. Eta ara elduta, belauniko, Jaunari otoitz egiten eta bere izena goratzen asi nintzan, duintzat artu izan nendualako ta antxiñako nire pekatuak ezague-razo izan eustazalako.

3. Eta otoitzetik jagitean, aurreko urtean ikusi izan neban andera bera ikusi neban nire aurrean; ibilli ebillen eta liburutxo bat irakurten ziarduan. Eta auxe esan eustan: «Iragarri al-daikezuz gaiok Jaungoikoaren aukeratuai?». «Andera —erantzun neutsan—, ezin daikedaz buruan gorde orrelako gai andiak; emoidazu, ba, liburutxo ori, idatz-aldatu* dagidan». «Eutsi —esan eustan—, eta biurtu egidazu barrero».

4. Artu neban eta, basoko alako toki batera baztarturik, guztia idatz-aldatu neban, izkiz-izki (edo letraz-letra), itzen banantzea ez neban idoroten-eta (15). Beraz, liburutxoko izkiak idatz-aldatuta gero, bat-batean izan yatan kendua esku-artetik; baiña ez neban ikusi nok kendu eustan.

(13) Cfr. Apoc. 7, 2. Eguzki-sortzaldetik jaioten da gure salbamenaren argia (cfr. Luk. 1, 78; Mat. 2, 2). Antxiñakoak eguzki-sortzalderantz begira egiten eben otoitz (cfr. Tert.: *Apol.*, 16^{garren} atal.).

(14) Cfr. *Mart. Polic.*, 9, 1.

(15) Antxiñako idazkietan *lectio continua* erabilten zan, edo bardin dana, ez ziran itzak alkar-banantzen.

(*) Idatz-aldatu: copiar.

II. Gero, amabost egun barru, nik barau egin eta Jaunari otoitz eginda gero, idazkiaren ezaguera erakutsi yatan. Eta ona emen idatzitakoa:

2. «Zure ondorengoak, Hermas, Jaungoikoaren aurka pekatu egin eta Jauna biraokatu egin dabe, eta euren gurasoen saltzaille izan dira gaiztakeri andiz (16). Izena, «euren gurasoen saltzaille» emon eutseen; baiña, euren saldukeritik ez eben ezer onik atara, pekatuen gainean pekatuak pillatzen jardun izan eben, ostera, euren buruak galdukeri ta gaiztakeri-loikerietara emonik; eta orretara, euren dongakerien negurria bete dabe.

3. «Alan be, jakiñerazo egiezuz itzok zure seme guztiai ta zure emazteari, zeure arreba izango da-ta (17). Izan be, arek ez dau miiña eziten, eta miiñaz pekatu egiten dau (18). Baiña itzok entzun dagizanean, bere buruaren jabe izango da eta errukia jadetsiko dau.

4. «Jaun guztiz Gorenak zuri agertzeko agindu eustazan itzok zuk arei esanda gero, orduan leen egin ebezan pekatu guztiak parkatuko yakez —eta bardin gaur arte pekatu egin eben santu (edo kristau) guztiai be—, biotz-biotzez biurtu eta euren biotzetik ezpaiak jaurtitekotan.

5. «Izan be, ona emen Jaun guztiz Gorenak bere aukeratuai buruz bere aintzagaitik egin dauan ziña: 'Egun au amaituta, norbaitek oraindiño pekatu egin ba'dagi, alakoak ez dabe osasunik (edo salbamenik) lortuko'. Izan be, zintzo guztientzako Jaungoikoagana biurtzeak muga bat dauko. Bete dira santu (edo kristau) guztientzako biurtze-egunak. Jentillentzat, barriz, biurtzeko abagunea* azken-egunerarte dago (19).

6. «Beraz, Elizan buru egiten dabenai (20) auxe esango dautsezu: 'Euren bideak zuzentasunez zuzendu dagiezala, agintzariak aintza andiz gainezka artu dagiezan'.

7. «Iraun egizue, ba, zuzentasuna egiten dozuena, eta jokatu ezpai bagarik, zuen sarrera aingeru santuakaz izan daiten (21). Zoriontsuak, etorteko dan samiñaldi andia ondo eroan dagizuenok, baita euren bizitza ukatu ez dagienak be! Izan be, Jaunak bere Semeagaitik zin au egin eban: 'Bere Jauna ukatu dagienak, baztartuak izango dira eta euren bizitza galdu egingo dabe' (22); ori, orain, etorteko diran egunetan ukatu dagienak. Baiña, leenago ukatu dabenai, erruki izan yake bere biozpera andiagaitik.

(16) Semeak eurak izan ziran, antza, euren gurasoen saltzaille agintarien aurrean (cfr. Gen. 15, 16; Dan. 8, 23; Tes. 1.^a, 2, 16).

(17) Edo bardin dana: emaztea; cfr. Tob. 7, 15.

(18) Cfr. Sant. 3, 5 eta urreng.; Tim. 1.^a, 5, 13.

(19) Biurtze edo damu-nekea, emen, *bateoa* ulertu bear da.

(20) Cfr. III^ogarren Ikuskera, ix, 7; cfr. Klemente'ren 1.^a, xxi, 6.

(21) Edo bardin dana: mundu onetatik urtekeran, aingeruakaz batu daitezana.

(22) Mat. 10, 33.

(*) Abagune: oportunidad.

III. «Zuk barriz, Hermas, ez ekarri aurrerantzean gogotara zure semeen maltzurkeria (23), ezta zure arreb(e)a be ez itzi bertan-beera, euren antxiñako pekatuetatik garbitu daitezana. Izan be, zuk gorrotorik gorde ez ba'dagiezu, irakatsi zuzenaz izango dira irakatsiak. Izan be, maltzurkerien gomutak (edo gorrotoak) eriotza dakar. Zuk, Hermas, naigabe andiak eroan dozuz zure buruan zure etxekeen biurrikeriakaitik, ez zenduan arein ardura txikienik artu-ta. Zure ardurak beste alde batera ebizan eta zeure irabazpide gaiztoetan sartuta bizi zintzazan.

2. «Alan be, Jaungoiko bizia ez ukatzeak atara zaitu onik, baita zure bakuntasun eta garbitasun bereziak be. Orrekek atara zaitu onik —orretan irauten ba'dozu beintzat—, eta orrekek ataraten dauz onik orretara jokutzen eta tolesbagetasunez eta bakuntasunez dabizanak be. Orreik edozein gaiztakeri garaituko dabe eta betiko bizitzarako aukeratuak izango dira.

3. «Zoriontsuak, zuzentasuna egiten dabenak!; ez dira betiko galduko.

4. «Auxe esango dautsazu Maximo'ri (24): 'Begira: samiñaldia dator. Ondo ba'deritzazu, ukatu barrero be (25). Damutzen diran guztiakandik urr dago Jauna (26), bakartadean erriari aurretiaz iragarri eutsosen Eldad eta Modat (27) ize-neko liburuan idatzita dagoanez'».

IV. Ni lotan nengoan artean, anaiok, mutil gazte eder-eder batek agerpen bat egin eustan, auxe esanez: «Nor uste dozu dala zuk, liburutxo emon eutsun andera a?» «Sibila anderea» (28), erantzun neutsan. «Oker zagoz —esan eustan—; ez zan Sibila anderea izan». «Nor izan zan, ba?» itandu neutsan. «Eliza da», erantzun eustan arek. Eta nik: «Zegaitik da, ba, zaarra?». «Gauza guztien artean leenen egiña izan zalako; orrexegaitik da zaarra; eta beragaitik izan da eratua mundua».

2. Onen ondoren, neure etxean izan neban ikuspen bat. Andera zaar a etorririk, ea liburutxo a zaarrai (29) itzi neutsen itandu eustan. Ezetz erantzun neban. «Ondo egin dozu —esan eustan—, beste itz batzuk esan bear dodaz gainfiera-ta. Eta esan bear dautsudan guztia osotu dagidanean, zeuk jakiñerazoko dautsezu aukeratutako guztiai.

(23) Beste era batera: «ez gorde gorrotorik aurrerantzean zure semeen aurka...».

(24) Maximo: ez-ezaguna.

(25) Irri-mirrika* dirautso.

(26) Ps. 33, 19: «Saminduakandik urr dago Jauna».

(27) *Eldad* eta *Modat*: cfr. Num. 11, 26.

(28) Ementxe agertzen da leenengoz «Sibila» izen ori kristau-literaturan.

(29) Cfr. v. 3; III^ogarren Ikusketa, i, 8.

(*) Irri-mirrika: irónicamente.

3. «Beraz, liburuxto bi idatzaldutako dozuz, eta bata Klemente'ri bialduko dautsazu eta Grapta'ri (30) bestea. Klemente'k kanpoko urietara bialduko dau, arazo ori dauko artuta-ta; eta Grapta'k andra alargunai eta umezurtzai (31) erakutsiko dautse. Zuk, barriz, uri onetan Elizan buru egiten daben zaarren (32) artean irakurriko dozu».

Irugarren ikuspena

I. Nik izan neban irugarren ikuspena, anaiok, auxe izan zan:

2. Andera aren bidez agertzea agindu izan eustan agerpena jakifierazo egistan, sarritan barau eginda eta Jaunari otoitz eginda gero, gau berean agertu yatan anderea, eta auxe esan eustan: «Dana jakiteko orren larri ta arduratsu zagozan ezkerro, zoaz galzuria* ereinda daukazun solora, eta gutxi gora-beera bosgarren orduan agertuko nakizu eta ikustea egoki yatzuna erakutsiko dautsut».

3. «Andera —esan neutsan nik—, soloko zein lekutara?» «Zeuk nai dagizunera», erantzun eustan. Toki eder eta bakartu bat aukeratu neban. Baiña nik ari itz egiten eta tokia izentatzen asi baiño leen, «Zeuk nai dagizun tokira joango naz», esan eustan.

4. Joan nintzan, ba, solora (33), anaiok; eta orduen kontua arturik, etorteko izentatu izan neutsan tokira jo neban. Eta begira: marfillezko jarleku bat dakust (ikusten dot) an eta jarlekuaren gainean liñozko aburdiko* bat, eta onen gainean, zabaldua, miesa bat, au be liño eder-ederrez egiña.

5. Guzti a arela atonduta ikusirik eta toki aretan iñor be ez egoala, arrituta geratu nintzan eta uleak be tente jarri yatazan eta ikar(e)a lakoak artu nenduan, bakarrik nengoan-eta. Baiña neure senera biurturik eta Jaungoikoaren aintza gogotara ekarririk, adorea artu neban eta, belaunikoturik, Jaungoikoari barrero neure pekatuak autortu neutsazan, leenengo aldiz egin nebanez (34).

6. Orduan, andra zaarra etorri zan, leen be ikusi izan nebana (35); nire ondoan jarririk, nik zelan egiten neban otoitz eta nire pekatuak Jaunari zelan autortzen neutsazan entzun eban. Gero, niri ikutu bat egiñik, auxe esan eus-

(30) *Grapta*: gutxitan irakurten da izen au.

(31) Andiak izan ziran antxiñako Elizaren erruki-egintzak, bazte be andra alargunai, umezurtzai, espetxeratuai ta erromesai laguntza emonik.

(32) Hermas'ek «liburuxtoa» Erroma'n agirian irakurriko dau, «Elizan buru egiten dabenen» aurrean; izan be, Hermas entzute andikoa zan Erromar-Elizan, «profeta» lez.

(33) Cfr. Esdras, 9, 26. Cfr. IV'gn. Ikusketa, i, 2.

(34) Cfr. I^o. Ikusketa, i, 3.

(35) Cfr. I^a. Ikusketa, iv, 1.

(*) Galzuri: escanda, trigo desbarbado. — (*) Aburdiko, aurdiko, aurtiko, lumardi: almohadón.

tan: «Hermas, naikoa da zure otoitza beti zeure pekatuak buruz egiterik; baita zuzentasunaren alde be otoitz egizu, zure etxean zuzentasunaren zerbait artu dagizun».

7. Orduan, niri eskutik oraturik, jaso ta jarlekura eroan nenduan, gazte arei zirautsela: «Joan eta ekiozue torregintzari».

8. Gazteak alde egin ebenean eta biok soillik geratu gintzazanean, «Jesarri emen», esan eustan. «Andera —esan neutsan nik—: laketu egizu leenen zaarrak jesartea». «Egizu neuk dirautsudana —erantzun eustan—; jesarri zaitez».

9. Eta nik eskumaldean jesarri nairik, ez eustan laketu, eta bere ezkerrekaldean jesarteko agindu eustan eskuaz. Aren eskumaldean jesarten laketu ez eustalako, ni neure gogotan* eta itun nengoala, arek auxe esan eustan: «Itun al-zagoz, Hermas? Eskumako lekua beste batzui dagokie, onezkero Jaungoikoaren gogoala egin eta Aren izenagaitik nekeak eroan dabezanai. Zuk, ostera, asko bear dozu oraindiño arekaz batera jesarteko. Baiña, orain arte lez, iraun egizu zure bakuntasunean, eta arein ondoan jesarriko zara, eta bardin areik egin ebezan egintzak egin dagiezanak eta areik eroan ebezan nekeak eroan dagiezanak be».

II. «Zeintzuk neke eroan ebezan?», itandu neutsan. «Entzun —erantzun eustan—: zigorkadak, espetxeak, naigabe andiak, gurutzeak, pistiak (36)... dana Izenagaitik (37). Orrexegaitik gordeten yakez euroi ta Jaunaren Izenagaitik nekeak eroan ebezanai jauretxeko eskumaldeko jarlekuak. Ezkerreko beste jarlekuak enparaduai dagokiez. Baiña batzui eta bestetzui, eskumaldean jesarten diranai eta ezkerrekaldean jesarten diranai, doai berberak eta agintzari berberak gordeten yakez; alan be, areik eskumaldean jesarten dira eta aparteko aintza dauke».

2. «Areak eskumaldean jesarteko gogo andia dozu; baiña zure utsegiñak asko dira. Alan be, zure utsegiñetatik garbitua izango zara; eta ezpaitan egon daitezkanak be egun onetan euren pekatu guztietatik garbituak izango dira».

3. *Torregintza*.—Ori esanda, alde egin nai izan eban. Baiña nik bere oiñetan auzpaturik, berak agindu izan eustan ikuskizuna agertu egistala eskatu neutsan Jaunarren.

4. Eta arek, barrero be niri eskutik oraturik, zutundu egin nenduan, jarlekuan, bere ezkerrekaldean, jesarrerazoten nenduala. Bera ezkerrekaldean jesarri zan. Eta, makilla argitsu bat jasorik, «Ikusten al-dozu gauza andi bat?», esan

(36) Cfr. Iñazio: *Ad. Rom.*, 5, 3. Cfr. Ebert. II, 36.

(37) Kristauak, kristau izenagaitik izan ziran aurrean erabiliak edo jazartuak.

(*) Gogotan egon: estar pensativo.

eustan. «Andera, ezertxo be ez dot ikusten», erantzun neutsan. Eta arek: «Begara! Ez al-dozu ikusten zure aurrean torre (38) andi bat, ur-gaiñean arlandu argitsuz jasoten diarduen torrea?»

5. Izan be, lau aldeko* baten, andereagaz etorri izan ziran sei gazte areik torre bat jasoten ziarduen. Eta beste gizon batzuk, ezin zenbatu-ala, arriak ekarrezan, arri batzuk itsas-sakonetik, beste batzuk legorretik, eta sei gazteai emoten eutseezan. Oneik arriak artu eta torrea egiten ziarduen.

6. Eta alan, itsas-sakonetik tatarras ekarritako arri guztiak ipinten ebezan torrean. Izan be, guztiak egozan landuta eta beste arriakaz bat etozan, eta arri bakoitza besteakaz egoki-egoki lotzen zan, lotunerik be igarten ez yakela. Onetara, torreak arri batzuek bakarrik egoala eginda zirudian.

7. Legorretik ekarritako beste arriak, batzuk baztatu eta beste batzuk torrean ipinten ebezan; beste arri batzuk apurtu eta torretik urrun jaurtiten ebezan.

8. Beste arri asko egozan torre-inguruan botata, torrea egiteko erabili bagarik. Izan be, areitariko arri batzuk zeetuta egozan, beste batzuk brintzatuta, besteak koskatuta, beste batzuk zuriak eta biribillak ziran eta ez ziran torrerako gauza.

9. Torretik jaurtitako beste arri batzuk be ikusten nebazan, bidera jausten ziranak; baiña ez ziran an geratzen, bidetik toki igarogaitz baterantz yoiazan txirrinbolaka. Beste arri batzuk, sutara jausten ziran eta antxe kiskaltzen ziran; eta beste batzuk, azkenez, ur-ondora jausirik, ez eben txirrinbolaka uretara eltzeko indarrik, txirrinbolaka uretara eldu nai ebenarren.

III. *Ikuspenaren azalpena.*—Andereak, niri guzti ori erakutsita gero, alde egin nai eban. Baiña nik auxe esan neutsan: «Andera, zetarako yat guzti ori ikustea, gauza bakoitzak adierazoten dauana ez ba'dakit?». «Jakín-gura andia zara, gizon —erantzun eustan arek—, torreari dagokiona jakín nairik». «Bai, andera —esan neutsan—; anaiari iragarteko nai dot jakín, eta olan pozago jarri daitezcan eta, ori jakinda gero, Jauna aintza andiz ezagutu dagien».

2. Ori askok entzungo dabe, urrean —esan eustan—; baiña entzunda gero, batzuk poztu egingo dira eta beste batzuek negar egingo dabe. Alan be, azken-oneik be, entzun ba'dagie eta garbatu ba'daitez, poztu egingo dira. Entzun, ba, torre oni buruzko antz-irudiak, guztia agertuko dautsut-eta. Ez zakidaz aurreantzean gogaikarri izan, niri ikuskizunik eskatzen: izan be, ikuskizunok muga bat dauke, onezkero beteta dagoz-ta. Alan be, zu ez gelditu ikuskizunak eskatzen, ez-egokia* zara-ta.

(38) Torreak Eliz(e)a adierazoten dau, baiña zintzoak eta pekatariak artzen dauana ez, salbatzen diranen Eliza baiño.

(*) Lau aldeko: cuadrilátero. — (*) Ez-egoki: inoportuno.

3. «Au onela dala, egiten ikusten dozun torre au, neu nerau naz, Eliza, leen eta orain agertu yatzuna. Beraz, itandu edozer torreari buruz eta neuk agertuko dautsut, santuakaz (edo kristauakaz) poztu zaitezcan».

4. «Andera --esan neutsan nik—, ori niri agertzeko duin nazala uste izan ba'dozu, agertu egidazu». Eta arek: «Agertzea egoki dakizun guztia agertuko yatzu, zure biotza Jaungoikoagaz egotekotan eta ikusi dagizun ezertxoaz be ez-paitan ez egotekotan» (39).

5. Orduan auxe itandu neutsan: «Andera, zegaitik dago torrea ur-gaiñean eginda?». «Leen esan neutsunez —erantzun eustan—, oso maltzurra zara eta ardura andiaz arakatzen dozu; arakaturik, ba, egia idoroko (aurkituko) dozu. Au olan dala, entzun torrea zegaitik dagoan ur-gaiñean eginda: zuen bizia uraren bidez salbatu dalako eta uraren bidez salbatuko dalako (40). Baiña, torrearen oiñarria Izen guztialdun eta aintzatsuaren itza da, eta torre orrek Jaun guztiz Gorenaren aal-izate ikus-eziñaren bidez irauten dau».

IV. Itza arturik, auxe esan neutsan: «Andera, au andia ta zoragarria da. Eta torrea egiten diarduen sei gazteok, nortzuk dira?». «Oneik —erantzun eustan—, leenen egiñak izan ziran Jaungoikoaren aingeru santuak dira; orrexei emon eutsen Jaungoikoak Berak egindako guztia (kreaziñoa), egindako guztia geitzeko, eta agintzeko (41). Beraz, onexein lanaz osotuko da torregintza».

2. «Eta arriak dakarrezan besteak, nortzuk dira?», itandu neutsan. «Orreik be —esan eban— Jaungoikoaren aingeru santuak dira; baiña zazpi areik bikaintasunez oneik baiño gorago dagoz (42). Eta torregintza amaitu daiteanean, guztiak batera ospatuko dabe jai bat torrearen inguruan eta Jaungoikoa goratuko dabe, torregintza amaitu zalako».

3. *Arrien ants-agiria.*—Beste itaun bat egin neutsan: «Andera, arriak nun gelditu ziran eta arcitariko bakoitzak zer adierazoten dauan nai neuke jakín». Eta arek, erantzunik, auxe esan eustan: «Guztiak baiño duiño al-zara zu, au agertua izan dakizun? Izan be, beste batzuk zu baiño aurreragoak eta obeak dagoz, eta arexei yake egoki ikusketok agertzea. Baiña Jaungoikoaren izena goratua izan dadin (43), zeuri egin eta egingo yatzuz aurrerantzean be ikusketa oneik ezpaitan dagozanakaitik: gauza oneik benetan diran ala ez diran euren barruan pentza-

(39) Cfr. Didaje, IV, 4.

(40) Edo bardin dana, bateoaren bidez.

(41) Cfr. Sap. 9, 2. Cfr. Papias: IV^ogn. *Idatz-atala*.

(42) Angeruen arteko aldea Biblian be agertzen da: Tes. 1.^a, 4, 16; Ef. 1, 21; 3, 10; Pedr. 1.^a, 3, 22.

(43) Cfr. II^ogn. *Ikusketa*.

tzen diardue-ta (44). Esan egiezu, gauza guztiok egiazkoak dirala eta oneitan egia baiño beste ezertxo be ez dagoala: guztia sendo, zigor eta gogor oiñarrituta dagoala, ostera.

V. «Entzun orain, torregintzan sartzen diran arriak buruzkoa. Izan be, euren lotunetan ain egoki alkartzan diran arri lauki ta zuri areik, apostoluak, gotzaiñak, irakasleak eta laguntzailleak (edo diakonuak) dira; oneik, Jaungoikoaren santutasunean jardun izan dabe eta euren gotzaintza, maisutza ta diakonutza garbiro ta santukiro bete dabe Jaungoikoaren aukeratuen serbitzurako. Oneitarik, batzuk il egin dira, beste batzuk bizi dira oraindiño. Oneik, beti alkar ondo eroanda bizi ziranak, alkarren artean bakea gorde ebenak eta alkar entzun ebenak dira. Orregaitik, torregintzan egoki-egoki egiten dabe bat arrion lotuneak*.

2. «Eta itsas-sakonetik atara eta orman ipiñitako arriak, euron lotuneak leen ipiñitako arriakaz egoki alkartzan ziran arriak, nortzuk dira?», itandu neutsan. «Jaunaren izenagaitik nekeak igaro dabezanak dira orreik», erantzun eustan.

5. Eta nik: «Legorretik ekarrirako beste arriak nortzuk diran nai neuke jakin, andera». Arek auxe erantzun eustan: «Argintzan landu bagarik sartzen ziran arriak, Jaunak ontzat artu ebazan areik dira, Jaunaren bidean zuzentasunez ibilli ziranak eta Aren aginduak bete ebezanak».

4. «Eta, ekarri ta torregintzan ipiñitako arriak, nortzuk dira?»

—«Oneik, etor-barriak dira, fedean barriak, baiña fededunak; aingeruak onei artez jardun dagiela eskatzen dautsee, arekan gaiztakeri txikiren bat egoan-eta».

—«Eta, bazartuak eta jaurtiak izan diran arriak, nortzuk dira?»

—«Oneik, pekatu egin dabenak dira, baiña damutzeko gertu dagoz; orregaitik, ez dira torretik urrun jaurtiak izan: damutu daitezanean, torrea egiteko gai izango dira-ta. Izan be, damutzeko asmoa izan dagienak, Jaungoikoagana biurtu ba'daitez, fedean sendoak izango dira, baiña orain, torrea jasoten dan bitartean, damu-nekea betetekotan. Baiña, torrea jasotea amaitzen ba'da, ez dabe orduan damutzeko unerik izango. Eskubide au bakarrik izango dabe: torrendoan, jarrita egotea.

VI. «Nai al-dozu jakin orain —esan eban gaiñera andereak— nortzuk ziran birrindu eta torretik urrun jaurtiak izaten ziran arriak? Oneik gaiztakeriaren semeak dira; azaluskeriz egin ziran fededun eta ez zan gaiztakeririk arekandik urrundu. Orregaitik, ez dabe salbamenik, ez dira euren gaiztakeriakaitik torrea egiteko gauza-ta. Orrexegaitik izan dira zatituak eta urrun jaurtiak. Jaunaren sumiña dago arein gaiñean, Jauna asarrerazo egin eben-eta.

(44) Cfr. Didaje, IV, 4; Bernabe, 19, 5.

(*) Lotune: juntura.

2. Eta lurrean zear eurrez jaurtiak ikusi zenduzan arriak, baiña torregintzan erabilten ez ziranak, usteltsuak dira, egia jakin ebenak, baiña ez eben egian iraun, ezta santuakaz (edo kristauakaz) alkartu be ez ziran egin. Orregaitik, ezetarako be ez dira».

3. «Eta arrakalak* eukezan arri areik, nortzuk dira?».

—«Oneik, batzuek beste batzuen aurka gorrotoren bat dabenak, alkarren artean bakerik gordeten ez dabela. Aurrez-aurre egoten diranean, bake-itxur(e)a dabe; baiña alkargandik banantzean, euren biotzetan gaiztakeriak irauten dau. Orixe adierazoten dabe, ba, arri arein arrakalak.

4. «Baiña, arri koskatu areik, sinistu dabenak eta euren egintzetatik geienak zuzentasunaren barruan iraun-erazoten dabezanen irudi dira, baiña euren gaiztakeriaren zati batzuk gorderik. Orrexegaitik dira koskatuak eta ez osoak».

5. «Eta, argintzan egokitzen ez diran arri zuri ta biribillak, nortzuk dira, andera?». Arek auxe erantzun eustan: «Noiz arte izango zara ez-jakiña ta burugogorra? Guztia itauntzen dozu eta ez dozu ezer ulertzen. Oneik, fedea dabenak dira, bai, baiña gizaldi onetako aberastasunak be ba-daukez, Beraz, samiñaldia etorri daitenean, euren aberastasun eta irabazpideen maitasunagaitik euren Jauna ukatu egingo dabe».

6. «Beraz, andera —erantzun neutsan nik—, noiz izango dira gai torregintzarako?».

—«Arein arimak tatarras daroezan aberastasunak gutxiuak izan daitezanean izango dira gauza Jaungoikoarentzat —erantzun eustan—. Izan be, arri biribil bat, lantzen ez ba'da eta bera danetik zerbait galtzen ez ba'dau, laukia ezin izan daiteken ezkerre, gizaldi onetako aberatsak be, euren aberastasunak gutxiuak izan ezik, ezin izan daitezke Jaunarentzako gauza.

7. «Ulertu egizu zeure buruaz batez be: aberats izan zintzazanean, gauza ez zintzazan; orain, barriz, bizitzarako gauza ta gai zara. Izan zaitezze Jaungoikoarentzako gauza! Izan be, zeu be arri berberonetarikoa zara.

VII. «Torretik urrun jaurtiak eta bidean zear txirrinbolaka joanak eta bidetik toki bakartsuetara txirrinbolaka yoiazan beste arriok, sinistu ebenak dira; baiña, euren ezpaiakaitik benetako bidea bertan-beera itzi eben, bide ohea aurkitu eikeela uste izanik. Eta alan, bidea galduta eta zoritxarrez dabiz, bidezidor bagariko bakartadeetan zear ibilirik.

2. «Sutara jausten eta an kiskaltzen ziranak, Jaungoiko biziagandik (45) guztiz urrundu ziranak dira; eta, egin ebezan galdukeri ta gaiztakeri-gurariakaitik, ez yake ifioiz be damutzerik burura etorri.

(45) Cfr. Ebert. 3, 12.

(*) Arrakal: hendidura.

3. «Eta, jakin nai al-dozu, ur-ondora jausiarren, uretara ezin eltzen ziranak nortzuk diran? Itza entzun ebenak dira areik, Jaunaren izenean bateoa artu gurarik; baiña gero, egiak eskatzen dauan garbitasunaz konturaturik, atzerantz egiten dabe eta barriro be euren gurari gaiztoen atzean dabiz» (46).

4. Olantxe amaitu eban torrearen azalpena.

5. Nik anderea barriro be zirikatzen nebala, bertan-beera itzitako ta torregintzarako egoki ez ziran arti areintzat garbatzeko unerik ete-egoan itandu neutsan, eta, damuaren bidez, torre onetan tokirik izango ete-leukeen.

«Damutzeko unea bai, ba-dabe —erantzun eustan—; baiña ezin sartu dai-tekez torre onetan.

6. «Alan be, beste toki askoz beeragoan sartuko dira, eta ori zigorrak igaro ta euren pekatuen ordain-nekeen egunak bete dagiezanean. Itz zuzenaren erdikide ziralako izango dira aldatuak (47). Damututa, egin ebezan egintza gaiztoak gogotara ekarri dagiezanean izango dabe euren oiñazetatik urteteko zoria. Baiña, damua euren biotzetara igo ez ba'daite, ez dira salbatuko, euren biotz gogorragaitik» (48).

VIII. *Onoimenen (birtuteen) ikuspena.*—Gai guzti onei buruz ari itauntzen amaitu nebanean, «Nai dozu beste gauza bat ikusi?», esan eustan. Ni, ikusteko gogoz nengoan ezkerro, pozez beterik geratu nintzan, geiago ikustea emon izan yatalako.

2. Andereak, neugana begira eta barre-irri egiñik, «Torre-inguruan zazpi andra ikusten al-dozuz?», esan eustan. «Ikusten dodaz, andera», erantzun neutsan. Eta arek: «Torre oni eurak eusten dautsoe, Jaunaren aginduz.

3. «Entzun orain eurotariko bakoitzaren onoiimenak (birtuteak). Leenen-goak, esku-indartsuak, Fedea dau izena. Onexen bidez salbatzen dira Jaungoikoaren aukeratuak (49).

4. «Besteak, estututa eta giza-antza dauanak, Negurritasuna dau izena, eta Fedearen alab(e)a da. Ari jarraitu dagion edonor, bere bizitzan zoriontsu izango da, edozein egintza gaiztotik aldendu egingo da-ta: edozein zalekeri izten ba'dau, oiñordekotzat betiko bizitza artuko dauala sinisturik».

5. «Eta besteak, nortzuk dira, Jauna?».

(46) Cfr. Mark. 4, 18; Mat. 13, 20, 22; Ebert. 19, 5. Euren salbamen-egintza bertan-beera itzi eben kristau-barriai buruz diño. Cfr. Ebert. 3, 12.

(47) Edo bardin dana: Ebanjelioa iragartearen bidez biurtu ziran Jaungoikoagana.

(48) Deut. 10, 16; Ecli. 16, 10; Mat. 19, 8; Mark. 10, 5; 16, 14.

(49) Cfr. Mat. 9, 22; Mark. 5, 34; Luk. 7, 50; 8, 48; Ap. Egiñ. 26, 18; Rom. 3, 22, 28; 5, 1.

—Batzuk besteen alabak dira, eta Bakuntasuna, Jakintza, Tolesbagetasuna, Eratasuna eta Goi-maitasuna dabe izena. Beraz, arein amaren egintza on guztiak egin dagizuzanean (50), bizi aal izango zara».

6. «Areitariko bakoitzari zein onoiimen dagokion nai neuke jakin, andera», esan neutsan.

—«Entzun —erantzun eustan— areik dabezan onoiimenak.

7. «Euren eragiteak alkarri eusten eta jarraitzen dautsoe, euren iturburuari dagokionez: Fedetik, Negurritasuna sortzen da; Negurritasunetik, Bakuntasuna; Bakuntasunetik, Jakintza; eta Jakintzatik, Goi-maitasuna. Eta arein egintzak garbiak, jainkozaleak eta jaungoikozkoak dira.

8. «Arein serbitzari izan eta arein egintzak osotzeko adorea izan dagian edonok, bere bizitokia torrean izango dau Jaungoikoaren santuen ondoan».

9. Aldiai buruz itandu neutsan, gaiñera; amaia eldu ete-zan (51). Baiña arek, deadar andiz, auxe esan eustan: «Gizon burubage ori! Ez al-dozu ikusten, torrea egiten diarduela oraindiño? Beraz, torregintza amaitu daitenean, orduantxe izango da amaia. Baiña, laster amaituko da torregintza. Ez egidazu berterik itandu. Izan bedi naikoa zuretzat eta santuentzat gaiok gogoratzea eta zuen espirituak barriztatzea.

10. *Elizeak bere semeai egiten dautsen deia.*—«Baiña guzti au ez da zuretzat bakarrik agertua izan, beste guztiai be agertu dagiezun baiño.

11. Egoki da, leenen zeuk ulertu dagizun; baiña gero, batez be zeuri agintzen dautsut, Hermas, esango dautsudazan itz guztiok (52), iru egun barru, Santuen belarrietan esan dagizuzala: esandakoa entzunik eta beterik, euren gaiztakerietatik garbitu daitezat, baita zeu be arekaz batera.

IX. «Entzun, ba, ene semeok (53): Bakuntasun, tolesbagetasun eta santutasun andiz azi zaituet nik, gure gaiñera zuzentasuna isuri eban Jaunaren errukiagaitik, edozein gaiztakeri ta dongakeritik zintzotuta eta santututa geratu zaitzen. Zuek, ostera, ez dozue zuen gaiztakeria izterik nai.

2. «Entzun, ba, orain. Bizi zaiteze bakean alkarregaz, zaindu egizue alkar, emon laguntza alkarri, ez egizue eurrez eta oparo poz-artu nai zeuek soillik Jaungoikoaren izakietatik (54); beartsuai be banandu egizue, ostera.

(50) Fedea, onoiimen guztien ama. Hermas'ek, antza, Espiritu Santuaren zazpi doaiak dakaz gogora.

(51) Cfr. Ecli. 39, 34; Mat. 13, 39; 40, 49; Ebert. 9, 26.

(52) «Itz guztiok»: urrengo atalburuan Hermas'ek jakingo dauana. Sarritan irakurten da esanaldi au Alkartasun Zaarrean; cfr. Gen. 20, 8; 50, 4; Ex. 10, 2.

(53) Atalburu guzti au Elizaren «semeai» zuzentzen yake.

(54) Elizaren gizarte-gaiak ikusten doguz emen.

3. «Izan be, batzuek, lar janda, euren gorputzari geisoak dakartsoez eta ondatu egiten dabe euren osasuna; beste batzuek, ostera, ez dauke jatekorik eta, janaririk naikoa ez dauken ezkerro, euren gorputza ondatu egiten dabe eta ez dauke osasunik (55).

4. «Beraz, negurribagekeri au kaltegarri yatzue, euki bai-baiña beartsuak zuenetik erdikide egiten ez dozuezalako.

5. «Begira etorteko dan auzia! Ugari daukazuenok, ba, billatu beartsuak, oraintxe, torrea amaitu bagarik dagoan artean. Izan be, torrea amaituta gero, ona egitea nai izango dozue eta ez dozue orretarako astirik izango.

6. «Kontuz, ba, zeuen aberastasunetan arrotzen zareenok!, beartsuak antzika asi ez daitezana eta euren antzia Jaunaganagiño igo ez daiten, eta, zeuen ondasunakaz batera, torreko atetik kanpora baztatuak izan ez zaitezana (56).

7. «Orain zeuekana joten dot, Eliz(e)a zuzentzen eta leenengo jarleketan jesarten zareenokana: ez zaiteze sorgiñen antzeko egin (57). Oneik euren edenak ontzietan daroetz; zuek, ostera, zuen edena ta ilgarria biotzetan gordeten dozue.

8. «Gogortuta zagoze eta ez dozuez zuen biotzak garbitu nai, ezta zuen batasun-gogoa biotz garbian sendotu be, Errege Andiarene izenean errukia jaristeko.

9. «Kontuz, ba, semeok (58), zuen eztabaidok zeuen bizia lapurtu ez daitzuen!

10. «Zelan nai izango dozue zuek Jaunaren aukeratuai irakaspene emon, irakaspene zeuek ez ba'dozue? Alkar irakatsi egizue, ba, eta izan zaiteze bakezaleak zuen artean, neu be, Aitarene aurrean pozik egonik, zuen Jaunari zuen guztion barri emon dagiodan».

X. Nigaz itz egitea amaitu ebanean, torrea egiten ziarduen sei gazte areik etorri ta anderea terroruntz eroan eben; beste lauk jarlekua kendu eta torrera eroan eben. Baiña ez neban ikusi orreine arpegia, atzerik-ara egozan-eta.

2. *Elizaren iru itxurak*.—Anderea ba-yoiala, agertu yatan iru itxurari buruz zerbait azaldu egistala eskatu neutsan. Baiña auxe erantzun eustan: «Guzti oneztaz beste bati itandu bear dautsazu, agertua izan dakizun».

3. *Anderearen iru agertzeak*.—Leenengo ikusketan, aurreko urtean, anaiok, anderea zaar-zaar agertu yatan, jarleku baten jesarrita.

4. Bigarren ikusketan, arpegia gazteagoa eukiarren, bere aragia ta uleak zaarrenak ziran; zutik egiten eustan itz, eta leenengo ikusketan baiño pozago egoala neritzon.

(55) Cfr. Kor. 2.^a, II, 20 ta urrengo.

(56) Cfr. Bernabe, XXI, 2-3.

(57) Cfr. Mat. 23, 6.

(58) «Semeok»: abadeok (presbíteros).

5. Irugarren ikusketan, guztiz gazte ta oso eder agertu yatan, eta uleak bakarrik eukazan zaarrenak. Guztiz alai egoan eta jarlekuan jesarrita.

6. Ni oso itun (triste) nengoan, gaion agerpena jakiteko asmoz. Baiña, gau-ikusketa baten, anderea auxe ziraustala ikusi neban: «Edozein otoitz apaltasunaz egin bear da. Barau egizu (59), ba, eta eskatzen dozuna jadetsi egingo dozu Jaunagandik».

7. Beraz, egun bateko baraua egin neban. Gau aretan, gazte bat agerturik, auxe esan eustan: «Zegaitik eskatzen dozuz agerpenak orren arduratsu zure ototzetan? Kontuz, gero, eskatu ta eskatu egiñik, aragiari kalterik egin ez daitzuzun!»

8. «Naikoa dozuz agerpen oneik. Ala, ikusi dozuzan baiño agerpen sendoa-koak ikusi aal izango ete-dozuz, ba?».

9. «Jauna —erantzun neutsan—, zaarraren iru itxura areitarikoai buruz bakarrik eskatzen dot, agerpena osoa izan dadin». Eta arek auxe erantzun eustan: «Noiz arte iraungo dau zure tentelkeriak? Izan be, zuen biotzak Jaungoikoagana zuzenduta ez daukazuezan ezkerro, zuen ezpaiak burubage egiten zaitue» (60).

10. «Egia da, jauna —erantzun neutsan—; baiña, zure bidez, gaiok zeaztasun geiagoz jakingo doguz».

XI. «Entzun, ba —esan eustan—, aztertzen diarduzun iru itxuren azalpena.

2. «Zegaitik agertu yatzun leenengo agerpenean andra zaar eta jarlekuan jesarrita? Zeuen bigunikeri ta ezpaiakaitik, zuen espiritua zaartuta (61), jausia ta indar bagarik dagoalako.

3. «Izan be, zaarrak, barriro gaztetako itxaropenik ez dabela, eriotzako loa baiño itxaroten ez daben ezkerro, zeuek be, lur onetako arazoakaz (62) makalduta, zuen buruak bigunikeritara emon dozuez eta ez dozuez zuen ardurak Jaunaren gaiñera jaurti (63), zuen adimena milla zati egin zan eta zuen tristuren erdian zaartu egin zaree, ostera».

4. «Jauna, andra zaarra jarlekuan jesarrita zegaitik egon izan zan, jakin nai neuke».

5. «Geisorik dagoana, jarlekuan jesarten da bere makaltasunagaitik, bere gorputzeko makaltasunari eusteko. Or, ba, azalduta leenengo ikusketa-era.

(59) Cfr. Tertuliano: *De ieiun.*, 7.gn. atalb.: «Jaungoikoak baraua saritu egiten dau, misterioak ulerterazoteragiño».

(60) Esaera onek mezako liturjia ekarten dausku gogotara: «Gora biotzak» (*Markos'en Liturjia*) edo «Gora adimena ta biotzak» (*Santiago'ren Liturjia*).

(61) II'gn. Ikusketa, iv, 1, Elizaren irudia beste era batez azaltzen da.

(62) Cfr. I Ikusketa, iii, 1 eta V'gn. Agindua, ii, 2.

(63) Ps. 54, 23; cfr. Pedr. 1.^a, 5, 7.

XII. «Bigarren ikusketan zutik ikusi zenduan eta leenengo aldiz baiño arpegi gazteagoa ta alaiagoa ebalá; baiña aragia ta uleak bakarrik eukazala zaarrenak. Entzun —esan eustan— antz-irudi orren azalpena be.

2. «Norbait zaartzarora eltzean, bere makaltasun eta beartasunean usterik ze dauala, bere bizitzako azken-eguna baiño ez dau itxaroten. Bat-batean oiñor-dekotasun bat itzi dautsoela dirautsoe. Barria entzunaz batera, jagi ta, pozez beterik, barriro bere indarra artzen dau (64). Orain ez da etzunda geratzen, eta zutik jarten da eta aurretiko lanakaz erkinduta egoan bere espiritua barriztu egiten da; arrezkero ez dago jesarrita, eta barriro gizontasun-adorea artzen dau: orixe jazoko yatzue zeuei be, Jaunak egin dautsuen agerpena entzunda gero.

3. «Izan be, Jaunak, zuei erruki izanik, barriztu egin dau zuen espiritua; baztatu egin zenduezan zuen makaltasunak, barriro artu zenduezan indarrak eta fedean sendotu egin zintzazen (65). Eta zuen sendotasuna ikusirik, Jauna poztu egin da. Orrexegaitik agertu eutsuen torregintza eta agertuko dautsuez, beste gai batzuk, zuen artean biotz-biotzez bakea izaten ba'dozue.

XIII. «Baiña, irugarren ikusketan gazteago, ederrago ta alaiagoa ikusi zenduan, bere itxura guztiak edertasuna distiratzen ebalá.

2. «Izan be, naigabetuta eta itun dagoan bati albista onen bat emotean, bat-batean leengo samiñak aaztu egiten yakozanez eta entzun dauan barria betetea baiño uste izaten ez dauanez, eta artutako pozaz aurrerantzerako gizonak indar barriak artu eta bere espiritua barriro biztu egiten yakonez; orrelaxe zeuek be, ondasunok ikusita gero, zuen espirituen gaztetasun barria artu dozue barriro.

3. «Eta andra zaarra jarlekuan jesarrita ikusteak, indartsua danaren egoera adierazoten dau; izan be, jarlekuak lau anka ditu eta sendo irauten dau, munduari be lau indarrek eusten dautsoenez.

4. «Beraz, ordain-nekea benetan egin dagienak gaztetu ta oiñarri-gaiñean lez sendo egongo dira, biotz-biotzez damutzen ba'dira, beintzat.

«Emen dozu agerpena oso-osorik. Ez egizu beste itaunik egin agerpenai buruz; alan be, beste gauzarik bear ba'da, agertua izango yatzu» (66).

(64) Cfr. Is. 51, 9; 52, 1; Ps. 92, 1.

(65) Cfr. Tim. 2.^a, 2, 1.

(66) Cfr. Filip. 3, 15; itz onekaz urrengo ikusketa gertatzen da.

Laugarren ikuspena

Gaiñera etorriko dan samiñaldi andia.—Ona emen, anaiok, leenengo ikuspenetik ogei egunera izan neban laugarren ikuspena (67) etorriko dan samiñaldia-
ren itxur(e)a.

2. Erri-bidean (68) zear neure solora niñoian; bide zabaletik ara amarren bat estadio dagoz, eta ibilteko bide egokia.

3. Bakarrik niñoiala, bere Eliza Santuaren bidez agertu izan eustazan agerpenak eta ikusketak osotu egistazala eskatu neutsan Jaunari, ni sendotzeko ta gaizpidea igaro eben otseñai ordain-nekea emon egitsen; orrela, bere izen andi ta ospatsua goratua izango zan, ni bere miragarriak agertzeko duin artu izan nendualako.

4. Eta nik Ari gorapenak eta eskerrak emoten neutsazan artean, durundi antzeko abotsaz erantzun eustan: «Ez egon ezpaitan, Hermas!» Orduan, neurekautan pentzatzan asi ta auxe niñoan (esaten neban): «Zegaitik egon bear dot nik ezpaitan, Jaunak onela sendotu nauan ezkerro eta onelako gauza goragarriak ikusi dodazan ezkerro?».

5. Zerbait geiago aurrera egin eta, anaiok, zeruragiño igo bai'litzaneko autslaiñoa ikusi neban. Eta neurekautan esaten asi nintzan: «Ain zuzen be, artaldeak ete-datoz eta autsa jasoten ete-dabe?» Autslaiñoa nigandik estadio batera-edo egoan.

6. Eta autslaiñoa geroago ta geiago geitzen zala, zerutiko zerbait zala susmatu neban. Gero, unetxo baten, eguzkia agertu zan, eta pistitzar (69) bat ikusi neban, itsas-aberea lakoa, eta aren agotik suzko matxin-gorrigoak urteten ziran (70). Pistiak, luzetara, eunen bat oin ebazan eta aren burua upa baten antzekoa zan.

7. Ni negarrez asi nintzan, eta aregandik zaindu nengiala eskatu neutsan Jaunari. Eta entzun izan nebazan itzak ekarri nebazan gogora: «Ez egon ezpaitan, Hermas!».

8. Orduan, anaiok, Jaunaren fedez (71) estalduta eta erakutsi izan eustazan miragarriak aurrean nebazala, adoretso joan nintzan pistiaganuntz. Bat-batean, uri bat ondatzeragiño erasoaz aurreratu zan.

(67) Ikusketa onetan, II^{gn}. Ikusketan, ii, 7; iii, 4, iragarri izan eban samiñaldi andi a ikusten dau Hermas'ek.

(68) Latiñez, «In via campana» dator: «Kanpania bidean». Ba-daiteke *Via Apia* edo *Via Domiciana* izatea, biak Kume'ra eroaten dabe-ta.

(69) Cfr. Apoc. 11, 7; 12, 3, 4; 13, 1 eta urreng.

(70) Cfr. Apoc. 9, 3.

(71) Cfr. Mark. 11, 22; Rom. 3, 22; Gal. 2, 16; 3, 22.

9. Aren urrera eldu nintzan, eta pistitzarra lurean etzun zan, eta miñña bakarrik ataraten eban, eta, ni aren ondolik igaro arte, ez eban zirkiñik be egin.

10. Pistiak bere buruan lau kolore ebazan: baltza, su ta odola lako gorria, urre-antzekoa eta, azkenez, zuria (72).

II. Pistia igaro ta ogetamarren bat oin aurreratu nintzala, birjiña bat urten yatan bidera, ezkon-ogetik urtenik lez apainduta (73), goitik beera zuriz jantzita, oiñetakoak be zuriz, bekokiragiño estalkiaz eta mitra bat burukotzat. Uleak zuriak eukazan.

2. Aurreko ikusketakaitik, Eliz(e)a (74) zala ezagutu neban, eta pozago jarri nintzan. «Agur, gizon!» esanaz agurtu nenduan. Nik agur berbera egin neutsan: «Agur, Andera!»

3. Arek itza arturik, «Ez yatzu iñor bidera urten, gizon?» itandu eustan. «Andera —erantzun neutsan nik—, erri osoak ondartzeko lain dan pisti ori urten yat bidera; baiña, Jaungoikoaren indarrez eta Beronen errukiz, iges egin dot aregandik».

4. «Zorionak —esan eustan Andereak—; zure larritasunak Jaungoikoaren gaiñera jaurti eta zure biotza Jaunari zabaldu dautsazulako egin dozu iges, Izen andi ta ospatsuaren bidez baiño ez zeintekeala beste iñoren bidez salbatua izan sinisturik. Orregaitik, Jaunak bere aingerua bialdu eban, pisti guztien (75) gaiñean dagoana; aingeru orrek izena Zegri (76) dau, eta beronek itxi dau pistiaren agoa, irunsi ez zengizan (77). Zure fedegaitik samiñaldi anditik egin dozu iges, eta, alako pistitzarraren aurrean, ezpaitan egon ez zaralako.

5. «Zoaz, ba, eta azaldu egiezu Jaunaren aukeratuai Beronen miragarriak, eta pisti au, etorteko dan samiñaldi andiaren irudi dala esan egiezu. Beraz, aurretiaz gertatzen ba'zaree eta Jaunagana biotz-biotzez biurtzen ba'zaree, aregandik iges egin daikezue, zuen biotza garbia ta errubagea izatekotan eta zuen bizitzako egun guztietan akats bagarik Jaungoikoa otseintzekotan. Jaurti zuen ardurak (arazoak) Jaunaren gaiñera (78) eta Berak zuzenduko dauz.

6. «Jarri egizue zuen sinistea Jaunagan, oraindiño ezpaitan zagozenok; izan be, Berak dana egin daike: gugandik bere asarrea baztartu, baita ezpaitan zagozen gaiñera bere zigorrak bialdu be. Zoritxarrekoak, itzok entzun bai eta ez-entzun egin dagiezanak! Obe leukeen jaio ez ba'litaz!».

(72) Cfr. Apoc. 6, 2; Zak. 1, 8; 6, 2 eta urreng.

(73) Eliz (e) a Birjiña-irudiz. Cfr. Ps. 18, 6; Apoc. 21, 2.

(74) Cfr. III'gn. Ikusketa, iii, 3.

(75) Cfr. Apoc. 7, 1; 14, 18; 16, 5.

(76) Cfr. Apoc. 9, 11.

(77) Cfr. Dan. 6, 22; Ebert. 11, 33.

(78) Ps. 54, 23.

III. *Pistiaren koloreen antz-agiria.*—Pistiak buruan ebazan lau koloreai buruz itandu neutsan. Eta andereak auxe erantzun eustan: «Barrero be oso jakin-gura* zara gai onei buruz». «Olantxe da, Andera —erantzun neutsan—; azaldu egidazu arek adierazoten dauana».

2. «Entzun —esan eustan—: kolore baltza, orain bizi zareen mundu au da.

3. «Su ta odolezko kolore gorriak, mundu au odolaz eta suaz izango dala ondatua adierazoten dau.

4. «Urrezko kolorea zeuen irudi da, mundu onetatik iges egin dozuenon irudi. Izan be, urrea suaz aztertu ta gai egiten danez, arein artean (79) bizi zareenok be aztertuak izango zaree. Beraz, sendo iraun eta suak aztertu zagiezanok, garbituak izango zaree. Eta urreak bere ondakiña* bota egiten dauanez, zeuek be bota egin bear dozue edozein tristura ta biotz-estura, eta garbituak eta torregintzarako gai izango zaree.

5. «Azkenez, kolore zuriak Jaungoikoaren aukeratuak bizi izango diran datorren mendea (gizaldia) (80) adierazoten dau; izan be, betiko bizitzako Jaungoikoaren aukeratuak orbanbageak eta garbiak izango dira.

6. «Beraz, zuk ez aspertu oni buruz itz egiten santuen (edo kristauen) be-larrietan. Ortze daukazue etorteko dan samiñaldi andiaren irudia be. Zeuek nai ba'dozue, barriz, ez da ezer izango (81). Izan egizu gogotan leen idatzitakoa».

7. Ori esanda, alde egin eban, nora yoian nik ikusi bagarik. Izan be, une aretan danbada bat izan zan, eta nik, ikaratuta, atzeraka egin neban, pistia etorrelakoan.

Bosgarren ikuspenna

Artzaiña agertzen da.—Nire etxean otoitzean niarduala eta oge-gaiñean jesarrita nengoala, arpegi goragarrizko gizonezko bat sartu zan, artzain-soiñekoz jantzita, aunts-narru zuriz estalduta, zorroa lepoan eta artzain-makilla bat eskuan. Agurtu egin nenduan, eta neuk be bai bera.

2. Bereala neure ondoan jesarri zan eta auxe esan eustan: «Aingeru guztiz agurgarriak bialduta nator, nire bizitzako enparadu egunak zeugaz bizi izateko».

(79) «*Arein artean*»: gizon mundukoien artean.

(80) «*Kristo'ren eguna lako zuria*», diño Alexandria'ko Zirilo'k (*Pedag.*, I, 6, 40). Cfr. Mark. 10, 30; Mat. 12, 32; Ef. 1, 21; Ebert. 6, 5.

(81) Edo bardin dana: ez dautsue kalterik egin aal izango, pisti arek be Hermas'i kalterik egin ez eutsanez.

(*) Jakin-gura, ikus-gura: curiosidad eta curioso. — (*) Ondakin; escoria, deshecho, residuo inútil.

3. Neu zirikatzen ziardualako susmoa izan neban, eta auxe esan neutsan: «Baiña, nor zara zu? Izan be, ba-dakit nik nori emona izan nintzan». «Ez nozu ezagutzen?», erantzun eustan. «Ez», esan neutsan. Eta arek: «Ni, zu emona izan zaran Artzaiña naz».

4. Itz egiten ziarduan artean, bere irudia aldatu egin zan eta ezagutu egin neban. Ni emona izan nintzakiona zan; eta bat-batean lotsatuta geratu nintzan, bildurak artu nenduan eta, onen era txar eta burubageaz erantzun neutsalako, guztiz saminduta geratu nintzan.

5. Arek, barriz, itza arturik, auxe esan eustan: «Ez zaitetz kikildu, emon nai dautsudazan aginduetan sendotu baiño. Izan be —esan eban gaiñera—, leen ikusi dozuzan gauza guztiak zuri barriro erakusteko izan naz bialdua, batez be egoki yatzuezan atalak. Leenengo ta bein, idatzi egizuz nire aginduak eta antz-irudiak. Beste gaiak izentatu dagitzudazanez idatziko dozuz. Leenen, aginduak eta antz-irudiak idazteko agintzen dautsut, bereala irakurri ta bete aal dagizuzan».

7. Orain, ba, eurok entzun eta gorde ba'dagizuez, eurotan ibili ba'zaitetze ta eurok biotz garbiz bete ba'dagizuez, Jaunak agindu dautsuen guztia artuko dozue Beragandik. Baiña, eurok entzunarren, damutu ez-baiña pekatutan iraun ba'dagizue, okerrekoa artuko dozue Jaunagandik. Urrengo guztia olantxe idazteko agindu daust Artzaiñak, Damu-nekearen Aingeruak.

II. AGINDUEN LIBURUA

LEENENGO AGINDUA

Jaungoikoaganako fedea ta bildurra.—1. Leenen-leenen, sinistu egizu Jaungoiko bakar bat dagoala, dana egin eta eratu dauana (82), gauza guztiak ezerezetik izatera aldatu dauzana, dana artzen dauana eta artu-eziña Bera bakarrik dana.

2. Bera sinistu egizu, ba, eta bildur izan egiozu, eta, Berari bildur izanik, negurridun izan zaitetz. Bete egizu guzti au, zugandik edozein gaiztakeri jaurtirik, eta jantzi zaitetz zuzentasunezko edozein onoimenez (edo birtutez) (83). Eta agindu au bete ba'dagizu, Jaungoikoarentzat bizi izango zara.

(82) Cfr. Ef. 3, 9; Ps. 67, 69. Idatz-atal au sarritan izentatzen dabe antxiñako kristau-idazleak: Ireneo'k, Orijenes'ek, Atanasio'k, Antiokia'ko Teofilo'k, eta abarrek.

(83) Cfr. Job, 29, 14; Ps. 131, 9; Sap. 5, 9; Ef. 6, 14.

BIGARREN AGINDUA

Lautasuna eta errubageasuna. Mormoxetaren aurka.—1. Artzaiñak auxe esan eustan (84): «Laua ta errubagea izan zaitetz; orrela, gaiztakeria ezagutzen ez daben semeak lakoa izango zara, gaiztakeria gizonen bizitza-galtzaillea da-ta.

2. «Leenengo ta bein, ez egin itz iñoren aurka, ezta mormoxetalariari atseginez entzun be (85). Bestela, a(ri) entzunik, zeu be mormoxetalariaren pekatuaren errudun egingo zara-ta, entzun dagizun mormoxeta sinistu ba'dagizu. Izan be, sinisturik, zeu be zeure anaiaren aurka jagiten zara, eta orrela mormoxetalariaren pekatuaren errudun egingo zara.

3. «Txarra da mormoxeta; deabru artegatsua da, iñoiz be ez dago baketan, beti bizi da eztabaidetan. Alde egizu, ba, aregandik, eta guztiakaz alkartasun onean bizi izango zara beti.

4. «Santutasun-soiñekoa jantzi egizu; santutasunean ez dago gaiztakeri-aztarrenik be, dana lautasuna ta alaitasuna baiño (86). Ona egizu, eta Jaungoikoak emoten dautsuzan zure lanen frutuatarik, emon egiezu, bakuntasunez, beartsu guztiai, nori emongo eta nori emongo ez dautsazun iñoiz be ezpaitan egon bagarik. Emon egiezu guztiai, bere doaietarik guztiai emon dakiela nai dau Jaungoikoak-eta (87).

5. «Izan be, artu dabenak zegaitik eta zetarako artu daben emongo dautsoe kontua Jaungoikoari. Beartsuak diralako artzen dabenak, ez dira ebatziak (edo epaituak) izango; guzurrezko bearrizanaz artzen dabenak, barriz, zigortuak izango dira.

6. «Alan be, emoillea errubagea da. Izan be, eginkizun au, beteteko aginduz, Jaungoikoagandik artu eban ezkerro, lau-lau bete eban, nori emon eta nori ez berezitu* bagarik. Beraz, eginkizun au (88) lau-lau beteta, Jaungoikoaren aintzarako izan zan. Beraz, orrelako lautasunez serbitzari dana, Jaungoikoarentzat bizi izango da.

7. «Gorde, ba, agindu au, oraintxe esan dautsudanez, zure damu-nekea ta zure etxekoena laua (bakuna) aurkitua izan daiten, eta zure biotza garbia ta errubagea».

(84) Cfr. IX'gn. *Antz-irudia*, XXIX, 1, 3; Mat. 18, 3; Kor. I.^a, 14, 20; Pedr. I.^a, 2, 2.

(85) Sant. 4, 11; cfr. Bernabe, II, 2.

(86) 4-6'garren atalak *Didaje'n* dabe euren iturburua (1, 5).

(87) Gizon guztiak erantzun bear dabe Jaungoikoaren aurrean Beronengandik artu dabezan ondasunai buruz.

(88) »Eginkizuna = diaconía: Jaungoikoagazko ta lagun-urkoagazko norbere betebearra. Cfr. I *Antz-irudia*, 9; II, 7; ix, xxvii, 2; Ap. Egiñ. 6, 1.

(*) Berezitu: discriminar, diferenciar, distinguir.

IRUGARREN AGINDUA

I. *Guzurraren aurka*.—Eta gero auxe esan eustan: «Maite egizu egia eta zure agotik egia osoa urten daitela; zure aragi orretan Jaungoikoak bizi-erazo eban espiritua (89) gizon guztien aurrean egiazkoa aurkitua izan daiten eta onela zeugan bizi dan Jauna goretsia izan daiten. Izan be, Jaungoikoa egiati da edozein itzetan eta Aregan ez dago guzurrik.

2. «Orregaitik, guzurtiak Jaungoikoa ukatu ta alperrekotu egiten dabe, Aregandik artu eben gordetegi* Berari ez biurturik. Izan be, Aregandik guzurrik ez diñoan Espiritua artu eben; espiritu au guzurti egiten ba'dabe, loitu egiten dabe Jaunaren agindua eta galerazle* biurtzen dira».

3. Ori entzun nebanean, negar baten asi nintzan. Eta Artzaiñak ni negarrez ikustean, «Zegaitik egiten dozu negar?», itandu eustan. «Jauna —esan neutsan—, salbatuko aal naiteken ez dakidalako». «Zegaitik ez?», itandu eustan. Eta nik: «Jauna, nire bizitzan egiazko itzik iñoiz be esan ez dodalako; guztiakaz beti maltzurkeriz bizi izan naz eta gizon guztien aurrean nire guzurra egia lez agertu dot, eta olan iñok be ez daust aurka ezertxo be esan, nire itza sinistu egin da, ostera. Zelan, ba, Jauna —esan neutsan nik—, bizi naiteke, onela jardun izan ondoren?»

4. «Orretan ondo ta zuzen pentzatzen dozu —erantzun eustan arek—. Izan be, Jaungoikoaren otseña zaranez, egiatan ibili bear zenduan eta ez egiaren espirituaz batera barru (kontzientzia) gaiztoa bizi, ezta espiritu santu ta egiatia naigabetu be». «Iñoiz be ez dot entzun, Jauna —esan neutsan nik—, orrelako itz argiagorik».

5. Eta arek: «Oraintxe entzuten dozuz, ba. Gorde egizuz, zure artu-emon eta irabazpideetan leen esan zenduzan guzur areik sinisgarri egin daitezcan itz onein zintzotasunaren bidez. Agindu au gorde eta aurrerantzean beti egia esan ba'dagizu, bizitza lortu aal izango dozu. Eta agindu au entzun eta griña oso txar dan guzurretik alde egin dagiana, Jaungoikoarentzat bizi izango da».

LAUGARREN AGINDUA

I. *Ezkontza-naasteari buruz*.—«Kastidatea* gorde dagizula agintzen dautsut; ez dadilla igo zure biotzera iñoren emazteari buruzko guraririk, ez aragi-

(89) «Espiritua»: emen, «grazi zerutarra» adierazoten dau, antza.

(*) Gordetegi: depósito, almacén, reserva. — (*) Galerazle, eragozle: defraudador, embarazador. (*) Kastidate: garbitasun ta kastidate banandu egin bear doguzala uste dot: garbitasun: pureza; kastidate: castidad.

keririk, ez antzerako gaiztakeririk (90). Izan be, ori egiñik, pekatu andia egiten dozu. Baiña, gogoratu egizu zure emaztea noiznai, eta orrela ez dozu iñoiz be pekatu egingo.

2. «Izan be, gurari au zeure biotzera igo ba'daite, pekatu egingo dozu, baita beste asmo txarrik igo ba'daite be, pekatu egingo dozu, onelako guraria Jaungoikoaren otseñentzat pekatu andia da-ta. Baiña, gaiztakerizko egintza au osotzen dauanak, norbere buruari ekarten dautso eriotza.

3. Kontuz, ba! Kendu egizuz onelako gurariak. Izan be, santutasuna bizi dan tokian, ez dau sartu bear gaiztakeriak gizon zintzoaren biotzean».

4. Nik auxe esan neutsan: «Jauna, laketu egidazu beste zerbaite itauntzen». «Esan, ba», erantzun eustan. Eta nik: «Jauna, norbaitek Jaunagan emazte zintzoa ba'dauko eta ezkontza-austen artzen ba'dau, pekatu egiten al-dau gizonak aregaz bizi izaten jarraitzen ba'dau?».

5. «Senarrak emaztearen pekatua jakin ez dagian artean —erantzun eustan—, ez dau pekatu egiten. Baiña, senarra emaztearen pekatuaren jakitun ba'da eta emaztea damutu bearrean bere ezkontza-austean irauten ba'dau eta senarra emazteagaz bizi izaten jarraitu, orduan senarra emaztearen pekatuaren errudun eta emaztearen ezkontza-austean lagunkide egiten da».

6. «Beraz —itandu neutsan—, zer egin bear ete-dau senarrak, jauna, emazteak bere griña txarrean irauten ba'dau?». «Bialdu begi senarrak —erantzun eustan— eta bakarrik bizi beite. Izan be, bere emaztea bialduta gero, beste emakume batez ezkontzen ba'da, berak be naastu egiten dau ezkontza».

7. «Eta, jauna —itandu neutsan barriro nik—, bialdutako emazteak, damuturik, bere senarraren ondora biurtu nai ba'dagi, ez al-dau senarrak barriro artuko?».

8. «Bai, orixe! —erantzun eustan—. Eta bere senarrak artzen ez ba'dau, pekatu egiten dau eta pekatu andia be andia jaurtiten dau bere gaiñera. Bai; artu egin bear dau damutzen dan emazte pekataria; baiña ez ori sarritan, Jaungoikoaren otseñentzat damu bat bakarrik dago-ta. Beraz, emaztearen damuagaitik, senarrak ez dau barriro ezkondu bear. Eginbear onek bardin balio dau senarrarentzat naiz emaztearentzat».

9. «Gaiñera —esan eustan Artzaiñak—, ezkontza-naastea norbere aragia loitzea bakarrik ez da; jentillak egiten dituen antzekoak egin ezker be, ezkontza-naastaille da. Beraz, ezkon-lagunen bat onelako egintzetan ba'dago eta damutzen ez ba'da, alde egizu aren ondotik eta ez zaitez aregaz bizi. Bestela, zeu be aren pekatuaren errudun egingo zara.

10. «Orrexegaitik agindu yatzue bakarrean irauteko, naiz senar naiz emazte izan: guzti onetan, damutzeko unea izan daiteke-ta.

(90) Cfr. *Didaje*, III, 3; V, 1.

11. «Orain, ba —esan eban—, ez dautsuet atxakirik emon nai gai au egiñez burutzeko, ez, beste au baiño: pekatu egin dauanak, ez dagiala geiago pekatu egin nai dot. Izan be, leengo pekatuari buruz, ba-da ori osatzeko aal-izatea dauana: gauza guztien aal-izatea dauan A».

II. *Damu-nekea dala-ta*.—Barriro be auxe itandu neutsan: «Jaunak zu nigaz beti bizi izateko duin artu nauan ezkerro, laketu egidazu oraindiño itz batzuk esaten; izan be, nik ez dot ezer be ulertzen eta nire biotza mokortuta* dago leengo nire egintzakaitik. Emoidazu edimena, guztiz burubagea naz eta ezertxo be ez dot ulertzen-eta».

2. Eta arek auxe erantzun eustan: «Nik ordain-nekearen arduradun naz eta damutzen diran guztiai emoten dautset adimena. Ala, ez deritzazu —esan eustan— damutze au berau adimen-mueta bat danik? Bai; damua ulertze andia da —esan eban gaiñera—. Izan be, damutzen dan pekataria, Jaunaren aurrean (1) pekatu egin dauala konturatzen da, eta egin eban egintza gaiztoa bere biotzera igoten dala, eta damutu egiten da eta aurrerantzean ez dau barriro gaiztakeririk egiten, bestetara baiño: era askotara ona danari ekiten dautso, beeratu egiten dau bere burua eta zigortu bere arim(e)a pekatu egin daualako. Ikusten dozu, ba, ordain-nekea adimen-mueta andia dana».

3. «Ain zuzen be, jauna —esan neutsan nik—, orrexegaitik nai dautsut itandu dana zeatz-zeatz; leenen eta bein, pekatari nazalako eta bizi izateko egin bear dana jakin nai dodalako, nire pekatuak ugari ta askotarikoak dira-ta».

4. «Bizi —erantzun eustan Artzaiñak—, neure aginduak beteten ba'dozuz eta agindu oneitan jokutzen ba'dozu bizi izango zara. Eta agindu oneik entzun eta bete dagizana, Jaungoikoarentzat bizi izango da».

III. «Oraindiño be, jauna —esan neutsan nik—, beste itaun bat egin nai dautsut». «Itandu, ba», erantzun eustan. Eta nik: «Irakasle (edo doktore), batzukandik entzunda dakit, uretara jatsi ta aurretiko gure pekatuen parkamena artu genduan ordain-nekea baiño ez dagoala».

2. «Ondo entzun dozu —erantzun eustan—, orrelaxe da-ta. Izan be, bere pekatuen parkamena artu ebanak, ez leuke barriro pekatu egin bear, garbitasunean iraun baiño».

3. «Baiña, dana zeatz-zeatz jakin nai dozun ezkerro, auxe be azaldu nai dautsut, Jauna aurrerantzean sinistuko dabenak naiz sinistu dabenak atxakirik izan ez dagien. Izan be, sinistu dabenak naiz sinistuko dabenak, ez dabe euren pekatuen ordain-nekerik, aurretiko euren pekatuen parkamena baiño».

(*) Mokortuta: embotado.

4. «Alan be, egun oneik baiño leen deituak izan diranentzat, Jaunak ordain-nekea jarri dau. Izan be, Jaunak, biotzak ezagutzen eta dana aurretiaz dakian ezkerro (91), gizonen makaltasuna ta deabruaren maltzurkeri andia ezagutu eban: deabruak Jaungoikoaren otseina egingo eutsen kaltea eta bere gaiztakeria gizonen aurka erabiliko ebala».

5. «Baiña, Jauna errukiorra izanik, erruki izan yako bere esku-lanari eta ordain-neke au eratu eban. Eta neuri emon yat ordain-neke onen agintaritzta».

6. «Alan be, neuk dirautsut —esan eustan—: dei andi ta santu (92) aren ostean, norbaitek, deabruak zirikatuta, pekatu egin ba'dagi, ordain-neke bat bakarra dauko. Baiña, bereala pekatu egin eta ordain-nekea egin ba'dagi, ezetarako be ez yako orrelako gizon orri, oso nekez bizi izango da-ta» (93).

7. Nik auxe esan neutsan: «Bizia emon dauste oraintxe entzun dodazan zure agiri zeatzok (94). Izan be, oraintxe dakit zigur, pekatu barririk egin ez ba'dagit salbatu egingo nazana». «Zu salbatuko zara —esan eustan—, baita aginduok bete dagiezan guztiak be».

IV. Auxe itandu neutsan gaiñera: «Jauna, eroapenez entzuten nozun ezkerro, argitu egidazu beste au be. «Esan, ba», erantzun eustan. Eta nik: «Emaztea ilten ba'da, jauna, edo bardin senarra be, eta eurretario bat ezkontzen ba'da, ezkontzen danak pekatu egiten ete-dau?».

2. «Ez dau pekatu egin —erantzun eustan—; alan be, alarguntzan iraun ba'dagi, ospe bikaiñagoa ta aintza andia lortuko dau Jaungoikoaren aurrean. Baiña, eurretario norbait ezkontzen ba'da, ez dau pekatu egin (95)».

3. «Gorde, ba, kastidatea ta santutasuna, eta Jaungoikoarentzat bizi izango zara. Nik dirautsudazan naiz aurrerantzen esango dautsudazan gaiok, bete egizuz oraindik, niri emon izan zakidazan (zaiatazan) egunetik, eta neu bizi izango naz zure etxean».

4. «Leengo zure pekatuen parkamena lortuko dozu, neure aginduak betetekotan. Eta bardin parkatuko yakez enparaduai be, nire aginduak betetekotan eta garbitasun onetan ibiltekotan».

(91) Cfr. Ap. Egiñ. 1, 25; 15, 8.

(92) «Deia»: ordain-nekerako dei oni dagokio.

(93) Nekeza izango yako alako orri betiko bizitza lortzea.

(94) Moral-zorrozkariaren ondoren galgarriak adierazoteko diño ori.

(95) Cfr. Kor. 1.^a, 7, 9; Tim. 1.^a, 5, 11, 14. Antxiñako Eliz-gurasoak bigarren ezkontza txartzat artu ezarren be, goratu be ez dabe egiten.

BOSGARREN AGINDUA

I. *Asarrekeria ta eroapena*.—«Eroapentsu ta ulerkorra izan zaitez —esan eustan—; orduan, gaiztakeri guztiak azpiratuko dozuz eta edozein zuzentasun beteko dozu.

2. «Izan be, eroapentsua ba'zaitez, zugan bizi dan espiritu santuak garbi iraungo dau, eta ez dau beste espiritu gaiztok illunduko, okerretara baiño: espiritu santua bizitoki zabalean bizi izanik, poztu ta alaitu egingo da bere bizi dan ontziagaz batean, eta poz andiz goratuko dau Jaungoikoa, beragan zoriona daukan ezkerro.

3. «Baiña, asarrekeriren bat gaiñera ba'dator, Espiritu Santua, leguna da-ta, estututa geratuko da eta, toki garbirik ez izanik, andik urteteko aalegiñak egingo ditu. Izan be, espiritu gaiztoak ito egiten dauala sentitzen dau, eta ezin dau berak nai dauanez Jauna otseindu, asarrekeriaz loituta dago-ta. Jauna eroapenean bizi da; deabrua, barriz, asarrekerian.

4. «Eta espiritu biak toki berean bizi izatea, bizi diran gizonentzat ezegokia ta txarra da.

5. «Izan be, asentzio-bedar pizka bat artu ta ezti-ontzi batera jaurtiten ba'dozu, ez ete-dau galduko bere gozoa* ezti guztiak? Eta alako eztitza asentzio-bedar pizka bataz galdu egiten da, galdu egiten dau eztiak bere gozotasuna eta orain ez da atsegingarri bere jabearentzat; mingots biurturik, ezetarako be ez da-ta. Baiña, eztitara asentzio-bedarrik jaurtiten ez ba'dozu, eztiak gozo izaten irauten dau eta egoki etorriko yako bere jabeari.

6. «Ondo ikusten dozu, eroapena gozo-gozoa dana, ezti bera baiño gozoagoa, baita bertan bizi dan Jaunarentzat egokia be. Asarrekeria, barriz, mingotsa ta legorra da. Eta asarrekeria eroapenez naasten ba'da, eroapena loitu egiten da eta beronen otoitza alperrekoa da Jaungoikoaren aurrean».

7. «Jauna —esan neutsan nik—, asarrekeriaren indarra jakin nai neuke, onetatik gordeteko». «Ain zuzen be —erantzun eustan—, asarrekeritik gorde ez ba'zaitez, zu ta zure etxea, zeure itxaropen guztia galduko dozu. Bai, gorde zure burua asarrekeritik, neu nago zugaz-ta. Eta bardin, ordain-nekea biotz-biotzez egin dagienak, aretik baztatu egingo dira, arekaz neu egongo naz eta neuk zainduko dodaz-ta. Izan be, guztiak santutu ebazan aingeru guztiz agur-garriak.

II. «Entzun orain —esan eustan gaiñera— asarrekeriaren indarra eta berau dan txarra, eta zelan okertzen dauzan Jaungoikoaren otseñak bere indarraz eta zelan urruntzen dauzan zuzentasunaren bidetik. Alan be, ezin urrundu daikez

(*) Gozo, agoko: sabor.

bidetik fedez beterik dagozanak, eta onein aurka be ezin egin daikee ezer be, onekan Jaungoikoaren aal-izatea dago-ta. Utsalak eta ezpaitan dagozanak, bai, oneik urrundu egiten dauz bidetik.

2. «Izan be, erretasunak* oneitariko gizon bat aukera-aukeran bizi dala ikusten dauanean, gizon orren biotzean sartzen da, eta edozein uskerigaitik, gizonetzko naiz andrazko ori saminduta geratzen da bizitzako arazoakaitik, jana-riagaitik naiz antzerako uskeriakaitik, edo adiskide bategaitik, zerbait emotea-gaitik naiz artzeagaitik, edo onelako tentelkeriakaitik. Izan be, guzti orreik zo-rakeriak, uskeriak eta alperrekoak dira Jaungoikoaren otseñentzat.

3. «Eroapena, ostera, andia ta indartsua da, eta indar andia, sendoa ta erri-mea dauko, eta zoriontsu ikusten dau bere burua oiñarri zabalean, eta pozik eta alaitasunez bizi da, ezeren ardura bagarik, une guztietan Jauna goraturik (96); ez dauko beragan mingostasunik, beti legun eta baretsu egoten dala. Beraz, eroapen au fede bikaiña dabenakaz bizi da.

4. «Erretasuna, ostera, leenen eta bein, zoroa, ariña ta burubagea da. Be-raz, burubagakeritik samintasuna sortzen da, eta samintasunetik sumiña, su-miñetik asarrekeria, eta asarrekeritik gorrotoa; azkenez, gorroto au, ainbeste gaiztakeriren seme au, pekatu andi ta osatu-eziña izatera eltzen da.

5. «Eta espiritu oneik, espiritu santua be bizi dan ontzian bertan dagoza-nean, ontziak ez dauz artzen. eta ontzi onek gaiñez egiten dau.

6. «Izan be, espiritu samurrak espiritu gaiztoagaz batera, ezta laztasunagaz be, ezin bizi daiteken ezkerro, orrelako gizonagandik alde egiten dau eta bere bizitokia otzantasuna ta baretasuna dagoan tokian billatzen dau.

7. «Gero, bera bizi zan gizonagandik banantzen danean, gizona espiritu zintzotik utsik geratzen da eta, aurrerantzean espiritu gaiztoz beterik, artega dabil bere ekintza guztietan, azkenez bururakizun guztietarako itsu gelditzera-giño. Emen, ba, asarrekor guztiak jazoten yakena.

8. «Alde egizu, ba, asarrekeritik, espirituetarik gaiztoena da-ta; eta jantzi egizu gaiñean eroapena. Gogor egiozu asarrekeriari ta samintasunari, eta orrela santutasunagaz egongo zara, Jaunaren gogoko da-ta. Kontuz, ba; ez egizu agindu au ezetsi (baztatu). Izan be, agindu au beteten ba'dakizu, nik emongo dautsu-dazan beste agindu guztiak be beteko dozuz. Izan zaitez, ba, indartsua, eta sen-dotu zaitez areitan. Sendotu beitez, areitan ibili nai dagien guztiak be.

(96) Cfr. Bernabe, 18, 1. Idatz-atal au sarritan aitatzen dabe; esate baterako, Orijenes'ek, Nysa'ko Gregorio'k eta Kasiano'k.

(*) Erretasun: impaciencia, falta de paciencia.

SEIGARREN AGINDUA

I. *Bide laua*.—«Nire leenengo aginduan —esan eustan Artzaiñak—, fedea, Jaungoikoaganako bildurra eta negurritasuna gorde dagizuzala agindu neutsun». «Bai, jauna», erantzun neutsan nik. «Baiña orain —esan eban gaiñera—, gauzon onoimenak (birtuteak) be erakutsi nai dautsudaz, eurotariko bakoitzen onoimena ta indarra ulertu dagizuzan. Izan be, arcin indarrak bikoitzak dira, eta zuzenera ta zuzena ez danera izan dira emonak.

2. «Zuk, osterá, izan egizu ustea zuzenbidean; baiña ez izan usterik bidebagean. Izan be, zuzenbideak bide zuzenari jarraitzen dautso; bidebageak, osterá, okerrari. Zoaz zu bide zuzen eta lautik, eta itzi egizu bertan-beera bide okerra.

3. «Izan be, bide okerrak ez dauko bide-zidorrik, bestetara baiño: bide igaro-eziñezko, jausgarri, oso latz eta elorritsua da. Beraz, kaltegarri da andik dabizantzat.

4. «Baiña, bide zuzenetik doazanak, lur lau ta zabaletik dabiz, bide au ez da latz ez elorritsua-ta. Ikusten dozu, ba, zenbat egokiago dan bide onetatik joatea».

5. «Atsegin yat, jauna —esan neutsan nik—, bide onetatik joatea». «Bide onetatik joango zara —erantzun eustan—; eta Jaunagana biotzez biurtu daitena, bide onetatik joango da».

II. *Gizonaren angeru biak*.—Entzun orain —esan eustan— fedeari buruz. Aingeru bi dagoz gizonagan: bata, zuzentasunarena, eta gaiztakeriarena bestea».

2. «Zelan jakingo dodaz, ba, jauna —esan neutsan—, bataren eta bestearen egiketak, nigan angeru biak bizi diran ezkerok?»

3. «Entzun —erantzun eustan—, eta ulertu euron indarrak. Zuzentasunaren aingerua adikor eta eratsua, bigun eta baretsua da. Aingeru au zeure biotzera igo daitenean, ba, bereala asiko yatzu zuzentasunari, garbitasunari, negurritasunari, edozein egintza zuzenari ta edozein onoimen goragarriari buruz itz egiten. Gauza guzti oneik zeure biotzera igo daitezanean, zuzentasunaren aingerua zeugaz dagoala ulertu egizu. Orra or, ba, zuzentasunaren aingeruaren egintzak. Ezarri egizu, ba, zure sinistea aingeru onegan eta beronen egintzetan.

4. «Begira gaiztakeriaren aingeruaren egintzak be. Leenen eta bein, aingeru ori asarrekor, mingarri ta zentzunbagea da, eta bere egintzak txarrak dira eta gaiztotu egiten ditu Jaungoikoaren otseiñak. Beraz, aingeru au zeure biotzera igo daitenean, bere egintzetatik ezagutuko dozu» (97).

(97) Ecles. 12, 13.

5. «Jauna —esan neutsan—, nik ez dakit ori zelan dodan».

«Entzun —esan eustan—: asarrekeria naiz samintasuna gaiñera etorri dakizuzanean, ulertu egizu aingeru a zeugan dagoana. Gauza askoren gosea eta janari-edari atsegingarrien eta moskorkeri askoren guraria, askotariko atsegin bidebageen gogoa, baita andra-gura, zekenkeria, arrokeria, andikeria, eta onei urreratzen yakeezan edo onein antzeko diran gaiak gaiñera etorri dakizuzanean: gauza oneik, ba, zeure biotzera igo daitezanean, ulertu egizu gaiztakeriaren aingerua zeugaz dagoana.

6. «Beraz, aren egintzak ezagutzen dozuzan ezkerok, alde egizu aregandik eta ez egiozu ezer sinistu: aren egintzak, Jaungoikoaren otseiñentzat, gaiztoak eta ez-egokiak dira-ta.

«Emen dozuz, ba, aingeru baten eta bestearen egintzak; ulertu egizuz, eta zintzotasunaren aingerua sinistu egizu.

7. «Urrindu zaitez, osterá, gaiztakeriaren aingeruagandik, aren irakatsia zearo gaiztoa da-ta. Izan be, gizona zintzoa izanarren, aingeru onen zalekeria aren biotzera igo ba'daite, gizon naiz emakume orrek, nai ta nai ez, pekaturen bat egingo dau.

8. «Eta okerretara, gizona naiz emakumea gaiztoa be gaiztoa izanarren be, aren biotzera zuzentasunaren aingeruaren egintzak igo ba'daitez, gizon naiz emakume arek, nai ta nai ez, egintza onen bat egingo dau.

9. «Ondo ikusten dozu, ba, zuzentasunaren aingeruari jarraitzea eta gaiztakeriaren aingerua ukatzea ona dana.

10. «Ona emen agindu onek fedeari buruz azaltzen dauana: zuzentasunaren aingeruaren egintzak sinistu dagizuzala, eta, egintza oneik egiñaz, Jaungoikoarentzat bizi izango zara. Baiña, sinistu egizu gaiñera, gaiztakeriaren aingeruaren egintzak gogorrek dirana; eta egintza oneik ez egiñaz, Jaungoikoarentzat bizi izango zara».

ZAZPIGARREN AGINDUA

I. *Jaungoikoaganako bildurra*.—«Jaunari bildur izan egiozu —esan eustan— eta bete egizuz Aren aginduak (1). Izan be, Jaungoikoaren aginduak gorderik, egitada guztietan aaltsua izango zara ta zure ekintza parebagea izango da; Jaunari bildur izanik, guztia ondo egingo dozu-ta. Auxe da, ba, salbatzeko egoki yatzun bildurra.

2. «Ez izan, barriz, bildurrik deabruari; izan be, Jaunari bildur izanik, deabrua zeure menpean izango dozu, onegan aal-izaterik ez dago-ta (98). Eta

(98) Deabruak gu zirikatatu egin gaitez, baiña irabazi ez, diño beste atal baten.

aal-izaterik ez dauana, ez da bildurgarri; aalmen aintzatsua dauan A, oster, bildurgarria be ba-da: aalmena dauan edonor, bildurgarria da-ta; aal-izaterik ez dauana, barriz, ezetsi egiten dabe guztiak.

3. «Baiña, bildur izan egiezu deabruaren egintzai (99), gaiztoak dira-ta. Jaunari bildur izanda, deabruaren egintzai be bildur izango dautsezu eta ez dozuz egingo, aretatik urrundu egingo zara, oster.

4. «Ain zuzen be, bitariko bildurra dago: izan be, gaiztakeria egin gura ba'dozu, izan egiozu bildur Jaunari, eta ez dozu gaiztakeririk egingo; ona egin nai ba'dozu, barriz, bildur izan egiozu Jaunari, eta ona egingo dozu. Izan be, Jaunaganako bildurra aaltsua, andia ta goragarria da (100). Jaunari bildur izan egiozu, ba, eta Berarentzat bizi izango zara. Eta Ari bildur dagioen guztiak, Aren aginduak gorderik, Jaungoikoarentzat bizi izango dira».

5. «Zegaitik, jauna —esan neutsan Artzaiñari—, zegaitik esan dozu aginduak gordeten dabezanai buruz: 'Jaungoikoarentzat bizi izango dira?'

«Jaungoikoari bildur —erantzun eustan—, edozein gizakik dautsalako (101); baiña ez dabez guztiak Aren aginduak beteten. Ari bildur dautsoenak eta Aren aginduak beteten dabezanak, areixek dira euren bizitza Jaungoikoaren ondoan dabenak. Aren aginduak beteten ez dabezanak, oster, ez dabe eurakan bizitarik».

ZORTZIGARREN AGINDUA

I. *Gaiztakeritik urruntzea eta ona egitea.*—«Esan dautsut —esan eban gaiñera— Jaungoikoaren izakiak bitarikoak dirana, negurritasuna be bitarikoak da-ta. Izan be, gauza batzuetatik urrundu egin bear da eta beste batzuetatik ez».

2. «Jakiñerazo egidazu, jauna —eskatu neutsan—, ze gauzetatik urrundu bear dan eta zeintzuetatik ez».

«Entzun —erantzun eustan—. Urrundu zaitez gaiztakeritik eta ez egizu dongakeririk egin. Onetik, oster, ez zaitez urrundu, egin baiño. (Ona egin-ez egiten ba'dozu, pekatu andia egiten dozu) (102); gaiztakeri egitetik urruntzen ba'zara, oster, zuzentasunezko egintza andia egiten dozu. Urrundu zaitez, ba, edozein gaiztakeritik eta ona egizu».

3. «Zeintzuk dira, jauna —esan neutsan—, egin ez bear doguzan gaiztakeriak?»

(99) Cfr. Yon'en 1.^a, 3, 8.

(100) Cfr. Ps. 18, 10; Ecli. 1, 11; 25, 11; Prov. 1, 5; 9, 10.

(101) Sant. 2, 19.

(102) Ataltxo au ez dakar «Codex Athensis» izenekoak.

«Entzun —erantzun eustan—: ezkontza-naastea eta aragikeria, moskorkeria, apainkeria, geiegi jatea, aberastasunen andikeria, arropuzkeria, arrokeria ta andikeria, guzurra, mormoxeta eta azaluskeria, iraiñen gomutapena (edo gorrotoa) eta edozein birao.

4. «Izan be, egintza oneik giza-bizitzan dagozan egintzetarikorik gaiztoenak dira. Orrelako egintzetatik urrundu egin bear dau, ba, Jaungoikoaren otseiñak; eta orretatik urruntzen ez dana, ezin bizi daiteke Jaungoikoarentzat be.

«Entzun, ba, orain orreïn ondoren datozen griña txarrak».

5. «Baiña, jauna —esan neutsan nik—, oraindiño be griña txar geiago al dago?»

«Bai orixe, eta askoak —erantzun eustan Artzaiñak—, eta Jaungoikoaren otseiñak urrundu egin bear dau aretatik. Emen: ostutea, guzurra, lapurketa, guzurrezko autorra, zekenkeria, diru-gosea, iruzurra, arropuzkeria, andikeria eta onein antzeko griña txar guztiak.

6. «Ez deritzazu zuk, gauza guztiok txarrak diranik, baita oso txarrak be Jaungoikoaren otseiñentzat? Urrundu egin bear dau guzti onetatik Jaungoikoa otseintzen dauanak. Urrundu zaitez, ba, guzti onetatik, eta orrela Jaungoikoarentzat bizi izango zara eta orreitatik urruntzen diran ondoan izango da idatzia zure izena. Oneixek dira, ba, zure buruari ukatu bear dautsazuzan gauzak.

7. «Entzun orain —esan eustan— zure buruari ukatu bear ez dautsazuzan, egiñez bete baiño. Ez aspertu ona egiten, egiñez bete baiño».

8. «Jauna —esan neutsan—, agertu egidazu egintza onen indarra, euretan ibilteko ta nik eurak otseintzeko eta, egintzok egiñik, ni salbatzeko».

«Entzun —esan eustan— egin bear dozuzan egintza onak, eta ez zaitez urrundu egintzotatik.

9. «Leen eta bein, fedea, Jaungoikoaganako bildurra, goi-maitasuna, alkartasuna. Ez dago onomen oneik baiño obeagorik gizonen bizitzan. Onomenok, gorde dagizana eta euroatik urrundu ez daitena, zorientzua izango da bere bizitzan.

10. «Entzun orain oni jarraitzen dautsana (103): alargunen serbitzari izan, umezurtzen eta txiroen (beartsuen) ardura izan, Jaungoikoaren otseiñai euron larrialdietatik askatu (104), ostatu-emoillea izan (105) —ontasuna, sarritan, arrotz-maitasunean dago-ta—, ez egin iñoren aurka, baretsua izan, gizon guztietarik apalena be agertu zure burua (106), zaarrai lotsa izan, zuzentasuna egin,

(103) Cfr. VI^{gn} Agindua, ii, 2. 9^{gn}. atalean goratzen diran onomenak daukanak, 10^{garren} ataleko egintza onak egingo ditu.

(104) Cfr. Klemente'ren 1.^a, LIX, 4. Katepean dagozan anaiak buruz diño, antza.

(105) Cfr. Klemente'ren 1.^a, 1, 2; 10-12; cfr. Rom. 12, 3; Tim. 1.^a, 3, 2.

(106) Cfr. Luk. 14, 10; Rom. 12, 10, 16.

anaitasuna gorde, arrokeria ondo eroan (107), eroapentsua izan, iñori gorrotorik ez izan, barru-jausiak adoretu, ez baztatu fedean laban egin dabenak, areik biurtzeko ta adoretzeko aalegiñak egin baiño (108), pekatu egiten dabenak zuzendu, ez estutu zordunak eta beartsuak, eta onein antzeko onoiemenak.

11. «Ez deritzazu —esan eustan— gauza guztiok onak diranik?». «Eta zer egon daiteke, ba, jauna —erantzun neutsan nik—, onoiemen oneik baiño obeagorik?». «Ibili zaitez, ba, eurotan —esan eustan— eta ez urrundu eurotatik, eta Jaungoikoarentzat bizi izango zara.

12. «Gorde, ba, agindu au. Ona egiten ba'dozu eta onetik urruntzen ez ba'zara, Jaungoikoarentzat bizi izango zara. Eta au egin dagien guztiak be Jaungoikoarentzat bizi izango dira. Eta gaiztakeria egiten ez ba'dozu eta aretatik urruntzen ba'zara, Jaungoikoarentzat bizi izango zara. Eta aginduok bete eta euron arauz jokatu dagienak be Jaungoikoarentzat bizi izango dira».

BEDERATZIGARREN AGINDUA

I. *Uste oneko otoitza*.—Artzaiñak auxe esan eustan: «Atara zugandik edozein ezpai, eta ez izan Jaungoikoari edozer eskatzeko ezetariko ezpairik, barruz diñoizula: 'Zelan eskatu naiz artu daiket ezer Jaunagandik, Bere aurka onelako pekatu andiak egin dodazan ezker?»

2. «Ez erabili iñoiz be bururakizun ori; biurtu zaitez, ostera, Jaunagana biotz-biotzez (109) eta eskatu egiozu ezpai bagarik, eta bere erruki andia eza-gutuko dozu; izan be, ez zaitu bertan-beera itziko, zure arimaren eskaria oso-orik beteko dau, ostera (110).

3. «Izan be, Jaungoikoa ez da gizonak lako; gizonak iraiña gogotan izaten dau-ta; Ari, barriz, aaztu egiten yakoz iraiñak eta erruki izaten yako bere esku-lanari.

4. «Beraz, garbitu egizu zure biotza bizitza onetako uskeri guztietatik eta leen aitaturiko griña txarretatik, eta eskatu egiozu Jaunari eta dana jadetsiko dozu. Ez zara atzipetuta geratuko zure eskarietariko batz be, Jaunari ezpai bagarik eskatu ba'dagiozu, beintzat.

5. «Zure biotzean ezpaitan egon ba'zaitez, barriz, eskatu dagizun ezertxo be ez dozu lortuko. Izan be, Jaungoikoari buruz ezpaitan dagozanak, arima bi-koitza dabe eta eskatu dagien ezertxo be ez dabe lortuko.

(107) Cfr. Lev. 19, 32; Klemente'ren 1.^a, 1, 2; (Arrokeria): Rom. 12, 17, 19; Kor. 1.^a, 6, 7.

(108) Cfr. Klemente'ren 1.^a, 59, 4; Polikarpo: *Ad. Philip.*, 11^{gn}. atalb.

(109) Cfr. Jer. 24, 7; Joel, 2, 12. Cfr. VI^{gn}. *Agindua*, 1, 5.

(110) Ps. 19, 7; 20, 3; 36, 4.

6. «Fedean bikain diranak, ostera, guztia Jaunagan uste onaz eskatzen dabe eta jadetsi egiten dabe, ezpai bagarik eskatzen dabelako, ezpai bati be tokirik emon bagarik. Izan be, ezpaitan dagoan gizona, damutu ez ba'daite, nekez sal-batuko da.

7. «Beraz, garbitu egizu zure biotza ezpaitik eta jantzi egizu gaiñean fe-dea, aaltsua da-ta; izan ustea Jaungoikoagan, eskatu dagizun guztia artuko do-zu-ta. Eta noizbait Jaunari zerbait eskatzen ba'dautsazu eta eskatutakoa lor-tzea luzatu egin ba'yatzu, ez egon ezpaitan zure arim(e)ak eskatu izan ebana bereala artu ez dozulako. Izan be, tentaldiren bategaitik naiz zuk ez dakizun pekaturen bategaitik, luzatu egiten yatzu zure eskaria artzea.

8. «Zure aldetik, ba, ez aspertu zure arim(e)ak gura dauana eskatzen, eta artu egingo dozu. Izan be, makaltzen ba'zara eta zure otoitzean ezpaitan ba'za-go, zeure buruari ezarri bear dautsazu ez artzearen errua, eta ez emoten dau-tsunari.

9. «Zoli, ba, ezpai onen aurka!; izan be, gaiztoa ta burubagea da, eta fe-detik atara egiten ditu asko, zintzoak eta sendoak izanarren be. Izan be, ezpai au deabruaren alaba da eta kalte andia egiten dautse Jaungoikoaren otseñai.

10. «Baztatu egizu, ba, ezpaia eta azpiratu egintza guztietan, zure gaiñean soifnekotzat fedea artzen dozula, sendoa ta indartsua da-ta. Izan be, fedea guz-tia eskintzen eta emoten dau; ezpaiak, ostera, beragan usterik ez dauan ezker-o, asten dauzan ekintza guztietan uts egiten dau.

11. «Ondo ikusten dozu, ba, fedea goitik datorrena, Jaunagandik, eta indar andia dauko (111); ezpaia, ostera, deabruagandik datorren espiritu lurkoia da eta ez dauko ezelako indarrik (112). Beraz, izan zaitez fedea serbitzari, inda-rra daukana fedea da-ta; eta alde egizu ezpaitik, ez dauko ezelako indarrik-eta; eta Jaungoikoarentzat bizi izango zara. Eta era onetan uste daben guztiak be Jaungoikoarentzat bizi izango dira.

AMARGARREN AGINDUA

I. *Tristuraren aurka*.—«Atara zugandik —esan eustan Artzaiñak— tristu-ra guztia, au ezpaiaren eta asarrekeriaren aizta da-ta».

2. «Zelan da tristura, jauna —itandu neutsan nik— onein (113) aizta? Izan be, asarrekeria gauza bat, ezpaia beste bat eta tristur(e)a beste bat dala deritzat».

(111) Cfr. XI^{gn}. *Agindua*, 5, 8; Sant. 1, 17; 3, 15, 17.

(112) Sant. 3, 15: «Jakituri ori ez da goitik jatsitakoa; lurrekoa da, abereena, txerrenena».

(113) «Onein»: ezpaiaren eta asarrekeriaren aizta.

«Gizon burubagea zara —erantzun eustan—. Ez al-dozu ulertzen espiritu guztietarik txarrena eta Jaungoikoaren otseñientzat ikaragarriena danik? Beste espiritu guztiak baiño geiago ondatzen dau gizona ta jaurtiten dau Espiritu Santua, gizona barriro onik ataraten dauana be Bera izanarren».

3. «Jauna —esan neutsan— burubagea naz ni eta ez dodaz antz-irudiok ulertzen; ez dot ulertzen tristurak zelan egin daiken batera jaurti ta barriro eskuratu».

4. «Entzun —erantzun eustan—: egia iñoiz be arakatu ez dabenak ezta jaungoikotasunaren misterioak aztertu be, fedea artu baiño egin ez dabenak, euren irabazpide, aberastasun eta jentil-adiskidetasun eta gizaldi onetako beste arazo askoren erdian ibilirik, gai oneitan naastuta dabizanak, ez dabez jaungoikotasunaren antz-irudiak ulertzen; izan be, irabazpide orreik illundu egiten ditue alakoak, galdu egiten dira eta ezetarako be ez dira gauza.

5. «Maasti ona, lantzen ez ba'da, arantzak eta edozetariko bedarrak ito egiten dabenez, gizonak be, sinismena artuta gero, aitaturiko irabazpide guzti orreitan jausten ba'dira, galdu egiten dabe euren zentzun ona eta jaungoikotasunari buruz ez dabe ezertxo be ulertzen. Eta, ain zuzen be, jaungoikotasunari ta egiari buruz itz egiten entzuten dabenean, euren spirituak euren irabazpideetara jotzen dau eta ez dabe ezertxo be ulertzen.

6. «Jaungoikoaganako bildurra dabenak eta jaungoikotasunari ta egiari buruz arakatzen dabenak, ostera, berealaxe aditzen eta ulertzen dabe (114) esaten yaken guztia, eurakan Jaungoikoaganako bildurra dauke-ta. Izan be, Jauna bizi dan tokian, antxe dago zentzun andia be. Beraz, batu zakioz Jaunari (115), eta guztia adituko ta ulertuko dozu».

II. «Entzun orain —esan eustan—, gizon ez-jakin orrek, tristur(e)ak zelan jaurtiten dauan espiritu santua eta barriro eskuratzen dauan.

2. «Ezpaitan dagoan batek irabazpideren bat asten eta aretan bere ezpaigaitik uts egiten dauanean, gizonagan tristur(e)a sartzen da eta tristur(e)ak espiritu santua samindu egiten dau eta jaurti.

3. «Gero, edozein arazogaitik, asarrekeria gizonari lotzen ba'yako eta gizona larregi samintzen ba'da, asarratu zan gizonaren biotzean atzera sartzen da tristura, eta gizona naibagetu egiten da egin eban egitad(e)agaitik eta damutu egiten da txarto jokatu daualako.

4. «Beraz, tristur(e)ak beragaz salbamena dakarrela dirudi, gizona bere egitada gaiztoaz damutu egin zan-eta. Beraz, egitada biok naibagetu egiten dabe es-

(114) Cfr. III'gn. *Ihusketa*, x, 9; Esdras'en II'gna., 5, 9, 15; Ps. 13, 4.

(115) Ecli. 2, 3: «Batu zaitz Jaungoikoagaz eta izan eroapena».

piritua: ezpaiak, bere ekintzak aurrera egin ez ebalako, eta asarrekeriak, txarto jokatu ebalako. Beraz, biak naibagetzen dabe espiritu santua, ezpaiak eta asarrekeriak.

5. «Jaurti egizu, ba, tristura zugandik eta ez egizu iraindu zeugan bizi dan espiritu santua, Jaungoikoari zeure aurka eskatu ez dagian eta zugandik alde egin ez dagian.

6. «Izan be, zure aragi orretan isuria izan dan Jaungoikoaren spirituak ezin eroan daike tristurarik ez naibagerik.

III. «Jantzi egizu, ba, gaiñean alaitasuna, Jaungoikoarentzat beti gogokoa ta onartua izaten da-ta. Izan be, gizon alaitsuak ondo jokatzen eta pentzaten dau, eta jaurti egiten dau tristura.

2. «Gizon itunak, barriz, txarto jokatzen dau beti. Leen eta bein, gizonari emon yakon espiritu santua naibagetzen daualako jokatzen dau txarto, espiritu santua alaia izanarren be. Gero, gaiztakeria egiten dau, Jaungoikoari otoitzik ez gorapenik zuzentzen ez dautsalako. Izan be, gizon itunaren eskariak iñoiz be ez dau izaten Jaungoikoaren altarara igoteko indarrik».

3. «Jauna —itandu neutsan nik—, zegaitik ez da igoten Jaungoikoaren altarara gizon itunaren eskaririk?»

«Aren biotzean —erantzun eustan— tristura dagoalako jesarrita. Izan be, tristur(e)ak, eskariak naastuta, ez dautso oni laketzen altarara garbi igoten. Izan be, ardaoak, ozpiñaz naastuta, edakera* bardiña ez daukanez, tristur(e)ak be, espiritu santuaz naastuta, ez dauko eskari-indar bardiñik.

4. «Garbitu zaitz, ba, tristura txar onetatik, eta Jaungoikoarentzat bizi izango zara. Eta eurakandik tristura jaurti eta gaiñean poz guztia jantzi dagienak be Jaungoikoarentzat bizi izango dira».

AMAIKAGARREN AGINDUA

I. *Sasi-profeta bat*.—Gizon batzuk banku (jarleku) baten jesarrita eta beste bat aulkian jesarrita erakutsi eustazan, eta auxe esan eustan: «Ikusten al-doiz bankuan jesarrita dagozanak?». «Ikusten dodaz, jauna», erantzun neutsan. «Orreik —esan eustan—, fededunak dira, eta aulkian jesarrita dagoana sasi-profeta bat da (116). Jaungoikoaren otseñen adimena ondatzen dauana, edo bardin dana, ezpaitan dagozanen adimena, fededunena ez.

(116) «*Sasi-profeta*» ori, nor da? Zahn'en eta Funk'en eritiz, «azti kristau» bat izan zan. (Cfr. Ap. Egiñ. 19, 13 eta urreng.

(*) Edakera: sabor de los líquidos.

2. «Izan be, ezpaitan dagozanak azti bategana lez joten dabe aregana, eta zer jazoko yaken itauntzen dautsoe. Eta sasi-profeta arek, beragan jainkozko espiriturik ezertxo be ez izanik, arein itaunen eratara egiten dautse itz, arein gaiztakeriaren gogotara, eta eurak nai dabenez beteten ditu arein arimak.

3. «Baiña, bera utsik dagoan ezker (117), itaun utsai erantzun utsakaz erantzuten dautse. Alari be, egiazko itz batzuk be ba-diño; izan be, deabruak bere espiritu z beteten dau (118), zintzoren bat zatitzeko asmoz.

4. «Baiña, Jaunaren fedean indartsu diranak, jantzizat egia artuta, ez dira alako spirituakaz batzen, arekandik urrundu egiten dira, ostera. Kilikoloka diarduenak eta sarritan damutzen diranak (119), barriz, aztikeritara joten dabe, jentillak lez, eta euren gurkeriagaitik pekatu andia ezarten dabe euren gainean. Izan be, edozein irabazpideri buruz sasi-profetagan itauntzera joaten dana, sasi-jainkozale, egia-bagea ta zentzunbagea da.

5. «Izan be, Jaungoikoak emondako spirituk ez dau itandua izan bearrik; beragan jaungoikotasunaren indarra izanik, guztia norberaren indarrez diño (120), ostera, goitik, jaungoikozko Espirituaren indarretik datorren ezker.

6. «Baiña, itandua izatea nai dauan spirituak, gizonen gurarietara erantzuten dau, espiritu lurkoi ta ariña da, eta ez dauko indarririk ezertxo be».

7. «Beraz, jauna —esan neutsan nik—, zelan jakingo dau gizonak areitarik nor dan profeta eta nor sasi-profeta?».

«Entzun —erantzun eustan— profeta bati ta besteari buruz; eta neuk esanala aztertuko dozu egiazko profeta eta sasi-profeta. Jaungoikozko spiritua daukala diñoan gizona, beronen bizikeraren bidez aztertu egizu.

8. «Leenen eta bein, goitik datorren jaungoikozko spiritua daukan gizona otzana, baretsua ta apala da; edozein gaiztakeritik urrunduta bizi da; bere burua gizon guztietarik utsalena egiten dau, eta itaunen bat egiten dautsoenean, ez dau erantzunik emoten (121); ez dau berekautan itzik egiten; ezta gizonen batek nai dauanean be ez dau spiritu santuak itz egiten, itz egitea Jaungoikoak nai dauanean baiño.

9. «Au onela dala, jaungoikozko spiritua daukan gizonetzkoa, jaungoikozko spirituaren fedea daukan gizon zintzoren batzarrera (122) doanean, eta gizonetzko arein batzarrak Jaungoikoari eskaria egiten dautsanean, orduan aregaz bat eginda dagoan profeta-espirtuaren aingeruak gizona bete egiten dau eta, espiritu santuz beterik, Jaungoikoak nai dauanez egiten dautso itz gizonak laguntaldeari.

(117) Cfr. Polikarpo: *Ad. Philip.*, 6, 3.

(118) Beraz, «sasi-profeta» bakarrik ez da, «deabruaren profeta» bat be ba-da. Cfr. Tes. 2.^a, 2, 8-11; Dan. 7, 25; Apoc. 13, 5.

(109) Edo bardin dana: benetan ifioiz be biurtzen ez diranak.

(120) Sant. 3, 17.

(121) Egiazko profetak ez dau bere buruatzaz itzik egiten. Cfr. 9^{gn}. ataltxo.

(122) «Batzarra»: gerkeraz «synagogé» = sinagoga. Cfr. Sant. 2, 2.

10. «Onetaraxe agertuko da Jaungoikotasunaren spiritua. Or ikusi daikezu jaungoikotasunaren spirituari dagokion Jaunaren indarra dan andia.

11. «Entzun orain —esan eustan gainera— indarririk ez daukan eta burubagea dan espiritu lurkoi ta utsaren ezaugarriak.

12. «Leenen eta bein, spiritua daukala dirudian gizon arek bere burua gora jasoten dau (123); leenengo jarlekuak artu nai ditu; bereala arrokua, lotsabagea ta barritsua egiten da; edozetariko atseginen erdian eta beste iruzur askotan bizi da; bere igarkerien orde ordaiña jasoten dau, eta ordain bagarik ez dau igarpenik egiten. Jaso ete-daike, gero, jaungoikozko spirituak igarteko ordaiñik? Ez, ez dagokio orrelakorik Jaungoikoaren profetari; orrelako profetak, ostera, espiritu lurkoia dauke.

13. «Gero, barriz, sasi-profeta ez da ezetarako be urreratzen gizonetzko zintzoren batzarretara; batzarretatik iges egiten dau, ostera. Ezpaitan eta uskeritan dagozanai lotzen yake; orrei bere igarpenak egiten dautsez batzarretan, arein gurarietara edozetariko uskeriz lilluratzen dauzala. Eta, ain zuzen be, lagun utsalai erantzuten dautse.

14. «Baiña, sasi-profeta gizon zintzoz beteriko batzarrera doanean, jaungoikozko spiritua daukanen batzarrera, oneik euron eskaria Jaungoikoari egitean, gizon ori utsik geratzen da eta espiritu lurkoiak, bildurrez beterik, iges egiten dau gizon orregandik, eta gizon ori mututu eta zatitu egiten da, itzik egiteko ez dala.

15. «Izan be, etxabee* baten ardaoa naiz orioa batzen ba'dozu, eta an, ontzi beteen artean, ontzi bat utsik ipinten ba'dozu, geroago, etxabeea ustu nai dagizunean, utsik ipiñi zenduan ontzia utsik aurkituko dozu; orrelaxe, profeta utsal oneik be, zintzoren espirtuaren artera eltzen diranean, etorri ziranez izaten dira aurkituak.

16. «Or dozu, ba, profeta batzuen eta besteen spiritua. Beraz, bere egin-tzetatik eta bizikeratik aztertuko dozu bere buruari spiritu-ekarle dirautsan gizona (124).

17. «Zuk, ostera, Jaungoikoagandik datorren eta aal-izatea daukan spiritua sinistu egizu. Baiña ez sinistu ezer espiritu lurkoi ta utsari; izan be, deabruagandik datorren ezker, ez dago aregan ezetariko indarririk.

18. «Entzun orain, esango dautsudan antz-irudia: Artu arri bat eta jaurti zerura. Begira zerua ikutu daiken. Edo-ta, artu ur-aga* bat eta zuzendu egizu zerurantz. Begira zeruan zuloa egiteko gai zaran».

(123) Cfr. Mat. 23, 6, 12; Luk. 14, 7-11.

(124) Beraz, orain ez dau sasi-profeta bat bakarra aitatzen, askotariko profeta arroputz eta utsak baiño. Cfr. Didaje, XI, 5, 6, 8, 9; XVI, 3.

(*) Etxabee: bodega, sótano. — (*) Ur-aga: bomba de agua.

19. «Zelan izan daiteke ori, jauna? —erantzun neutsan nik—. Esan dozuzan biak eziñak dira».

«Or, ba —esan eustan—, ori eziña danez, espiritu lurkoiak be ezinkorrek eta alperrekoak dira.

20. «Konturatu zaitetz orain, goitik datorren indarraz. Txingorra arri zea da; baiña gizonaren buru-gaiñera jausten danean, min andia egiten dautso egin be. Edo-ta, konturatu zaitetz teilla batetik lur-gaiñera jausten dan urtant(e)az, eta arria zulatzeke lain ba-da.

21. «Ondo ikusten dozu, ba, goitik lurrera jausten diran gauzak, ze-zeak izanarren be, indar andia dabena. Bardin, goitik datorren jaungoikozko espiritua be aaltsua da. Beraz, espiritu au sinistu eta besteagandik alde egizu».

AMABIGARREN AGINDUA

I. *Gurari txarra*.—Artzaiñak auxe esan eustan: «Atara egizu zugandik edozein gurari txar; artu egizu jantzizat gurari ona ta santua. Izan be, gurari au jantzizat artuta, gurari txarra ezetsi (bartzartu) eta zeure naitara erabiliko dozu.

2. «Izan be, gurari txarra pistia da, eta nekez biguntzen da. Ikaragarria da eta iruntsi egiten dau gizona bere ankertasunez. Eta batez be, Jaungoikoaren otseña aren sareetan jausten ba'da eta zuurra ez ba'da, arek arrigarrero iruntsiten dau. Alan be, gurari onaren soñekoa ez daroana soillik jaten dau, gizaldi onetan naastuta dagoana. Oneik, bai, eriotzarako emoten ditu».

3. «Zeintzuk dira, jauna —esan neutsan nik—, gurari txarraren egintzak, gizona eriotzarako emoten dabena? Jakiñerazo egidazuz, areitatik urrundu naiten».

«Entzun —esan eustan— gurari txarrak Jaungoikoaren otseñai eriotza ekarten dautsen egintzak zeintzuk diran.

II. «Leen eta bein, iñoren emaztea edo senarra gura izatea; gero, aberastanunen apainkeria, jan-edan ugari ta alperrekoak, eta beste atsegin asko ta utsak gura izatea. Izan be, edozein atsegin erokeria ta uskeria da Jaungoikoaren otseñientzat.

2. «Gurari oneik, txarrak dira, ba, eta eriotza ekarten dautsee Jaungoikoaren otseñai. Izan be, gurari txar au deabruaren semea da. Bearrezkoa dozue, ba, gurari txarretatik alde egitea; eurotatik urrundurik, Jaungoikoarentzat bizi zaitezen.

3. «Gurari txarrak menperatzen dauzan guztiak eta ari gogor egiten dautsoenak, barriz, guttiz ilda dagoz, gurari orreik ilgarriak dira-ta.

4. «Zuk, barriz, artu egizu jantzizat zuzentasun-guraria; eta, iskillotzat (armatzat) Jaunaganako bildurra arturik, gogor egiezu gurari txarrai. Izan be, Jaungoikoaganako bildurra gurari onean bizi da. Gurari txarrak armatzat Jaungoikoaganako bildurra dozula ikusi dagianean eta berari gogor egiteko gertu zagozala, zugandik urrun egingo dau iges eta, zure iskilloi bildur izanik, ez da zure aurrean iñoiz be aurkeztuko.

5. «Beraz, zu, gurari txarraren irabazle koroetuta, urreratu zakioz zuzentasun-gurariari, emon egiozu lortu zenduan garaipen-saria eta otseindu egizu berak nai dagianez. Gurari onaren serbitzari izan eta onen menpean egon ba'zaitetz, menperatu aal izango dozu txarra, zeure naitara menperatu be».

III. «Jauna —esan neutsan—, gurari onaren serbitzari zelan (ze eratar) izan bear dodan nai neuke jakin».

«Entzun —esan eustan—. Zuzentasuna ta onoiñena (birtutea), egia eta Jaungoikoaganako bildurra, fedea ta otzantasuna eta onein antzeke beste egitada guztiak egingo dozuz. Onela egiñik, Jaungoikoaren gogoko izan eta Berarentzat bizi izango zara. Eta gurari onaren serbitzari izan daiten edonor be, Jaungoikoarentzat bizi izango da».

AGINDUAI GEIGARRIA

2. Amabi aginduon azalpena amaituta gero, auxe esan eustan: «Emen, ba, emon dautsudazan aginduak. Ibili zaitetz eurotan, eta eskatu egiezu eurok entzun dagiezanai, euren ordain-nekea garbia izan daitela geratzen yakezan bizitzako egun guztietan.

3. Emoten dautsudaz eginkizun au arduraz bete egizu, eta egintza andia egin izango dozu; izan be, ordain-nekea egin nai dagien guztien artean ederra idoroko (aurkituko) dozu eta zure itzai esana egingo dautsee: neu egongo naz zugaz eta zuri esana egitera beartuko dodaz-ta».

4. Nik auxe erantzun neutsan: «Jauna, agindu oneik andiak, ederrak eta goragarriak dira, eta areik beteteko gauza dan gizonaren biotza poztu egin daikee. Nik ez dakit, orraitio, aginduok beteteko gizonik izan daiteken, oso gorrak dira-ta».

5. Eta Artzaiñak auxe erantzun eustan: «Aginduok bete daitkezala jabetzen* ba'zara, erraz beteko dozuz eta ez dira neketsuak izango; baiña, aginduok bete aal dagizan gizonik ez dagoala pentzatzen asi ba'zara biotzean, ez dozuz beteko.

(*) Jabetu: convencerse.

6. «Orain auxe dirautsut: Aginduok bete bearrean, alde batera itzi ba'da-gizuz, ez dozu salbamenik lortuko ez zuk, ez zure semeak, ez zure etxeokak: mundu onetan aginduok bete aal dagizan gizonik ez dagoala erabagi dozu zure barruan-eta».

IV. Azken au guztiz asarre esan eustan, ni aren aurrean lotsatuta eta bildurrez beterik geratzeragiño. Izan be, aren arpegia aldatu egin zan, aren asarreari eutsi aal izateko gizonik ez egoteragiño aldatu be.

2. Eta ni guztiz larri ta lotsatuta nengoala ikusi ebanean, bigunago itz egiten asi yatan, eta auxe esan eustan: «Gizon ez-jakin, burubage ta aiko-maiko ori! Ez al-dozu ulertzen Jaungoikoaren aintza dan andia, aaltsua ta miragarria? Mundua gizonaganako maitasunagaitik sortu ebalta eta Berak egin eban guztia gizonaren menpean itzi ebalta?»

3. «Beraz, Jaungoikoaren izaki guztien jabea ba'da eta guztiak bere menpean ba'daukaz, ez al-dauz aginduok menperatu aal izango? Bai —esan eustan—, guztia menperatu daike, baita agindu guztiok be, bere biotzean Jauna daukan gizonak.

4. «Baiña, Jauna euren ezpanetan bakarrik daroenak eta euren biotza gogortuta daukenak eta Jaungoikoagandik urrun dagozanak, orreintzat bai, orreintzat agindu oneik gogorrak eta eldu-eziñak* dira.

5. «Zuek, ba, fedean ariñak eta utsak zareenok, jarri egizue Jauna zuen biotzetan, eta agindu oneik baiño errazagorik ezer be ez dagoala ulertuko dozue, ezta gozoagorik ez maitagarriagorik be.

6. «Biurtu zaitze, deabruaren aginduetan zabizenok, astunak eta mingotsak, ankerrak eta loiak dira-ta. Eta ez izan bildurrik deabruari, zuen aurka egiteko indarrik ez dauko-ta.

7. «Izan be, neu egongo naz zuekaz, neu, guztiz menperatzen dodan ordain-nekearen aingerua nazan au. Deabruak bildurra bakarrik emoten dau; baiña bildur oneik ez dauko ezer be indarrik. Ez egiozue, ba, bildurrik izan, eta zuekandik iges egingo dau».

V. *Tentaldia*.—Nik auxe esan neutsan: «Jauna, entzun egidazuz oraindiño itz batzuk».

«Esan egizu nai dagizuna», erantzun eustan.

«Jauna —esan neutsan—, gizona gertu egoten da Jaungoikoaren aginduak beteteko eta ez dago iñor Jaunari beronen aginduetan sendotzeko ta onein esaneko egiteko eskatuko ez daukanik. Baiña deabrua gogorra da eta azpiratu egiten ditu».

(*) Eldu-eziñak: inaccesibles.

2. «Deabruak —esan eustan— ezin azpiratu daikez ustea biotz-biotzez Jaunagan jarten daben Jaungoikoaren otseiñak; deabruak arein aurka burrukan egin daike, bai, baiña ezin ondatu daikez. Beraz, gogor egiten ba'dautsazue, iges egingo dau zuekandik, azpiratuta, lotsaz beterik. Baiña, fedez utsik dagozan guztiak, bildur dautsoe deabruari, benetan indarren bat bai'eukean (ba'leuke lez).

3. «Gizon batek, guztiz ondo atonduta daukazan ontzi batzuk ardao onaz beteten dauzanean, eta ontzi arein artean batzuk erdi-beteta itzi, gero bere ontzietako ardao dastatzera* ba'dator, ez ditu beteak aztertzen —beteta dagozana ba-daki-ta—, erdi-beteak baiño, areitako ardao garraztu daiten bildur da-ta. Izan be, ontzi erdi-beteak laster garrazten dira eta ardaoak balio guztia galtzen dau.

4. «Era berean, deabrua Jaungoikoaren otsein guztiakana urreratzen da, areik zirikatze. Baiña fedez beterik dagozanak adoretu egiten dautsoe gogor, eta a baztatu egiten da arekandik, sartzeko tokirik ez dauko-ta. Orduan, erdi-utsik dagozanakana jotzen dau, eta, lekua daukan ezker, arekan sartzen da eta berak nai dauana egiten dautse, eta areik deabruaren otsein esaneko biurtzen dira.

VI. «Baiña nik, ordain-nekearen aingeru onek, auxe dirautsuet: Ez izan bildurrik deabruari. Izan be —esan eustan—, zeuekaz, ordain-nekea biotz-biotzez egiten dozuenokaz egoteko eta fedean sendotzeko izan naz bialdua.

2. «Sinistu egizue, ba, Jaungoikoa, zuen pekatuakaitik zuen bizitzaz etsita* zagozenok, pekatuen gaiñean pekatuak pillatzen dozuezala eta zuen bizitza sakoneragiño txarragotzen dozuela; sinistu egizue, diñot: Jaunagana biotz-biotzez biurtu ba'zaitze (125) eta geratzen yatzuezan bizitzako egun guztietan zuzentasuna egin (126) eta Jauna zuzen otseindu ba'dagizue bere naitara, Berak osatuko dautsuez leengo pekatuak, eta deabruaren egintzak zearo azpiratzeko indarra izango dozue. Ezetara be ez egiezue deabruaren zema bildurrik izan, gorpuren (ildakoaren) zanak aiñako makala da-ta.

3. «Entzun nagizue, ba, eta bildur izan egiozue guztia aal dauan Ari: salbatu naiz ondatu egin daike Ari (127), eta bete egizue aginduak, eta Jaungoikoarentzat bizi izango zaree».

«Jauna —esan neutsan nik—, Jaunaren erabagi guztietan sendotu naz orain, zu neugaz zagoz-ta; eta ba-dakit zuk deabruaren indar guztia austen dozuna

(125) Cfr. Jer. 24, 7; Joel, 2, 12.

(126) Cfr. IV'gn. *Agindua*, i, 5; Ap. Egiñ. 10, 35; Ebert. II, 3.

(127) Sant. 4, 12; cfr. Mat. 10, 28 eta urreng.

(*) Dastatu: probar. — (*) Etsita egon: perder la esperanza, estar desesperado.

eta guk deabrua azpiratu egingo doguna eta bere egintza guztiak garaituko doguzana. Eta, Jaunak sendoturik, emon daustazuzan agindu guztiok beteteko us-tea dot, jauna».

5. «Beteko dozuz —erantzun eustan—, zure biotza Jaunarentzat garbitzen ba' dozu. Eta euren biotzak gizaldi onetako gurari utsetatik garbitu dagiezanak be, beteko dabez eta Jaungoikoarentzat bizi izango dira».

III. ANTZ-IRUDIEN LIBURUA

Artzaiñak esan eustazan Antz-irudiak (128).

LEENENGO ANTZ-IRUDIA

Kristauaren egiazko uria.—Artzaiñak auxe esan eustan: «Ba-dakizue zuek, Jaungoikoaren otseñok, atzerrian bizi zareena (129), zuen uria uri onetatik (130) urrun dago-ta. Beraz, bizi izango zareen zuen uria (131) zein dan ba'dakizue, zegaitik erosten dozuez emen solo ta tresna apaiñak, etxe ta bizitoki alperrekoak?

2. «Izan be, emengo urian gauza guztiok erosten dauzanak, ez dau norberaren urira biurtzerik pentzatzen.

3. «Gizon ez-jakin, aiko-maiko ta errukarri ori! Ez al-dozu ulertzen, gauza guzti oneik iñorenak dirana eta besteren menpean dagozana? Ain zuzen be, uri onetako jaunak auxe esango dautsu: 'Ez dot nai nire urian bizi zaitezaz; urten uri onetatik, nire legeak ez dozuz erabilten-eta'.

4. «Eta zuk, soloak eta etxeak eta beste aberastasun asko daukazuzan orrek, zer egingo dozu zure solotik eta etxetik eta enparadu ondasunetatik kanpora jaurti zagizanean? Izan be, errazoiz dirautsu errialde onetako jaunak: 'Edo jarraitu nire legeai edo urten nire errialdetik'.

5. «Zer egingo dozu, ba, zuk, zeure erriko legea dozula? Zure solo ta enparadu ondasunakaitik, guztiz ukatuko ete-dozu zure legea eta aurrerantzean uri onetako legeaz ibiliko ete-zara? Kontuz, gero!, zure legea ukatzea ez yatzu egoki-ta. Izan be, zeure urira biurtu nai dagizunean, ezetara be ez zaitue artuko an, zure legea ukatu egin zenduan-eta; andik baztartuta geratuko zara.

(128) Latiñezko itzulpenaren asiera.

(129) Cfr. Ebert. 13, 14; Pedr. 1.^a, 2, 11; *Diogneto'ri Idazkia*, 5^{gn}. atalb., 1-11.

(130) «Uri au»: Erroma, edo gu bizi garan lur au, geroago San Agustin'ek diñoanez.

(131) «Edo bardin dana, Jerusalem zerutarra», ezarri eban emen IV'garren mendeko Antioko eremutarrak.

6. «Aditu, ba. Iñoren lurraldean bizi danak lez, bearrizanetarako naikoa dana baiño ez billatu (132), eta gertu egon, jaunaren legeai gogor egiten dautsezulako uri onetako jaunak uritik kanpora jaurti nai zagizanerako. Orduan, aren uritik urtenik, zeure urira joango zara, eta an zeure legeari jarraituko dautsazu, iñoren iraiñik baga, pozez beterik.

7. «Kontuz, ba, zuek, Jauna otseintzen eta biotzean daukazuenok! Egizuez Jaungoikoaren lanak, Beronen aginduak (133) eta Berak egin ebazan agintzariak aurrean izanik, eta Jaunak agintzariok beteko dituala sinistu egizue, Aren aginduak betetekotan.

8. «Beraz, soloen ordez, arima naibagetuak erosi egizuez norberak aal dagianez; eroan egiezue laguntza andra alargunai ta umezurtzai eta ez egizuez baztatu; eralgi zuen aberastasuna ta ondasun guztiak oneitariko solo ta etxeetan, Jaungoikoagandik artutakoak dozuez-ta (134).

4. «Izan be, eginkizunok zearo beteteko aberastu zaitue Ugazabak (Jaunak). Askozaz obeago da aitaturiko solo, ondasun eta etxeak erosteak: zure urira bizi izatera joan zaitezanean, antxe aurkituko dozuz-ta (135).

10. «Auxe da apaintasun ona ta santua, larrialdi ta bildurrik bagea, pozez beterikoa. Beraz, ez nai izan zuekanatu jentillen apainkeria, zuei, Jaungoikoaren otseñoi, ez yatze egoki-ta.

11. «Billatu egizue, bai, zeuen apaintasuna, poztu zaitezenezeko apaintasuna. Ez sartu ziririk iñori, iñorenik ez ikutu ezta gura izan be: iñorenik gura izatea gaiztakeria da-ta. Ekiozu, ostera, zeure lanari, eta onik urtengo zara».

BIGARREN ANTZ-IRUDIA

Zumarra ta maatsondoa.*—Nire solora bidez niñoiala eta zumar bati eta maatsondo bati begia ezarririk, orrean landara ta frutuai buruz neurekautan asmatzen niarduala, Artzaiña agertu yatan, eta auxe esan eustan: «Ze bururapen darabizu zure barruan zumarrari ta maatsondoari buruz?»

«Jauna —erantzun neutsan—, landara biok alkarren artean ondo be ondo osotzen dirala ausnartzen diardut».

2. «Zugat oneik —esan eustan— Jaungoikoaren otseñien ikasbiderako dagoz jarriak».

(132) Cfr. Prov. 30, 8.

(133) Ps. 102, 18.

(134) Cfr. Sant. 1, 27.

(135) Cfr. Luk. 16, 9.

(*) Zumar: olmo.

Eta nik: «Zugatz onein ikasbidea zein dan jakin nai neuke».
 «Ikusten al-dozu zumar au ta maatsondo au?», esan eustan.
 «Ikusten dodaz, jauna», erantzun neutsan.

3. «Maatsondo onek —esan eban gaiñera—, berez, frutua dakar; baiña zumarra zugatz alperra* da. Baiña maatsondoa zumarrean korapillotzen ez ba'da, ezin emon daike frutu askorik, lurrean datzan ezkerok; eta frutua emonarren be, usteldua emoten dau, zumarretik dingilizka ez dagoalako. Beraz, maatsondoa zumarrean korapillotzen danean, maatsondoak frutua emoten dau berenez eta zumarraigaitik.

4. «Ondo ikusten dozu, ba, onetara zumarrek be frutua emoten dauala, maatsondoak baiño gutxiago ez, gero, eta geiago be bai».

«Zelan geiago, jauna?», esan neutsan nik.

«Maatsondoak —erantzun eustan—, zumarretik dingilizka, frutu ugari ta ona emoten dau; baiña, lurrean zear, bere frutua usteldua ta urria izaten da. Beraz, antz-irudi au Jaungoikoaren otseñentzat egin da, edo bardin dana, txiroarentzat eta aberatsarentzat».

5. «Jauna —esan neutsan nik—, azaldu egidazu ori zelan dan».

Eta arek: «Entzun: aberatsak, bai, ondasunak ugari daukaz; baiña Jaungoikoari dagokionez eskeko bat da; izan be, bere aberastasunetan korapillotuta, gutxitan egiten dautsaz bere gorapenak eta otoitza Jaunari, eta egiten dauan otoitza be laburra ta makala da, gora igoteko indarrik ez daukala. Beraz, aberatsa txiroagana joaten danean eta onek bear dauana aberatsak emoten dautsanean, txiroaren alde egin dagiana Jaungoikoaren aurrean saria izango dauala uste izanik —txiroa bere otoitzean eta gorapenean aberatsa eta bere otoitzak Jaungoikoari buruz indar andia dauko-ta—, fede oneaz aberatsak txiroari guztia ornitzen dautso, ezpairik baga (136).

6. «Eta txiroak, aberatsak lagunduta, beronen alde erregutzen dau, bearezkoa emon eutsanaren alde Jaungoikoari eskerrak emonik. Eta aberatsak oraindiño ardura geiago artzen dau txiroaren alde, beronen bizitzan ezerean bearrizanik izan ez dagian; izan be, txiroaren bitartekotasuna Jaungoikoaren aurrean begikoa ta aberatsa dana ba-daki-ta.

7. «Beraz, batak eta besteak euren egitekoa beteten dabe: txiroak bere otoitza eskintzen dau, Jaungoikoagandik artu eban aberastasuna dan otoitza; eta txiroak, Jaungoikoagandik artu eban aberastasun ori, berari eskuratu dautsan Jaun berari biurtzen dautso. Era berean, aberatsak, Jaunagandik artu eban aberastasuna txiroari emoten dautso ezpairik baga. Eta au, egintza andi ta begikoa da

(136) Cfr. Sant. 5, 15; *Didaje*, 4, 5.

(*) Zugatz alper: árbol infructuoso.

Jaungoikoaren aurrean; izan be, aberatsak bere aberastasuna ondo zaintzen ikasi eban, eta txiroari Jaungoikoaren doaietatik banandu eutsan eta Jaunak itzi eutsan eginkizuna artez bete eban.

8. «Gizonen eritziz, zumarrek ez dau fruturik emoten; baiña ez dakie ezta ulertu be ez dabe egiten, zumarrek, ura beragaz eukirik, legortea datorrenean, maatsondoa janaritzen dauanik, eta maatsondoak, onela beti ura eukirik, frutu bikoiztua emoten dau, berenez eta zumarraigaitik. Onela, txiroak, aberatsen alde Jaunari eskaturik, onein aberastasuna geitu egiten dabe, eta aberatsak, txiroai bearezkoa eskuraturik, aberastu egiten ditue txiroen biotzak.

9. «Beraz, batzuek eta bestetzuek egintza zuzenean eskuartzen dabe. Beraz, onela egin dagiana ez dau Jaungoikoak bertan-beera itziko, bizi diranen liburuetan izango da idatzia, ostera (137).

10. «Zoriontsuak, ba, euren aberastasunak Jaunagandik artu dabezala ulertzen dabezan aberatsak; izan be, au ulertu dagianak, eginkizun ona bete aal izango dau».

IRUGARREN ANTZ-IRUDIA

Mende au, zintzoentzat negua da.—Orririk ez euren zugatz asko erakutsi eustazan; igartuta egozala neritzan, guztiak bardiñak ziran-eta. Orduan, auxe esan eustan: «Ikusten al-dozez zugatz guztiok?».

«Ikusten dodaz, jauna —erantzun neutsan—, eta guztiak bardiñak dirala eta igartuta dagozala».

Eta arek: «Ikusten dozuzan zugatzok, mende onetan bizi diran gizonen antz-irudi dira».

2. «Beraz, jauna —esan neutsan nik—, zegaitik dagoz igartuta lez eta zegaitik dira guztiak bardiñak?».

Arek auxe erantzun eustan: «Zintzoak eta pekatariak mende onetan, eurak diranez agertu bearrean, bardiñak agertzen dira. Mende au negua da zintzoentzat, eta ez dira agertzen, pekatarien artean biziarren be.

3. «Izan be, neguan zugatzak, orriak jausita, guztiak bardiñak dirala dirudenez eta zeintzuk diran igarrak eta zeintzuk biziak ikusten ez danez, mende onetan be ez da ikusten zeintzuk diran zintzoak eta zeintzuk pekatariak, eta guztiak antzerakoak dirudie».

(137) Ps. 68, 29.

LAUGARREN ANTZ-IRUDIA

Geroko mendea, uda.—1. Barriro beste zugatz asko erakutsi eustazan; batzuk ezeak*, beste batzuk igartuta, eta «Ikusten al-doizuz zugatz oneik?», esan eustan.

«Ikusten dodaz, jauna —erantzun neutsan nik—: batzuk eze dagozala eta beste batzuk igartuta».

2. «Zugatz eze oneik —esan eustan— geroko mendean bizi izatera joango diran zintzoen antz-irudi dira; izan be, geroko mendea zintzoentzat ud(e)a da; pekatarietzat, barriz, negua.

Beraz, Jaunaren errukiak dizdiz egin dagianean (138), orduantxe izango dira agirian ipiñiak Jaungoikoaren serbitzariak, eta gizon guztiak izango dira agirian ipiñiak.

3. «Izan be, udan zugatz bakoitzaren frutuak agirian jarten diranez eta zelakoak diran ikusten diranez, orrelaxe agertuko dira zintzoen frutuak be eta mende aretan guztiok mardultasunez beterik ikusiko dira.

4. «Zugatz igar lez ikusi zenduzan jentillak eta pekatariak, barriz, frutu bagarik izango dira aurkituak mende aretan, eta egurra lez izango dira kiskalduak (139), eta euren bizitzan gaiztakeria egin dabela agertuko da. Izan be, pekatariak kiskalduak izango dira, pekatu egin eta ordain-nekea egin ez ebelako; eta jentillak be kiskalduak izango dira, euren Egillea onartu ez ebelako (140).

5. «Zuk, barriz, frutuak emon egizuz, uda aretan zure frutua onartua izan daiten. Baiña alde egizu irabazpide ugaritik eta ezetan be ez dozu inoiz pekatu egingo. Izan be, arazo askotan diarduenak, pekatu be ugari egiten dabe; euren irabazpide ugarietan lotuta, ez dabe euren Jauna otseintzen.

6. «Beraz, Jauna otseintzen ez dauan gizonak, zelan eskatu naiz artu daike ezer Jaunagandik? (141) —esan eustan—. Jauna otseintzen dabenak, euren eskarien negurrira artzen dabe; Jauna otseintzen ez dabenak, ostera, ez dabe ezer artzen.

7. «Beraz, norbait arazo bat bakarrean ba'diardu, Jauna be otseindu daike; izan be, bere adimena ez da ustelduko Jaunagandik urrun, bere adimena garbi zainduta otseinduko dau Jauna.

8. «Beraz, au egin ba'dagizu, beste menderako frutua emon daikezu; eta au egin dagian edonok, frutua emongo dau».

(138) «Parusia» aitatzen da.

(139) Mat. 3, 10; 7, 16-19.

(140) Cfr. Rom. 1, 20.

(141) Cfr. Sant. 1, 7.

(*) Eze: verde.

BOSGARREN ANTZ-IRUDIA

I. *Baraua, jaungoikoarentzat gogoko.*—Bein, mendi baten jesarrita, barau egiten eta nigan egin izan eban guztiagaitik Jaunari eskerrak emoten niarduala, Artzaina ikusi neban neure ondoan jesarrita, eta auxe diraust: «Zelan etorri zara ona goizaldean?».

«Aroa (142) egiten diardudalako, jauna», esan neutsan.

2. «Zer da aroa?», itandu eustan.

«Barau egiten diardut, jauna», erantzun neutsan.

«Eta, ze barau da zuek egiten dozuen barau ori?», esan eustan.

«Nik, jauna —esan neutsan—, oi dodanez egiten dot barau».

3. «Ez dakizue —esan eustan— Jaunarentzat barau egiten, eta eskintzen dautsazuen barau alperreko au be ez da benetan baraua».

«Zegaitik diñozu ori, jauna?», itandu neutsan.

«Zuek barau egitea deritzazuen ori, baraua ez dala dirautsut barriro be —esan eustan—. Neuk irakatsiko dautsut barau osoa ta Jaunarentzat gogokoa dan baraua. Entzun —esan eustan—.

4. «Jaungoikoak ez dau nai orrelako baraurik, utsa da-ta (143): izan be, Jaunari orrela barau egini, ez dozu lanik egiten zuzentasunarentzat. Jaungoikoari urrengo baraua lakoa egiozu, ostera:

5. «Ez egizu zure bizitzan gaiztakeririk egin eta otseindu egizu Jauna biotz garbiz; bete egizuz Aren aginduak, Aren erabagietan ibilirik, eta ez bedi igo zure biotzera gurari txarrik, eta jarri zure sinismena Jaungoikoagan. Eta au egin da'dagizu, eta Jaungoikoari bildur ba'dagiozu, eta egitada gaiztorik egin ez ba'dagizu, Jaungoikoarentzat bizi zango zara; eta au bete ba'dagizu, barau andia ta Jaungoikoarentzat gogokoa egingo dozu».

II. *Otseñaren eta maastiaren ipuiña.*—«Entzun egizu, barauari buruz jarriko dautsudan antz-irudia.

2. «Gizon batek solo bat eta otsein asko ebazan, eta bere soloaren sail baten maastia jarteko agindu eban (144). Eta otsein zintzo, gogoko ta zuzena aukeraturik, ari dei egin eta auxe esan eustan: 'Artu egizu zure ardurapean nik jarri dodan maastia, inguratu egizu esi-ormaz, ni barriro etorri arte; ezertxo be ez egiozu egin besterik maastiari. Bete egizu agindu au eta askatasuna emongo dautsut'. Eta au esanda, otseñaren ugazaba urrunera urten zan.

(142) «Aroa»: latinezko «station» = estación. Cfr. *Didaje*, VIII, 1.

(143) Cfr. Bernabe, III, 1, 2.

(144) Cfr. Jer. 2, 21; Mat. 21, 33; 25, 14.

3. «Ugazaba joan zanean, otseñiak maastia bere zainpean artu eta esirmaz inguratu eban; baiña, lan au amaituta, maastia bedarrez beterik egoala konturatu zan.

4. «Eta berekautan ausnartu eta auxe esan eban: 'Osotu dot nire ugazabaren agindu au; orain, atxurtu egin bear dot maastia, onetara ederragoa izan daiten eta, bedar bagarik, frutu ugariago ekarriko dau, bedarrak ez dabe maatsaienik itoko-ta'. Joan zan, ba, maastia atxurtu eta maastian egozan bedar guztiak atara ebazan. Eta maastia guztiz ederra ta orrritsua geratu zan, itoten eben bedarrik baga.

5. «Andik gerora, otseñaren eta soloaren ugazaba etorri ta bere maastia ikustera joan zan. Eta maastia esi-ormaz egoki inguratuta, atxurtuta gaiñera, sstraka guztia atarata eta maatsondoak orrritsu ikusirik, ugazaba pozez beterik geratu zan otseñaren lanaz.

6. «Eta bere oiñordekoa zan seme maiteari eta bere onulari* ziran adiski-deai dei egiñik, bere otseñari agindu izan eutsana eta eginda aurkitu izan ebana azaldu eutsen. Eta areik otseñari zorionak emon eutsoezan, beroni buruz bere ugazabak egiten eban autorragaitik.

7. Eta ugazabak auxe esan eutsen: 'Nik otsein oni askatasuna agindu neutsan, emon neutsan agindua beteten ba'eban; eta berak nire agindua bete bakkarik ez, baita lan ederra be geitu dautso maastiari, eta biziro ederretsi daust. Beraz, egin dauan lan onen saritzat, nire semeagaz batera oiñordeko egin nai dot: bere bururapen on au sorturik, alde batera itzi bearrean, egiñez bete eban-eta'.

8. «Ugazabaren asmo au bere semeak ontzat artu eban, edo bardin dana, semeagaz batera otseña be oiñordeko izan zedilla.

9. «Egun batzuk geroago, ugazabak janaldi eder bat ospatu eban eta otseñari janari ugari bialdu izan eutsan. Ugazabak bialdu izan eutsan janaria otseñiak artu, beretzako naikoa ebanaz geratu eta beste guztia bere otsein-lagunen artean banandu eban.

10. «Eta otsein-lagunak janaria pozez beterik artu eben, eta aren alde Jaungoikoari zin-eskintzak egiten asi ziran, euren ugazabaren aurrean mesede andiagoak aurkitu egizan, eurai buruz ain oparo jokatu izan ebalako.

11. «Guzti au ugazabaren belarrietara eldu zan, eta ugazaba barriro be poztu egin zan bere otseñaren jokabideaz; eta barriro be bere lagunai ta semeari dei egiñik, bialdu izan eutsan janariaz otseñiak egin izan ebana azaldu eutsen. Eta areik geiago onartu eben, otseña ugazabaren semeagaz batera oiñordeko izatea».

(*) Onulari, aolkulari: consejero.

III. *Ipuiñaren leenengo adierazpena*.—«Jauna —esan neutsan—, nik ez dodaz antz-irudiok ulertzen, eta ulertzeko gauza be ez naz, zeuk azaltzen ez ba'daustazuz beintzat».

«Dana azalduko dautsut —erantzun eustan—, eta zugaz itz egingo dodan guztia irakatsiko dautsut. Bete egizuz Jaunaren aginduak (145), eta Jaungoikoari gogoko izango zakioz ete bere aginduak beteten dabezanen artean izango zara idatzia.

3. «Baiña, Jaungoikoaren aginduak agintzen dauanez gaiñera, egintza onen bat egin ba'dagizu, gorapen andiagoo irabaziko dozu zuretzat, eta ori egin bagarik izango zintzazan baiño goragarriagoa izango zara Jaungoikoaren aurrean. Beraz, Jaungoikoaren aginduak beteaz gaiñera, eginkizunok egin ba'dagizuz, poztu egingo zara, eginkizunok neure aginduaren negurrira betetekotan» (146).

4. Nik auxe erantzun neutsan: «Jauna, agindu daistazun guztia beteko dot, zu neugaz zagozana ba-dakit-eta».

«Bai —erantzun eustan—, ni zeugaz egongo naz, ona egiteko asmo sendoa dozu-ta. Gaiñera, orrelako asmo bardñiak dabezan guztiakaz egongo naz.

5. «Barau au guztiz ona da, Jaunaren aginduak betetekotan. Beraz, zuk egingo dozun baraua, onetaraxe beteko dozu:

6. «Leenen eta bein, zaindu egizu zure burua edozein itz gaiztotik eta edozein gurari txarretik, eta garbitu zure biotza gizaldi onetako uskeri guztietatik. Au bete ba'dagizu, zure barau au bikaiña izango da.

7. «Eta onetaraxe egingo dozu: Idatzita dagoana beteta gero (147), barau egin dagizun egunean, ogia ta ura baiño ez dozu artuko; eta artuko zenduken janaritik egun ari egoki litzakion eralgi-bearra joaz, alargun naiz umezurtz naiz beartsu bati emongo dautsazu; eta beeratu be, zure apaltasunaren limosnea artu dagianak, bere arim(e)a bete eta Jaunari zeure alde eskatzeragiño beeratuko zara.

8. «Beraz, baraua neuk agindu dautsudanez egin ba'dagizu, zure buru-ukatzea onartua izango da Jaungoikoaren aurrean, eta zure barau au idatzita geratuko da; eta egintza au, onela eginda, ederra, alaia ta gogokoa da Jaunaren aurrean.

9. «Guzti au olantxe beteko dozu zure seme ta zure etxeko guztiakaz batera; eta onela bete ba'dagizu, zoriontsua izango zara. Eta irakatsi au entzun eta bete dagien guztiak be zoriontsuak izango dira, eta Jaunari eskatu dagioen guztia jadetsiko dabe».

(145) Ecles. 12, 13; Mat. 19, 17.

(140) Jaunaren aginduak bitarikoak dira: batzuk, bete-bearrekoak, eta beste batzuk, Jaungoikoaren aurrean norbera bikaiñagoa izateko egiten diran egintza onak.

(147) Edo bardin dana, 2'garren ataltxoan aitaturiko Jaunaren aginduak. Cfr. Klemente'ren 1.^o, XIII, 1.

IV. *Ipuiñaren adierazpen barria*.—Auxe eskatu neutsan bizi: azaldu egidala soloaren antz-irudia, maastiarena, maastia esi-ormaz inguratu eban otseñiarena, esi-ormarena, maastian ataratako bedarrena eta, azkenez, semearen eta adiskide onularien antz-irudia. Izan be, guztia antz-irudia zala konturatu nintzan.

2. Arek auxe erantzun eta esan eustan: «Ausartia zara, benetan, itaunak egiten. Ez zeuke ezertxo be itandu bear; izan be, zerbait azaltzea bearrezkoa ba'dakizu, azalduko yatzu».

«Jauna —esan neutsan nik—, erakutsi bai-baiña azaldu ez daistazun guztia, alperrekoa izango yat ikustea, orrek adierazo dagiana ez dot ulertuko-ta. Beraz, antz-irudiak ekarri bai-baiña azaltzen ez ba'daustazuz, alperrik entzungo zaitut».

3. Arek barriro erantzun eta auxe esan eustan: «Jaungoikoaren otseñia izanik, bere biotzean Jauna ba'daroa, Jaunari adimena eskatzen dautso eta lortu egiten dau, eta antz-irudi guztiak azaltzen dauz eta antz-irudiz esandako Jaunaren itzen jakitun egingo da (148); otoitzerako makalak eta nagiak diranak, ostera, Jaunari eskatzeko ezpaitan egoten dira.

4. «Baiña, Jauna guztiz errukiorra da, eta eten-bagarik eskatzen dautsoen guztiai emon egiten dautse. Zuk, barriz, aingeru santuak sendotuta eta beronegandik orrenbeste otowitz-espíritu artu dozun orrek, nagia ez zaran orrek, zegaitik ez dautsazu eskatzen adimena Jaunari, Beronegandik artu dagizun?»

5. «Jauna —erantzun neutsan—, nik zeu zaitut nigaz; beraz, zeuri eskatu ta itandu bear dautsut, zeu zara guztia erakusten daustazuna eta nigaz itz egiten dozuna-ta. Guzti ori zeu bagarik ikusi naiz entzun ba'neu, agertu egistala eskatuko neutsan Jaunari».

V. «Oraintsu esan dautsut —erantzun eustan— maltzurra ta ausartia zara antz-irudien adierazpenak itauntzean. Baiña, orren setati zaran ezkerre, soloaren ipuiña ta inguruko guztia azalduko dautsut, zuk guztiai jakiñerazo dagiezun. Entzun, ba, crain —esan eustan— eta ulertu.

2. «Solca, mundu au da; soloaren ugazaba, dana egin, eratu ta sendotu dauana da (148); semea (150), Espiritu Santua da; otseñia, Jaungoikoaren Semea (151) da, maastia, Berak jarri eban erri kristau au da.

3. «Esi-ziriak, bere erria zaintzen daben Jaunaren aingeru santuak dira; maastitik ataratako bedarrak, Jaungoikoaren otseñien gaiztakeriak dira; ugazabak

(148) Cfr. Sant. 1, 5, 6; Erregeen III'gna., 3, 11.

(149) Cfr. Mat. 13, 38; Ps. 67, 29; Ef. 3, 9; Apoc. 4, 11; Ebert. 3, 4.

(150) «Semea»: edo bardin dana, maastiaren ugazabaren semea.

(151) Ikusi azalpena IV'garren atalean.

maitik bere otseñari bialdutako janaria, Jaungoikoak bere erriari bere Semearen bidez emon eutsazan aginduak dira; adiskideak eta onulariak, leenen sortuak izan ziran aingeru santuak dira; azkenez, ugazabaren urrunaldia, Bera etorriko dan arteko aldi-unea da» (152).

4. «Jauna —esan neutsan nik—, gauza guzti oneik andiak eta miragarriak dira, eta guztiak goragarriak. Zelan ulertu negikean, ba, guzti au neure buruz? Ezta beste edozin gizonak be, guztiz jakituna izanarren be, ez leukez ulertuko. Oraindiño be, jauna —esan neutsan—, argitu egidazu itandu nai dautsudan zertxobait».

5. «Itandu, ba, nai dagizuna», erantzun eustan.

«Antz-irudi onetan, jauna —esan neutsan—, zegaitik dago Jaungoikoaren Semea otsein-mailian ezarrita?».

VI. «Entzun —esan eustan—. Jaungoikoaren Semea ez dago otsein-mailian ezarrita, aal-izate ta agintaritza anditan baiño».

«Zelan, jauna? —esan neutsan—. Nik ez dot ori ulertzen».

2. «Jaungoikoak —esan eustan— maastia jarri eban, edo bardin dana, bere erria sortu eban eta bere Semeari emon eutsan; Semeak, barriz, bere aingeruak ipiñi ebazan arein gaiñean, zaindu egizan. Eta Berak garbitu ebazan arein pekatuetatik, lan eta neke asko eroanik; izan be, eziña da maasti bat atxurtzea lan eta neke bagarik.

3. «Beraz, bere erriaren pekatuak Berak garbituta gero, bizitzako bideak erakutsi eutsezan, bere Aitagandik artu eban legea arei emonik.

4. «Ondo ikusten dozu, ba —esan eustan—, zelan dan Bera erriaren Jauna, bere Aitagandik agintaritza guztia artu eban-eta (153). Entzun orain zegaitik artu ebazan Jaunak bere Semea ta aingeru goragarriak onulari lez otseñiaren oiñordekotasunari buruz.

5. «Ezer baiño leenago dan (154) eta izadi osoa egin eban Espiritu Santua, Jaungoikoak gura izan eban aragizko gorputzean bizi-erazo eban. Espiritu Santua bizi zan aragi onek (7), Espirituaren serbitzari ona izan zan, santutasunean eta garbitasunean ibilirik, Espiritua ezetan be loitu bagarik.

6. «Eta zuzentasunean eta garbitasunean bizi izanda, eta gauza guztietan Espirituagaz batera lan eginda ta alkarregaz ekinda gero, Jaungoikoak aragia Espiritu Santuagaz batera erdikide izateko jaso eban. Izan be, aragi onen jokabidea Jaungoikoari gogoko izan yakon: Espiritu Santua beragaz euki eban artean, ez zan lurrean loitu-ta.

(152) Salbatzaillearen egintza, bere bigarren etorreraz bakarrik izango da osotua

(153) Cfr. Yon. 10, 18; 12, 49, 50; 14, 31; 15, 10; Mat. 28, 18; Ef. 1, 20-23.

(154) «Ezer baiño leenago dan Espiritu Santua», Yon'en 1, 1-2'garrenaz lotzen da; «betidaniko Itza».

7. «Eta bere Semeari ta aingeru goragarriai onularitzat egin eutsen dei, Espirituaren serbitzari akats bagarik izan zan aragi onek be bizitokiren bat lortu egian eta serbitzu onen saria galdu izan ebanekoren itxurarik agiri ez zeiten. Izan be, Espiritu Santua bizi izan dan edozein aragik, garbi ta orban bagarik aurkitua izan ba'dadi, bere saria artuko dau.

8. «Emen dozu, ba, antz-irudi onen adierazpena».

VII. «Pozten naz, jauna —esan neutsan nik—, adierazpen au entzuteaz».

«Entzun geiago —esan eustan—: Gorde garbi ta orban bagarik zure aragi ori, berton bizi dan Espirituak (155) beronen alde autor egin dagian (156) eta zure aragia zintzotua (santutua) izan daiten.

2. «Kontuz, gero!: ez uste izan zure biotzean, aragi au ustelkorra danik (157), loikeriren baten beragaz geikeriren bat egin ez dagizun. Izan be, zure aragia loitu ba'dagizu, Espiritu Santua be loitu egingo dozu, eta Espiritua loitu ba'dagizu, ez zara bizi izango» (158).

3. «Alan be, jauna —esan neutsan nik—, itzok entzun aurretik ezjakiñik izan ba'litz, zelan salbatuko da bere aragia loitu dauan gizona?»

«Jaungoikoak bakarrik dauko —erantzun eustan— leengo ezjakiñiak osatzeko aal-izatea, Arek dana aal daike-ta.

4. («Baiña orain gorde egizu zure burua, eta Jaun guztialdunak, guztiz errukiorra izanik, osatuko ditu leengo ezjakiñiak) (159), aurrerantzean zure aragia ta Espiritua ez loitzekotan. Izan be, aragia eta Espiritua batera doaz, eta bata bestea bagarik ezin loitu izan daiteke. Beraz, gorde egizuz biak garbi, eta Jaungoikoarentzat bizi izango zara».

SEIGARREN ANTZ-IRUDIA

Aginduak zaintzea.—1. Nire etxean jesarrita nengoala eta ikusi izan neban guztiagaitik Jauna goratzen niarduala, eta aginduak diran ederrak, aaltsuak, alaitsuak eta goragarriak eta gizonaren arim(e)a zelan salbatu daikeen pentzatzan niarduala, nirekautan auxe niñon: «Zorionsua izango naz agindu oneitan ba'nabil, eta eurotan ibili daiten edonor be zorionsua izango da».

(155) Kristo'gan Espiritu Santua bizi danez, kristau zintzoagan be Espiritu Santua bizi da, gero jaungoikozko bizitzaren erdikide izateko.

(156) Cfr. Ebert. 10, 15.

(157) Cfr. Klemente'ren 1.^a, XXIX-XXVI; Polikarpo: *Filip.*, 7, 1.

(158) Cfr. Klemente'ren 2.^a, XIV, 3, 4.

(159) Ataltxo au ez dakar *Codex Athensis* izenekoak.

2. Nirekautan onela itz egiten neban artean, bat-batean Artzainia ikusi neban nire gaiñean jesarrita eta auxe ziraustala: «Zegaitik zagoz ezpaitan, emon dautsudazan aginduau buruz? Onak dira; ez egizu ezpai txikienik be izan; jantzi zaitex Jaunaren fedez eta aginduetan ibiliko zara, neuk sendotuko zaitut eurotan-eta.

3. «Agindu oneik ondo datorkiez ordain-nekea egin bear dabena; izan be, eurretan ibili ez ba'daitez, ordain-nekea alperrekoa izango yake.

4. «Beraz, zuek, ordain-nekea egiten dozuenok, jaten zaituen gaiztakeriak jaurti egizuez zuekandik; eta zuzentasun-onoimenez jantzita, bete daikezuez aginduok eta itzi be bai pekatu geiago egitea. (Izan be, pekatu geiago egin ez ba'dagizue, zuen leengo pekatuetatik erabat (guztiz) baztartuko zaree) (160). Ibiliz zaitex, ba, agindu oneitan, eta Jaungoikoarentzat bizi izango zaree. Guzti au da nik esan dautsuedana».

5. *Artzain biak.*—Eta nigaz onela itz eginda gero, auxe esan eustan: «Goazan solora eta ardien artzainiak erakutsiko dautsudaz».

«Goazan, jauna», erantzun neutsan.

Eta lautada batera joan gintzazan, eta gorrimiñezko soiñekoaz jantzitako artzain gazte bat erakutsi eustan.

6. Artzainiak zenbatu ezin-ala ardi zaintzen ziarduan, eta ardi oneik atsegiñez beterik egozala zirudian, ikotika* baten, batetik bestera pozez saltoka. Artzainia bera be oso pozik egoan bere artaldeagaz; artzainaren arpegiak berak be alaitasuna distiratzan eban, eta bere ardien artean batetik bestera ebillen. (Leku baten jolasean eta pozez beterik egozan beste ardi batzuk be ikusi nebazan, baiña oneik ez ziarduen ikotika) (161).

II. Eta Artzainiak auxe esan eustan: «Ikusten al-doza artzain au?»

«Ikusten dot, jauna», esan neutsan nik.

«Au —esan eustan—, bigunkeriaren eta atseginkeriaren aingerua da. Auxe da Jaungoikoaren otseñen arimak usteltzen eta egiatik aldentzen dituana; atsegin gaiztoakaz lilluratzen dauz, eta eurotan ondatzen dira.

2. «Izan be, aaztu egiten yakez Jaungoiko biziaren aginduak eta atseginkeri ta bigunkeri utsaletan dabiz, eta galdu egiten dira aingeru gaizto onen eragiñez, batzuk eriotzaragiño, eta beste batzuk dongakeriragiño».

3. «Jauna —esan neutsan nik—, ez dot ulertzen «eriotzaragiño» zer adierazoten dauan eta zer «dongakeriragiño».

(160) Ataltxo au ez dakar *Codex Athensis* izenekoak.

(161) Ataltxo au ez dator *Codex Athensis* izenekoan, ezta latiñezko ta etioperazko itzulpenetan be.

(*) Ikotika: brincando, saltando, retozando.

«Entzun —esan eustan—. Ain alai ta ikotika ikusi zenduzan ardiak, Jaungoikoagandik guztiz urrundu ta gizaldi onetako atsegiñai lotu diranen irudi dira. Oneintzat ez dago bizitzara biurtzerik ordain-nekearen bidez; izan be, pekatuen gaiñean pekatuak pillatu dabez eta Jaungoikoaren izenaren aurka birao egin eben. Beraz, eriotza dabe etorkizun.

4. «Baiña, ikotika jardun bearrean, leku baten larratzen ziarduela ikusi zenduzan ardiak, bigunkeri ta atseginkeriai emonda egozanak dira, bai, baiña ez eben Jaunaren aurka biarorik egin. Beraz, orreik egiatik baztartuta geratu dira; baiña orrekan damu-itxaropena dago, eta damuaren bidez bizira biurtu daitezke. Beraz, dongakeriari buruz ba-dago oraindiño barrizte-itxaropen bat; baiña eriotzak betiko ondamendia daroa beragaz».

5. Une labur bat ibili gintzazan barrero, eta beste artzain bat erakutsi eustan, andia, arpegi basatia ebana, aunts-narru zuriz jantzita, lepoan zorroa eroian eta artzain-makilla gogorra ta madari-txirria* eta zarta* luze bat. Begirune samina eban, niri bildurra sartzeragiñokoa. Alakoxe arpegiera eban.

6. Artzain onek artzain gazteari ardiak kendu egiten eutsazan, atsegiñetan larratzen jardun bai-baiña ikotika ez ziarduen ardiak, eta elorri ta sasi-larrez beteriko toki aldapatsu batera jaurtiten ebazan, ardi areik elorri ta sasi-larretatik askatu ezin izateragiño, eta eurotan naastuta geratzen ziran.

7. Eta alantxe ziarduen larratzen elorri ta sasi-lar artean naastuta, eta, gaiñera, oiñaze andiak igaroten ebezan, artzain arek astintzen ebazala. Artzaiñak ara ta ona erabilten ebazan, arei atsedetik emon bagarik, eta ardi gaiso areik ez egozan unetxo baten be geldi.

III. Ardiak arela zigorkadaz astinduta eta oiñazetuta ikusirik, erruki izan nintzakien, arela zigortuak ziralako ta ezetariko atsedetik ez ebelako.

2. Orduan, nigaz izketan ziarduan artzaiñari auxe esan neutsan: «Jauna, nor da orren biotz-bagea, orren latz eta ardi orrei buruz ezetariko errukirik ez dauan artzain ori?»

«Ori —erantzun eustan—, zigorraren aingerua da. Aingeru zintzoetariko bat da, bai, baiña bere egitekoa zigorra da.

3. «Jaungoikoagandik aldendu ta gizaldi onetako gurari txar eta atsegiñen atzean ibili ziranak artu ta, arei dagokienez, arrigarrizko ta askotariko oiñazez zigortzen ditu».

4. «Jauna —esan neutsan nik—, askotariko oiñaze orreik zeintzuk diran jakin nai neuke».

«Entzun —esan eustan— askotariko oiñaze ta zigorro. Zigor oneik gizonak euren bizitzan igaro dabezan zigorrak dira. Zigor batzuk ondasun-galtzeaz dira

(*) Madari-txirri: palo nudoso. —(*) Zarta: azote, zurriaga, látigo.

zigortuak, beste batzuk bearrizanaz eta beste batzuk edozetariko geisoz; batzuk edozetariko larritasunez; beste batzuek jente doillorren iraiñak eta beste zoritxar asko igaroten dabez.

5. «Asko, izan be, euren asmoetan urduri, arazo asko artzen dabez euren gain, eta ezertxo be ez yake eltzen. Euren ekintzetan ez dabela zori onik izan diño gero; baiña egitada txarrak egin dabezala gogotara ekarri bearrean, Jaunari jaurtiten dautsoe errua.

6. «Baiña edozetariko larrialdiak igaro dabezanean, orduantxe emoten dautez niri, nik eziketa ona emon dagitsedan, eta Jaunaren fedean sendotzen dira eta, arrezkero, euren bizitzan geratzen yakezan egun guztietan Jauna otseintzen dabe biotz garbiz. Eta ordain-nekea egiten asten diranean, eurak egin ebezan egitada txarrak etorten yakez gogotara, eta orduan Jaungoikoa goratzen dabe, auzi-epaille zuzena dala iragarririk eta bakoitzak nekeak bere egiñai dagokienez eroan ebezala autorturik. Eta aurrerantzean Jauna otseintzen dabe biotz garbiz eta euren irabazpide guztietan gora egiten dabe, Jaunari eskatzen dautsoen guztia Jaunagandik artzen dabela (162). Eta orduan, Jauna goratzen dabe, neuri emonak izan yatazalako, eta aurrerantzean ez dabe nekerik igaroten».

IV. «Jauna, azaldu egidazu gai au be», esan neutsan nik.

«Zer gura dozu jakin?», esan eustan.

Eta nik: «Auxe, jauna: bigunkeri ta atseginkeriai emoten diranak, bigunkeri ta atseginkeri artean bizi izandako beste ainbesteko aldian ete-diran oiñazetuak».

«Bai —erantzun eustan—, beste ainbesteko aldian dira oiñazetuak».

2. «Oso aldi gutxian dira oiñazetuak —esan neutsan nik—; izan be, atsegiñetan bizi diranak eta Jaungoikoaz aaztuten diranak, zazpitan neke andiagoak eroan bear leukeez».

3. «Burubagea zara —erantzun eustan—, eta ez dozu oiñazearen indarrik ulertzen».

«Ulertuko ba'neu, jauna —erantzun neutsan—, ez neuskizu eskatuko azaldu daistazula».

«Entzun —esan eustan— bataren eta bestearen indarra.

4. «Bigunkeri ta atsegin-aldia ordu bat bakarra da; baiña oiñaze-orduak ogetamar eguneko indarra dauko. Beraz, bigunkeri ta atseginkeriari egun osoan ekin ba'dautse, eta orregaitik egun osoan izan ba'da zigortua, oiñaze-egun orrek urte beteko indarra dauko. Beraz, atsegiñari emondako egunak zenbat?, arenbeste oiñaze-urteak be. Ikusten dozu orain —esan eustan— bigunkeri ta atsegin-aldia dan laburra, eta zigor eta oiñaze-aldia dan luzea».

(162) Cfr. Mat. 21, 22; Yon'en 1.^a, 3, 22. Ps. 50, 12; 7, 12; Makab. 12, 6; Tim. 2.^a, 4, 8; Mat. 16, 27; Prov. 24, 12; Pedr. 1.^a, 1, 17; Apoc. 2, 23; Ps. 1, 3.

5. «Jauna —esan neutsan nik—, ez dot oraindiño ezer be ulertu atsegin, bigunckeri ta oiñazeari buruz. Azaldu egidazu argiago».

2. Arek auxe erantzun eustan: «Zure tentelkeria iraunkorra da eta ez dozu nai zure biotza garbitu ta Jaungoikoa otseindu. Kontuz, gero —esan eustan—, aldia igarota, orain zaran burubagea izan ez zaitez! Entzun, ba, ori gura dozunez, gaiok ulertu dagizuzan.

3. «Bigunckeri ta atseginkeriarri emoten dana eta berak nai dauan guztia egiten dauana, tentelkeri andiz dago jantzita eta ez dau egiten dauana ulertzen, aurreko egunean egindako egitad(e)a biaramonean aaztu egiten yako-ta. Izan be, bigunckeri ta atsegiñak ez dabe gogoramenik, lagun dabezan tentelkeriagaitik. Baiña, gizonari zigorra ta oiñazea egun baten bakarrik etorten yakonean, gizona urte betean oiñazetua ta zigortua izaten da, zigorrak eta oiñazeak gomutapen andiak izten dabez-ta.

4. «Beraz, urte guztian oiñazetu ta zigortuta, bigunckeriak eta atsegiñak dakaz gogotara eta orduantxe konturatzen da eurokaitik dagoala nekeetan. Beraz, bigunckeri ta atseginkeriarri emonda dagozanak, onetaraxe dira oiñazetuak: biziaren jabe izanik, euren buruak eriotzarako emon dabe-ta».

5. «Jauna —esan neutsan nik—, zeintzuk dira atsegin kaltegarriak?»

Eta arek: «Gizonak bere naitara egiten dauan edozein egitadak, atsegiña dakarkio gizonari.

Eta onela, asarrekorrak, bere griña txarrari amor emonik, atsegiña artzen dau; eta era berean ezkontza-naastailleak, moskortiak, mormoxetalariak, guzurtiak, diruzaleak, lapurrak, eta antzerako egitadak egiten dabezan guztiak, euren griña txarrai amor emoten dautsee; beraz, euren egitadetan atsegiña artzen dabe.

6. «Egitada guzti orreik kaltegarri yakez Jaungoikoaren otseiñai, eta atsegiñokaitik eroaten dabez nekeak zigortu ta oiñazetuak diranak.

7. «Ba-dira, orraitio, gizona salbatzen daben atsegiñak be. Izan be, egitada onak egiñik, asko bitsetan egoten dira, euren atsegiñak eroanda. Eta atsegin au egoki datorkie Jaungoikoaren otseiñai eta bizia dakarkie orrelako gizonari. Baiña, leen aitaturiko atsegin kaltegarriak, zigorrak eta oiñazeak baiño ez dautseez ekarten. Eta eurretan irauten eta damu-nekerik egiten ez ba'dabe, eriotza ekarten dautseez».

ZAZPIGARREN ANTZ-IRUDIA

Zigorraren aingerua Hermas'en etxean.—1. Egun batzuk geroago, leen artzaiñak ikusi izan nebazan lautada berean ikusi neban Artzaiña, eta «Zeren billa diarduzu?», esan eustan.

«Jauna —erantzun neutsan nik—, erreguka natorkizu: aingeru zigortzaillea nire etxetik urteteko agindu dagiozula, nekeetan larregi narabil-eta».

«Bearrezko yatzu atsekabetua izatea —erantzun eustan—; izan be, orrelaxe agindu dau zuri buruz aingeru goragarri arek, aztertu egin nai zaitu-ta».

Eta nik: «Ze gaiztakeri andirik egin dot, ba, nik, jauna, aingeru orri emona izateko?»

2. «Entzun —erantzun eustan—. Zure pekatuak, benetan, asko dira, baiña ez aingeru oni emona izateragiñokoak. Zure etxeakoak, orraitio, dongakeri ta pekatu andiak egin ebezan, eta aingeru goragarri a asarratu egin zan zureen egin-tzakaitik, eta orregaitik zu aldi baten atsekabetua izan zendizala agindu eban, eurak be damu-nekea egin dagien eta gizaldi onetako zalekeritik garbitu daitezana. Beraz, damu-nekea egin dagienean eta garbitu daitezanean, orduantxe egingo dau alde zugandik zigorraren aingeruak».

3. «Jauna —esan neutsan nik—, areik zigorraren aingerua asarrerazoragiño egitadak egin izan ba'dabez, ze errurik dot, ba, nik?»

Eta arek auxe erantzun eustan: «Ez dago areik atsekabetzeko beste erarik, atsekabetua zeu izan ezik, etxeke buru zeu zara-ta. Izan be, atsekabetua zeu izanik, eurak be, nai ta nai ez, atsekabetu egingo dira; zu oparo bizi ba'zara, ezin izan daikee areik atsekaberik».

4. «Begira, baiña, jauna —esan neutsan nik—: biotz-biotzez egin dabe areik damu-nekea».

«Neuk be ba-dakit —erantzun eustan— damu-nekea biotz-biotzez egin dabena; baiña, damu-nekea egiten dabena, pekatuak bereala kentzen yakezala uste al-dozu zuk? Ezela be ez! Ez, damu-nekea egiten dauanak, bere arim(e)a zigortu, une guztietan bere burua zearo beeratu eta edozetariko samiñaldiak igaro bear ditu. Eta gaiñera datorkiozan naibageak eroan dagizanean, orduan bai, dana egin eta sendotu eban Arek (163), aretzaz erruki izanik, osatu egingo dau.

5. «Eta au zigur-zigur, Jaunak damu-egillearen biotza egitada txar guztitik garbi dagoala ikusi dagiane. Edozela be, egoki yatzue zuri ta zure etxeokai atsekabea eroatea. Baiña, zetan diardut zugaz onenbeste izketan? Zuk atsekabeak igaro bear dozuz, niri emon zenduzan Jaunaren aingeru arek agindu eban. Emon egiozuz eskerrak Jaungoikoari, zuri atsekabea aurretiaz agertzeko duin artu zaitualako: atsekabearen jakitun aurretiaz eginda, oni adoretzu eutsi dagiozun».

6. «Eta zeu be, jauna —esan neutsan—, neugaz egon zaitez, eta edozein atsekabe eroan aal izango dot».

«Bai —erantzun eustan—, ni zeugaz egongo naz; eta biguntxoago atsekabetu zagizala be eskatuko dautsat aingeru zigortzailleari. Gaiñera, aldi laburrean

izango zara atsekabetua eta barriro zeure etxera eroana izango zara. Auxe bakkarik bear dozu: apaltasunean iraun dagizula, Jauna biotz garbi-garbiz otseindurik, eta zure semeak eta etxeokak be beste orrenbeste egin dagiela. Ibili zaitzez emoten dautsudazan aginduetan, eta orduan zure damu-nekea sendoa ta garbia izan daiteke.

7. «Eta aginduok zeure etxeok guztiakaz batera gorde ba'dagizuz, urrundu egingo da zugandik edozein atsekabe. Eta, ain zuzen be, agindu oneitan dabizan guztiakandik be, atsekabea urrundu egingo da».

ZORTZIGARREN ANTZ-IRUDIA

*Lurra estaltzen dauan saratsa**.—1. Soloak eta mendiak estaltzen ebazan sarats andi bat erakutsi eustan; saratsaren gerizpean Jaunaren izenean deituak izan ziran guztiak batu ziran.

2. Sarats-ondoan, zutik, Jaunaren aingeru goragarri bat (164) egoan; eskuan igitai andi bat eukala, saratseko adarrak ebagiten ziarduan eta saraspean egoan erriari banantzen eutsazan. Emoten ebazan ziritxoak meak ziran, ukondo bateko luzeerakoak.

3. Ziritxoak guztiak artu ebezanean, aingeruak igitai itzi egin eban; eta zugatza leen ikusi izan neban baizen osorik geratu zan.

4. Arrituta nengoan, neurekautan niñoala: «Onenbeste adar ebagita gero, zelan geratzen da zugatz au oraindiño be osorik?».

Orduan, Artzaiñak auxe esan eustan: «Ez zaite arritu, onenbeste adar ebagita gero, zugatz au osorik geratu dala-ta. Itxaron egizu guztia ikusi arte, eta azalduko yatzu onek adierazoten dauana be».

5. *Ziriak biurtzea*.—Erriari ziritxoak banandu izan eutsazan aingeru berak, orain barriro eskatzen eutsazan; eta artu izan ebezan era berean ziran beragana deituak eta bakoitzak bere ziritxoa biurtzen eban. Jaunaren aingeruak ziritxoak artu ta aztertu egiten ebazan.

6. Batzuek, ziritxoak igartuta eta zerenak janda lez biurtzen eutsoezan; ziritxoak orrela biurtzen ebezanai, aingeruak alde batera egiteko agindu eutsen (165).

(164) Mikel goiaingerua.

(165) Ona emen amairu kristau-mota, talde bitan bananduta; amar pekatu-mueta eta iru zintzo-mueta. Oneik bereala doaz torrera (ii, 14). Pekatariak «damu-nekea»ren aingeruari dira emonak. Ataltxo onetan Elizaren saltzailleak agiri dira (cfr. IV, 4, eta VI, 4).

(*) Sarats: sauce.

7. Beste batzuek, igartuta biurtzen ebezan, baiña ez egozan zerenak janda; onei be alde batera egiteko agindu eutsen (166).

8. Beste batzuek, erdi-igartuta biurtzen ebezan, eta oneik be alde batera egiten eban (167).

9. Beste batzuek, euren ziriak erdi-igartuta eta brintzatuta biurtzen ebezan, eta oneik be alde batera egiten eban (168).

10. Beste batzuek, euren ziriak eze (bizi) ta brintzatuta biurtzen ebezan, eta oneik be alde batera egiten eban (169).

11. Beste batzuek, euren ziriak erdi-igartuta eta erdi-eze biurtzen ebezan, eta oneik be alde batera egiten eban (170).

12. Beste batzuek, euren ziriak iru zatitik bi ezeak eta iru zatitik bat igartuak zirala biurtzen ebezan, eta oneik be alde batera egiten eban (171).

13. Beste batzuek, euren ziriak iru zatitik bi igartuak eta iru zatitik bat ezeak zirala biurtzen ebezan, eta oneik be alde batera egiten eban (172).

14. Beste batzuek, euren ziriak ia guztiz ezeak eta ziriene une txikitxo bat, muturrean, igartuak zirala biurtzen ebezan, eta oneik be alde batera egiten eban (173).

15. Beste ziri batzuetan, ostera, ezea zati txiki-txiki bat zan, eta beste guztia igarra; oneik be alde batera egiten eban (174).

16. Beste batzuek, barriz, euren ziriak bizirik ekazela etozan, aingeruandik artu ebezenez; laguntaldeko geienak alantxe biurtzen ebezan euren ziriak, eta aingerua biziro pozten zan orretzaz; eta oneik be alde batera egin eban (175).

17. Beste batzuek, euren ziriak bizirik eta kimuakaz biurtzen ebezan; oneik be alde batera egiten eban, eta onetaz be aingerua biziro poztu zan (176).

(166) Irakasle txarrak dira (cfr. IV, 5; VI, 5, 6).

(167) Ezpaitan dagozanak dira (cfr. IV, 6; VII, 1).

(168) Ezpaitan dagozanak eta guzur-baltza diñoenak dira (cfr. IV, 6; VII, 2, 3).

(169) Andi-zaleak dira (V, 1; VII, 4-6). Ataltxo au ez dator *Codex Athensis* izenekoan, ezta antziñako latin-itzulpenean be.

(170) Mundu onetako gaiak emonda dagozanak eta santuen lagunartetik alden-tzen diranak dira.

(171) Gaiztakeri batzuen bidez Jauna ukatu ebanak dira (IV, 6; VII, 2, 3).

(172) Gizarteko arazoan billa dabizan aberatsak eta arroak dira (V, 4; IX, 1-4).

(173) Oneik, gaiztakeri gutxi egin dabe (V, 5; X, 1, 2).

(174) Griña txarrai emondako kristauak dira (V, 6; X, 3, 4).

(175) Santu ta zintzoen taldea da (ii, 4; iii, 8).

(176) Autorleak dira (ii, 2, 3; iii, 7).

18. Beste batzuek, euren ziriak bizirik eta kimuakaz biurtzen ebezan; baiña kimuak frutu batzuk ekarrezan. Eta orrelako zirien gizonak poz-pozik egozan, eta aingerua be onetaz poztu egiten zan, eta Artzaiña be onetaz biziro pozten zan (177).

II. Jaunaren aingeruak, orduan, koroeak ekarteko agindu eban (178). Palma-adarrez eginda zirudien koroeak ekarri ebezan; eta aingeruak euren ziriak kimu ta frutuz biurtu ebezan gizonetzko arei, koroea ezarri eutsen, eta torrera bialdu ebezan.

2. Euren ziriak, frutu bagarik izanarren be, bizirik eta muskillakaz biurtu ebezan besteak be torrera bialdu ebezan, eta sillu bat emon eutsen (179).

3. Torrean sartzen ziran guztiak, soiñeko bardiña eroien, edurra baizen zuria (180).

4. Azkenez, euren ziri biziak artu izan ebezanez biurtu ebezanak be torrera bialdu ebezan, arei soiñekoa ta sillua emonda gero.

5. Au eginda, aingeruak Artzaiñari auxe esan eutsan: «Ni ba-noa; zuk orain, oneik arresietara* bialduko dozuz, bakoitzari dagokion tokia izentaturik (181). Arduraz aztertu euron ziriak, eta bialdu egizuz. Zorrozkiz aztertu egizuz. Kontuz, gero, iñok be iges egin ez dagitzun! —esan eban—. Norbaitek iges egiten ba'dautsu, barriz, neuk aztertuko dodaz altara-gaiñean» (182).

Aingeruak, Artzaiñari ori esanda, alde egin eban.

6. *Ziriak barriro lurrean sartzea.*—Eta aingeruak alde egin ondoren, Artzaiñak auxe esan eutan: «Batu dagiguzan guztien ziriak eta sartu dagiguzan lurrean, ea eurotarikoren bat barriro bizten dan».

«Jauna —esan neutsan nik—, igartuta dagozan ziri oneik, zelan biztu dai-tekez barriro?»

7. Eta auxe erantzun eutan: «Zugatz au saratsa da, bizi-indar andi-andi-koa. Beraz, ziri oneik lurrean sartzen ba'dira eta ezetasun* pizka bat artzen ba'dabe, eurotarik asko barriro biztuko dira. Jaurti dagiegun, ba, ura. Eurotarikoren bat barriro bizten ba'da, zorionak opa izango dautsadaz; bestela, barriz, ardurabagea izan nazanik ez da agertuko beintzat».

(177) Martiriak (ii 1; iii, 6).

(178) Cfr. Apoc. 2, 10; 3, 11; 4, 4; Kor. 1.^a, 9, 25; Tim. 2.^a, 4, 8; Sant. 1, 12; Pedr. 1.^a, 5, 4.

(179) Sillu onek ez dau bateoa adierazoten (vi, 3; IX^{gn}. Antz-irudia, XVI, 3, 4, 5, 7), autorle ta zintzoen bereizkuntza baiño. Cfr. Apoc. 7, 2-8; 9, 4.

(180) Cfr. Apoc. 3, 4, 5, 18; 4, 4 eta abar.

(181) Cfr. vi, 6; vii, 3; viii, 3.

(182) Cfr. Is. 56, 7; Ezek. 43, 27.

(*) Arresi: muralla. — (*) Ezetasun: humedad, frescura.

8. Orduan, bakoitzak bere tokia artu izan ebanez deitu nengizala agindu eutan Artzaiñak. Taldeka etorri eta euren ziriak Artzaiñari biurtzen eutsoezan. Artzaiñak ziriak artu eta lurrean sartu be taldeka egin ebezan; eta lurrean guztiak sartu ebazanean, ura isuri eban arein gaiñera, ziriak urpean ezkututzeragiño isuri be.

9. Eta ziriak arela busti ondoren, «Goazan —esan eutan Artzaiñak—, eta egun batzuk barru barriro etorri eta ikustaldi bat egingo dautsegu ziri guzti onci. Izan be, zugatz au sortu eban Arek, zugatz onen adarrak artu ebezan guztiak bizi daitezala nai dau. Neuk be ba-dot ustea, ziri oneik onenbeste ezetasun eta ur artuta gero, eurotarik geienak barriro bizi izango dirala».

III. *Saratsaren eta onen adarren antz-agiria.*—«Jauna —esan neutsan nik—, azaldu egidazu zugatz onek adierazoten dauana. Izan be, arrituta nago, orri orrenbeste adar ebagita gero, oraindiño zugatza osorik dagoalako, ezertxo be ebagi ez bai'litzakion. Orrek ikaratuta izten nau».

2. «Entzun —erantzun eutan—. Lautada ta mendi ta lur guztia be estaltzen dauan zugatz au, mundu guztiari emon yakon Jaungoikoaren legearen irudi da. Lege au Jaungoikoaren Semea da, lurraren azken-mugetaragiño iragarritakoa (183). Aren gerizpean dagozan erriak, iragartea entzun eta sinistea Aregan jarri ebenak dira.

3. «Eta aingeru andi ta goragarri a Mikel da, erri onen gaiñean aal-izatea ta agintaritzak daukana (184). Izan be, auxe da sinisten dabenen biotzean Legea ezarten dauana eta berak Legea emon eutsenak aztertzen dauzana, Legea bete dabenek ikusteko.

4. «Ikusten dozuz bakoitzaren ziriak be. Ziriak, Legearen (185) irudi dira. Ikusten dozuzan ziri asko ezetarako be ez dira, eta ortixek ezagutuko dozuz legea bete dabenek guztiak eta ikusiko dozu bakoitzari dagokion bizitokia».

5. «Jauna —esan neutsan nik—, zegaitik bialdu ebezan batzuk torrera, eta zegaitik itzi ebezan zugaz beste batzuk?»

«Beragandik artu eben legea ausi eben guztiak —erantzun eutan— neure menpean itzi ebezan, damu-nekea egin egien. Legea bete ta gorde dabenek guztiak, barriz, bere menpean daukaz».

6. «Jauna —itandu neutsan nik—, nortzuk dira, koroetuak* izanda, torrera joan diranak?» («Koroetuak —erantzun eutan—, deabruaren aurka burrukan egin eta azpiratu ebenak dira») (186).

(183) Cfr. Ap. Egiñ. 1, 9; Rom. 1, 8; Kol. 1, 6, 23. IX^{gn} garren Antz-irudian (XII, 1), «Jaungoikoaren Semea» aitzak ta atea da.

(184) Cfr. Dan. 12, 1 eta urreng.; Apoc. 12, 7.

(185) Ebanjelioaren Legea.

(186) Ez dakar *Codex Athensis* izenekoak. Orreik, martiriak dira.

(*) Koroetuak: coronados.

Oneik, Legeagaitik nekeak igaro ebezanak dira.

7. «Besteak, euren ziriak kimuakaz bai-baiña frutu bagarik biurtu ebezanak, Legeagaitik atsekabea eroan ebenak dira; ez ziran Legeagaitik eriotza iza teragiño eldu, baiña Legea ukatu be ez eben egin.

8. «Euren ziri ezeak artu izan ebezanez biurtu ebezanak, santu ta zintzoak dira, eta une guztietan biotz garbiz ibili diranak eta Jaunaren aginduak gorde dabezanak. Beste guztia, nik lurrean sartu ta busti dodazan ziriok aztertu dagidazanean jakingo dozu».

IV. *Ziriak aztertzea*.—Egun batzuk geroago, barrero be toki aretara joan gintzazan, eta Artzaiña aingeruaren tokian jesarri zan eta ni bere ondoan jarri nintzan. Orduan, «Jantzi gerrian zapi bat —esan eustan— eta otseindu nagizu».

Nik zakuzko zapi garbi bat jantzi neban gerrian.

2. Eta ni gerrian zapia jantzita eta bera otseintzeko gertu ikusi nenduan, auxe esan eustan:

«Dei egiezu ziriak lurrean sartuta daukezanen gizonai, bakoitzak bere ziria biurtu eban era berean». Orduan, lautadara joan eta guztiai egin neutsen dei, eta areik taldeka-taldeka jarri ziran.

3. Orduan, Artzaiñak auxe esan eutsen: «Atara dagiala bakoitzak bere ziria eta ekarri daistala».

4. Ziriak igarrak eta brintzatuta eukezanak biurtu ebezan leenen. Eta arein ziriak igarrak eta brintzatuta egozan ezkerro, alde batera egiteko agindu eutsen.

5. Gero, igarrak bai-baiña brintzatuta ez eukezanak biurtu ebezan. Euretari-ko batzuek ziriak eze biurtzen ebezan, eta beste batzuek, igartuta eta zerenak janda lez. Beraz, eze biurtu ebezanai, alde batera egiteko agindu eutsen; igartu ta brintzatuta ekazanai, barriz, leenengoakaz jarteko agindu eutsen.

6. Gero, ziriak erdi-igartu ta brintzatuta euki izan ebezanak biurtu ebezan, eta eurotariko askok orain eze ta brintza bagarik biurtzen ebezan; beste batzuek, eze ta kimuakaz eta kimuetan frutuakaz, torrera koroetuak joan izan ziranak euki ebezanez. Beste batzuek, ostera, igartuta eta zerenak janda biurtzen ebezan, eta beste batzuek, leen euki izan ebezanez, erdi-igartuta eta brintzakaz. Onei, bakoitza alde batera jarteko agindu eutsen: batzuk euren taldean, beste batzuk talde berezian.

V. Gero, euren ziriak eze bai-baiña brintzakaz euki izan ebezanak biurtu ebezan eta euren taldean jarri ziran. Artzaiña poztu egin zan onei buruz, guztiak aldatuta eta euren brintzak aldatu izan ebezan-eta.

2. Euren ziriak erdi-eze ta erdi-igartuta euki izan ebezanak be biurtu ebezan; eurotariko batzuek euren ziriak guztiz eze eukezan; beste batzuek, erdi-igartuta; beste batzuek, igartuta eta zerenak janda; beste batzuek, eze ta kimuakaz. Guzti oneik bakoitza bere lekuan jarri zan.

3. Gero, euren ziriak iru zatitik bi eze eta iru zatitik bat igartuta euki izan ebezanak biurtu ebezan; eurotariko askok orain eze biurtu ebezan; askok, erdi-igartuta; beste batzuek, igartuta eta zerenak janda. Guzti oneik bakoitza bere lekuan jarri zan.

4. Gero, euren ziriak iru zatitik bi igartuta eta iru zatitik bat eze euki izan ebezanak biurtu ebezan. Eurotariko batzuek orain erdi-igartuta biurtu ebezan; batzuek, igartuta eta zerenak janda; beste batzuek, erdi-igartuta eta zerenak janda; gutxi batzuek, eze. Guzti oneik bakoitza bere lekuan jarri zan.

5. Euren ziriak leen eze bai-baiña zati txikitxo bat igartuta eta brintzakaz eukezanak be biurtu ebezan; eurotariko batzuek eze biurtzen ebezan; beste batzuek, eze ta kimuakaz. Oneik be bakoitza bere lekura joan zan.

6. Gero, euren ziriak zati txikitxo bat eze eta beste guztia igartuta euki izan ebezanak biurtu ebezan; onein ziritan zatirik geiena eze egoan, kimuak bota ebezan eta eurotan frutua ekarren; beste ziri batzuk, barriz, guztiz eze egozan. Oneik be bakoitza bere lekura joan zan.

VI. Artzaiñak guztien ziriak aztertu ebazanean, auxe esan eustan: «Esan neutsun zugatz au bizi-indar andi-andikoa da. Ikusten al-do zu —esan eustan gairera— damu-nekea zenbatek egiten daben eta zenbat salbatzen diran?»

«Ikusten dot, jauna», erantzun neutsan.

«Jaunaren errukia dan andia ta goragarria ikusi dagizun —esan eustan— eta bere espiritua zelan emon eutsen damu-neke onetarako duin ziranai».

2. «Jauna —itandu neutsan—, zegaitik ez dabe egin, ba, guztiak damu-nekerik?»

Eta arek: «Euren biotza garbitu egingo zala eta biotz-biotzez otseinduko ebela ikusi ebazanoi emon eutsen Jaunak damu-nekea; baiña, maltzurkeria ta gaiztakeria ikusi eutsenai eta guzurretan damutuko ziranai, ez eutsen damu-nekerik jadetsi, bere izena barrero be iraindu ez egien».

3. *Ziri-mueten antz-agiria*.—Orduan, nik auxe esan neutsan: «Jauna, azaldu egidazu orain, euren ziriak biurtu ebezanetariko bakoitza nor dan eta eurai dagokien bizitokia; Ebanjelioa entzun eta sinistu eta sillua (187) artu bai-baiña

(187) «Sillua»: leenen, bateoa adierazoten dau; gero, bateo-grazia, damu-nekearen bidez datorrena.

ausi ta osorik gorde ez ebenak, euren gaiztakeriak ezaguturik, damu-nekea egin dagien, zure eskutik beste sillu bat arturik; eta, Jauna erruki izan yakelako eta euron espirituak barrizteko zeu bialdu zaitualako, Jauna goretsi dagien».

4. «Entzun —erantzun eustan—. Igartuta eta zerenak janda egzoan zirien jabeak, Elizaren ukatzaille ta saltzailleak dira; euren gaiztakeriakaz Jaunaren aurka biraoak egin ebezan eta, batez be, arein gaiñera dei egindako Jaunaren izenaz (188) lotsatu egin ziran. Beraz, oneik beti-betiko galduta dagoz Jaungoikoarentzat. Ikusten dozu oneitariko batek be ez dauana damu-nekerik egin, neure aginduz zeuk esan zeutsezan itzak entzun izan ebezanarren be. Beraz, oneik lako gizonakandik urrundu egin da bizia.

5. «Ziriak igartuta bai-baiña zerenak jan bagarik biurto ebezanak be leenengoakandik urr dagoz; izan be, azalutsak dira, irakatsi bakanak* (181) dakarrez eta okertu egiten dabez Jaungoikoaren otseñak, eta batez be pekatariak, onei damu-nekea egitea laketu bearrean (190), euren irakatsi zoroak sarrerazorik. Oneik beñiik-bein damu-nekea egiteko itzaropena dabe.

6. «Eta ondo ikusten dozu: nire aginduak iragarri zeutsezan ezkerro, areitariko asko damutu egin dira, eta geiago be damutuko dira. Damutu ez ba'daitez, barriz, galdu egingo dabe euren bizia. Damu-nekea egin daben oneitariko guztiak, zintzoak izatera eldu dira, eta euron bizitokia leenengo arresietan lortu dabe (191); eta batzuk torrera be igo dira. Ondo ikusten dozu, ba, pekatarien damu-nekeak bizia dakarrena beragan; damurik-ezak, barriz, eriotza.

VII. «Entzun orain euren ziriak erdi-igartuta eta brintzakaz biurto ebezanai buruz be. Erdi-igartuta egozan zirien jabeak, kilikolo dagozanak dira; izan be, oneik ez dira bizi, baiña ilda be ez dagoz (192).

2. «Euren ziriak erdi-igartuta eta brintzakaz biurto ebezanak, kilikolo dagozanak eta mormoxetalariak dira batera; oneik ez dabe iñoiz be bakerik euren artean (193) eta beste eritziko dira beti. Alan be, onei be damu-nekea eskintzen yake. Ikusten dozu —esan eustan gaiñera— oneitariko batzuk damutu egin dirana, eta oneintzat damu-itzaropena dago oraindiño.

3. Eta damu-nekea egin daben oneitariko guztiak, euren bizitokia torrean dabe; baiña berandu damutu ziranak, arresietan bizi izango dira. Azkenez, damutu bearrean, euren egintza txarretan iraun dagienak, eriotzaz ilgo dira.

(188) Cfr. Sant. 7, 2; Gen. 48, 16; Ebert. 15, 7 eta abar.

(189) Cfr. IX^{gn.} Antz-irudia, XIX, 1; XXII, 1, 2; III^{gn.} Ikusketa, VII, 1; Pedr. 2.^a, 2, 1. Gnostikoak aitatzen ditu.

(190) Gnostikoai buruz diño.

(191) Zoriontasun-mailla batzuk.

(192) Cfr. Apoc. 3, 15, 16.

(193) Cfr. Iñazio: Ef., 10, 1.

(*) Bakan: extraño, raro, singular.

4. «Euren ziriak eze bai-baiña brintzakaz biurto ebezanak, beti zintzo ta onak izan ziranak dira; baiña euron artean ardurakeriak izan ebezan nagusitasun eta ospeai buruz; baiña euron artean nagusitasunari buruz ardurakerietan diarduen guztiok burubageak dira.

5. «Oneik be, orraitño, neure aginduak entzun ebezeanean, edozela be onak diran ezkerro, garbitu egin ebezan euren buruak eta laster egin eben damu-nekea. Eta olan, onein bizitokia torrean izan zan. Baiña, norbait alderdikierietara biurto ba'daite, torretik kanpora jaurtia izango da eta galdu egingo dau bere bizia.

6. «Izan be, bizia Jaunaren aginduak gordeten dabezan guztiena da. Baiña, agindu oneitan ez da nagusitasunik ez osperik aitatzen, gizonaren eroapena ta apaltasuna baiño. Beraz, onekan Jaunaren bizia dago; naastaille ta agindu-ausleentzat, barriz, eriotza.

VIII. «Euren ziriak erdi-eze ta erdi-igarrak biurto ebezanak, euren irabazpideetan murgilduta, santuakaz batzen ez diranak dira. Ori dala-ta, eurotariko erdiak ez dira bizi eta beste erdiak ilda dagoz.

2. «Beraz, eurotariko askok, neure aginduak entzunda, damu-nekea egin eben. Eta damu-nekea egin eben guztiak, torrean dabe euren bizitokia. Baiña, eurotariko batzuk urrundu egin ziran guztiz. Beraz, orreintzat ez dago damu-nekerako unerik. Izan be, euren irabazpideakaitik Jaunari birao egin eutsoen eta arrezkerro Jauna ukatu egin eben. Beraz, egin eben gaiztakeriagaitik bizia galdu eben

3. «Alan be, areitariko asko euren bururapenetan ezpaitan egozan. Oneik oraindiño damutu egin daitekez, berealaxe damutzekotan, eta torrean izango dabe euren bizitokia; baiña damutzea luzatu ba'dagie, arresietan bizi izango dira. Damutu ez ba'daitez, barriz, eurak be galdu egingo dabe bizia.

4. «Euren ziriak iru zatitik bi eze eta iru zatitik bat igartuta biurto ebezanak, Jauna era askotan ukatu dabenak dira.

5. «Onein artean, askok damu-nekea egin eben eta torrean bizi izatera joan dira. Beste asko, barriz, urrundu egin ziran guztiz Jaungoikoagandik. Beraz, oneik betiko galdu dabe bizia. Beste batzuek, barriz, ezpaitan egon ziran eta alderdikieriak sortu ebezan. Oneik damutu daitekez oraindiño, bereala damutzekotan eta euron atsegiñetan ez irautekotan. Baiña euren egitada txarretan irautean, oneiek be eriotza dakarkie (dakartse) euren buruai.

IX. «Euren ziriak iru zatitik bi igartuta eta iru zatitik bat eze biurto ebezanak, fededun egin bai-baiña jentillen artean aberats eta ospatsu egin ziran; eta alan, arrokeri anditan jausi ziran, andi-ustetsu biurto ziran, egia bertan-beera

itzi eben, eta zintzoakaz batu bearrean, jentillakaz bizi izan ziran, eta bide au atsegingarria zala uste izan eben. Alan be, Jaungoikoagandik urrundu bearrean, fedean iraun eben, fedearen egintzak ez egiñarren be.

2. «Beraz, onein artean, askok damu-nekea egin eta torrean izan eben euren bizitokia.

3. «Beste batzuk, barriz, guztiz jentillakaz bizi izanik eta onein siniskeri utsalakaz okertuta, urrundu egin ziran Jaungoikoagandik, jentillen egintzak egiten ebezala. Beraz, oneik jentillen artean izan dira zenbatuak.

4. «Eurotariko beste batzuk ezpaitan asi ziran, egin ebezan egitadakaitik salbatzeko itxaropena galdu ebelako. Beste batzuek, ezpaitan egon bakarrik ez, baita alkarren artean alderdikeriak be sortu ebezan. Beraz, euren egitadakaitik ezpaitan asi ziranak, damutu daitekez oraindiño; baiña damu-neke au berealaxe egin bear dabe, torrean bizitokia izan aal dagien. Damu-nekea egin bearrean, atsegiñetan iraun dagienak, eriotza dabe gaiñean.

X. «Euren ziriak eze bai-baiña ziri-muturretan igartuta eta brintzatuta biurtu ebezanak, Jaungoikoaren aurrean beti onak, zintzoak eta ospatsuak izan ziranak dira; baiña pekatu arin batzuk egin ebezan gurari txikiz eta alkarren arteko kirri-marra txikiz. Alan be, nire itzak entzun ebezanean, eurotariko geienak bereala damu-nekea egin eben eta torrean izan eben bizitokia.

2. «Eurotariko batzuk ezpaitan geratu ziran eta euron ezpaiakaz oraindiño alderdikeri geiago sortu eben. Beraz, guzti onekan oraindiño damu-itxaropena dago, beti onak izan ziran-eta. Gaitz izango da oneitarikoren bat galtzea.

3. «Euren ziriak, zatitxo bat bakarrik eze izan ezik, igartuta biurtu ebezanak, fedea artu bai-baiña gaiztakeri-egitadak egin ebezanak dira. Baiña iñoiz be ez ziran Jaungoikoagandik urrundu eta pozik eroan eben Jaunaren Izena (194) eta pozik artu ebezan euren etxeetan Jaungoikoaren otseiñak. Beraz, damu-neke onen iragarrea entzun ebenean, berealaxe damutu ziran, eta orain edozelako onomen eta zuzentasunari ekiten dautsoe.

4. «Eurotariko batzuek ez dautsoe aurrean erabilteari be bildurrik, egin ebezan egintzak jakiñik. Beraz, guzti oneik torrean dabe euren bizitokia».

XI. *Barrero be damu-nekea iragarten.*—Ziri guztien adierazpena amaituta, Artzaiñak auxe esan eustan: «Zoaz, eta esan egiezu guztiai damu-nekea egin dagiela; eta Jaungoikoarentzat bizi izango dira. Izan be, Jaunak, errukituta, guztiai damu-nekea iragartera bialdu nenduan, batzuk, euren egitadakaitik, damu-nekerako duin izan ezarren be. Izan be, Jauna biotz andikoa da, eta bere Semeak dei egin eutsen guztiak salbatu nai dauz».

(194) Cfr. IX'gn. Antz-irudia, XIII, 2, 3; XIV, 5, 6; XV, 3; Apoc. 3, 12; 14, 1.

2. Orduan, nik auxe esan neutsan: «Ba-dot ustea, jauna, au entzunda gero, damu-nekea guztiak egingo dabela; izan be, zigur nago, norberaren egintzak autorturik eta Jaunari bildur izanik, bakoitza damutu egingo dala».

3. Artzaiñak auxe erantzun eustan: «Damu-nekea biotz-biotzez egin dagienak eta leen aitaturiko gaiztakeri guztietatik garbitu daitezanak eta leengo pekatuen gaiñean pekatu barriak pillatu ez dagiezanak, Jaunagandik leengo euren pekatuen osatzea artuko dabe —agindu onei buruz ezpaitan ez egotekotan— eta Jaungoikoarentzat bizi izango dira. (Pekatuene gaiñean pekatuak pillatu dagiezanak eta gizaldi onetako zalekerietan ibili daitezanak, barriz —esan eustan—, euren buruak eriotzarako galtzen dabez) (195).

4. «Baiña, ibili zaitez zu nire aginduetan, eta Jaungoikoarentzat bizi izango zara; (eta agindu oneitan ibili daitezanak eta artez bete dagiezanak be, Jaungoikoarentzat bizi izango dira) (196).

5. Guzti au azaldu ta argituta gero, auxe esan eustan: «Beste guztia egun batzuk barru erakutsiko dautsut».

BEDERATZIGARREN ANTZ-IRUDIA

I. *Beste ikusketa baten sarrera.*—Damu-nekearen aingerua dan Artzaiñaren *Aginduak* eta *Antz-irudiak* idatzi nebazanean, Artzaiñak, neugana urreraturik, auxe esan eustan: «Elizaren irudiz itz egin eutsun Espiritu Santuak (197) erakutsi eutsun guztia erakutsi nai dautsut barrero. Espiritu a Jaungoikoaren Semea (198) da-ta.

2. «Izan be, zure aragian makalegia zintzazan ezkerro, ez yatzun agerpenik egin aingeruaren bidez. Baiña, Espirituak sendotu zenduzanean eta zure indarra aingerua (199) ikusteragiño gai izateko sendotu zanean, orduan, Elizaren bidez, torregintza erakutsi yatzun. Guztia itxura ederrez eta santuz ikusi zenduan, birjiña batek erakutsita lez. Orain, barriz, aingeru baten bidez ikusiko dozu ikusketa bat, Espiritu beraren egiñez izanarren.

3. «Baiña, neuk irakutsita, guztia zeatzago ikasi bear dozu zuk. Izan be, aingeru goragarriak zeure etxean bizi izateko agindu daust, guztia ikusteko adorea izan dagizun eta, leenengoan lez, ezertxoaz be arritu ez zaitez».

(195) Ataltxo au ez dakar *Codex Athensis* izenekoak.

(196) Latiñezko ta etioperazko itzulpenetakoak. Ataltxo oneaz amaitzen de *Artzaiña*'ren liburu jatorra.

(197) «*Espiritu Santuak*»: Jaungoikoaren Semeak.

(198) Cfr. III'gn Ikusketa. Izan be, IX'garren Ikusketak III'gna. azaltzen eta geitzen dau.

(199) «*Aingerua*»: Jaungoikoaren ordezkari edo mandataria. Emen, Espiritu Santua ta Jaungoikoaren Semea adierazoten dauz, giza-ariman egiten daben «eginkizuna» azalduarik.

4. *Arkadia'ko amabi mendien ikusketa*.—Orduan, Arkadia'ra eroan nenduan, txuntxur-antzeko* mendi batera, eta mendi-tontorrean jesarrerazo nenduan. Lautada zabal bat erakutsi eustan eta, lautad(e)aren inguruan, amabi mendi, bakoitzak era ezberdina ebalatu.

5. Areitariko leenengoa kedarr(e)a baizen baltza zan; bigarrena, garbi eta bedar bagarik; irugarrena, arantzaz eta sasi-larrez betea (200).

6. Laugarrenak bedar erdi-igarrak eukazan, edo bardin dana, bedarren goiko aldea eze, eta zuztar-ondoko aldea igarra. Areitariko bedar batzuk, eguzkiak berotu ondukoze, osoro igartzen ziran (201).

7. Bosgarren mendiak bedar ezeak eukazan, baiña latza zan. Seigarrena brintzaz beterik egoan; brintza batzuk txikiak eta beste batzuk andiak. Brintza-erdietan bedarrak azten ziran, baiña guritsu ez, zimelduta lez baiño (202).

8. Zortzigarren mendiak bedar guriak eukazan; mendi guztia emonkorra zan eta mendi aretan edozetariko abere ta txoriak ziarduen larrean. Eta abereak eta txoriak geiago jan eta bedar areik geiago erneten ziran. Zortzigarren mendia iturburuz beterik egoan, eta Jaunaren izaki-mueta guztiak edaten eben mendi aretako iturburuetan (203).

9. Bederatzigarren mendiak, barriz, ez eukan urik ezertxo be, eta guztia eremu egoan; baiña, gizonentzat an abere ta pisti ilgarri ta galgarriak egozan. Amargarren mendia tantai andiz beterik egoan, eta guztia ainiubea zan, eta ardi asko zugatzen gerizpean atsedentzen eta ausnartzen ziarduen.

10. Amaikagarren mendia zugatzez beterik egoan, eta zugatz oneik frutu-zugatza ziran, edozetariko frutuz apainduta, a ikusten eban edonok frutu aretatik jateko gogoa izateragiño. Amabigarren mendia, guztia zuria zan, eta aren alderdia, alaia. Eta mendia, berez, oso ederra zan (204).

II. *Aitzaren, atearen eta birjiñen ikusketa*.—Baiña, lautada aren erdian, lautada beretik jagiten zan aitz andi ta zuri bat erakutsi eustan. Aitza, mendiak baiño andiagoa zan, lau-ertzekoa, mundu osoa bere barruan artu aal izateragiñoa (205).

(200) «Arkadia»: Peloponeso'ko lurraldea, Grezia'n. Mendiak, Ebanjelioaren iragartea artu eben laguntaldea adierazoten dabe. Leenengo iru mendiai buruz, ikusi XVII-XIX'gn. atalak.

(201) Onen adierazpena, ikusi XX-XXI'gn. ataletan.

(202) Cfr. XXII-XXIII'gn. atalak.

(203) Cfr. XXIV-XXV'gn. atalak.

(204) Cfr. XXVIII-XXIX'gn. atalak.

(205) Cfr. XII, 2, 3. Kor. 1.^a, 10, 4: «Eta arria Kristo zan». Aitza, Kristo'ren antz-irudia da antxiñako kristau-irudietan.

(*) Txuntxur-antzeko: de forma cónica.

2. Aitz a antziñakoa zan, bertan ate landu batz; atearen zur-lana, barriz, oraintsukoa zala iruditzen yatan. Ateak eguzkiak baiño geiago egiten eban diz-diz, atearen diztiraz ni arrituta geratzeragiño.

3. Atearen inguruan amabi birjiña egozan, zutik. Areitariko lau, kantoietan egozanak, besteak baiño goragarriagoak zirala iruditzen yatan, baiña besteak be goragarriak ziran. Atearen lau kantoietan, lau birjiñen erdian, beste birjiñak egozan, biñan-biñan (206).

4. Liñuzko soin-gaiñekoaz jantzita egozan, gerriko eder-ederrez, ezkerreko sorbald(e)a agirian ebela, zamaren* bat eroan bai'leukeen. Olantxe egozan gertu. Eta, izan be, alai ta adoretzu agertzen ziran.

5. Guzti ori ikustean, nirekautan arrituta nengoan nik ikusten nebazan orrelako ikusgarri andi ta goragarriakaitik. Eta mirarrituta nengoan birjiñai buruz; izan be, ain makalak izanik, gizonkiro zutik egozan, zeru guztiari utsiteko gertu lez.

6. Orduan, Artzaiñak auxe esan eustan: «Zetan diarduzu arakatzen eta zetako artegatzen zara zure barruan eta zetako beteten zara tristuraz? Zuurra ba'zara, ez egizu eskurik sartu ulertu ez daikezunean; eskatu egiozu, ostera, Jaunari, ori ulertzeko adimena emon dagitzula.

7. «Ezin ikusi daikezu zure ostean dagoana; zure aurrean dagoana, barriz, ikusi egiten dozu.

Itzi egizu, ba, bertan-beera, ezin ikusi daikezuna, orrezaz artegatu bagarik. Egizuz aalegiñak ikusten dozuzan gauzak menperatzen, eta ez arduratu enparaduaz. Neuk adierazoko dautsut erakutsi dagitzudan guztia. Begira, ba, orain datorrena».

III. *Torre barria egiten*.—Sei gizonezko (207) etozala ikusi neban, andi, goragarri ta itxura bardiñekoak. Oneik, gizatalde bati egin eutsen dei; eta etozan guztiak be gizonezko andi, eder eta errimeak ziran. Eta sei gizonezko areik, azken oneik aitz-gaiñean (eta ate-gaiñean) (208) torre bat egiteko agindu eutseen. Torrea egitera etorri ziran gizon areik ataraten eben zaratotsa itzela zan, atearen inguruan ara ta ona arin be arin ebizan ezkerro.

2. Ate-inguruan egozan birjiñak langilleai, torrea egiten arin jarduteko zirautseen. Birjiñak eskuak zabalik egozan, gizon arekandik zerbait artu bai'leukeen.

(206) Cfr. XV, 2.

(207) Goi-aingeruak. Bibliak, barriz, zazpi goi-aingeru aitazten ditu (Tob. 12, 15; Apoc. 1, 4; 3, 1; 5, 6; 8, 2).

(208) Ez dakar *Codex Athensis* izenekoak, ezta etioperazko itzulpenak be.

(*) Zama: carga.

3. Orduan, sei gizonezko areik, toki sakon batetik arriak jaso egiezala agindu eben, torrea egiteko. Orduan, landuta ez egozan amar arri lauki ta distiratsu jaso ebezan (209). Gero, sei gizonezkoak birjiñai dei egin eta torrea egiteko arri guztiak eroateko agindu eutseen eta, arriak atetik sartuta, torrea egin bear eben gizonai emon egiezala.

4. Bereala, birjiñak, sakonetik jaso izan ebezan amar arriak alkarren artean artu eta banan-bann alkarren artean eroan ebezan.

IV. Atearen inguruan batera egozanez eroaten ebezan arriak: indartsuenak zirudienak, arrien kantoizazpietan ezarten ebezan euren sorbaldak; besteak, barriz, arri-alboetatik urtetan ziran (210), eta olantxe eroaten ebezan arriak. Agindu izan yakenez, arriak atean-zear eroan eta torrean egozan gizonai (211) emoten eutseezan. Eta oneik, arriok eskuraturik, torrea egiten asi ziran.

2. Torrea, aitz andiaren gaiñean eta ate-gaiñean ziarduen egiten. Amar arri areik egoki alkartu ziran eta aitz osoa artu eben. Eta torregintzaren oiñarri biurtu ziran: baiña torre guztiari aitzak eta atepak eusten eutsoen.

3. Amar arri onein ondoren, sakonetik beste ogetabost arri jaso ebezan (212), eta, leenengoak lez birjiñak eroanda, torrean egoki alkartu ziran. Onein ondoren, beste ogei ta amabost arri jaso ebezan, eta oneik be torrean egoki alkartu ziran. Onein ondoren, beste berrogei arri jaso ebezan, eta guztiok torregintzarako ezarri ebezan. Beraz, torrearen oiñarrietan lau arri-azal ipiñi ziran.

4. Gero, geratu egin ziran sakonetik arriak ekarten, eta torre-egilleak atsedan labur bat artu eben. Eta barrero, sei gizonezko areik, torregintzarako mendietatik arriak ekarteko agindu eutsoen erriko laguntaldeari (213).

5. Beraz, gizon areik kolore askotariko arri landuak ekarri ebezan mendi guzti areitatik, eta birjiñai emoten eutseezan. Eta birjiñak atean zear eroan eta torregintzarako emoten ebezan.

Eta kolore askotariko arriak torregintzan ezarten ziranean, era berean zuri biurtzen ziran, euren kolore askotarikoa galdurik.

6. Arri batzuk, orraitio, gizonak zuzen-zuzen eroaten ebezan torregintzarako, eta diztiratsu biurtu bearrean, ipiñiak ziranez geratzen ziran. Izan be, ez ebezan birjiñak sartu izan, ezta atean zear eroanak izan be. Beraz, arri oneik ez etozan egoki torregintzan (214).

(209) Zintzoen leenengo gizaldia (XV, 4; XVI, 1 eta urreng.).

(210) Cfr. XIII, 1.

(211) Cfr. V, 1, 2.

(212) Zintzoen, profeten, apostoluen eta Ebanjelioaren irakasleen bigarren gizaldia da (cfr. XV, 4).

(213) Cfr. V, 1, 2.

(214) Cfr. V, 4; XII, 4; XIII, 3. Hermas'ek ez dau arrion irudi-agiririk azaltzen.

7. Torregintzan egoki ez etozan arriak sei gizonezkoak ikusirik, arriak atarateko eta ekarri izan ebezan lekura barrero jatsi ta eroateko agindu eben.

8. Orduan, arriok ekarri izan ebezan gizonai auxe esan eutseen: «Ezela be ez egizue ekarri zuek torregintzarako arririk! Ipiñi egizuez torre-ondoan, birjiñak atean zear sartu eta torregintzarako emon dagiezan. Izan be —esan eben gaiñera—, arriok birjiña onein eskuak atean zear sartzen ez ba'dabez, ezin aldatu daitezke arrien koloreak. Beraz —esan eban—, ez egin lanik alperrik».

V. Eata amaitu zan torregintza egun ari buruz; baiña, torrea ez zan osotu, gorantz geiago jaso bear eben-eta. Torregintza-lanean geldi-unea bakarrik egin zan. Beraz, aldi-une baten guztiak alde egiteko ta atsedan artu egiela agindu eutseen sei gizonak torre-egilleai; birjiñai, barriz, torretik ez urruntzeko agindu eutseen. Nire ustez, birjiñak torrea zaintzen geratzen ziran.

2. Guztiak alde egin ebenean eta lana gelditu zanean, Artzaiñari auxe esan neutsan: «Jauna, zer dala-ta ez da osotu torregintza?»

«Torrea —erantzun eustan— ezin osotu daiteke bere Jauna etorri ta torregintza au Berak onartu arte: emen era txarreko arriren batzuk aurkitzen ba'dauz, aldatu aal dagizan; torrea Aren naitara egiten da-ta».

3. «Jauna —esan neutsan—, torregintza onek zer adierazoten dauan jakin nai neuke, eta zer aitzak, atepak, mendiak, birjiñak, eta sakonetik jaso ebezan arriak, eta, landuta ez egonarren, torregintzan sartu ziran erriak.

4. «Zegaitik ipiñi ziran leenen amar arri oiñarrietan, gero ogetabost, gero ogei ta amabost eta gero berrogei? Zer adieraziten dabe torregintzan sartu ziran arri areik, gero kenduak eta leengo lekura biurtuak? Gai guzti onei buruz, emon egiozu, jauna, atsedena nire arimari eta argitu egidazuz».

5. «Jakingura utsalez beterik egon ez zaitezanean jakingo dozu dana —esan eustan—. Izan be, egun gutxi barrero etorriko gara ona; orduantxe ikusiko dozu torre oni jazoko yakon beste guztia eta orduantxe ulertuko dozuz zearo antz-irudi guztiok».

6. Egund batzuk barrero, jesarrita egon izan gintzazan tokira biurtu gintzazan, eta Artzaiñak auxe esan eustan: «Goazan torrera, torrearen jabea torrea aztertzer a etorriko da-ta».

Eta torrera joan gintzazan; eta birjiñak soillik baiño ez genduan an beste iñor aurkitu.

7. Torrearen jabea etorri izan zan itandu eutsen Artzaiñak birjiñai. Torregintza aztertzer a laster etorteko zala erantzun eben birjiñak.

VI. *Torrearen fauna eltzen da torrea aztertzer a.*—Laster, gizatalde andia urreratzen ikusi neban eta arein erdian gizonezko bat, torrea bera baiño be andiagoa.

2. Eta torregintza zuzendu izan eben sei gizonak, Aren ezker-eskuman etozan; Aregaz etozan torregintzan lan egin izan eben guztiak be, baita beste gizonetzko argitsu asko be Aren inguruan. Torrea zaintzen eben birjiñak ariñeketan urten yakozan bidera, eta laztandu egin eben, eta Aren ondoan torrearen inguruan ibiltzen asi ziran.

3. Gizon arek torregintza zeatz-zeatz begiraten ziarduan, arriz-arri ikutzeragiño. Eta eskuan makilla bat eroanik, beronegaz jotzen eban torregintzan sartutako arri bakoitza.

4. Eta Arek jotzen ebazanean, arrietariko batzuk kedarr(e)a baizen baltz biurten ziran; beste batzuk, marraskatuta*; beste batzuk brintzakaz agertzen ziran; beste batzuk, moztuta; beste batzuk, ez baltz ez zuri; beste batzuk, ez-bardin, eta ez etozan batera beste arriakaz; beste batzuk, azkenez, orban (loi) askoz agertzen ziran. Onelakoxeak ziran torregintzarako gauza ez ziran arriak.

5. Beraz, torretik arri guztiok atarateko ta torre-ondoan ipinteko agindu eban, eta euron ordeez beste arri batzuk ekarri ta ipiñi egiezala.

6. Orduan, besteen lekuan ipinteko arriak, ze menditik nai eban ekartea itandu eutsoen Jaunari torre-egilleak. Baiña, Arek ez eban nai izan mendietatik ekarterik, an urrean egoan lautada batetik baiño.

7. Atxurtu eben, ba, lautad(e)a, eta arri distiratsu ta laukiak idoro (aurkitu) ebezan, baita biribillak ziran batzuk be. Eta lautada aretan egozan arri guztiak izan ziran ekarriak, eta birjiñak atean-zear eroaten ebezan.

8. Arri laukiak landuak eta leen kenduak izan ziran ordeez izan ziran ipiñiak. Biribillak, barriz, lantzeko oso gogorrek eta astiro landu bear ziran ezker, ez ziran ipiñi. Alan be, torre-ondoan itzi ebezan, geroago lantzeko ta torregintzan ezarteko asmoz, oso distiratsuak ziran-eta.

VII. Guzti au amaituta gero, torre guztiaren gizon goragarri ta jabeak Artzaiñari dei egin eta torregintzatik baztartutako ta torre-ondoan ipiñita egozan arri guztiak emon eutsazan, eta auxe esan eutsan: «Garbitu egizuz arduraz arri guztiok eta ipiñi torregintzan beste arriakaz egoki datozenak; egoki etorri ez daitezanak, barriz, jaurti egizuz torretik urrun».

3. Artzaiñari agindu ori emonda gero, torretik alde egin eban, beragaz etorri izan ziran guztiakaz batera; birjiñak, barriz, torre-inguruan geratu ziran, torrea zaintzen.

4. *Baztartutako arrien eginkizun barria.*—Orduan, Artzaiñari auxe esan neutsan: «Zelan izan daiteke, baztartutako arriok torregintzara biurtu aal izatea?» «Ikusten al-doaz erriok?», itandu eustan.

(*) Marraskatuta: carcomidos.

«Ikusten dodaz, jauna», erantzun neutsan. Eta arek auxe esan eustan: «Nik arriok geienok landu eta torregintzan ipiñiko dodaz eta egoki ezarriko yakez beste arriai».

5. Eta nik: «Jauna, zelan beteko dabe leku berbera, moztzen ba'dira?»

Arek auxe erantzun eustan: «Txiki datozen guztiak torregintza-erdian sartuko doguz; arriok andienak kanpoko aldean ipiñiko dira eta eutsi egingo dautsee txikiak».

6. Orren ondoren, auxe esan eustan gaiñera: «Goazan orain, eta egun bi barru barriro etorri, arriok garbitu eta torregintzan sartuko doguz. Izan be, torrea inguratzen dauan guztiak garbi egon bear dau, torrearen jabea, bat-batean etorri eta torre-inguruak zikin aurkiturik, asarratu ez daiten, eta orduan arri oneik ez litzakez sartuko, eta orrela ni ardura-bage lez agertuko nintzake jabearen aurrean».

7. Egund bi barru, barriro torrera etorri gintzazan, eta Artzaiñak auxe esan eustan: «Aztertu dagiguzan arri guztiok; ikusi dagiguzan torregintzarako biurtu daitezkezanak».

«Aztertu dagiguzan», erantzun neutsan nik.

VIII. Leenen, arri baltzak aztertzen asi gintzazan. Torregintzatik bazartuak izan ziran ez idoro (aurkitu) genduzan. Artzaiñak torretik erabat kentzeko ta baztartzeko agindu eban.

2. Gero, zerenak jandakoak aztertu eta arturik, eurotariko asko landu egin ebazan, eta jasoteko ta torregintzan sartzeko agindu eutsen birjiñai. Birjiñak arriak jaso ta torregintzaren erdian sartu ebezan. Beste arri guztiak baltzakaz batera ipinteko agindu eban, arek be baltzak zirala ikusi zan-eta.

3. Gero, brintzatuak aztertu ebazan, eta oneitariko asko landu egin ebazan, eta birjiñak torregintzarako eroan ebezan. Arri oneik kanpoko aldean ipiñi ebezan, oso zindoak egozan-eta. Enparaduak, barriz, euren brintza ugariakaitik, ezin garbitu zeitezkezan, eta orregaitik torregintzatik bazartuak izan ziran.

4. Gero, arri erdikiñak aztertu ebazan. Oneitariko asko baltz agertzen ziran, beste batzuk brintza andiakaz; oneik be bazartuakaz ipiñiak izan zeitezala agindu eban. Enparaduak, garbitu ta landuta gero, torregintzan ipiñiak izan zeitezala agindu eban. Birjiñak, arriak jasorik, torregintza-erdian ezarri ebezan, naikoa makalak ziran-eta.

5. Gero, arri erdi-zuri ta erdi-baltzak aztertu ebazan, eta oneitariko asko baltz agertu ziran.

Oneik be jasoak eta baztartuen ondoan ipiñiak izan zeitezala agindu eban. Enparadu guztiak birjiñak jaso ebezan; izan be, zuriak izanik, birjiñak torregin-

tzarako ezarri ebezan. Eta kanpoko aldean izan ziran ipiñiak, zindoak eta erdian egozan beste arri arei eusteko gauza ziran ezker; izan be, leenengoai ezertxo be ez yaken moztu.

6. Gero, arri latz eta gogorrak aztertu ebazan; oneitariko gutxi izan ziran baztartuak, ezin landu zeitekezan-eta; izan be, gogorregiak ziran. Enparaduak, landuak izan ziran, eta birjiñak jaso ta torregintza-erdian ezarri ebezan, zerbait makalak ziran-eta.

7. Gero, loituta egozanak aztertu ebazan, eta oneitariko oso gutxi baltzitu izan ziran, eta beste arriakaz batera izan ziran baztartuak. Baiña enparaduak distiratsuak et zindoak egozan.

Oneik be birjiñak torregintzan ezarri ebezan, eta euron sendotasunagaitik kanpoko aldean izan ziran ezarriak.

IX. Gero, arri zuri ta biribillak aztertu ebazan, eta auxe esan eustan: «Zer egingo dautsegu arri onei?»

«Zer dakit nik, jauna?», erantzun neutsan. Eta arek: «Ezer be ez yatzu burura etorten onei buruz?»

2. «Jauna —erantzun neutsan—, nik ez dakit ezertxo be erti onetzaz; argiña be ez naz, eta onetzaz ezin ulertu daiket ezertxo be».

«Ez al-dozu ikusten, ba —esan eustan—, biribillegiak dirana, eta lauki biurtu nai ba'dodaz, asko moztu bear izango dodazana? Alan be, bear-bearrezkoa da oneitariko batzuk torregintzan sartzea».

3. «Jauna —esan neutsan nik—, ori bearrezkoa ba'da, zetako naibagetzen dozu zure burua eta zetarako ez dozuz zeuk nai dozuzanak aukeratzan, torregintzarako egokitzeko?»

Orduan, eurotariko andienak eta distiratsuenak aukeratu eta landu egin ebazan; eta birjiñak arriak artu eta torregintzaren kanpoko aldean ezarri ebezan.

4. Enparaduak, geienak, jaso ta ekarriak izan ziran lautadan itzi ebezan; baiña, ez ziran baztartuak izan. «Izan be —esan eustan—, zerbait bear da orain-diño torregintza osotzeko; eta torrearen jabeak arriok torregintzari ezartea nai dau zearo, oso distiratsuak dira-ta».

5. Orduan, amabi emakume oso ederrak izan ziran deituak, baltzez jantziak, gerri-estuak, sorbalda-utsik eta uleak askatuta. Nire ustez, emakume areik pistiak ziran (215). Torregintzan baztartutako arri guztiak jasoteko eta ekarriak izan ziran mendietara eroateko agindu eutsen Artzaiñak.

(215) Emakume oneik espiritu gaiztoak dira (cfr. XIII, 8; XVIII, 3), edo griña txarrak (XV, 3).

6. Emakumeak pozik jaso ta arri guztiak eroan ebezan, artuak izan ziran lekuan ipiñirik. Arri guztiak atarata eta torre-inguruan arri bat bera be geratzen ez zala, Artzaiñak auxe esan eustan: «Egin dagigun jira-bira bat torrearen inguruan eta ikusi dagigun utsen bat ete-daukan».

Eta torrearen inguruan lagun egin neutsan.

7. Eta torrea oso ederto egoala egiña ikusirik, Artzaiña pozez beterik jarri zan. Izan be, torrea ikusiaz bakarrik, bertan bizi izatea gura neban, ain ederto egiña egoan! Arri bataz lez egiña egoala zirudian, lotunerik bat bera be agertzen ez zala. Gaiñera, arria aitzetik ebagia lez agertzen zan: arri-bakarra (216) zala neritxon.

X. *Torre-garbitzea. Artzaiñak alde egiten dau.*—Ni Artzaiñaren ondoan ibili niñoiala, poz-pozik nengoan gauza ain bikaiñak ikustean. Eta arek auxe esan eustan: «Zoaz eta ekarri egidazu karea ta txirta, jasoak eta torregintzan sartuak izan ziran arrien egitamuak* osotzeko, torre-inguru guztiak lau-lau geratu bear dau-ta».

2. Berak agindu eustanez egin neban nik, eskatu eustana berari eroanik.

«Lagun egidazu —esan eustan—, eta lan au berealaxe geratuko da amaituta».

Bete ebazan, ba, torregintzan sartu izan ziran arri arein egitamuak, eta torre-inguru guztiak garbitzeko ta dana garbi ipinteko agindu eban.

3. Orduan, birjiña areik, bakoitzak itsuski bana arturik, garbitzen asi ziran, eta torreko zikinkerik guztia kendu ta torrea uraz busti eben. Torre-alde a oso apaingarri ta ikusgarri itzi eben.

4. Orduan, Artzaiñak auxe esan eustan: «Onezkero dana dago garbi. Jauna torrea ikustera ba'letor, ezer be ez leuskit txarretsiko». Ori esanda, alde egitekoa egin eban.

5. Baiña nik aren zorrotik oratu eta Jaungoikoarren eskatzen asi nintzakion: azaldu egistala erakutsi izan eustan guztia. Eta arek: «Orain lantxo bat egin bear dot; geroago azalduko dautsut guztia. Itxaron egidazu emen, barrero etorri arte».

6. «Jauna —esan neutsan nik—, zer egingo dot emen, bakarrik?»

«Ez zagoz bakarrik —erantzun eustan—, birjiña oneik zeugaz dagoz-ta».

«Jarri nagizu, ba, euron ardurapean», esan neutsan. Orduan, Artzaiñak arei dei egin eta auxe esan eutsen: «Zeuen ardurapean izten dot au, ni barrero etorri arte». Eta alde egin eban.

7. *Birjiñen artean igarotako gaba.*—Beraz, soillik geratu nintzan birjiñakaz. Oneik oso alai egozan eta maitekiro artzen nenduan, batez be euretariko lauretarik goragarrienak.

(216) Cfr. XIII, 5; III^{gn}. Ikusketa, ii, 6.

(*) Egitamu: forma, estructura, distribución.

XI. Orduan, birjiñak auxe esan eusten: «Onezkero gaur ez dator ona Artzaiña».

«Zer egingo dot, ba, nik?», esan neutsen.

«Itxaron egiozu erratsalderarte —erantzun eusten—; ba'dator, berak egingo dau itz zugaz; bestela, barriz, geugaz geratuko zara bera biurtu arte».

Nik auxe erantzun neutsen: «Arratsalderarte itxarongo dausat, bai; baiña, ez ba'dator, neure etxera joango naz eta biar goizean etorriko naz barriro».

Areik auxe erantzun eusten: «Geure ardurapean zagoz; beraz, ezin alde egin daikezu gure ondotik».

3. «Zelan geratuko naz, ba?», esan neutsen nik.

«Geugaz egingo dozu lo —erantzun eusten—, neba lez eta ez senar lez. Izan be, zu geure neb(e)a zara eta aurrerantzean zeugaz nai dogu bizi, maite be maite zaitugu-ta».

Ni, alan be, lotsatu egiten nintzan arekaz geratzeaz.

4. Orduan, arein artean leenena zala zirudiena (217) laztantzen asi yatan, eta enparaduak, laztandu egiten nenduala ikusirik, laztantzen asi yatazan, torre-ingurura eroaten nenduela eta nigaz jolasean egiten ebela.

5. Eta neu be, nire burua gaztetuta lez ikusirik, arekaz jolasean asi nintzan. Areitariko batzuk ingurumarika asi ziran; beste batzuk, dantzan; beste batzuk, kantatzen. Eta ni, isilik, torre-inguruan arekaz ibili nenbillen, eta poz-pozik nen-goan arekaz.

6. Illunabarrean, neure etxera alde egitekoa egin neban; baiña areik ez eusten laketu. Beraz, arekaz igaro neban gau a eta torre-ondoan egin neban lo.

7. Areik lurrean euren liñoizko soingaiñekoak zabaldu ebezan, eta otoitz egin baiño beste ezertxo be ez eben egiten (218). Eta neuk be arekaz otoitz egiten neban, eta areik baiño gutxiago ez, gero. Birjiñak ni arela otoitz egiten nebala ikustean, pozez beteten ziran. Eta antxe geratu nintzan arekaz batera urrengo goizeko bigarren ordurarte (219).

8. Orduan, Artzaiña etorri zan, eta birjiñai auxe itandu eutsen: «Iraiñik egin dautsazue?»

«Berari itandu egiozu», erantzun eben. Orduan, «Jauna —esan neutsan nik—, poz-pozik nago eurokaz geratu nazalako».

«Zer apaldu dozu?», itandu eustan.

«Jauna —erantzun neutsan—, gau osoan Jaunaren itzak apaldu dodaz».

«Ondo artu zenduezan?», esan eustan.

«Oso ondo, jauna», erantzun neban.

(217) Cfr. XV, 2; Fedea.

(218) Cfr. XIII, 3 eta urreng.

(219) Edo bardin dana, goizeko zortzirak arte. Antxiñako kristau askok gaba otoitz-egan egiten eben.

9. «Eta orain —esan eustan—, zer nai dozu leenen antzutea?»

«Jauna —erantzun neutsan nik—, asierarik erakutsi zeustan era berean nai dot entzun. Jauna, neuk itandu dagitsudan eraz azaldu dagistazula zuk dana».

Eta arek: «Zeuk nai dagizun eraz azalduko dautsut, eta ezertxo be ez dau-sut estalduko».

XII. *Torrearen ikusketa-azalpena.*—«Leenen eta bein, jauna —esan neu-tsan—, azaldu egidazu aitzak eta atek adierazoten dabena».

«Aitzak eta atek —erantzun eustan— Jaungoikoaren Semea adierazoten dabe».

Eta nik: «Zegaitik da, ba, jauna, aitza antxiñakoa eta atea barria?»

«Entzun eta ulertu, gizon zentzunbage orrek», erantzun eustan.

2. «Jaungoikoaren Semea, egindako gauza guztiak baiño leenagoa da, egin-dako guztian bere Aitaren onulari izan zan-eta (220). Orrexegaitik da antxiña-koa».

«Eta atea, jauna —esan neutsan nik—, zegaitik da barria?»

3. «Azkenaldiko azkenengo egunetan agertu zalako —esan eustan—; orre-xegaitik da atea barria, salbatzen diran guztiak, Jaungoikoaren erreiñura ate orretatik sartu daitezcan (221).

4. «Ez al-do zu ikusi, atetik sartzen ziran arriak torregintzan sartzen zirala eta atetik sartzen ez ziran arriak barriro leengo lekura izaten zirala baztartuak?»

«Ikusi neban, jauna», erantzun neban.

«Orregaitik, ba —esan eustan—, iñor be ez da Jaungoikoaren erreiñuan sar-tuko, Jaungoikoaren Semearen izenik artu ezik (222).

5. Izan be, ate bakarra dauken arresiz beteriko uri baten sartu nai ba'zengi, sartuko aal zintzakez urian, beronen ate bakarretik izan ezik?»

«Zelan izango litzake, ba, jauna, beste era batera?», esan neutsan nik.

«Beraz, —esan eustan—, atetik izan ezik, urian ezin sartuko zaranez, ez dago Jaungoikoaren erreiñuan sartu daiteken gizonik, Aitak maite izan eban bere Se-mearen izenaren bidez izan ezik (223).

6. «Ikusi al-do zu —esan eban gaiñera— torrea egiten eban laguntaldea?»

«Ikusi dot, jauna», erantzun neban.

(220) Cfr. V'gn. Antz-irudia, VI, 5; Yon, I, 1; Kol. I, 15: «egindako guztien leensemea».

(221) Cfr. Ebert. I, 1, 2; Pedr. I.^a, I, 20; Iñazio: *Magn.* 6, 1; Is. 2, 2. Cfr. Yon, 3, 5; Mark. 9, 47; Io, 23-25; Mat. 5, 20; 7, 21; 18, 3.

(222) Bateoa. Cfr. Yon, 3, 3, 5. Cfr. III'gn. Ikusketa, VII, 3.

(223) Yon, 3, 5. Cfr. Bernabe, III, 6.

«Guzti areik —esan eustan— aingeru goragarriak dira; oneixek inguratzen dabe Jauna arresiaz lez. Baiña atea, Jaungoikoaren Semea da. Auxe da sarrera bakarria Jaunganantz. Iñor be ez da Aregana elduko Aren Semearen bidez izan ezik (224).

7. «Ikusi al-zenduzan sei gizonak —itandu eustan—, eta arein erdian gizon goragarri ta andia, torre-inguruan ibilli ebillena eta torregintzako arri batzuk kentzeko agintzen ebana?»

«Ikusi neban, jauna», erantzun neban nik.

8. «Gizon goragarri a —esan eustan— Jaungoikoaren Semea da, eta sei gizon areik Jauna ezker-eskuma inguratzen daben aingeru goragarriak dira. Aingeru goragarri oneitarik, bat bera be ezin eldu daiteke Jaungoikoagana Semearen bidez izan ezik. Aren izena artu ez dagiana, ezin sartu daiteke Jaungoikoaren erreñuan» (225).

XIII. «Eta torreak —itandu neutsan nik—, zer adierazoten dau?»

«Torrea, Eliz(e)a da», erantzun eustan.

2. *Birjiñak torrearen inguruan.*—«Eta birjiña oneik, zer adierazoten dabe?», itandu neutsan.

«Oneik —esan eban—, espiritu santuak dira (226). Eta ezin egon daiteke iñor Jaungoikoaren erreñuan, birjiña oneik euren soiñekoaz jazten ez ba'dabe. Izan be, ezetarako be ez yatzu Jaungoikoaren Semearen Izena bakarrik artzea (227), onekandik soiñekoa artzen ez ba'dozu. Izan be, birjiña oneik Jaungoikoaren Semearen onoi-menak (birtuteak) dira. Beraz, Izena bakarrik ba'daroazu eta Aren onoi-menak ez, alperrik eroango dozu Aren Izena.

3. Eta baztartuta ikusi zenduzan arri areik, Izena eroan bai-baiña birjiña onein soiñekoa ez dabela jantzi adierazoten dabe».

«Jauna —itandu neutsan—, zein da arein soiñekoa?»

«Euren izenak dira euren soiñekoa —erantzun eustan—. Jaungoikoaren Semearen izena eroan dagianak, birjiñen izena be eroan egin bear dau, Jaungoikoaren Semeak berak be birjiña onein izena daroa-ta.

4. «Torregintzan sartzen ikusi zenduzan arriak —esan eustan gaiñera—, birjiña onein eskuz emonak eta torregintzan iraun dabenak, birjiña onein onoi-menaz dagoz jantzita.

5. «Orregaitik, torreak aitzaz batera arri-bakarria egiten dau. Era berean, Aren Semearen bidez sinistea Jaunagan ezarri dabenak eta espiritu onekaz jan-

(224) Yon, 14, 6.

(225) Cfr. Ef. 1, 10; 3, 10; Kol. 1, 20; Iñazio: *Esmirn.*, 6, 1.

(226) «*Birjiñak*»: onoi-men edo birtute nagusiak.

(227) Edo bardin dana, kristau izatea.

tzi diranak be, espiritu bakarria ta gorputz bakarria egingo dabe eta euren soiñekoen kolorea bakarria izango da. Eta birjiña onein izenak eroan dagiezanak soiilik jadetsiko dabe torrean euren bizitokia».

6. «Jauna —esan neutsan nik—, baztartutako arriak, zegaitik izan ziran bazartuak? Izan be, oneik be atetik igaro ziran eta birjiñen eskuz izan ziran ezarriak torregintzan».

Arek auxe erantzun eustan: «Dana zeatz-zeatz jakiteko ardur(e)a dozun ezker, entzun egizu baztartutako arriak buruzkoa.

7. «Baztartutako arri guzti oneik Jaungoikoaren Semearen Izena ta, gaiñera, birjiña onein onoi-menak artu eban. Beraz, espirituok artuta gero, sendotu egin ziran eta Jaungoikoaren otseiñakaz batera egon ziran. Eta guztiok espiritu bakarria eta gorputz bakarria ta soiñeko bakarria eban, pentzakera bakarria ta zuzentasuna egiten eban-eta (228).

8. «Baiña, andik alde batera, zuk ikusi zenduzan emakume eder areik, baltez jantzirik, gerri-estuak, sorbalda-utsik eta uleak askatuta eukezan emakume areik (229), lilluratu egin ebezan. Emakumeak ikusiaz batera, maitemindu egin ziran, euren indarrak jantzi ziran eta kendu egin eban eurakandik birjiñen jantzia.

9. «Beraz, gizon orreik Jaungoikoaren etxetik jaurtiak eta emakume arei emonak izan ziran. Baiña, emakume onein edertasunak lilluratu ez ebazanak, Jaungoikoaren etxean geratu ziran. Or dozu, ba —esan eustan—, baztartutako arrien adierazpena».

XIV. *Damu-nekea.*—«Jauna —esan neutsan—, gizon oneik, onelakoak izanarren be, damu-nekea egin eta emakume arekanako zalekeria jaurti ba'dagie eta birjiñakana biurtu eta onein onoi-menak eta egintzen bidetik ibili ba'daitez, ezin sartu aal izango ete-dira barriro Jaungoikoaren etxean?»

2. «Bai —erantzun eustan—, sartu aal izango dira barriro, emakume onein egintzak eurokandik urrun jaurti, birjiñen onoi-menak barriro artu eta onein egintzetan ibilteketan. Ain zuzen be, onexegaitik izan zan geldi-unea torregintzan, oneik damu-nekea egin dagien eta onetara torregintzan sartu daitez. Baiña, damu-nekerik egin ez ba'dagie, beste batzuk sartuko dira, eta areik bazartuak izango dira betiko».

3. Guzti onegaitik Jaunari eskerrak emon neutsazan, bere izena daroen guztiai erruki izan yakelako (230) eta, guk bere aurka pekatu egiñarren, guri damu-

(228) Cfr. Ef. 4, 4. II'gn. Ikusketa, II, 7; III, 3.

(229) Cfr. IX, 5, 6; XV, 3.

(230) Cfr. Joel, 2, 31; Ap. Egiñ. 2, 21; 22,16; Rom. 10, 12; 13, 13, 1; Kor. 1.^a, 1, 2.

nekearen aingerua bialdu, geure espiritua barriztu eta, galduta gengozala (231) ta bizi izateko itxaropenik ez geukala (232), bizi barria emon euskulako.

4. *Aitz-gaiñeko torrea. Birjiñen eta emakumeen izenak.*—«Orain, jauna —esan neutsan nik—, azaldu egidazu torrea zegaitik ez dagoan lur-gaiñean jasota, aitz-gaiñean eta ate-gaiñean baiño».

«Oraindiño be ez al-do zu ezer aditzen ez ulertzen?», erantzun eustan. Eta nik: «Jauna, dana itauntzeko bearrean nagokizu, ni ez naz ezertxo be ulertzeko gauza: gai guzti oneik, andiak eta goragarriak eta gizonentzat ulertu-eziñak dirata».

5. «Entzun —erantzun eustan—. Jaungoikoaren Semearen izena andia ta muga-bagea da eta mundu guztiari Berak eusten dautso (233). Beraz, egindako danari Jaungoikoaren izenak eusten ba'dautso, zer deritzazu Berak dei egin, Jaungoikoaren Semearen izena eroan eta Jaunaren aginduetan dabizana buruz?»

6. «Ikusten al-do zu orain, Berak eusten dautsenak nortzuk diran? Aren izena biotz-biotzez daroenak dira. Orregaitik, Bera arein oiñarri egin zan eta pozik eusten dautse, ez dira lotsatzen Jaunaren izena eroaten-eta».

XV. «Agertu egidazuz, jauna —esan neutsan nik—, birjiñen eta baltzik jantzitako emakumeen izenak».

«Entzun, ba —erantzun eustan—, birjiñen izenak; leenen, indartsuenenak, ate-kantoietan sendo dagozanen izenak.

2. «Leenengoak, izena Fedea dau; bigarrenak, Negurritasuna; irugarrenak, Sendotasuna; laugarrenak, Eroapena. Enparaduak, onein erdian egozanak, urren-go izenok dabez: Bakuntasuna, Errubagetasuna, Kastidadea, Poza, Egia, Adimena, Adiskidetasuna, Goi-maitasuna (234). Jaungoikoaren Semearen izenaz batera, izenok eroan dagizana, Jaungoikoaren erreñuan sartu aal izango da.

3. «Entzun orain baltzik jantzitako emakumeen izenak be. Onein artean be lau dagoz indartsuenak. Leenengoak, izena Sinisgogorkeria dau; bigarrenak, Negurribagekeria; irugarrenak, Biurrikeria; laugarrenak, Atsegiña (235). Onei jarraitzen dautseenak, urren-go izenok dabez: Ituna (edo Larria), Gaiztakeria, Aragikeria, Asarrekeria, Guzurra, Tentelkeria, Marmarkeria, Gorrotoa. Izenok beragan eroan dagizan Jaungoikoaren otseña, Jaungoikoaren erreñua ikusi bai-baiña ez da bertan sartuko» (236).

(231) Cfr. Bernabe, XIV, 5; Klemente'ren II'gna., II, 7.

(232) Cfr. Klemente'ren II'gna., I, 7.

(233) Ebert. I, 3: «Gauza guztiak bere indarraren berbaz eroaten dauz».

(234) Cfr. III'gn. Ikusketa, VIII, 3-5.

(235) Cfr. VI'gn. Anz-irudia, 2, oarra. Beste batzuek, *Atsegiñaren* orde, *Mal-tzurkeria* dakarre.

(236) Cfr. Yon. 3, 3; Deut. 32, 52.

4. *Arrien antz agiria.*—«Jauna —esan neutsan nik—, zer adierazoten dabe urpetik (237) atara ta torregintzan ezarritako arriak?»

«Leenengoak —erantzun eustan—, oiñarritat ipiñitako amar arri areik, leenengo gizaldia (238) adierazoten dabe; beste ogetabostak, gizon zintzoen bigarren gizaldia dira; ogei ta amabostak, Jaungoikoaren profetak eta otseñiak dira; azkenez, berrogeiak, Jaungoikoaren Semearen iragartearen Apostoluak eta irakasleak» (239).

5. «Jauna —esan neutsan—, zegaitik izan ziran birjiñak arriok torregintzarako emon eta atean zear eroan ebezanak?»

6. «Arek auxe erantzun eustan: «Oneik, espiritu areik euren gaiñean eroan ebezan leenenak izan ziran, eta iñoiz be ez eben alkargandik alde egin, ez spirituak gizonakandik, ez gizonak spirituakandik, espiritu oneik, ostera, gizonakaz egon ziran, gizonen eriotz-egunerarte. Eta gizonak eurakaz spirituok euki ez ba'lebez, ez ziran torregintzarako gauza izango».

XVI. «Oraindiño be geiago azaldu egidazu, jauna», esan neutsan.

Eta arek: «Zer nai do zu jakin?»

«Jauna —esan neutsan—, zegaitik igo ziran arriak urpetik eta torregintzan ezarriak izan, leen be espiritu oneik eroan izan ebezan ezkerok?»

2. Eta arek: «Bearrezkoa izan yaken uretik igotea (240); izan be, leengo euren bizitzaren ilkortasuna* itzi ezik (241), ezin sartu zeitekezan beste era batera Jaungoikoaren erreñuan.

3. «Beraz, il ziran oneik be Jaungoikoaren Semearen sillua artu eben (242), (eta arela, Jaungoikoaren erreñuan sartu ziran) (243). Izan be, gizonak, Jaungoikoaren Semearen sillu au artzean, ilkortasuna itzi egiten dau eta bizitza artzen dau barrero.

4. «Eta sillu au ura da; izan be, uretara ilda jatsiten dira eta bizirik igoten dira (244). Beraz, sillu au arei be iragarri izan yaken, eta sillu au artu eben Jaungoikoaren erreñuan sartzeko».

(237) Bateoa. Cfr. XVI, I, 2. III'garren Ikusketan, ostera, II, 5; V, 2, «*sakonak*» edo «*lezak*» odol-eriotza adierazoten dau.

(238) «*Leenengo gizaldia*»: Jesukristo'ren aurretiko aldia, eta Hermas'ek iru gizalditan zatitzen dau: X, XXV eta XXXV gizalditan. Cfr. Luk. 3, 23-32.

(239) Hermas'ek gotzaiñak eta diakonuak aitatu bagarik, apostoluak eta irakasleak izentzatzen ditu, emen batez be *iragarteari* buruz diardualako.

(240) Yon'en I.^o, 3, 5.

(241) Cfr. Iñazio: *Filad.*, 9, 1.

(242) Bateoa; cfr. V, 4.

(243) Ataltxo au ez dakar *Codex Athens* izenekoak.

(244) Cfr. Klemente'ren II'gna., I, 6; Bernabe, XI, 11; cfr. IV'garren Agindua, III, 1.

(*) Ilkortasun: mortalidad.

5. «Jauna —esan neutsan nik—, zegaitik igo ziran urpetik berrogei arri areik, aitaturiko sillu ori ba-eroien ezker?»

«Jaungoikoaren Semearen izena iragarri eben apostolu ta irakasle oneik —erantzun eustan—, Jaungoikoaren Semearen onoiemen eta fedean ilda gero, eurak baiño leenago il izan ziranai be iragarri eutseen, arei iragarte-sillua be emonik.

6. «Beraz, uretara arekaz jatsi ziran eta barriro igo ziran; baiña, oneik bizirik jatsi ziran, eta bizirik igo ziran barriro; oneik baiño leenago jatsi ziranak, barriz, illik jatsi ziran, baiña bizirik igo ziran.

7. «Beraz, oneixen bidez artu eben bizia eta eldu ziran Jaungoikoaren Semearen izenaren ezaguera osotara. Orrexegaitik igo ziran arekaz batera, eta ekin eutsoen torregintzari, eta landu bearrik izan bagarik sartu ziran torregintzan, zuzentasunez eta garbitasunez il ziran-eta. Sillu onen bearrean egozan. Or, ba, ori be argituta».

«Argituta dago, jauna», erantzun neutsan.

XVII. *Mendien irudi-agiria*.—«Orain, jauna —esan neutsan nik—, azaldu egidazu mendiai buruzkoa: zegaitik dabez era ezbardin eta bestelakoak?»

«Entzun —erantzun eustan—. Amabi mendi oneik, mundu guztian bizi diran amabi leiñu (jatorri) dira (245). Guzti onei iragarri izan yaken Jaungoikoaren Semea Apostoluen bidez».

2. «Azaldu egidazu, jauna —esan neutsan nik—: zegaitik dira mendiak ezbarđiak eta zegaitik dau bakoitzak bere era berezia?»

«Entzun —erantzun eustan—. Lur guztian bizi diran amabi leiñu oneik amabi errialde dira.

Oneik, ezbarđiak dira euren pentzakeran eta eritzikeran. Beraz, ikusi dozuzan mendiak ezbarđiak diranez, errialde onein pentzakera ta eritzikera be ezbarđiak dira. Oraintxe erakutsiko dautsut errialde oneitariko bakoitzaren jokabidea».

3. «Leenen eta bein, jauna —esan neutsan nik— azaldu egidazu, mendiak ain ezbarđiak izanarren, bertatik ekarritako arriak, torregintzan ezarriaz batera, zegaitik biurtu ziran guzti-guztiak kolore bateko, distiratsu, urpetik urten ziranak lez?»

4. «Onexegaitik —erantzun eustan—: zerupear bizi diran errialde guztiak, entzun eta sinistu endoren, Jaungoikoaren Semearen izenean izan ziralako deituak. Beraz, sillua artuta gero, errialde guztiak pentzakera bakarra eta eritzi-

(245) «Leiñu» (tribu erderaz): gizadi osoa. Mendiak, erriak dira; eta arriak, euron artean salbatzen diran gizonak.

kera bakarra izan eben (246), guztien fedea ta goi-maitasuna izanik, eta Izenaz batera birjiñen espirituak eroan ebezan. Orregaitik, torregintza kolore bat bakarraz agertzen da, eguzkia baizen distiratsu.

5. «Baiña, batasunean sartuta eta gorputz bat bakarra eginda gero, areitari-ko batzuek euren buruak loitu ebezan, eta zintzoen jatorritik jaurtiak izan ziran eta leen izan ziranez eta txarragoak biurtu ziran».

XVIII. «Jauna —esan neutsan nik—, Jaungoikoa ezagututa gero, txarragoak izatera eldu dira?»

«Jaungoikoa ezagutzen ez dauanak eta gaiztakeria egiten dauanak —esan eustan—, bere gaiztakeriagaitik zigorra artzen dau; Jaungoikoa ezagutzen dauanak, barriz, ez dau barriro pekaturik egin bear, ona egin baiño.

2. «Beraz, ona egin bear dauana donga bat ba'da, ez al-dozu uste Jaungoikoa ezagutzen ez dauanak baiño gaiztakeri andiagoa egiten dauanik? Orregaitik, Jaungoikoa ezagutu ez eta gaiztakeria egiten dabenak, eriotzarako galduta dagoz; baiña, Jauna ezagutu ta Aren miragarriak ikusiarren, gaiztakeritan bizi ba'dira, birritan zigortuak izango dira eta betiko ilgo dira. Orretaraxe izango da garbitua, ba, Jaungoikoaren Eliza.

3. «Torretik baztartutako arriak espiritu gaiztoai emonak eta andik jaurtiak izan zirala ikusi zenduan, garbituen gorputz bat egingo da; torrea be, garbituta gero, arri-bakarraz eginda lez geratu zan. Alantxe izango da Jaungoikoaren Eliza be garbitua izan daitenean eta gaiztoak, azalutsak, biraolariak, ezpaitan dagozanak eta edozein dongakeritan gaiztoak diranak andik jaurtiak izan daitezanean.

4. «Oneik kanpora jaurtita, Jaungoikoaren Eliz(e)a gorputz bakar bat izango da, adimen bakar bat, pentzakera bakar bat, fede bakar bat eta goi-maitasun bakar bat. Orduan, Jaungoikoaren Semea, bere erria garbi aurkituta gero, poztu ta alaitu egingo da arein artean» (247).

5. «Jauna —esan neutsan nik—, andiak eta goragarriak dira gauza guztiok.

6. «Baiña, agertu egidazuz mendi bakoitzaren birtute ta egikerak be: ustea Jaunagan dauan edozein arimak, au entzunda gero, Aren izen andi, miragarri ta aintzatsua goratu dagian».

«Entzun —erantzun eustan— mendien ezbarđintasunak eta amabi errialdeak adierazoten dabena.

(246) Cfr. XIII, 5, 7; XVIII, 4; cfr. Ef. 4, 3-6; Iñazio: *Magn.*, 7, 1.

(247) Cfr. Sap. 10, 15.

XIX. «Leenengo mendiko fededunak —mendi baltzekoak—, oneixek dira: fede-ukatzailleak, Jaunaren aurkako biraolariak, eta Jaungoikoaren otsein-saltzailleak. Oneintzat ez dago damu-nekerik, eriotza baiño; eta, ain zuzen be, orregaitik dira baltzak, euren jatorria gaiztoa dalako.

2. «Bigarren mendiko fededunak —murrizta ta motza dan mendikoak—, azalutsak eta gaiztakeri-maisuak dira. Oneik be leenengoen antzekoak dira, zuzentasun-fruturikk ez daroe-ta. Izan be, arein mendia alperra danez, gizon oneik be fede-izena (248) ba-daroe, bai, baiña fede-utsik dagoz eta onekan ez dago egia-fruturik bat bera be. Alan be, onei damu-nekea egiteko auker(e)a emon yake, bereala damu izarekotan; luzatu ba'daitez, barriz, eurok be leenengoen eriotzan eskuartuko dabe».

3. «Jauna —itandu neutsan nik—, zegaitik emoten yake onei damu-nekea egiteko aukera, eta leenengoai ez, batzuen eta besteen egitadak ia bardiñak diran ezkerok?»

Arek auxe erantzun eustan: «Euren Jaunaren aurka biraorik egin ez ebelako, ezta Jaungoikoaren otsein-saltzaille be izan ez ziralako emoten yake damu-nekea egiteko auker(e)a; oneik, ostera, euren irabazi-gosegaitik (249), azaluts egin ziran eta pekatu egiten daben gizonen gogotara irakasten dabe. Orregaitik, zigorra artuko dabe; baiña, alan be, damu-nekea emoten yake, biraolari ez saltzaille izan ez ziralako.

XX. «Iruugarren mendiko fededunak —arantzak eta sasi-larrez beteriko mendiak—, oneixek dira: areitariko batzuk, aberatsak; beste batzuk, irabazpide askotan naastuak. Aberatsak, sasi-bedarrak dira, eta arantzak, irabazpide askotan naastuak.

2. «Beraz, irabazpide askotan naastuta dagozanak, ez dira Jaungoikoaren otseiñakaz batzen; euren arazo askotan itota, bidea galtzen dabe, ostera. Aberatsak be nekez batzen dira Jaungoikoaren otseiñakaz, zerbait eskatu dagitseen bildurrez. Beraz, oneik lakoak nekez sartuko dira Jaungoikoaren erreñuan.

3. «Izan be, ortozik (oiñutsik) sasi-lar artean ibiltea nekeza danez, orrelako gizonentzat be nekeza egiten da Jaungoikoaren erreñuan sartzea (250).

4. «Alan be, damu-nekea egiteko auker(e)a emoten yake guztioi, damu-nekera bereala biurtzekotan: leen egin ez ebena, orain egun gutxitan bete eta egintza onen bat egin dagien. Eta damu-nekea eta ontasun-egintzen bat egin ba'dagie, Jaungoikoarentzat bizi izango dira. Euren egintzetan iraun ba'dagie, ostera, emakume arei izango dira emonak, eriotzarako eroan dagiezan.

(248) Cfr. Apoc. 14, 1, 11; Ifazio: *Ef.*, 15, 1.

(249) Cfr. IX'gn. Agindua, 12. Cfr. Tim. 2.^a, 4, 3; Pedr. 2.^a, 2, 3; Judas, 16.

(250) Mark. 10, 23.

XXI. «Laugarren mendiko fededunak —bedar asko emoten eban mendikoak, bedar-gaiñeak eze eta beekaldeak igarrak, eta beste bedar batzuk eguzkiak zimeldutako mendi aretako fededunak—, oneixek dira: ezpaitan dagozanak; beste batzuk, Jauna euren ezpanetan bai-baiña euren biotzean ez daroenak.

2. «Orregaitik, arein oiñarriak igartuta eta indar bagarik dagoz; arein itzak soillik bizi dira, baiña arein egintzak ilda dagoz. Oneik lakoak ez dagoz ez bizirik ez illik. Ezpaitan dagozanen antzekoak dira: izan be, ezpaitan dagozanak be ez dagoz ez eze ez igar: ez bizirik ez illik ez dagozan ezkerok.

3. «Izan be, arein bedarrak, eguzkia ikusiaz batera, zimeldu egin ziranez, ezpaitan dagozanak be, naibageren bat izan ordukoxe, bildurrez sasi-jainkoetara jotzen dabe eta euren Jaunaren izenaz lotsatu egiten dira.

4. «Beraz, orreik lakoak ez dagoz bizirik ez illik. Alan be, bereala damu-nekea egin ba'dagie, bizi aal izango dira; damu-nekea egin ez ba'dagie, barriz, bizia kenduko dautseen emakume arei dagoz emonda.

XVII. «Bosgarren mendiko fededunak —bedar ezeak emonarren, mendi arritsukoak—, oneixek dira (251); fededunak bai-baiña biurriak, arrokoak (252) eta euren buruak ederresten dabezanak (253), dana dakielakoan, baiña ezer be ez dakiela (254).

2. «Arein arropuzkeriagaitik, zuurtasuna urrundu egin da arekandik eta burubagetasun zoroa sartu yake. Eta, alan be, tentelak izanik, maisu lez agertu nai izaten dabe (255).

3. «Arrokeri orregaitik, areitariko asko utsik geratu dira, euren buruak goratzen ebezan artean. Izan be, deabru andia da andikeri ta arropuzkeria (256). Beraz, oneitariko asko baztatuak izan ziran; beste batzuek, ostera, damu-nekea egin, sinistu eta zentzundunakana makurtu ziran, euren uts-egiña autorturik.

4. «Oneitariko enparaduai be damu-nekea eskintzen yake, ez ziran gaiztoak izan-eta, tentelak eta burubageak baiño. Oneik, ba, damu-nekea egin ba'dagie, Jaungoikoarentzat bizi izango dira; damu-nekea egin ez ba'dagie, ostera, arein aurka euren gaiztakeria erabiliko daben emakumeakaz bizi izango dira.

XXIII. «Seigarren mendiko fededunak —brintza andiak eta txikiak eta brintzetan bedar igarrak eukazan mendikoak—, oneixek dira:

(251) Cfr. VIII'gn. Antz-irudia, Vi, 5; III'gn. Ikusketa, VII, 1. Hermas'ek gnostikoen aurka diardu, antza. Cfr. Tim. 1.^a, 1, 4; 6, 5; Tim. 2.^a, 2, 16.

(252) Cfr. Pedr. 2.^a, 2, 10.

(253) Cfr. Rom. 15, 1; Tim. 2.^a, 3, .

(254) Cfr. Tim. 2.^a, 3, 7.

(255) Cfr. Rom. 1, 22.

(256) Cfr. XXIII, 5; II'gn. Agindua, 2.

2. «brintza txikiak daukezanak, alkarren artean eztabaidak dabezanak dira, eta euren txarto-esanakaitik fedean igartuta dagoz; alan be, oneitariko askok damu-nekea egin eben, eta beste askok be, neure aginduak entzunda gero, damu-nekea egingo dabe; izan be, euren txarto-esanak txikarrak dira, eta erraz biurtuko dira damu-nekea egitera.

3. «Baiña, brintza andiak dabezanak, euren txarto-esanetan irauten dabenak dira, ez yakez iraiñak aaztuten eta alkarren arteko gorrotoetan diardue. Beraz, oneik torretik jaurtiak izan ziran eta torregintzatik baztatuak. Oneik lakoak nekez bizi izango dira.

4. «Izadia menperatzen eta egindako guztiari buruzko aal-izatea dauan geure Jaungoiko ta Jaun dana, euren pekatuak autortzen dabezanai gorrotoa gorde bearrean, erruki izaten ba'yake, gizonak, ustelkorra izanik eta pekatuz beterik egonik, beste gizon bati gorrotorik gordeko ete-dautso, gizon ori ondatzea naiz salbatzea bere eskuan bai'litzakean? (257).

5. «Beraz, nik, damu-nekearen aingeru onek, auxe dirautsuet: Pentzakera au dozuen guztiok, bertan-beera itzi ta damu-nekea egizue, eta Jaunak leengo zuen pekatuak osatu egingo dauz, deabru onegandik garbitzekotan; bestela, barriz, berari emonak izango zaree eriotzarako.

XXIV. «Zazpigarren mendiko fededunak —mendi au bedar eze ta mardulez beterikoa zan, mendi guztia emoillea eta edozetariko abere ta zeruko egaztik bertako bedarra jaten eben, eta bedarra geiago jan eta bedarra geiago sortzen zan—, oneixek dira:

2. «Beti lauak, errubageak eta zoriontsuak diranak, alkarren arteko eztabaida bagarik, Jaungoikoaren otseiñakaz beti pozik eta birjiña onein espiritu santuz jantzirik, edozein gizoni erruki-egintzen bat egiteko beti gertu, eta guztiak euren lanen frututik irain eta ezpai bagarik emon dautseenak dira (258).

3. «Eta Jaunak, arein lautasuna ta ume-bakuntasun guztia ikusirik, ugaritu egin eban arein eskuetako lanen frutua eta arein ekintza guztietan egin eutsen lagun.

4. «Beraz, nik, damu-nekearen aingeru onek, auxe dirautsuet: Iraun egizue asmo orretan, era orretan bizi zareen guztiok, eta zuen ondorengoak betiko iraungo dabe (259). Izan be, Jaunak aztertu eta geure kopuruan idatzi zaitue (260), eta zuen ondorengo guztiak Jaungoikoaren Semeagaz bizi izango dira, Aren Espirituaren zati bat artu dozue-ta (261).

(257) Cfr. Sant. 4, 12.

(258) Cfr. II^{gn}. Agindua, 4-6; *Didaje*, IV, 6, 7; Bernabe, XIX, 10.

(259) Ps. 36, 25, 28; *Ecli.* 39, 9 (12).

(260) Cfr. XXV, 2; XXVII, 3. II^{gn}. Ikusketa, II, 7. *Mart. Polic.*, 2, 3.

(261) Yon'en I.^a, 3, 24; Tes. I.^a, 4, 8.

XXV. «Zortzigarren mendiko fededunak —mendi onetan iturburu asko egozan eta euren Jaunaren izaki guztiak edaten eben—, oneixek dira:

2. «mundu guztian zear Jaunaren itza iragarri eta santukiro ta garbiro irakatsi eben apostoluak eta irakasleak, gurari txarretara ezetarako okertu bearrean, beti zuzentasunez eta egiaz ibillirik, Espiritu Santua be artu ebenez. Oneik lakoak euren tokia aingeruen ondoan dabe.

XXVI. «Bederatzigarren mendiko fededunak —landu bagarik egoanekoak, eta gizonak eriotza emoten dautseen suge ta pistiak daukazan mendikoak—, oneixek dira:

2. «Orbanak dabezan areik, euren eginkizuna txarto bete eben laguntzaille (edo diakonuak) dira, andra alargunen eta umezurtzen bizitza usturik eta banatzeko artu izan ebenetik eurentzat erabillirik. Oneik lakoak, euren diru-gosetan irauten ba'dabe, il egingo dira, eta ez dabe bizi izateko itxaropenik. Damutu ba'daitez eta euren eginkizuna garbiro bete ba'dagie, barriz, bizi aal izango dira.

3. «Arrak janda agertzen diran arriak, euren Jauna ukaturik, Beronegana biurtu ez diranak dira; agor eta landu bagarik geratu ziran, Jaungoikoaren otseiñakaz ez batzearren, eta, euren buruak bakaturik* (262), galdu egiten dabez euren arimak.

4. «Izan be, maasti bat, esi-barruan bertan-beera itzita, jaramonik egiten ez ba'yako, alperrik galdu eta, bedarrez itota, frutu bagarik geratzen danez, eta aldi batera basa-maasti egiten danez, bere jabeari ezetarako be ez yakola; olantxe kikildu dira oneik, eta, larra-gizon* eginda, euren Jaunarentzat alperreko biurtzen dira.

5. «Onei damu-nekea egiteko auker(e)a emoten yake, fedea ez dabela biotzez ukatu ikusten ba'da (263); baiña norbaitek fedea biotzez ukatu dauala ikusten ba'da, nik ez dakit alakoa bizi daiteken.

6. «Eta ez diñot au oraingo egunai buruz, norbaitek fedea ukatu ta damu-nekea egin dagian; izan be, eziña da, orain bere Jauna ukatzen dauana salbatu aal izatea. Baiña, leengo aldietan fedea ukatu dabenai, damu-nekea eskintzen yake, antza. Beraz, damu-nekea egin bear dagiana, bizkortu beite, torrea osotu baiño leen; bestela, emakume areik alako eriotzarako ondatuko dabe.

7. «Eta arri motzak, maltzurak eta marmar-zaleak dira. Izan be, pistiak euren edenaz gizona il eta ondatu egiten dabenez, gizon onein itzak be galdu ta ondatu egiten dau gizona.

(262) Cfr. Bernabe, IV, 10; Ebert. 10, 23. Eliza, batasuna da.

(263) Bildurragaitik eta azaleko zioakaitik soillik, fedea ukatu ebenak.

(*) Bakartu: aislarse. — (*) Larra-gizon: hombre agreste.

8. «Oneik, ba, motzak dira euren fedean, eurak diarduen egintzagaitik. Alan be, areitariko batzuk damutu ta salbatu egin ziran. Oneitariko enparaduak be salbatu egin daitekez, damutzen ba'dira beintzat. Baiña, damutu ez ba'daitez, emakume arein eskuz ilgo dira, arein birtutea dabela.

XXVII. «Amargarren mendiko fededunak —ardi batzui gerizpea egiten eutseen zugatzak egozan mendiko fededunak—, oneixek dira:

2. «gotzaiñak eta persona ostatu-emoilleak (264); oneik beti, atsegiñez eta azpikeri bagarik Jaungoikoaren otseñiak euren etxeetan artu ebezan. Gotzaiñak, gaiñera, beti ta eten bagarik zaindu ebezan euren lanbideaz beartsuak eta andra alargunak, eta euren jokabidea beti garbia izan zan. Beraz, guzti oneik beti Jaunaren zainpean egongo dira. Au egin dabenak, goragarriak dira Jaungoikoaren aurrean eta arein izena onezkero aingeruen artean dago (265), Jauna serbitzen azkeneragiño irauten ba'dabe beintzat.

XXVIII. «Amaikagarren mendiko fededunak —mendi orretan frutuz beteriko zugatzak egozan, eta zugatz bakoitza frutu ezbaridiñez apainduta—, oneixek dira:

2. «Jaungoikoaren Semearen izenean odol-eriotza eroan ebenak, adoretzu ta biotz-biotzez eroan be, eta euren bizitzak Aregaitik emon ebezanak» (266).

3. «Jauna —itandu neutsan nik—, zegaitik daroez zugatz guztiak euren frutuak, baiña zugatz batzuk frutu ederragoak?»

«Entzun —erantzun eustan—. Noizbait Izenagaitik nekeak eroan dabezanak, Jaungoikoaren aurrean goragarriak dira, eta, Jaungoikoaren Semearen izenagaitik nekeak eroan dabezalako, euren pekatu guztiak kendu egin yakezan. Eta entzun orain zegaitik diran arein frutuak ezbaridiñak eta batzuk bikaiñagoak.

4. «Agintarien aurrera eroanda, itanduak izanda gero (267), askatuak izan bearrean nekeak adoretzu igaro ebezanak, goragarrienak dira Jaunaren aurrean; oneik lakoena dira nabarmentzen diran frutuak. Baiña, koldarrak izan ziranak eta ezpaitan eta ukatu ala autortu egingo ete-eben, euren biotzetan asmatzen jardun ebenak, baiña azkenez be oiñazeak igaro ebezanak, frutu arruntagoak daroez, euren biotzetan bururapen orrei lekua emon eutseelako. Izan be, otseñiak bere jauna ukatu daiken bururapen bat bera bakarrik izatea be txarra da.

(264) Cfr. VIII'gn. Agindua, 10; Tim. I.^a, 3, 2; Tito, I, 8; Pedr. I.^a, 4, 9; Rom. 12, 13; Klemente'ren I.^a, I, 2; X, 7.

(265) Cfr. Klemente'ren I.^a, V, 4, 3; Bernabe, XIX, I.

(266) Ap. Egiñ. 15, 26; *Diogneto'ri Idazkia*, I, I.

(267) Cfr. III'gn. Ikusketa, I, 9; II, I; V, 2; VIII'gn. Antz-irudia, III, 6.

5. «Kontuz, ba, orrela pentzatzen dozuenok! Ez dagiala irau bururapen orrek zuen biotzetan, Jaungoikoarentzat il ez zaitez. Zuek, barriz, Izenagaitik nekeak igaroten dozuezan guztiok, Jaungoikoa goratu bear dozue, Jaungoikoa Izen au eroateko eta zuen pekatu guztiak osatzeko duin artu zaituelako.

6. «Artu egizuez, ba, zoriontsutzat zuen buruak, eta geiago oraindiño: zuetariko norbaitek Jaungoikoagaitik nekeren bat igaroten dauanean, egintza andi bat egin dauana jakin egizue. Jaunak utsean emoten dautsue bizia, eta ez dozue ulertzen. Izan be, zuen pekatuak astundu egin ziran; eta, Jaunaren izenagaitik nekeak igaro ez ba'zenduezan, ilda egongo zintzakezen Jaungoikoarentzat, zuen pekatuakaitik.

7. «Autortu ala ukatu egingo dozuen, ezpaitan zagozenoi dirautsuet au. Jauna bat dozuela autortu egizue: Jauna ukaturik, espetxean sartuak izan ez zaitez.

8. «Izan be, jentillak euren jauna ukatzen dauan otseña zigorkadaz astintzen ba'dabe, zer uste dozue egingo dauala zuei buruz, gauza guztiak bere menpean daukazan zuen Jaunak? Atara, ba, zuen biotzetik orrelako bururapenak, beti-betiko Jaungoikoarentzat bizi izan zaitez.

XXIX. «Amaikagarren mendiko fededunak —mendi zuriko fededunak—, ume txikiak (268) lez irauten dabenak dira; umeen biotzetara ez da gaiztakeririk igoten eta gaiztakeria zer izan daitekenik be ez dakie; beti errubagetasunean irau eben, ostera.

2. «Onelakoak, ezpai bagarik, Jaungoikoaren erreñuan bizi izango dira, Jaungoikoaren aginduak egitada bataz be ez ebezan loitu-ta; euren bizitzako egun guztietan errubagetasunean irau eben, beti asmo bataz.

3. «Beraz —esan eban gaiñera—, irau dagizuenok eta ume txikiak lakoak izan zaitezzenok, maltzurkeri bagarik, leen aitaturiko guztiak baiño goragarriagoak izango zaree. Izan be, ume guztiak dira goragarriak Jaungoikoaren aurrean eta leenenak Beronen aurrean. Zoriontsuak, ba, zuek, zuekandik maltzurkeria kendu eta soiñekotzat errubagetasuna jantzi dagizuenok, Jaungoikoarentzat bizi izaten, leenenak izango zaree-ta».

4. *Arrien antz-agiria*.—Mendien antz-irudien azalpena amaitu ebanean, «Jauna —esan neutsan nik—, azaldu egidazu orain zer esan nai daben lautadatik artu eta torretik kendutakoen ordeztoregintzan ipiñiak izan ziran arriak, baita torregintzan ipiñitako arri biribillak eta oraindiño biribil irauten dabenak be».

(268) Cfr. XXIV, 3; II'gn. Agindua, I; Pedr. I.^a, 2, 2.

XXX. «Entzun, ba—erantzun eustan— arri guztion esanaia be. Lautadatik artu eta bazturtutakoen ordeztorregintzan ipiñitako arriak, mendi zuri onen zuztarrak dira (269).

2. «Mendi zuriko fededunak, guztiak errubageak aurkituak izan ziran ezkerro, mendi onetako zuztarretik urtendakoak torregintzan ipiñiak izan zeitezala agindu eban Jaunak; izan be, arri oneik torregintzan sartzen ba'ziran, guztiak distiratsu iraungo ebena ta bat bera be baltzituko ez zana ba-ekian Berak (270).

3. «Beste mendietako arriak ezarri ba'lebez, barriz, torrea barrero ikusteko ta garbitzeko bearrean izango zan. Oneik, ostera, guztiak zuri aurkituak izan ziran, bai sinistu dabenak bai gero sinistuko dabenak be, guztiak jatorri berekoak dira-ta. Zoriontsua jatorri au, errubagea da-ta!

4. Entzun, ba, orain, arri biribil eta distiratsuai buruz. Guzti oneik be mendi zuri onetatik datoz. Entzun, barriz, zegaitik izan ziran biribil aurkituak. Aberastasunak egia zerbait illundu egin eutseen eta lausotuta geratu ziran; alan be, ez eben iñoz be Jaungoikoagandik alde egin, euren agotik be ez zan iñoz itz txarrik urten, edozein zuzentasun eta egiaren birtutea baiño.

5. «Jaunak, onein adimena eta oneik egiaren alde eta onak izaten iraun leikeela ikusirik, onein aberastasunak moztea agindu eban —guztiz kendu bagarik—, geratzen yakenetik egintza onen bat egin aal izan egien. Eta Jaungoikoarentzat bizi izango dira, jatorri onekoak dira-ta. Onegaitik, zertxobait moztuak eta torregintza onean ezarriak izan ziran.

XXXI. «Biribillak izaten iraunik, torregintzarako egoki etorri ez ziran enparadu arriai buruz, sillurik artean artu izan ez ebelako, leenagoko lekura izan ziran eroanak, biribillegiak zirala ikusi zan-eta.

2. «Beraz, egoki da gizaldi onen gauzak arei moztea, baita arein aberastusunen uskeriak be, eta orduantxe batuko dira Jaungoikoaren erreñuan. Izan be, bearrezkoa da areik Jaungoikoaren erreñuan sartzea, Jaunak jatorri errubage au bedeinkatu egin dau-ta. Beraz, jatorri onetako iñor be ez da galduko. Izan be, norbaitek, deabru gaizto-gaiztoak zirikatuta, zerbaitetan pekatu egin ba'dagi be, berealaxe biurtuko da bere Jaunagana.

3. «Nik, damu-nekearen aingeru onek, zoriontsutat artzen zaituedaz umeak lako errubageak zareenok, zuen ondorea (erentzia) Jaungoikoaren aurrean ona ta goragarria da-ta.

4. *Azken-burubidea*.—«Auxe dirausuet sillu au artu dozuen guztioi: gorde egizue bakuntasuna; ez gogotara ekarri artutako iraiñak; ez iraun zuen gaiz-

(269) Zahn'en ustez, aurreko eraso-aldian kristau askok fedea ukatu egin izan eban; beste askok, barriz, *Artzaiña* idatzi baiño leen, sinistea edo fedea artu izan eban.

(270) Ataltxo onetan amaitzen da gerkerazko idaztia. Aurrerantzeko, latinezkoa da, *Vulgata*'koa.

takerian, ezta irain samiñen gomutan be; eratu egizue bakoitzak espiritu bakarra eta bete ta kendu egizue zuekandik brintza (edo alderdikeri) txar orreik, ardien jabea eurokaz poztu daiten.

5. «Eta poztu egingo da, bai, ardi guztiak onik aurkitu ba'dagiz; baiña, batzuk bidea balduta aurkitu ba'dagiz, artzaiñen zoritxarra!

6. «Beraz, artzaiñak eurak bidea galdu dabela ikusten ba'dau, zer erantzungo dabe euren ardiai buruz? Euren artaldeak jo dabezala ekarriko ete-dabe zuribidetzat? Ez yake sinistuko. Izan be, sinistu-eziña da artzaiñak bere artaldearen aldetik kalterik izatea, eta gogorrango izango da zigortua bere guzurragaitik. Neu be artzaiña naz, eta zuei buruz kontu estu-estua emon bear dot (271).

XXXII. «Jauna bakea maite dabenen gizonakan bizi da, Beretzat bakea ederra da-ta; urrun dago, ostera, auzi-zale ta gaiztakeriz balduta dagozanakandik. Biurtu egizue, ba, osorik espiritua, osorik artu zenduenez.

3. «Zuk bolazain (edo oialgille*) bati jantzi barria ta osorik emon ba'dautsazu, barrero be osorik artu nai dozu. Baiña oialgilleak jantzi ori urratuta biurtzen ba'dautsu, artu nai izango ete-dozu? Ez ete-zara bereala asarratuko, eta ez ete-dautsazu arpegiz-arpegi esango: 'Nik nire jantzia osorik itzi neutsun; zegaitik urratu ta zegaitik itzi daustazu alperrik balduta? Izan be, egin daustazuzan tarratadakaitik, orain ezin eroan daiteke'. Ez al-dautsazu oialgilleari guzti ori esango, jantzian egin eutsun tarratadagaitik?

4. «Beraz, zure jantziagaitik min ori artzen ba'dozu eta osorik artzen ez dozulako orrela naibagetzen ba'zara, Jaunak zuri buruz zer egingo dauala pentzitzen dozu, zuri bere espiritua osorik emon eta zuk guztia ondatu zenduan ezkerro, orain bere Jaunari ezetarako be gauza ez yakola? Izan be, zuk ondatu zenduanez gero, ezetarako be gauza ez izaten asi zan. Espiritu aren Jabeak, ez al-zaitu eriotzaz zigortuko, zure egintza onegaitik?»

5. «Bai, zigur —erantzun neutsan nik—; arelaxe zigortuko dauz artutako iraiñakaitik gorrotoa gordeten aurkitzen dauzan guztiak.

«Ez zapaldu —esan eustan— Aren errukia (272); goratu egizue Jauna, ostera, zuen gaiztakeriak ain ondo eroaten dauzan ezkerro eta zuek lakoak ez dan ezkerro. Egizue, ba, egoki izan dakizuen damu-nekea.

XXXIII. «Aurrean idatzitako guzti au (273), neuk, damu-nekearen aingeru onek, agertu ta esan dautset Jaungoikoaren otseñai. Beraz, nire itzak entzun

(271) Cfr. Mat. 26, 31; Mark 14, 27.

(272) Cfr. Ebert, 10, 29.

(273) Aginduak eta antz-irudiak.

(*) Bolazain, oialgille: batanero.

eta sinistu, areitan ibili eta zuen bideak zuzendu ba'dagizue, bizi aal izango zaree. Baiña, zeuen gaizakerian eta iraiñen gumutan iraun ba'dagizue, oneitariko iñor be ez da Jaungoikoarentzat bizi izango. Esan bear neutsuen guztia, esanda dago».

2. Orduan, Artzain berak auxe esan eustan: «Onezkero, guztia itandu aldaustazu?»

«Guztia, jauna», erantzun neutsan nik.

Eta arek: «Zegaitik ez daustazu itandu torregintzan ipiñitako arrien egitamuari buruz, zelan bete genduzan arein egitamuak?»

«Aaztu egin izan yat, jauna», erantzun neutsan.

3. «Entzun, ba, orain, arri arei buruz —esan eustan—. Arri orreik, nire aginduak orain entzun dabezanak eta biotz-biotzez damu-nekea egin dabenak dira. Eta Jaunak, arein damu-nekea ona ta garbia zala eta aretan iraun leikeela ikusirik, arein leengo pekatuak kenduak izan zeitezala agindu eban. Izan be, egitamu oneik arein pekatuen antz-irudi ziran, eta bardinduak izan ziran, agertu ez zeitezan». Amen (274).

AMARGARREN ANTZ-IRUDIA

I. *Atzerantz begira*.—Liburu au idatzi nebanean, ni bizi nintzan etxera Artzain oni (1) emon izan nenduan aingeru a etorri eta neure oge-gaiñean jesarri zan, eta Artzain au aren eskumaldean jarri zan. Gero, niri dei egin eta auxe esan eustan:

2. «Artzain oni itzi zenduedazan zu ta zure etxeokak, beronek zaindu zengizan».

«Orrelaxe da, jauna», erantzun neutsan nik.

«Beraz —esan eustan aingeruak—, edozein naibage ta oiñazetik gordeta egon nai ba'dozu, eta edozein egintza ta itz onean ondo urten eta edozein zuzentasun-birtute lortu nai ba'dozu, ibili zaitez neuk irakatsi dautsudazan aginduetan, eta orrela edozein gaiztakeri menperatu aal izango dozu.

3. «Izan be, Artzain onen aginduak bete ba'dagizuz, gizaldi onetako edozein zalekeri ta biguneri menperatu egingo yatzu, eta ondo urtengo yatzu edozein arazo on. Artu zugan Artzain onen santutasuna ta negurritasuna, eta esan egiezu guztiai, Jaungoikoaren aurrean onek ospe ta nagusitasun andia dauala eta aal-izate andiko buruzagia dala eta bere egintzan aaltsua dala.

(274) Gerkeraz ezarritako «Amen»-ean amaitzen da *Artzain*-ren zati au. Amargarren Antz-irudia be geigarri da.

Beroni bakarrik emon yako mundu guztian damu-nekea eroateko indarra. Ez al-deritzazu aaltsua dana? Alan be, zuek baztatu egiten dozue zuei buruz erakusten dauan santutasuna ta apaltasuna».

II. Orduan, nik auxe esan neutsan: «Itandu egiozu beroni, jauna, nire etxean sartu zan egunetik, berau iraintzeko zerbait egin dodan».

2. «Neuk be ba-dakit —erantzun eustan— erabagakorik ezer be egin ez dozuna eta egingo be ez dozuna. Eta gauzok onexegaitik dirautsudaz, iraun dagizun; izan be, Artzainak zure alde autor ona egin daust. Zuk, barriz, gaiok enparaduai esango dautsezuz, damu-nekea egin dabenak naiz egingo dabenak zeuk lako sentikizunak izan dagiezan, eta Artzain onek arein garbitasun edo kontu egokia emon daistan, baita neuk be Jaunaren aurrean».

3. «Nire aldetik, jauna —erantzun neutsan—, mundu guztiari iragarten dautsadaz Jaunaren miragarriak, eta, leen pekatu egin ebenak, au entzutean, damu-nekea adoretzu egin eta barriro bizia artuko dabela uste dot».

4. «Iraun egizu, ba —esan eustan—, arazo onetan eta osotu egizu. Eta onen aginduak bete dagizan edonok bizia izango dau, eta onek ospe andia izango dau Jaunaren aurrean. Damu-nekearen aingeru onen aginduak beteten ez dauzana, barriz, iges egiten dau bere bizitik eta onen aurka egiten dau. Onek, ostera, bere ospea dauko Jaungoikoaren aurrean. Beraz, aingeru au baztatu dagianak eta beronen aginduai jarraitu ez dagitseenak, bere burua eriotzarako emoten dau, eta bakoitza bere odolaren errudun da. Zuri, barriz, aginduok bete dagizuzala eskatzen dautsut, eta orrelaxe lortuko dozu zure pekatuen osagarria.

III. *Birjiña laguntzailleak*.—«Zeugaz bizi daitezcan bialdu dautsudaz birjiña oneik be, adikorrak agertzen yatzuzala ikusi neban-eta. Emen dozuz, ba, laguntzaille lez, Artzain onen aginduak obeto bete dagizuzan; izan be, birjiña onein laguntza bagarik, eziña da aginduok betetea. Ondo ikusten dot birjiña oneik gogo onez dagozala zure ondoan eta zure etxetik ezegaitik be ez dagiela alde egin aginduko dautset gaiñera.

2. «Zuk, barriz, garbi eukizu zure etxea, etxe garbi baten gogo onez bizi izango dira-ta. Areik, izan be, garbiak, biotz-garbiak eta arduratsuak dira eta Jaunaren aurrean edertasuna dabe.

Beraz, zure etxea garbi aurkitu ba'dagie, zeugaz geratuko dira; zure etxean zikinkerik pizkatxoren bat sortzen ba'da, barriz, zure etxetik bereala alde egingo dabe, birjiña oneik ez dabe loirik iruntsiten-eta».

3. Nik auxe esan neutsan: «Nire etxean beti gogo onez bizi izateko bestean atsegin izango nakiela uste dot, jauna. Eta emon nenduzun onek be nire aurka naibagerik ez dauanez, areik be ez dabe izango».

4. Orduan, Artzaiñari auxe esan eutsan: «Ikusten dot Jaungoikoaren otsein onek bizi izan nai dauana, eta aginduok beteko dauzana eta birjiñok bizitoki garbian artuko dituana».

5. Ori esanda, Artzain ari emon nenduan; gero, birjiñai dei egin eta auxe esan eutsan: «Onen etxean gogo onez bizi zarela ikusten dodan ezker, au ta onen etxeok zeuen ardurapean izten dodaz, eta onen etxetik une baten be ez dagizuela alde egin agintzen dautsuet».

Eta birjiña areik itzok gogo onez entzun ebezan.


IV. Gero, niri auxe esan eustan: «Iraun adoretu eginkizun onetan; iragarri mundu guztiari Jaunaren miragarriak, eta ederra (grazia) aurkituko dozu eginkizun onetan. Beraz, agindu oneitan ibili daitena, bizi izango da eta zorionsua izango da bere bizitzan; aginduok baztatu dagizana, ostera, ez da bizi izango eta zoritxarrekoa izango da bere bizitzan.

2. *Azken-burubidea; ona egitea.*—«Esan egiezu guztiak, ez daitezala aspertu egintza zuzenak egiten, egintza onak egitea ondo yake-ta. Geiago diñot: egoki da, edozein gizon beronen bearrizantetik ataratea. Izan be, bearrizanean eta bere egun oroko bizitzan larrialdiak igaroten dauzana, oiñaze ta zoritxar anditan dago.

3. «Beraz, onelakoaren arim(e)a beronen estualditik ataraten dauanak, bere buruarentzat poz andia lortzen dau. Izan be, zoritxarrean dagoanak, espertxean dagoanak lakoxe miñak eta oiñazeak igaroten dauz. Eta askok, onelako zoritxarrrak ezin igaro daikeezan ezker, eriotza emoten dautsee euren buruai. Beraz, orrelako gizonaren zoritxarra ezagutu eta zoritxar orretatik ataraten ez dauanak, pekatu andia egiten dau eta aren odolaren errudun egiten dau bere burua.

4. «Egizuez, ba, egintza onak, Jaunagandik ondasunak artu izan dozuezan guztiok: egintza onok egitea luzatzen dozuen artean, torregintza osotu ez daiten. Izan be, zeuek gogotan artuta izan zan gelditua torregintza. Beraz, ona egiten laster asten ez ba'zaree, torregintza osotu egingo da eta baztartuta geratuko zaree».

5. Nigaz itz egitea amaitu ebanean, ogetik jagi egin zan, eta, Artzaiña ta birjiñak lagun ebazala, alde egin eban; baiña, Artzaiña ta birjiñak barriro neure etxera bialduko ebazala esan eustan.



DIOGNETO'RI ESKUTITZA

Diogneto'ri Eskutitza, antxiñako kristau-literaturako eskutizik maitagarrienetariko bat da. Ez dakigu eskutiz onen egilea nor izan zan, ezta Diogneto be. Bigarren mende-arkenetan dago eginda, antza.

I. *Sarrera.*—Ikusten dodanez, Diogneto guztiz bikain ori, kristauen (1) erlejiñoa ezagutzeko gogo bizi az zagoz, eta ari buruz zeatz-zeatz eta arduratsu itandu dozu: zein Jaungoikogan daben euren ustea eta ze erataraz gurtzen daben; zegaitik daben gutxitzat mundua eta zegaitik ez daben artzen aintzakotzat eriotza (2); zegaitik ez daben sinisten gerkarrak (3) atakotzat dabezan jaungoioak, ezta judarren gurkeria gordeten be. Alkarren artean daben maitasun ori zer ete-dan itauntzen dozu, eta zegaitik agertu dan orain eta ez leen (4) jatorri (5) barri au edo bizikera barri au:

2. Zorionak emoten dautsudaz zure ardura orregaitik, eta itz egiteko ta entzuteko mesedea emoten daskun Jaungoioari auxe eskatzen dautsat: nire itzaldi au zeure onerako izateko eraz itz egitea jadetsi daistala, eta zuri, itza zuzendu eutsuna saminduta ez geratzeko craz entzutea jadetsi dagitzula.

II. *Itzi susmo txarrak eta gizon barri egin zaitez* (6).—Aurrera, ba! Garbitu egizu zure burua zure adimena aurretiaz lotuta daukan susmo txar guztietatik. Jaurti egizuz oitura maltzurak eta egin zaitez zuzarretik gizon barri, en-

(1) *Kristau* izena, orduko, ezaguna zan.

(2) Cfr. Just.: I *Apol.*, II, 39, 57; II *Apol.*, 10.

(3) «*Gerkarrak*»: emen, «*jentillak*».

(4) Cfr. Arnobio, II, 75.

(5) Cfr. Arist.: *Apol.*, 16, 4; Taciano: *Or.*, 31 atalb.; Teofilo: *Ad Autol.*, III, 1.

(6) Ikusi Justino: I *Apol.*, 8, Cfr. Ef. 4, 21 eta urreng.; Iñazio: Ef. 19, 1.

tzuteko gertu zagozan irakatsia be barria danez, zeuk autortu zenduan. Begiratu egizu begiz bakarrik ez, baita zentzunaz be, zein izatekoak edo zein eratakoak diran zuek (jentillok) esaten eta gurtzen dozuezan jaungoikoak.

2. Ez al-da jaungoiko bata arri bat, geure oiñakaz zapaltzen doguzanetari-koren bat lakoa? Ez al-da beste bat burdin-ori (edo brontze) zati bat, gure eskuetarako ontziak lantzeko balio dauana baiño gai ez ohea? Eta beste bat zula, ustelduta gaiñera? Eta beste bat zidarra, ostu ez dagien, zaintzaillea bear dauana? Eta beste bat burdiñ(e)a, ugarrak jandakoa? Eta, azkenez, buziña, gure egun oroko arazorik lauenetan darabilguna baiño ez ederragoa?

4. Eta okerretara, zuek orain gurtzen dozuezanok, ez leukez gizonaren eskuak aldatu aal izango, enparadu guztien antzeko ontziak izatera? Guzti orreik, ez al-dira gorra, itsuak, bizi-bageak (7), sorrak*, zirkin-egin-eziñak*? Ez al-dira guztiak usteltzen? Ez al-dira guztiak ondatzen?

5. Eta gauza guzti orrei izena jaungoiko emoten dautsazue; gauza orreik otseintzen dozuez; gauza orreik gurtzen dozuez eta orreien antzeko egiten biurtzen zaree (8).

6. Gauza oneik jaungoikoak diranik sinisten ez dabelako iguintzen dozuez kristauak.

7. Baiña, orreik gurtzea sinisten eta uste dozuenok, ez al-dozuez zeuek bete-betean be geiago iguintzen? Ez al-da barregarriago ta iraingarriago zuen aldetik, arrizko ta burdiñazko jaungoikoak zaintzaille bagarik gurtzea, baiña zidarrezkoak eta urrezkoak gabez barruan sartzea eta egunez onei zaintzailleak (9) jartea, lapurrak eroan ez dagiezan?

8. Gero, areik goratu egiten dozuezala uste dozuen artean, egia esan, zigortu egiten dozuez, zuen jaungoikoak zentzunik ba'dabe beintzat; eta sorrak ba'dira, odol eta koipe-opariakaz agirian jarri baiño ez dozuez egiten.

9. Ikusi dagiala, bestela, zuetariko norbaitek bere aragian arelakorik jasan (sufritu) daiken, orrelako oparirik eskiñi dagioen. Gizon batek be ez leuke gogo onez nai izango orrelako oiñazerik igaroterik, gizonak zentzuna ta adimena daukaz-ta; arriak, ostera, guztia jasaten (sufritzen) dau, ez dauko zentzunik-eta.

10. Askoz geiago esan negike, kristauak alako jaungoikoai zegaitik ez yakeezan menperatzen; baiña esandakoari norbaitek naikoa ez ba'deritzo, ezer geiago esaten jarraitzea alperrekoa dala uste dot.

III. *Judar-gurtzaren uskeriak*.—Onen ondoren, batez be, kristauak eta judarrak gurtza bardiña zegaitik ez dauken jakin gura dozula uste dot.

(7) Just.: I *Apol.*, 9.

(8) Cfr. Ps. 113, 16.

(9) Cfr. Justino: I *Apol.*, 9.

(*) Zirkin-egin-eziña: inmóvil. — (*) Sor: insensible.

2. Judarrak, aitaturiko sasi-jainkokeritik alde egin eta Jaungoiko bakar bat eta izadiko Jabe guztiz bikaiña gurtzen daben ezker, errazoi oso-osoa dabe; alan be, Jaungoikoa aurrerago azaltzen dogun eraz gurtzean, oso-osorik egiten dabe uts.

3. Izan be, gerkarrak, zentzunik ez daben eta gorra diran jainko-irudiai opariak eskintzean, zorakeri-ezaugarriak agertzen ba'ditue, oneik (judarrak), Jaungoikoari opariak eskintzean, Jaungoikoa oparion bearrizanean egon bai'litzan, gurtza ori erlejiño baiño burubagekeri lez egiten dabela esan daiteke.

2. Izan be, *zerua ta lurra ta bertan dagoan dana egin eban jaungoikoak*, eta bear doguna guztioi emoten dauskun Arek (10), ezin egon daiteke Bera ezertxoren bearrizanean, Berari eskintzen dautsoela uste dabenai Berak eratzen dautsen ezker.

5. Baiña, Ari odolezko ta koipezko opariak eta erre-eskintzak eskintzen eta onelako ospez goretsi egiten dabela uste daben judarrak, ospe bardiñak (11) jainko-irudi gorrai eskintzen dautseenakaz alderik ez dabela deritzat. Izan be, batzuek euren opariak osperik izateko gai ez diranai eskintzen dautseez; eta bes-teak, ezer be bear ez dauan Ari.

IV. *Judar-siniskeriak*.—Judarren kezka janariai buruz (12), euren siniskeriak larunbatari buruz, euren andi-ustekeria erdaintuntzari buruz, euren oitura azalutsak barauari ta ilbarriari buruz, guztiak gai barregarriak eta aitatzeko gai be ez diranak: guzti oni buruz, ez dot uste neure bidez jakitun jarteko bearrizanean egongo zaranik.

2. Izan be, ez al-da gaiztakeria Jaungoikoa gizonen erabilketarako egin dauzan gauzen artean batzuk ondo egiñak lez artzea eta beste batzuk alperreko ta geiegi lez artzea?

3. Eta, ez al-da dongakeria Jaungoikoaren aurka guzurra esatea, egintza onik larunbatean egitea debekatu egiten dauskula uste izatea?

4. Eta ez al-da barregarria, aragiaren ebagiketaz arrotzea, aukeratze-autorra bai'litzan, eta orregaitik Jaungoikoak eurak batez be maite dituala uste izatea?

5. Gaiñera, illak (13) eta egunak beteteko, izarrak (14) eta illargia (15) zaintzeko oitura ori, baita Jaungoikoaren asmoak eta urte-aroen aldakuntzak

(10) Ex. 20, 11; Ps. 145, 6; Ap. Egiñ. 14, 15; Justino: I *Apol.*, 10; Aristides, I, 6; 13, 12.

(11) Cfr. Bernabe, XVI, 2.

(12) Aristides, 14, 4; Tertuliano: *Apol.*, 21^{gn}. atalb.

(13) Cfr. Gal. 4, 10.

(14) Judarren artean orrek garrantzi andia eban larunbata gordeteko; izan be, judarentzat biaramona gau-asieratik asten zan; gau-asiera, barriz, iru izar erdi-andiak batera ikusten ziranean asten zan.

(15) Ilbarriakaitik.

euren eritzien arauz bereizteko oitura ori: batzuetan jaietarako, beste batzuetan naibagerako (16): nok ez dau artuko ori leenago zorakeritzat, eta ez erlejiñotzat?

6. Esandako au naikoa dala uste dot, oso-osorik ulertu dagizun, kristauak errazoiz egiten dabela alde jentillai eta judarrai batera dagokiezan uskeri ta iruzurretatik, baita judarren ustekeri ta andiuste utsetatik be. Baiña, arein erlejiñoaren misterioari buruz, ez itxaron gizonak jakiñerazoko dautsunik (17).

V. *Kristauen bizitza*.—Izan be, kristauak ez dira enparadu gizonakandik bereizten, ez euren jaioterri, ez euren izkuntza, ez euren ekanduakaitik (18).

2. Ez dira bizi euren bazter-urietan; ez dabe izkera arrotzez itz egiten; ez dabe bizikera nabarmenik eroaten.

3. Egia esan, irakatsi au ez dau euren arteko gizon burutsuen ikasiak eta adimenak sortu; ez dabe giza-filosofiarik be irakasten, beste batzuek egiten dabenez.

4. Gerkar eta arrotz-urietan (19) bizi dira, bakoitzari egoki izan yakonez; errialde bakoitzeko oiturai jarraitzen dautsee jaskeran, jakeran eta osterantzeko bizitza-gaietan. Alan be, euren bizikera erakusten dabe, arrigarri ta miragarria, guztiak autortzen dabenez.

5. Bakoitza bere aberrian bizi da, baiña arrotz lez; gai guztietan eskuartzen dabe erritarrak lez, baiña guztia eroaten dabe ondo, arrotz lez. Edozein lurralde arrotz, aberri da areintzat, eta edozein aberri, lurralde arrotz (20).

6. Guztiak lez ezkontzen dira; guztiak lez azten dabez seme-alabak, baiña ez ditue galtzen (21).

7. Guztientzat dabe maia, baiña ogea ez.

8. Aragitan bizi dira, baiña aragi-eraz ez (22).

9. Lurrean bizi dira; baiña Zeruan (23) dabe euren erritasuna.

10. Erabagita dagozan legeai esana egiten dautsee, baiña garaitu egiten ditue legeak euren bizikeraz (24).

11. Guztiak dautsee maitasuna, eta aurrean erabiliak dira (25).

(16) Pekatu-ordaintze eguna (Lev. 23, 27 ta urreng.), naibage ta barauaz ospatzen zan.

(17) Cfr. Tim. 1.^a, 3, 16.

(18) Tertuliano: *Apol.*, 42.^{gn}. atalb.; Orienes: *Contra Celsum*. VIII, 28, 55.

(19) «Gerkar-urriak» = jentil-urriak; «arrotz-urriak» = gerkarren eta latindarren kulturatik kanpo egozan urriak.

(20) «Lur onetan ez dogu aberriarik», diño Alexandria'ko Klemente'k: *Paedag.*, III, 8, 41.

(21) Sabelean dagoan seiña galtzeari buruz diño.

(22) Cfr. Kor. 1.^a, 10, 3; Rom. 8, 12.

(23) Cfr. Filip. 3, 18-20. Tert.: *Apol.*, 1.^o atalb.

(24) Justino: I *Apol.*, 12, 17; Taciano: *Or.*, 4.^{gn}. atalb.

(25) Justino: I *Apol.*, 14, 39, 57.

12. Ez-ezaguntzat artzen dabez, baiña galdu egiten ditue. Il egiten ditue, eta orrela bizia emoten dautsee (26).

13. Txiroak dira eta askoak aberasten dabez (27). Ezer be ez dabe, eta guztia dabe.

14. Ezetsiak (bartzartuak) dira, eta gerenean* aurkitzen dabe euren aintza. Madarikatu egiten dabez, eta onetantxe dira zintzotuak.

15. Iraindu egiten dabez, eta areik bedeinkatu (28). Arei iraiñak egin, eta areik dedua (aintza) emon.

16. Ona egiten dabe, eta gaizto lez dira zigortuak; eriotzaz zigortuak izanarren, bizia artu bai'lebe pozten dira (29).

17. Judarrak eraso egiten dautsee atzerritarrai lez; eta gerkarrak be aurrean darabille kristaua. Baiña iguiña dautseenetariko batek be ez daki bere gorrotoaren errazoa adierazoten.

VI. *Kristauak, munduaren arima*.—Baiña, labur esateko, gorputzean arim(e)a dana dira kristauak munduan (30).

2. Arim(e)a, gorputz-atal guztietan dago zabaldua, eta kristauak be munduko uri guztietan.

3. Arim(e)a gorputzean bizi da, baiña ez dator gorputzetik; era berean, kristauak munduan bizi dira, baiña ez dira mundukoak (31).

4. Ikusten ez dan arim(e)a, ikusten dan gorputzeko espertzean dago ertsita*; era berean, kristauak munduan bizi diranak ezagutzen diranez dira ezagutuak, baiña arein erlejiñoa ikus-ezin geratzen da (32).

5. Aragiak arim(e)ari gorroto izan eta eraso egiten dautso, arim(e)agandik iraiñik artu izan bagarik, atsegiñakaz poz-artzen ez dautso izten-eta; era berean, munduak kristaua iguindu egiten dau, kristauaren iraiñik artu bagarik, atsegiñetatik alde egiten dau-ta.

6. Arim(e)ak, aragia ta bera iguintzen dabenak maite izaten ditu; eta, era berean, kristauak be maite izaten ditu berari gorroto dautsoenak (33).

(26) Kristo'rentzat iltea, antxiñakoentzat bizi izatea zan. Cfr. Ifazio: *Rom.*, 6, 2; Cfr. Mat. 10, 39; Filip., 1, 17-24.

(27) Kor. 2.^a, 6, 10.

(28) Kor. 1.^a, 4, 12.

(29) Poz au, fedearen onoinena da. Cfr. Mat. 5, 11-12.

(30) Cfr. Mat. 5, 13-14.

(31) Cfr. Yon, 2, 12 eta urreng.

(32) Cfr. Yon, 17, 11, 14, 16. Justino: I *Apol.*, 6; Rom. 12, 1.

(33) Cfr. Gal. 5, 17; Yon, 15, 18, 9; Cfr. Mat. 5 44.

(*) Geren: deshona.

(*) Ertsita: encerrado.

7. (Arim(e)a gorputzean ertsita dago, baiña berak eusten dautso gorputzari; era berean, kristauak be atxillotuta dagoz munduan, espetxean lez, baiña eurak eusten dautsoe munduari (34).

8. Arima illezkorra bizitoki ilkorrean bizi da; era berean, kristauak be bizitoki ustelkorretan bizi dira bidez, ezilkortasuna zeruetan artuko dabela itxaroten daben artean (35).

9. Arim(e)a edertu egiten da janari ta edariaz txarto darabillenean (36); era berean, kristauak be egun oro eriotzaz zigortuta, geroago ta geiago ugaritzen dira (37).

10. Orixe da Jaungoikoak kristauai izentatu dautsen eginkizuna, eta ez dauke aldatzeko eskubiderik.

VII. *Kristautasunaren jaungoikozko azterrena*.—Izan be, esan dogunez, ez yaken emon kristauai giza-asmakuntza bat; ez dabe nai giza-bururapenen bat ain arduratsu beteterik, giza-misterioen ardurarik be ez yake emon (38).

2. Ez; benetan guztiaalduna, izadiaren Egille ta Jaungoiko ikus-eziña dan Arek, Berak jatsieraso eban zeruetatik bere Egia ta Itz santu ta uler-eziña, eta gizonakan jarri ta euron biotzetan sendotu eban. Ez eutsen bialdu gizonai serbitzariren bat —norbaitek pentzatu aal izango leukenez—, edo lurreko gauzak zuzentzen dauzanetariko aingeru edo nagusiren bat, edo zeruetako gauzen ardur(e)a dabenetarikoren bat, izadiaren Ertilari ta Egillea bera baiño; Beronegaitik sortu ebazan zeruak, Beronegaitik sartu eban itsasoa beronen mugetan; Beronen misterioa zintzoro gordeten dabe izadiko indar guztiak; Beronen eskuz artu ebazan eguzkiak beronen egun-ibilbidean gorde bear dituan negurriak; Beroni egiten dautso esana illargiak, gabez argi egiten dauanean; Beroni egiten dautsoe esana izarrak be, euron ibilbidean illargiari lagun egiten dautsoenean; Beronek eratu, erabagi ta menperatu dau dana (39): zeruak eta bertan dagoan guztia; lurra ta lurrean dagoan guztia; itsasoa ta bertan dagoan guztia; sua, eguratsa, lezak, goietan dagoana, sakonetan dagoana, erdian dagoana; Berau bialdu eutsen gizonai!

3. Eta, zegaitik? Indarkeria ta bildu-ikar(e)a sarrerazoteko, norbaitek susmatu aal izango leukenez?

(34) Cfr. Justino: II *Apol.*, 7.

(35) Cfr. Sap. 9, 15; Kor. 2.^a, 5, 1; Pedr. 1.^a, 1, 23, 24.

(36) Barauak indartu egiten ditu espiritu-onoimenak.

(37) «Kristauen odola azia da», Tertuliano'k esan ebanez: *Apol.*, 50.

(38) Kristautasuna ez da filosofia bat, ez teosofia bat, «Jaungoikoaren jakituria misterioetan» baiño: Cfr. Kor. 1.^a, 2, 6 eta urreng., eta 3, 18 eta urreng.

(39) Cfr. Kor. 1.^a, 15, 27; Ef. 1, 22; Filip. 3, 21; Ebert. 2, 8.

4. Ez orixe! Biotz onez eta errukiz bialdu eban, errege batek bere errege-semea bialtzen dauanez; Jaungoiko lez bialdu euskun, gizonai gizon lez bialdu eutsen (40), geu salbatzeko bialdu eban (41); sinistu-erazoteko, baiña indarrez beartzeko ez, Jaungoikoagan indarkeririk ez dago-ta (42).

5. Dei egiteko bialdu eban, zigortzeko ez; maitatzaille lez bialdu eban, auzi-ebazle lez ez.

6. Egunen baten, bai, auzi-ebazle lez bialduko dau. Eta orduan, nok egingo dautso gogor Aren etorrerari? (43).

7. *Martiriak, kristautasunaren jaungoikotasunaren autorle*.—Ez al-dozu ikusten zelan diran jaurtiak kristauak pistiakana, Jauna ukatu dagien, eta zelan diran garaitu-eziñak*?

8. Ez al-dozu ikusten, kristauak eriotzaz zigortuarren, beste geiago ugaritzen dirana?

9. Orrek ez dirudi giza-egintza; ori, Jaungoikoaren indarrari dagokio; ori, Jaungoikoaren erakutsiaren ezaugarriak dira (44).

VIII. *Jaungoikoa Gizakundearen bidez agertu yakun*.—Izan be, gizonen artean nok ekian ezertxo be Jaungoikoa zer izan zeitekean, Bera etorri baiño leen? (45).

2. Ala, filosofoen itzaldi uts eta kirtenak onartuko ete-dozuz (46), gizon sinisgarriak izanarren be? Oneitariko batzuek, Jaungoikoa sua zala esan eben —eurak joango diran lekuari deritzoe Jaungoiko—; beste batzuek, ura zala; beste batzuek, Jaungoikoak egin ebazanetariko edozein indar.

3. Baiña, eritzi oneitarikoren bat onartua izango ba'litz, egindako beste edozer be Jaungoiko dala esan aal izango litzake.

4. Baiña guzti ori azti-marrokeri ta azpikeria baiño ez da.

5. Izan be, ez dau gizonak ikusi ez ezagutu Jaungoikoa, Bera izan zan agiri izan zana, ostera.

6. Eta fedearen bidez agiri izan zan, Jaungoikoa fedearen bidez bakarrik ikusi daiteke-ta (47).

(40) Cfr. Mat. 21, 5; Zak. 9, 9.

(41) Cfr. Is. 19, 20; Lactancio: *Div. Instit.*, IV, 24-25.

(42) Ireneo: *Adv. Haer.*, IV, 37.

(43) Malak. 3, 2.

(44) Cfr. Justino: II *Apol.*, 10; Orienes: *De princ.*, IV, 2.

(45) Cfr. Arnobio: *Adv. nat.*, II, 73.

(46) Iñazio: *Filad.*, 2, 2.

(47) Rom. 3, 25; Ef. 3, 27.

(*) Garaitu-eziñak: invencibles.

7. Izan be, Jaungoiko Jauna guztiz Bikaiña ta izadiaren Egillea, gauza guztiak egin eta era egokiz eratu ebazana, gizonak maitatu bakarrik ez, baita biotz-zabala be izan zan.

8. Eta beti izan zan, da eta izango da arela: biozpera ta ona, otzana ta egitia; geiago oraindiño: Bera bakarrik da ona (48).

9. Asmo andi ta ezin-esan alako bat sortuta gero, bere Semeari bakarrik jakiñerazo eutsan.

10. Eta bere erabagi jakintsua isilpean gordeten eban artean, ez ebalu gure ardurarik eta bertan-beera izten genduzala zirudian.

11. Baiña, bere Seme maitearen bidez agiri izan zanean eta leenengotik gertuta eukana agertu euskunean, dana batera emon euskun: bere ondasunetan eskuartzea eta bere misterioak ikustea ta ulertzea (49). Guretariko nok itxarongo eban iñoiz be alako eskuzabaltasunik?

IX. *Jaungoikoaren asmo betikorrak.*—Jaungoikoak bere adimenean bere Semeagaz batera dana erabagita gero, Salbatzaillearen etorrera-aurreko aldirarte, geure naitara, gu geure bultzakada negurribageak erooten laketu eban (50), gu atsegiñak eta griña txarrak tatarras erooten genduezala (51). Eta ez, gero, Bera gure pekatuakaitik poztu egiten zalako, gure pekatuak jasan (eroan) egiten ebalako baiño. Ezta Jaungoikoak gaiztakeri-aldi a ontzat artzen ebalako be, zuzentasun-aldi a atontzen ziardualako baiño: aldi aretan gure egintzakaitik bi-ziaren duin ez gintzazala jabetuta*, orain Jaungoikoaren errukiz bi-ziaren duin egiñak izan gendizan; eta gure indarrez Jaungoikoaren erreñuan ezin sartu gein-tekezala argi geratu zeitenean, an sartzea orain Jaungoikoaren indarrez emon ekigun.

2. Eta gure gaiztakeria bete-betea izatera eldu zanean eta itxaron geinkean aren sari bakarra zigorra ta eriotza zala agiri-agiriko egin zanean, eta Jaungoikoaren errukia ta aal-izatea agertzeko, Berak erabagitako aldia elduta —Jaungoikoaren biozperatasun eta maitasun ezin-esan alakoa!—, ez genduzan iguin-du, ez genduzan Beragandik jaurti, ez ebazan ekarri gogotara gure iraiñak, bes-tetara baiño: biozpera agertu yakun, gu ondo artu eta erruki izan yakun; Berak artu ebazan bere gaiñean gure pekatuak; Berak emon eban bere Semea gu eros-teko ordaintzat (52); Santua pekatariakaitik, Errubagea gaiztoakaitik, Zuzena zuzenbageakaitik (53), Ustel-eziña ustelkorraitik, Il-eziña ilkorraitik.

(48) Cfr. Mat. 19, 17; Justino: I *Apol.*, 16.

(49) Cfr. Rom. 16, 25; Kor. 1.^a, 2, 7-10; Gal. 4, 4; 3, 4-10; Kol. 1, 26.

(50) Cfr. Rom. 3, 21-26.

(51) Tito, 3, 3.

(52) Cfr. Rom. 8, 32; Ef. 1, 7; Tim. 1.^a, 2, 6.

(53) Cfr. Pedr. 1.^a, 3, 18.

(*) Erakuñsi: presencia. — (*) Jabetuta: persuadidos.

3. Izan be, zek estaldu legikezan gure pekatuak, Aren zuzentasunak estaldu ezik?

4. Zein bestegan izan gein-tekezan zintzotuak gu, gaizto ta dongok, Jaungoikoaren Seme bakerragan izan ezik?

5. Ori bai trukatzeko gozoa! Ori bai egintza ulertzeiña! Orreik bai ondasun ustebageak! Askoren gaiztakeria zintzo bakar bategan ostendua izatea eta gizon zintzo bakar baten zuzentasunak ainbeste gaizto zintzotzea!

6. Beraz, bizia lortzeko gure izadiak eban eziña Jaungoikoak leengo aldietan adierazota gero, orain Salbatzaillea erakutsi dausku, eta Onek salbatzeko gai ez diranak be salbatu egin daitez. Eta alan, alde biotatik bere ondasunean fedea izan gengiala nai izan eban, eta geure janari-emoille, aita, irakasle, onulari (aolkulari), osagille, adimen, argi, ospe, aintza, indar eta bizi lez artu gengiala Bera, eta ez genduzala jantziar eta janariar arduratu (54).

X. *Goi-maitasuna, kristautasunaren mamiña.*—Zeuk be fede au lortu gura ba' dozu, batez be Aitaren ezaguera artzen egin bear dozuz aalegiñak (55).

2. Izan be, Jaungoikoak gizona maite izan eban (56); eurakaitik egin eban mundua, eta euren menpean itzi eban lurrean dagoan guztia; sena ta adimena emon eutsen; eurai soillik laketu eutsen Beraganuntz begiratzea; bere iruditara eratu ebazan. Eurai bialdu eutsen bere Seme Bakarra (57), arei zeruko erreñua-aren agintzaria egiñik, eta emon be Bera maite dabenai emongo dautse.

3. Orain, Aita Jaungoikoa ezagututa gero, ze pozek uste dozu beteko zaituala? Edo, zelan izango dozu maite leen zu orren maite izan zenduzan A?

4. Gero, A maite izaten asi zaitezanean, Aren ontasunaren jarraitzaille (edo antzeko) izango zara. Eta ez zaitez arritu gizona Jaungoikoaren antzeko izatera eldu daitekela-ta. Eldu daiteke, bai, Jaungoikoak nai izanik.

5. Izan be, zoriona ez dago geure lagun-urkoa menperatzean, ezta makale-nak diranen gaiñean egon nai izatean be, ezta aberats izatean eta beartsuai indar-egitean be. Orretan iñor be ezin izan daiteke Jaungoikoaren antzeko, guzti ori Aren anditasunari ez dagokio-ta.

6. Lagun-urkoaren sorta bere gain artzen dauana; bera geiago dan gaietan bera baiño beeragokoari mesede egin nai dautsana; Jaungoikoagandik artu ebana beartsuai emoten dautsena eta mesedea artzen dabenai Jaungoiko-ordezkoa egi-ten dautsena, orixe da Jaungoikoaren egiatzko antzeko (58).

7. Orduantxe ikusiko dozu, lurrean bizi izanik, Jaungoikoak zeruan agintzen dauana; orduantxe asiko zara Jaungoikoaren misterioak esaten; orduantxe mai-

(54) Mat. 6, 25, 31.

(55) Cfr. Yon, 17, 24 ta urreng.

(56) Yon, 3, 16; Yon'en 1.^a, 4, 9.

(57) Cfr. Yon'en 1.^a, 4, 9.

(58) Cfr. Ef. 6, 9; Kol. 4, 1.

te izango ta ederretsiko dozuz Jaungoikoa ukatu nai ez dabelako zigortuak diranak; orduantxe ezetsiko dozuz munduaren maltzurkeri ta utsegiñak; zeruko egiazko bizitza ezagutu dagizunean, euren eriotza dirudian bizitza ezagutu dagizunean, benetan eriotza dan bizitzari bildur izan dagiozunean; azken au, betiko sutarako galdutakoentzat dago gordeta, eta su orrek beti ta beti oiñazetuko ditu bertara jaurtitakoak.

8. Su ori ezagutu dagizunean, ederretsi ta zorionsutzat artuko dozuz zuzentasunagaitik unetxo bateko beste su au jasaten (sufritzen) dabenak.

XI. *Azkena* (59).—Ez dot itz egiten eritzi nabarmenai buruz, arakatz zentzunbageen billa be ez nabil. Apostoluen ikasle izan nazan ezkerro, jentillen irakaski biurtu naz, eta emon izan yatana egiaren duin egin diranai emon baiño ez dot egiten.

2. Izan be, irakatsia artez artu dauanak eta Itzaren (60) adiskide egin danak, Itzak bere ikasleai argiro agertu eutsena zentzunez ikasteko aalegiñak egiten ditu. Itza eurai agertu ta agiri izan yaken, arei zabal-zabal itz egiñik. Sinisgogorak ez eben Itza ulertu. Bere ikasleakaz egiten eban itz; eta ikasle zintzotzat artu ebanak, Aitaren misterioak ezagutu ebezan.

3. Orrexegaitik bialdu eban Jaungoikoak Itza, bere burua munduari agertzeko (61); Itza, barriz, judar-erriak ezetsia, Apostoluak iragarria, jentillak sinistu eben (62).

4. Itza asierarik ba-zan, barri lez agertu zan eta zaar aurkitua izan zan, eta gazte jaioten da barriro santuen biotzetan (63).

5. Beti izan da gaur Seme lez autortua dan Au. Beronen bidez aberasten da Eliz(e)a eta salbatzen eta ugaritzen da grazia santuakan, adimena emonik, misterioak argiturik, aldiak iragarrik, fededunakan pozturik, billa dabizana, fedearen ziñak austen ez dabezana eta Gurasoak izentatutako mugak igaroten ez dabezana emonik (64).

6. Gero, legearen bildurra abesten da, profeten grazia onartu egiten da, Ebanjelioen fedea sendotu egiten da, Apostoluen tradiziñoa gorde egiten da eta Elizaren grazia pozez saltoka asten da.

7. Grazi au iraintzen ez ba'dozu, Itzak nai dauzanan bidez eta Berak nai dauanean itz egiten dauana ezagutuko dozu.

(59) Ementxe amaitzen da *Diogneto'ri Eskutitza*. XI ta XII'garren atalak, katukumenentzat egindako antxiñako homiliaren baten amaiera da, urrean.

(60) Itza: Jesukristo.

(61) Yon, 1, 9.

(62) Auxe da Bernabe'ren idazkiaren mamiña.

(63) Cfr. Tim. 1.^a, 5, 6; Yon'en 1.^a, 1, 1; 2, 13-14.

(64) Cfr. Ps. 2, 7; Mat. 3, 17. «*Gurasoak izentatutako mugak*»: cfr. Deut. 19, 14; Prov. 22, 28.

8. Izan be, Itzaren naiak eraginda, arduraz azaldu dautsueguzan gaiak, agertu daskun guztiaren maitasunagaitik jakiñerazo dautsueguz.

XII. Adi-adi entzundako egi onein jabe garala, Jaungoikoa zintzoro maitatzen dabenai Berak emoten dautsezan ondasunak ezagutuko dozuez; ondasunok, atsegin-paradisuz lez biurtzen dira (65), edozetariko frutu ta kimu dakarren zugatz lez, eurakan azirik eta frutu ugariz apainguda.

2. Izan be, toki onetan jakintzaren zugatza ta biziaren zugatza izan zan lurrean jarria (66); baiña ez da jakintzaren zugatza ilten dauana, biurrikeria baiño.

3. Izan be, argi dago idatzita, Jaungoikoak, leenen, paradisu-erdian jakintzaren zugatza (67) eta biziaren zugatza jarri ebazala; bizitza jakintzaren bidez adierazorik; baiña, jakintza leenengo gizonak asmo garbiz erabili ez eben ezkerro, billoizik geratu ziran sugearen maltzurkeriaz.

4. Izan be, ez dago bizitzarik jakintza bagarik, ezta jakintza zigurrik be egiazko bizitza bagarik; orrexegaitik izan ziran jarriak zugatz biak alkarren ondoan.

5. Apostoluak zugatz bion zentzuna ulerturik eta bizitzari buruz egiaren agindurik бага ekiten yakon jakintzari arpegia emonik, auxe diño: *Jakintzak puztu egiten dau, eta maitasunak eragin* (68).

6. Bizitzak autor egiten dautsan egiazko jakintza bagarik, zerbait ba-dakiala uste dauanak, ezer be ez daki; sugeak iruzur egiten dautso, bizia ez dau maite izan-eta. Baiña, bildurraren bidez jakintzara eldu danak eta gaiñera bizia billatzen dauanak, orrexek landatzen dau itxaropenean eta itxaroten dau frutua.

7. Jakintza izan beite zure biotza; bizia, egoki ulertutako egiazko Itza (69).

8. Zugatz au ba'daroazu eta beronen frutuak ugari ba'dakazuz, Jaungoikoaren aurrean opagarri dana batuko dozu beti; frutu ori ez dau sugeak ikutzen eta maltzurkeriak be ez dau zikintzen; Eba be ez da usteldua izaten, birjiñatzat artua baiño;

9. salbamera agiri da; Apostoluak jakitun biurtzen dira; Jaunaren Pazkoa gaiñera dator; aldiak batu egiten dira; gauza guztiak egoki erutzen dira eta santuai irakatsia emoten dautsen Itza poztu egiten da; Beronegaitik da goratua Aita.

Berari aintza gizaldietan. Amen.

(65) Gen. 2, 15.

(66) Gen. 2, 9.

(67) Edo bardin dana: egiazko jakintzaren bidez (*gnosis*), Jaungoikoak leenengo gurasoai egiazko bizitza agertu eutsen.

(68) Kor. 1.^a, 8, 1.

(69) Edo bardin dana: egon bedi zabalik zure biotza «egiazko Itza» artzeko, ots, egiaren itza, eta aregaz, bizitza.



KRONOLOJIA

14-37, *Tiberio*
32-33
33-36
37-41, *Kaligula*
41-54, *Klaudio*
42/43/44

44
47/49/50
49
50/52
59 (edo 50/51)
53/58
54-68, *Neron*
58
59-64
58/60
60-61
61
61-63

63-64
64/67

67
69-79, *Bespasiano*

69
70

79-81, *Tito*
80

81-96, *Domiziano*

93-98, *Nerba*

98-117, *Trajano*

Esteban'en odol-eriotza.
Paulo'ren onbideratzea.

Santiago Nagusiaren odol-eriotza.
Apostoluak alde egiten dabe Jerusalem'dik.
Erodes'en eriotza.
Apostoluen Batzar Nagusia Jerusalem'en.
Mateo'ren Ebanjelioa arameoz.
Tesalonika'koai egindako idazkia.
Klaudio'k jaurti egiten ditu judarrak Erroma'tik.
Korinto'koai eta Galazia'koai egindako idazkiak.

Erroma'koai egindako idazkia.
Paulo'ren «Gotzain-idazkiak».
Santiago'ren idazkia.
Santiago Txikia arrika ilten dabe Jerusalem'en.
Paulo Erroma'ra eltzen da.
Paulo espetxean.
«Espetxe-aldiko» idazkiak: Kolosas'koai, Efeso'koai, Filemon'i beardaba, Filipos'koai.
Paulo, espetxetik kanpo. Bearbada, España'ra doa.
Pedro'ren odol-eriotza Erroma'n.
Judarrak erromarren aurka jagiten dira.
Pedro'ren 1.º idazkia eta Markos'en Ebanjelioa (64'garren urtean-edo).
Timoteo'ri eta Tito'ri egindako 1.º idazkia (65'garren urtean-edo).
Ebertarrai idazkia eta Timoteo'ri 2.ª.
Mateo'ren eta Lukas'en Ebanjelioak eta «Apostoluen Egiñak» (67'garren urtean-edo).
Paulo'ren odol-eriotza.

(64)-76 *Lino, Erroma'ko gotzain.*

Polikarpo'ren jaiotza.
Tito'k Jerusalem inguratu eta ondatu egiten dau.
Judas'en idazkia eta Pedro'ren 2.ª.
76-88 *Anakleto, Erroma'ko gotzain.*

Apostoluen Siniskuntzaren leenengo atalak.
Didaje, leenengo eraz.


88-97(?) *Klemente, Erroma'ko gotzain.*
Yon'en Apokalipsis edo Agerpena.
Klemente'k Korinto'koai egindako idazkia.

97-105 *Ebaristo, Erroma'ko gotzain.*

Yon'en Ebanjelioa eta iru idazkiak.

- 100 Yon Apostoluaren eriotza.
107-117 Antiokia'ko Inazio'ren idazkiak.
Polikarpo'k Filipos'koai egindako idazkia.
105-115 *Alexander, Erroma'ko gotzain.*
- 111 Plinio'ren eta Trajano'ren arteko eskutitzak kristautasuna dala-ta.
115-125 *Sixto, Erroma'ko gotzain.*
- 117 Judarrak erromarren aurka jagiten dira Siria'n, Ejipto'n, Zirenaika'n eta Txipre'n.
- 117-138, *Adriano*
117/130 Bernabe'ren idazkia.
125 Efeso'ko Polikrates'en jaiotza.
125/6 Kuadrato'ren idatz-atala.
117-140 Hermas'en Artzaiña.
125-130 Florino'ren jaiotza (cfr. Ireneo).
125-136 *Telesforo, Erroma'ko gotzain.*
- 130 (145?) Papias'ek jaunaren esakunak izenekoa idazten dau.
132-135 Barkojba'ren matxiñada.
133 Justino martiriaren onbideratzea.
133/4 Basilides gnostikoaren ekiñaldia Alexandria'n.
135 (?) Ireneo'ren jaiotza.
136-140 *Ijino, Erroma'ko gotzain.*
- 136 (?) Zerdon eta Balentino Erroma'ra datoz.
138/9 Marzion Erroma'ra dator.
- 139-161, *Antonino Pio*
138/147 Aristides'en Apolojia.
14c Pella'ko Ariston'en Alkarrizketa (138-170).
Hermas'en Artzaiña'ren azken-idazketa.
140-155 *Pio, Erroma'ko gotzain.*
- 141 Justino'ren ekiñaldia kristau-maisu lez.
142/4 Eliza erromarrak jaurti egiten dau Marzion Elizatik.
144 Marzion'ek bere eliza eratzen dau.
150/160 Ireneo'ren *Presbyteros* (itzez-itz, *Zaarrak*: Elizako buruak.
Justino'ren Apolojiak (152-153); Bardy'ren eritiziz, 155-161).
Taziano'ren otoitza elendarrak.
155-166 (?) *Anizeto, Erroma'ko gotzain.*
- 155 (154?) Polikarpo'k Anizeto'ri egin eutsan ikustaldia Erroma'n.
155/6 Polikarpo'ren odol-eriotza, eta gerotxoago beronen Martiri-agiria.
155/6 Justino'ren *Alkarrizketa.*
- 157 Ireneo'ren (ala, Justino'ren?) *Nagusia.*
Ardabau'n (Frijia'n) Montano agertzen da; Priszila ta Maximila batzen yakoz. Elizatik jaurtiak dira, eta euren elizak sortzen dabez Pepuza'n eta Thymion'en.
- 161-180, *Marko Aurelio.*
165 (163/167) Justino'ren odol-eriotza.
166-174/5 *Sotero, Erroma'ko gotzain.*
Klemente'ren bigarren idazkia.
- 169 (161/169) Milziades'en Apolojia.
Meliton'ek bere Apolojia idazten dau (172?).
Korinto'ko Dionisio'k idazki batzuk egiten dauz.
Diogneto'ri Eskutitza.
Ipolito'ren jaiotza.
Hierapolis'ko Apolinar'en Apolojia, Marko Aurelio'ri zuzendua.

- Taziano'k Elizatik banandu, barriro Siria'ra joan eta bere *Diatessaron* idazten dau, baita beste idazlan batzuk be jentillen, judarren eta Montano'ren aurka.
174-189 *Eleuterio, Erroma'ko gotzain.*
- 175 Montano'ren eriotza.
176/178 Atenagoras'ek bere *Eskaria* idazten dau kristauen alde.
177/8 Lyon'go Fotino'ren odol-eriotza. Ireneo Erroma'ra dator, Eleuterio'ri burubidea eskatzera. Onek (ala Biktor'ek?) *montanismoa* ezetsi egiten dau.
179 Maximila'ren eriotza.
170/190 *Muratori Idatz-atala.*
180 Meliton'en eta Apolinar'en eriotza.
180-192, *Kommodo*
181/190
- 190 (?) Antiokia'ko Teofilo bere *Ad Autolyicum* liburua idazten dau.
197 Lyon'go Ireneo'k zifauskerien aurkako bere lana idazten dau.
199 (?) Minuzio Felix'en *Octavio.*
Tertuliano'ren *Apologeticus.*
Apolonio'ren lanak Montano'ren aurka.
Kaio'ren idazlanak gnostikoen aurka.



AURKIBIDEA

Apostoluen Siniskuntza	9
Didaje edo Amabi Apostoluen Irakaspena	13
Erroma'ko Klemente Santuak Korinto'koai egindako Leenengo Idazkia ...	29
Erroma'ko Klemente Santuak Korinto'koai egindako Bigarren Idazkia ...	71
Antiokia'ko Iñazio Santuaren Idazkiak	83
Antiokia'ko Iñazio Santuaren Martiri-agiria	117
Polikarpo Santuak Filipos'koai egindako Idazkia	123
Polikarpo Santuaren Martiri-agiria	131
Bernabe'ren Idazkia	141
Kuadrato'ren Idatz-atala	169
Hierapolis'ko Papias'en Idatz-atalak	171
Hermas'en Artzaiña	181
Diogneto'ri Eskutitza	277
Kronolojia	289

LABAYRU-IKASTERIA
BIBLIOTEKA - BERRIO
Sarr 13.393/87
Gaia.
Tokia.

KEREXETA'REN BESTE ZERBAIT

1. **ORBELAK** (1958) (Agortuta).
2. **BITARGI** (1960) (Agortuta).
3. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA** (lau Ebanjelioak alkartuta: (1960-1961) (Agortuta).
4. **APOSTOLUEN EGINAK** (1961) (Agortuta).
5. **EGUNEROKO MEZA** (Missale Romanum: 1963) (Agortuta).
6. **GOGARTEAK** (Aita Basabe-Kerexeta: 1963).
7. **DIDAJE** eta **APOSTOLUEN SINISKITZA** (1965) (Agortuta).
8. **APOSTOLUEN EGINAK ETA IDAZKIAK** (Novum Testamentum: 1955) (Agortuta).
9. **ALKARTASUN BARRIKO ITZAK ETA GAIK** (1965) (Agortuta).
10. **ARGI-BIDE TXIKIA** (Zugasti-Kerexeta: 1965).
11. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BERRI ONA** (lau Ebanjelioak alkartuta, gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1966) (Agortuta).
12. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (lau Ebanjelioak: 1966) (Agortuta).
13. **ITUN BERRIA:** (Novum Testamentum, osorik, gipuzkeraz: Orixe-Kerexeta-Zugasti: 1967; 2'garren argitarapena: 1974).
14. **SALMUTEGIA** (1967).
15. **SALMUDIA** (Gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1968).
16. **UMEEN BIBLIA** (1969); 2'garren argitarapena: 1974).
17. **UMEEN BIBLIA** (Gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1969) (Agortuta).
18. **DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO VASCO** (oinco volúmenes: 1970-1971-1972 y 1974).
23. **GURE SALBAZINO-EGINTZA** (Alkartasun Barria: Asceç-PPC'na: 1972).
24. **ALKARTASUN BARRIA** (Novum Testamentum, osorik; 2'garren argitarapena: 1972).
25. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (2'garren argitarapena; euskeraz eta erderaz: 1973).
26. **EBANJELIO ALKARTUAK** (1973).
27. **KRISTAU-IKASBIDEA** (4'garrena) (1974).
28. **ELIZ-GURASO APOSTOLIKUAK** (Padres Apostólicos).
29. **IPARRAGIRRE'REN BIZITZA TA LANAK** (Kastresana'tar Luis'en liburuaren itzulpena): irarkolan.

Zuzenbide onetara egin zure eskabideak:
LIBRERIA DIOCESANA.
 Henao, 5, 3.º **Bilbao** (9).

Edo-ta

JAIME KEREXETA (Pbro.)
 San Roque, 16. Tel. 820012.
Elorrio (Bizkaia).